

urteko txostenak

Eusko Legebiltzararentzako urteko txostena 2013

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

www.ararteko.net

The image features a large, stylized graphic on the right side, resembling a drop or a teardrop shape. The top part of this shape is white, and the bottom part is a vibrant red. To the left of this graphic, there are several overlapping, curved shapes in various shades of green, creating a sense of depth and movement. The background is a mix of white and dark green.

**urteko
txostenak**

**Eusko
Legebiltzarrarentzako
urteko
txostena**

2013

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Vitoria-Gasteiz 2014

Lan hau Creative Commons-en Attribution 3.0 Unported lizentziapean dago



Lizentziaren kopia bat ikusteko,

- sartu hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/>
- edo gutun bat bidali helbide honetara: Creative Commons, 171 Second Street, Suite 300, San Francisco, California, 94105, USA.

Euskadi. Arartekoa

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2013 [Baliabide elektronikoa] / Ararteko. – Vitoria-Gasteiz : Ararteko, 2014

Lineako baliabidea (347 or.). – (Urteko txostenak)

Sartzeko modua: [World Wide Web](#)

ISSN 2255-4939

1. Euskadi. Arartekoa 2. Jarduerari buruzko txostena 3. Giza eskubideak

351.941(460.15)“2013”(060.55)

Formatuak eta edizioak:

Paperean, CD-ROMean, [RTF](#) eta [XML](#) formatuetan ere bai

Gaztelaniazko edizioa: [Informe anual al Parlamento Vasco 2013](#)

Dibulgaziozko edizioa: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2013. Laburpena](#)

Bereizitako liburukian argitaratua: [Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena 2013](#)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

- [web](#) gunean
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Multimedia: UTE MANIPULADOS - EPS

ISSN 2255-4939

A stylized graphic featuring a large white shape on a dark background. The white shape has a red teardrop-like element on its right side. The background is composed of green and black wavy bands.

aurkihidea

Aurkibidea

Aurkezpena		15
Atala		
I.	Ararteko erakundearen jarduera kopurutan	17
II.	Euskal Herriko administrazio publikoen jarduera ikuskatzea	43
III.	Arartekoaren jarduerak arreta publikoa behar duten taldeak babesteko	173
IV.	Arartekoaren beste tresna batzuk administrazio ona izateko eskubidea sustatzeko	291
V.	Gizartearekiko harremanak eta erakundeen arteko lankidetzarako jarduerak	301
VI.	Arartekoaren berrikuntza jarduerak	309
VII.	Arartekoaren gomendioak eta iradokizunak zenbateraino bete diren	317
Eranskinak	Eman diren ebazpenak	331
	Grafikoen eta taulen aurkibidea	339
	Arartekoaren argitalpenak	343

■ I. ATALA

Ararteko erakundearen jarduera kopurutan	17
1. Oharrak eta datu orokorrak	19
2. Arreta zuzeneko bulegoen jarduera (aurrez aurreko kexak eta telefono bidezko aholkuak)	21
3. Erregistratutako kexa idatziak	22
4. Estatistika alorrez alor	23
5. Estatistika eragindako administrazioen arabera	24
A) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteak	25
B) Foru administrazioen aurka bideratutako espedienteak	26
C) Tokiko administrazioen aurka bideratutako espedienteak	27
D) Euskal Herriko Unibertsitatearen aurka bideratutako kexa-espedienteak	27
6. Lurralde estatistika (kexa idatzien banaketa lurraldeen arabera)	28
7. Prozedurari buruzko estatistika (kexa-espedienteen egoera)	29
8. Ofiziozko jarduerak	30
9. Estatistika soziologikoa. Kexagileen tipologia eta kexen formatua	31
10. Erabiltzaileen iritzia	33
10.1. Erabiltzaileei egindako inkestaren emaitzak	33
10.2. Ararteko erakundearen zerbitzu-kartaren web inprimakiaren bitartez jasotako IRADOKIZUNAK	35
11. Informatzeko betebeharrak	36
11.1. 2013an kexak izanda ere, errekerimendurik jaso ez duten administrazioak eta bestelako organismoak	36
A) Eusko Jaurlaritza	37
B) Foru aldundiak	37
C) Udalak	37
D) Beste erakunde publiko batzuk	38

11.2. Kexak direla-eta, 2013an errekerimenduren bat jaso duten administrazioak eta bestelako organismoak	38
A) Eusko Jaurlaritza.....	38
B) Foru aldundiak.....	39
C) Udalak.....	39
D) Beste erakunde publiko batzuk.....	40
11.3. Arartekoak 2013. urtean egindako ohartarazpenen zerrenda	40
A) Eusko Jaurlaritza.....	40
B) Foru aldundiak.....	40
C) Udalak.....	41

■ II. ATALA

Euskal Herriko administrazio publikoen jarduera ikuskatzea	43
1. Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola.....	47
2. Hezkuntza	55
3. Ogasuna	63
4. Segurtasuna.....	71
5. Justizia.....	79
6. Ingurumena.....	89
7. Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	101
8. Jarduera ekonomikoaren antolamendua.....	109
9. Herri-administrazioen zerbitzuko langileak.....	117
10. Animaliak babestea eta edukitzea.....	125
11. Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak.....	129
12. Osasuna	137
13. Informatzeko eta ezagutzeko teknologiak eta datuak babestea	145
14. Lana eta Gizarte Segurantza.....	153
15. Hirigintza eta lurralde antolamendua.....	159
16. Etxebizitza.....	165

■ III. ATALA

Arartekoaren jarduerak arreta publikoa behar duten taldeak babesteko	173
1. Familiak.....	177
2. Emakumeen berdintasuna eta osotasuna.....	185
3. Ezintasunen bat duten pertsonak.....	193
4. Gaixo kronikoak	211
5. Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonak.....	221
6. Espetxeratuak.....	231
7. Gizarteratzea	241
8. Ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk.....	251
9. Etorrinak.....	257
10. Lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta transexualak.....	265
11. Adinekoak eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak.....	273
12. Talde terroristen biktimak.....	285

■ IV. ATALA

Arartekoaren beste tresna batzuk administrazio ona izateko eskubidea sustatzeko	291
1. Gomendio orokorrak	294
1.1. Arartekoaren 1/2013 Gomendio Orokorra, urtarrilaren 18koa Deribazio judizialaren bidez familia elkarguneen erregulazioa eta funtzionamendua.....	294
1.2. Arartekoaren 2/2013 Gomendio Orokorra, otsailaren 5koa Arkitektura-oztopoak dituzten egoitza-erakin kolektiboetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko beharra, bereziki igogailuak instalatuta.....	294
1.3. Arartekoaren 3/2013 Gomendio Orokorra, otsailaren 15koa Buruko osasun arazoak dituzten pertsonak borondatearen kontrako ospitaleratze egoeran daudenean dituzten eskubideen aitortze eraginkorra bermatzeko neurriak hartzeko beharra.....	294
1.4. Arartekoaren 4/2013 Gomendio Orokorra, martxoaren 4koa Aldi baterako kontratazio-burtsak erregulatzeko dituzten arauetan, diskriminazio positiborako neurriak ezar daitezela, ezgaituak euren ezaugarrietarako egokiak diren lanpostuetara iritsi ahal izatea errazteko.....	294
1.5. Arartekoaren 5/2013 Gomendio Orokorra, ekainaren 17koa Bakarrik dauden adingabe/gazte etorkinen arretarako bermeak.....	294
1.6. Arartekoaren 6/2013 Gomendio Orokorra, ekainaren 27koa Berriz aztertu behar da jendearentzat zabalik dauden establezimendu pribatuetan sarrera ukatzeko eskubidea baliatzeari eta diskriminazioa debekatzeari buruzko araudia.....	295
1.7. Arartekoaren 7/2013 Gomendio Orokorra, abuztuaren 7koa Abokatu elkargoetako orientazio juridikoko zerbitzuek eta doako laguntza juridikoko lurralde batzordeek doako justiziaren onuraren eskatzaileen datu fiskalak eskuratu ahal izatea.....	295
1.8. Arartekoaren 8/2013 Gomendio Orokorra, irailaren 24koa Osasun Sistema Nazionalen aseguruak ez duten pertsonen osasun-arreta jasotzeko orduan alde zuzeneko erroldak eragiten dizkien mugak.....	295
1.9. Arartekoaren 9/2013 Gomendio Orokorra, azaroaren 5koa Dokumentazio klinikoa eskuratzeko eskubideak ebazterakoan oinarritzat hartzen diren irizpideak egokitzea.....	295
2. Azterlanak	295
Krisiaren eragina haurren: EAEko errealitatea.....	295
3. Txosten bereziak	296
3.1. E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea.....	296
3.2. 2013. urtean egiten ari diren txosten bereziak.....	297
4. Arartekoaren udako ikastaroak	297
5. Arartekoaren jardunaldiak	298
5.1. Jardunaldia: informazioa eskuratzeko eskubidea, herritarren eskubide gisa...	298
5.2. Eudelek eta Arartekoak antolatutako lan-jardunaldia, gazteen lonjen erabilera arautzeko udal jardueren gainean.....	299
6. Beste jarduerak batzuk	299
6.1. Arartekoaren Informazio-guneak egoitza publikoetan.....	299
6.2. Aldizkari digitala.....	299

■ V. ATALA

Gizartearekiko harremanak eta erakundeen arteko lankidetzarako jarduerak

	301
1. Gizarte erakundeekiko harremanak	303
1.1. 2013. urtean erakundearekin bilerak egin dituzten elkarteak eta taldeak	303
2. Giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeen inguruko jarduerak	304
2.1. Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXVIII. Jardunaldiak	304
2.2. Nazioarteko harremanak	305
3. Arartekoak sinatutako hitzarmenak	306
4. Beste jarduera batzuk: Arartekoaren eta haren ondokoaren jarduerarik esanguratsuenak, hitzaldiak emateari dagokionez, eta administrazioek eta gizarte erakundeek antolatutako ekitaldietan parte hartzeari dagokionez	307

■ VI. ATALA

Arartekoaren berrikuntza jarduerak

	309
1. Lankidetzaren proiektuak	312
2. Izaera estrategikoa eta antolakuntzazkoa	313
3. Izaera teknologikoa	313
4. Etengabeko hobekuntza/kalitatea/berritzea	313

■ VII. ATALA

Arartekoaren gomendioak eta iradokizunak zenbateraino bete diren

	317
1. Onartutako gomendioak eta iradokizunak	320
A) Eusko Jaurjaritza	320
B) Foru administrazioa	321
C) Tokiko administrazioa	321
D) Beste erakunde publiko batzuk	322
2. Onartu ez diren gomendioak eta iradokizunak	322
A) Eusko Jaurjaritza	322
B) Foru administrazioa	322
C) Tokiko administrazioa	323
3. Erabaki gabe dauden gomendioak eta iradokizunak	324
A) Eusko Jaurjaritza	324
B) Foru administrazioa	326
C) Tokiko administrazioa	327
D) Beste erakunde publiko batzuk	327

■ ERANSKINAK

Eman diren ebazpenak

Grafikoen eta taulen aurkibidea

Arartekoaren argitalpenak

	329
	331
	339
	343

Aurkezpena



Urtero bezala, atseginez aurkezten dut Arartekoaren urteko txostena. Oraingo honetan beste gertakari bat gehitu behar diogu: 2014. urtean bukatuko da erakundearen buruzagitzan jardun dudan bigarren agintaldi hau, Euskadiko pertsonen eskubideak babesteko Legebiltzarraren ordezkari bezala.

Txosten honetan aztergai dugun urtean, gure lanaren laburpena egiteaz gain, berriro nabarmendu behar dugu ekonomia- eta gizarte-krisi hau oso ondorio larriak izaten ari dela milaka familien egoeran eta, horregatik, txostenak konnotazio bereziak dauzkala. Konnotazio horiek bultzatzen gaituzte gure sineste demokratikoak birsortzeko premiaz mintzatzera, gizarte zintzoa errebindikatzera, norberaren eta taldearen etikari eta denon interes edo ongizateari balioa ematera, parentesi mingarri eta luze hau konponbidean jartzen ahalgintzeko tresna gisa. Krisia 2008an sortu zen eta egungo langabezia-tasa eta gizarte-murrizketa nabarmenak dira horren seinalerik argienak.

Gure erakundeak, aurten burututako lanean, ezin izan du bazter utzi egoera orokorra. Azpimarratzekoa da ikaragarri ugari direla herritarrekin zerikusia zuten Arartekoaren jarduerak, 12.507 izan baitira. Horrela, berriro gainezka egin digute herritarrek azaldu dituzten kexek (9.610) honelako oinarrizko gaietan: Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen ondorioz sortutako prestazio ekonomikoak, banketxeen aurkako erreklamazioak, udal tasak eta zergak, etxebizitza babestua alokatzea, bekak, erregistro zibila, hots kutsadura edo garrarioak, besteak beste. Ugaritze hori egiaztatzeko, 2010. urtera jo eta ordutik izandako hazkuntzari begiratu besterik ez daukagu: %93koa izan da, 3 urtean bakarrik.

Gure txostenean garrantzi berezia eman nahi izan diegu jarduera-datuei. Izan ere, gure gizartean eta euskal herri-administrazioetan dauden arazoaren argazki finkoa lortzen laguntzen digute eta, aldi berean, gure lanak bere anitz aldagaitan duen eraginaren ikuspegia ematen digute: administrazioaren, Arartekoarekin lankidetzan aritzen diren gizarte-erakundearen eta gure erakundeaz baliatzen diren herritarren ikuspegia. Azken horiek jasotzen dute zuzenean gure lanaren onura.

Informazioak herritarrak gaitzen eta aktibatzen dituela eta sozializazio-iturri dela ohartuta, Arartekoan informazio pila ematen ahalegindu gara gure web orriaren bitartez, eta horren adierazgarri dira aurten izan ditugun 110.298 bisita eta ikusi diren 280.558 orrialde. Horrela, gainera, baliabide publikoak kudeatzean gardentasun printzipioa betetzea eta herritarrek Arartekoarekiko dituzten eskubideak baliatzea erraztu dugu, zerbitzu karta berrituz eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta datu pertsonalak babesteari buruzko eskubideak erabiliz.

Lorpen azpimarragarriak egin dira eta, horien ondorioz, aldatetak burutu dira araudian eta euskal herri-administrazio askotako politika publikoetan. Horrekin batera, tamalez, nabarmendu behar dugu erakunde batzuek ez dietela Arartekoari lagundu edo, bestela esanda, ez dietela lagundu beraien arazoa konpontzen saiatzeko asmoz gugana jo duten pertsonari, ezin baita ahaztu laguntzarik ezak zuzenean eragiten duela Arartekoari esku hartzeko eskatu diotenen bizi-baldintzetan.

Era berean, zenbaitetan, administrazioei gogorarazi behar izan diegu arauak kasu zehatz bati aplikatzeak berekin dakarrela pertsona horren banakako egoera onartzea eta, oraingoa bezalako garai latzetan, ezinbestekoa dela arauak berriz interpretatzea eta ahalik eta erraztasunik handienak ematea, administrazioaren jardunbidean arau horien mamia gauzatu ahal izan dadin.

Krisiak, bere aurpegirik beltzenarekin batera –langabezia eta ohiko etxebizitza galtzea, beste zerbait ere jarri du age-rian: elkartasunaren eta duintasunaren balio gorena, gizarte-justizia nahi izatea. Herritarrek laguntzeko eta laguntzak emateko burutu dituzten ekimen ugaitan hezurmamitu da nahi hori.

Horregatik, aukera honetaz baliatuta, gizarte-erakundeen eta GKEen zeregin egituratzaile eta sostengatzailea aldarrikatu nahi dut. Izan ere, diru-laguntzen murrizketak direla-eta erakunde horietako asko ekonomikoki ahulduta dauden arren, beren eginkizuna biziki garrantzitsua dela jakinda, ahalegin izugarria egin dute beren burua inoiz ez bezala indartzeko, gizarteko inklusioaren, kohesioaren, ekitatearen eta justiziaren alde. Orobat, adineko pertsona askoren lan goresgarria azpimarratu nahi dut, bada, banaka beren fami- liekin edo gizarte-erakundeetako partaide gisa, gizalegearen, bidezko justiziaren, adonearen eta komunitate-arduraren ere- du bihurtu dira. Sekula ezingo diegu behar bezala eskertu beren isileko lan etengabea, gizarte bezala dugun izaerarik onenarekin lotzen gaituena.

Iñigo Lamarca Iturbe

ARARTEKOA



Ararteko erakundearen
jarduera
kopurutan

a t a l a

I. Atala

Ararteko erakundearen jarduera kopurutan

1.

Oharrak eta datu orokorrak

Estatistikazko kapitulu honetan barrena, Ararteko erakundearen jardueraren ikuspegi orokorra eskaintzen ahalegingduko gara, zifratan. Horrela, erakundeari bide ezberdinak erabiliz egin dizkioten kexei buruzko datuak bereiziko ditugu, baita zuzeneko arretarako hiru bulegoen jarduera ere, euskal herri-administrazio bakoitzari dagozkion kexen gaineko datuak bilduko ditugu, eta horiek lurraldeen arabera nola banatuta dauden eta prozeduraren zein fasetan dauden adieraziko dugu.

Era berean, euskal herri-administrazioak Arartekoarekin lan-kidetzan zenbateraino aritu diren jakiteko informazioa ematen da.

Kapitulu honetan beste atal bat sartu dugu, alegia, Arartekora etortzen diren pertsonen profilaria buruzkoa, baita inkestetan gure lanaz ematen diguten iritzia ere.

Laburbilduz, informazio sistematizatu horren bidez, kapitulu honetan 2013ko jarduerari buruzko informazio kuantitatibo guztia agertzen da.

Aurreko txostenean esan dugun bezala, Arartekoak garrantzizkotzat jotzen du jardueren kontzeptu zabalaren barruan bi alderdiok ikusaraztea: batetik, herritarren erreklamazioen esparruan egiten duen lana, hau da, kexak eta aholkularitza hainbat modalitatetan, eta, bestetik, bestelako jarduerak, politika publikoak ebaluatzeko egiten direnak, eta, beraz, Arartekoan eskuarki planteatzen diren kasu konkretuez harago doazenak.


Eremu horretan, hainbat tresna erabiltzen dira, denak ere Arartekoaren lan-arlo bakoitzaren urteko jarduera-planean egituratuak: bilerak administrazioekin, bilerak gizarte zibileko elkarteekin eta erakundeekin, ikuskapen-bisitak eta ofiziozko jarduerak.

Arartekoak 2013an egin duen jardueraren zenbakizko gutxi gorabeherako datuak estatistikari eskaintako kapitulu honetan kontsulta daitezke.

Oro har, 2013an, herritarrentzako laguntzarekin eta administrazioen kontrolarekin lotutako 12.507 jarduera zenbatu dira eta horietatik 9.610 kexei dagozkie.

(1. grafikoa)

Arartekoari 2013an egindako kexak



2013an herritarrek 9.610 kexa egin dizkiote Arartekoari (8.357 2012an eta 4.400 2010ean) eta ofiziozko 59 espediente bideratzen hasi gara. Informazio horretatik zera ondoriozta daiteke: herritarren kexak % 15 gehitu direla 2012. urtearen aldean (8.357) eta % 120 2010. urteaz geroztik (4.400). Horretarako arrazoi asko egon dira, baina, nagusiki, izugarri ugaritu direlako eduki ekonomikoko gizarte-prestazioekin zerikusia duten kexak.

2013an, aurreko urteetan ez bezala, gehitu egin dira aurrez aurreko kexak herritarrei kasu egiteko gure bulegoetan, eta gutxitu beste bide batzuen bitartez (Internet, posta edo faxa) egindakoak. Horren zergatia hauxe izan daiteke: krisi egoerarekin lotuta dauden kexa gehienak konplexuagoak dira eta hainbat alderdiri eragiten dietela, eta horrek zaildu egiten duela kexa Internetez aurkeztea. Horrela, azken urteotan Internetek edo web formularioak kexak egiteko bide nagusi gisa izan zuten igoera hautsi da.


Era berean, ofiziozko 59 kexa hasi dira.

Arartekoaren web orrialdea euskal herritarrei informatzeko eta haiekin harremanetan egoteko bide bihurtu da; horixe erakusten du aurten 110.298 bisita jaso izanak eta 280.558 orrialde ikusi izanak.

2013. urtean, informazioa eta orientabidea eskatzeko egin diren 2.746 telefono-kontsultari erantzun diegu eta 70 bilera egin ditugu era askotako gizarte-erakundeekin (horien gaineko xehetasunak [urteko txostenaren V. kapitulu](#)n kontsulta daitezke, gizartearekiko harremanei buruzkoa baita). Era berean, 65 bilera egin ditugu zenbait administrazioekin: Eusko Jaurlaritzaren sail eta zuzendaritzekin, aldundiekin, udalekin eta beste erakunde batzuekin.

(2. grafikoa)

Arartekoaren jarduera guztiak 2013an




Kexak	9.610
Informazioa eta aholkuak telefono zerbitzuaren bitartez	2.746
Laneko bilerak gizarte erakundeekin	70
Laneko bilerak administrazioekin	65
Gomendio orokorrak eta azterlanak	10
Ikuskapen-bisitak	3
Jendearentzat irekitako jardunaldiak	3

GUZTIRA 12.507

Ikuskatzeko 3 bisita ere egin ditugu. Horien bitartez, funtzionamendua, baliabideak, kudeaketa-programa, Arartekoaren gomendioen betetze-maila eta abar ebaluatu ditugu 2 polizia-etxetan (1 Ertzaintzarena eta beste bat Udaltzaingoa) eta babesik gabeko haurrentzako Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza-baliabide batean.

Gainera, modu aktiboan hartu dugu parte era guztietako ekitaldi, jardunaldi eta ekitaldietan, batik bat gizarte-erakundeek sustaturiko ekimenekin loturikoetan; horrek guztiak ematen du halako arrasto bat Arartekoak, batez ere erakundea osatzen duten 29 lan-arloetako arduradunen ekimenez, egiten dituen jarduera ugari eta askotarikoen inguruan. Esku-hartze horien zehaztapen handiagoa II. eta III. kapituluetan ematen da, arlo horietako urteko jarduera-plana azaltzean.

(3. grafikoa)

Urteko jardueren konparaketa

Datu horietatik ondorio hau ateratzen da: jardueren kopurua % 12 hazi da 2012. urtearen aldean (11.170) eta % 93 2010. urteaz geroztik (6.461).

2013an kexa idatzien inguruko 1.930 espediente ebatzi dira.

Gainera, 1.534 ebazpen eman dira. Gainontzeko kasuetan, aholkuak eta informazioa eman zaizkie herritarrei.

lax, kexa eragin zuen administrazioaren jardueraz aztertu eta gero, jardueraz okerren bat zegoela iritzi diogu azterturiko kexa idatzien % 56,2tan (zertxobait hazi da 2012. urtekoarekin alderatuta), eta kexen % 43,8tan jardueraz zela okerra.

Eragindako administrazioak kexa sortarazi zuen jardueraz zuzendu eta aldatu du kasuetatik % 86,22tan. Gehienetan ez da gomendio formalik egin behar izan administrazioak Arartekoaren proposamena onartzeko. Datu horrek, berez, argi erakusten du Arartekoaren esku-hartzea eraginkorra dela.

(1. taula)


Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun-maila

	%	%
Konpondutako jardueraz okerra		86,22
Gomendiorik gabe	97,24	
Gomendio onartua	2,76	
Onartu gabeko gomendioa	8,09	
Konpondu gabeko jardueraz okerra		13,78

2.**Arreta zuzeneko bulegoen jardueraz (aurrez aurreko kexak eta telefono bidezko aholkuak)**

1996tik, Ararteko erakundeak arreta zuzeneko bulegoak dauzka Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan. Horri esker, administrazioaren batekin arazoak dituzten herritarrei hobeto lagun diezaikegu. Bulegoetan hartutako eskarmentuak erakusten du, gainera, bertan jasotzen aurrez aurreko kexez gain, telefono bidezko kontsulta ugari ere egiten direla, eta erakundeko langileek erantzuten dituztela.

(4. grafikoa)

Aurrez aurreko kexen eta telefonozko aholkuen kopurua arreta zuzeneko bulegoetan

Horregatik, egiten dizkiguten kexak ez ezik, telefonozko kontsultak ere zenbatzen ditugu, ziur baikaude horien bitartez informatzeko lan interesgarria egiten dela pertsonen administrazioekin dituzten harremanetan zein eskubide dituzten

adierazten. Horrela, 2013. urtean guztira **10.935** zerbitzu egin ditugu herritarren arretarako bulegoetan. Horietatik 8.189 hiru bulegoetako batean aurrez aurre egindako kexak izan dira, eta 2.746tan telefono bidezko aholkularitza eta informazioa eman da. Beraz, % 24,85 areagotu dira 2012. urtearen aldean (8.758) eta % 140 baino gehiago 2010. urtearen aldean (4.528).

2013ko bulegoetako jarduerari buruzko datuak aurreko urteetakoekin konparatuta aztertzen baditugu, egindako kexei dagokienez ikusten da goranzko joera dagoela Bilboko bulegoan (aurrez aurreko 2.156 kexa 2012an) eta Donostiako bulegoan (969 kexa 2012an), eta gutxitu egin direla Gasteizkoan (3.876 2012an), zeina bulego nagusia izan baitzen aurrez aurre artatutako herritar kopuruari begira. Ziur aski, egoera hori lurralde historiko bakoitzeko benetako biztanleriaren isla besterik ez da, eta krisi ekonomikoak hiru lurraldeetan izan dituen ondorioen intentsitate ezberdinen isla.

- Arreta zuzeneko bulegoetan egindako aurrez aurreko kexetatik zenbat bihurtu diren kexa-espeditente

Herritarrei kasu egiteko gure bulegoetan aurrez aurre egindako kexetatik 1.658 bihurtu dira kexa-espeditente, hau da, % 20,24. Horrek argi erakusten du bulego horietan aholkularitza-lan garrantzitsua egiten dela.

Gainerakoei dagokienez, batzuetan erakunde honen jardueraren eremutik kanpoko gaiei loturikoak ziren; horrenbestez, ezin ziren kexa moduan bideratu; beste batzuetan, agiri gehiago behar ziren edo aurretiazko gestioak egin behar ziren administrazio-organo eskudunetan; eta azkenik, beste zenbait kasutan, azaldutako arazoek kexa-espeditente bihurtzeko funtsik ez zuten, bisitak aurreko kexa-espeditente baten biderapenarekin zuen zerikusia edo erreklamatzailak bere arazo zehatzean zein izapide egin behar zituen jakin nahi zuten.


3.

Erregistratutako kexa idatziak

2013. urtean 3.079 kexa idatzi erregistratu ditugu euskal herritarrek hala eskatuta. Gainera, ofiziozko 59 jarduera hasi ditugu. Honekin batera doan grafikoan ikus daitezkeen bezala, kopuru hori Arartekoa sortu zenetik handiena da eta % 60tik gora hazi da, gutxi gorabehera, azken 3 urteotan.

(5. grafikoa)

Erregistratutako kexa idatzien kopuruaren bilakaera (2000 -2013)




Horietatik 2.677 tramiterako onartu dira, Arartekoak aztertu eta iker ditzan. Geroago, benetan tramiterako onartutakoak sailkatuko ditugu, Arartekoaren lan-arloak oinarritzat hartuta.

- Onartu gabeko kexa idatziak

Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legearen 21. artikuluan adierazten dira zein zertzelada gertatu behar duten herritarren kexak ez onartzeko. Horrela, hainbat arazoirengatik onartu ez diren kexak bereizi behar dira: norbanakoen arteko gatazka zelako, ordurako auzitegian azalduta zegoen arazoren bati buruzkoa zelako (epai irmoa jasota edo epailearen ebazpenaren zain), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo zegoelako.

Nolanahi ere, kexei ahalik eta babes juridikorik handiena eskaintzeko irizpidea mantentzen da; horrela, ahalegina egiten da prozedurazko arauak herritarrek egindako kexa onartzearen alde interpretatzeko. Onartu ez diren kexetan, erakundea kexagileari aholku ematen ahalegintzen da beti, hark azaldu dituen arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei dagokienez.

(6. grafikoa)

Onartu gabeko kexa idatziak eta egoerak

Jarduera okerrik ez, argi eta garbi	65
Ez dago aurretzako erreklamazio administratiborik	58
Epaibidean	54
Partikularren arteko auzia	49
Eskumen eremutik kanpo	45
Formazko akatsa	17
Legezko epeen zain egon beharra	12
Izenik gabe aurkeztu da	11
Urtebete baino gehiago igaro da	7
Estatuko Herriaren Defendatzailearekiko bikoiztasuna	6
Interes legitimorik eza	1

GUZTIRA **325**

- Estatuko Herriaren Defendatzaileari edo beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak

Estatuko administrazioaren jardueraren kontrako kexak ez ditu zuzenean Ararteko erakundeak bideratzen, administrazio hori ez baitago erakunde honen kontrolpean. Kexa horiek Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidaltzen dizkiogu. Gainera, kexa batzuk beste autonomia erkidego batzuetako parlamentuetako ordezkariari igortzen dizkiegu, horien eskumen-eremupean dauden herri-administrazioei dagozkielako.

Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexak	70
Beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak	7

4.**Estatistika alorrez alor**

Kontuan hartzen badugu kexak zein arlo tematikorekin dauden lotuta, hauxe ikusten da: aurreko urtearen aldean, oro har, zertxobait behera egin du gizarte eremuarekin lotuta bideratu diren kexa-espeditenteen kopuruak. Azken kexa horiek kategoria bakarrean bilduta agertzen ez badira ere, hainbat arlotan azaltzen dira, ez bakarrik gizarteratze arloan, baizik eta baita ere etorkinen, buru-gaixoen, haur eta nerabeen, adinekoen, etxebizitzaren, espeteratuen, ezgaituen, eta abarren arloetan.

Bideratutako kexak zer arlori dagozkion kontuan hartuta, 2013an gutxitu egin dira gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko bitartekoekin loturiko erreklamazioak: **883** izan dira (2012ko 1.010 kexen eta 2011ko 329 kexen aldean). Kexa horiek ia **hirukoiztu** egin dira 2 urtean. 883 kexa horietatik **860k** (hau da, ia % 97k, 2012koaren antzeko kopurua, 875 izan baitziren) **Lanbideren** funtzionamendu txarrearekin loturiko hainbat arazorekin dute zerikusia, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria kudeatzerakoan izandako jarduerekin.

Gizarteratze arloaz gain, jarduera modu esanguratsuan hazi da honako arlo hauetan: **jarduera ekonomiaren antolamendua, ogasuna, etxebizitza, hezkuntza, herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak**. Orobat hazkuntza nabarmena izan dute honako hauek: **segurtasuna, herri-administrazioetako langileak eta ingurumena**.

Arartekoak bideratu dituen kexa-espeditenteen % **50k gizar-terate-eskubideekin** dute lotura (hezkuntza, osasuna, gizarteratzea, etxebizitza, etab.)

Orobat, azpimarratu behar dugu kexa-espeditenteetatik % **40k** (gizarteratze arlokoek barne) zerikusia dutela pertsona guztien **benetako berdintasun eraginkorra** bermatzeko **politika publikoekin**. Politika horien xedea pertsona jakin batzuei: emakumeak, gizarte bazterkeria pairatzen duten edo pairatzeko arriskua duten pertsonak, adinekoak, haurrak eta nerabeak, ezintasunen bat duten pertsonak, homosexualak –gay zein lesbianak– edo transexualak, etorkinak, ijitoak, etab., eskubide hori behar bezala gauzatzeko aukera galarazten edo eragozten dieten oztopoak kentzea da.

(2. taula)

Hasitako kexa-espedienteen banaketa, jarduera-arloaren arabera

Arloa	Kop.	%
Gizarteratzea	883	32,98
Jarduera ekonomikoaren antolamendua	226	8,44
Ogasuna	206	7,70
Etxebizitza	155	5,79
Hezkuntza	149	5,57
Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	148	5,53
Arreta publikoa behar duten taldeak: ezinduek, adinekoak, berdintasuna, etorkinak, espetxeratuak, e.a.	146	5,45
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	118	4,41
Ingurumena	109	4,07
Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	89	3,32
Osasuna	84	3,14
Hirigintza eta lurralde antolamendua	73	2,73
Trafikoa	70	2,61
Justizia	66	2,47
Segurtasuna	54	2,02
Haurrak eta nerabeak	44	1,64
Lana eta Gizarte Segurantza	25	0,93
Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola	18	0,67
Animaliak babestea eta edukitzea	9	0,34
Informatzeko eta ezagutzeko teknologiak eta datuak babestea	5	0,19
Guztira	2.677	100

5.**Estatistika eragindako administrazioen arabera**

Bideratutako kexa-espeditentek administrazio bakoitzari zer proportziotan eragiten dioten adierazten duten datuak aztertuta, iaz bezala, 2013an Eusko Jaurlaritzaren kontra egin dira kexa idatzirik gehienak (% 62,73), eta kexa zertxobait ugaritu dira autonomia erkidegoko udalei dagozkienak (% 26,44).

Edonola ere, espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak ez du esan nahi jarduera okerrik egin dutenik, baizik eta haien jardueraren batek erreklamazioa sortarazi duela.


– Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexen kopurua zuzen interpretatzeko era

Hasiera batean, administrazio jakin baten jarduerak kexa asko eragiten badituzte edo arlo zehatz batean kexa anitz jasotzen badira, pentsa liteke horrek estua duela herritarrek administrazio horren funtzionamenduaz duten iritzi txarrarekin, zabarkeria, gehiegikeriak edo legez kontrako jarduerak egoteari dagokionez.

Hala ere, ñabardura garrantzitsuak egin behar zaizkio kexa-kopuruaren lehen pertzepzio eta interpretazio horri, ondorioak presaka ez ateratzeko, ondorio horiek okerrak eta bidegabeak izan baitaitezke eragindako administrazioei dagokienez.

Horrela, nahiz eta administrazio jakin baten jarduerak sortutako kexa-kopurua hasiera batean esanguratsua izan, are esanguratsuagoa da –eta hori da egiaz garrantzitsua– zenbat kexatan izan zituen kexagileak erakunde honetara etortzeko moduko arrazoiak, administrazio batek oker jokatu zuelako. Halaber, erakunde honen iritziak, kexa-kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean informatzeko betebeharrak betetzeko orduan, bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, administrazioak oker jokatu duela antzeman denean.

(7. grafikoa)

Bideratutako espedienteen banaketa, eragindako administrazioen arabera

●	Eusko Jaurlaritza	% 62,73
●	Tokiko administrazioa	% 26,44
●	Foru administrazioa	% 6,89
●	Erakunde publikoak	% 1,92
●	Justizia	% 1,55
●	Estatuko administrazioa	% 0,42
●	Erakunde pribatuak	% 0,05

A) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteak

– Banaketa arloka

Eusko Jaurlaritzak eskumen zabala duen arloetan (gizarte babesa eta enplegua, hezkuntza, etxebizitza, herri-administrazioen zerbitzuko langileak, osasuna eta herrizaingoa) egon da kexa idatzien espediente kopururik handiena.

(3. taula)


Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteen banaketa, arloen arabera

Arloa	Kop.	%
Gizarteratzea	824	61,59
Hezkuntza	115	8,60
Etxebizitza	103	7,70
Osasuna	66	4,93
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	55	4,11
Segurtasuna	51	3,81
Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	18	1,35
Justizia	18	1,35
Lana eta Gizarte Segurantzza	16	1,20
Familiak	13	0,97
Ingurumena	10	0,75
Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola	9	0,67
Jarduera ekonomikoaren antolamendua	8	0,60
Ogasuna	4	0,30
Emakumeen berdintasuna eta osotasuna	4	0,30
Ezintasunen bat duten pertsonak	4	0,30
Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonak	4	0,30
Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	4	0,30
Espetxeratuak	3	0,22
Etorkinak	3	0,22
Hirigintza eta lurralde antolamendua	2	0,15
Gaixo kronikoak	1	0,07
Lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta transexualak	1	0,07
Talde terroristen biktimak	1	0,07
Animaliak babestea eta edukitzea	1	0,07

– Sailen araberako banaketa

(8. grafikoa)

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurka (Eusko Jaurlaritza) bideratu diren espedienteen banaketa, sailen arabera



SAILA

Enplegu eta Gizarte Politikak	968	% 72,35
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	150	% 11,21
Osasuna	91	% 6,80
Segurtasuna	53	% 3,96
Ingurumena eta Lurralde Politika	34	% 2,54
Herri Administrazioa eta Justizia	26	% 1,94
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	9	% 0,67
Ogasuna eta Finantzak	4	% 0,30
Lehendakaritza	3	% 0,23


B) Foru administrazioen aurka bideratutako espedienteak

– Banaketa lurraldeka

Foru aldundien aurka bideratutako erreklamazioen artean, nabarmentzekoa da ugaritu egin direla Arabako Foru Aldundiaren kontrakoak (% 26,53) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurkakoak, eta zertxobait gutxitu dira Bizkaiko Foru Aldundiaren kontrakoak (% 48,30).

(9. grafikoa)

Foru administrazioen aurka bideratutako espedienteen banaketa, lurraldeen arabera



– Banaketa arloka

Ohikoa denez, gizarteratze arloak sortarazten ditu kexa gehien foru administrazioen aurka.

(4. taula)

Foru administrazioen aurka bideratu diren espedienteen banaketa, arloen arabera

ARLOA	Araba/ Alava	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	Kexak %
Gizarteratzea	–	4	1	5	3,40
Ogasuna	6	21	6	33	22,45
Adinekoak eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak	15	17	7	39	26,53
Haurrak eta nerabeak	6	5	8	19	12,93
Ezintasunen bat duten pertsonak	1	3	–	4	2,72
Hirigintza eta lurralde antolamendua	1	–	–	1	0,68
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	4	3	1	8	5,45
Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten pertsonak	–	2	–	2	1,36
Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	4	4	7	15	10,2
Hizkuntza eskubideak, kultura eta kirola	–	3	1	4	2,72
Ingurumena	–	1	–	1	0,68
Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	2	3	2	7	4,76
Jarduera ekonomikoaren antolamendua	–	2	2	4	2,72
Lana eta Gizarte Segurantzza	–	1	1	2	1,36
Emakumeen berdintasuna eta osotasuna	–	1	1	2	1,36
Hezkuntza	–	1	–	1	0,68

C) Tokiko administrazioen aurka bideratutako espedienteak

– Banaketa lurraldeka

Espediente gehienak Bizkaiko udalen aurka bideratu dira, baina kontuan hartu behar da horixe dela lurralderik jendetsuena.


(5. taula)


Tokiko administrazioen aurka bideratutako espedienteen banaketa


	Kop.	%
 Bizkaiko udalak	260	46,10
 Gipuzkoako udalak	174	30,85
 Arabako udalak	89	15,78
 Arabako administrazio batzarrak	10	1,77
 Bizkaiko mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak	26	4,61
 Gipuzkoako mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak	4	0,71
 Arabako mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak	1	0,18

(6. taula)

Autonomia erkidegoko udalen aurka bideratutako espedienteak

 Arabako udalak	Kop.
Vitoria-Gasteiz	62
Laudio/Llodio	5
Iruña Oka/Iruña de Oca	4
Laguardia	4
Beste batzuk*	14
Guztira	89

 Bizkaiko udalak	Kop.
Bilbao	79
Getxo	26
Erandio	14
Barakaldo	12
Santurtzi	11
Beste batzuk**	118
Guztira	260

 Gipuzkoako udalak	Kop.
Donostia-San Sebastián	52
Zarautz	33
Errenteria	11
Irun	9
Hernani	5
Lezo	5
Beste batzuk*	59
Guztira	174

* Zerrenda osoa Arartekoaren web gunean kontsulta daiteke, [Jarduera eta estatistikak](#) atalean.

– Banaketa arloka

Normalean gertatzen den bezala, tokiko administrazioen jarduerak eragindako erreklamazioak modu nahiko homogeneoan banatuta daude udalek eskumen garrantzitsuak dituzten arloen artean. Honako arloak nabarmentzen dira: gizarte-bazterketa, adinekoak, haur eta nerabeak eta ezinduak.

D) Euskal Herriko Unibertsitatearen aurka bideratutako kexa-espedienteak

Euskal Herriko Unibertsitatearen aurka aurkeztutako kexei dagokienez, asko gehitu dira iaz izandakoekin alderatuz.

(7. taula)

Euskal Herriko Unibertsitatearen aurka bideratutako kexa-espedienteak


	Guztira
Hezkuntza	10
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	4
Informatzeko eta ezagutzeko teknologiak eta datuak babestea	1
Guztira	15

6.

**Lurralde estatistika
(Kexa idatzien banaketa lurraldeen arabera)**

(10. grafikoa)

Erregistratutako kexa-espediten lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera (2000-2013)*



* Zerrenda osoa Arartekoaren web gunean kontsulta daiteke, [Jarduera eta estatistikak](#) atalean.

Azken urteotan ohikoa denez, lurraldez lurralde aurkeztutako espediente idatziak aztertzen baditugu, herritarrei arreta emateko bulegoetako aurrez aurreko kexekin gertatu bezala, Arabako lurraldea neurritz gain ordezkatuta dago guztizko kopuruan, ziur aski bertan dagoelako Arartekoaren egoitza nagusia, baita erkidegoko erakunde komunen –besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren– egoitza ere.


– Erreklamazioak lurraldez lurralde, 10.000 biztanleko

Lurralde historikoen arabera erregistratu diren erreklamazio idatzien jatorriaren konparaziozko azterketa egiteko, lurralde bakoitzetik jasotako kexen kopuru osoa lurralde horretako biztanleriarekin lotuko dugu. Hurrengo koadroan bildu ditugu lurralde bakoitzetik 10.000 biztanleko multzo bakoitzeko jaso ditugun kexei buruzko datuak.

Aurreko urteetan bezalaxe, Araba Lurralde Historikoan egin dira erreklamazio idatzi gehienak, ia Gipuzkoan halako lau.

(11. grafikoa)

Erregistratutako erreklamazio idatziak lurraldez lurralde, 10.000 biztanleko (2000-2013)*



* Zerrenda osoa Arartekoaren web gunean kontsulta daiteke, [Jarduera eta estatistikak](#) atalean.

– Banaketa lurralde bakoitzean

Kexagileak lurralde historikoko hiriburuan ala beste udalerririk batzuetan bizi diren, herritarren jokabidea ez dela berdina erakusten du kexa-espeditenteen banaketak. Egiaz, Bizkaian eta Gipuzkoan, handiagoa da hiriburutik kanpo bizi diren kexagileen kopurua; Araban, ordea, kexetatik % 88,5 Gasteizen bizi direnek egin dituzte.

(8. taula)

Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek egin dituzten kontuan hartuta

Araba/Álava	Kop.	%
Vitoria–Gasteiz	767	88,5
Beste udalerririk batzuk	100	11,5
Guztira	867	100
Bizkaia	Kop.	%
Bilbao	618	40,7
Beste udalerririk batzuk	902	59,3
Guztira	1.520	100
Gipuzkoa	Kop.	%
Donostia–San Sebastián	201	36,5
Beste udalerririk batzuk	350	63,5
Guztira	551	100

Urtean zehar, beste autonomia erkidego batzuetatik eta beste estatu batzuetatik etorritako 82 kexa jaso ditugu, euskal herri-administrazioen kontrakoak.

7.

Prozedurari buruzko estatistika (Kexa-espeditenteen egoera)

Jarraian, 2013an bideratutako espeditenteak tramitazioaren zein fasetan dauden aztertuko dugu.


2013. urtean 1.534 ebazpen eman dira.

Arartekoak 2013an emandako ebazpenen arabera, 803 kasutan, eragindako administrazioak jarduera okerren bat burutu zuen, hau da, kasu guztietatik % 56,20tan; portzentaje hori iazkoa baino handiagoa. Hala ere, ez da jarduera okerrik antzeman aztertu ditugun espeditenteetatik % 43,80tan.

Izapidetzen ari ziren espeditente batzuetan, kexa aztertzen hasi ondoren, azterketa jarraitzea eragozten duten hainbat inguruabar agertu dira: beste defendatzaile batzuekiko bikoiztasuna, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak, epai irmoa dutenak, epai bideari ekin diotenak eta abar. Espeditente horiek *Gerora ez dira onartu* izenpean jaso dira ondoko grafikoetan.

(12. grafikoa)


2013an bukatu diren espeditenteak



- Kexen egoera: euskal administrazio publikoen jarduera zuzenak eta okerrak

(13. grafikoa)

Kexa-espedienteen egoera



Aurreko datuetatik ondorioztatzen denez, Arartekoak 2013. urtean sakonki aztertu dituen erreklamazio guztietatik 803 kasutan, hau da, % 56,20etan ondorioztatu da jarduera okerraren bat egin dela.

8.

Ofiziozko jarduerak

Herritarren kexak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, bere kabuz, hainbat gai ikertzeari ekiten dio: batzuetan, euskal administrazio publikoren batek agian oker jokatu duela iruditu zaigulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako. Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak– ofizioz jarduteko aukera xedatu zuen 17.1 artikuluan. Horri esker, Arartekoak bere kabuz esku har dezake, administrazioaren irregulartasunen edo akatsen baten ondorioz kalte-uriko herritarren kexen zain egon barik.

2013an ofiziozko 59 espediente bideratzen hasi gara (69 aurreko urtean). Arloen arabera, aipatzekoak dira Haur eta Nerabeentzako Bulegoari dagozkionak, baita ingurumenaren, segurtasunaren eta ogasunaren gainekoak ere.

(9. taula)

Ofiziozko espedienteen banaketa, arloen arabera



	Kop.	%
Haurrak eta nerabeak	18	30,51
Ingurumena	6	10,17
Ogasuna	5	8,47
Segurtasuna	5	8,47
Osasuna	4	6,78
Adinekoak eta mendekotasun egoeran dauden personak	4	6,78
Buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dituzten personak	3	5,10
Gizarteratzea	3	5,10
Hezkuntza	2	3,39
Etxebizitza	2	3,39
Espetxeratuak	2	3,39
Justizia	1	1,69
Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak	1	1,69
Herri-administrazioen zerbitzuko langileak	1	1,69
Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak	1	1,69
Gaixo kronikoak	1	1,69
Guztira	59	100

Antzeman daitekeen moduan, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jarduera nagusitu da ofiziozko jarduerak has-terakoan. Jarduera horietatik asko erakundeak aurreko ur-teetako bere gomendioak betetzen ote diren jakiteko egiten duen azterketaren ondorio dira, adibidez, gai hauei dagoz-kienak: arreta goiztiarraren eredia garatzea, babesik ga-beko haurrentzako egoitza-baliabideen funtzionamendua, euskal udalerrri batzuetan foru aldundien tutoretzapeko adin txikikoak udal erroldan sartzeko arazoak edo “ebatsitako haurren” kasuak ikertzeko jarduerak. Beste jarduera batzuk, berriz, urtean barrena antzeman diren egoerei edo arazoei aurre egiteko hasi dira; horien artean, azpimarragarria irudi-tzen zaigu EAEn haurren malnutrizioaren adierazleak azter-tzeko jarduera.

Ingurumenaren arloan, nabarmentzekoak dira autonomia erkidegoko hainbat udalerritan gazteen lonjek sortutako eragozpenak direla-eta hasi diren ofiziozko 6 espediente.

Orobat, segurtasunaren arloan, zenbait ekimen ezberdin burutu ditugu: horietako batzuk Deustuko ertzain-etxera eta Gasteizko Udaltzaingora egindako ikuskapen-bisiten euskarritzat hartu ditugu; beste batek, berriz, zerikusia zuen Ertzaintzaren terrorismoaren aurkako sailaren bideo-zainketa grabaketen kopien bilakaera aztertzearekin. Azkenik, beste ekimen bat dantzaleku batean baimendutakoaz gaineko to-kia jartzeari buruzkoa zen.

Halaber, Ogasun arloan gai hauetan abiarazi ditugun ofizioz-ko jarduerak ere aipatu behar ditugu: Donostiako Udalak uraren kontsumoari lotuta jarritako zabor tasa; Euskadiko 3 ogasunek doako laguntza juridikoko batzordeei zerga-da-tuak ematea, doako justiziaren onura jasotzeko.

Buruko osasunari eta mendekotasunari buruzko txosten berezien jarraipenaren bidez, zenbait ekimen abian jarri dira adinekoen edo buruko gaixotasun edo gaixotasun kroniko bat duten pertsonen eremuan. Era berean, arlo horretan ekin zaio kronikotasunaren estrategiaren eta arreta soziosanita-rioaren bilakaera aztertzeari.

Beraien garrantzi eta eraginagatik, hemen nabarmenduko dugu 2013ko hasieran egindako Lanbideren egoeraren Az-terketa-Diagnostikoaren bitartez hasi zen jarduera. Geroa-go jarduera hori erakunde horrek onartutako hobekuntzen azterketarekin osatu zen. Halaber, etxebizitza arloan, Eusko Jaurlaritzaren gainzorpetutako familiei laguntzeko zerbi-tzuaren funtzionamendua eta lortutako emaitzak zertan diren aztertu da.

Horren eta ofiziozko beste jarduera batzuen gaineko infor-mazio osatuagoa txosten honetako II. eta III. kapituluetan aurkitu daiteke, bai eta Haurren eta Nerabeen Bulegoaren txosten erantsian ere.

9.

Estatistika soziologikoa

Kexagileen tipologia eta kexen formatua


Gure zerbitzuetara jotzen duten pertsonen harrera egiteko modu naturalak Arartekoaren esku hartzea eskatzen duten pertsonen ezaugarriak eta baldintzak ezagutzearekin zuzeneko zerikusia dauka.

– Kexagileen ezaugarriak

2013. urtean egindako kexen analisi soziologikoak ez du al-daketa esanguratsurik erakusten aurreko urtearen aldean. Hala ere, zehatzago aztertuta, hauxe ikusi dugu: gizartean baztertuta dauden pertsonen arloan (horrek hartzen du iaz egindako kexen zati handi bat) gizonek kexa gehiago egin dituztela emakumeek baino.

(14. grafikoa)

Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera




- Kexa idazteko erabilitako hizkuntza

Gaur egun gaztelania da kexak idazteko gehien erabiltzen den hizkuntza. Euskaraz eta bi hizkuntzetan aurkeztutakoek gorakada txiki bat izan dute. Halere, Arartekoaren erakundearen herritarrei bi hizkuntza ofizialetan arreta emateko gai diren pertsonak daude.

Ararteko erakundeak erreklamazioak herritarrek aukeratu-tako hizkuntzan izapidetzen ditu, irizpide modura. Arartekoa kexa eragindako administrazioekin harremanetan jartzean, eta ofiziozko espedienteren bat abiatzen duenean, komunikazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiten da.

(15. grafikoa)

Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera




- Kexak egiteko era

Kexak aurkezteko moduari buruzko datuek erakusten digute azken urteotan joera aldatu egin dela, izan ere, kexetatik ia % 86 aurrez aurre egin dira, Arartekoaren herritarren arretarako hiru bulegoetan. Ehuneko hori dezente areagotu da aurreko urtekoen aldean. Krisiaren ondorioekin eta eskubide sozialekin lotutako kexak gehitu direlako gertatu da hori.

(16. grafikoa)


Kexen banaketa, herritarrek erabili duten bidearen arabera



- Arreta zuzeneko bulegoetara bertaratutako pertsonen ezaugarriak

(17. grafikoa)

Arreta zuzeneko bulegoetan kexak egin dituzten pertsonen ezaugarriak



Ikusten denez, zuzeneko arretarako bulegoetara kexak aurrez aurre egitera joaten diren pertsonen ezaugarriak ez dira asko aldatzen EAEn kexak egin dituzten pertsona guztien ezaugarriekin konparatuta, eta kexagileen artean gizonezkoen presentziaren ehunekoa aldatzen dute, zertxobait beherantz, aurreko urteen aldean.

2013an gure bulegoetara etorri diren pertsonen artean, ia % 46k lehenetik ere izan zuen harremana Ararteko erakundearekin.

10.

Erabiltzaileen iritzia

10.1. Erabiltzaileei egindako inkestaren emaitzak

Duela zenbait urte, herritarrengana hurbiltzeko bidea hasi genuen, esku hartzeko eskatu diguten pertsonen iritzia jakiteko. Erakundearen jardunbidean ahulguneak zeintzuk diren jakitea eta eskaintzen dugun zerbitzua hobetzen saiatzea ditugu helburu.


Horregatik, kexa-espeditze baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera-sorta bat bidaltzen diogu, nahi izanez gero eta izena ipini barik, galdera batzuei erantzuteko eskatuz, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioa jakiteko.

Emaitzak baloratzeko orduan garrantzitsua da honako hau kontuan hartzea: 2013an guztiz izapidetu diren kexetatik, % 56,20tan iritzi diogu eragindako administrazioak oker jokatu duela.

Herritarrek Arartekoaren esku-hartzeaz 2013an egin duten balorazioa bikaintzat jo behar da. Horixe ondoirozta daiteke Arartekoaren zerbitzuak erabili dituzten pertsonetatik galdera-sortari erantzun diotenen erantzunetatik.

(18. grafikoa)


Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?



Hortaz, "jasotako informazioa ona edo oso ona" iruditu zaie kexaren bat egin duten herritarren % 87,50i, kexaren biderapena bukatu ondoren.

(19. grafikoa)

Nolakoa iruditu zaizu Ararteko erakundeko langileek eman dizuten arreta (laguntzeko prest egotea, tratua, enpatia...)?




Arartekoak ematen duen zerbitzuaren balorazio onaren adierazgarririk nabarmenena da kexagileen % 81,25ek ontzat edo oso ontzat jo duela jaso duen arreta.

Zehazki herritarrei kasu egiteko bulegoetan jaso duten tratua ez galdetzean, ehuneko hori zertxobait handiagoa da, % 82,4 hain zuzen.

(20. grafikoa)


Oro har, nolakoa iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)



Hau da, galdera-sortari erantzun dioten pertsonetatik % 80k oso egokitzat edo egokitzat jo dute Arartekoaren esku-har-tzea, eta bakar batek ere ez du desegokitzat jo.

(21. grafikoa)


Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora joateko gomendatuko zenioke?



Beraz, kasuetatik % 100etan Arartekora jotzea gomendatuko litzateke, administrazioarekin arazorik edukiz gero.

(22. grafikoa)


Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik tramitazioa bukatu arteko denbora?



Erantzuna jasotzeko denborari dagokionez, % 65ek uste dute denbora laburra edo oso laburra izan dela.

(23. grafikoa)

Zure ustez, nolakoa da Arartekoak gizartearen eta herri-administrazioaren aurrean duen irudia eta sinesgarritasuna?



Eskubideak babesteko sortu zen Arartekoa bezalako erakunde batean oso garrantzitsua da bere erabiltzaileen iritzian sinesgarritasunaren balioa agertzea. Horretaz jabetuta, aurtun, lehenbizikoz, galdera hori erantsi dugu. Galdera-sortari erantzun diotenetatik % 75k uste dute erakundeak gizartearen eta administrazioaren aurrean duen irudia eta sinesgarritasuna onak edo oso onak direla, eta hori laguntza handikoa da Ararteko erakundearentzat.

Era berean, aurtun Arartekoaren funtsezko bi tresnari buruz galdetu dugu: alde batetik, gure web orriaz, funtsezko tresna baita gure zerbitzuez informatzeko eta herritarrekin elkarri eraginez jarduteko (orri hori erabiltzaileen % 70ek ezagutzen dute); eta bestetik, Arartekoaren zerbitzu-kartaz. Bertan bilzen dira kalitateko konpromiso guztiak eta erabiltzaileek erakundearekiko dituzten eskubideak, baita eskubide horiek baliatzeko modua ere (tresna hori galdera-sortari erantzun diotenentzen % 35ek ezagutzen dute).

Beraz, emaitza horiek denek –aurreko urteetako antzekoak– ondorio hau aterarazten digute: Arartekoaren zuzeneko esku-hartzearekin –bere jardueraren eta pertsonazko baliabideen araberakoarekin– lotutako iritzia aztertzen direnean, oso ontzat jotzen da egindako lana.

Bestelako emaitza lortzen da Ararteko erakundearen erabakitzeko edo jarduteko ahalmenetik kanpo geratzen diren alderdiez galdetzen denean. Alderdi horiek gehienbat administrazioaren laguntzeko edo ez laguntzeko jarrerarekin dute zerikusia: prozesuaren iraupena (% 35ek uste dute igarotako denbora luzea edo oso luzea izan dela).

Inkestetan lortzen diren datuez gain (jada azaldu direnak), kexagileek galdera-sortaren ataletako baten bidez bidal diezazkioke Arartekoari beren iritzia eta iradokizunak.

Horietatik abiatuta, berriro ere proposamen hauek jaso direla adierazi behar dugu: Arartekoren ebazpenak lotesleak eta herri administrazioek nahitaz bete beharrekoak izan daitezela, ebazpen judizialen antzera.

Erakundearen funtzionamenduaz dauden iritzien eta hobetzeko iradokizunen artean, honako hauek daude: langile teknikoek emandako tratu onaren eta haien profesionaltasunaren gaineko hainbat iritzi; kexagileei noizean behin informazio formulak gaineratzeko proposamena, espedientearen egoera eta horren inguruko berriak ezagut ditzaten. Azken gai hori jada hobekuntza moduan jorratu da kexaren prozeduran.

Gainera, erakundearen eta bere funtzioen berri ematea proposatu dute, uste baitugu jendeak gutxi ezagutzen duela erakundeak pertsonarik ahulena babesteko egiten duen jardura.

Herritarrek Arartekoaren lanaren inguruan eskainitako iritzi datu horiek erantzukizun handia dira eta are pizgarriagoak eguneroko lanean.

10.2. Ararteko erakundearen zerbitzu-kartaren web inprimakiaren bitartez jasotako IRADOKIZUNAK

2012. urtetik aurrera, Ararteko erakundeak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen inguruko iradokizunak edo iritzia emateko aukera erraztu da. Eta joan den urrian Arartekoaren zerbitzu-kartan egindako aldaketan ondorioz, Arartekoaren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea sartu da, baita ere ARCO eskubideak erabiltzeko aukera ere (eskubide horiek Ararteko erakundeak dituen datu pertsonalen gainekoak dira).

Akats baten ondorioz bide hori erabiliz jaso ditugun kexak alde batera utzita (lau hain justu. Horiek Internet bidez egindako kexen ohiko tramitaziora bideratu dira) hamar iradokizun egin dira:

Horietatik zazpi gai hauekin dute zerikusia: Bulego Birtualean sartzen diren pertsonak erabiltzen dituzten ziurtagiri digitalekin lotutako kontu teknikoak, erabilitako nabigatzaileak edo kexak “on line” egiteko web formularioa. Horiek denak oso baliagarriak izan dira Arartekoarentzat nahiz Bulego Birtualean erabiltzaileentzat, izan ere, horiei esker, batzuetan egoitza elektronikoko gure zerbitzuak hobetu ahal izan dira, eta, beste batzuetan, Arartekora jo duten pertsonen aholku teknikoak eman ahal izan dizkiegu. Nabarmentzekoa da iradokizun horien gainean izan den bi aldeko truke interesgarria.

Beste bi, berriz, kexa-prozeduretan hartutako erabakiekin ados ez egotearekin lotuta zeuden zuzenean. Horiei modu egokian erantzun zaie, beharrezko informazio guztia emanez.

Azkenik, iradokizun horietako batek esker ona helarazi nahi zuen, gaian esku hartu zuen teknikariaren profesionaltasunagatik, arduragatik eta emandako laguntzagatik.

Horiei guztiei behar bezalako arreta eskaini zaie, Arartekoaren Zerbitzu Kartan ezarritako moduan eta epeetan.

11.

Informatzeko betebeharra

Lege antolamenduak Ararteko erakundearen modukoei esleitzen dizkien kontrol eginkizunak betetzeko ezinbestekoa da erakunde horien jarduera esparruetan sartzen diren herri administrazioen laguntza. Izan ere, administrazio horiek izapidetzen ari diren espedienteen ebazpen oinarritua lortzeko behar den informazio guztia eman behar dute eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa eta kontrolako lanek gutxieneko eragingarritasuna izan dezaten nahi bada behintzat.

Errealitate horretaz jabetuta, Ararteko erakundea sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -23. artikuluan- bere kontrolpean jarritako herri administrazioen betebeharrak hori espresuki aipatzen du, administrazio horiei eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten eta argitasun guztiak lehenetsunez eta premiaz aurkeztu behar dutela dioenean. Era berean, 26. artikuluan ohartarazten du informazioak, espedienteak edota bestelako datuak bidaltzeko eskatzen zaienean, erakundeak eskatutakoari erantzun dakion epe bat ezarri beharko duela. Betebeharrak hori sendotzeko, lege berberak dio, 24.2 artikuluan, herri Administrazioaren zerbitzura ari den edozein organismo, funtzionario, zuzendari edo pertsonak Arartekoaren ikerketa lanaren aurrean jarrera ezkorra edo oztopatzailea erakusten tematzekotan, txosten berezia egin ahal izango da, urteko txostenean dagokion atalean aipatzeaz gain.

Hain zuzen ere, urteko txosten honetan atal hau sartzearen helburua da Eusko Legebiltzarrak eta, era berean, iritzi publiko orokorrak jakitea zein izan diren erakundearekin lankidetzan jarduteko arreta eta gogo berezia eskaini dituzten administrazio eta organismoak, baita lankidetzan hori ukatu edo atzeratzeagatik herritarrek azaldutako kexak dagokien epean konpontzeko ezintasuna eragin dutenak ere.

Komeni da azpimarratzea lankidetzan aritu beharra gogortzeko funtzioa zehazki egiten dela, administrazioen kudeaketan eragina duten aldagaiak kontuan hartuta, eta kexa bat azaldu duen pertsonari erantzun eraginkor eta azkarra emateko ageriko helburuarekin.

Baina, tamalez, ez dira gutxi arduragabekeria nabarmena islatzen duten egoerak, erakunde honen kontrol funtzioari eta, era berean, kexa azaldutako pertsonen eskubideei errespeturik gabeko jarrera aditzera ematen dietenak. Kasu horietan, hain zuzen, erakundeak ohartarazpenaren azken urratsera jotzea beste erremediorik ez du, lankidetzarik ez eragin litzakeen ondorio penalen berri emateko asmoz (Zigor Kodeko 502.2 artikulua).

Jarraian erantsitako zerrendetan agertzen dira 2013. urtean lankidetzan aritzeko prest egon diren administrazio edo beste erakunde batzuei buruzko datuak (1). Horregatik, ez da beharrezkoa izan horiei agindeirik egitea.

Errekerimenduak jaso dituzten administrazio eta erakundeen gaineko datuak ere jaso dira (2).

Azkenik, kasu larrienak nabarmendu dira, hau da, ohartarazpenak jaso dituzten erakundeetako arduradunen kasuak (3).

Berriro ere, eskerrak eman behar dizkiogu Bilboko Udalari bere lankidetzagatik eta orain arte izan duen jarreragatik. Izapidetutako espedienteen bolumena gorabehera, ez dugu ezzein momentutan errekerimendurik egiteko beharrik eduki.

Amaitzeko, ohartarazpenen kopurua ez dela murriztu adierazi behar dugu, zoritxarrez. Aitzitik, aurtun 29 ohartarazpen egin behar izan ditugu, gehienak udal arduradunei zuzendutakoak. Hala ere, Arabako Foru Aldundiko bi arduraduni eta Osakidetzako zuzendari nagusiari ere bidali behar izan diegu ohartarazpena. Azpeitiko eta Sestaoko alkateek oraindik ez diete erantzun espediente jakin batzuetan egin zaizkien errekerimenduei. Beste zenbaitetan (Guardiako alkateari 929/2013/23 espedientearen egindako ohartarazpena), erakundeak eskatutako laguntza jaso gabe bukatu behar izan du bere esku-hartzea.

11.1. 2013an kexak izanda ere, errekerimendurik jaso ez duten administrazioak eta bestelako organismoak

Zerrenda honetan jaso dira errekerimendurik egin behar izan gabe, ebatzi ahal izateko 2012. urtean gutxienez informazio-eskaera bat eragin duten **administrazio** eta bestelako **organismo** guztietan izapidetutako espedienteak. Sailak zehazki azaltzen dira EAEko administrazio orokorraren eta foru aldundien kasuan. Beraz, adierazi bezala, ardura eta **arreta bereziena eskainiz lankidetzan jardun duten administrazioak eta erakundeak dira.**

A) Eusko Jaurlaritza

 Saila	
Herri Administrazioa eta Justizia IVAP	1
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura EITB	4
Enplegu eta Gizarte Politikak	1
Ogasuna eta Finantzak	4
Itelazpi	1
Ingurumena eta Lurralde Politika	16
Lehendakaritza Elankidetzaren Euskal Agentzia	2
Emakunde	2
Segurtasuna	64

B) Foru aldundiak

 Arabako Foru Aldundia	
Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak	2
Herri Lanak eta Garraioak	4

 Bizkaiko Foru Aldundia	
Nekazaritza	1
Ogasuna eta Finantzak	5
Lehendakaritza	1
Ekonomia Sustatzea	1

 Gipuzkoako Foru Aldundia	
Kultura, Gazteria eta Kirola	1
Ogasuna eta Finantzak	6
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak	1

C) Udalak
 **Arabako Lurralde Historikoa**

Arabako udalak	
Alegría-Dulantzi	2
Amurrio	2
Arrazua-Ubarrundia	2
Bernedo	1
Erriberagoitia/Ribera Alta	1
Iruña Oka/Iruña de Oca	3
Laudio/Llodio	3
Legutiano	1

Arabako administrazio batzarrak	
Caicedo-Yuso	1
Murgia	1

**Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Bizkaiko udalak	
Arrankudiaga	1
Arrigorriaga	2
Artea	1
Atxondo	1
Balmaseda	1
Berango	1
Berriatua	1
Berriz	1
Bilbao	64
Ermua	2
Etxebarri	1
Galdakao	2
Galdames	2
Gamiz-Fika	1
Gernika-Lumo	5
Gorliz	3
Güeñes	1
Igorre	3
Ispaster	1
Lemoiz	1
Mallabia	1
Muxika	1
Portugalete	2
Santurtzi	8
Sopuerta	4
Ugao-Miraballes	1
Urduliz	1
Urduña/Orduña	2
Valle de Trápaga-Trapagaran	1
Zeanuri	1
Zierbena	1



Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako udalak	
Aia	1
Anoeta	1
Arrasate/Mondragón	1
Ataun	1
Beasain	2
Bergara	2
Deba	2
Eskoriatza	1
Hernani	4
Lasarte-Oria	1
Lazkao	1
Olaberria	1
Oñati	3
Pasaia	3
Soraluze-Placencia de las Armas	1
Tolosa	1
Urretxu	2
Zarautz	2

D) Beste erakunde publiko batzuk

Bidegi	4
Bilbao Exhibition Centre SA	1
Bizkaiko medikuen elkargoa	1
Bizkaiko-Soro Administrazioaren Lurralde-Elkargo Ofiziala	1
Iruña Okako ur partzuergoa	1
"Pedro Anitua" partzuergoa	2
Eudel	1
Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola fundazioa	1
Gipuzkoako Urak SA	1
Haurreskolak	4
Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua	1
Loatzo udalerrien mankomunitatea	1
Mebisa-Bilboko metroa	1
Sestao Berri 2010	1

11.2. Kexak direla-eta, 2013an errekerimenduren bat jaso duten administrazioak eta bestelako organismoak
















Zerrenda honetan jaso dira ebatzi ahal izateko gutxienez informazio-eskaera bat eta **errekerimendu bat** egitea eragin duten **administrazio** eta bestelako **organismo** guztietan izapidetutako espedienteak, **sailen arabera**, EAEko administrazio orokorraren eta foru administrazioen kasuan. Zerrendak honako ezaugarriak ditu:

	(1)	zenbat espedientetan egin den 2013. urtean informazio eskariren bat.
	(2)	2013an informazioa eskatu deneko espedienteetatik zenbatetan egin den agindeia.
	(3)	agindeia egin zaien espedienteen portzentajea, 2013an informazio eskaririk egin zaieneko guztirako espedienteen aldean.
	(4)	2013an agindeirik zenbat espedienteri egin zaion, aurreko urteetan egindako informazio eskariei buruzkoak izanik.

A) Eusko Jaurlaritza

	(1)	(2)	(3)	(4)
Saila				
Herri Administrazioa eta Justizia	20	7	35	-
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	12	1	8,33	-
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	121	21	17,35	-
Enplegua eta Gizarte Politikak	969	205	21,15	15
Ingurumena eta Lurralde Politika				
Euskotren	11	1	9,09	2
Osasuna	27	1	0,37	-
Osakidetza	73	16	21,92	-

B) Foru aldundiak

	(1)	(2)	(3)	(4)
 Arabako Foru Aldundia				
Toki Administrazioa	1	1	100	-
Gizarte Zerbitzuak	22	5	22,73	-
 Bizkaiko Foru Aldundia				
Gizarte Ekintza	11	1	9,09	-
Herri Lanak eta Garraioak	5	1	20	-
 Gipuzkoako Foru Aldundia				
Gizarte Politika	15	1	6,66	-

C) Udalak**Arabako Lurralde Historikoa**

	(1)	(2)	(3)	(4)
 Arabako udalak				
Aramaio	2	1	50	-
Canpezo/Kanpezu	1	1	100	1
Kuartango	1	1	100	-
Labastida/Bastida	1	1	100	-
Laguardia	5	3	60	1
Laudio/Llodio	-	-	-	1
Vitoria-Gasteiz	49	13	26,53	3
Yécora	-	-	-	1
 Arabako administrazio batzarrek				
Astegieta	3	1	33,33	-
Caranca y Mioma	1	1	100	-
Cárcamo	1	1	100	-
Lagran	-	-	-	1
Menagarai-Beotegi	1	1	100	-
Mendiola	1	1	100	-
Rivabellosa	-	-	-	1
Santa Cruz de Campezo	-	-	-	1
Ullibarri-Gamboa	1	1	100	-
Zurbano	1	1	100	-

**Bizkaiko Lurralde Historikoa**

	(1)	(2)	(3)	(4)
 Bizkaiko udalak				
Abadiño	2	1	50	-
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	2	1	50	-
Alonsotegi	4	3	75	-
Areatza	-	-	-	1
Bakio	3	2	66,66	-
Barakaldo	11	1	9,09	1
Barrika	-	-	-	1
Basauri	-	-	-	1
Bermeo	5	2	40	-
Durango	6	4	66,66	-
Elorrio	2	1	50	-
Erandio	11	4	36,36	-
Gamiz-Fika	-	-	-	1
Getxo	28	8	28,57	1
Leioa	5	2	40	-
Leketio	2	1	50	-
Loiu	1	1	100	-
Mungia	4	1	25	1
Muskiz	1	1	100	-
Ondarroa	2	1	50	-
Ortuella	2	1	50	-
Plentzia	3	1	33,33	-
Portugalete	-	-	-	1
Santurtzi	-	-	-	2
Sestao	8	5	62,5	-
Sopelana	7	1	14,28	-
Zalla	1	1	100	-



Gipuzkoako Lurralde Historikoa

	(1)	(2)	(3)	(4)
Gipuzkoako udalak				
Azkoitia	-	-	-	1
Donostia-San Sebastián	45	14	31,1	3
Eibar	1	1	100	-
Elgoibar	1	1	100	-
Errenteria	7	1	14,28	-
Hondarribia	2	2	100	-
Ibarra	-	-	-	1
Irun	9	1	11,11	2
Lasarte-Oria	-	-	-	1
Legazpi	1	1	100	-
Lezo	3	1	33,33	-
Mutriku	2	1	50	-
Oiartzun	2	2	100	-
Usurbil	2	2	100	-
Zizurkil	1	1	100	-

D) Beste erakunde publiko batzuk

	(1)	(2)	(3)	(4)
Gasteizko UNEDen ikastetxe elkartua	-	-	-	1
Bilbao Bizkaia ur partzuergoa	12	3	25	1
Enkarterriko mankomunitatea	1	1	100	-
Euskal Herriko Unibertsitatea	14	5	35,71	-
Ura-Uraren Euskal Agentzia	5	1	20	-

11.3. Arartekoak 2013. urtean egindako ohartarazpenen zerrenda

A) Eusko Jaurlaritzza

Saila	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data
SVS/Osakidetza	Zuzendari nagusia	Jon Etxeberria	268/2013/20	Lanaldia aldatzeko eta osagarria ordaintzeko eskaera	2013/11/11

B) Foru Aldundiak

- Arabako Foru Aldundia

Saila	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data
Toki Administrazioa	Foru diputatua	Javier Ruiz de Arbulo	2109/2013/29	Isiltasuna agiriak eskuratzeko eskaera baten aurrean	2013/11/20
Gizarte Zerbitzuak	Foru diputatua	Marta Alaña	440/2013/20	Adinekoen egoitzetako erizaintzako laguntzaileen lanaldia	2013/11/11
			1613/2013/20	Zuzkidura ekonomikoa, ezinduentzako egoitzetako begiraleen laneko jantziak erosteko	2013/11/11

C) Udalak**Arabako Lurralde Historikoa**

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data
Canpezo/Kanpezu	Alkatea	Esteban García	602/2013/29	Etzebitzita batzuetako ur zikinen araztegiaren mantentze-lanak	2013/11/11
Laguardia	Alkatea	José Manuel Amézaga	1784/2012/23	Baimenik gabeko instalazio bat salatzea	2013/03/27
			2690/2012/29	Udalbatzaren eta batzordearen aktak eskatzea	2013/04/11
			929/2013/23	Baimenik gabeko obra bat salatzea	2013/07/23
Vitoria-Gasteiz	Alkatea	Javier Maroto	2119/2012/20	Udalaren haurreskola batean eskolatzeko baldintzak	2013/01/11
			2381/2012/29	Katalogo bat editatzeko kontratua ez betetzea	2013/04/11
Yécora	Alkatea	Iñaki Ibáñez	2440/2012/29	Zuhaitzak mozteko eskaerari ez erantzutea	2013/04/11

**Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data
Alonsotegi	Alkatea	José Luis Erezuma	285/2013/29	Mugarritzatzeko eskaera bat ez izapidetzea	2013/09/04
Barakaldo	Alkatea	Tontxu Rodríguez	2723/2012/23	Birkokatzeagatik kalte-ordaina	2013/05/20
Erandio	Alkatea	Joseba Goikouria	2373/2012/28	Gazteentzako lonjek sortutako eragozpenak	2013/11/18
			2828/2012/23	Udalaren lan-proiektuarekiko desadostasuna	2013/05/20
			1207/2013/23	Hondakinak uzteko jarduera	2013/11/25
Gamiz-Fika	Alkatea	Luis Lekerika	2250/2012/29	Zinogotzietan informaziorik ez ematea eta konfiantzako langileak izendatzea	2013/02/11
Getxo	Alkatea	Imanol Landa	2318/2012/29	Kale partikular baten egoera juridikoa	2013/04/11
			1188/2013/28	Jatetxe batek sortutako eragozpenak	2013/11/28
Ortuella	Alkatea	Oskar Martínez	1068/2012/29	Erroldatzea ukatzea	2013/11/29
Plentzia	Alkatea	Isabel Zarautza	685/2013/29	Urbanizazio bateko sarrera ixtea	2013/11/11
Sestao	Alkatea	Josu Bergara	362/2013/23	Kexa, planeamendua aldatzeagatik	2013/10/29
			1903/2013/29	Ez erroldatzea	2013/11/20

**Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp. zenb.)	Azalpena (Kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data
Azpeitia	Alkatea	Eneko Etxeberria	307/2012/28	Zarata-eragozpenak pub batean	2013/02/11
			609/2012/28	Soinu-ekipoetan hots mugatzailerik ez jartzea	2013/02/11
Donostia-San Sebastián	Alkatea	Juan Carlos Izagirre	1679/2012/29	TAO txartela ukatzea, bizilekua aldatzeagatik	2013/02/04
			559/2013/29	Ez dago adinekoentzako kirol instalaziorik	2013/11/11
Errenteria	Alkatea	Julen Mendoza	1433/2013/29	Ibilgailuek espaloia hartzea	2013/11/11
Zizurkil	Alkatea	José M ^a Luengo	2147/2013/29	Atez ateko zabor bilketa	2013/11/20



**Euskal Herriko administrazio
publikoen jarduera**

ikuskatzea



a t a l a

II. Atala

Euskal Herriko administrazio publikoen jarduera ikuskatzea

EAEko herritarren eskubideak babesteko ardura esleitu diote Arartekoari, EAEko herri-administrazioen irregulartasunen, akatsen, gehiegikeriaren eta jardun okerraren aurrean jardun dezan. Horretarako, oinarritzko bi lanabes erabiltzen ditu:

- herritarrek egiten dituzten kexa-espeditenteak ebaztea. Kexa jartzeko, aurrez ezarritako bide hauek erabil daitezke: Arartekoaren hiru bulegoetako batera joan, postaz baliatu, edo internetez, Arartekoaren web orriaren bidez.
- ofiziozko jardunen bitartez (halakoetan, Arartekoak jarrera proaktiboa hartzen du), ofiziozkoa, jardun administratibo batek funtsezko eskubideren bat kaltetu dezakeela hautematen badugu, eta indarrean dagoen legeria urratu dezakeela iruditzen bazaigu.

2013. urtean era guztietako **9.551** kexa egin dituzte herritarrek; beraz, nabarmen ugartu dira (%**12**) joan den urtean jasotakoan aldean, eta %93 orain hiru urtekoa erreferentziatzat hartzen badugu. Arartekoa sortu zenetik jaso den kopururik handiena da.

Gainera, urtean zehar **ofiziozko 59 espeditente** hasi dira (iaz 69). Arloen arabera, nabarmentzekoak dira Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren ekimenez hasitakoak, baita ogasunari eta mendeko adinekoei buruzkoak ere.

Kapitulu honetan egituratuta daude jarduera guztiak, Arartekoaren bulegoa antolatzeke dauden 16 arloen arabera multzokatuta. Arlo bakoitzean jarduerarik adierazgarrienak aztertuko ditugu, eta arlo horretan bideratu diren kexarik garrantzitsuenak azalduko ditugu, gai multzoetan bereizita. Era berean, urtean barrena gertatutako lege-aldaketak aipatuko ditugu, halakorik izan bada.

Egindako kexak zer arloekin lotuta dauden kontuan hartuta, **2012ko goi-mailetan mantentzen dira 2013. urtean ere (880) gizarte bazterketaren kontra borrokatzeko bitartekoekin zerikusia duten kexak**. Bereziki gailentzen dira

Lanbideren funtzionamendu-arazoei dagozkienak, baita ere erakunde horrek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren arloan burutu dituen jarduerekin lotutakoak.

Aurten, arlo bakoitzeko lana aurrez garatutako jardueraplanaren inguruan egituratzea indartu da. Arlo guztietan lana planifikatzeko eta homogeneoagoa egiteko tresna da, 2010. urtetik aurrera ezarri duguna. Arloen plangintza estrategikoa egiteko tresna gisa erabiltzen ari da pixkanaka. Era berean, arlo bakoitzaren bukaeran, arlo horrekin lotutako herritarren eskubideak baloratzeko atala agertzen da. Horri esker, begiratu azkar batean, 2013. urtean gaikako arlo bakoitzean kontua nola dagoen ikus daiteke.

Merezi du Arartekoaren lan-mekanika aipatzea, bai Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexa idatziei dagokienez, bai onartzen ez diren kexei dagokienez, izan ere, horietan denetan izapide laburtua egiten da, baita bideragarritasuneko eta eskumenezko azterketa ere. Egiaz, onartu gabeko kexen estatistikan –aurreko kapituluari eman dugu hori idatziz, Espainiako Herriaren Defendatzailearekiko bikoiztasuna agertzen da kexa ez onartzeko arrazoi gisa haietako 6 kasutan. Beraz, kexa bakoitza banaka aztertuz, Arartekoaren jarduerarekiko bikoiztasunak ekidingo direla bermatzen da.

Horregatik, bideratzen ez diren kexetan ere dedikazio hori egiazta daiteke. Kasu askotan, horren osagarri, kexagileari aholku ematen zaio jarduteko modurik egokienaz, edo konponbide zehatzak bilatzen dira azaldutako arazo zehatzetarako –hori da Arartekoarentzat garrantzitsuenak–, egin daitekeen edo egin nahi den izapidea edozein izanda ere, edo eragindako administrazioari luzatutako gomendioa alde batera utzita. Alegia, administrazio-prozeduraren aurretik, benetako konponbideak lortzea lehenesten dugu eta nolabaiteko bitartekaritza informala egiten dugu. Bitartekotza horrek oso emaitza onak izaten ditu eta kexagileak gogobetetzen ditu.

a t a l a

QIP 1.

Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola



1.

Arloa kopurutan

Arlo horretan guztira 18 kexa-espeditente berri ireki zituen 2013. urtean; hau da, Arartekoak urtean zehar izapidetzea onartutako guztien %0,67. Jarraian, espeditente horien banaketa azalduko da, arloka:

– Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura	5
– Kultura, industria eta arte ondarearen babesa.....	5
– Kirol jarduerak.....	4
– Herritarren hizkuntz eskubideak justizia administrazioarekiko harremanetan.....	2
– Beste alderdi batzuk.....	1
– Herritarren hizkuntz eskubideak euskal administrazioarekiko harremanetan	1

Herritarren erreklamazioen gehiengoak, berriz ere, botere publikoekin harremanetan euskaraz ezin jartzeari buruzkoak izan dira, eta erreklamazio horietatik eratoritzen da hobekuntza-marjina handiena Justizia, Osakidetza eta Segurtasun Administrazioaren inguruan dagoela. Hala ere, azken esparru horretan ez bezala, non ezin den esan aurrerapen esanguratsurik egin 2013. urtean, [Osakidetza](#) eta Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak abian jarritako planek euskalduntzeari bultzada eman diote zalantzarik gabe, esku-hartze publikoa eta gizarte-adostasuna horrenbeste behar duen testuinguru batean.

Arlo honetan aurkeztutako gainerako erreklamazioak, alde batetik, udal-zerbitzuetan euskaraz artatuak ez izateagatik aurkeztu dira; eta bestetik, herritarrek Erregistro Zibilean izan dituzten arazoengatik, bai euskal izenak inskribatzeko, bai izena edo abizenak euskal ortografiara egokitzeko prozeduretan izandako atzerapenen ondorioz. Kexa horiekin guztiekin lotuta, dagozkien botere publiko guztiek emandako laguntza eskertu behar dugu, helarazi dizkiegun problema oro konpontzeko arretaz lan egin baitute.

Kultura-ondasun izendatzeko ondasunak identifikatzea eta hautatzea izan da arlo horretako beste jarduketa-esparru bat, partikularrek edo herritarren ekimenek eskatuta, gure kultura-ondarea zaintzeko. Hiru alderditan esku hartu behar izan dugu, hain zuzen, gai horri dagozkion balorazio-irizpideetan, herritarren parte-hartzean eta izapideen epeetan, bai Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean bai Donostiako Udalean.

Arlo honetan jasotako gainerako kexen artean, kirol esparruan planteatutakoak azpimarra daitezke, kasu guztietan kirol egokituaren eta eskolako kirolaren ingurukoak izan direnak. Gai horretan, bestalde, genero-ikuspuntua indartzeko gure gomendioak harrera bereziki ona izan dute.

Urtean zehar izapidetutako kexei dagokienez, txosten hau amaitzean egoera honetan zeuden:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
36	15	19	15	4	-	2

2.

Kexarik aipagarrienak

2.1. Arreta elebiduna Orioko eta Usurbilgo bake-epaitegietan

Salatutako egoera: Usurbilgo eta Orioko alkateek batera jo zuten erakunde honetara, bere herritarrek Justiziaren aurrean bi hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzeko eskubidea erreklamatzeko. Azaltzen dutenaren arabera, bi udalerrietako bake-epaitegiez arduratzen den Bake Epaitegietako Idazkari Taldean hutsik geratu zen prozesu-kudeatzailearen eta administrari-idazkariaren kargua erretiroagatik. Ordura arte, euskaldun batek betetzen zuen kargu hori. Haren ordeztu izendatutako pertsonak, ordea, gaztelaniaz bakarrik artatzen zituen bere epaitegietako erabiltzaileak. Arazoa [Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren](#) aurrean planteatu zuten, baina sailaren erantzuna indarreko lanpostu-zerrendari (LPZ) lotu zitzaion, zerrenda horren arabera, kargu horren hizkuntza-profil elebiduna ez baitzen derrigorrezkoa izango 2015eko urtarrilera arte.

Arartekoaren esku-hartzea: Herri Administrazio eta Justizia Sailak berretsi zigan erretiratutako idazkari-kudeatzaileordezkatzten zuen pertsonak ez zuela hizkuntza-profilik ziurtatuta, hark ez bezala. Hala ere, irizten zuen haren izendapenak, kargua funtzionario titular batek okupatu arte aldi baterakoa zenak eta zegokion lan-poltsan lehenatasun-ordenari jarraiki egin zenak, indarrean zeuden betekizunak betetzen zituela. Nahiz eta zegokion lanpostu-zerrendak euskararen prestakuntza-maila handia eskatu postu horretarako, ez zuen ezartzen prestakuntza hori egiaztatzeko betebeharra 2015. urtera arte.

Sailari azaldu genion udalerriri horietan Bake Justizian langile euskaldunak izateko eskaera arrazoizko aldarrikapen bat dela, bai eta denboran zehar etengabe egin dena ere. Bestalde, hizkuntza-normalizazioaren esparruan araudiak egiten dituen bi aurreikuspen aipatu genizkion, gure ustez, erretiratu zen pertsona aldi batera ordezkatzeko kontuan hartu behar izan zirenak:

- Batetik, [ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuaren](#) bigarren xedapen iragankorraren bigarren tarte-esaldia. Horren arabera, hizkuntza-profilak egiaztatzeko gerora ezarritako data horiek betetzat joko dira, Idazkarien Talde horretan gertatu zen bezala, aipatzen den lanpostuaren titularrak esleitutako derrigortasun-data baino lehen egiaztatu izan balu profila. Horren bidez, lortu nahi da lanpostu edo zerbitzu jakin batean eskuratu den arreta elebidunaren mailak atzera ez egitea.
- Bestalde, zer euskara maila duen kontuan izanda, profila ziurtatu behar den datara iritsi arte geratzen den denboran esleitutako profila lortu ezin duen pertsona bat lanpostu bat betetzeko izendatzea eragozten du araudi horrek. Logikoa dirudi aurreikuspen hori egiteak. Izan ere, bestela, izendapen horrek eragingo lukeen legezko arazoa une horretara arte atzeratzen ariko ginateke soilik.

Arazo bera dela eta, [Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko](#) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzara jo genuen.

Emaitza: Planteamendu hori kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak aipatu Bake Epaitegietako Idazkarien Taldeari zegokion lanpostu-zerrenda aldatzeko espedientea hasi zuen, 2015. urtera itxaron arte talde horretan idazkari-kudeatzaile kargua betetzen duenari herritarrek euskaraz artatzeko gai izatea eskatzeko xedeetarako derrigorrezkoa den bezala. Era berean, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren aldeko txostena izan zuen horretarako.

2.2. Kirola egiteko espazio publikoen esleipenean genero-berdintasunerako irizpideak

Salatutako egoera: Guraso talde donostiar bat joan zen kexa aurkeztera Arartekora. Guraso horien seme-alabek Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasketak egiten ari ziren, eta beren ikastolako taldearekin parte hartzen zuten [Gipuzkoako Foru Aldundiarekin](#) batera antolatutako Eskolako Kirol jardueretan. Azaltzen zutenaren arabera, programa horretan ospatutako futbol-partidak Kontxa hondartzan jokatzeko ziren, baldin eta mutilen taldeen edo talde mistoen artean jokatzekoak baziren. Nesken taldeen arteko partidak, aldiz, Añorgako eta Puioko futbol-zelaietan jokatu behar ziren, praktikan aplikatutako antolaketa-irizpideen arabera. Guraso horien ustez, nesken arteko lehiaketak gizarte-ikusgarritasun gutxiagoko lekuetara zokoratzen ziren horrela, eta botere publikoen jarduketan nagusi izan behar duten errespetuaren eta genero-berdintasuna sustatzearen irizpideen aurkakoa zen hori.

Arartekoaren esku-hartzea: Arartekoa gogoeta egiten hasi zen gai horren inguruan [Donostiako Udalarekin](#) eta [Gipuzkoako Foru Aldundiarekin](#), eta gogoeta egin ondoren [2013ko ekainaren 19ko Ebazpena](#) eman zuen. Ebazpen horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostiako Udalarari gomendatzen zaie futboleko espazio publikoetan eta, bereziki, Kontxako hondartzan, neurriak har ditzaten eta txapelketa maskulinoak eta femeninoak berdintasun irizpideei jarrai joka daitezten.

Emaitza: Bi erakundeak bat etorri ziren gure ebazpenaren oinarri zen analisiarekin, eta bereziki esanguratsua izan zen foru-erakundearen erreakzioa, kontuan izandako Eskolako Kirol Programan zer-nolako garrantzia duen bere lanak. Ondorioztatu zuen erabilitako irizpideek ez zutela inolaz ere arazoitzen Eskolako Kirol Programaren esparruan futboleko jokatzeko antolatzen ziren espazioak sexu-arrazoiagatik bereizita erabiltzea, eta bi konpromiso hartu zituen: batetik, futboleko jokatzeko espazioen erabileran sexu-arrazoiagatik bereizketa eraginkortasunez kentzeko beharrezko neurriak abian jartzea ahalik eta eperik laburrenean; eta bestetik, oro har neskek egiten duten kirolari eta, batez ere, nesken arteko futbolari, ikusgarritasun handiagoa emateko ekintza positiboak abian jartzea programa horretan esku hartzen duten gainerako eragileekin batera, espazio eta presentzia publiko handiagoa lortzen joan dadin.

3.

Gizarte- eta araudi-testuingurua

Gure autonomia-erkidegoan euskarak diglosia-egoera bizi du gaztelaniarekiko. Egoera horretan, gero eta nabarmenagoa da euskararen jakintza eta bere erabilera eraginkorra Administrazioan ez datozela bat, bai barne-prozesuetan bai herritarrekin dituzten hartu-emanetan. Horrela eman du aditza [Europako Kontseiluko Aditu Batzordeak Eskualdeko Hizkuntzen edo Eremu Urriko Hizkuntzen Gutunari buruz](#) egindako [Espainiaren egoerari buruzko azken txostenean](#), eta horrela izan dela adierazi dute arlo horretan herritarrek urtean zehar aurkeztu dituzten kexek.

Idea hori bera izan zen gogoan [Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan Euskararen erabilera Planifikatzeko IV. Aldiaren \(2008-2012\) ebaluazioan](#), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Eusko Jaurlaritzan uztailan aurkeztu zenean.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako azterketa garrantzitsu bat argitaratu zen: «[Euskara EAE: gaitasuna, erabilera eta iritzia](#)».

Atal honetan, azterketa horretako ondorio batzuk errepikatu nahi izan ditugu, kontuan izanda gure jardueran esparru horretan jasotako kexak zer-nolako testuingurutan gertatzen diren deskribatzeko erabiltzen duen birtualtasuna, kexa horietako bakoitzarentzat ematen ditugun konponbideez harago. Halaber, erakunde honek bere azken txostenetan adierazitako ondorioekin bat datozelako errepikatu nahi ditugu, iazko urtean argitaratutako [V. Inkesta Soziolinguistikokoaren](#) datuek ere berretsitatekin:

Gure txosteneko datuek erakusten dute EAEko egoera soziolinguistikoro orokorra gaztelaniaren aldekoa dela, hainbat modutan: a) biztanleriaren zati bat, soilik, da gai bi hizkuntzetan; b) gai direnen gehiengoa hobeki aritzen da gaztelaniaz; c) publikoki, euskara aldekoen eta mesfidatien arteko tirabiran kokatzen da, gehiengo batentzat erakargarri eta

eztabidaezin bihurtzen duen sari edo abantaila sozialik gabe.

Guzti horri gehitu behar zaio, gure gizartean eguneroko harremanetan gaztelania erabiltzen dela, eta harreman horiek elebidunak izateko arazoak eta lan eskerga egon daitezkeela. Horregatik, bi lan-ondorio –edo hipotesi sendo– atera ditzakegu:

1. Benetako arriskua dago, egungo gizarte-elebitasun desorekatuaren egoerak euskara bazterrean eta atzera bueltarik gabe uztea, urteen poderioz.
2. Errealitatean ez dira inondik ere betetzen eskubide linguistikoak bermatzeko beharrezkoak diren baldintzak, indarrean dagoen araudian aurreikusten badira ere, txostenaren hasieran aipatu dugun moduan.

Informatzen ari garen urtearen erdialdean, bestalde, datu eguneratuen bidez egungo hizkuntza-profilen arteko egokitze-maila eta profil horiek eskatzen diren lanpostuetan garatutako funtzioak ezagutzeko Eusko Jaurlaritzak eskatutako [azterketa kualitatiboaren](#) emaitzak aurkeztu ziren. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren sail guztiak, Ertzaintza, Justiziako Administrazioa eta Osakidetza barne hartzen dituzten elkarrizketen bidez, euskal administrazioek bi hizkuntza ofizialen funtzionamendua bermatzeko profilek zenbateraino balio izan duten ebaluatu nahi zen, zer komunikazio-behar dituzten eta zer mailaraino beteta dauden kontuan izanda.

EAEko [herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatze](#)ko planetarako irizpide orokorrek, V. Plangintza Aldia (2013-2017) hasiko zelako Sailak argitaratu zituenek, kontuan hartu zituzten ondorio horiek. Plangintza Aldi horren baitan joan dira aurkezten urte osoan zehar Euskal Autonomia Erkidegoan foru-aldundiek eta udalek onartutako euskararen erabilera normalizatze planak.

Halaber, Osakidetza [Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatze](#)ko bigarren Plana onartu zuen, Euskararen Nazioarteko egunean bertan.

Bi aste lehenago, Eusko Legebiltzarrak erabaki zuen Osakidetza lehentasuna eman behar ziola euskararen jakintzari aldi baterako langileak kontratatze garaian, eta enpresa hornitzaileei hizkuntza-irizpideak eskatu behar zizkiela.

Azkenik, Justiziaren esparruan, [“Auzia euskaraz” proiektuak](#) lortu duen bultzada berria berri ona izan da. Proiektu horren helburua da auzi-prozeduren izapide guztiak euskaraz egitea.

4.

Beste esku-hartze batzuk jarduketa-planaren eremuan

Arlo honetan Arartekoaren jarduketa zuzendu duen planaren esparruan, azpimarratu behar da garrantzi handia eman diogula gizartez ibil antolatua erekin egindako lankidetzari.

■ Kirol Klubak.

■ Abokatuen Elkarteetako Euskara Batzordeak.

- **Hizkuntz Eskubideen Behatokia.** Behatokiarekin lankidetzan jardun gara, administrazioekin harremanak euskaraz izateko zailtasunak izateagatik jasotzen dituzten kekekin lotuta, bai eta eskubide horren eraginkortasuna lortzeko politika aktiboen alderdirik beharrezkoenei buruzko diagnostiko orokorra egiteko.

Halaber, [Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko](#) Hizkuntza Politika Sailburuordetzarekin bildu gara. Sailburuordetza horrek uneoro eskaini digu bere laguntza, erakunde honetan kexa aurkeztea eragin duten kasuak konpontzeko, euskal administrazioekin nahiz estatuko administrazioekin lotuta. Esparru horretan bertan, Arartekoak lanean jarraitu du [Elebide Hizkuntz Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuarekin](#) duen koordinazioa hobetzeko, lankidetzahitzarmen bat sinatuz.

5.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

- **Funtzionarioek gure bi hizkuntza ofizialak jakiteak** ez du bermatzen, bere kabuz, **baten erabilera edo bestea herritarrentzat aukera aske bat izatea** Administrazioarekin dituzten harremanetan. Izan ere, ez du askotarako balio Administrazioaren zerbitzura dauden langileek euskararen hizkuntza-profil jakin bat ziurtatu behar izana, erabiltzaileak artatzeko garaian ez badira bi hizkuntzak normaltasunez erabiltzen beren jarduketa-esparru guztietan.

Arazo konplexua da, eta arazo hori konpontzeko beharrezkoa da gizarte- eta politika-adostasun zabala lortzea. Edonola ere, ezinbestekoa da botere publikoek ausart esku hartzea gai horretan, kontuan izanda bat ez etortze horrek eragina duela euskaldunen eskubideen eraginkortasunean. Jarduketa-ildo horretan, beharrezkotzat jotzen dugu Legebiltzarrak eskatuta hizkuntza-profilen sistema ebaluatu duten azterketetatik ondorioztatutako datuei erreparatzea. Gure ustez, kezkarriak dira taularatu dituzten disfuntzioak, eta batez ere, zerbitzu publikoetako langileek jasotzen duten prestakuntza bideratuagoa egoitea proba gaitzera hizkuntza dagokion zerbitzuan egiantan erabiltzen irakastera baino, azterketaren ondorioek salatzen duten bezala. Beharrezkoa da ahalik eta loturarik handiena egotea lanpostu baterako behar den profila egiaztatze eskuratutako jakintzen eta, egiaz, kasu bakoitzean dauden barne- eta kanpo-komunikazioen fluxuekin bat lanpostu hori betetzeko behar diren jakintzen artean.

- **Osakidetzaren Euskara Plana** urrats garrantzitsu bat izan da, erabiltzaileen hizkuntza-eskubideen errespetuaren bidez, Osakidetzaren kalitatea hobetzea lortzeko.

Ildo horretan, Arartekoak Legebiltzarrari egindako azken txostenean adierazitako kezketako batzuk jasotzen ditu. Kezka horietako bi azpimarratuko ditugu: Osakidetzako langileek osasun-sistemako erabiltzaileen eskaerari aurre hartzea, zerbitzuak euskaraz eskatzeko ardua erabiltzaileei ez uzteko moduan; eta euskararen presentzia eta erabilera zerbitzuaren hizkuntza gisa bermatzea, ahoz nahiz idatziz, gaixoarekin duten arretan nahiz laneko barne-harremanetan.

Anbizio handiko helburu batzuk dira, baina errealistak zuzendaritza, profesionalak eta sindikatuetakordez-kariak parte hartuz egin den planak dagozkion osasun-operadore guztietatik behar duen babesean jarraipena izateko neurrian.

■ **Justizia** da oraindik langileek euskara gutxien erabiltzen duten zerbitzu publikoetako bat, eta horrek ezinbestean du eragina erabiltzaileek denbora, eragozpen eta bere-halakotasunaren alderditik aurre egin behar dieten kostuetan, auzia hizkuntza horretan egitea erabakitzen dutenean. Egoera horrek atzera egitea eragiten du, eta horren ondorioz, hizkuntza ofizial bat edo bestea erabiltzea ez da aukera aske bat herritarrentzat gure auzitegiaren. Gogoratu behar dugu aukera horrek bermatuta egon behar duela, justiziapekoaren eskubide gisa, eta ez haren defentsa-gabezia saihesteko baliabide gisa. Urtean zehar, hala ere, nabarmendu beharreko aurrerapen batzuk gertatu dira:

– Beste ezer baino lehen, **Auzia Euskaraz** proiektua, auzi-prozedura osoa euskaraz egiteko aukera eman-goduten baldintzak sortzeko helburua duena. Operadore juridiko guztien inplikazioa beharrezkoa izango da proiektu hori sendotzeko, epailez, abokatuz nahiz prokuradorez, bai eta perituz, auzitegiko medikuz eta Bulego Judizialeko langilez, osatutako lan-talde elebidunen bidez.

– **Agertzeekin** eta **epaiketekin** lotuta, erakunde honek iazko azken txostenean planteatu zuen iradokizunetako bat jaso da, Justiziako Administrazioak aurre har ziezaien itzulpen-beharrei, bere zerbitzupeko langileek justiziapekoak adierazteko erabili nahi duen hizkuntza ofiziala ez jakitearen ondoriozkoei. Hala, zitazioan bertan hasi ziren galdetuz pertsona hartzaileari ea euskara ala gaztelania erabiliko zuen. Idazkari judizialen laguntza erabakigarria izan zen sistema berriaren bideragarritasuna lortzeko. Sistema hori pixkanaka ezarri zen eta irizpide egokiaz, epaitegiaren tamainaren eta barruti judizialaren egoera soziolinguistikoaren arabera.

– **Formularioak eta inprimakiak** egiteari dagokionez, epaitegietak langileei bi hizkuntzatan dauden testuekin lan egiteko aukera ematen dieten tresnak garatzen jarraitu dute, euskaraz terminologia juridikoa erabiltzeko eta ikasteko prestatuz. Egokia litzateke horrela eskatzen duten abokatuek bulegoek aplikagarri horiek eta beren eguneraketak eskuratzeko modua izatea. Edonola ere, ohartarazi behar da formulario bat egoteak ez du bermatzen bi hizkuntzetan ondo erabiliko denik, formularioa betetzen duten langileek hizkuntza bakar batean betetzen badute. Hori ematen dute adiztera zenbait pertsonak egindako kexek. Izan ere, pertsona horien esanetan, bi hizkuntzatan zegoen eredu

baten gainean egindako zitazioak jaso zituzten, baina zitazio horietan gaztelaniaz soilik ageri zen deia egiteko agindua ematen zuen organoari, hori erabakitzen zuen ebazpenari, zitazioaren xedeari, agertu behar zuen lekuari, egunari eta orduari eta lege-prebentzio garrantzitsuari buruzko informazioa.

■ Gure txostenak hobekuntza-marjina handiagoa esleitzen zien zenbait esparruri, hizkuntzen koofizialtasunetik eratorritako eskubideen eraginkortasunari dagokionez, eta esparru horietatik **poliziala** izan da ordutik aurrerapen esanguratsurik egin ez duen bakarra. **Herrizaingo Sailak** Arartekoari agindu zion neurriak hartuko zituela bidali genion **Gomendioa** betetzeko. Gomendio horretan eskatzen genion bere giza baliabideak antolatzeke, txandetan eta zerbitzuetan langile elebidunen presentzia bermatzeko moduan, faktore objektiboei jarraiki banatuta, hala nola kokatuta dauden lekuko testuinguru soziolinguistikoa eta biztanle kopurua, langileen zuzkidura eta garatutako lanaren arabera publikoarekin izan dezaketan elkarreragin handiagoa edo txikiagoa. Era berean, agindu zuen erakunde honi hartutako neurri horien berri emango ziola.

Txosten hau amaitzean, hala ere, ez genuen neurri horiei buruzko jakinarazpenik jaso, eta horrenbestez, pentsatu behar dugu ez dituela hartu. Eusko Jauriaritzako Prospekzio Soziologikoko Kabinetearen azken azterketek ateratako ondorioek erabateko zentzua hartzea eragiten du horrek, zehazki, ondorio hauek: *errealitatean ez dira inondik ere betetzen eskubide linguistikoak bermatzeko beharrezkoak diren baldintzak, indarrean dagoen araudian aurreikusten badira ere*. Beraz, Eusko Jauriaritzako Herrizaingo Sailari **neurri errealistak, espezifikokoak eta ebalua daitezkeenak** hartzeko eskatzen jarraitu beharko dugu, arlo horretan teoriaren eta errealitatearen artean dagoen tartea murrizten lagunduko duten neurriak, hain zuzen.

■ **Kontsumoaren** esparruan, kontsumitzaile euskaldunek saltokietan eta zerbitzu-enpresetan euskaraz artatuak izateko duten eskubidearen birtualtasuna aztertzeko dago. **123/2008 Dekretuak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoak**, hasiera batean ezarri zuen lau urteko egokitzapen-epaia amaituta, beharrezkoa da aztertea zenbateraino garatu eta bete den **Euskadiko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarekin** elkarreraginean, bai eta eraginkorrak izan daitezkeen neurriak aztertea ere, gizartean adostasun-maila handiena bilatuz beti, pertsonak, kontsumitzaileak diren aldetik, gure hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzeko askatasuna dutela bermatzeko.

■ **Kultura-ondarearen** esparruan, Donostiako Arte Ederretako eraikinaren kontserbazio-egoerarekin eta eraikin horrentzat kultura-babeseko erregimen bat ezartzeko behararekin lotutako egoera batean esku hartu dugu. Donostiako elkarte batek bere kezka adierazi zigun Udalak eraikina erortzeko zorian zegoela deklaratzeko espediente bat hasi zuelako, eta kexu zen erakunde honen aurrean Eusko Jauriaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ez ziolako erantzun **7/1990 Legean, Euskal Kultura Ondareari buruzkoan**, xedatutakoaren babesean

gai horrekin lotuta egin zuen eskaerari. Arartekoak, bi alderdi horiekin lotuta, [2013ko abenduaren 19ko Ebazpena](#) egin zuen:

- Ikuspuntu material batetik, hau adierazi nahi dugu: nahiz eta eraikin baten egoera eta kontserbazioa elementu garrantzitsuak diren beren balioespen egokia egiteko eta babes-erregimena ezartzeko garaian,aldi batean erortzearegotea ez dela oztopo bat bere kultura-babesa ezartzeko, baldin eta horrela gomendatzen duten oinarritzko balioak eta balio nagusiak (arkitekturakoak, historikoak, berezitasunekoak, eredugarritasunekoak...) justifikatzen badira. Edonola ere, eraikina erortzearegotea deklaratzeko hirigintza-legediak jasotzen duen jabetza kontserbatzeko betebeharren amaiera mugatuko du. Era berean, katalogatutako eraikin bat, kultura-balioengatik babestuta dagoena edo katalogatzeko prozedura bati lotuta dagoena, den kasuetan, [7/1990 Legeak](#), [Euskal Kultur Ondareari buruzkoak](#), kultura-ondareentzat jasotzen dituen berariazko aurreikuspenek zuzenduko dute eraikinaren auri-deklarazioa.
- Izapidetzeari dagokionez, adieraziko dugu, behin betiko erabaki bat hartu baino lehen, kultura-administrazioak partaidetza-prozesu bat ezarri behar duela zuzenean interesa duten alderdiekin, bai eta hitzarmen-prozesu bat dagozkion administrazioekin ere. Prozedura horretan, komenigarria litzateke kultura-ondarearen babesa bermatzeko aukera emango lukeen ekintza-plan bat ezartzea; balio bereziko zer elementu babestu behar diren zehaztea; eta babes-erregimena eta erabilera-erregimena, bere balio ezagutarazteko aukera emango duena ezartzea. Horretarako, finantzaketa- eta lehentasun-programa bat abian jarri beharko da, eraikina suntsitzea eragotziko duena.

Bestalde, Donostiako Udalaren aurrean esku hartu dugu tokiko ondarea babesteko plan berezi batekin lotutako egoera batean. Azpimarratu diogu beharrezkoa dela arrazoizko epe batean erantzutea aurkeztutako alegazioei eta pertsona interesdunei unean-unean informatzea gai horrekin lotuta jarraitu diren izapidetxei buruz. Era berean, jakinarazi diogu Donostian eraikitako hirigintza-ondarea babesteko Plan Berezia onartzeko administrazio-espeditentearen izapidetxeak hiru urte baino gehiagoko atzerapena izan duela, gehiegizkoa, [2/2006 Legean](#), [ekainaren 30ekoan](#), [Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan](#), aurreikusitako epeei dagokionez. Hirigintza-antolamenduko udal-zerbitzuaren

ohiz kanpoko funtzionamendu hori konpondu egin behar izango zitekeen, legean aurreikusitako izapidetxeak eta epeak betetzeko, edo gutxienez, zentzuzko epe baten barruan betetzeko, administrazio-neurri egokiak xedatzearen bidez.

- Politika publiko guztiak diseinatzeko eta gauzatzeko garaian, beharrezkoa da beti **genero-ikuspuntu** bat kontuan izatea. Genero-ikuspuntu horrek ohartarazten digu zenbait esparrutan gizonen eta emakumeen presentzian oreka-gabezia ez dela kontu neutro bat, baizik eta gizarteak gizon-emakumeei esleitzen dizkien aukeretan eta roletan dagoen sexismoaren ondorio bat. Pertsonen arteko berdintasun eraginkorrari jartzen zaion oztopo bat da hori. Esparru horietako bat da **kirola**, eta zehazki, modalitate maskulinizatuenak, hau da, batez ere gizonezkoekin lotzen direnak. Modalitate horiei [3/2007 Lege Organikoaren](#), [martxoaren 22koaren](#), emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoaren, lehen xedapen iragankorra aplikatu behar zaie.

Beharrezkoa da ikuspuntu hori kontuan izatea, administrazioek, batzuetan, emakumei eta neskatuei zuzendutako kirol-eskaintza gizonezkoek eskura dutena baino urriagoa dela justifikatzeko baliatzen dituzten antolaketarazoei heltzeko garaian. Gai hori Eskolako Kirolaren berariazko esparruan lantzeko parada izan dugu, [2013ko apirilaren 22ko Arartekoaren Ebazpenaren](#) bidez.

Ebazpen horretan, defendatzen dugu, genero-ikuspuntua kontuan hartuta erreparatu gero, aipatu arazoek datu neutro bat izateari uzten diotela, egiatan diren bezala hautemanak izateko: zeharkako bereizketa-kasuak dira, aipatu 3/2007 Legearen 6.2. artikulua eta [4/2005 Legearen](#), Euskadiko emakumeen eta gizonen berdintasunerakoaren, 3.1. b) artikulua bereizketa hori definitzen duten baldintzetan. 4/2005 Legearen 25 artikulua 3. eta 4. idatz-zatietan adierazten du zer betebeharrak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek kirol-esparru zehatzari dagokionez.

Horretarako, oraindik beharrezkoa da gogogabetasunak gaintzea, bai gizartean bai erakundeetan, eta bereziki garrantzitsua da ildo horretan foru-aldundiei Eskolako Kirolaren esparruan dagokien zeregina. Urtean zehar izapidetutako espeditenteei esker, balioetsi ahal izan dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak, ildo horretan, bere Berdintasunerako Zuzendaritzaren bidez garatzen ari den ekimenak norabide zuzenean emandako urratsak direla.

a t a l a

010.2.

Hezkuntza



1.

Arloa kopurutan

2013an 149 kexa-espeditente bideratu dira hezkuntza arloan.

Hona hemen eragindako administrazioak:

– Autonomia Erkidegoaren Administrazio Nagusia (Eusko Jaurlaritzaren)	115
– UPV/EHU	10
– Tokiko administrazioa	4
– Foru administrazioa	1

Ohikoa den moduan, orain Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila izena duenak aurkeztutako kexa gehienak bildu ditu. Horregatik, aldian-aldian jazo diren gorabeherak aintzat hartu gabe (atzerapenak informazioa bidaltzerakoan, adibidez), sail horretako arduradunek lankidetzan aritzeko izan duten jarrera gailendu nahi dugu. Izan ere, jarrera horrek, salbuespenak salbuespen, kexa moduan jaso ditugun kontu gehienak behar bezala izapidetzeko aukera eman du.

Horien edukiari dagokionez, jasotako kexak honako gai hauei buruzkoak izan dira:

– Ikasleen onarpena	30
– Bekak eta bestelako laguntzak	27
– Eskubideak eta betebeharrak	17
– Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura	14
– Hezkuntza-premia bereziak	11
– Unibertsitateko irakaskuntza	9
– Hizkuntzen irakaskuntza	7
– Eskola-garraioa	6
– Eskolako tratu txarrak edo jazarpena	5
– Irakaskuntza artistikoak	5
– Eskola-jantokia	5
– Haur hezkuntza	4
– Lanbide heziketa	3
– Hezkuntzako plangintza/programazioa	3
– Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazio erantzukizuna	1
– Ikastetxeak - instalazioak	1
– Batxilergoa	1

Oro har, aurreko ekitaldietako joera eta kexa-arrazoiak mantendu dira eta, jarraian aipatuko dugun kexa azpimarragarriak atalean egiazta daitekeen bezala, ez dira aurreko urteetatik bereziki aldentu.

Urte honetan zehar kudeatu diren kexa-espeditenteen izapide prozesuaren xehetasunei dagokienez, azpimarratzekoa da 2013an jasotako kexa guztiak, 2013ko urtarrilaren 1ean abian zeudenak gaineratuta, txosten hau idatzi den uanean honako egoera honetan daudela:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herriarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
186	43	106	27	78	1	37

2.

Kexarik aipagarrienak

Ikasleen onarpenerako urteko prozesuaren ondotik makina bat kexa abiarazi dira. Horietako gehienetan **errol-dari lotutako datuen gehiegizko erabilera** salatu da. Horrek beste behin agerian jarri du ez dagoela neurririk ikastetxe jakin batzuetan sartzeko aukerak indartu nahi dituzten jardunbide horiekin amaitzeko (adibidez, **familia-etxearekiko hurbiltasunaren lehentasunezko irizpidea** baliatzen dute).

Dena den, onarpenerako lehentasunezko beste irizpide batzuen aplikazioari buruzko kexak ere jaso ditugu **–familia errenta–**. Azken kexa horietako baten ondotik **Arartekoaren 2013ko urriaren 28ko ebazpena** eman dugu. Horren bidez, hezkuntza-arloko arduradunei gogora erkarri zaie pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga erregulazten duten foru arauetara egokitzeko beharra, **bizikidetzaren unitatetzat** jo behar dena zehazterakoan eta, ondorioz, eskatu dugu 2013-2014 ikasturterako deitutako ikasleen onarpenerako prozesuan egindako onarpen-eskaeraren inguruan hartutako erabakia berrikus dadin.

Aurten ere errepikatu dira planteatutako demanda osoari erantzuna emateko plaza nahikoak ez egotearen ondotik **baimendutako ratioa handitzeko** eskaerak jaso dituzten kexak. Hala, besteak beste, anai-arreben elkartzeari lortu nahi da. Aurrekoetan adierazi dugun bezala, interesdunei jakinarazi diegu indarrean dauden ratioak gailentzeko, baka-rik, eta salbuespenez, ezarritako arrazoen ondotik, aurretik zentroen berriazko eskaera eginda, eta ratioa ehuneko hamar handitzeko egungo aurreikuspenak xede duela behin ikasturtea hasita eskolatu behar diren ikasleak eskolatzea.

Urteko ohiko prozesu horretatik at, ikasleen onarpena **eskolatzeko lurralde batzordeen** bidez kudeatzen da. Batzordeok, gainera, proposamenak egiterakoan, familiek adierazitako asmoaz gain, ahalik eta integrazio normalizatuena lortu behar dute gure hezkuntza-sisteman, bereziki, honako irizpide hauek aintzat hartuta: 1) zentroaren gertutasuna familia-etxebizitzari dagokionez eta eskolan dagoeneko anai-arrebarik ote dagoen; 2) funts publikoekin mantendutako zentro guztien (publikoak eta itunduak) arteko oreka; 3) zentroetan dauden baliabide teknikoak eta giza baliabideen erabilera eraginkorra eta 4) zentroaren egokitasuna ikasleari hezkuntza-erantzuna emateko.

2013an jasotako kekek bidea eman digute egiaztatzeko, oro har, batzorde horiek modu egokian jardun dutela. Horri dagokionez, adibide gisa Ondarroan hartutako erabakiak azpimarratu nahi ditugu. Bertan, berriki sartutako ikasleak ikastetxe hitzartuetan sartu dira eta, hala, banaketa orekatua lortu da.

Oraindik behin betiko ebazpena emateke badago ere, uste dugu kexa jakin bat aipatu behar dugula. Bertan, zalantzan jarri da bizilekutik gertu dagoen ikastetxe hitzartu batean eskolatzea ezartzeko hezkuntza administrazioaren bidez-kotasuna, mugako inguruetan eskaintza publiko bat egon arren eta, hala, eskola-garraioaren zerbitzu osagarria onartu edo ez horri lotuta egon. Azken batean, badirudi hezkuntza administrazioak gain hartu duela gurasoek edo tutoreek ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidea mugatzeko aukera, baita zeharka denean ere, ez baitu eskola-garraioaren zerbitzu osagarria onartu nahi, eskatutako hizkuntza eredu inguruko ikastetxe publikoek eskaintzen ez dutenean baina, bai, ordea, itunpeko zentrotan batek.

Hezkuntza-plangintzari dagokionez, ohikoa den moduan, zailtasun gehienak **zero-hiru urte bitarteko hasierako etapan** egoten jarraitzen dute, batez ere, **bi urteko gelen** eskaintzan.

Hainbat herri eta hiritan aurkeztu dituzte kekek (Gasteiz, Ermua, Hernani, etab.). Baina horien guztien artean uste dugu **Barakaldoko** kasua gailendu behar dugula.

Gure urteko azken txostenean, 2012koan, udalerrri horretako herritarren eskaria kanalizatzeko asmoz erakunde honen aurrean aurkeztutako kebaren berri eman genuen. Une honetan, esan behar dugu Barakaldo dela inguru defizitarioenetako bat zero-bi urte bitarteko matrikula publikoei dagokionez. Halaxe jaso dute “**Hezkuntza Euskadin 2010-2012**” Euskadiko Eskola Kontseiluaren azken txosteneko datuek eta, horrez gain, erantzunik eman ezin izan zaien haur eskolatan jasotako onarpen-eskaera kopuruaren inguruan udalak emandako datuek egiaztatu egin dute.

Kexa honen inguruan bideratutako izapideak gogora ekarri dizkigu Eusko Legebiltzarrean aurkeztu dugun urteko txostenean, zehazki, 2003. urteari dagokion horretan, jaso genituen hausnarketa jakin batzuk, zero-hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntzako arretaren ezarpen prozesuari buruzkoak hain zuzen ere. Gure ikuspegiaren arabera, kexa hori honen adibide erakusgarri izan daiteke: udal ekimenak partzuergoan sartzeari uko egiteak eta hezkuntza administrazioak eskaintza propioa abian jartzeko aukera gaitzesteak eduki ditzaketan ondorioak.

Dena den, erakunde honen ustez, **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak**, Barakaldoko Udalarekin batera eta bakoitzari esleitu dizkieten eskumenak gauzatzuz, beharrezkoak diren ekimenak abian jarri behar dituzte plaza eskasian oinarritutako egoera bideratzeko eta estaldura portzentajea onetsitako plangintza erreferentzietatik gertuago egon dadin.

Plangintzari lotutako kontuekin jarraituz, La Baluga eskola publikoko “Handitzen” gurasoen elkarteak sustatu duen kexa gailendu behar dugu. Guraso horiek **Sopuertan** hezkuntza eskaintza publikoa eskatzen dute, baita **Lehen Hezkuntzan** ere.

Kasu horretan gorabehera bat egon da eta horrek hezkuntza administrazioak jarduteko dituen aukerak baldintzatu ditu. Haur eskolaren instalazioei dagokien lursailaren dohaintza-eskrituran ezarritako betebeharrei buruz ari gara hain zuzen ere. Erakunde honen esku-hartzeak aukera eman die interesdunei espedienteak agiri gisa biltzen dituen txosten juridikoak eskuratzeko.

Dena den, gorabehera hori eta izan dezakeen garrantzia alde batera utzita, gure ustez, hezkuntza administrazio horrek ezin du hezkuntza eskaintza baten programazioari lotuta duen ardura baztertu. Izan ere, eskaintza horrek Sopuertan lehen hezkuntzan ere hezkuntza publikoko eskaintza lortzea xede duen eskariari erantzun behar dio.

Azkenik, **Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioan** ikasketak euskaraz emateko eskaintzaren inguruan izapidetutako kexa aipatuko dugu. Gure iritziz, 2013-2014 ikasturterako onartutako plangintzak baztertu egin du 2013-14 ikasturteko plangintzan, oinarritzko mailan, euskarazko talde bat gehiago zabaltzeko aurretik hartutako konpromisoa, eskaintza orekatua egon dadin (bi talde euskaraz eta bi talde gaztelaniaz). Horren harira, zuzendaritza taldeak ez du aipatu erabakia funtsatzeko azalpen nahikorik eman.

2013an dagoeneko joan den urtean nabarmendu genuen joera mantendu da, alegia, **lanbide heziketako** ikasketei buruzko kekek handitu dira eta, gure irizpidearen arabera, krisi ekonomikoaren egungo egoerari lotuta egon daiteke. Egoera horren ondotik gazte askok haien prestakuntza laneratzea erraz dezaketean ikasketekin osatzen dute.

Kexa horietako batzuek agerian jarri nahi izan dute geroz eta handiagoa den eskari horri erantzuna emateko **ez daudela plaza nahikoak**. Beste batzuetan, aldiz, **goi-mailako lanbide heziketako zikloetara sartzeko probetan** kudeaketako ohiko gorabeherak salatu dira, hain zuzen, erdi-mailako ziklo bat aurretik gaindituta duten eta probaren berriazko zatitik salbuetsita geratuko direla uste duten hautagaiak direnean. 2012an Hezkuntza Sailak izandako lankidetzat jarrerari esker salatutako arazoak edo akatsak konpondu ziren. Hala ere, aurten kasu guztiak ez dira behar bezala ebazti. Gure aburuz, arduradun berriek aintzat hartu beharko lukete berriz ere goi-mailako prestakuntza zikloetara sartzeko proben deialdi horiek kudeatzeko modua, akats horiek erdi-mailako zikloak gainditu dituzten hautagai interesdunen prestakuntza espektatibak zapuztu ez ditzaten.

Hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez, aurten ikasketa horiek ematen dituzten ikastetxei onarpen-baremoan sartutako arazuko aldaketa gailendu behar dugu. Aurreko ekitaldiko txostenean, bereziki jaso genituen berrogei urte baino gehiagoko eskatzaileek adinaren atalean puntuaziorik jaso ez izanaren ondotik bideratutako kekek, kontuan hartuta beste adin-tarte batzuei puntuazio hori eman ematen zaiela. Egoera hori, ordea, aldatu egin da. Izan ere, ikasketa horiek egin nahi dituzten ikasle onarpena eta matrikulazioa arautzen duen 2013ko uztailaren 3ko aginduak ez du desberdintasunik ezarri hemezortzi urtetik gorakoan artean.

Dena den, onarpen araudi horrek kexa gehiago eragin ditu atzeritarren identifikazio zenbakirik (AIZ) ez duten etorkinei jarritako mugak direla-eta.

Horri dagokionez, hezkuntzako arduradunek hauxe defendatu dute: hezkuntzari buruzko [maiatzaren 3ko 2/2006 Legeak](#) egiten dituen eta hizkuntzen irakaskuntzak araubide bereziko irakaskuntzat jotzen dituen irakaskuntzen antolamenduak aukera ematen du Auzitegi Konstituzionaleko azaroaren 7ko 236/2007 zk.ko Epaia irismena zehazteko (AKE 2007\236), atzerritarren matrikulaziorako aukeraren gaineko konpromisoa hartu arren, atzerritarren identifikazio zenbakia (AIZ) eskatzeko beharrik gabe, ikasleak onartu eta matrikulatzeko prozesuak amaitu ostean plazak hutsik geratzen direnean.

Halaber, aurtun **Euskara eta Euskal Literatura irakasgaiaren salbuespenari** buruzko hainbat kexa aurkeztu dizkigute. Jakinaenez, Hezkuntza Sailak urtero-urtero xedatzen ditu Euskara eta Euskal Literatura eremua edo irakasgaia barne hartzen ez duen hezkuntza-sistema batean haren ikasketak hasi dituen ikaslea irakasgai hori ikastetik edota ebaluazetik salbuetsi ahal izateko terminoak. Hain zuzen, 2012-2013 ikasturterako emandako instrukzioek ebaluazioaren salbuespena luzatzeko aukera gehienez ere lau urtera arte mugatzen zuten. Kexa horiek sustatu zituzten ikasleak EAEko hezkuntza-sisteman 2008-2009 ikasturtean hasi ziren. Horregatik, hezkuntza administrazioak ez zuen salbuespen berri hori baimendu nahi, horiek guztiek osatu baitzituzten salbuespeneko luzapen hori baliatzeko lau ikasturteak.

Interesgarria iruditzen zaigu interesdun batek hala eskatuta izapidetu dugun kexa. Haren asmoa zen Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren titulu edo egiaztagiri baliokideak ziurtatzeko premiaren salbuespena onar ziezaioten, kontuan hartuta Erizaintzako ikasketak gainditzeko ikasketak euskaraz egin dituela. Hori guztia **euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen edo ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko** [apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan](#) xedatutakoari jarraiki.

Gure esku-hartzeari esker, interesdun horrek lortu du haren eskolako zuzendaritzak azken ziurtagiri bat egitea, euskaraz bete-betean egindako irakasgaiei dagozkien kredituei zati batean euskaraz egindako irakasgaiei dagozkienak gehituz eta, hala, unibertsitateko titulazioak direnean C1 mailaren maila baliokidea egiaztatzeko salbuespena lortzeko behar diren gutxieneko 144 ECTS kredituak gainditzeko.

Eskola-garraioaren zerbitzu osagarriari dagokionez, esan behar dugu oraindik ez dugula itxi Ametzaga, Sarria eta Bitoriano herrietan ikasleei ematen zitzaizkien eskola-garraioaren zerbitzua eteteko hezkuntza administrazioak hartutako erabakiaren ondotik eskola-kontseiluetako hainbat ordezkari, baita **Arabako Zuia udalerriko** ikastetxeetako gurasoen elkarteek ere, hala eskatuta hasitako esku-hartzea.

Orain arte, saileko arduradunek adierazi dute hartutako erabakia indarrean dagoen arauekin bat datorrela eta gailendu dute ezin dela alde batera utzi etxebizitzaren eta ikastetxearen arteko distantziari lotutako baldintza. Hala ere, berriki, esan dute aplikazioak kasuren batean planteatzen dituen arazoez jabetuta, egokia iruditu zaiela urteko zirkularra aztertzea, bertan aldaketak sartzeko aukera jorra dadin.

Horrez gain, nabarmendu nahi dugu gorpil-aulkian mugitu behar duen ezgaitasunen bat duen gazte baten familiak sustatu duen kexaren berri izan nahi dugula. Familia horren arabera,

eskola-garraioaren egungo antolamendua diskriminatzailea da **ezgaitasunen bat duten ikasleentzat**.

Eskola-jantoki zerbitzuari dagokionez, 2013. urtean hezkuntza-eragile batzuk esan digute kezkatuta daudela adingabe batzuen egoerarengatik. Izan ere, aipatu adingabeen familiek ezin dituzte jantokiko kuotak ordaindu, beken deialdi orokorraren esparruan urtero-urtero iragartzen diren **jantokiko laguntzen** onuradun izatea espero badute ere, zerbitzu horren funtzionamenduari lotutako instrukzioek ezartzen baitute kuotak behin eta berriro ez ordaintzeak jantokiko plaza galtzea ekar dezakeela.

Gure esku-hartzeari esker, behin-behineko kasuak ebazten laguntzeaz gain, hezkuntza administrazioaren konpromisoa lortu dugu: alegia, ikastetxe guztiei instrukzio bat bidaltzekoa, ahal den neurrian halako egoerak saihesteko.

Horrez gain, eskola-jantokietako **elikadura-hondakin kudeaketa** bultzatu nahi duten hainbat elkarrekin proposamenak jaso ditugu (kudeaketa horren bidez hondakin horiek berrerabili nahi dira dohainik kontsumi daitezela). Hori guztia kontuan hartuta, iritzi artikulua bat egin genuen *“Posible da beste herstura mota bat”* izenburupean. Bertan, kontsumo arduratsua egiteko eta elikagaien eralgiketa murrizteko premiaren inguruan kontzientziazte aldera azken urteotan lanean ari diren herritarren elkartasun mugimenduak aipatu ziren.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagokionez, urte honetan zehar **supergaitasunaren edo arreta faltaren nahasmenduaren baldintza pertsonalak** dituzten ikasle batzuei ematen zaien hezkuntza-erantzunaren jarraipena egin dugu.

Zeregin horri esker antzeman ahal izan dugu desadostasun handia dagoela ikasle horiei une honetan ematen ari zaien hezkuntza-erantzunaren inguruan eta, gure ustez, horrek ikasle horien hezkuntza aboratzeko familia-eskolaren artean lankidetzaren harreman on baterako ildo sakontzera darabena, adimen ezgaitasun handiak dituzten ikasleentzako hezkuntza-orientazioak jasotzen dituzten agiriak gomendatzen duten moduan.

Horri dagokionez, hainbat elkartek esan dute kezkatuta daudela orientazio horietako asko ez direlako gauzatzen edo geltako egunerokoan jarraitzen ez direlako.

Halaber, **“Euskal Gorrak” – Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioak** entzumen ezgaitasuna duten ikasleen gaineko kexak bidaltzen jarraitu du, bereziki, lanbide heziketako ikasketa jakinak egiten dituzten horien gaineko.

Ikastetxeei dagokionez, ikastetxe batek jarduera osagarriak programatzeko modua zalantzan jarri zuen ama batek sustatutako kexa bat aztertzearen ondotik, esan behar dugu ikastetxeek, haien **autonomia pedagogikoa** baliatzean, beharrezkotzat jotako **jarduera osagarriak** ezar ditzaketela pedagogiari eta curriculumari lotutako haien proiektuak bermatzeko. Jarduera horiek borondatezkoak izan beharko dira. Horregatik, bertan parte hartzen ez bada, zentroek antzekoa den ordezkari hezkuntza arreta eskaini beharko dute, programatutako jarduera didaktiko osagarriak dituzten curriculumaren helburu berak lortu ahal izateko.

Ekonomia eta finantza kudeaketari dagokionez, adierazi dugu aurrekontuaren eskuragarritasunak aukera ematen badu, zentroek jarduera horiek dohainik programatu ahal

izango dituztela. Hori posible ez bada, ez da baztertu behar zentroek familien babesa eska dezaketela, ekarpen ekonomikoak ezarrita, baina jarduera osagarri horiek ikasle guztientzako barneratzaileak eta irisgarriak izango direla bermatuko duten neurri osagarriak aintzat hartuta.

Hain zuzen, ikastetxeetako pedagogia- eta kudeaketa-autonomia errespetatzeak hasiera batean eragin zuen hezkuntza-ikuskapenak **testuliburu** baten eduki jakinen egokitasuna ez baloratzea. Hala ere, aurrerago, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunek, Emakunderekin batera, eragindako editorialari idazki bat bidali diote. Bertan **Baterako hezkuntzarako eta hezkuntza-sisteman genero indarkeria prebenitzeko gida plan** bat abian jarri dela aipatu da. Plan horren xedeetako bat ikuspegi integral batetik kulturaren, politiken eta ikastetxeen praktiken esparruan genero ikuspegia sartzea da. Horrekin bat etorritik, eragindako editorialari gomendatu diote salatutako edukiak alda ditzan eta emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatuko duten baterako hezkuntzaren ereduak oinarri dituzten materialak edita ditzaten.

Elkarbizitza atalean aurten ere ez dira faltatu gatazka egoeren aurrean hezkuntza administrazioaren berehalako jarrerara edo esku-hartzea eskatu duten ikasleen familien kexak, oro har, behar bezala bideratu direnak.

Halaber, irakasle funtzionario baten kasuaren berri izan dugu. Pertsona honek hainbat ikasleren erasoak jasan ditu eta erakunde honen esku-hartzea eskatu du uste baitzuen hezkuntza administrazioak ez zituela jarraitu *“Ikastetxe publikoetako langileenganako eraso kasuetan jarduteko gida”* delakoaren urratsak.

Ohikoa denez, **beka eta bestelako laguntzei** lotutako makina bat kexa jasotzen jarraitu dugu baina kexok bideratzeko arrazoiak ez dira berriak beste txosten batzuekin alderatuta. Hala, arrazoi formalak oinarri dituzten egoerak jazo dira: atzerapenak erreklamazioak eta errekurtsioak ebazterakoan, atzerapenak onartutako laguntzen ordainketan. Arrazoi materialek eragindakoei dagokienez, deialdietan xedatutako eskakizunak gaitzetsi eta horiekin bat etortzen ez diren desadostasun kasuak dira, batez ere, baldintza ekonomikoei lotutakoak.

Dena den, aurten bereziki aipatu behar da bikaintasun akademikoko beka horien inguruan hezkuntza administrazioak hartutako erabakiaren ondotik aurkeztu den kexa.

Unibertsitate ikasketak atalean, hainbat kexa onarpen-gorabeherei buruzkoak dira. Horiei dagokienez, erakunde honek kexen izapideari esker emandako ebazpenean jasotakoa baliatu nahi du UPV/EHUri gomendatzeko lekualdaketa-eskaeren eta irakasgaien baliozkotzearen inguruan susta daitezkeen erreklamazio eta errekurtsioen ebazpenean arduratsua goa izan dadin, interesdunek lekualdatzeko aukera baztertu ez dezaten ebazteko epeen atzerapenak direla-eta.

Halaber, kexek ebaluazioaren zenbait gorabehera jorratu dituzte; dena den, lankidetzari esker, behar bezala argitu dira.

3.

Araudi-eta gizarte-testuingurua

2013ko abenduaren 10ean Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa argitaratu da, hezkuntza kalitatea hobetzeko asmoz (LOMCE).

Lege hori oso polemikoa izan da eta hezkuntzako sektore askotan ez dute onartu. Gauzak horrela, Konstituzio Auzitegiaren errekurtsioak jarriko direla ere iragarri da.

Hala, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sustatu du “Heziberri 2020” plana abian jar dadila -LOMCE horri erabateko ukoa eman nahi dion ekimen gisa aurkeztutakoa-, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta euskal hezkuntza komunitateko eragile nagusiek hainbestetan adierazi duten moduan.

Plan horrek hiru proiektu bildu ditu, desberdinak baina, aldi berean, osagarriak, eta hezkuntza-sistemaren kalitatea eta bikaintasuna hobetzea du xede, hau da:

- Lehen proiektua: “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparru propioa” egin eta adostu.
- Bigarren proiektua: Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum ezartzen duten dekretuak egin eta adostu.
- Hirugarren proiektua: Hezkuntzaren Euskal Legerantz urratsak eman.

4.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Joan den urtean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak haur hezkuntzako lehenengo zikloaren gainean egindako diagnosiaren lehenengo aurrerapenaren berri izan genuen.

Diagnosi horren esparruan, hezkuntza-ikuskapenak txosten bat egin zuen hezkuntza administrazioaren mendeko ikastetxeetako bi urteko geletarako langile laguntzaileei buruzkoa, eta honako alderdi hauek jorratu zituen: (1) Bi urteko geletan Hezkuntza Sailekoak ez diren zenbat langile dauden; (2) eskaintzen dituzten zerbitzuaren modalitateak, kontratuen tipologia eta kontratatzen dituzten eragileak; (3) geletan langile horiek eman beharreko denbora –ordutegiak– eta esku-hartze motak; eta (4) familiek ordaindu beharreko kuota.

Baina, informazio hori baino harago, sailak beharrezko esku-hartze ildoak zehazteko eta horretarako jarduera egutegi bat ezartzeko proposamenaren berri baino ez genuen izan. Hortaz, ez genuen jarduera horren ondotik atera zitezkeen ondorioen berri.

Arduradun berriekin egindako gestioek aukera eman digute ezagutzeko egungo Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak jakin badakiela irakasleak eta hezkuntza laguntza kontratatzeke ohiko sistematik at dauden kontratazio horiek dakartzaten arazoa zein den. Horregatik, konpromisoa hartu du BIGE eta gurasoen elkarteetako ordezkariekin eta Sarearekin, ikastetxeetako zuzendaritzak ordezkatzan dituen organismo gisa, esku-hartzearekin jarraitzeko, egungo kontratazioak berritu ez ditzaten. Halaber, konpromisoa hartu du lurralde ordezkarietako plangintzaren zerbitzuek aztertu dezaten gurasoen elkarteek kontratatutako pertsonen laguntzari uko egiten dioten ikastetxeetako egoera.

5.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

EAEko hezkuntza administrazioak onartutako asmoa, alegia, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organiko berriari (LOMCE) aurre egin eta horren ordez hezkuntza-eredu pedagogiko propioa sustatzekoa, "Heziberri 2020" abian jarrita, eztabaidatik libre geratzen ez den egoera batean kokatu gaitu.

Hala, ez dakigu zein izango den datozen hilabeteetan egoera berri honen ondotik jasoko ditugun kexak izango duten eragina. Dena den, gure asmoa hauxe da: aldaketa berri honek gure erkidegoko hezkuntza-sisteman izan dezakeen benetako eragina ezagutzeko jarraipen bat egitea.

Hala ere eta proposatu dugun egiteko hori alde batera utzita, azken urte honetan izapidetutako kexen ondotik gure hezkuntza egoeraren hainbat alderdi kontuan hartu ditugu eta horiek aipatzea beharrezkoa iruditu zaigu:

Hala, adibidez, ikasleen onarpenerako prozesuei buruzko kexak beste urtebetez errepikatzeak dakar erakunde honek hezkuntza administrazioari egindako gomendioa indarrean jarraitzea, prozesu horren kudeaketa modu arduratsuan jorra dezan, plaza nahikoak ez dauden kasuetarako aurreikusitako lehentasunezko irizpideak modu zentzudunean aplikatuz.

Horrez gain, gure ustez, garrantzitsua da eskolatze batzordeak haien zeregina egiten jarrai dezaten animatzea –alegia, lehen aldiz gure hezkuntza-sistema baliatzen duten ikasle etorkinei ahalik eta integrazio normalizatuena ematen lortzea–. Dena den, beste batzuetan egin dugun moduan, gailendu nahi dugu, proposamenak egiterakoan, batzorde horiek bermatu behar dutela ikastetxeen finantzaketa baldintzek eta eskola-garraio, –jantoki eta –materialerako familiei ematen zaizkien laguntzek bidea eman behar dutela herritar guztiak unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztietarako sarbide unibertsala eduki dezaten.

Hezkuntza-plangintzari dagokionez, zailtasun handienek zero eta hiru urteko hasierako tartean egoten jarraitzen dute, batez ere, bi urteko gelen eskaintzan. Erakunde honen ustez, eremu defizitario horietan beharrezkoa da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta kasuan kasuko udalek, bakoitzak esleitura dituen eskumenak baliatzean, bidezko ekimenak aurrera eraman ditzaten plazen inguruko egoera defizitario horiek berbidatzeke eta, hala, estalduraren ehu-nekoa onartutako plangintzaren erreferentziatik gertu dauden indizeetan koka dadin.

Horrez gain, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sail berria animatu nahi dugu abiarazitako ildotik lanean jarrai dezan –hots, eskola komunitateko ordezkari guztien partaidetzarekin plangintza demokratikorako bidea eman dezan–.

Azken urteetan antzeman dugu hizkuntzen eta lanbide heziketako irakaskuntzen eskari handiagoa dagoela. Hori krisi ekonomikoaren egungo egoerari lotuta dagoela uste dugu. Horregatik, eta beste txosten batzuetan dagoeneko adierazi dugunez, uste dugu egungo eskaintza handitzeko bidea eman dezaketean aukera guztiak agortzen saiatu behar dela eta, hala, goi-mailako ikasketetarako eta hizkuntzen prestakuntzarako sarbidea bideratu, gure gazteak lanmerkatuan sar daitezzen errazteko.

Halaber, krisi ekonomikoaren egungo egoeraren ondotik hainbat hezkuntza-eragilek eskola-jantokiaren zerbitzuan jazozen ari diren egoera batzuk nabarmendu dituzte. Hainbat familiari eragiten die. Izan ere, adingabeak dituzten familia horiek ezin dituzte kuotak ordaindu, beken deialdi orokorraren esparruan urtero-urtero iragartzen diren jantokiko laguntzen onuradun izango direla uste badute ere. Gure iritziz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egoera hori kontuan hartuta jantokiko laguntza horiek kudeatzeko moduan hainbat aldaketa sartzeko aukera jorrratu beharko luke.

Kontsumo arduratsua egiteko premiaren inguruan kontzientziatu eta elikagaien eralgiketa murrizteko azken urteotan izandako herritarren elkatasun-mugimenduak positibotzat jo ditu erakunde honek. Hortaz, uste dugu ez dela alde batera utzi behar proposamenak aztertzeke aukera; adibidez, eskola-jantokikoetako elikadura-hondakinen kudeaketa bultzatzekoa (hondakinok berrerabil eta dohainik kontsumi daitezzen).

Eskola-garraioari dagokionez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradun berriek iragarritako proposamena, egungo zirkularraren edukia berrikustekoa, gure iritziz, herritarren eskariei erantzuna emateko aukera bat izan daiteke. Adibidez, Zuian, hilabeteak dira hauxe eskatzen dutenetik: aukera berdintasuna landa eremuan bizi diren ikasleentzat.

Horrez gain, ezgaitasunen bat duten ikasleentzat zerbitzu hori nola ematen den aztertzeke unea hauxe izan daiteke, ustezko bereizkeriari buruzko kexak berriro jazo ez daitezten.

Joan den urtean eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa abian jarri zela ikusi genuen. Une hartan uste genuen plan horren ebaluazio eta jarraipenaren bitartez kexak hizpide izandako ikasle jakinen egoeraren ondotik ikasle horiei ematen zaien hezkuntza-erantzuna hobetuko zela. Halaxe gertatu da gaitasun handiko ikasleen kasuan, baita arreata faltaren nahasmenduak eragindako ikasleen kasuan ere.

(II). EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN JARDUERA IKUSKATZEA

Zenbait kasutan egin dugun jarraipenak eta sektorean lan egiten duten elkarte batzuek adierazi dizkiguten kezkek aintzat hartuta gailendu behar dugu lanean jarraitu behar dugula ikasle horientzako egindako hezkuntza-orientazioak geletako egunerokoan jazo daitezzen.

Jakina, gogoeta horiek aurkeztu berri den *Baterako hezkuntzarako eta hezkuntza-sisteman genero indarkeria prebentzeko gida planean* gehitu nahi ditugu.

Azkenik, nabarmendu nahi dugu, berriz ere, eskola-elkarbizitzaren gaineko gida berrien aplikazio sistematiko eta eraginkorra sakontzeko premia dagoela, tratu txarren egoeraren diagnosi zuzena egiteko, biktimei laguntza, babesa eta segurtasuna emateko eta eragindako familiekin konfiantzazko eta komunikazio oneko harremana mantentzeko xedeak bete eta xede horiei behar bezalako erantzuna emateko.

a t a l a

010.3.

Ogasuna

1.

Arloa kopurutan

Aurten, Ogasunaren arloan 206 kexa-espedita jaso ditugu guztira, alegia, erakunde honek urte osoan zehar tramitatu dituen kexen %7,7. Eragindako administrazioen arabera sailkatuko ditugu:

– Tokiko administrazioa	100
– Foru administrazioa.....	33
– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurjaritza).....	4

Honela sailkatu ditugu gaiak edo azpiarloak kontuan hartuta:

– Tasak	73
– Tokiko zergak	68
– Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura	27
– Foru zergak.....	27
– Prezio publikoak.....	10
– Beste alderdi batzuk.....	1

Hauxe da ekitaldiaren amaieran, 2013ko abenduan, arloan kudeatutako kexen informazio estatistikoa:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
202	124	46	8	30	8	32

2.

Kexarik aipagarrienak

Atal honetan herritarrek Ararteko erakundearen aurkeztu dituzten kontu nagusiak jorratu behar dira. Lehenik, aipatu behar da udal zergei lotutako erreklamazioek gora egin dutela, zehazki, uraren eta zaborren tasaren kobrantzen ingurukoak. Era berean, ondasun higiezinaren gaineko zergan (OHZ) kuota likidoaren %150erainoko erreklamararen kobrantza zailentzen jarri duten erreklamazioen kopuru handia jaso da.

Zaila da jardun batzuk beste batzuen gainetik nabarmentzea. Hala eta guztiz ere, bi gai aipatuko ditugu: foru-ogasunen zerbitzuek egindako likidazioen edo haiek zergei buruz emandako informazioaren oinarriaren gaineko PFEZen erregularizazioa, eta zigortzeko ahalmena egikaritzean egondako atzerapen desegokiak.

Mahai gainean jarritako lehenengo arazoa errepikatzen da eta hiru lurralde historikoei modu berean eragiten die. Ekitaldi guztietan herritarren desadostasunaren eta nahasmen- duaren berri ematen digun erreklamazioen bat jasotzen da, foru-ogasunek beraiek egin zuten **errenta-aitorpenak erregulazioari** ekin diotelako. Eragindako pertsonen onartu ohi dute ez-sartutako kuota diferentzialagatik likidazio berri bat igorri egikaritzea berrikuspen-prozesu hori, baina sumindu egiten dira berandutze interesen kobrantzaren ingurukoak.

Honi dagokionez ados gaude herritar horiekin: kontuan hartu behar litzateke foru-ogasunek geroago berrikusi eta erregularizatuak izango diren aitorpen horien emaitzetan esku hartu dutela.

Hala ere, aitortu behar da foru-ogasunek bidali edo egiten dituzten autolikidazioarako proposamenak onartzeak ez dakarrela erantzukizuna zergadunarengandik zerga benetan aitortu eta likidatu duen organora lekualdatzea. Horrenbestez, prozesu horretan egon litezkeen akats edo irregulartasunen ondorioak zergadunari dagozkio, horrek une oro bere kabuz jokatu izan balu bezala.

Era berean, gaur egungo zerga esparruan, berandutze interesen sortzapena printzipio orokortzat hartzen da, eta, beraz, epe zehar egiten den diru-sarrera orok administrazioaren aldeko berandutzako interesen ordainketa sortzen du.

Aintzat hartu behar da berandutze interesen ordainketak, teoriarik, kalte-ordain izaera duela eta horren bitartez administrazioari zorraren ordainketa izandako atzerapena konpentsatu nahi zaiola. Baina errealitateak gertakizun paradoxiko bat islatzen du; izan ere, azken urteotan, diruaren legezko interesa berandutze interesen baino txikiagoa izaten ari da.

Erakunde honek 2003an gomendio orokor bat egin zuen, [Zerga-kudeaketarako formula modernoak eta berezitasunak araudien bidez jaso eta onartzea](#) izenburukoa, foru-administrazioek aitorpenak egiteko prozesu horiek araudien bidez gara zitzaten, beren benetako izaerari gehiago adituz, eta inplikaturako aldean jarrera juridikoa berdintasunezko irizpidez mugatuz (zerga-administrazioa eta zergaduna), lege antolamenduen zergadunaren alde aitortzen dituen printzipio eta bermeak errespetatuz, bereziki fede onarena eta segurtasun juridikoarena, gure ustez printzipio horiek ez baitzeukaten behar besteko babesik.

Urte horretatik aurrera onartutako araudiak herritar-agiria eman die prozedura horiei guztiei eta zerga-administrazioaren praktikak finkatu ditu. Horren ondorioz, behin-behineko likidazio horiek ofizioz edo interesdunak eskatuta alda daitezke, preskripzio- edo iraungitze-epetaren barruan.

Administrazioak aitorpen horietan subjektu aktibo gisa parte hartzen du. Hala ere, legezko ondorioetarako, ia esku hartu izan ez balu bezala da, zeren eta zergadunak sinatu edo baieztatu duen proposamena, ondorio guztietarako, zergadunak berak aurkeztutako autolikidazioetat hartzen baita. Zehaztasun batekin, zergaduna aitorpeneko erantzukizunetik salbuesten da, baina horren ondorio bakarra da akats horien inguruko ez dela haren aurka zigortzeko espedituak izapidetuko.

Zerga-administrazioak ez du aintzat hartzen foru-ogasunek haien esku jartzen dituzten zerbitzuen eskaintza baliatzen diren pertsona gehienek neurri handiagoan edo txikiagoan

zergen arloko araua eta zerga hori likidatzeko mekanismoak ez dituztelako ezagutzen erabiltzen dutela zerbitzu hori, eta horregatik ustez adituak diren pertsonetara jotzen dutela, ondo jardungo dutela uste baitute, beraien zerga-betebeharrak betetzeko.

Zigortzeko ahalmena egikaritzeari dagokionez, zehaztu behar da zergen arloan iruzurra egiteko asmoa barne hartzen duten zigor motez gain betebeharrak formal bat ez gordeztea zigortzen dutenak ere badaudela. Horrela, zergen inguruko foru arau orokorrek autolikidazioak edo aitopenak epean ez aurkezteagatiko (betiere, Foru Ogasunari eragozpen ekonomikoa eragiten ez badio) arau-hausteak tipifikatzen ditu.

Zergen arloko arau-hausteen preskripzio-epa 4 urtekoa da. Legezketasun hertsia ikuspuntutik, atzerapen desegokia agerian jartzeaz gain, ezin zaio eragozpen askorik jarri aldi hori aurrera egin duenean preskripzio-aldian gertatu diren arau-hausteengatik egindako zigortzeko espedienteak izapidetzen hasten den zerga-administrazioari.

Dena den, administrazioaren jardute egokiak gertutasuna eskatzen du arau-haustearen eta zigortzeko prozeduraren hasieraren artean. Izan ere, zergadunaren jardun desegokiaren eta administrazioaren erantzunaren arteko hurbiltasun horrek bakarrik ematen du aukera ikasteko eta etorkizuneko jardunei begira disuasioko elementu gisa dihardu.

Arazo hori Bizkaian igarri da, zigortzeko espediente batzuk jarri baitira 2000. urtetik geroztik jarduerarik ez zuen eta foru-ogasun horren errekerimendua jaso ostean sozietateen gaineko zergaren likidazioak epez kanpo aurkezten zituen enpresa baten aurka.

Azkenik, egokia iruditu zaigu 2013an udal zergen inguruan egin diren **gomendioak** labur aipatzea. Horietan hainbat gai jorratu dira, hala nola: [Azkoitiko hilerriaren 01.a\) tasan subjektu pasiboaren aldeko prestazio erreal eta eraginkorraren falta](#), [Lazkaoko Udalak ez preskribatutako ekitaldiko TMIZn ordaintzeko agintzean jarraitutako jarduna zuzenbidarekin bat ez etortzea](#), [Trafikoko Erregistroan zaharkituta egoteagatik datuen aldaketa izan duten ibilgailu batzuk direle eta edo Areatzako udalerrian furgonetan TMIZn ordainaraztea](#).

3.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

Zergen gaineko araudia oso dinamikoa denez, ekitaldi bakoitzean foru eta udal mailan zergen erregulazioan eragina duten berrikuspenak eta eguneraketak egiten dira.

Foru arauaren aldaketa orokorrak, 2013an ondorioak izan dituztenak, Arabako Lurralde Historikoan foru arau hauek onartzearen ondorioz gertatu ziren: [apirilaren 15eko 13/2013 Foru Araua](#), 2013. urterako zerga neurri buruzkoa, [2013ko ekainaren 3ko 18/2013 Foru Araua](#), Arabako

Lurralde Historikoan zerga iruzurraren kontra borrokatzeko oinarriko printzipioak eta neurriak eta zergen arloko beste neurri batzuei buruzkoa, eta [martxoaren 11ko 9/2013 Foru Araua](#), Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa; aldaketak Bizkaian honako foru arauak onartzearen ondoriozkoak izan ziren orobat: [otsailaren 29ko 1/2012 Foru Araua](#), 2012rako eta 2013rako zenbait xedapen iragankor eta zergen arloko beste neurri batzuk onartzen dituenak, eta hori osatu zuen [otsailaren 27ko 3/2013 Foru Araua](#), zerga-iruzurraren aurkako borroka indartzeko neurri osagarriak nahiz zergen arloko beste aldaketa batzuk onartzen dituenak. Lurralde horretan [otsailaren 27ko 2/2013 Foru Araua](#), ondarearen gaineko zergari buruzkoa, ere onartu da. Gipuzkoan, berriz, arauen eguneraketa [abenduaren 27ko 13/2012 Foru Arauak](#), zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen dituenak, eta [abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauak](#), aberastasunaren eta fortuna handien zergarenak, eragin zituzten.

Ondarearen gaineko zerga, hasiera batean, aldi baterako berreskuratu zen, 2011. eta 2012. urteetarako. Zerga berrezarri zuten foru arauen indarraldiaren amaierak eta egungo ekonomia-egoera gainditzeko beharrak ondare handiagoa duten zergadunen solidaritate-ahaleginak denboran irautea eskatu dute.

Era berean, aipatu behar da Arabako Lurralde Historikoan preskripzio-epa lau urtetik bost urtera igo dela, [martxoaren 11ko 8/2013 Foru Arauari](#) jarraiki.

Arau horien edukiak agerian uzten du adostasuna lortzeko aurkitu ziren eta gainditu ezin izan ziren zailtasunak zerga-iruzurraren eta -ihesaren aurka borrokatzeko helburu komunean eta egungo zerga-sistemaren erreforma estrukturalagoan oinarriak izateko eta aurrera egiteko.

2013ko amaieran indar politikoen arteko adostasunaren oinarriak erdietsi dira, zerga-sistemaren erreforma-prozesu horri, txosten hau ixteko datan Arabako eta Bizkaiko Lurralde Historikoei eragin dionari, ekiteko. Akordio horiek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera foru-zerga handiak arautuko dituzten foru arau berrien onarpenean gauzatu dira.

Erreforma horren ondorio ikusgarriena 2015eko lehen hiru hilabetez aurrera antzemango da. Une horretan PFEZ erregulazio berriaren arabera likidatzen hasiko da eta, ondoren, sozietateen gaineko zerga berriaren eragina nabaritu da. Orduan erreforma horren indarguneak eta ahulguneak egiaztatuta ahal izango dira, baita herritarren adostasunaren maila ere.

Udal zergei dagokionez, azpimarratu behar da Gipuzkoako Lurralde Historikoan [uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak](#), audal zergen esparruan hainbat aldaketa sartzen dituenak, toki-erakundeak gaitu zituela euren ordenantzen bitartez Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako (OHZ) kuota likidoan %150erainoko errekarua ezartzeko, ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–.

Errekargu horren ezarpenak ez du lurralde historiko osoan eragin homoginoa izan; Gipuzkoako udalerririk batzuek ez dute euren 2013ko zerga-ordenantzetara gehitu. Dena den, errekaru horren likidazioak desadostasun eta erantzun handiak piztu ditu eragindako higiezinaren titularraren artean, modu

bidegabean zigortu dituztela uste baitute, udalerrri horien garapen ekonomikoan inbertitu duten arren.

Higiezin horietako batzuk, bereziki kostaldeko herrietan daudenak, ez dira berez beteta ez dauden etxebizitzek osatzen duten eta geldirik dagoen ondarea, titularren bigarren egoitzak baizik.

4.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Ogasunaren arloan garatzen den funtsezko jarduera herritarrek helarazten dizkiguten banakako kexak aztertu eta ebaztera mugatuta dago. Dena den, arloan garrantzia hartu du halaber **gomendio orokorren jarraipen** eta egikaritzeak, baita ofiziozko jardueren sustapenak ere. Azken horien helburua arauen aldaketak eta herritarrentzat onuragarriagoak diren administrazio-jardunen ezarpena sustatzen laguntzea da.

Ekonomia-krisi larri batean gaude; familia-ekonomietan duen zuzeneko eragina euskal gizartearen ehuneko oso handi bat pairatzen ari dena eta herritarren sektore handi batean jasan dako erosteko ahalmenaren galera garrantzitsu batean islatzen ari dena. Langabezia, lan-ziurgabetasuna, ekonomia-jarduera moteldua, aldez aurretik eramaten den zorpetzea... familiek eskura dituzten baliabideen hondatze nabarmena eragiten ari dira eta, horrekin batera, baita diru-bilketaren murrizketa ere.

Ohiko etxebizitzaren utzarazpena jasan duten pertsonen egoera bereziki lazgarria da.

Arazo larri horren aurrean, Ararteko erakundeak 2011n **gomendio orokor** bat eman zuen, foru arauak, eta, ondoren, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen zituzten udal ordenantzak aldatzeko helburuarekin, ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka-betearazpenetatik sortutako lurren eskualdatzeak zergatik salbuetsita geratzeko.

2012. urteko udaberrian zerga hori arautzen duten hiru foru arauen aldaketa indarrean sartu zen. Une horretatik aurrera, betearazi behar den ohiko etxebizitzaren eskuratzailari esleitu zioten zerga-kuotaren ordainketa, higiezin horren eskuratzaila zergadunaren ordezkari pasibotzat jo dela oinarri hartuta. Gainera, araua aldatu ostean, eskuratzaila ezin dio eskualdatzailari betetako zerga-betebeharraren zenbatekoa eskatu.

Horrela, behintzat, arazoa etorkizunari begira konpondu zen. Hala ere, foru arau horien aldaketa indarrean sartu baino lehen igorritako likidazioak egiteke geratu ziren. Likidazio horien kuotak pertsona eta familia askoren ekonomia kaltetuari eragiten dio. Onenean, pertsona eta familia horiek zergapezten dituzten udalerriek zatika ordaintzea onar dezaten lortu dute, zerga-zor horren ordainketari era ez hain zailean aurre egin ahal izateko.

Zentzu horretan, nabarmendu behar da, ezaguna baita, Gasteizko Udalaren jardun egoki bat. Toki-erakunde horrek **gainbalioen gaineko zergaren likidazioak gutxitzeko laguntza ildo** bat sortu zuen 2013ko uztailean. Laguntza ildo hori ordaintzeko dauden eta foru arauaren aldaketa baino lehen ohiko etxebizitzan egindako hipoteka-betearazpenetatik eratorri den zergapeko egitatea duten likidazioei dagokie.

Diru-laguntzak barne hartzen duen hobariaren ehuneko eskaeraren datan ordaintzeko dagoen zorraren %50 eta %100en artekoa da. Urteko diru-sarreraren, familia-unitatearen eta horren tamainaren arabera, laguntzak zorra erabat ordaintzea ekar dezake.

Ohiko etxebizitzaren jabetza enkante publikoan, hipoteka-betearazpen prozedura baten esparruan, eskualdatzeak agerian jar dezake, kasu batzuetan, PFEZen ordaintzen zuen ustezko ondare-irabazia. 2012an Ararteko erakundeak **ofiziozko jardun** bat izapidetu zuen hiru foru aldundiekin, ondare-irabazi hori errentan zamatik salbuetsita dagoela aitortzeko. Hiru foru aldundiek onartu zuten proposamena; hala ere, salbuespenaren ondorioak 2013ko urtarrilaren 1era mugatu ziren Bizkaian, eta 2012ko urtarrilaren 1era Gipuzkoan eta Araban.

Modu horretan, neurria nahikoa ez zela ikusi zen. Arabako Lurralde Historikoan egoera hori arintzeko, hango Biltzar Nagusiek **urriaren 9ko 28/2013 Foru Araua** onartu dute. Horren bitartez, salbuespenaren ondorioak preskribatu gabeko ekitaldi guztietara hedatu dira, ondare-irabazi hori ordaindu dutenek itzulketa eska dezaten.

Nolanahi ere, proposatutako neurria ohiz kanpokoa denez eta araudiak berariaz hori xedatu duenez, balizko itzulketan ez da berandutze interesik likidatuko.

2013an zehar erakunde honetan Donostian bizi diren hainbat herritarren desadostasuna adierazi duten kontsulta batzuk jaso dira. Horien bitartez, zalantzan jarri da etxebizitza partikularretako zabor-bilketaren tasaren ordainketa ekitaldi honetatik aurrera etxebizitzan egondako ur-kontsumoarekin lotzea.

Kontsulta horien ondorioz, ofiziozko espediente baten izapidetzea hasi da. Bertan, informazioa bildu da berdintasun printzipioa eta kontribuzio-ahalmenaren printzipioa zaindu eta bermatu den moduari buruz, tarifa horri emandako testuarekin.

1. tarifak etxebizitzetako zabor-bilketaren urteko tasa arautzen du, eta bi elementutan oinarrituta eratu da: 71,99 euroko urteko kuota finkoa eta higiezin urtean egondako ur-kontsumoa 0,3402 euroz biderkatuz lortzen den kuota aldakorra. Aintzat hartzen den urteko aldia 2011ko irailaren 1a eta 2012ko abuztuaren 31a bitartekoa da.

Pertsona horiek ez daude ados, uste baitute zaborren tasaren munta zerbitzu hori ematearekin batera zerikusirik ez duen faktore batekin lotu dela, etxebizitzan egondako ur-kontsumoarekin hain zuzen ere. Era berean, nabarmendu dute tasak jasotzen duen aldagai horrek ez dituela ageriarazten ordaintzera behartutako subjektu pasiboaren ahalmen ekonomikoari buruzko irizpide orokorrak. Hala eta guztiz ere, uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 24.4 artikuluan esaten duenari jarraiki, aukera bakarra da toki-erakundeek tasaren

zenbatekoa kontribuzio-ahalmenaren irizpide orokorren arabera modulatzeko.

Alderdi horri dagokionez, aitortu dute etxebizitza bateko ur-kontsumoan hainbat faktorek dutela eragina: batzuk ur-baliabideen erabilera ez hain arduratsuekin lotuta daude, eta haietatik ez da zaborren eta beste batzuen ekoizpen handiagorik erortzen; beste batzuek –esate baterako, familia-unitateko kideen kopurua edo garraiobide partikularretan ihesak eta matxurak egotea– ez dituzte agerian jartzen zaborren tasa ordaindu behar duten pertsonen ahalmen ekonomikoari buruzko irizpide orokorrak.

Horri dagokionez, azpimarratu dute familia babesteko legeria –bai estatukoa, bai Euskal Autonomia Erkidegokoa–, familia horiek jasaten duten zerga-karga mugatzera eta geldiaraztera bideratuta dagoela. Karga hori, familia ugarien eta zaborren tasaren kasuan, Donostiako Udalean ez da indargabetzen, baizik eta, gainera, adierazi digutenez, larriagotu egiten da.

Azkenik, hiru foru aldundiei eta [Eusko Jaurjaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailari iradoki](#) zaie neurriak hartzeko eta, hala balegokie, beraien eta abokatutzaren instantzia ordezkarien artean beharrezkoak diren lankidetzahitzarmenak sinatzeko, Orientazio Juridikoko Zerbitzuek (OJZ) eta Doako Laguntza Juridikoaren Lurralde Batzordeek zuzenean eta baliabide informatikoen bidez Doako Laguntza Juridikoaren 1/1996 Legeak esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko behar duten zergei buruzko informazioa eduki dezaten. Informazio hori ondorio horietarako baino ez da eman behar eta, nolana ere, alde zuretik eskatzaileen berriazko baimena eduki behar da.

Erakundearekin harremanetan jarri diren pertsonak azpimarratu zuten doako laguntza juridikoaren onuraren arretan eta izapidetzean atzerapenak egon direla, eta epaitegian behin baino gehiagotan, eskatutako dokumentazio guztia osatu arte, agertzeko beharrak denbora-galera eta eragozpenak eragin dizkiela.

Foru-ogasunek oso egiteko garrantzitsua burutu behar zuten, haien ziurtagirien bidez egiaztatzen baitute doako laguntza juridikoen eskatzaileek, gehienek, ondarearen, garrantutako ekonomia-jardueren eta jasotako errenten arloan eskatzen zaizkien betekizunak betetzen dituztela.

Pertsona guztiak euren ahalmen ekonomikoa kontuan izan gabe epaitegietan euren eskubideak defenda ditzaten laguntzeko asmoz, [abuztuaren 7ko 7/2013 Gomendio Orokorra](#) egin zen, Abokatu Elkargoetako Orientazio Juridikoko Zerbitzuek eta Doako Laguntza Juridikoko Lurralde Batzordeek doako justiziaren onuraren eskatzaileen datu fiskalak eskuratu ahal izateko.

Foru aldundiek iradokizun hori onartu dute eta, horren ondorioz, honako arauak argitaratu dira, datuen lagapena burutzeko helburuarekin. Zehazki, Araban onartu da irailaren 17ko Diputatuen Kontseiluaren [4/2013 Zerga Premiazko Araugin-tzako Dekretua](#), baimena ematen duena zerga garrantzia duten datuak lagatzeko, helburua baita doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzea; Bizkaian, berriz, irailaren 3ko [4/2013 Foru Dekretu Arauemailea](#), baimena ematen duena zergei buruzko informazioa uzteko, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzearen; eta Gipuzkoan argitaratu da

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Orokorrak eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak adostutako lankidetzahitzarmena, 2013ko irailaren 27koa.

Iradokizun horren xedea [Justizia arloan](#) aztertzen da era sakonagoan.

5.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Espainiako Konstituzioak 31.1. artikuluan zera xedatzen du: *“Guztiak gastu publikoari aurre egiten lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen arabera; horretarako, zerga-sistema zuzena ezarriko da, berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarriturik; sistema hori ez da inoiz konfiskagarri izango”*.

Betebehar hori zerga araudiaren **komplexutasunak** berak baldintzatzen du, izan ere, zergadunei eskatzen die administrazioek eskaintzen dizkieten errenta aitortpenak betetzeko zerbitzuak erabil ditzaten. Hala ere, zerbitzu horiek erabil-tzeak ez du aldatzen aitortzailearen egoera juridikoa, beraz, egin daitezkeen ustezko akatsen edo balizko irregular-tasunen ondorioak zergadunek pairatzen dituzte, horiek une oro euren ardurapean jardun izan balute bezala.

Erregularizazioak sartzeari utzi dioten kuota diferentzialaren ordainketa ez ezik berandutze interesen likidazioa ere ekartzen du. Izan ere, epe zehatzeko kanpoko diru-sarreraren orok administrazioaren aldeko berandutze interesen ordainketa sortzen du.

Teorian, berandutze interesen ordainketak kalte-ordain izatera du eta horren bitartez administrazioari zorraren ordainketa izandako atzerapena konpentsatu nahi zaio. Dena den, errealitateak gertakizun paradoxiko bat islatzen du; izan ere, azken urteotan, diruaren legezko interesa berandutze interes baina ehuneko bat txikiagoa izaten ari da.

Foru-ogasunek arreta handiz jokatu behar dute euren bulegoetan egiten diren edo zergadunen bizilekuetara autolikidazioarako proposamen gisa bidaltzen diren errenta-aitortpenak egitean.

Krisi ekonomiko sakon batean gaude eta horrek familien ekonomian duen zuzeneko eragina euskal gizartearen ehuneko oso handi batek pairatzen du, herritarren sektore askok jasandako erosteko ahalmenaren galera garrantzitsuan antzematen dena. Langabezia, lanaren estutasuna, jarduera ekonomiko mantsuagoa... familietan eskura ditzuten baliabideen hondatze nabarmena eragiten ari dira eta, horrekin batera, baita bilketaren murrizketa ere.

Egoera horren ondorioz ezohiko neurriak hartu behar dira familia asko pairatzen ari diren zailtasun larriak arintze aldera. Horren helburua ez da pertsonak bidezkoa ez den aberastasuna lortzea, ekonomikoki berreskuratzeko aukera eskaintzen dien zerga tratamendua ezartzea baizik.

Uneko krisi ekonomikoaren testuinguruan, inoiz baino gehiago, zorren **ordainketa luzatzeko eta zatitzeko adostasunak** eskaini behar dira, bai betearazpen-bidean bai borondatezkoan, ekonomia apalak dituzten pertsonen bizitza estutasunean jartzen ez dutenak.

Errekurtsoak ebazteko epearen barnean berariazko **erantzun** arrazoiturik **ez** eskaintzeak administrazioaren funtzionamendu zuzenaren kontrako prozeduraren patologia izaten jarraitzen du.

Azkenik, zerga-administrazioak ahaleginak egin behar ditu zergen arloko arau-haustea egin eta berehala **zigortzeko prozedurak** hasteko. Izan ere, bete behar dituen eginkizunetako bat etorkizuneko arau-hausteen prebentzio berezia da, eta zigorraren eginkizun hori indargabetu edo desageratu egiten da zigortzeko espedientearen izapidetzea zigortu beharreko jokabidea gertatu eta urte batzuk geroago hasten bada.

a t a l a

010.4.

Segurtasuna



1.

Arloa kopurutan

Segurtasun arloak 124 kexa idatzi jaso ditu 2013an; horrenbestez, horiek Arartekoak denbora tarte horretan jasotako kexa guztien %4,63 izan dira. Hala, ukitutako herri administrazioei eta azpiarloei men eginez, banaketa honako hauxe izan da:

Administrazioak:

– Tokiko administrazioa.....	64
– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritzaren).....	51

Azpiarloak:

– Trafikoa.....	70
– Herritarren eskubideak.....	30
– Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura.....	17
– Jokoak eta ikuskizunak.....	4
– Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazio erantzukizuna.....	2
– Herritarren segurtasuna.....	1

Txosten hau amaitu den egunean, aurten izapidetutako kexen egoera hurrengo da:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
215	130	78	48	29	1	7

Gainera, ofiziozko 5 espediente izapidetu ditugu, ondorengo azpiarloei dagozkienak:

– Herritarren eskubideak.....	3
– Jokoak eta ikuskizunak.....	2

Azken urteotan gertatu den bezala, kexarik gehien jaso dituzten administrazioak Eusko Jaurlaritzaren [Segurtasun Saila](#) eta [Bilboko Udala](#) izan dira. Halaber, jarraian zerrendatzen diren udal hauek ere kexak jaso dituzte; hona hemen: [Donostia-San Sebastián](#) eta [Vitoria-Gasteiz](#), bai eta [Basauri](#), [Bakio](#), [Barakaldo](#), [Berango](#), [Bergara](#), [Durango](#), [Erandio](#), [Eskoriatza](#), [Getxo](#), [Laguardia](#), [Leioa](#), [Laudio](#), [Ondarroa](#), [Oñati](#) eta [Santurtzi](#) ere, neurri txikiagoan izan arren.

Aurreko urteetan bezala, atal honetan eskaintzen ditugun datuek ez dituzte kontuan hartzen **errefusatuak** izateko legezko kasuren batean sartzen diren edo **Herriaren Defendatzailearen** edo beste defentsa bulego batzuen eskumen eremukoak diren kexak, horrek ez baitu gure esku-hartzea ahalbidetzen.

Jarduketa zuzena izan ez denean, **administrazioek beren jarduera zuzendu dute** aurten amaitutzat eman ditugun 2013ko kexarik gehienetan.

Oro har, administrazioek modu onargarrian bete dute Arartekoarekin **lankidetzan jarduteko betebeharra**. Hala eta guztiz ere, gure zereginak egokiro betetzeko zailtasunak izaten jarraitzen dugu, batik bat polizi zereginaren egikaritzapenaren inguruan izandako kexei dagokienez. Arazorik ohikoek gure informazio eskaerei erantzuteko izandako berandutzak izaten jarraitzen dute, bai eta eskatutako gai zehatzei buruzko erantzun faltak ere.

2.

Kexarik aipagarrienak

2.1. Herritarren eskubideak

2013. urtean jaso ditugun kexek beste ekitaldi batzuetako gaiak errepikatu dituzte, esate baterako indarraren erabilera eta haren barne kontrola, ustez zuzenak izan ez diren jarduketaren barne ikerketa, argiketen kontrola horiek eragin dituzten gertakariei dagokienez, bide publikoan izaten diren identifikazioak eta araketak, atxiloketan izaten den gorputz miaketa, zigor jurisdikzioak faltatzat hartzen dituen edo zigorrak eragiten ez duten gertakariengatik atxiloketa, agintekeria eta agenteen ukoak identifikazio profesionalaren zentzua emateko orduan.

Zehaztutako gaietarako batzuk, hala nola argiketen edukiaren kontrola eta ikerketa, **Arartekoaren 2013ko urriaren 7ko ebazpenean** aztertuak izan dira; ebazpen hori aurten amaitutako kexa espediente bati buruzkoa izan da.

Era berean, kexak aurkezteko gaia izan da **berriro ere etxerik gabeko atzerritarrak bizi ziren eraikin abandonatuetatik irtenaraztea**. Aurten gure iritzia pean jarritako polizi jarduketaren batean, Polizi Nazionalak atxilotu eta bere bulegoetara eraman zituen eraikin mota horietatik irtenarazitako egoitza baimenik gabeko pertsonak, betiere atzerritartasunari buruzko arautegia betetzen zuten ala ez kontrolatzeko asmoz. Ezagutu ditugun etxe hustuketek etxerik ez duten eta bazterkian edo gizarte bazterketa larriko egoeran bizi diren pertsonen eragiten die; horrek agerian jartzen du garrantzi handiko giza eta gizarte arazoa, ikuspegi polizial huts batetik bakarrik ezin jorra daitekeena. Kexa horien balorazioan adierazi dugu etxe hustuketak bideratzeko alde aurretiko planifikazioa behar dela, arazoaren gizarte dimentsioa kontuan hartuz, pertsona horiek integratzeko politika publikoekin bat etorritik jokatu behar dela eta baimen judiziala lortzea ezinbestekoa dela, bistako delitua edo ukitutako pertsonen oniritzia dagoenean izan ezik. Aldi berean, zehaztu dugu herritarren segurtasuneko arazoak, normalean jardun horien justifikazio gisa ematen direnak, ezin onar daitezkeela, baldin eta behar bezala egiaz-taturik dauden gertakari zehatz eta objektiboetan oinarritzen

ez badira; halaber, ohartarazi dugu atzerritarren kolektiboa estigmatizatzeko arriskua dagoela polizi jarduketek kolektibo horri bakarrik eragiten dietenean eta behar bezainbeste arrazoiturik ez daudenean. Azken batean, gomendatu dugu aipatutako bermeak betetzeko beharrezko neurriak ezarzteak. **Arartekoaren 2013ko apirilaren 24ko ebazpenak** eta **2013ko abenduaren 11koak** aurten beste horrenbeste polizi jarduketaren gainean egin ditugun bi pronuntziamentu jasozten dituzte. Bi kasuetan, gure irudiko, ez dira errespetatu aipatutako bermeak.

Orobat, berriro ere kexa gaia izan da Bilboko San Frantzisko auzoan atzerritarrak **identifikatzeko kontrol orokor bat**; kontrol hori Udaltzaingoak egin zuen Polizia Nazionalaren lankidetzarekin. Kexan zehazten zen bide publikoaren zati bat itxi zutela, bai eta tarte horretan zeuden eta atzerritarrek zuzentzen zituzten negozioetarako sarrera ere, eta atzerriko jatorriko bezeroak atxiki zituztela barnealdean. Erakunde honek arbuatzen du atzerritarrak identifikatzeko kontrol masibo eta bereizi gabeak egiteko aukera egotea pertsona hauen kanpo itxuran bakar-bakarrik oinarri hartuz; izan ere, diskriminatzaileak dira, atzerritar guztien kolektiboa eta haiek bizi diren auzoak estigmatizatzen dituzte eta, oro har, herritar guztiei eta haien eskubideei eragiten diete. Azpimarratu behar dugu bide, toki edota establezimendu publikoetan dabiltzan edo horietan dauden pertsonak identifikatzeko polizi kontrolen ezarpenak berekin dakarrela alde aurretik delitu zehazten bat gertatu eta horrek gizarte alarma larria eragin izana; halaber, kontrolaren helburua izan behar da ekintza zehatz horren ustezko egileak aurkitzea (Herritarren Segurutasunaren Babesari buruzko **otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren** 19.2. artikulua). Berretsi beharrean gaude kontrolak ezin justifika daitezkeela “herritarren segurutasunaren” gisako arrazoiak orokorretan, baldin eta polizi jarduna justifikatzen duten arrazoi zehatz eta jakinak azaltzen ez bada ukitutako pertsona bakoitzarekin, eta ezin oinarri daitezkeela estereotipoetan edo pertsonen kanpo ezaugarri zehaztetan. Aldi berean, berriro ere adierazi behar dugu garrantzi handikoa izango litzatekeela polizi jarduketak eta praktikak bermatzeko sistemari buruzko **urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean** proposatu genituen mekanismoak ezartzea, betiere eremu horretan izan daitezkeen jarduketa diskriminatzaileak saihestu eta azal daitezzen (VI.1. atala). Gogorarazi nahi dugu herriaren defendatzaileak aurten ere **gomendio berriak egin dizkiola Polizia Nazionalari**, arraza profiletan oinarritzen den identifikazio kontrolik ez egiteko; gomendio horiek **2012an egindakoei** erantsi behar zaizkie.

2013an aurreko urteetako espedienteetariko batzuk amaitu ditugu; espediente horietan poliziaren erantzuna zalantza jartzen zen **jendaurrera zabalduzako zenbait establezimendutan atzerritarrek sartzeko zituzten usteko muga diskriminatzaileei zegokienez**. **Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorretik** (VI.2. atala) eta **ekainaren 27ko 6/2013 Gomendio Orokor** berritik abiatuz, azpimarratu dugu zeintzuk diren kasu hauetan onarpen eskubidea modu diskriminatzailean bete dela frogatzeko zailtasunak, eta berretsi dugu zer-nolako garrantzia daukan poliziek bete beharreko jarduna, betiere frogak lortu eta jardun diskriminatzaileak jazari izan daitezken. Orobat, azpimarratu dugu jarduketa protokoloak ezarri behar direla erantzun egokia zein izan behar den zehazteko eta nabarmendu dugu poliziaren txostenak eta

argiketak administrazio urraketari edo salatutako delituari egokitu behar zaizkiola. **Arartekoaren 2013ko azaroaren 7ko Ebazpenean** polizi jarduketa bat aztertzen da ikuspegi horretatik; era berean, zigor prozedura batekin duen erlazioa aztertzen da onarpen eskubidean izandako ustezko jardun bat dela eta.

2013an izapidetu ditugun kexek argi eta garbi erakusten dute **erakunde honek gehiegikeriak saihesteko eta, halakorik gertatuz gero, agerian jartzeko proposatutako prebentzio eta kontrol mekanismo askok bete gabe jarraitzen dutela**; une honetan horiek guztiak **urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean** jasota daude nagusiki. Hurrengo 4.3. atalean gabezia horietariko batzuk aipatzen ditugu.

2.2. Jokoa eta ikuskizunak

Kexak gehienbat aurkeztu dira ikuskizunak aurrera **erama-tean edukiera eta segurtasun neurriak ez betetzeagatik**, bai eta ostalaritzako establezimenduetan **ordutegiak** ez betetzeagatik ere. Gure esku-hartzeak ahalbidetu du kexa horietariko batzuei irtenbidea eman izana edo, behinik behin, konpontzeko neurriak ezarri izana.

2.3. Herritarren segurtasuna

Kexek gehienbat **zigor araubidearekin** zerikusia duten gaiak azaldu dituzte, bereziki frogaren balorazioarekin. Kexa horietariko batzuetan, gure esku-hartzeen emaitza izan da sورتutako zigorrak indarrak gabe uztea.

2.4. Trafikoa

Aurreko urteetan bezala, jaso ditugun kexarik gehienak **zigor araubideari buruzkoak** izan dira eta prozedurari dagozkion gaiak azaldu dira; gauzak horrela, prozeduraren inguruan aurreko urteetan azaldutakoen antzeko arazoak agertu dira, esate baterako jakinarazpenak egiteko moduak, urratzeen froga eta formula estandarizatuen erabilera. Berriro ere gogorarazi dugu defentsa eskubidearen aldetik **nahitaezko salaketen egintzan jakinarazpenak** daukan garrantzia, bereziki salatutako egintzek legez duten egiazkotasunaren presuntzioa egozketa froga bakar eta erantzunezina denean, baldin eta salatzailearen eta salatutakoaren bertsioak ez diren bestelako frogak lortzea ezinezkoa bada.

Zigor araubidetik kanpo bestelako arazoak sortu dira, esate baterako **oinezkoentzako eremu batera ibilgailuak sartzeko debekuen kontrola** eta debekuen ez-betetzeak eta oinezkoentzako gunea errespetatutako dela bermatzeko neurri egokien faltak pertsona **itsuen mugikortasunean** daukan eragina.

Okerreko jarduketa antzeman den kexarik gehienetan, ukitutako administrazioek arazoa zuzendu dute. Multzo honetan bi kexa azpimarratu behar dira: **minusbaliotasunen bat duten pertsonen aparkatzeko txartelaren titularrei ezarritako bi zigor**, hain zuzen; izan ere, pertsona horientzat gordetako plaza batean aparkatu zuten, baliozkoa ez zen txartel bat erabiliz. Kasu batean pentsatu zen txartela manipulaturik zegoela, baina ez zen egia; bigarren kasuan,

txartelari baliozkotasuna ukatu zitzaion behin betiko emanda zegoelako, eta ez bost urterako, [abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuak](#) ezartzen duen bezala, baina akats hori ezin egotz dakioke titularri, baizik eta txartela eman zuen administrazioari (administrazio hori ez zen zigorra ezarri ziona).

3.

Araudi mailako testuingurua

Estatu Gobernuak azaroaren 29an onetsi zuen **herritarren segurtasuna babesteko lege organikoaren aurreproiektu berria**, [otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa](#) aldatzera datorrena; aurreproiektuaren edukia eztabaidagarria izan da zenbait alderditan, nagusiki funtsezko eskubideei eragin diezaiekeelako, hala nola bilera eskubideari eta adierazpen askatasunari. Urtea amaitzean, arautegi horren prestaketa lanak ez zeuden oso aurreraturik eta artean ere txosten tekniko garrantzitsuak egin behar ziren Gorte Nagusietara igorri baino lehenago; izan ere, txosten horien helburua, besteak beste, honakoa da: aurreproiektuak izan litzakeen konstituzionaltasun akatsak zuzentzea, hain zuzen ere. Itxarotekoa da txosten horiek eta parlamentuan aurrera eramane beharrek tramitazioak bermatzea behin betiko onetsiko den testuak funtsezko eskubideak errespetatuko dituela.

Aurten ere legegintzazko bi ekimen izapidetu dira **Ibilgailu Motordunen Trafikoari, Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua** eta **Segurtasun Pribatuari buruzko uztailaren 30eko 23/1992 Legea** aldatzera bideratuak, hurrenez hurren. Ekimen horiek parlamentuaren tramitazioaren pean zeuden txosten amaitutzat ematerakoan.

4.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziozko espedienteak

Aurreko urteetan bezala, 2013an ofiziozko zenbait jarduketa eramane ditugu aurrera, atxiloketa zentroen egoera eta atxiloketarekin zerikusia duten jardunak egiaztatzerako bideratuak.

Era berean, ofiziozko espedienteak izapidetu ditugu **Bergarako Udalarekin** eta Eusko Jaurlaritzaren **Segurtasun Sailarekin**, kexa anonimo baten ondorioz; izan ere, salaketa horretan adierazten zen diskoteka batean makro festa bat ospatuko zela establezimenduak baimenduta zeukan edukiera laukoiztuz. Bi

administrazioekin egindako gestioen ondoren, azkenean, ekitaldia beste establezimendu batera lekualdatu zen.

4.2. Txosten berezien jarraipena

Atxiloketa zentroetara egindako ikuskapenak eta kexen tramitazioak ahalbidetu digute arlo honi lotutako aparteko bi txostenen jarraipena egitea. *“Ziegak. Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloketa zentroak”* (1991) eta *“Arartekoaren esku-hartzea Bilboko San Frantzisko inguruan atzerriko pertsonen izandako polizia jardunen inguruan”* (1998ko txostena, I.1. kapitulua, 1.6. atala).

“Ziegak. Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloketa zentroak” txostena betetzearen inguruan egin dugun balorazioa hurrengo 4.4. atalean laburbilduta dago.

“Arartekoaren esku-hartzea Bilboko San Frantzisko inguruan atzerriko pertsonen izandako polizia jardunen inguruan” txostenaz denaz bezainbatean, ez-betetzeak ikusten jarraitzen dugu jardun diskriminatzaileak aurrera eramatearekin zerikusia duten zenbait alderdiei dagokienez: agenteek pertsonen ematen dieten tratua, haiekin harremanetan jartzeko modua, esku-hartzeak ez arazoitzea, lekukoaren aurrean duten jarrera, identifikazio profesionalaren zerbakia emateko ukoa eta eztabaida adierazpenen aurrean duten erantzuna [(8 a), b) eta e) gomendio zehatzak].

4.3. Gomendio orokorren jarraipena

Aurten izapidetu ditugun kexak eta atxiloketa zentroetara egin ditugun ikuskapenak ahalbidetu digute **urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren** jarraipena egitea. Agiri horretan laburbildurik daude Arartekoaren segurtasunaren arloan egindako gomendiorik gehienak; horietariko batzuk aurreko beste gomendio batzuetan dute jatorria, bai eta gorago aipatutako txosten honetan ere: *“Arartekoaren esku-hartzea Bilboko San Frantzisko inguruan atzerriko pertsonen izandako polizia jardunen inguruan”*.

Gauzak horrela, garrantzi handiko gabeziak ikusten jarraitzen dugu **polizi jardunen barne ikerketetan** (II.1.1. atala). Polizi jardunarekin zerikusia duen zigor kausa baten tramitazioan babestutako ikerkuntza faltak eta ikerkuntza ez-nahikotasunak bere horretan dirauten arazoetariko batzuk dira. Hala ere, egiaztatu ahal izan dugu jarduketa protokolo argiek eta zehatzek ezarri gabe jarraitzen dutela eremu honetan.

Oraindik ere ez da betetzen funtzionario polizialek **jantzi polizialean identifikazio zerbaki** bat edo **erreferentzia** bat erakusteko egin dugun gomendioa (V. atala). Berriz ere adierazi behar dugu zerbakiak ikusgai egon behar duela, inolako zalantzarik sortu gabe, herritarrek agenteekin normalean erlazionatzen diren distantziatik. Berriz ere adierazi behar dugu Ertzaintzak ez duela eskakizun hori betetzen, jantzi erantsi zaien identifikazio zerbakia ia-ia ezin bereiz baitaiteke agenteengandik hurbil-hurbil egonda ere, haren neurria txiki-txikia izateaz gainera, kokapena batera egokia ez delako.

Halaber, **prebentzio eta kontrol mekanismoak** ezartzeari dagokionez, ez-betetzeak izaten dira, nagusiki halako kasuetan: indarra erabiltzen denean, bide judizialean lehendabiziko

unetik faltatzen diren edo zigor jurisdikzioak faltatzen diren josten ez dituen bidegabekeriengatik atxiloketak izaten direnean, argiketen edukia zehazten denean gertakariak zehatz-mehatz islatu gabe, agenteek jasotzen dituzten kekek izaten direnean edota atzeritarrekiko jardun diskriminatzaileak izaten direnean (II.2, II.1.2 eta VI. atalak).

Atxiloketa zentroetara egindako ikuskapenek ahalbidetu dигute, aldi berean, aipatutako gomendio orokorraren III. atalaren jarraipena egitea, bai eta **“Atxiloketa inkomunikatuaren eremuko bermeen sistemari eta horiek hobetzeko proposamenei buruzko azterlanean”** ezarritako zenbait gomendiora (2010. urteko txostena) eta **“Polizi bulegoetako erregistro pertsonalaren diligentzia”** izeneko gomendio orokorrean egindakoena ere (2011. urteko txostena). Orobat, 4.4. epigrafean labor-labor jaso dugu jarraipen lan horren emaitza.

Trafikoaren azpiarloan jarraitzen dugu egiaztatzen zigor prozeduretan jasotzen den motibazioak ez dituela beti betetzen honako gomendio honetan jaso genituen eskakizunak: **“Trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zigor prozeduretan aurrezarritako modeloen araberako tramitazioa: defentsa eskubidearekin zerikusia duten zenbait arazo”** (2003. urteko txostena).

4.4. Ikuskapen bisitak

2013an Bilboko Ertzaintzaren eta Vitoria-Gasteizko Udal-tzaingoaren atxiloketa zentroak bisitatu ditugu. Bi zentroen **instalazioek**, oro har, jarraitzen dute euren zeregina betetzeko egokiak izaten. Hala eta guztiz ere, udaltzaingoaren zentroak ez du **adin txikikoak jagoteko gela zehatzik, urtarriaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak** ezartzen duenari jarraiki (17.3. artikulua). Atxilotutakoei ematen zaien **jatekoa** ere egokia da.

Bi zentroek **atxiloketaren bideo-grabazioaren sistema** bat dute. Ertzaintzaren sistemak oinarri-oinarrian erantzuten dio **2006. urteko txostenean** aztertutako ereduari (I. kapitulu, 7.1. atala); gure ustetan, sistema horrek ez ditu betetzen eraginkorra izateko behar izango lituzkeen baldintza guztiak, betiere urriaren 6ko 81/1999 Gomendioak zehaztutakoari jarraituz (**1999. urteko txostena**, II. kapitulu, 7.2.A atala). Udaltzaingoaren zentroa ere ez zaio guztiz egokitzen gomendioari. Zentroetarako bakar batek ere ez ditu txertatu, oro har, atxiloketen bideo-grabazioari buruzko proposamen berriak, hain zuzen ere, **“atxiloketa inkomunikatuaren eremuko bermeen sistemari eta horiek hobetzeko proposamenei buruzko azterlanean”** (2010. urteko txostena) eta urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (III.8. atala) jasotakoak. Halaber, **ez dute bermatzen grabatutako materiala gordetzea**, betiere grabatutako jarduketetatik sor litezkeen ustezko administrazio eta zigor erantzukizunak preskribatzeko gehieneko epearen barruan, eta, ondorio horiei dagokionez, ez dute kontuan hartzen giza eskubideak bermatzeko erakunde jarraitzea epea, hala nola Arartekoarena; hori guztiori guk aldarrikatzen ditugun irizpideetatik aldentzen da eta mekanismo horren bermea mugatzen du.

Bi zentroetan ikuskatu genituen atxiloketak, oro har, modu egokian oinarriturik zeuden, haien erregistroak zuzen betetarik eta egindako diligenziak arrazoizko epeetan bideratu-

rik. Hala eta guztiz ere, **eskubideen inguruko informazioa emateko** kontsultatu genituen **aktek** ez zituzten betetzen **Prozedura Kriminalaren Legearen 520.** artikulua ezarritako eskakizunak; izan ere, atxiloketa arrazoitzen zuten gertakarien kalifikazio juridikoaren berri ematen zuten, baina ez gertakariena. Hori Ertzaintzaren atxiloketa zentroetan ohiko jarduna da eta horren inguruko oharrazpenak egiten ditugu urtero-urtero, baina aferak zuzendu gabe jarraitzen du.

Udaltzaingoan kontsultatu genituen atxiloketen erregistroetan ez zen jasotzen **epaitegiari egindako jakinarazpena**; dirudenez, hori hala da jakinarazpena egunean behin egiten delako eta une horretan dauden atxiloketa guztiei eragiten dielako. Gure irudiko, jarduteko modu hori ez zaio inola ere **urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorriari** lotzen; izan ere, gomendioaren arabera, jakinarazpena ahal denik eta azkarren egin beharra dago eta aipatutako erregistroetan dokumentatu (III.4 eta III.6 atalak).

Atxiloketa egin duten **agenteek argiketan izan beharreko ageraldia** batera egiten da Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoaren zentroan eta ez banaka; hori ere aipatutako gomendiotik aldentzen da (II.2.3. atala).

Atxiloketaren egintza izaten denean, ez zentro batean ez bestean ez zaie atxilotutakoei ematen eskubideei buruz ahoz jakinarazten zaien informazioa jasotzen duen agiririk, ez eta eskubideei buruz informatzeko aktaren kopia bat ere. Halaber, atxilotutakoei ez zaie **laguntza letraturik** ematen atxiloketaren lehendabiziko momentutik (**urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean** III.1 eta III.2 atalak).

Ertzaintzaren zentroan atxilotutakoari ziegetara sartzean egiten zaion **gorputz araketan**, arau orokor gisa, jantziak kentzen zaizkio atalka, barruko arropa eta guzti, betiere kasu bakoitzean izaten diren zirkunstantziak kontuan hartu gabe eta neurriaren proportzionaltasunari buruzko alde aurretiko eta banakako gogoetarik egin gabe. Zentro honetan bakar-bakarrik jasotzen da oro har zein izan den egindako gorputz araketa, zehatz-mehatz nola egin den eta zeintzuk izan diren modu horretan egiteko arrazoiak zehaztu gabe. Udaltzaingoari dagokionez, ez da jasotzen nola egin den, ez eta zeintzuk diren modu batera edo bestera egiteko arrazoiak ere. Batean zein bestean jarduteko bi molde horiek gure gomendioetatik aldatzen dira (**urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorra** eta **“Polizi bulegoetako erregistro pertsonalaren diligentzia”**).

5.

Herritarren eskubideen egoerari buruzko balorazioa

5.1. Aurreko urteetan bezala, **kexarik gehien jaso dituzten herri administrazioak** ondorengo hauexek izan dira: Eusko Jaurlaritzaren **Segurtasun Saila** eta **Bilboko Udala**. Administrazioek beren jarduketa **zuzendu dute** okerreko jarduketa izan den kexetariko askotan, bereziki herritarren

segurtasunaren, joko eta ikuskizunen eta trafikoaren azpiarloetan. Administrazioek, oro har, Arartekoarekin **lankidetzan jarduteko betebeharra** nahiko modu onargarrian konplitu duten arren, oraindik ere gure zereginak egokiro betetzeko zailtasunak aurkitzen jarraitzen dugu, batik bat poliziaren eremuan. Arazorik ohikoenek gure informazio eskareri erantzuteko izandako berandutzak izaten jarraitzen dute, bai eta eskatutako gai zehatzei buruzko erantzun faltak ere.

5.2. Polizi jardunaren egikarizapenaren inguruan jaso ditugun kexek beste ekitaldi batzuetako gaiak errepikatu dituzte, esate baterako indarraren erabilera eta haren barne kontrola, ustez zuzenak izan ez diren jarduketan barne ikerketa, argiketen kontrola horiek eragin dituzten gertakariei dagokienez, bide publikoan izaten diren identifikazioak eta araketak, atxiloketan izaten den gorputz miaketa, zigor jurisdikzioak faltatzat hartzen dituen edo zigor urraketarik eragin ez duten gertakariengatik atxiloketa, agintekeria eta agenteen ukoa identifikazio profesionalaren zenbakia emateko orduan. **Arartekoaren 2013ko urriaren 7ko Ebazpenean** gai horietariko batzuk aztertzen dira.

5.3. Oraindik ere ez dira ezarri **indarraren** erabilera eta **argiketen** edukia ikuskatzeko gomendatu ditugun mekanismoak. Oro har, oraindik ere ez dira ezarri **polizi jardunak ikuskatzeko gomendatu ditugun mekanismorik** gehienak (**urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren** II. atala). **Ikerkuntzaren** kasu zehatzari dagokionez, oraindik ere bere horretan diraute beste urte batzuetan antzeman ditugun ga-beziek. Polizi jardunarekin zerikusia duen zigor kausa baten tramitazioan babestutako ikerkuntza falta eta ikerkuntza ez-nahikotasuna dira antzeman ditugun arazoetariko batzuk. Halaber, egiaztatu ahal izan dugu jarduketa protokolo argiek eta zehatzek ezarri gabe jarraitzen dutela eremu honetan.

5.4. Aurten kexak aurkezteko gaia izan da berriro ere **etxerik gabeko atzerritarrek bizi ziren eraikin abandonatuetatik itenaraztea**. **Arartekoaren 2013ko apirilaren 24ko ebazpenak** eta **2013ko abenduaren 11koak** bi pronuntziamentu jasotzen dituzte aurten poliziak etxe hustuketan egindako beste horrenbeste jarduketaren gainean eta, gure ustetan, bete beharreko bermeen gainean. Gure irudiko, bi kasuetan ez dira bete aipatutako bermeak eta **etxebizitzaren bortxaezintasunaren eskubideari** eragin zitzaion.

5.5. Berriro ere kexa aurkezteko gaia izan da **atzerritarrek identifikatzeko kontrol orokor** bat. Hala eta guztiz ere, oraindik ere ez dira ezarri eremu honetan jarduketa diskriminatzaileak saihesteko gomendatu ditugun prebentzio mekanismoak (**urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren** VI.1 atala).

5.6. Jokoari eta ikuskizunei buruzko kexek honako gai hauek jorratu dituzten gehienbat: **edukieraren** ez-betetzea eta ekitaldiak aurrera eramatean izaten diren **segurtasun neurriak**.

5.7. Herritarren segurtasunari eta **trafikoari** buruzko kexek **zigor araubideari** eragin diete batik bat. **Trafikoari** dagokionez, kexek agerian jarri dituzte jakinarazpenarekin, urraketen frogarekin eta formula estandarizatuen erabilera-ekin zerikusia duten arazoetariko batzuk; horren ondorioz, berriro ere gogorazi dugu zein den jakinarazpenak duen garrantzia nahitaezko salaketan egintzan, **defentsa eskubidearen** ikuspegitik.

5.8. Ez da modu egokian betetzen ari polizi **funtzionarioen jantzia identifikazio zenbaki** edo erreferentzia bat ikusgai jartzeko egin dugun gomendioa (**urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren** V. atala). Ertzaintzari dagokionez, erakusten den identifikazio zenbakia ia-ia ezin bereiz daiteke herritarrek agenteengandik hurbil egonda ere.

5.9. Aurten bisitatu ditugun Bilboko Ertzaintzaren eta Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoaren **atxiloketa zentroek** jarraitzen dute euren zeregina betetzeko egokiak izaten, nahiz eta udaltzaingoaren lokalak **adin txikikoentzako gela zehatzik** eduki ez.

5.10. Bi zentroetan **atxiloketen grabazioak** gordetzeko epea ez da nahikoa, mekanismoa eraginkorra izan dadin. Era berean, ez da abiarazi erakunde honek proposatutako bestelako neurririk; horrek, beraz, bermea mugatzen du.

5.11. Bi zentroetan bisitetan ikuskatu genituen atxiloketak, oro har, modu egokian oinarriturik zeuden, haien erregistroak zuzen beterik eta egindako diligenziak arrazoizko epeetan bideraturik. Nolanahi ere den, **eskubidei buruzko informazio akte** ez dute azaltzen ea atxilotutakoari egozten zaizkion gertaerei buruzko informazioa eman zaion ala ez. Gainera, **gorputz araketa** egiteko eta dokumentatzeko modua ez dator gure gomendioekin bat eta **laguntza letratua** ez da lehendabiziko momentutik ematen. Udaltzaingoari dagokionez, atxiloketan **epaitegiari egin beharreko jakinarazpena** eta hori azaltzeko modua gure gomendioetatik aldentzen dira.

5.12. Laguntzarik gabeko adin txikiko atzerritarren artapenari buruzko **ekainaren 17ko 5/2013** eta jendaurrea zabalduetako establezimenduetako onarpen eskubideari buruzko **ekainaren 27ko 6/2013 gomendio orokor berriek** (atzerritarren arloan aipatzen dira) segurtasun arloari eragiten dioten jarraibideak jasotzen dituzte.

a t a l a

010.5.

Justizia



1.

Arloa kopurutan

Justiziaren arloan guztira 66 kexa-espeditente berri ireki dira 2013. urtean; hau da, Arartekoak urtean zehar izapidetzea onartutako guztien %2,47. Jarraian, espeditente horien banaketa azalduko da, arloka:

– Erregistro Zibila eta Jabetza Erregistroa.....	20
– Justizia Administrazioaren eta bulego judizialaren funtzionamendua.....	18
– Doako laguntza juridikoa.....	12
– Beste alderdi batzuk.....	4
– Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak.....	3
– Elkarguneak.....	3
– Beste elkargo profesional batzuk.....	2
– Adingabe lege-hausleak.....	2
– Notarioen eta erregistratzaileen elkargoak.....	1
– Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazio erantzukizuna.....	1

Urtean zehar izapidetutako espeditenteei dagokienez, txosten hau amaitzean egoera honetan zeuden:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
59	24	28	10	3	15	7

Arlo honetan jasotako gainerako erreklamazioak, formalki baztertu behar izan ditugu, horien gaineko eskumenik ez gertelako. Erreklamazio horietako batzuetan partikularren arteko gatazkak planteatzen ziren, eta Zuzenbideak irtenbide eraginkorra lortzeko helburua izan du soilik gure esku-hartzeak, erreklamazioak sustatzen zituztenei kasu bakoitzean garrantzitsuak ziren funtsezko eta prozedurazko alderdiei buruzko informazioa emanez. Beste erreklamazio batzuk, aldiz, estatuko administrazio-organoen jarduketei buruzkoak ziren, eta [estatuko gure homologoari](#) helarazi dizkiogu. Azkenik, epaitegien eta auzitegien jarduketa oztopatu gabe izapidetu ezin ditzakegun kexei uko egin behar izan diegu. Izan ere, Arartekoak nahiz jurisdikzionala ez den beste edozein instantziak debekatuta du epaitegien eta auzitegien jarduketa oztopatzea, botere judizialaren independentzia printzipioaren arabera.

Hala ere, azken kexa mota horien ondoren, batzuetan ohar-tu gara defentsa-gabezia egoerak zeudela, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden baliabideei lotutako arazoei edo disfuntzioei egotz dakizkienak. Hori dela eta, *sub iudice* dauden gaitan esku hartzeko eskaera orori uko egiteari utzi gabe, epaitegiei egoera horien berri eman nahi izan diegu. Kudeaketa informalak izan dira, izendatuta zegoen

defentsako abokatuarekin koordinatuta garatu direnak eta pertsona erreklamatuak egoitza judizialean Legeak beren eskura jartzen dituen tresna guztiekin beren legezko eskubideak eta interesak defendatu ahal izaten laguntzea helburu zutenak.

Aurten, sail horren inguruko gure lanak hainbat gai mota landu ditu, eta gai horietatik hiru azpimarratu behar ditugu, behin eta berriz errepikatzen direlako herritarren eskubideen eraginkortasunean eragina dutelako:

- atzerapenak izapidetzean;
- akatsak pertsona interesdunen identifikazioan eta ematen zaien informazioan;
- auzitegiek aintzakotzat hartzea auzitegien aurrean pertsonen posizioa bereizten duten baldintzak, pairatzen dituzten zenbait gizarte-bazterketako egoeren ondorioz pertsona horiek baldintza horiek baliatzeko arazoak dituztenean.

Txosten honen luzaeragatik esku-hartze horiek zehaztasunez azaltzea ezinezkoa den arren, beren gizarte- eta araudi-testuinguruari buruz hitz egitean zenbait egiturazko gako aipatuko ditugu, gure ustez, aurre egin nahi izan dieten arazoak azaltzen dituztenak.

Edonola ere, alderdi honetan gure lanean beste urte batez **lagundu** digutenei gure esker ona adierazi nahi diegu, bai **epailetzari** bai **fiskaltzari**. Laguntza hori ezinbestekoa da guretzat, eta azalduko dugun aldi honetan, **idazkari judizialek** emandako laguntza ere bereziki aktiboa izan da, auzitegi partikularretako idazkariena nahiz Justizia Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoko eta probintziako koordinatzaileetako idazkariena.

2.

Kexarik aipagarrienak

Jarraian azalduko bi kasuek Justizia Sailak Arartekoaren aurrean kexa bat jartzera etortzen diren herritarrei emandako laguntza adierazten dute:

2.1. Doako justiziaren onuraren kudeaketan eraginkortasuna hobetzeko erakundeen arteko lankidetzak

Salatutako egoera: Urteko lehen hilabeteetan, hainbat pertsonak jo zuten Arartekora doako justiziaren onuraren arretan eta izapidetzean izandako atzerapenen berri emateko, eta jakinarazteko denbora galtzen zutelako egiatan jada administrazioaren eskuetan zeuden datu batzuk egiaztatzeko epaitegira behin eta berriz joan behar izatean, eta horrez gain, oso gogaikarria egiten zitzaiela. Halaber, abokatutzako korporazio-instantziek jakinarazi ziguten, baliabideen eta

langileen murrizketako testuinguru batean, Orientazio Juridikoko Zerbitzuek zailtasun handiak zituztela eskaera horiek eraginkortasunez kudeatzeko.

Arartekoaren esku-hartzea: Arartekoa hiru Foru Ogasunetara joan zen, arren eskatuz bazegoela zerbitzuaren izapidetzea errazagoa eta laburragoa izateko modu bat, erakundeen arteko lankidetzaren bidez. Zentzu horretan, azaldu genien Orientazio Juridikoko Zerbitzuei eta Doako Zerbitzuaren Batzordeei, Justizia Sailera atxikita daudenei, eskatzen duten pertsonen zerga-datueta sarbide zuzena emateko aukera kontuan hartu beharko luketela. Hala, ez lukete leihatila batetik bestera joan beharko datu horiek lortzeko eta emateko, baizik eta nahikoa izango litzateke eskaera egiteko garaian beharrezko datuak dauden fitxategi automatizatuak kontsultatzeko baimena ematea, aitortzen duten ekonomia-egoera egiaztatu ahal izateko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde honi jakinarazi zion proposatutako ildoan lankidetzaz hitzarmen bat sinatzeko asmoa zuela Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuarekin. Arabako Foru Aldundiak agindu zuen beharrezko neurriak aztertu eta hartuko zituela, planteatutako arazoa konpontzeko. Bizkaiko Foru Ogasunak, bestetik, adierazi zuen proposamenak aintzat hartzen zituen helburu berak zituela, baina, bere ustez, proposamen hori onartzeak zerga-arloko foru-araudia urratzea ekarriko lukeela berekin.

Jasotako erantzunak kontuan hartuta, Arartekoak abuztuaren 7ko [7/2013 Gomendio Orokorra](#) eman zuen, Abokatu elkar-goetako orientazio juridikoko zerbitzuek eta doako laguntza juridikoko lurralde batzordeek doako justiziaren onuraren eskatzaileen datu fiskalak eskuratu ahal izateari buruzkoa.

Emaitza: Gipuzkoako Foru Aldundiak, iragarriz ituen baldintzetan, nahiz Arabako eta Bizkaiko foru-aldundiek, araudia aldatzeko neurriak hartu zituzten eta kasu bakoitzean beharrezko lankidetzaz hitzarmenak sinatu zituzten, Orientazio Juridikoko Zerbitzuek eta Doako Laguntza Juridikoko Probintziako Batzordeek zuzenean eta baliabide informatikoen bidez eskura ditzaten Legeak Doako Laguntza Juridikoaren esparruan esleitzen dizkien funtzioak betetzeko behar duten informazio informatikoa, datuen babeserako esparruan araudia errespetatuz.

2.2. Ofiziozko letratu baten jarduketa okerrak eragindako kaltea erreparatzea

Kexa horrek Arartekoak bi esku-hartze egitea eragin zuen, hain zuzen, herritarrek esparru honetan pozik ez egoteko bi arrazoi nagusiei buruzkoak.

Salatutako egoera: Pertsona bat Arartekora joan zen azaltzeko zer-nolako kaltea eragiten zion bidegabetzat jotzen zuen ebazpen judizial bat irmo bihurtu izanak, Arabako Abokatuen Elkargoak izendatutako ofiziozko abokatuak ebazpena aurkatzeko erabiliko zuen errekurtsua epez kanpo aurkeztu izanagatik. Egoera hori Elkargoan salatu ondoren, Elkargoari pasiboa izatea leporatzen zion kalteak ordaintzeko eta zegozkion erantzukizunak eskatzeko garaian.

Arartekoaren esku-hartzea: Abokatuen Elkargoko gobernu-batzordearekin harremanetan jartzean, hasiera batean jakin nahi izan genuen zer-nolako eginbideri jarraitu zioten jasotako salaketaren aurrean jokatzeko. Egiaztatu genuen salaketa berretsi ondoren Elkargoak salatutako letratuari bidali ziola eta, letratuak alegaziorik aurkeztu ez zuela ikusita, Batzorde Deontologikoari igorri ziola. Sei hilabete igaro ziren salaketa aurkeztu zenetik aurretiko informazioa ireki zen arte, diziplinako espedienteak hasiera komenigarria zen ala ez zehazteko. Elkargoari jakinarazi genion beharrezkoa dela xede horietarako estatutuen bidez aurreikusitako mekanismoek atzerapenik gabe funtzionatu behar dutela, doako laguntza juridikoko zerbitzuaren kalitatea zaintzeko modu gisa. Lau hilabete geroago eta zegozkion espedienteak hasteko bederatzita hilabete behar izan eta gero, Elkargoak letratuaren jokabidea aztertu zuen eta bere zeregin profesionalen arau-hauste larritzat jo zuen, eta Ofiziozko Txandan bi hilabetez kargua kenduz zigortu zuen.

Pixka bat geroago, ordea, kaltetuak berriz jo zuen Arartekora, egoera horretatik eratorzen zen erantzukizun zibilaren araberrako kalte-ordainak lortzeko behin eta berriz egindako kudeaketak alferrekoak izan baitziren. Abokatuen Elkargoak gai horren inguruan adierazi zuen ezin zitekeela beste ezer gehiago egin, eta letratuaren eta aseguru-etxearen jarra ikusita, erreklamatzailari geratzen zitzaion bide bakarra auzitegitara jotzea zela.

Arartekoak ez zuen egokitzen jo erantzun hori. Izan ere, erantzukizun hori bere gain ez hartzea emandako zerbitzu publikoaren kalitatearen bermearen kalterako zen, eta Abokatuen Elkargoak zerbitzu horren kalitatea babestean lehen interesduna izan behar du. Hala ere, igarotako denbora ikusita, aipatu aseguru-etxearen zuzendaritzaren aurrean kudeaketa zuzen bat egitea erabaki zen, eta aseguru-etxeak berehala erantzun zuen, bere betebeharrak bere gain hartzeko prest zegoela adieraziz. Nolanahi ere, azpimarratu zuen ez zituela betebeharrak bere gain lehenago hartu Elkargoak, aseguruaren hartzaila zen aldetik, igorri behar zion dokumentazio garrantzitsua jasotzearen zain zegoelako. Elkargoari dokumentazioa aseguru-etxeari bidaltzeko eskatu beharrean, beste izapiderik egin gabe konpainiari dokumentazio hori bidaltzea erabaki genuen. Aste batean, txosten juridiko independente bat bidali zigun guk azter genezan. Txosten horretan kalte-ordainak ordaintzeko zentzuzko proposamen bat egin zuen.

Hala ere, txosten horretan ez zuen aipatzen aseguratzailaren berandutzea, eta adierazten zuen ez zela berandutu bere ardurak bere gain hartzen eginbiderik ez zuelako egin, baizik eta Elkargoak xede horretarako bidali zion dokumentazioan ez zegoelako dokumenturik garrantzitsua, eta ez zutelako dokumentu horren edukiaren berririk izan erakunde honek helarazi zion arte. Konpainiari azaldu genion kontratuzko fede onaren betekizunetatik ondorioztatzen zela, gure ustez, ezin zuela alegatu kaltetuak behin eta berriz eskaini zion dokumentazio baten berririk ez zuela, eta egiaz, azkenean, zuzenean hartzailari eskatu behar izan ziola, kaltetuaren ordean Arartekoak espedienteak berehala ebazteko interesa adierazi zuenean.

Emaitza: Aseguru-konpainiak erakunde honen planteamendua onartu zuen, eta erreklamatzailari abokatuak egindako

okerrak eragindako erantzukizun zibilaren kalteak ordaindu zizkion, bai eta berandutzearen kontzeptuari zegokion kopurua ere.

3.

Gizarte- eta araudi-testuingurua

3.1. Epailen artean ondoeza hedatuta dago, **lan-baldintzen narriadura dela eta**. Bere garaian, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Goreneko Magistratuen Batzarrak narriadura horretaz ohartarazi zuen. Gehiengoak **epailen eta fiskalen greba**, abokatutzak eta langile judizialek babestua izan zena, jarraitzea ere egoera horren adierazle da, **8/2012 Lege Organikoak, abenduaren 27koak**, Justizia Administrazioaren arloko aurrekontu-eraginkortasuneko neurriei buruzkoak, Botere Judizialaren gaineko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duenak, jurisdikzioan sortzen dituen eraginaren kontra. Era berean, azterketa soziologikoez ezagutzera ematen dute, egungo egoera gorabehera, **Justiziarenganako konfiantza** handitu egin dela herritarren artean, komunikabideek zenbait kasuri emandako tratamendua alde batera utzita. Gure epaitegiek eta auzitegiek lan egiten duten profesionaltasun-mailagatik handitu da konfiantza hori eta, egungoa bezalako ekonomia- eta gizarte-krisiko egoera orokortu batean, pertsonak Justiziari beren eskubideak bermatzeko funtzioa esleitzen jarraitzen dutelako.

3.2. Neurri horietako baten, hain zuzen, **ordezko epailen eta magistratuen murrizketen**, ondorioek Arartekoan hainbat kexa aurkeztea eragin zuten. Borondatezko ordezkapen-planek porrot egin ondoren (Euskal Autonomia Erkidegoko 227 epailetatik eta magistratutatik bik soilik onartu zuten beste epaitegi bateko lana ordainsari osagarri baten truke), **arazoa ez zuten eragiten ohiko ordezkapenek (txandaka 15 egun baino gutxiagoko falta bat betetzea) eta plaza hutsengatik erregistratutako ordezkapenek, lan-utzialdiek edo zerbitzu-eginkizunek, baizik eta 15 egun baino gehiagoko edo amatasun-baimenek eta ikasketa-baimenek**. Euskadin zeuden 24 bitartekoetatik hamaikak beren kardua uztean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Justizia Ministeriora jo zuen, egoera horrek eragiten zituen ondorioengatik. Izan ere, beste epaitegi bateko epaileak hutsak geratzen ziren epaiketa-egunak bete behar izatean, epaiketa batzuk egun berean egokituz gero, hutsak geratu zirenak edo epailearen epaitegikoak atzeratu egin beharko lirarteke edo, egiatan gertatu zen bezala, epaiketa batzuen edo besteen zati bat ezinbesteko babesaren interesei arreta jartzeko erabiliko ziren, hala nola behin-behineko espetxea zigor-jurisdikzioan edo akusatuari ezarritako beste erresalbuazko beste neurri batzuk. Justizia Ministerioak bitartekoen kopurua hamabost izateraino igoz erantzun zuen, eta murrizketak zenbait barrutitan, hala nola Gernikan eta

Bergaran, izandako epaiketa-egunen atzeratzean izandako eragina arindu zuen. Hala ere, ebazkizunen igoeran ez zuen eraginik izan, batez ere zenbait jurisdikzioetan. Hori, hala ere, logikoa da, kontuan badugu erreforma horren aurretik ebazpenen %23 ordezkoez ematen zituztela, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren azken memoriaren arabera.

3.3. Eskubideen tutoretza judizialaren eraginkortasunaren gaineko eragina neurtze aldera, beharrezkoa da neurri horiek eta **tasa judizialen araudi berriak** berekin ekarri dituen ondorioak aldi berean aztertzea. Araudi hori hilabete batzuetan aplikatzea nahikoa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko epailetzak egiazta zezan araudi horrek ondorio negatiboak zituela legezko eskubideak eta interesak Justiziaren aurrean defendatzeko aukeretan, eta Justizia Auzitegi Nagusiko presidentearen bitartez salatu zuen egoera hori.

Hori dela eta, **Justizia Ministerioak egindako aldaketak** harrera ona izan zuen. Hala, zentzu horretan **Herriaren Defendatzaileak zentzu horretan egindako gomendioak** onartu zituen. Modu horretan, herriaren defendatzaileak ez zuen araudi horren inguruko errekurtsorik aurkeztu Auzitegi Konstituzionalaren aurrean. Lehen auzialdian eta jurisdikzio zibileko, administrazioarekiko auzi-jurisdikzio eta gizarte-jurisdikzio baliabideetan pertsona fisikoaren tasa aldakorren %80era iritsiko litzateke murrizketa hori, eta doako justiziaren onuradunei kobratutako tasak itzultzea ere bere baitan hartuko luke. Hala, Doako Laguntza Juridikoaren Legearen aurreproiektuaren, urtarilean argitaratu zenaren ondorioak aurreratzen zituen. Halaber, tasa-salbuespenaren onuradun izateko errenta-atalaseak igo ziren, genero-indarkeriaren, terrorismoaren, gizakien salerosketaren eta trafikoko istripuen biktimei eta abusuen edo tratatu txarren biktimak diren adingabeei edo desgaituei ere aplikatzen zaien tasa-salbuespenarena hain zuzen.

Edonola ere, tasa judizialei buruzko araudiaren zati handienak indarrean jarraitu du eta disuasio-logika bati jarraitzen dio. Erakunde honen ustez, araudi hori eztabaidagarria da, euskal operadore juridiko gehienek uste duten bezala: eta, zalantzarik gabe, auzien kopurua murriztea helburu laudagarria bada ere, hori lortzeko bidea **judizioz kanpoko bideak sustatzeak** izan beharko luke, arbitrajea eta bitartekaritza. Aitzitik, alderdiek arrazoi ekonomikoengatik Justiziaren zerbitzu publikoa erabiltzean atzera egitea oinarritzko eskubideen aurkakoa izan daiteke, eta azken buruan, zerbitzu hori ordaintzeko baldintza hobeetan egoteagatik demandak edo errekurtsioak aurkezteko uzkurtua ez dagoenari egiten dio mesede.

3.4. Tasa judizial berriak, hasiera batean, **doako laguntza juridikoaren finantziarioekin** lotuta egon ziren. Aukera hori gaizki atera zen urtearen amaieran Gobernuak Justiziari Arloko Biltzarrean horren inguruan iragarri zituen mugak zirela eta, nahiz eta arloan eskumena duten autonomia-erkidego guztien ahobatezko oposizioa izan. Funtsezko zerbitzu horren finantziario-gabezia izan da arlo horretan jasotako kexen ehuneko esanguratsu baten arrazoi nagusia. Profesionalek, beren zerbitzuak kobratzen atzerapenak

izateagatik kaltetutakoek, planteatzen zituzten, bai eta onura horren pertsona eskatzaileek ere, Orientazio Juridikoko Zerbitzuen egoera ezegonkorragatik. Zerbitzu horren baliabidegabezia dela eta, oso azkar jarri da arriskuan bere jarraipena. Otsailean, egiaz, Bizkaiko Orientazio Juridikoko Zerbitzua egun batzuetan itxita egon zen, eta guardiako eta Ofiziozko Txandako letratuak izendapenak etetea ere planteatu zen. Neurri horiek ez zuten ondorioarik izan, abokatu-tzako korporazio-istantzien eta Justizia Sailburuordetzaren artean “baliogabeak” izeneko gaien ordaintetari buruz hitzartutako konpromisoak direla eta. Gai “baliogabe” horietan, pertsona bati doako justizia lortzeko eskaera ukatzen zaio, defendatua izan ondoren, edo bestela, ez ditu beharrezko kudeaketak egiten. Hala ere, xede horretarako aurreikusitako ekonomia-funtsaren horniduraren inguruko desberdintasunak jarraitu zuten. Doako Justiziaren Lege berri baten zain gauden testuinguru honetan, 2014. urtea onartzea aurreikusita dagoenean, tentsioak berriz azaleratu ziren 2013. urtearen 13an, huts egindakoen ehuneko handiena gertatzen den delituentzako ofiziozko letratuak ez izendatzearen ondorioz. Gai horren inguruan jaso genituen kekek direla eta, esku hartu behar izan genuen, bai Justizia Sailaren eta elkargo profesionalen aurrean, bai epailtzaren aurrean ere, hori guztia herritarren eskubideetan izaten ari zen eragina murrizte aldera.

3.5. Bukatzeko, urte osoan zehar hipoteka-maileguak ez ordaintzeagatik etxegabetzen arloan Arartekora etengabe iritsi idiren kexen araudi eta jurisprudentzia-testuingurua aipatuko dugu. Berri ona izan zen Eusko Jaurlaritzak epaileekin eta udalekin lankidetzan jarduteko mekanismo bat sortzea, hipotekako edo alokairuko etxegabetze bati aurre egin behar dioten pertsonak eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak laguntza publikoak jaso ahal izan ditzaten. Hala ere, [27/2012 Errege Dekretua](#), hipoteka-zordunen babesa indartzeko presazko neurri buruzkoak, sortutako itxaropenek huts egin zuten: Merkaturatzea geldiarazteko aukera izateko betekizun zorrotzak, ezarritako epeak, hipoteka-prozesuen errealitatearekin erabat arrotzak zirenak, eta prekaritate-egoera ziurtatzeko eskatzen ziren izapide korapilatsuak zirela eta, Errege Dekretu horren eragina izugarri murriztu zen eta haren babesa lortzen saiatu ziren pertsonen %2ri soilik eragin zion. Beharrezkoa da aipatzea, bestalde, [Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia](#). Europar Batasuneko abokatu nagusiak adierazitako usteari atxikiz, epai horrek neurrigabekotzat eta legez kontrakotzat jo zuen Espainiako etxegabetzei buruzko araudia, arlo horretan erkidegoko zuzentzarauak babesten dituen kontsumitzaileen eskubideak urratzen zituela iritzi baitzuen. Aldi berean, legegintzako herri-ekimen bat izapidetu zen Parlamentuan, milioi bat eta bostehun mila sinadurak babestu zutena. Ekimen horrek eskatzen zuen etxegabetzeak geldiarazteko, kaltetutako pertsonak beren etxebizitzak bankuari itzuli ahal izateko eta beren etxebizitzetan bizitzen geratu ahal izateko alokairu sozial bat ordainduz. Azkenik, haien eskaerak ez ziren jaso [1/2013 Legea](#), [maiatzaren 14koa](#), hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurri buruzkoan. Lege horrek erkidegoko araudiarekin eta Konstituzioa berarekin bat datorren oso

eztabaidatua izan da gizartean bai eta zuzenbidean ere, eta Auzitegi Konstituzionalak gai horren inguruko bere iritzia eman beharko du. Esparruan ditugun eskumen-mugez harago, Arartekoak beharrezkotzat jo du eztabaida hori mahai gainean uztea, eta horretarako, gai horri buruzko Udako lkasturte bat antolatu du Euskal Herriko Unibertsitatearekin.

4.

Beste esku-hartze batzuk jarduketa-planaren eremuan

4.1. Bilerak elkarrekin

Tokiko nahiz nazioarteko GKEek eta elkarrekin jasotako eskaerak artatu ditugu. GKE eta elkarte horiek Arartekoarekin elkarrekin bat izateko eskatu dute prozesu penalaren esparruan Giza Eskubideak bermatzeko sistemaren birtualtasunari buruz.

4.2. Erakundeetako eta korporazioetako arduradunekin bilerak

Urte osoan zehar, lan-bilerak egin ditugu epailtzako hainbat kidearekin. Epailtzako kide horien lankidetzaren etengabea izan da, gure ebazpenak egite aldera, bai eta herritarrek Arartekora jotzea eragin duten arazoak konpontzeko egin ditugun kudeaketa zuzenak egiteko ere, batez ere esparru penalean eta erregistro zibilen esparruan.

Helburu berarekin lan egin dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko **gubernuko idazkariarekin**, eta lurralde historiko bakoitzeko idazkari koordinatzaileekin, **fiskal** nagusiarekin eta probintziako fiskal-buruekin.

Korporazio profesionali dagokienez, hiru lurralde historikoetako Abokatuen Elkargoekin garatutako lana doako justiziari eta profesioaren egikaritzaren kontrol deontologikoan prozedurazko bermeei buruzko gaien ingurukoa izan da.

Justizia Sailburuordetzako eta **Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko** arduradunekin bildu gara, helduen justiziari eta adingabeen justiziari buruzko gaiak lantzeko. Justizia Administrazioarekin lankidetzan jarduteko beren zerbitzuak bisitatu ditugu, bai eta Gasteizko Justizia Jauregiko Orientazio Juridikoko Zerbitzuak ere.

4.3. Inkomunikazio-erregimenean dauden atxilotutako pertsonen berme-sistema hobetzeko neurri buruzko gomendioen jarraipena

Jarraipen hori egiteko, Ertzaintzaren hainbat polizia-etxe bisitatu genituen, eta emaitza **Segurtasunaren arloari** buruzko txosten honen zatian adierazita dago.

4.4. Ekitaldietan parte hartzea, txostenetan parte hartzea eta materialak egitea

Arartekoaren presentzia publikoa zabala izan da arlo honetan landutako gaiekin lotuta. Arartekoaren esku-hartzea honako foru hauetan nabarmen daiteke:

- Euskal Herriko Unibertsitatea: Esku-hartze penalaren esparruan egungo joerei buruzko txostena, Arartekoaren Bulegoaren esperientzia oinarri hartuta.
- Bizkaiko Abokatuen Elkargoa: Terrorismo delitueta politika kriminalari eta zigor betearazpenari buruzko txostena, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia ikusirik.
- Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea: Justizia leheneratzaileari buruzko nazioarteko mintegia.
- Eusko Jaurlaritzak, Giza Eskubideen Batzordea: Gurasoen erantzunkidetasunaren esparruko aldaketen inguruan Arartekoak zer jarrera duen azaltzeko aurkezpena.

5.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Krisiak eragina izaten jarraitu du **kalitateko zerbitzu publiko bat eskaintzeko Justiziako Administrazioaren gaitasunean**. Gure azken txostenetan egiaztatu dugun joera bat da. Ez gara ari Justiziako Administrazioaren zerbitzura dauden baliabideen murrizketaz soilik, baizik baita, Justizia modernizatzeko helburu aitortuaz, eskubideen tutoretza judizialaren eraginkortasunean eragin negatiboak dituzten zenbait araudi-aldaketaz ere, aztertzen ari garen urtean zehar beren jardueraren esparruan Arartekoak lan egin duen operadore juridiko guztiek salatzen duten bezala.

Horrek zalantzan jartzen du goian aipatutako 8/2012 Lege Organikoan jasotako aurrekontu-eraginkortasuneko neurriak bat etorriko ote diren 2008-2013 aldirako [Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak diseinatutako Justizia modernizatzeko Plana](#), bai eta Estatuko itunaren indarraldia ere, helburu berarekin indar politiko nagusien 2001. urtean lortu zutena: argitu nahi da, lan-igoerako eta baliabide-murrizketako testuinguru batean, horien helburu modernizatzea den ala, azken buruan, Justizian zerbitzu publiko guztiei eragiten dieten murrizketak aplikatzea.

5.2. Jurisdikziotik jurisdikziora desberdinak dira neurri horiek **herritarren eskubideen tutoretza judizialean** dituzten ondorioak, tasa judizial berriekin bat eginez. Edonola ere, kontsultatutako operadore guztien arabera, gure epaitegietako prozesuen pilaketaren eta batez besteko iraupenaren esparruan gertatzen ari den aldaketa baten aurrean gaude. 2012. urtean, gure epaitegietako indizeak oraindik pixka bat hobegoak ziren Espainiako Justiziako Administrazio

osokoak baino. Laburbilduz, azkenean Justiziako Administrazioak bankuei, aseguru-etxeei, Estatuari berari edo autonomia-erkidegoari, gai gehienetan auzilari nagusiak direnei, zerbitzu on bat emateko arriskuan gaude, arazo batengatik epaitegira noizean behin joan behar duten herritarrek, berriaz, doako justiziako kasuetatik at, oztopo ekonomikoak eta atzera-eragileak gerta daitezkeen izapidetzeko epeak izango dituzten artean:

- Badirudi horrela gertatzen dela **administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan**. Apelazioen beherakada erregistratu da, %30 ingurukoa. Horrek adierazten du zer-nolako eragin kaltegarria duen Administrazioaren erabakien aurka errekursoak zailtzeak, auzitegiek bere jardura kontrolatzeko eraginkortasuna murrizten baitu, praktikan, bere aldeko “baliozkotasuneko presuntzio” bat ezartzearaino azkenean.
- **Lan-arloko jurisdikzioa**, ekonomia-atzerapenak bere lan-kargan horren eragin nabarmena badu ere, hasiera batean tasa judizialek ez dute nabarmen kaltetu, lan-araudi berriaren ondorioak pairatu behar izan dituen arren: Kausa objektiboengatik eta lan-baldintzen funtsezko aldaketengatik (lanaldien eta soldaten murrizteak) kaleratzeen igoera. Horrez gainera, lehen administrazioak egiten zituen lan-izapideak epaitegietara deribatu dira. Horren guztiaren ondorioz, urtean zehar lan-arloko euskal epaitegietan sartu diren gaiak hasiera batean Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak aurreikusitakoak baino askoz gehiago izan dira. Egoera horri aurre egiteko unitate judizial berrien eskaerak artatu ez direnez, erantzuteko denbora iazkoa halako hiru da. Bi alderdiei egoera horrek eragiten dien atsekabearen berri izaten jarraitu dugu Arartekoan, eta gizarteak da kaltetuena atzerapenengatik, izapidetzeko soldatak kentzean.
- **Erregistro Zibilekin** lotuta jasotako kekek adierazten dute urtean zehar beren lan-karga handitu dela, eta beren zerbitzupuan dituzten baliabideen igoerak ez duela konpentsatu lan-karga hori, eta horrek ezinbestean izan du eragina beren ebazkizun-denboretan. Notarioei eta jabetzaren erregistratzaileei esparru honetan esleitu zaizkien funtzio berriek arazoa larriagotu baino ez dute egin, arindu ordez, bai nazionalitateen esparruan eragin duen kasu pilagatik, bai hainbat aplikazio informatikoren artean izandako bateraezintasunagatik.

5.3. Beste urte batez itxaron behar dugu Bulego Judiziala eta Fiskala, gure barruti judizial guztietan ezarri eta gero, lagungarria izatea egoera hau gaintzen joateko erabiliko diren baliabideak optimizatzeko. Hala ere, berriz aipatuko dugu gai horren inguruan gure txostenetan gomendatzen duguna, eta batez ere bikaintasuna eta kalitatea sustatzen duten pizgarriekin eta adierazleekin egindako lanari dagokionez, bai espediente elektronikoen ezarpenari dagokionez. Testuinguru horretan, funtsezkoa da idazkari judizialak lekuz aldatzea, kontuan izanda epaitegietako eta auzitegietako gainerako langileen gainetik zer zuzendaritza- eta antolaketa-funtzio dituzten. Beraz, hala, auzitegietan euskaraz ere sustatuko litzateke. Euskararen sustapenak *Auzia euskaraz* izeneko programan tresna baliotsu bat aurkitu du iazko azken hilabeteetatik aurrera.

5.4. Erakunde hau bereziki kezkatzen duen gai bat da **gizarte-protestaren kriminalizatzea**, sistemaren kalitate demokratikoan eragin handia baitu. Urtean zehar, arrazoi horrengatik hainbat mugimenduk eta taldek jo dute Arartekoarengana, besteak beste, ekologistek, etorkinen eskubideen alde lan egiten dutenek, hipoteken exekuzioak kaltetutako pertsonen alde lan egiten dutenek, bakearen alde eta militarismoaren aurka daudenek, auzo-elkarteek eta altermundistek. Protesta egiten zuten Ertzaintzak beren erresistentzia pasiboko jokabideetako batzuk delituizat hartzen zituelako. Gerora, auzitegiek jokabide horiek bukatutzat jotzen zituzten edo falta gisa kalifikatzen zituzten. Ebazpen judizial horiek eragiten zien pozaz harago, azaldu zuten ebazpen horiek ez zutela eragotzi ertzainek beren ekintzak neurritz kanpo zapaltzea eta beren taldeetako kideak gaizkileak balira bezala atxilotzea. Hori zela eta, eskatzen zuten polizien irizpideak arlo honetan irizpide judizialetara egokitzeko.

Arartekoak bere azken txostenetan adierazi dio arazoa Eusko Legebiltzarrari. Urriaren 28ko [7/2011 Gomendio Orokorra](#), polizien jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoan, aztertu zen gai hori.

Hala ere, oraingoan kezka hiru arrazoiengatik handitu da:

- Batetik, gure gomendioak egin arren, urte osoan zehar **herritarren ekimen** horren desberdinek **behin eta berri**z planteatzen jarraitu dutelako kexa hori.
- Bestetik, zuzenean lotuta dagoelako **Bilboko Ins-trukzio**ko Epaileren Batzordeak hautemandako arazoarekin. Batzorde horrek 2013ko otsailaren 12an egindako bilkuran aho batez nabarmendu zuen arazo hori: *falta-izaerako egintzengatik atxilotuak Guardiako Epaitegiaren esku jartzeen kopuruak igoera nabarmena izan du, Guardiako Epaileren atestaturak irakurri ondoren denbora-tarte batean atxilotua egon den pertsona berehala libre uztea erabakitzen duelarik. Arazo hori oso larria dela ikusita, HITZARTU DA kaltetutako poliziak jakinaren gainaren gainean jartzea dagozkion xedeetarako.*
- Bukatzeko, **Herritarren Segurtasunaren, Zigor Kode berriaren eta Zigor arloko Prozedura Lege berriaren esparruan aurreikusitako lege-erreformengatik**. Urte amaieran Euskal Goi-bilera Sozialak Justizia Auzitegi Nagusiaren Egoitzan salatu zuen bezala, lege-erreforma horiek herritarren defentsan jarduten duten abokatuen jarduna mugatzen dute, polizien jarduketan azterketa judiziala murrizten dute eta kontrol jurisdikzionalaren murrizketa bat dira, botereari gogaikarriak gerta dakizkion jokabideen zapalketa gobernu-agintaritzaren eskuetan uzten baitute, gizalege ez eta bakean egiten bada ere.

Erakunde honen ustez, beharrezkoa da horrek guztiak sistemarentzat ekar dezakeen agintaritza-desbideratzearen arriskua aldentzea, eta horretarako, beharrezkoa da Ertzaintzak jokabide horien adierazpen askea bermatzea eta indarkeriarik gabeko disidentzia ez kriminalizatzea. Esparru honetan kokatuta dagoelarik, arriskuan dauden ondasun juridikoen arteko haztapen klasikoak, proportzionaltasunaren eta beharrezkotetasunaren printzipioak kontuan hartuta, indarkeriazko jokabideak edo pertsonentzat

edo ondasunentzat arriskutsuak izan daitezkeen jokabideak bereizi egin behar ditu gizarte-atsekabea adierazten duten jokabideetatik, desobedientziako edo erresistentzia pasibozko jokabideak izan arren, indarkeriarik gabeko ekintza sortarekin lotuta daudenetatik. Gure auzitegiak jurisprudentziako doktrina zabala garatu dute gai horren inguruan, eta doktrina horrek gure ordena-indarrek uneoro aintzat hartu behar dituzten berme-irizpideak ditu buru.

5.5. Judizioz kanpoko eta judizioz barruko bitartekaritzak izan da urte osoan zehar berririk onenetakoak eman dizkigun esparruetako bat. Bitartekaritza horren praktika sendotuta dago zigor eta familia esparruan, eta Bilbon proiektu interesgarri bat dago lanaren arloan. Esperotako [5/2012 Legea garatzeko Erregelamendua](#), auzi zibil eta merkataritzazkoetako bitartekaritzari buruzkoak, Bitartekariaren Estatuaren funtsezko lau alderdi baimendu ditu: bitartekariaren prestakuntza, Bitartekariaren Erregistro baten sorrera –Justizia Ministerioaren mende egongo zena–, beren ardurak segurtatzea edo baliabide elektronikoen bidez bitartekaritzako prozedura sinplifikatu bat sustatzea. Edonola ere, oraindik beharrezkoa da epaileek bitartekariaren enplegua sustatzea, eta horretarako, oso tresna baliotsua da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak argitaratu duen **“Judizioz barruko bitartekaritzarako Gida”**. Bukatzeko, oso interesgarria da Euskadin Puntu Neutro delako bat sortu izana, Donostian bildu zen **Bitartekaritzaren aldeko Magistratuen Europako Taldea** eskatuta. Puntu Neutro horren inguruan zuzenbidearen esparruan lan egiten duten talde mota desberdinetako profesionalen artean bitartekaritzaren kultura sustatu nahi da.

5.6. Beharrezkoa da pertsona batzuk epaitzeko diligenzietan parte hartu behar dutenean beste modu batera deitzea, **zitazioek** egiaz bete behar duten **informazio-funtzioa behar den bezala betetzeko moduan**. Ereduaren egungo estandarizazioa, ordez, xede horretarako disfuntzionala izan daiteke. Izan ere, prozedura zeri buruzkoa den jakinarazi ordez, legean nola egokitzen den soilik adierazten du. Gainera, are gutxiago, ez du prozedura arautzen duen artikuluen bidez adierazten nola egokitzen den legean, baizik eta artikulua atxikita dagoen kapituluaren eta atalaren bidez. Argi eta garbi, hori bere kabuz ez da behar adina argia, pertsonak zertarako deitu duten jakin dezan. Arazoa txikiagoa da alderdien kasuan, espero baita egiteko dituzten auzien arazoia jakingo dutela. Lekukoek, aitzitik, sarritan ez dakite prozedura hori egingo denik ere, eta hori dela eta, zer egintzaren inguruan deklaratu behar duten jakitea beharrezkoa da. Adibide gisa jarriko dugu Euskal Herriko Unibertsitateko aginte-kargu batek aurkeztu zuen kexa. Pertsona honek zitazio bat jaso zuen, auzi batera lekuko izatera joateko. Auziaren xedeari buruz hau baino ez zen esaten: *Salatutako egintza: Faltsukeriei eta beste batzuei eta lege berezietan buruz*. Azaldu zuenaren arabera, ez zuen jakin zer salaketari buruzkoa zen, bulego judizialetara bertaratu eta dekanotza-taldeko kide ziren beste bi irakasleren aurkako auzia zela adierazi zioten arte. Bi irakasle horiek auzitara deitu zituzten, beren fakultateko ikasle batzuei azterketa egiteagatik, terrorismoarekin zuten harremanagatik erbesteratutak egon arren.

5.7. Gure esku-hartzearen gizarte- eta araudi-testuinguruari buruz hitz egitean azaldutako arrazoiengatik, **Doako Justiziaren** zerbitzuan abarmen narriatu da urte honetan, eta egoera hori argi eta garbi aditzera eman da arlo honetan jaso ditugun kexetan. Planteatutako arazoei emandako irtenbide zehatza alde batera utzita, gaur egungo egoera hobetu ahal izateko beharrezkoa da botere publikoek ausart jokatzeari, gutxienez alderdi hauetan:

- Ezinbestekoa da abokatutzako profesionalak egun bizi duten **ziurgabetasuna gainditzea**. Profesional horiek, kasu batzuetan, beren lanagatik inolako diru-kopururik jasoko duten ala ez jakin gabe lan egitera behartuta daude, edo diru-kopururik jasoko ez dutela jakinda.
- Egungo araudiak espedienteen kopurua izugarri igo-tzea eragin du, eta espediente horietako asko ez dira amaitzen. Halaber, izapidetzean zailtasun handiagoak egotea ere eragin du, dokumentazio kopuru handia aurkeztu behar baita. Horrek **Orientazio Juridikoko Zerbitzuak** ez gelditzeko, beharrezkoa da giza baliabideak eta baliabide materialak sendotzea, baita langileei

beren lana baldintza egokietan egiteko aukera emango dieten eta herritarrei emandako zerbitzu publikoa erraztuko duten bulego batzuk egitea ere.

- **Kalitateari** dagokionez, berriz esan behar dugu Ofiziozko Txandako abokatuaren esku-hartzea administrazioaren kontura egindako gizarte-funtzio bat dela, eta horrela, herritarrei Justiziara baldintza-berdintasunean sartzeko aukera bermatzen diela. Horren ondorioz, beren ahalegin profesionalak partikular batek izendatuta jokatuko zuten moduan bezalakoa izan behar badu ere –eta horrela da kasu gehienetan–, beren akats profesionalak eragin ditzaketen kalteen ordainak ez du garrantzi bera hartzen, ematen duten zerbitzuaren kalitatebermean gizarte-osagai bat dagoen neurrian. Berme horrek bere edukia galduko luke, behin-behinean kalte-tua izan den pertsona bati ez baliote ordainik emango zentzuzko epe batean. Azken buruan, ordain hori bere garaian eman izateko, beharrezkoa da Elkargoak, aseguru-etxeak eta profesionalak prestutasunez betetzea xede horretarako Aseguru Kontratuaren Legeak esleitzen dizkien betebeharrak.

a t a l a

010.6.

Ingurumena



1.

Arloa kopurutan

Ingurumenaren arloan honako erreklamazio hauek sartzen dira: lur, ur, aire, flora eta faunari eragiten dieten kutsadura kategoria desberdinetan sortutako ukipenei men egiten dietenak, hain zuzen ere. Guztira 109 kexa-espeditente jaso dira. Azpiarloen arabera banatzen dira, salatutako ingurumen ukipen mota adierazten duen irizpide material bati jarraituz: kutsadura akustikoa, atmosferikoa, lurrekoa, uretakoa edo bestelako agente kutsagarriak. Halaber, ingurumen kontrolari eta informaziorako eta ingurumen partaidetzarako eskubi-deen egikaritzapenari dagozkion erreklamazioak ere bereizten dira.

Azpiarloen banaketari dagokionez, sailkapena hurrengoa da:

– Kutsadura akustikoa.....	70
– Kutsadura elektromagnetikoa.....	9
– Ingurumenaren kontrola.....	8
– Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura.....	6
– Ingurumeneko beste kutsadura batzuk.....	5
– Ingurumenaren informazioa eta parte-hartzea.....	4
– Hondakinak eta isurketak.....	3
– Atmosferaren kutsadura.....	2
– Natur gune babestuak. Flora eta fauna babestea.....	2

Eragindako administrazioak kontuan hartuta, modu honetan multzoka ditzakegu:

– Tokiko administrazioa.....	80
– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritzaren).....	10
– Foru administrazioa.....	1

Tramitazioaren egoerari eta kexen emaitzari dagokienez:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
207	125	70	51	19	–	12

Jasotako gaien kopururik handiena kutsadura akustikoari buruzkoa izan da. Kutsadura akustiko horren iturri eta gu-neak nagusiki aisialdi edo industri jarduerak eta azpiegiturak izan ohi dira. Kutsadura akustikoak jarraitzen du kezken iturri bat izaten industrialdeetatik hurbileko hiri inguruetan bizi diren herritarrentzat. 2013an telefonia mugikorren antenetatik eta wifi sareetatik datorren kutsadura elektromagnetikoari buruzko zenbait jarduketa ere eraman ditugu aurrera. Aurreko urteetan hasitako gaien jarraipenarekin segitu dugu, hala nola haustura hidraulikoaren bitartez ezohiko gasaren erreserbak ateratzeak ekar litzakeen ukipenak,

Barakaldo hornitzeko uraren kutsadura edo parke eoliko berrien ezarpena.

Arartekoak arlo honetan duen eraginkortasun mailari dagokionez, aipatu behar dugu Arartekoak ingurumenaren gainean emandako ebazpenen kopurua gehitu dela. 2013an 14 ebazpen eman dira argitara. Ebazpen horietan zenbait arazori buruzko gomendioa, iradokizunak eta ondorioak ematen ditugu; ebazpen guztiak [gure webgunean](#) kontsulta daitezke dagokien atalean.

Arartekoaren zereginak arlo honetan izan duen eraginari dagokionez, gure esku-hartzea nabarmendu beharra dago gazteen lokalen administrazio kontrolaren gain. Izan ere, gai honi buruz zenbait ebazpen prestatu dira, Eudelekin baterako jardunaldi bat egin da eta laborpen dokumentu baten prestateta aurreikusita dago udalei proposamenak egiteko ([ikusi IV.5.2. atala](#)). Halaber, gure proposamenak nabarmendu nahi ditugu ingurumenari buruzko informazioa arrazoizko epeen barruan igorria izango dela bultzatzeko. Aipatu beharra dago zenbait erreklamazio ebatzi direla eta horietan salatzen zirela administrazioaren esku zegoen ingurumen informazioa eskuratzeko oztipoak Egiazta dezakegu ondorengo erreklamazio kopurua handitu dela: erakunde honek hala eskatuta, hiri lurzoruan kokatutako aisialdi jarduerak sorrarazten dituzten zaratotsen arazoak konpontzeko baliabideak eta tresnak jartzea ahalbidetu duten erreklamazioak, hain zuzen ere. Era berean, [Berangoko Udalak](#) gazteen lokal bati buruz emandako erantzun positiboa azpimarratu beharra dago, bai eta [Legorretako Udalak](#) lizentziarik gabeko jardura bati buruz emandakoa eta [Erandioko Udalak](#) taberna batek sorrarazten zituen trabei eta eragozpenei emandakoa ere. [Zumaiako](#) eta [Mallabiko udalek](#) etxebizitza ondoko industrialde batzuetatik ateratzen diren zaratotsak kontrolatzeko zenbait neurri proposatu dituzte. Beste alde batetik, aurreko [ebazpen](#) batean, Arartekoak [Bizkaiko Foru Aldundiaren](#) Nekazaritza Sailari azaldu zion jarduketa plangintza bat hitzartzeko premia, bertiere hiri inguruetan habiak egiten dituzten kalatxoriek pertsonen osasunari eta segurtasunari eragin diezaieten kalteak saiheste aldera. Haren erantzunean, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi zuen bat zetorrela Arartekoaren ebazpenarekin; horrela bada, Foru Aldundiaren Ingurumen Sailarekin abiaraztea aurreikusita daukan plangintzaren berri eman zion.

2.

Kexarik aipagarrienak

2.1. Ingurumen informazioa eta partaidetza

Arartekoaren erakundeak jarraitzen du dokumentazio publikoa eskuratzeko eskubidearen egikaritzaz zuzenarekin zerikusia duten erreklamazioak jasotzen. Gai honek [Arartekoaren abenduaren 30eko 6/2010 gomendio orokorra](#) eragin du, gardentasunari eta dokumentazio publikoa eskuratzeko

eskubideari buruzkoa; gomendio horretan printzipio eta gomendio multzo bat jasotzen zen, horren egikaritzea zuzena bermatzeko. Eskubide honen disfuntzioak garrantzitsuak dira, haren egikaritzea zuzena beste batzuk egikaritzeko instrumentala baita, hala nola herritarren partaidetzarako edo benetako jagoletza judizialerakoa. Zalantzarik gabe, ingurumen arloan garrantzi handia hartzen du informazioa eskuratzeko eskubide horrek. [Aarhus-eko hitzarmenak](#), gure antolamendu juridikoak hura berretsi izanak eta batasunaren zuzenbidean hori onartu izanak erakusten dute ingurumen gaiei buruzko gardentasunak sorrarazten duen interes orokorra.

Berriki gai honi buruzko bi ebazpen eman ditugu, nabarmendu beharrekoak. Bi jarduketek kausa eragin dute Mutrikuko elkarte ekologista batek herri administrazioaren esku dagoen ingurumen dokumentazioa eskuratzeko ikusitako atzerapenean. Kasu honetan, informazioa Eusko Jaurlaritzaren [Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari](#) eskatu zitzaion, eta zerikusia zeukan Mutrikuko Portuaren Plangintza Berezian aurreikusitako obrek natur inguruenari eragingo zioten inpaktuaren zenbait alderdirekin. Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak aipatutako informazio eskabideei erantzuna emateko prozesua azaldu digu. Oro har, eskabideei harrera hurrenkerearen arabera ematen zaie erantzuna eta, zenbait kasutan, premien eta ebazpen lehentasunen arabera. Kasu honetan, sailak zehaztu du elkarte horiekin zenbait komunikazio izan dituela eta horien bitartez Mutrikuko portuari buruzko informazioa eta dokumentazioa igorri ahal izan diela. Testuinguru horretan alegatzen du, erreklamazioetan aipatutako kasu zehatzari begira, lan zamak ez zuela ahalbidetu eskatutako informazio eskaerari erantzunik ematea legezko epeen barruan. Horren ondoren, elkarte erreklamaziogileak jakinarazi digu beste bilera bat izan duela eta horretan gai honi buruzko zenbait alderdi jorratu zirela orokorki. Bilera hori izan eta gero, baieztatu digu eskatutako txostenetarako bat jaso duela eta beste eskubideari eman beharreko erantzuna jasotzeko zegoela. Informazio hori aztertu eta Ingurumen Sailak eskatutako dokumentazioaren zati bati emandako erantzuna egiaztatu eta gero, Arartekoak bi ebazpen eman ditu; ebazpenotan gogora ekartzen ditugu gardentasunari eta informazio publikoaren eskuraketari buruzko gomendio orokorrean jasotako printzipioetarako batzuk. Bietan berresten dugu ingurumen informaziorako eskaerak azkar, lehentasunez eta [uztailaren 18ko 27/2006 Legeak](#) ezarritako hilaibeteko epearen barruan izapidetzeko eta ebazteko betebeharra; izan ere, aipatutako legeak honakoak arautzen ditu, besteak beste: ingurumen informazioa eskuratzeko eta partaidetza publikoa nahiz ingurumen legeriaren gaineko justizia bideratzeko eskubideak. Bestelako eskubideak, hala nola erabaki publikoetan parte hartzeko, egikaritzeko funtsezkoa den epe hori bete ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek behar adina baliabide tekniko eta elektronikoa izan behar dituzte. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren jardun egokia jaso dugu zenbait ingurumen gai edo gatazkatan interesatutako elkarte ekologistekin edo herritarren elkarteekin informazio bilerak izateko orduan. Hori dela eta, legezko betebeharra osatzeko, interesgarria da formula alternatiboak bilatzea, behar adina informazio helarazteko eta ingurumen gaitan interesa duten elkarten partaidetzari bultzada emateko.

2.2. Ingurumen kontrola

Atal honetan plangintzen, egitasmoen eta jardueren ingurumen eragina ebaluatzeko jarraitutako administrazio prozedurei men egiten zaie; era berean, honako gaiak ere jorratzen dira: ingurumen eraginaren ebaluazioa, ingurumen baimen integratua eta jarduera sailkatuetako lizentziak edo jarduera komunikatuak.

■ Muskizko petrolio fintzeko planta. Herritarren eta ekologisten zenbait elkarteren erreklamazioak jasotzen jarraitu dugu; horietan beren kezka eta ardura azaltzen dute Petronor SAren petrolio fintzeko planta baten funtzionamenduak ingurumenari eta pertsonen osasunari ekar diezazkiekeen ukipen eta eraginak direla eta. Beste alde batetik, haien ustetan, ingurumen ikuskapenaren inguruan informatzeko eta administrazio eskudunek ingurumen kontrolaren inguruan jarraitzen dituzten erabaki eta neurrietan parte hartzeko dauden zailtasunak azaltzen dituzte. Gai horri buruz, gogorazi beharra dago [Arartekoaren 2012ko irailaren 24ko ebazpena](#), petrolio fintzeko planta baten ingurumen kontrolari buruzkoa. Gure ondorioetan azaldu genuen Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak beharrezko tramieta eman behar diela trabengatik, herritarren osasunari egindako kalteengatik eta hiri ingurumenari sortarazitako ukipenengatik jasotako erreklamazioei. Halaber, planteatu genuen interes berezikoa izango zela gai honen ukitutako administrazioek, bereziki, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak, herritarren partaidetzarako mekanismoren bat ezartzea (mahaia, bilgunea edo bestelako formaturen bat), ingurumenari eta biztanleen osasunari sortarazitako ukipenen jarraipena egiteko. Foro horretan beti esku hartu behar izango lukete industri jardueraren ordezkariak eta ingurumena babesteko helburua duen elkarte, erakunde edo taldeetako kideak. Petronor-i buruzko mahai bat sortzeko aukerari buruz (betiere ingurumenari buruzko informazioa eta partaidetza hobetzeko), Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzarekin bilera bat izan dugu; eta oraindik ere bileraren balorazioari buruzko erantzuna emateko dago. Legebiltzarrak gai honi buruz aurrera eramandako ekimena ere aipatu behar da. Izan ere, Ingurumen eta Lurralde Politika Batzordeak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, honako ez-legezko proposamen hau onetsi du: [Petróleos del Norte SA enpresak Muskizen, Abanto-Zierbenan eta Zierbenan aurrera eramandako jardueren gaineko ez-legezko 181/2013 proposamena](#), hain zuzen ere. Ebazpen honetan [Muskizko Udalar](#) eskatzen zitzaion ingurumenaren eta herritarren osasunaren ukipenei buruzko jarraipen mahaia abiarazteko, inplikaturako agente guztien partaidetza bermatuz (bakar-bakarrik *“indar politikoak eta enpresa”* aipatzen zituen). Ukitutako administrazioek susta dezaketen azken irtenbideari kalterik egin gabe, gure ebazpenean aipatu genuen mahai horretan, ingurumen kontrolerako administrazio organo eskudunekin batera, industria horren ordezkari bat eta herritarren edo ekologisten elkarteetako kide bat ere (bereziki ingurumen prozesuaren inguruan sortu edo kokatutako elkarteetako) sartu behar zirela. Prozedura hauetan interesdunek parte hartzeko mahaiak eratzeak balio izan dezake ingurumen informazioa zabaltzeko lanabes gisa,

bai eta proposamenak, salaketak edota bestelako aldarrikapenak aurkezteko bide gisa ere.

- Eguratsera isuritako substantzia kimikoetariko batzuen ingurumen kontrolari dagokionez, bentzeno eta toluenoren immisioak eta emisioak arautzen dituen aire kalitateari buruzko arautegiaren inguruan jasotako kontsulta bat aipatu genuen. Konposatu organiko lurrunkorrei (KOL) gagozkielarik, gaur-gaurkoz bentzenorako immisio balio bat baino ez dago araututa [aire kalitatea arautzen duen 102/2011 Errege Dekretuan](#). Gizakion osasuna babesteko gehieneko balioa, aire kalitatea neurtzeko kabinen sareak kontrolatu beharrekoa, urtean 5 mikrogramokoa da m^3 bakoitzeko ($\mu g/m^3$) batez beste. Beste kontu batetik men egiten zion airea neurtzeko kabinek atzeman ditzaketen bentzenoaren gehieneko ezusteko kopuruei. Izan ere, kasu horietan industri prozesuren batetik datozen kontzentrazio zehatzengatik esposizioak egon daitezke. Aipatu beharra dago Eusko Jaurlaritzak ingurumen gorabehera eta larrialdien kontrola eta osasun arriskuen ebaluazioa aurreikusi dituela esposizio handien kasuan [unitate mugikor](#) baten bitartez.

Gaur-gaurkoz KOLen esposizio handien gainean ez dago gutxieneko balioak arautzen dituen europar arautegirik batere, gorago aipatutako bentzenoaren urteko batez bestekoa izan ezik. Edozein kasutan ere, zehaztu beharra dago [Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren Zuzendari-tzak](#) erreferentziatzen hartu duela gorabeheraren batean [Estatu Batuetako Substantzia Toxikoak eta Gaixotasunak Erregistratzeko Agentziaren](#) arautegia (ATSDR). Agentzia horrek pertsonen esposizio handien mailak ezarrita ditu istripuengatik ezusteko esposizioak izaten direnean. KOLen isurpen fokuei dagokionez, aipatzekoa da bentzenoaren immisioak ekoizteko iturri nagusia hirigunee-tako trafikoa izan ohi dela. Zenbait kasutan KOLen emisio horiek iturri industrialetatik etor daitezke. Kasu hauetan, mugak ingurumen baimen integratuetan jaso behar dira, emisioen gehieneko balioak edo bestelako parametro edo neurri tekniko baliokideak txertatuz. Berriki konposatu organiko lurrunkorren emisio instalazioei buruzko [urtarrilaren 8ko 1/2013 Dekretua](#) onetsi da. Toluenoari dagokionez, gure antolamendu juridikoan ez dago haren immisio edo emisio mailak arautzeko inolako araurik. Erreferentzia gisa erabil daitezkeen arau bakarra da lan arriskuak prebenitzeko markoan baliatu ohi dutena. Garrantzitsua da adieraztea [Arartekoak Petronor-eko petrolio finitza jardura industrialaren gainean egindako ebazpenean](#) zehaztu genuela autonomia erkidegoek babeserako arau gehigarriak arau ditzaketela estatuaren administrazioak substantzia kutsagarri arriskutsuenetariko batzuetarako finkatutako gehieneko emisio balioei eta aire kalitateari dagokionez. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak kontuan hartu behar izango luke arriskuaren ebaluazioa, bai eta hori mugatzeko estrategia baten ezarpena ere. Horregatik, Eusko Jaurlaritzari proposatu genion osasunarentzat kaltegarrienak (esate baterako, bentzenoa) diren konposatu organiko lurrunkorren esposizio handietarako gehieneko balioak erregulatzeko.

- Haustura Hidraulikoa Euskadin. Gas naturala haustura hidraulikoaren bitartez ateratzeko teknikari fracking irizten zaio eta elkarte ekologisten arreta eta kezka gune

nagusietariko bat da. Erakunde honek ebazpen bat pres-tatu zuen 2012ko azaroaren 19an, [ezohiko gas hobien erauzketari buruz](#). Ebazpen horretan ondorengo hau ondorioztatu genuen: gasa erauzteko ohiko sistemaren aldean, haustura hidraulikoak sortaraz ditzakeen ingurumen eragin desberdinak, osasun publikoko arriskuak eta karbonoaren aztarna kontuan hartuta, behar-beharrezkoa zela esplorazio eta ustiapen faseei ekin baino lehenago herri administrazio eskudunek luzamendu bat onesta proiektu horien burutzapenari dagokionez. Luzamendu hori ezinbestean lotu behar izango zitzaiokeen natur baliabide hori ezohiko hobietatik ateratzeko erabaki estrategikoaren ekonomi, gizarte eta ingurumen balorazio bati. Gai honi buruzko zenbait ondoriorekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Ingurumen sailai zuzendutako azaroaren 19ko 84/2012 gomendioa jaso genuen. Zehatzago, [Euskadiko 2020rako Estrategia Energetikoa](#) berrikusteko prozesu bati ekiteko eskatzen zen, estrategia horretan Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako gas naturalaren hobiak esploratzeko eta ustiatzeko ingurumen balorazio egokia jaso zedin. Erabaki horrek eta haren ingurumen balorazioak eztabaida sozial, garden eta irekia hartu behar izango dute beren barnean; horretarako, iradokitzen dugu ezohiko gasari buruzko mahai bat sortzea. Halaber, komenigarritzat jotzen dugu eskumenen eremu desberdinetan hidrokarburoen ezohiko hobiak esploratzeko eta ustiatzeko teknika baten erregulazio zehatza ahalbidetzea. Izan ere, botere publikoek beren-beregi arautu beharko lukete ezohiko gasaren hobiak esploratzeko eta ustiatzeko beharrezkoak diren jardueren ingurumen eragina ebaluatzeko premia.

Aipatutako ebazpenaren ondoren, Energiaren eta Meategien aurreko Zuzendariaren txosten bat jaso genuen. Idatzi horretan aurreko gobernu taldearen balorazioa igorri zen. Dokumentuak egindako zundaketen esplorazio izaera azpimarratzen zuen, hori egitea beharrezkoa baitzen ezohiko gasaren ustiapenaren bideragarritasun tekniko, ekonomikoa eta ingurumenekoa zehaztu ahal izateko. Txostena ez zetorren bat Euskadiko 2020ko Estrategia Energetikoaren ingurumen ebaluazio estrategiko bat egiteko premiarekin ingurumen legeriaren baldintzei jarraiki. Aitzitik, Arartekoaren ebazpenak zenbait elementu proposatu nahi zituen ezohiko gas naturalaren hobiak ustiatzeko erabaki estrategikoaren inguruko ingurumen eztabaida eta ebaluazioari begira. Horretarako, estrategia energetikoaren berrikuspenak ekar zezakeen aukera planteatu genuen, horrek eztabaida sozial, garden eta irekia ahalbidetuko zuelakoan, Euskadin ezohiko gasaren erabilerari zegokionez. [Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren](#) erabaki eremuari zegokionez, honako premia azaldu genuen: Euskadiko 2020 Estrategia Energetikoa izeneko plangintzaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren premia, hain zuzen ere.

Gauzak horrela, 2013ko urrian [Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailaren](#) eta Ingurumen eta Lurralde Politikaren Sailaren gaur egungo arduradunen iritzia eskatu genuen aipatutako gomendioen inguruan, horren betetzei buruzko balorazio egokia egin ahal izateko. Orain arte Ingurumen eta Lurralde

Politika Sailaren erantzuna jaso dugu; erantzun horretan pentsatzen du 3E2020 onetsia izan dela aplikagarria den arautegian ezarritakoari jarraiki. Hala eta guztiz ere, Arartekoaren gomendioari men eginez, haren edukia berrikusi edo aldarazi behar izanez gero, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak aztertuko du ea plana ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren pean jarri behar den, gaiari buruzko arautegi eta jurisprudentzia berriari jarraiki.

- Parke eolikoak eta energia berriztagarrien gaineko gizar-te eta erakunde adostasuna. Pertsona talde batek gure erakundera jo zuen, iritzia eman geniezaion orduko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak 2011. urtean Euskadiko zenbait parke eoliko baimentzera bideratutako administrazio tramitazioan izandako jarrerari buruz. Zehatzago, erreklamazioak azaltzen zuen ez zitzaiea erantzunik eman egindako alegazioei eta interesdunei ez zitzaiea jakinarazpenik egin Orozko eta Laudioeren arteko Larragorriko parke eoliko baimentzeko tramitazioan. Beste alde batetik, osagarri gisa, Eusko Jaurlaritzaren politika energetikoari buruzko beste gai orokor bat ere helarazi zigun. Jasotako erreklamazioek beren kezka azaldu zuten gure autonomi erkidegoan potentzia txikiagoko parke eolikoak ugaltzen ari zirelako, nahiz eta [maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuak](#) onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko energia eolikoaren Lurralde Plan Sektorialean aurreikusita egon ez. Mini parke eoliko horien existentziak eta energia berriztagarriko iturri honen gaineko beste gai batzuek berekin ekartzen zuten Euskal Autonomia Erkidegoko energia eolikoaren lurralde planifikazio sektoriala berrikusteko premia. Erreklamazioa nahiz Industria Sailak igorritako informazioa aztertu ondoren, ebazpen bat prestatu dugu; horrela bada, ebazpen horretan parke eoliko baimentzeko espedientean aurkeztutako alegazioei erantzuna emateko jarraitutako izapidea aztertzen dugu, bai eta administrazioetik erantzun arrazoitua lortzeko eskubidea ere. Era berean, energia eolikoaren lurralde planifikazioa berrikusteko perspektibak baloratu ditugu, bai eta, nola ez, energia berriztagarrien bultzadak beharrezko duen gizar-te eta erakunde adostasuna ere. Ebazpen horretan azaltzen dugu herri administrazioek informazio publikoko izapideetan aurkeztutako alegazioei erantzun egokia eman behar diotela nahitaez; izan ere, alegazioen araberako beren-beregiko erantzun egoki bat ez emateak babesgabetasuna ekar diezaike alegazioak aurkeztu dituzten pertsonen. Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailak eta gaiak ukitutako gainerako administrazioek ere jarraitu behar dute Euskadin planifikazio energetiko estrategikoa bultzatzen, oro har energia berriztagarriak eta bereziki energia eoliko bultzatzeko sustapen neurri eraginkorrak bideratuz, [Euskadiko 2020ko Estrategia Energetikoak](#) zehazten dituen helburuak betetzea ahalbide dadin. Planifikazio energetikoaren zeregin horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek jarraitu behar dute gizar-tearen, erakundearen eta herritarren adostasuna bultzatzen, betiere ingurumen irizpideei jarraiki, eta 2020rako energia berriztagarrien kuota handitzeko helburu estrategikoaren markoaren barruan.

2.3. Kutsadura akustikoa

Arartekora erreklamaziorik gehien helarazi duen jarduera gazteen lokalen erabileratik eratorritakoa izan da. Halaber, ostalaritzako establezimenduek edo gastronomi elkarteek sortarazitako eragozpenak eta trabak errepikatu dira, besteak beste musika ekipoen erabileragatik, ateak zabalik uzteagatik eta antzeko arrazoiengatik. Halaber, kanpoaldean egiten diren emanaldiekin zerikusia duten keak handitu dira, hala nola musika kontzertuak eta zenbait udalerritako plazetan eta espazio publikoetan aurrera eramaten diren jarduerak. Zentzu horretan, azpimarratu beharra dago kexa mota hauek zenbait jarduerari edo jarduera soziokulturaleri men egiten dietela (esate baterako, kontzertuei, antzerkiari, izotz pisten instalazioa ahalbidetzen duten Gabonetako jarduerari eta antzekoei) eta horiek guztiek gure udalerritako kaleetan jartzen diren plataformak edo eszenatokiak behar dituztela. Kasu hauetan, agerian jartzen da zaratotsaren aldetik zer-nolako eragozpenak eragiten dituzten eraikinetako fatxadetan jartzen diren bozgorailuek eta inguru horretan sortzen den zalapartak. Nabarmenezkoa da jarduera mota hauek, gehienetan, egunez egin ohi direla. Itxiera ordutegiei dagokienez, azpimarratzekoa da [Irungo Udalak](#), erakunde honetan izapidetutako zenbait espedienteren ondorioz, beharrezko neurriak hartu dituela ostalaritzako establezimenduetako bezeroek edariak kanpoaldera ateratzea saihesteko. Era berean, animaliek egoitzazko hiri lurzoruan eragiten dituzten trabak eta eragozpenak ere azaltzen dira.

Alde batetik, azpimarratu beharra dago urterik urte handitzen direla nabarmenki auzokideen artean izaten diren zaratotsekin zerikusia duten kontsultak eta keak. Printzipioz, adierazi beharra dago gai hau partikularren arteko gatazkak konpontzeko mekanismoen bitartez erabaki behar dela. Hala eta guztiz ere, udalak gai honetan esku hartzeko duen eremuaren berri izateko informazio eskaera batzuk egin ditugu. Kasu hauetan, udal teknikariek neurketak egiten dituzte etxebizitzetan eta proba horien emaitzaren berri eman diete ukitutako auzokideei. Aurreko kasuetan, zehaztu dugu, gure ustetan, Zaratotsari buruzko Legeak ahalbidetuko lukeela toki administrazioei esku hartzea kalitate akustikoko helburu batzuk bermatzeko, baita muga horiek gainditzen dituzten etxe jarduera batzuetan ere; nolahi ere, legeriak ahalbidetuko luke erregulazio propioa ezartzea, mota honetako gatazkak konpontzeko mekanismoak bideratze aldera.

2.4. Lurzoruaren eta uraren kutsadura

Plataforma ekologista batek berriro ere [Barakaldoko Oiola urtegitik kontsumorako ateratzen diren uren kalitatearen egoera](#) planteatu du 2012ko azaroan izandako beste gorabehera baten ondoren; izan ere, gorabehera horrek eragin zuen urtegiaren konexioa pertsonen kontsumorako uraren hornikuntza sarearekin eten beharra. Erreklamazioaren gaiak men egiten dio Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak plataformak gorabehera berri horren ondoren aurkeztutako idatziei emandako erantzunari; gauzak horrela, Osasun Sailari eskatu diote neurriak har ditzala Oiolatik datozen kontsumo uren kalitatea kontrolatu ahal izateko. Horretarako, bada, eskatzen dute plagizida baten (hexakloroziklohexanoa, HCH) kutsadura kontrolatzeko jarraipen organo baterako deialdia

egin dadila eta uraren kontrol analitikoaren gainean igorritako informazioa hobea dadila. Gai honetan lehenago ere esku hartu dugu; horrela bada, Oioloako urtegiko uraren kalitatea bermatzeko hartutako neurriak buruzko [Arartekoaren 2012ko martxoaren 19ko Ebazpena](#) prestatu genuen. Ebazpen horretan plataformari Oioloako urtegiaren uraren kalitatearen kudeaketari buruzko informazioa eta argibide zehatzak, nahikoak eta eguneratuak emateko betebeharrak gogorarazten genuen. Orobat, Osasun Sailari adierazi genion kontsumoaren kalitatearen kudeaketarekin zerikusia zuten partaidetza mekanismoak eta informazio sistemak bideratzeko. Kalitate kontrolari zegokionez, protokoloan ezarritako parametroak betetzen zirela egiaztatze eta justifikatzeko premia azaldu genuen; halaber, aipatu genuen HCHren presentzia ebaluatu behar zela Oioloako urtegiko lehentasunezko substantzia arriskutsu gisa, haren presentzia eteteko edo desagerrarazteko helburuarekin. Erreklamazio horri emandako erantzunean Osasun Sailak jakinarazi zigun zeintzuk izan ziren plataformari uraren kontrol analitikoaren gainean emandako erantzunak. Aldi berean, adierazi zigun kutsaduraren jarraipen azpibatzerde teknikoaren bilera bat aurreikusirik zegoela, egoera baloratzeko, behin urtegiaren uretan ia-ia urtebete igaro ondoren HCHren presentziarik gabe. Plataformari ere deitu zioten azkenean bilera horretara. Ebazpenean ondoz ondoz zioten Osasun Sailak partaidetza bideratzeari eta informazioa eskuratzeari begirako mekanismoak bermatzeko baliabideak jartzen ari zela, aurreko ebazpenean aipatu genuenari jarraiki. Nolanahi ere den, proposatu genion Oioloako uretan, biotan nahiz sedimentuetan HCHrik ez zegoela egiaztatze eska zitezkeen neurriak baloratzeko. Uren kalitatearen informazioa eskuratzeari buruz, Osasun Sailak jarraitu behar zuen eskuratutako informazioa igortzen eta beharrezko laguntza tekniko eskaintzen, eskuratutako datuen ulermen egokia bermatzeko asmoz.

2.5. Kutsadura elektromagnetikoa

Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren [Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eskola 2.0 programan](#) erabilitako ordenagailuen wifi bitarteko eta hariarik gabeko konexioek sorrarazten dituzten eremu elektromagnetikoei buruzko problematika jorratzen duten bi kexa izapidetu ditu. Audioko guraso talde batek eta Lezoko Herri Eskolako Kontseiluak Hezkuntza Sailari eskatu zioten kable bitarteko konektatzeko aukera, hariarik gabeko konexioak sorrarazten dituen eremu elektromagnetikoen eragina murrizteko asmoz. Hezkuntza Sailak proposamena ezetsi zuen. [Arartekoaren 2013ko apirilaren 4ko Ebazpena](#) bitartez sailari eskatu genion Eskola 2.0 hezkuntza programara sartzeko baldintzak berrikusi zitzala eta, bidenabar, programa hori garatzeko irrati-frekuentzien emisio mailak murriztea ahalbide zezaketen neurriak abiaraz zitzala. Gainera, ukitutako pertsonen partaidetza bultzatu behar zuen eta hainbat gai eta alderdi kontuan hartu, esate baterako irrati-frekuentzien eremu elektromagnetikoen esposizioak (horien barruan hariarik gabeko sarean eragina dago) pertsonen osasunari epe luzera eragiten diezazkieten arriskuak.

Arartekoak adierazi zuen, wifi sareek irrati-frekuentziako eremu elektromagnetikoak sorrarazi arren, emisioak oso

maila baxukoak direla eta komunitate zientifikoak ez duela egiaztatu pertsonen osasunari eragiten diotenik. Gainera, Hezkuntza Sailak wifi sareak erabiltzen dituzten bi ikastetxetan egindako neurketek ez zituzten legezko mugak gainditzen. Hala eta guztiz ere, eztabaida honek irekita jarraitzen du gaur egun. Nazioarteko organismoen erabaki eta gomendio batzuetan eskatzen dute bermeekin arreta handiz jokatzeko. Hori berori adierazten du [Europar Kontseiluaren Parlamentu Biltzarren 1815 Ebazpenak](#); horretan gomendatzen da esposizio mailak murrizteko indarreko mugen azpitik eta ikastetxeetako Interneteko konexioetan kableari lehentasuna emateko. Loteslea ez den arren, botere publikoek kontuan hartu behar dute ebazpen hori. Eusko Legebiltzarrak ere [2011ko urriaren 5eko ez-legezko proposamena](#) onetsi zuen aho batez eta horretan Eusko Jaurlaritzari eskatzen zion Europar Kontseiluaren Parlamentu Biltzarren 1815 Ebazpenari atxikitze.

Gure gomendioari emandako erantzunean, Hezkuntza Sailak ziurtatu du ikastetxeetako ikasle guztien eta gainerako langileen segurtasunik gorena bermatu nahi duela. Haren ustetan, gaur-gaurkoz, ez dago zientifikoki egiaztatutako maila oso txikietan emititutako irrati-frekuentzien eremu elektromagnetikoen eragin negatiboa dutenik haurren osasunean. Halaber, gaineratu du Eskola 2.0 programa wifi sare bitartez garatzeko pentsatua izan zela, programaren izaera eta kontzeptua bera kontuan hartuta; horiek gelaren bizkortasun eta antolakuntza malguagoa ahalbidetzen dutelako. Hori guztiori zela eta, Hezkuntza Sailak jarraitzen zuen wifi konexioko sistemaren alde egiten.

Edozein kasutan ere, epe luzera begira osasunarentzako eraginei buruzko ziurgabetasun zientifikoaren eta gizarte kezka mailaren jakinaren gainean egonik, Hezkuntza Sailak gomendagarritzat jo zuen arduraren printzipioaren arabera jardutea eta zenbait neurri hartzea. Horrela bada, gaur egun, salbuespen gisa, ahalbidetzen die Eskola 2.0 hezkuntza programara kable bitartez sartzeko ikasgeletan klabea jarri duten ikastetxeei, baldin eta sistemaren segurtasun eta eskuragarritasuna bermatzen badute. Era berean, wifi sARBIDE Puntuetan irrati-frekuentzien esposizio mailen murrizketen alde egitea erabaki du. Orobat, adierazi du jarraituko dutela lortu nahi diren parametroak betetzeko jarraipen eta kontrol hobea ahalbidetuko duten neurketak eta azterlan osagarriak egiten.

3.

Gizarte- eta araudi-testuingurua

Eusko Legebiltzarrak [urriaren 10eko 2/2013 Legea](#), Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzeari buruzkoa, onartu du. Lege horrek 17.4 artikulua testua aldarazi du, aurreko legeak, martxoaren 11ko 1/2010 Legeak, hain zuzen ere, jasotzen zituen edukiei dagokienez. Aurreko xedapenak, oro har, meatzaritza

ustiapenak debekatzen zituen natur eremu babestuetako mugen barruan eta afektazio eremuen barruan. Lege berriak arautzen duenez, natur eremu babestuetako plangintza eta kudeaketa tresnen bitartez debekatuko dira erazketa jarduerak, betiere babesten diren ingurumen balioekiko bateraezinak diren heinean. Euskal Herriko Natura Zaintzeko Legearen aldaketa honek jardute abiaturerari erantzuten die, hala nola: *“egindakoa errespetatzea, eremuaren eboluzio orekatua arriskuan jar dezakeena zuzentzea, eta zuhurtasunez jokatzeko gerta litezkeen garapen ekonomiko berriek arriskuan jar ez ditzaten babestu beharreko balioak, baina sekula ez erabatekotasunez atek itxita natur eremu babestuek izan litzaketen garapen ekonomikoei”*. Gas naturala haustura hidraulikoaren bidez eraztearen inguruan piztutako eztabaida eta teknika hori natur eremu babestuetan debekatzeko proposamena lege-proposamen bat dela medio aztertu da [Arabako Batzar Nagusietan](#), aipatutako legea eztabaidatu denean. Proposamena gaitzetsi dute debekua generikoa litzatekeela irizita. Xedapen berriaren helburua da babestu nahi den eremuaren aurkako jarduerak, erabilerak eta teknikak gara ez daitezen ahalegintzea, berariazko antolamendu planen arauketan funtsatuta. Horrela, planean araututako jarduerak baino ezin izango dira garatu, baliabideak erazteko teknika jakin batzuk kontuan hartuta, baldin eta eremu horiek babesteko ezartzen diren balioekin bat badatoz.

Aurten onartutako estatuko araudia garrantzi handikoa da. Ildo horretan, ondoko arauak aipatuko ditugu: [2/2013 Legea, maiatzaren 29koa](#), Itsasbazterren babes eta erabilera jasangarriari buruzkoa eta Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea aldatzen duena. [21/2013 Legea, abenduaren 9koa](#), ingurumen ebaluazioari buruzkoa, ingurumenean eragin esanguratsua eduki ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzen dituena.

Beste xedapen batzuk: [453/2013 Dekretua, azaroaren 26koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-lurretan lohiak erabiltzeko buruzkoa. Xedapen honek hondakin urak nekazaritza-lurretan erabiltzeagatiko lohien kudeaketa arautzen du. Arauketa honen helburuak ondokoak dira: pertsonen osasuna zaintzea, elikaduraren segurtasuna bermatzea, lurzoruetan, landareetan, animalietan eta gizakietan ondorio kaltegarriak saihestea, eta araztegiko lohien erabilera sustatzea nekazaritzarentzat mesedegarria den moduan edo hobekuntza ekologikoak sorraraziz.

[459/2013 Dekretua, abenduaren 10ekoa](#), lehorretik itsasora egiten diren isurketei buruzkoa. Xedapen horrek, besteak beste, lehorretik itsasora egindako isurketei lotutako baimen eta ingurumen araubidearen inguruko neurri administratiboak jasotzen ditu, ingurumen helburuei eusteko xedez, 2000/60/CE Zuzentarauaren 4. artikuluan eta Uren eta Plan Hidrologikoari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 16. artikuluan jasotakoa betetzeko.

[449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa](#), EAeko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duena. Dekretu horretan jasotzen dira uholdeen kontrako babes neurrien irizpide berriak eta lurzorua erabiltzeko irizpideak uholde-arriskuaren arabera. Halaber, planaren eduki

guztiak egokitzen dira Europako Batasunaren 2000/60/CE Uraren Zuzentarau Markoaren eta Eusko Legebiltzarreko Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen arabera.

Industriako jardueren ingurumen ikuskapena kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea aldatu ondoren. Atal honetan, [5/2013 Legea, ekainaren 11koa](#), nabarmendu behar dugu. Lege horrek uztailaren 1eko 16/2002 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzkoa, eta uztailaren 28ko 22/2011 Legea, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, aldarazi zituen. Esandako legeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 24ko 2010/75/UE Zuzentaraua, industriako isurketei buruzkoa, ostentzen du. [Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak](#), industriako isurketen araudi onartzen duenak eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duenak, garatu du arestian aipatutako legea. Legeria horren alderdi azpimarragarrienak ditugu, besteak beste, ikuskapenak eta betetzeari buruzko txostenek bete beharreko gutxieneko eskakizunak. Autonomia erkidegoak erakunde eskumendunak dira kautelazko neurriak, kontrol eta ikuskapen neurriak erabakitzeko. Organo eskumendunek instalazioen ingurumen ikuskapena egiteko prozedura ezarri behar dute, eta ikuskapen horren emaitzak jendearen eskura jarriko dira.

Ingurumen ikuskapena urriaren 18ko 815/2013 Dekretuak jasotzen duen industriako isurketen araudiak xedatzen dituen jarraiki egin behar da. Aipatutako dekretuak industriako isurketen araudia onartzen du eta uztailaren 1eko 16/2002 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzkoa, garatzen du. Gure inguruari dagokionez, ingurumen ikuskapena gauzatzeko organo eskumenduna Eusko Jaurlaritzako [Ingurumen eta Lurralde Politika Saila](#) da; organo eskumendunek berezko ingurumen ikuskapenerako sistema izan behar dute Ingurumen Baimen Bateratuaren (IBB) eraginpean dauden instalazioak aztertzeko. Sistema horrek ingurumen arloko aginduen betetze-mailaren egiaztapen egokia bermatu behar du eta, gainera, instalazioak inguruneari eragiten dizkion ingurumen ondorio esanguratsu guztien azterketa jaso behar du. Ingurumen ikuskapenerako sistema horri dagokionez, herri-administrazio eskumendunek giza baliabide eta baliabide materialen hornidura egokia eta nahikoa bermatu behar dute. Ingurumen ikuskatzaileek burutu behar dituzte instalazioetan egiten diren ingurumen ikuskapeneko eginkizunak; hala ere, aholkulari teknikoek eta erakunde laguntzaileek lagundu ahal diete lehenengoei. Ingurumen ikuskatzaileak funtzionarioak izango dira, ingurumen ikuskapenerako eskumenak baliatzen dituen organoari atxikitakoak. Funtzioak betetzen ari direla, ikuskatzaileek agintzaritzako agenteen izaera izango dute. IBBren eraginpean dauden instalazio guztiak ingurumen ikuskapenerako plana izan behar dute. Ingurumen ikuskapenerako planak ingurumen arloko arazo garrantzitsueni buruzko ebaluazio orokorra jaso behar du. Era berean, planek ingurumen ikuskapenak taxutzeko eta ingurumen ikuskapen egokiak gauzatzeko prozedura ezarri behar dute.

Ingurumen ikuskapenerako programak aldiro-aldirotu behar dira eta lekuetan egiten diren ikuskapen bisiten maiztasuna adierazi behar dute, instalazio mota guztiak kontuan hartuta. Programatutako bisitak jarduera hasten

denetik urtebete igaro baino lehen egin behar dira. Ikuskapen programak aintzat hartu behar du bertatik bertara egiten diren bi bisiten arteko aldia direnak direlako instalazioen arriskuen ebaluazioan oinarrituko dela. Arriskurik handiena erakusten duten instalazioei dagokienez, programatzen diren bertatik bertarako bisitak urtebetetik beherako maiztasunez egin behar dira eta hiru urteko maiztasunez arrisku txikiak erakusten dituzten instalazioetan. Beste alde batetik, araudiak programatu gabeko ingurumen ikuskapenen aurreikuspena ere jasotzen du, ingurumen arloko gaietarako salaketa larriak, istripu larriak eta ingurumen gertaerak ikeritzeko. Era berean, ikuskapena egin behar da arauak betetzen ez diren gutzietan.

Publizitatea. Oso garrantzikoa da araudiak ikuskapen zereginari, jakinarazpenari eta publizitateari buruz jasotzen dituen betebeharrak azpimarratzea. Ikuskapen aktak agiri publikoak dira eta, beraietan, bertatik bertara egindako bisitaren emaitza jaso behar da. Bisita bakoitzaren ondotik, organo eskumendunek jarduketari buruzko txostena egin behar dute; txosten horretan, dena delako instalazioari dagokion ingurumen baimenaren baldintzen betetze mailaren gaineko ondorioak jaso behar dira. Bestalde, txostena instalazioaren jabeari helarazi behar zaio gehien bi hilabeteko epean, bisita amaitzen den egunetik zenbatzen hasita, egokitzen jotzen dituen alegazioak egin ahal ditzan, hamabost eguneko apeaken barruan. Era berean, legeriaren urraketarik badagoela egiaztatuz gero, jakinarazpena bidali egingo da, zehapen prozedura izapidetzen hasteari kalterik egin gabe. Zehapen espedienteak hasi baino lehen, indarreko legeriari jarraiki, egokitzen jotzen diren behin-behineko neurriak hartu ahal izango dira, ofizios edo alderdi batek eskatuta, izan litekeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko eta giza osasunari nahiz ingurumenari sorraz dakizkien arriskuei edo kalteei aurre egiteko. Behin-behineko neurri horiek arrazoizko irizpideetan oinarrituta hartuko dira eta jabearen egoera juridikoari kalte gutxien eragiten diona hautatuko da. Beste alde batetik, publizitate aktiboaren abiaburuak aintzat hartuta, organo eskumendunek gauzatutako jarduketari buruzko txostena argitaratu behar dute gehienez ere lau hilabeteko epean, [uztailaren 18ko 27/2006 Legeak](#), ingurumen arloko informazioa jartzeko eskubideak, herritarren parte-hartzekoak eta justiziara jartzekoak arautzen dituenak, ezarritako mugak, ez besterik, kontuan hartu behar dira. Era berean, planak eta programak herritarren eskura jarri behar dira, besteak beste, baliabide elektronikoak erabiliz.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen ikuskapenerako programa. Esan beharra dago [2011-2018 aldiko Ingurumen ikuskapenerako eta kontrolerako plana](#) onartu duela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailak, 2012ko abenduaren 10eko erabakia dela bide. Ikuskapenerako plan hori, 815/2013 Errege Dekretua baino lehenagokoa denez, aipatutako industriako isurpenen gaineko araudiak xedatzen dituen egokitu behar zaie, ikuskapenerako programen eskakizun, ingurumen ikuskapenen maiztasun eta administrazioaren jarduketan publizitateari dagokienez. Tamaina handiko industriako jardueren lotutako xedapenei dagokienez, organo eskumendunek honako arau honekin bat etorri behar dute legezko, arauzko eta administrazio xedapenak, 2014ko urtarrilaren 7tik aurrera.

4.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziosko jardunak

Gure udalerrietan, gero eta gazte talde gehiagok erabiltzen dituzte lonja komertzialak elkartoki gisa eta aisialdiko gune gisa. Euskal Autonomia Erkidegoan egindako azterlan batzuek diotenaren arabera, lokalen erabilera mota hori finkatzen ari dela eta euskal gazteen arteko lehentasunezko elkargune eta aisialdiaz gozatzeko gure bilakatzen ari dela. Alabaina, aipatutako gertaerak hainbat eztabaida sorraziti ditu aisialdiko jardueren hori egoki uztartzeko mota horretako lekuek bete behar dituzten ingurumen kontrol, eraikinen segurtasun eta arriskuak prebenitzeko neurriekin.

Auzi horien guztien azterketa xehea egin ahal izateko, Arartekoak ofiziosko espedienteak hasi du, batetik, gazteen aisialdiari lotutako jardueren hasi berri horren gizarte eta lege testuinguruari buruzko informazioa lortzeko, eta bestetik, auziari heltzeko udalek dauzkaten aukerak aztertzeko. Jardun horren helburu nagusia gaiari buruzko irizpide eta abiaburu orokor batzuk ematea da. Helburu horrekin bat etorri, bidekotzat jo da udalek dauzkaten tresnei buruzko informazioa lortzea, ondoko alderdiei dagokienez: elkartoki horien jardueren nola arautzen den; segurtasun, higie eta hoshgabetze arloan, zein gutxieneko neurri eskatu behar diren. Azterketan, gainera, beste gai jakingarri batzuk jorratuko dira, hala nola, kontrol eta ikuskapenari lotutako funtzioak, udalek aurreikusitako jardunak ondoko bizilagunek salaketa jarri gero, eta erabiltzaileek, jardueraren jabeek eta gainerako jabeek eta bizilagunek eskura dauzkaten udalaren informazio zerbitzuak.

4.2. Bilerak elkarteekin

2013. urtean ere harremanak sendotzen jardun dugu ingurumenaren arloan aritzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteekin. Hitzarmen esparru horren garapenera dagokienez, erreklamazio zehatzak aurkezten dira, bilerak egiten dira maiztasun jakin batez, zabalkunde jardunaldiak antolatzen dira o teknologia berriak erabiliz bideratzen da komunikazioa, hala nola, Ararteko erakundearen ingurumenari buruzko foroa edo eztabaidagunea erabiliz.

2013ko ekitaldian, harremanetan izan gara nolabaiteko maiztasunez ondoko auzo elkarte eta talde ekologistekin: [Greenpeace](#), [Ekologistak Martxan](#), [Ezpitsua](#), [Txipio Bai](#), [Eguzki](#), [Zain Dezagun Urdaibai](#), [Fracking Ez Araba](#), [Coordinadora Anti Coke](#) eta Kadagua Behereko koordinakunde biltzen diren elkarte batzuk.

Bileren helburu nagusia izan da gobernu kanpoko antolakunde horiei guztiei ingurumenaren esparruan jarduteko proposamenak aurkeztea, bereziki, informazioa jartzeko eskubideari eta ingurumen gaitan parte hartzeko eskubideari dagokienez. Era berean, Ararteko erakundeak sustatutako [Ingurumen eztabaidagunean](#) parte hartzeko aukera eskaini

diegu. Ingurumen arloak 2013. urtean ere parte hartu du Ararteko erakundearen ingurumenari buruzko eztabaidagunean. Eztabaidagune edo foro horren xedea dugu hausnarketarako leku bilakatzea ingurumen arloan aritzen diren elkarteekin eta herritarrekin batera, ingurumenari lotutako gaiez gogoeta egiteko, batez ere, informaziora jotzeko eta ingurumeneko gaietan parte hartzeko eskubideei dagokienez. 2013ko ekitaldian, 14 elkarte parte hartu du ekimenean.

4.3. Bilerak administrazio eta zerbitzuekin

Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko buru Ana Oregik eta Arartekoak bilera egin zuten 2013ko martxoan. Beste alde batetik, 2013ko ekainean, bilera izan dugu del Eusko Jaurlaritzako [Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritzako](#) ordezkariekin batu ginen Petronor enpresaren jardueraren jarraipen-lantaldea sortzeko proposamena aztertu eta ingurumen arloko informazioa eta parte-hartzea sustatzeko helburuz.

2013ko azaroan, [Eusko Legebiltzarreko](#) Ingurumen eta Lurralde Politikako Batzordeak Arartekoaren agerraldia eskatu zuen [antenek sorrarazitako kutsadura elektromagnetikoari buruzko iritzia](#) emateko eta auzi horrek Euskal Autonomia Erkidegoan daukan arautegia azaltzeko.

4.4. Iritzi artikulua eta erakundearen adierazpenak

2013an [Ingurumenaren Nazioarteko Eguna](#) ospatu dela eta, Arartekoak erakundea adierazpena egin zuen. Abagune horretarako leloa hauxe izan zen: “[Pentsatu, elikatu, aurreztu](#)”. [Programa Nazio Batuen erakundearen Ingurumen programak](#) sustatutako nazioarteko ekimen honek jendea sentiberatu nahi du [elikagaiak botatzeko ohituraren](#) kontra. Izan ere, ohitura horren ondorioz, 1,3 milioi tona elikagai baino gehiago alferrik galtzen dira urtean. Jateko baliabideen soberakinak gehiegi ekoiztea eta gero alferrik galtzea, etikaren ikuspegitik deitoragarria izateaz gain, [azterna ekologiko izugarria eragiten gure planetako baliabide natural mugatuei](#).

4.5. Parte hartzeko topaguneak, eskubideak bultzatu eta sustatzeko jarduerak

2013ko maiatzaren 6an, Arartekoak jardunaldia antolatu zuen [Euskal Kazetarien Elkartearekin](#) batera, herritarren eskubidea den informaziora jotzeko eskubideari buruzkoa. Jardunaldi horretan, [Access Info Europe](#) deritzon komunikabidearen zuzendari exekutibo Helen Darbshire andreaki entzuteko aukera izan genuen. Ondoren mahai-ingurua izan zen eta saio horretan, elkarteek ingurumen informaziora jotzeko zer-nolako arazoak dituzten jorratu zuten Euskal Kazetarien Elkarte kideek, Ararteko erakundeok eta Txipio Bai elkarte ekologistako ordezkariak.

2013ko azaroaren 14an, [EUDEL](#) eta Ararteko erakundeek lankidetzan antolatutako jardunaldi batean parte hartu genuen. Jardunaldian, “Gazteen lonjak: udalen jardunak lonjen erabilera arautzeko eta gizartearekiko bitartekaritza” gaia aztertu zen eta, bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalek gauzatutako jardun egokien berri eman zitzaizen euskal udaletako ehundik gora ordezkari eta teknikariri, gazteen lonjen erabilera arautu eta antolatzeko, lonjen egokitzapena bideratzeko hiriko esparruan eta erabiltzaile gazteen eta auzokideen arteko bitartekaritza lantzeko.

5.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

- Ingurumen arloko informaziora jotzeko eskubideari dagokionez, Ararteko erakundeak azpimarratu nahi du ingurumenari buruzko informazio eskaerak arin eta lehenasunez izapidetu behar direlako betebeharrak dagoela, betiere ingurumen arloko informaziora jotzeko eskubideak eta ingurumenari lotutako legeriari doazkion parte-hartze publikoa eta justizia arautzen dituen [uztailaren 18ko 27/2006 Legeak](#) ezarritako hilaletako apearean barruan. Epe hori beteko bada, beste eskubide batzuei –hala nola, erabaki publikoetan parte hartzeko eskubidea– eutsi ahal izateko, euskal herri-administrazioak baliabide tekniko eta elektroniko nahikoz hornitu beharko dira.

Nolanahi ere den, Eusko Jaurlaritzako [Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren](#) jardun egoki bat jaso dugu. Bada, aipatu erakundeak informazioa emateko bilerak izan ohi ditu ingurumenari lotutako auzi edo gatazketan interesa duten elkarte ekologista edo auzo elkarteetako ordezkariekin. Hori dela eta, legezko betebeharrak horren osagarri, oso interesgarria da beste bide batzuk bilatzea informazio nahikoa helarazteko eta ingurumen gaietan interesa duten elkarten parte-hartzea bultzatzeko.

Herritarren parte-hartzea sustatzeko testuinguru horren baitan, behin eta berriro azpimarratzen dugu biziki egokia izango litzatekeela Petronor enpresaren inguruko mahaia eratzea, ingurumen arloko informazioa eta parte-hartzea ahalbidetzeko. Mahai horretan, ingurumen kontrola artezteko administrazio organo eskumendunez gain, ondokoek parte hartu beharko lukete: industria horretako ordezkari batek eta auzo elkarte edo elkarte ekologistetako ordezkari batek, bereziki, ingurumen prozesu horren inguruan sortutako elkareren bateko kide batek. Halako prozeduretan, alderdi interesdunek parte hartzen duteneko mahaia bera ingurumenari buruzko informazioa zabalteko tresna da eta proposamenak, salaketak edo beste aldarrikapen batzuk aurkezteko leku aproposa da.

- Gas naturala haustura hidraulikoz erazteko teknika, *fracking* deritzona, elkarte ekologisten ardua et akezka iturri nagusietakoa da gaur egun. Arartekoaren iritziz, teknika horrek dakartzan ingurumen eraginak, jendearen osasunarentzako arriskuak eta haustura hidraulikoak sorraraz dezakeen karbono aztarna aintzat hartuta, azterketa eta ustiapen aldia abiatu baino lehen, Herri-administrazio eskumendunek luzamendua erabaki beharko lukete proiektuok gauzatzeko. Luzamendu hori ezkondu beharko litzateke [Euskadiko Energia Estrategia 2020](#) planaren berrikusketarekin, Euskal Autonomia Erkidegoan aurkitutako gas naturalen hobien azterketaren eta ustiapenaren ingurumen ebaluazio egokia bertan txertatzeko. Erabaki horri eta horren ingurumen balorazioari loturik, gizarte eztabaida garden eta irekia plazaratu behar da, eta horretarako, ez-ohiko gasari buruzko mahaia eratzea proposatzen dugu.
- Energia politika eta energia berriztagarriak bultzatzeko beharrari gagozkiola, euskal herri-administrazioek energia berriztagarriak sustatzeko neurriak hartu behar dituzte, oro har, eta haize-energia sustatzekoak, bereziki, 3E 2020 Estrategian jasotako helburuak beteko badira. Energiaren plangintza taxutzeko zeregin horretan, euskal herri-administrazioek haize-energiaren inguruko adostasuna lantzen jarraitu behar dute gizarte, erakunde eta herritarrekin, ingurumen irizpideak kontuan hartuta, energia berriztagarrien kuota gehitzeko 2020ko helburu estrategikoen esparruan.
- Azkenik, Ararteko erakundeak elkarte eta herritarrekiko harreman hurbila lantzeko konpromisoari eusten dio, oro har, horien guztien ingurumenari buruzko kezkek eta erreklamazioak entzuten ahaleginduta.

a t a l a

QIPWA

Herri lanak, garraioak eta azpiegiturak



1.

Arloa kopurutan

Aurten guztira 89 kexa-espeditente hasi dira arlo horretan eta eragindako administrazioen arabera sailkapen hau egin da:

– Tokiko administrazioa.....	20
– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jauriaritza).....	18
– Foru administrazioa.....	15

Azpiarloen arabera banaketari dagokionez, sailkapena honakoa da:

– Garraioak.....	52
– Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazio erantzukizuna.....	13
– Herri lanak eta azpiegiturak.....	11
– Nahitaetzko desjabetzea.....	6
– Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura.....	4
– Obrak egitea.....	3

Arlo honetako espeditenteen informazio estatistikoa, ekitaldia itxi den unean, ondorengo da:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onatu
77	30	38	17	19	2	9

Aurten azpimarratu behar da arlo horretako kexa-espeditenteen kopurua %100 baino gehiago igo dela eta hazkunde hori garraioen azpiarloan gertatu dela era nabarmenean.

Funtsean, iazko egoeraren aldean egon den hazkundearen arrazoiak autonomia erkidegoko lurralde historikoetan garraio-agintaritzek sartutako aldaketa sakonak izan dira. Horien helburua garraio publikoaren erabileraren sustapenean aurrera egitea da, eta horretarako izen desberdinak dituzten kontaktu-txartel bakarrak kudeatu dituzte: MUGI Gipuzkoan, BAT Gasteizen, BARIK Bizkaian. Ordaintzeko sistema berri horiek erosoagoak dira zerbitzuaren erabiltzaileentzat, horri esker txartel berarekin hainbat garraioibidetan ordaindu baitaiteke, baina era berean tarifen aldaketa ekarri du, zenbait erakunde publikok kudeatutako sistema desberdinak elkartu behar izan direlako eta horrek egoera kaltegarriagoak sortu dizkielako pertsona batzuei lehenago zuten deskontu-sistemari dagokionez, baita hurrengo atalean agerian jarriko ditugun beste disfuntzionaltasun batzuk ere.

2.

Kexarik aipagarrienak

Atal honetan, izapidetu ditugun kexa guztien artean, eduki formalagatik edo mahai gainean jarri duten arazoagatik nabarmendu nahi izan ditugun kexak zehaztuko ditugu.

2.1. Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

Atal honetan ez dago azpimarratu behar den gauza berririk, kexak aurkezten dituzten pertsonak urtez urte azaltzen dizkiguten arazoak kontuan izanda. Horrela, funtsean, administrazioak erantzun ez izanak edo berandu erantzun izanak eragindako arazoak sortzen jarraitzen da, haren aurrean erreklamazioak egin direnean eta **administrazioaren isiltasuna** izapidetzea eta eskatutakoaren ebazpena saihesteko tresna gisa erabiltzea legez onartzen ez denean, legez ezarritako prozedura administratiboaren arabera. Kasu horiekin batera, **jakinarazpenaren** faltarekin edo jakinarazpen urriarekin lotutako gaiak mahai gainean jarri dizkigute, administrazioak ezin baitu egiaztatu interesdunak administrazioaren erabakia behar bezala ezagutzeko ezarri diren legezko betekizunak benetan bete dituela.

Alderdi horri dagokionez, zuzenbide pribatuaren menpe dauden erakundeek kudeatzen dituzten baina herri-administrazioen titulartasunekoak diren zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak mugatuta daude. Horrela, [Abra-Getxo Kirol-Portuari](#) buruzko kexa bat izapidetu dugu. Kirol-portu hori sozietate anonimo batek ustiatzen du, baina administrazio-emakidan oinarritutako azalera-eskubidearen titularrak Getxoko Udalak eta Eusko Jauriaritzak osatutako sozietate publiko bat da. Enpresa ustiatzailea ez legoke era formalean Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen [azaroaren 26ko 30/1992 Legeak](#) (HAAJAPEL) eskatzen dituen prozeduraren bermeen menpe.

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da bi herri-administrazioen titulartasunekoak den jabari publikoaren emakida baten aurrean gaudela. Ondorioz, mota horretako instalazioen ustiapen-kontratuak zuzentzen dituzten baldintza administratibo eta teknikoan agiriak idazterakoan, erabiltzaileentzako eta lagapen-hartzaileentzako gutxieneko berme batzuk aurreikusi beharko zituzten, hala nola, idatziz egindako eskaera oro idatziz ebaztea eta eskatzailearen uziari jaramon egitea ezinezkoa den kasuak behar bezala arrazoitzea.

Zentzu berean, ehuneko ehuneko udalaren kapitalean oinarritzen diren sozietate anonimoen sorrerak, administrazioari dagozkion eskumenak kudeatzen dituztenean, nahasmen-dua sortzen du. Herritarrek euren erreklamazioak aurkezten dituztenean, ez dute zertan ezagutu zuzentzen zaizkion erakundearen eskumenean konplexutasuna, eta batzuetan entitate publikoak berak ere ez die betetzen dituen eginkizunei zedarriztapen nahikorik jarri eta ez daukate mota horretako sozietateen esku utzitako zerbitzuak eta jarduerak kudeatzeko egokia den antolamendu-egitura. Horrela, kasu

horri dagokionez, [Arartekoaren 2013ko urriaren 1eko ebazpena](#) izapidetu genuen. Horren bidez, [Zumarragako Udalari](#) etxebizitza-erakin bateko hezetasun-arazoak konpontzeko beharrezko neurriak hartzeko gomendatzen zaio.

Gure ustez, aztertutako kasuan, udala zegoen behartuta interesdunari erantzun oso bat ematera, alde batera utzita horretarako egin behar zituen barne-izapideak, ehuneko ehunean udalekoa den kapitalean oinarritutako merkataritza-sozietatearen eskumeneoak izan litezkeen hitzarmenak barne, hala balegokio. Azken finean, aztertutako kasuan, interesdunak udalean aurkeztu zuen bere erreklamazioa, eta ondorioz, bai alkatea bai merkataritza-sozietatearen presidentea zen heinean, pertsona berari zegokion prozeduraren instrukzioa ofizioz bultzatzea, mahai gainean jarritako eskaerak ebatzi arte. Udalak gure gomendioa onartu du eta aurkeztutako erreklamazioa behar bezala izapidetzeko konpromisoa hartu du.

2.2. Herri-lanak eta azpiegiturak

Lehenik eta behin, atal honetan AP-8 eta AP-1 autobideen erabiltzaileek bidali dizkiguten kexa batzuk aipatuko ditugu. [BIDEGIK](#) (Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia, SA), ezarrita duen deskontu-sistemaren onuradun izateko, berarekin hitzarmenak sinatuta dituzten erakunde laguntzaileetako batean VIAT aparatu bat erosteko eskatzen du. Jaso ditugun kexek zalantzan jarri dute banketxe horiekin bakarrik lan egitera behartzea.

BIDEGIren azalpena da finantza-etxe batzuek aipatutako autobideak erabiltzeagatik Deskontu-Planean laguntzen dutela eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoan jarduten duten finantza-etxeei informazioa bidali dieten arren, web-gunean aipatzen direnek baino ez dutela lankidetzak-akordioa formalizatu haien bezeroek Deskontu-Plana erabili ahal izateko.

Aurreko gaiarekin –teleordainketa-gailua eduki arren gailua erakunde laguntzaileetan erosteko behararen gaitzespenarekin hain zuzen ere– loturik, erakunde kudeatzaileak esan zuen VIAT aparatua deskontu-planari atxikita dagoen teleordainketa-gailu espezifiko bat dela eta kasu horietarako gailu hori plan espezifiko horren erakunde laguntzaileetako edozeinetan kontratatu behar dela, haiek baitira sistemari dagokion kudeaketa egiten dutenak.

Talde batzuk, adibidez inguruko merkataritza eta auzotarrak, lanek eta azpiegiturak eragiten dietelako kexatu dira. Bide edo espazio publikoetan urbanizazioak hobetzeko edo ekipamendu eta hornidura berriak eraikitzeko egindako obrek hiri-ingurunearen kalitatea hobetzeko interes publiko argi bati erantzuten diote. Horrek, azken finean, taldearen onura ekarriko du eta birmoldatu beharreko eremuen erabiltzaile zuzenentzat bereziki mesedegarria izango da. Hala eta guztiz ere, ezin da errealitatea baztertu, hots, obra horiek hala-beharrez gorabeherak eragiten dituztela herritarren bizitzan eta ohiko trafikoa (zaratak, eragozpenak, bide publikoak moztea...).

Kalte horiek ahal den neurrian arintzeko, ezinbestekoa da era berezian azpimarratzea herritarrek eskubidea dutela aurreikusitako obren erabakitze-prozesuaren eta ondorengo egikaritzearen inguruan administrazioak duen informazioa

eskuratzeko. Era berean, erabaki publiko horiek hartzean herritarrek parte hartzeko printzipioa nabarmendu behar dugu. Bi printzipio horiek herritarrek administrazio onerako duten eskubidearen benetako aplikazio gisa eraten dira. Herri-administrazioek, gutxienez, aurkezten dizkioten alegazio eta iradokizun guztiei behar bezala erantzuteko eta egin beharreko obrari buruz hartutako erabakia behar bezala jakinarazten ahalegintzeko betebeharra daukate. Beraz, herritarrek aurkeztutako aukerak edo proposamenak ezesteko arazoien berri modu egokian eman behar dute.

Herritarrek parte hartzea, legez berariaz xedatuta dauden kasuetan entzunaldietarako eta alegazioak aurkezteko epeak era hertsian betetzeaz gain, egin nahi den herri-lanari buruz erabaki ona hartzen dela bermatzeko aukera bat da. Egikaritze egokiari ere ematen dio bidea, batzuen eta besteen interesak bateratuz, eta inpaktu txikiena eta prestazio horien hartzaile nagusien gogobetetze handiena eraginez.

2.3. Ondare erantzukizuna

Zumarragako Udalari zuzendutako gomendioaren ildotik –arlotan honetako 2.1 atalean aipatu dugu–, ikuspegi materialetik, izapidetu dugun kexak mahai gainean jarri zuen ondare-erantzukizunagatik egindako erreklamazio batek ez zuela erantzunik jaso. Erreklamazioak etxebizitza-erakin batean jabetza horren ondoko lurpeko aparkaleku batean egindako obrek eragindako hezetasunak zituen hizpide. Gai horretan, udalak zalantzan jarri du partikularrek zuzenean erantzukizunaren bat eskatu ahal izatea, uste baitu lurpeko aparkalekua kudeatu eta gauzatu zuen kapital publikoko merkataritza-sozietateak araubide juridiko pribatuaren printzipioei jarraitzen diela.

Gure ustez, behin baino gehiagotan adierazi dugunez, zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten zuzenbide pribatuko sozietate publikoek erantzukizun objektiboaren eta emaitzan oinarritutako erantzukizunaren erregimen berberari –zalantzarik gabe justifikatuta– jarraitu behar diote, alde batetik sozietate horiek kapital publiko finantzatzen direlako, eta beste aldetik haien eskudantziak gauzatzean interes orokorra lortu nahi izan behar dutelako. Bestela, argi dago jarduera publikoak eragindako pertsonak defentsarik gabeko egoeran uzten direla, erabateko nahasketa sortzen delako jarraitu beharreko prozesuaren inguruan eta ez delako jakiten norengana jo behar den. Azken finean, jarrera horrek ekarriko luke administrazioa ondare-erantzukizunaren alorrean behartzen duten prozedura-bermeak alboratzea, eta kexagileei berdin izan beharko litzaieke administrazioak zuzenean edo tartean jarritako sozietate baten bidez jardutea.

2.4. Garraioak

Garraioari dagokionez, erakunde honek jasotako kexa ugaririk nabarmendu nahi ditugu. Gasteizko garraio publikoaren erabiltzaileek sustatu dituzte, BAT txartelaren iraungipenari buruzko informazio falta salatzen. Kexagileek adierazi zuten txartel horiek erosi zituztenean inork ez ziela jakinarazi lau

urteko epean iraungiko zirela. Halaber, azaldu zuten euskarri berean, txartel orokorre dagokienez, ere ez zela jakinarazten, eta haien ustez hori izan zitekeela informazioa jasotzeko leku egokia. Izan ere, pertsona gehienek txartela bidaiari ordaintzeko erabiltzen saiatu zirenean izan zuten inguruabar horren berri, eta ibilbidea dagokion hobari edo deskonturik gabe ordaindu behar izan zuten. Era berean, zalantzan jarri zen txartelaren prezioa 3 € izatea.

EuskoTrenera jo genuen gai hori zela-eta. Gure eskaerari erantzunez, lehenengo eta behin, aipatutako erakundeak azaldu zigun Gasteizko tranbia 2008ko abenduan abiarazi zela eta jardueraren hastea posible izateko 2007. urtean etorkizuneko teknologia baten alde egin zela ezarri behar zen sisteman. Tranbiaren ustiapenerako eta Gasteizko eta Arabako gainerako operadoreetarako **txartel** hoberena bilatu nahi zen. Horregatik, kontakturik gabeko txartela ezartzea erabaki zen, fabrikatzeko erabilitako teknologia informazioa irati-maiztasunez transmititzean oinarritzen baitzen, transmisioaren segurtasuna bermatzen zituzten enkriptazio-algoritmo egokiekin. Gainera, esan zuten kontakturik gabeko txartelen kuota garraioaren merkatuan %70en eta %80ren artean dagoela, eta horrek etorkizuneko hornidura bermatzen duela.

Txartela saltzeko ezarritako **prezioa** 3 € izateari dagokienez, EuskoTrenek jakinarazi zigun prezio horrek ez diola diru-sarrerarik ekartzen zentro konpentsatzaileari. Izan ere, helburua fabrikazio-, igorpen- eta pertsonalizazio-kostuak ordaintzea da.

Txartelaren **iraungipena** dela-eta esan zigutenez, iraungipen bat edo bestea adierazi duen egiaztagiririk egon ez arren, txartelaren fabrikatzaileak funtzionamendu-arazoak saihesteko eman zituen zehaztapen teknikoek ezarri zuten iraungipena 4 urtetan izatea komenigarria zela. Erabaki hori EuskoTrenek eta **TUVISA**k hartu zuten batera. Iraungipen hori ezarri ezean, euskarrian beharbada arazoak sortuko lirake (fabrikatzaileek amaitutako txartelari, txipa+antena+euskarri plastikoari, 2 urteko gehieneko bermea eman zioten; 2 urtetik aurrera luzatzea operadoreak/administrazioak ordaintzen du).

Nolanahi ere, EuskoTrenek aipatu zuenez, txarteletan EV1 izeneko teknologia berria ezartzea posible denean (teknologia horrek txartelaren zikloak gaur egungo 100.000tik 500.000ra igotzen ditu), txartelaren iraungipen-aldia 4 urtetik (orain aplikatzen dena) 7 urtera luzatuko da, baina huts egin dezaketen elementuak (euskarri plastiko eta antena) mantenduko dira, beraz beharrezkoa izango da 4 urteko berme-aldia ezartzea, eta urte horiek igaro ostean txartela matxuragatik berritu behar bada erabiltzaileek ordaindu beharko dute. 7 urtetik aurrera, uste dute informazioaren tratamendua egokia ez izateko arriskua egongo litzatekeela, eta txartelarekin nahi ez diren operazioak eta informazio-galerak gerta litezkeela.

Azkenik, erabiltzaileek txartelen iraungipenari buruzko informazio faltari buruz mahai gainean jarri zuten salaketari dagokionez, EuskoTrenek adierazi zuen txartel pertsonalizatuek aurreko goiko aldean daramatela txartelaren iraungipen-data, txartel horietan erabiltzaileen datuak eta argazkia inprimatu behar direlako. Hala ere, txartel orokorrek ez dute informazio hori jasotzen aipatutako prozesua behar ez dutelako.

Edonola ere, azaldu zen tranbiaren informazio bulegoan eta saltzeko makinetan txartelen iraungipena jakinarazi zela, bai kargatzean bai txartelen mugimenduak eskatzean.

Hala ere, adierazi zuten beharbada euskarri teknikoak ez direla nahikoak izan, batez ere txartel orokorren kasuan. Horregatik guztiagatik adostu zen iraungipen-data bezeroari ematen dizkioten egiaztagiri guztietan (erosketa, txartelen eskaerak, e.a.) jakinaraztea. Gainera, balioztatzeko makinak egokitzen ari ziren pantailetan euskarriaren iraungipen-data alde aurretik (hilabete 1 edo 2) jakinaraz zezaten. Azkenik, aurreikusi zuten txartelaren atzealdean txartela iraungiko dela eta berritzeak koste bat duela jasotzea.

Bestalde, mugikortasun urriko pertsonengan eragin berezia duten arazoak azpimarratu behar ditugu; izan ere, pertsona horiek, gaur egun ere, gainerako herritarrek baino garraio egokituko eskaintza murriztagoa daukate.

Oraindik gertatzen ari dira EuskoTren enpresa publikoak 2012an tren-unitate berriak abiarazi zituenetik antzeman ziren eta aurreko ekitaldiko txostenean azaldu genituen irisgarritasun-arazoak, nahiz eta Euskal Trenbide Sareak bidearen eta nasaren arteko distantzia murrizteko hartutako neurriek esker eta EuskoTrenek bagoien diseinua aldatu izanari esker mugikortasun urriko pertsonen garraioa hobeto erabili dezaketen.

Azkenik, erakunde honetan jasotako kexa bat aipatu nahi dugu. Salatu zuenez, **Eusko Jaurilaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak** ematen zuen Bidekide zerbitzua abisurik gabe kendu zuten. Horren helburua interesa zuten pertsonen ibilgailu pribatuko garraioko bideak partekatzea erraztea zen. Aipatu prestazioa 2020rako Mugikortasun Iraunkorrek Planean hartutako neurrien barruan jasota zegoen.

Gure eskaerari erantzunez, Eusko Jaurilaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak Bidekide deskonektatzeko arrazoiei buruzko informazio nahikoa eman zigun. Lehenengo eta behin, jakinarazi ziguten Bidekide proiektuaren xedea zela pertsonen mugikortasun partekatua ibilgailuko mekanismo baten bidez kudeatzeko plataforma bat garatzea, **Moveuskadi** Euskadiko Mugikortasun Atariaren zerbitzu gisa.

Bidekide deskonektatzeko arrazoiei dagokienez adierazi da plataforma horrek abantailak eduki arren zekartzan mugak agerian jarri zirela. Horregatik, aplikazioa deskonektatzea eta aztertzea erabaki zen garatu baino lehen, bidaiak puntuz puntu sortzeari konponbide bat bilatzeko zonakoak izan eta BIDEKIDE sistemak alde aurretik aurreikusita egon beharrean.

Zerbitzua aldi baterako etenda egoteak ez du inolaz ere esan nahi behin betiko kenduko dela. Sailak uste du BIDEKIDEk ematen zuen zerbitzua Moveuskadi atariaren osagarri gisa beharrezkoa dela, eta berriro abiarazteko konpromisoa hartu du, aldi baterako etetea eragin zuten arazoak bideratuta daudenean.

Eragindako administrazioak helarazitako informazioari jarraiki, kontuan hartuz BIDEKIDEk ematen zuen zerbitzua beharrezkotzat jotzen zela eta sailak igarritako arazoak konpondu eta gero zerbitzua berriro abiarazteko konpromisoa hartu duela, gai horretan genuen esku-hartzea amaitutzat eman genuen.

3.

Ofiziozko espedienteak

Aurten Bilboko udalerriko Egirletako aldapan dagoen ez-behar-tasagatik ofiziozko espediente bat hasi dugu, bertan 600 istripu baino gehiago egon direlako hamar urteko aldian. Erakunde honek bildutako informazioaren arabera, Egirleta mendatea bideko ezbehar-tasa handiko eremua da eta bertan istripu ugari egon dira, hildakoekin eta zaurituekin, banaketa fisikorik gabeko bi noranzkoetako bidea delako eta kurba arriskutsuz betetako trazadura daukalako.

Zentzu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailari informazioa eskatu genion. Bidea erdibitzeko proiektuari ekiten ez dioten bitartean arriskuak eta ezbehar-tasa txikiagotzeko zein neurri ezar daitekeen jakin nahi genuen. Aipatu genituen neurri nagusiak hauek lirategi:

- Zirkulazioaren bi noranzkoak hormigoizko langan bitartez fisikoki banatzea.
- Eremuan abiadura murriztu dadin lagunduko duten radarak jartzea.
- Eremua istripu ugarikoa dela adierazten duten seinaleak jartzea.

Txosten hau ixteko unean, foru-erakundearen erantzuna baloratzeke dugu.

4.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Arlo horretako kexek nabarmen gora egin dute, batez ere lurralde historiko bakoitzeko **garraio publikoan** ezarri diren ordainketa- eta deskontu-sistema berrien inguruan izapide-tutako espedienteen ondorioz.

Zentzu horretan, adierazi behar dugu lurralde historiko bakoitzean egiten ari den txartelen bateratzeari esker garraio publikoko sistema desberdinak elkarrekin lotzea erdiesten ari dela. Hala eta guztiz ere, garraio bide bakoitzean eskuduna den administrazioaren menpe dauden gizarte-tarifetako hobariak eskuratzeko irizpideak aplikatzean gertatzen diren arazoak eta, batzuetan, desadostasunak eragindako erreklamazioak jasotzen ari gara erakunde honetan.

Horregatik, esan behar da tartean dauden administrazioek baldintza bateratuak ezarri behar dituztela tarifa-sistemetan, garraio publikoko sistema integratu batean aurrera egiteko. Gainera, mugikortasuneko eskaera berrien sorrerak (intermodalitatea) eta teknologia berriek jakinarazteko eta tarifak antolatzeke sistemetan duten eraginak, besteak beste, [Euskadiko Garraio Agintaritzak](#) Euskal Autonomia Erkidegoko

garraio bide guztietan erabiliko den txartel bakarra ezartzera behartzen dute.

Azken finean, Euskadiko Garraio Agintaritzak zerbitzuak eta tarifak koordinatzeko ahaleginak batzen jarraitu behar du eta garraio publikoko eskaintza areagotu behar du, gainerako herri-administrazioekin egokiak diren irtenbideak elkartuz eta adostuz.

Azkenik, garraio publikoari dagokionez, **garraio egokituaren** eskaintza hobetzeko beharra azpimarratzen jarraitu behar dugu. Herri-administrazio eskudunek elkarrekin ahaleginak egin behar dituzte mugikortasun urriko pertsonen zuzendutako irtenbideak aurkitzeko, izan ere garraio publikoa erabiltzeko aukera askoz ere mugatuagoak dituzte gaur egun, irauten duten egokigarritasun-arazoaren ondorioz.

Azpiegituri eta herri-lanei dagokionez, kexa azpimarragarri buruzko atalean aipatu dugunez, beharrezkoa iruditzen zaigu zuzenbide pribatuaren menpe dauden enpresen bitartez kudeatzen diren zerbitzu publikoaren erabiltzaileen eskubideen kudeaketa hobetzea. Alderdi horri dagokionez, zentzuzkotzat jotzen dugu kasuaren eta egiaztatutako esperientziaren arabera idatzizko erregulazio edo arau bat egotea interesdunek zerbitzua erabiltzeko eskubidea egikaritu nahi dutenean jarraitu beharreko prozedura eta izapideak zehazteko. Horrela adierazi genuen, adibidez, amarraduren aldaketekin lotutako kasuetarako, horietan ontziz aldatzeagatik amarraduraz aldatzeko, amarradura hutsak esleitzeko e.a. lehentasun-irizpideak eta bete beharreko betekizunak nahiko gardenak izan beharko lirategi.

Horrek ondasun publikoaren gardentasunaren eta administrazio egokiaren alde egingo luke nabarmen, nahiz eta ondasun horiek zuzenbide pribatuaren menpe dauden enpresen bitartez kudeatu, eta, hala, zerbitzuaren arazoizko ustiapen baten ziozkoak ez direla ulertzen diren egoeren arabera hainbat traturaren gaineko mesfidantza ezabatuko luke.

Era berean, aipatu behar dugu garrantzitsua dela interes orokorreko obretan eta azpiegiturretan **herritarrek parte hartzea**. Parte-hartze hori egin nahi den obraren plangintzaren eta diseinuaren hasierako faseetan bideratu beharko litzateke, kontuan hartuz –behintzat baloraziorako– zuzenean eragindako enpresen pertzepzioak eta interesak, haiek askotan proiektuaren berehalako erabiltzaileak izango baitira (plaza berri bat auzotarrentzat, birmodelatu beharreko kale bat merkatarientzat, e.a.). Zentzu horretan, eta proiektuaren fasea ahalik eta modu adostuenean konpondu ostean, administrazioaren jardute egokitzat jotzen dugu obrak zuzentzen dituen organoaren eta obren eragindako pertsonen artean herritarrek parte hartzeko mekanismoren bat ezartzea, bitartean jasotzen diren eta zuzenean eragiten dieten gertakarien berri izateko: atzerapenak, obrak egin bitartean beharrezkoak diren aldaketak, eragindako eremuan ibilgailuz iristeko arazo iragankorrak, e.a.

Bestalde, kexek, aurreko txostenetan bezala, **prozedura administratiboa** eta herritarren eskubideak bermatzen dituzten nahitaezko izapideak ez betetzetik eratorritako kasuak aipatzen jarraitzen dute. Prozedura administratiboaren antolamendua ofizios bultzatu behar da izapide guztietan, ebazpena egiteko behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko nahitaezkoak diren instrukzio-egintzen bitartez, eta eskaera aurkeztu duen pertsonari behar bezala eta

nahitaezko legezko betekizunak betez jakinarazi behar zaio (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 78. eta 87. artikulua).

Era berean, herri-administrazioari aurpegiatzen diote interesdunak eskatutakoari lotuta egindako ebazpenetan inkongruentzia dagoela, eskatutakoari erantzun ez diotelako edo ebazpenean horren zentzua era nahikoan arrazoitu ez delako. Herri-administrazioek ahalegin handiagoa egin behar dute euren jarrera argudiatzeko eta euren ebazpenak behar bezala azaltzeko, eta horretarako mahai gainean jarri diren

gai guztiei buruz erabaki behar dute, baita espedientetik eratorritakoei buruz ere. Horrela zehazten du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen [azaroaren 26ko 30/1992 Legeak](#) (HAAJAPEL) 89. artikuluan.

Laburbilduz, gure ustez, eragindako pertsonak jarduera osagarri bat erabili behar badu herri-administrazioak erabaki jakin bat hartzeko izan dituen arrazoi zehatzak ezagutzeko, ebazpen horrek huts egin duela pentsatu behar da.

a t a l a

2008.

Jarduera ekonomikoaren antolamendua



1.

Arloa kopurutan

2013. urtean 226 kexa-espeditente hasi dira arlo honetan, alegia, erakundeak urte osoan zehar bideratu dituen espeditenteen %8,44.

Azpi-arloak, berriz, honakoak izan dira:

- Finantza-erakundeak eta aseguru-etxeak 195
- Energiatz (elektrizitatea eta gasa) hornitzeko zerbitzuak... 10
- Telefonia zerbitzuak..... 7
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura 6
- Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta industria..... 5
- Merkataritza, turismoa eta kontsumoa 3

2.

Kexarik aipagarrienak**2.1. Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta industria**

Atal honetan bost kexa jaso ditugu eta, kasu horietan [Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailak](#) interes orokorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresen eremuan gauzatu behar duen kontrol-jarduera nolabait zehazten.

2.2. Merkataritza, turismoa eta kontsumoa

Konpainia pribatuek eskaintzen dituzten zerbitzuen jardueren ondoriozko hainbat kontsulta jaso ditugu. Pertsonentzat garrantzi handia daukaten zerbitzu orokorrak eta publikoak dira, hala nola, energia-hornidura, gas-hornidura eta telefonia, enpresa pribatuek zenbait kudeaketa sistemen bitartez eskaintzen dituztenak. Inguruabar horrek ez digu mahai gainean jarritako kontuan esku hartzeko aukera galarazi baina erakunde honek uste du kudeaketa horrek ez duela hori gauzatu bitartean urratu daitezkeen oinarriko eta funtsezko eskubideen galera eragingo behar.

Horregatik, mahai gainean jarritako gai zehatzaren inguruan egoki irizitako informazioa helarazi ondoren, kexa horiek aurkeztu zituzten interesduneei jakinarazi diegu Kontsumitzaileen Informaziorako Udala Bulegoak eta Kontsumobide direla kexa horiek izapidetzeaz arduratzen direnak eta, legegaren aginduz, une honetan, gure esku hartzeko ahalmena jarduerak ordenamenduari bat etortzen ote diren aztertzea mugatzen dela.

Izapidetu ditugun kexei dagokienez, aurreko urteetan bezala, funtsean, honi buruzkoak izan dira: interesdunek desadostasuna adierazi dute kontsumo eta turismoaren arloan Eusko Jaurlaritzaren aurrean aurkeztu diren kexei lotutako prozedura eta artxibatzearen ondorioz, izan ere, ez da egiaztatu administrazioaren arau-haustearen bat egon den.

Prozedurari lotuta, pertsona batek erakunde honetara jo zuen desadostasuna adierazteko, izan ere, Naturgas erakundeari abian jarritako zigortzeko espeditente bati buruzko dokumentazio jakin bat eskatu zion eta ez zuen eskuratu. Kontsumobideak, bere aldetik, jakinarazi zigun interesdunaren eta beste 43 pertsonen (antzerako arrazoiengatik aurkeztutakoak) erreklamazioen harira burututako alde zuzeneko izapidetean jarduera arau-hausleak antzeman zirela erreklamazioek hizpide zuten enpresaren (Naturgas) eskutik. Horrenbestez, zegokion zigortzeko espeditentea abian jarri zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legegaren 34.4. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, inguruabar horren berri eman zioten. Horrez gain, aditza eman zuen zegokion espeditentea izapidetu ostean, kexagileari ere ezarritako zigorraren berri eman ziotela.

Egia esan, zigortzeko prozedura ofizios abian jarri behar da, ez interesdunak hala eskatuta. Salaketaren ondorio bakarra hau da: administrazioari jakinaraztea ustez legez kanpokoak diren gertakari batzuk jazo direla, jardun ikertzailea eta zigortzailea abian jartzeko helburuarekin. Oro har, administrazioaren edozein arlotan, salatzaileak ez dauka beste batzuen kontra izapidetutako zigortzeko espeditenteei lotutako prozeduretan interesdun gisa parte hartzeko ahalmenik.

Hau da, arauak xedatu bezala, salaketak bere horretan ez du salatzailea zigortzeko prozeduran interesdun bihurtzen eta, oro har, prozeduran zehar duen parte hartze bakarra hau da: organo eskudunaren eskutik espeditentearen irekiera eta, hala badagokio, amaiteza eragingo duen ebazpenari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dauka.

2.3. Finantza-erakundeak eta aseguru-etxeak

2013. urtean zehar modu esanguratsuan handitu da pertsona askok zenbait banku erakunde eta aseguru-etxeren jardueraren aurrean sentitzen duten desadostasuna eta babesgabetasuna islatzen duten herritarren kexen kopurua, bai idatzizkoak, bai ahozkoak.

Berez, gatazka horietan euskal herri-administrazioak tartean ez badaude ere, erakunde hau tartean dauden eragile guztiekin lankidetzan aritu da, eragindako pertsonen babesean aurrera egite aldera.

Bankuen sektoreak garatzen duen jarduera ekonomikoa ezin da zerbitzu publikoaren kontzeptuaren barruan sartu. Hala ere, interes orokorrean inpaktu handia eta administrazio erregulazio zabala daukan jarduera da. Horregatik, dotrina zientifikoak interes orokorreko jarduera pribatutzat jo du eta, horrenbestez, banku jarduerarekin zerikusirik ez duten erakunde independenteek gainbegiratu behar dute.

Gure gizartea pairatzen ari den **krisi ekonomiko** sakonaren ondorio gisa, bankuetako produktuak eta zerbitzuak erosi izanagatik eta kontrolatu gabe dauden eta familiaren bizi-tzan eragin handia duten ondorioak sortu dituzten bankue-tako jardueren ondorioz zaurkortasun eta babesgabetasun egoerak agerian jarri dira. Egoera hori larritasun maila han-dienera heltzen da hipoteka-betearazpenekin.

Hipoteka-betearazpena nahitaez etxebizitzarako eskubi-dearen ikuspuntutik aztertu behar da, konstituzio bidez babestutako eskubide bat bezala, beraz, bat-batean gerta-tutako eta eragindakoaren erabaki eta esku-hartze eremu-tik kanpoko arrazoiengatik galtzean, administrazioak fede oneko kontsumitzailearen aldeko oinarrizko eskubide hori defendatzen duten neurriak burutu behar ditu.

Hori bai, gerturatzeko hori kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen ikuspuntutik ere egin behar da. Etxebizitza eros-teko familiek euren baliabide kopururik handiena erabiltzen dute.

Azken urteetan hiru arau onetsi direla jakin dugu. Horien bidez, etxegabetzeen ezbeharrak jorratzen saiatu dira. Arau horien xedea hipoteka-zordunak babestea da, euren ohiko etxebizitzaren galeraren aurrean. Baliabiderik ez duten hi-poteka-zordunak babesteko premiazko neurrien [martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretua](#), hipoteka-zordunen babe-sa sendotzeko premiazko neurriei buruzko [azaroaren 15eko 27/2012 Errege Lege Dekretua](#) eta orain dela gutxiko hi-poteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta gizar-te alokairua sendotzeko neurrien gaineko [maiatzaren 14ko 1/2013 Legea](#).

Lege horrek gaineratu dituen azken aldaketak [2013ko mar-txoaren 14ko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiaren](#) ondoriozkoak dira. Epai hori Bartzelonako 3. zenba-kiko Merkataritza Arloko Epaitegiak Kontseiluaren 1993ko apirilaren 5eko 93/13/CEE Zuzentzarauaren interpretazioaren inguruan mahai gainean jarri zuen epaiketa aurreko arazoa ebatzi zuen kasuaren harira eman zen.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Epaiak, beste kontu batzuen artean, aitortu zuen Espainiako araudia ez zetorrela bat aipatutako zuzentzarauarekin, zehatzago esan-da, eraginkortasunaren printzipioarekin, izan ere, ezinezko edo zailegi bilakatzen da zuzentzarauak eskaini nahi duen babesa aplikatzea hipoteka-betearazpen prozeduretan, kontsumitzaileak salatuak direnean hain zuzen. Arazoa da hipoteka-betearazpen prozeduraren testuinguruan ez duela ezarri aurkaritza arrazoiak aurkezteko aukerarik, kontratuko klausula baten neurritz kanpoko izaeran oinarrituta; aitorten prozesuaren berri izango duen eta, beraz, klausularen neu-rriz kanpoko izaera baloratu behar duen epaileak ezin baitu kautelazko neurririk hartu, hala nola, hipoteka-betearazpen prozedura bertan behera uztea, betiere, horrelako neu-rriak hartzea amaierako erabakia benetan eraginkorra dela bermatzeko beharrezkoa baldin bada.

Aldaketak gorabehera eta arau horiek baloratu behar diren alderdi positiboak jasotzen dituzten arren (hipoteka-zorra berregituratzeko neurriak, salbuespenak, berandutzako interesak murriztea, zerga-neurriak, kaleratzeak etetea, etxebizitzaren gizarte funtsa sortzea familia horiei euren gain har ditzaketen errentak dituzten alokairu kontratuak eskura-tzen laguntzeko...) ez dira inolaz ere balio izaten ari arazo

larri hori pairatzen duten pertsona eta familia guztiei eran-tzun egokia emateko, nahiz eta 1/2013 Legeak berak zera xedatu *“berankortasun tasa gure herrialdean baxua da”* eta *“aparteke egoera horren ondorioz (zordunen) ekonomia-edo ondare-egoera aldatu da eta babes-premia handia dute”*.

Bi urtetan zehar kaleratzeak bertan behera uzteak bakarrik ekarriko dizkie onurak egoera bereziki zaurgarrian dauden eta legeak jaso dituen izaera ekonomikoko eta gizarte izaera duten baldintzen zerrenda murriztailea betetzen duten per-sona eta familiei. Modu berean, kontuan hartu behar da bi urtetan zehar kaleratzeak eteteak ez dituela berandutza in-teresak eteten.

Jardunbide Egokien Kodearen aplikazioak (hasiera batean horri atxikitzea borondatezkoa da finantza erakundeentzat) zorraren berregituratzeak, salbuespenak ordaintzeke dagoen kapitalean eta, azkenik, ordainean emateak barne hartzen ditu. Hala eta guztiz ere, irismena mugatua da ez baita izaera unibertsalarekin hipoteka-zordun guztiei eskaintzen, eragin-dako pertsona arauak berak zehaztu duen gizarte bazterke-riaren atarian egon behar da-eta. Egoera horren definizioa zaurkortasun bereziko taldeen definizioarekin bat dator baina haiei ere hipoteka-kuota, familiaren ondare eta etxebizitzaren gehienezko prezioarekin zerikusia daukaten baldintza bat-zuen betetzea eskatzen zaie.

Hainbatetan erakunde honekin harremanetan jartzen diren pertsonak larrituta daude etxebizitza galtzea gutxi balitz, horrez gain, finantza erakundeari diru kopuru altuak zor diz-kiotelako eta ezin dietelako aurre egin. Horrek guztiak euren etorkizuna arriskuan jartzen du.

Familien gainzorpetzearen aurrean, botere publikoen lehen-tasuna zordunari mailegua itzultzeko aukera eskaintzen dio-ten neurriak bideratzera zuzendu behar da baina, aldi berean, posible den guztietan, etxebizitza mantenduz. Izan ere, etxea galtzea azken aukera izan beharko litzateke, bizileku-eremua ezinbesteko baldintza baita nortasuna garatzeko eta gizar-te bazterkeriaren aurrean babesten duen elementu bat da. Horregatik, hondamen pertsonalaren erregulazioan aurrera-pausoak eman behar dira, hau da, bigarren aukera ematen duen legea beharrezkoa da, kaudimen-gabezia pertsonala osotasunean jorratzeko aukera ematen duena, Europako beste herrialde batzuetan gertatzen den moduan. Gure or-denamendu juridikoak horrelako bat barne hartzen du soilik pertsona juridikoentzat.

Horren bidez, asmoa ez da fede oneko zordunak, euren etxebizitzan hipoteka-betearazpena jasan edo bat-batean gertatutako arrazoiengatik zor gehiegi dituztenak, bidezkoa ez den moduan aberastea, baizik eta euren suspertze eko-nomikoa erraztea etxebizitza galdu izanak edo gainzorpe-tzeak ez dezala eragindako familien gizarte bazterkeria endemikoa edo ezkutuko jarduera ekonomikoa garatzeko beharra eragin.

Lege horrek, dagokion epailearen gainbegiratzearekin, zo-rraren berregituratzea eta zordunaren ahalmen ekonomikoa errearekin bat datorren ordainketa plana ezartzea sustatu beharko luke eta, azkenik, zordunaren aktibo guztia likida-tzeko (bahiezinak diren ondasunak izan ezik) eta horren bi-dez pasiboa ordaintzeko aukera eman beharko luke, bere baliabideak aintzat hartuz, zorra guztiak kitatu arte.

Ekintzaileak eta euren nazioartekotza sustatzeko [irailaren 27ko 14/2013 Legearen](#) onespena zentzu horretan aurre-rapauso txikia izan daiteke baina ez da nahikoa; izan ere, pertsona fisiko partikularrentzat lehiaketa mugatua ezarri badu ere eta, kasu jakin batzuetan, ohiko etxebizitza ardurarabazaleatik at uzteko aukera ematen badu ere (betiere, zorra enpresarial edo profesionalen ondoriozko kaudimengabezia kasuetan), babesa mugatua dago: ardura mugatua duen ekintzailea delakoari. Lege horrek modu zabalean definitu du ekintzaile kontzeptua eta jarduera ekonomiko produktiboa garatzen duen pertsona fisikoak zein juridikoak barne hartzen ditu baina, horrez gain, Merkataritza Erregistroan izena emateko baldintzak betetzeko egin beharra ezarri du, baita legeak ezarritako kontuen aurkezpena eta auditoretzak egiteko beharra ere. Horrenbestez, ez da pertsona fisikoen gainzorpetzea jorratzeko tresna erabilgarria.

Halaber, kontuan hartu behar da lehiaketa bidezko prozedura garestia izan ohi dela eta, askotan, kaudimengatik ez duen pertsona batek ezin diola prozedura horri aurre egin.

Modu berean, botere publikoek haxe sustatu beharko lukete: hipoteka-maileguen kontratuak hipotekatutako ondasunen berme eksklusiboa aintzat hartuta sinatzea (hipotekei buruzko legearen 140. artikulua) eta ez zordunaren ardura unibertsala oinarritzat hartuta ([hipotekei buruzko Legearen 105. artikulua](#) eta [Kode Zibilararen 1911. artikulua](#))

Edonola ere, aipatu behar da [2011ko martxoaren 31ko egotza erabilerako ondasun higiezinentzako kreditu-kontratuak buruzko Europako Parlamentuko eta Batzordeko Zuzentzarau proposamenaren](#) (2011/0062(COD)) izapidetzea nahiko aurreratuta dagoela. 2013ko abenduaren 10ean Europako Parlamentuak lehenengo irakurketan proposamena onestea erabaki zuen. Helburua kontsumitzaileen babesa hobetzea da. Arau horren xedea hipoteka-maileguak kontratatzen dituzten kontsumitzaileen babesaren arloan kide diren estatuetako legerien arteko harmonia lortzea da, erregulatzeko oinarri komuna ezarri eta kide diren estatuei nahikoa den tartea utziz neurri nazionalak har ditzaten. Aditzera eman denaren arabera, arauak, beste kontu batzuen artean, zazpi eguneko hausnarketa epea ezarri du hipoteka-kontratua sinatu baino lehen; erakunde mailegatzaileari betebeharrak ezarri dio: kontratua sinatu aurretik kontsumitzaileari kontratuari buruzko informazio orokor argia eta ulergarria eman behar dio, kostu osoa eta epe luzeko finantza ondorioak ezagutzeko aukera ematen duena; zorraren amortizazioa malgutu du eta betearazpenak gauzatu baino lehen zentzuzkoa den tolerantzia inposatu du, ordaindu ez izanagatik karguak mugatzearekin batera.

Finantza produktuak erosten dituzten pertsonen emandako informazioaren eta banku erakundeak daukan **informazioaren arteko asimetria** agerian jarri da herritarrek mahai gainean jarri dituzten eta bankuen sektorearekin zerikusia daukaten errekamazio gehienetan.

Hainbat etxetan egoera zaila bizi dute langabeziaren eta lanaren zein ekonomiaren behin-behinekotasuna eta eze-gonkortasuna dela-eta; izan ere, lan merkatua ez da berritoki aktibatzen ari eta egoerak okerrera egin du orain dela zenbait urte pertsonen eta familien finantza erakundeekin sinatu zituzten kontratuen ondorio kaltegarriengatik, gaur egun azaleratzen ari baitira.

Azaldu bezala, herritarrek aurkeztu dituzten kexa askoren izendatzaile komuna da produktu bat edo finantza zerbitzu bat kontratatzerakoan eta hori baino lehenagoko faseetan informazio nahikorik jaso ez izana. Eragindako pertsonen salatu duten informazio eskas edo partzial hori agerian jarri da lehentasunezko partaidetzen erosketaren, mendeko finantza ekarpenen eskuratzearen, zoru-klausulen ezarpenaren, HMEI-Kutxen hipoteka-maileguen erreferentzia indizea duten hipoteka-maileguen kontratazioaren edo sinatutako hipoteka-maileguen kontratuetan %20tik gertu dauden berandutzako interesen sinaduraren harira.

Informazioaren aurrean alderdien arteko desoreka handia arintzen saiatu da bankuetako legeria bera. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da finantza produktu bat erosten duen pertsonak ez diola horren ondorioz kontsumitzaile izateari uzten eta, beraz, kontsumoaren arloan sektorekako araudiak ezarri duen defentsa mekanismoa aplikatu behar zaiola. Hala, bide hori justizia auzitegiaren arazo konpontzeko baliabidearen osagarria da.

Kontsumoaren arloan, babesteko sistemaren ideia honetan oinarritzen da: kontsumitzailea gutxiagotasun egoeran dago profesionalarekin alderatuta, bai negoziatzeko ahalmenari dagokionez, bai eskura duen informazioari dagokionez. Horrenbestez, xedea kontsumitzailearen eta profesionalaren arteko desoreka konpontzea da.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen funtsezko eskubide bat haxe da *“informazio egiazkoa, osoa, objektiboa eta ulergarria jasotzeko eskubidea dute, eskura jartzen dizkieten ondasunen eta zerbitzuen ezaugarri nagusiei dagokienez. Hala, bada, ondasun eta zerbitzu horiek era egokian erabiltzeko edo kontsumitzeko oharrak egin behar dira, eta erabilerak edo kontsumoak beren osasunerako eduki dezakeen arriskuak ohartarazi behar da, era horretan, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek hautaketa jakinaren gainean eta arrazoizko eran egin ahal izan dezaten, eta ondasunak eta zerbitzuak segurtasunez eta gogobetetasunez erabili ditzaten.”* (Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko [abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 14.4. artikulua](#)).

Bankuetako jarduera oso konplexua denez, bankuetako zerbitzuen erabiltzaileek aurkezten dituzten errekamazioei erantzuteko organo bereziak sortu dira eta banku jardueraren gaineko kontrola horien esku egon ohi da. ([Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala](#) eta [Espainiako Bankua](#))

Dena den, espezializatutako organo horiek dauden arren, Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babesteko eskumena daukaten erakunde publikoek finantza zerbitzuen eta produktuen kontsumitzaile eta erabiltzaileak babeste aldera esku hartzeko eta izapideak bideratzeko aukera daukate. Horregatik, erakunde horietako langileek ahalegin berezia egin behar dute bankuen eta finantzen sektorean espezializatzeko eta prestatzeko. [Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.28. artikulua](#) kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren eskumena Euskal Autonomia Erkidegoari esleitu dio.

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako eta babeserako organoen jardura babeslea ez da bakarrik a posteriori garatu behar, hau da, arazo antzeman ostean. Mekanismoak ezarri behar dira finantza produktuen kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat

arriskutsuak izan daitezkeen egoerak antzemateko, beraz, etorkizunean prebentzio izaera handiagoarekin esku hartzeko aukera emango duten oinarriak finkatu behar dira.

Hainbat pertsona erakunde honekin harremanetan jarri dira eta salatu dute bere garaian mendeko finantza ekarpenen ezaugarrien gainean behar bezalako informaziorik ez zutela jaso. Kasu gehienetan bankuko erakundeetako bezero txikizkariak dira, inbertsioetan alde aurreko esperientziarik ez daukatenak eta aitortu dutenak ekarpenak eskuratu zituztela euren konfiantzakoak ziren banku erakundeek inbertsio hori iradoki zitelako.

2013ko ekainean erakundeak zenbait [ondorio](#) aditzera eman zituen. Horien bidez, azpimarratu zuen eragindako kooperatibek, merkaturatzaileek eta eskumena duten administrazio zein erakundeek konpromisoa gain hartu behar dutela ahalik eta arreta eta ardura handienarekin jarduteko, finantza produktu horiek sinatzea eragin zuen prozesua argitzeko helburuarekin.

Modu berean, irailaren 17an arartekoa [Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo Batzordearen aurrean agertu zen](#), batzordeak hala eskatuta, eta Eroski eta Fagor mendeko finantza ekarpenak merkaturatzearen inguruan jasotako kexen berri eman zuen.

2013ko martxoan [Kontsumobidek](#) eragindako hiru alderdien arteko bitartekaritza abian jarri zuen: inbertsio tresna hori merkaturatu zuten banku erakundeak, jaulki zituzten kooperatibak eta sinatu zituzten pertsonak. Helburua alderdi guztientzat onuragarria den konponbidea aurkitzea zen eta oraindik ere horretan lanean ari dira.

Hala eta guztiz ere, FAGORrek orain dela gutxi justizia auzitegien aurrean hartzekodunen konkurtsoa deklaratu duenez, ezin da bide horretatik jarraitu kooperatibarekin.

Edonola ere, aipatu beharra dugu eman diren epaileen erabakiak, mendeko finantza ekarpenetan eragina daukatenak, asko ez diren arren, ildo berean taldekatu daitezkeela: produktua merkaturatu zuten banku erakundeek aitortu izan dute ez zutela bete bezeroa behar bezala informatzeko eginbeharra. Emandako informazioak produktuaren egokitasunari buruzko argibideak barne hartu beharko litzuzke, betiere, bezeroak benetan behar zuena aintzat hartuta. Horrez gain, banku erakundeak ziurtatu behar zuen eskuratzailak osotasunean ulertu zituela eragiketa eta haren ondorioak. Froga hori informatzeko eginbeharraren betetzea argudiatzen duenak aurkeztu behar du. Hala ere, alderdi hori egiaztatu ez denez, eman diren epaiek balio gabetzat jo dituzte sinatutako kontratuak, adostasunean egindako akatsagatik.

3.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

[2013. urteko EHUko Udako Ikastaroen](#) testuinguruan, Ararteko erakundeak hausnarketa eta eztabaida jardunaldi bat antolatu zuen herritarrek finantza erakundeekin dituzten harremanetan pertsonen eskubideak babesteari dagokionez.

Finantza eta aseguru-erakundeei buruzko epigrafean aipatu dugun moduan, azken urteetan, gure gizarteak pairatzen duen krisi ekonomiko eta sozialagatik babesik gabe ikusten dugu herritar asko muturreko zaurkortasun eta babesgabetasun egoeran daudela finantza produktu eta zerbitzuak eskuratu izanagatik edo kontrolik gabeko ondorioak eragiten dituzten bankuetako jardunegatik (familien bizitzan eragin handia daukatenak). Egoera hori larritasun mailarik altuenera heldu da hipoteka-betearazpenekin eta ohiko etxebizitzaren galerarekin.

Arartekoaren asmoa arazo horren gaineko eztabaida sustatzea zen, alde aurretiko kontzeptu-ikuspegi hau oinarritzat hartuta: Bankuetako zerbitzuak interes orokorreko zerbitzuak al dira? Apriorizko ikuspuntu horretatik, administrazioaren esku-hartzea zuzena izan behar da, erregulazioa eta kontrol eraginkorra barne hartuz.

Aldi berean, estatuak bermatu behar du herritarrek kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dituzten eskubideak legez babestuta daudela eta bankuen esparruko kontratazioetik sortutako betebeharrak oinarritzko eskubide horiek errespetatzen dituztela. Ikastaroan hizlari talde garrantzitsua izan genuen:

Fernando Zunzunegui jauna, M^a Carmen Gallastegi andrea, Edmundo Rodríguez Achutegui jauna. Amaitzeko, mahai-inguru batean parte hartu zuten eta zenbait ikuspegi osagarri mahai gainean jarri ziren: Manu Valín jauna Justizia zuzendaria, Mario Yoldi jauna etxebizitza sustapeneko arduraduna, Rafael Rich jauna giza-eskubideen arloko abokatua ekintzailea (Kordobako Stop Desahucios plataformako defendatzailea) eta Maria José Fernández de Landa andrea, ogasun arloko arduraduna.

Bestalde, Ararteko erakundeak hausnarketa jardunaldi batzuk partekatu zituen Kataluniako Síndic de Greuges delakoarekin, interes orokorreko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa pribatuak gainbegiratzearen inguruan. Xedea eremu horretan Ombudsman delakoaren jarduna aztertzea zen, baita, hala badagokio, legezko testuinguruak ere, zein sektore edo zerbitzutan esku hartu behar duen, bere zeregin etikoa zein den eta informazioa nola eta nori eman behar zaion aztertuz.

Interes orokorreko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa pribatuei lotuta Ombudsman delakoaren funtzioa aztertu eta definitzerakoan, ideia honen inguruan sakondu zen: interes orokor edo unibertsaleko zerbitzua zeinek eskaintzen duen alde batera utzita, garrantzitsuena, hau da, aldaketa esanguratsua zerbitzu horren jasotzailea nola tratatzen den aztertzean datza, bezero bezala edo pertsona bezala. Bezero bezala tratatzeak esan nahi du sinatutako kontratuaren betetze hertsian oinarrituta dagoen harremana izango dela.

Pertsona bezala, aldiz, konpromiso maila handiagoa barne hartzen du tratuari eta kontratuan xedatutako harremanei dagokienez.

Ahaleginik handiena egin behar da etxebizitza izateko eskubide konstituzionala babesteko, ezein familiarik ez dadila etxerik gabe geratu.

4.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

1. Arlo horretan landu diren zenbait kexa nabarmendu dira, funtsezkotzat jo ditzakegun zerbitzuen erabiltzaileek aurkeztutakoak hain zuzen ere, hala nola, gas eta elektrizitate hornidurari buruzkoak edo telefonia zerbitzuei buruzkoak. Zerbitzu horiek enpresa pribatuek eskaintzen badituzte ere, herri-administrazioek interes orokorreko zerbitzuen emakidaren gainean beharrezkoak diren kontrol-lanak egin behar dituzte.

2. Hala eta guztiz ere, aurten ere aditzera eman behar dugu autonomia erkidego honetako herritarrek ekonomia eta finantza erakundeekin izandako harremanetan izan dituzten arazoengatik aurkeztutako erreklamazioak garrantzitsuak izan direla.

Zehazki, hori ez da Arartekoaren esku-hartzearen barruko esparru bat; izan ere, finantza- eta kreditu-erakundeengatik jardunaren kontrola ez dago [otsailaren 27ko 3/1985 Legeak](#) –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak– erakundeari esleitu dizkion eskumenen barruan; hala eta guztiz ere, pertsona horiek orientatzen saiatu gara, hau da, euren erreklamazioak eta kexak organo eskudunen aurrean aurkezteko informazioa eman diegu.

Euskal herri-administrazio bati dagokion gatazka baten aurrean ez gauden arren, Ararteko bulegoa ezin da alde batera geratu bizitzen ari garen egoera larriaren aurrean eta, horregatik, inplikaturako agente guztiekin lankidetzan aritzen saiatu da, eragindako pertsonen babesean, bereziki, hipoteka-zordunen babesean, aurrera egin ahal izateko.

3. Finantza produktuak erosten dituzten pertsonen emandako informazioaren eta banku erakundeek daukan **informazioaren arteko asimetria** agerian jarri da herritarrek mahai gainean jarri dituzten eta bankuen sektorearekin zerikusia daukaten erreklamazio gehienetan.

Azaldu bezala, herritarrek aurkeztu dituzten kexa askoren izendatzaile komuna da produktu bat edo finantza zerbitzu bat kontratatzerakoan eta hori baino lehenagoko faseetan informazio nahikorik jaso ez izana. Eragindako pertsonen salatu duten informazio eskas edo partzial hori agerian jarri da lehenagoko partaidetzen eraketaren, mendeko finantza ekarpenen eskuratzearen, zoru-klausulen ezarpenaren, HMEI-Kutxen hipoteka-maileguren erreferentzia indizea duten hipoteka-maileguren kontratazioaren edo sinatutako hipoteka-maileguren kontratuetan %20tik gertu dauden berandutzako interesen sinaduraren harira.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen funtsezko eskubide bat haxe da “...informazio egiazkoa, osoa, objektiboa eta ulergarria jasotzeko eskubidea dute, eskura jartzen dizkieten ondasunen eta zerbitzuen ezaugarri nagusiei dagokienez. Hala, bada, ondasun eta zerbitzu horiek era egokian erabiltzeko edo kontsumitzeko oharrak egin behar dira, eta erabilerak edo kontsumoak beren osasunerako eduki dezakeen arriskuaz ohartarazi behar da, era horretan, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek hautaketa jakinaren gainean eta arrazoizko eran egin ahal izan dezaten, eta ondasunak eta zerbitzuak segurtasunez eta gogobetetasunez erabili ditzaten”. (Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko [abenduaren 22ko 6/2003 Legearen](#) 14.4. artikulua)

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako eta babeserako organoen jardura babeslea ez da bakarrik a posteriori garatu behar, hau da, arazoa antzeman ostean. Mekanismoak ezarri behar dira finantza produktuen kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat arriskutsuak izan daitezkeen egoerak antzemateko, beraz, etorkizunean prebentzio izaera handiagoarekin esku hartzeko aukera emango duten oinarriak finkatu behar dira.

a t a l a

010.9.

**Herri administrazioaren zerbitzuko
langileak**

1.

Arloa kopurutan

Ararteko erakundeak 118 kexa-espeditente bideratu ditu herri-administrazioaren zerbitzura lan egiten duten langileen arloan. Kopuru hori 2013. urtean hasitako guztien %4,41 da.

Honako administrazio hauei eragin diete:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurilaritza).....	55
– Tokiko administrazioa.....	29
– Foru administrazioa.....	8
– UPV/EHU.....	4

Edukiari erreparatuta, espeditente horiek arlo hauekin izan dute zerikusia:

– Ordezkapenak.....	27
– Funtzio publikoan sartzeko hautaketa-prozesuak.....	24
– Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura.....	15
– Ordainsariak.....	14
– Beste alderdi batzuk.....	11
– Lanpostuak betetzea.....	11
– Administrazio egoerak.....	5
– Lanpostuen zerrenda.....	3
– Herritarren eskubideak.....	2
– Prestakuntza.....	2
– Oporrak, lizentziak eta baimenak.....	2
– Bateriaezintasunak.....	1
– Diziplina-arabidea.....	1

Urte honetan zehar kudeatu diren espeditente horien (jasketakoak zein ebazteke egoteagatik horiei gaineratutakoak) izapidetze prozesuaren xehetasunei dagokienez, azpimarratzekoa da txosten hau idatzi den unean honako egoera honetan daudela:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
204	87	96	42	54	–	21

Oro har, salbuespen gutxi batzuk izan ezik, kexek hizpide dituzten administrazioek jarrera egokia izan dute eta behar izan duen laguntza eman diote erakunde honi. Hala ere, hainbat kexa izapidetzeko beharrezkoa ez den atzerapena eragiten ari diren zenbait jarrera nakar ere antzeman ditugu. Zentzu horretan, azpimarratu behar dugu berriro ere **Osakidetza-EOZ** ez dela lankidetzan aritu eta jarrera horren ondorioz zenbait ohartarazpen egin behar izan ditugula.

2.

Kexarik aipagarrienak

Enplegu publikoa eskuratzeko hautapen prozedurei lotuta izapidetze diren kexen artean, interesgarritzat jo dugu honako hau nabarmentzea: **Getxoko Udalak** kazetari lanpostu batzuk betetzeko iragarri zuen deialdiari lotuta izapidetze genuen kexa. Erakunde honek bere jardura amaitutzat jo du **Arartekoaren 2013ko ekainaren 27ko ebazpena** eman ostean. Horren bidez, aditzera eman dugu Getxoko Udalak ez dituela **gardentasunari eta administrazio egokiari lotutako eskakizunak** bete eta enplegu publikoan interesa duten pertsonen konfiantza arriskuan jarri duela, sarbidea ez baita objektiboa eta inpartziala izan, berdintasunari, merezimenduari eta gaitasunari buruzko printzipio konstituzionalekin bat eginez.

Halaber, interesgarria iruditu zaigu nabarmentzea **EITBK** laguntzaile tekniko eta luminoteknikari lanpostuak betetzeko iragarri zuen hautapen prozesuari lotuta izapidetze genuen kexa. Erakunde publikoak berak aitortu zuen deialdiaren oinarriak transkribatzerakoan akats bat egon zela, zehazki, parte hartzeko baldintzen artean **ingeleza jakitea ezinbestekoa** zela zioen horretan. Hasiera batean oinarrietan gaineratu zen eta hautapen prozesua behin hasita aldatu zuten, hau da, onartuen eta baztertuen zerrenda argitaratu ostean eta ariketa teorikoa egin ondoren, dagoeneko betekizunek parte hartzea baldintzatu zuten arren. Kasu horretan, ondorioztatu genuen zalantzan jarri zen administrazioaren jardunak enplegu publikoa eskuratzeko errespetatu beharreko **berdintasun printzipioa** urratu zuela eta, ondorioz, zenbait pertsonen, hala nola, kexagileak, ez zutela izena eman hasierako oinarrietan eskatzen zen hizkuntza-maila ez zeukatelako, prozesuan parte hartu nahi zuten arren.

Era berean, egokia iruditu zaigu aipatzea, **Osakidetza-EOZ**ren jarreraren erakusgarri gisa, erakunde honetara jo zuen pertsona batek mahai ganean jarri zuen arazoa. Horren bidez, desadostasuna adierazi zuen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten ondorioz. Ebazpenak 2008an iragarritako hautapen prozesuaren plaza hutsen helmuguen esleipenak argitaratu zituen (administrazio laguntzailea kategorian). Deialdi horretako oinarri orokorrekin zein zehatzekin ezarri zuten txanda bakoitzean eskaintzen diren lanpostuen (libreak eta barne-sustapenekoak) %5 **ezintasunen bat duten pertsonen** bete dezaten erreserbatu behar dela. Hala ere, interesdunaren iritziz, iragarritako ebazpenak oinarri horiek urratu zituen, ez baitzuen legezko eskaera hori betetzen. Horren harira, azaldu zuen barne-sustapeneko txandan hainbat lanpostu hutsik geratu zirenez, txanda libreria pasa zirela, beraz, administrazioak hasiera batean txanda horretan ezintasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako plaza kopurua berriro kalkulatu behar izan zuen; hau da, %5eko erreserba portzentajea ez zen aplikatu behar hasiera batean txanda horretan betetzeke zuden lanpostuen kopuruaren ganean, baizik eta, aipatutako aldaketaren ostean, txanda horretan eskaini ziren lanpostuen kopuru osoaren ganean. Interesdunak egiaztatu zuen gora jotzeko errekurso bat aurkeztu zuela eta jakinarazi zigan oraindik ez dela ebatzi. Zentzu horretan errekerimendu bat

egin ostean, azkenean, gure eskaerari erantzunez, osasun arloko arduradun gorenak zera jakinarazi zigun: errekurtsioa ez zela berariaz ebatzi, beraz, herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen [30/1992 Legearen](#) 43. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako administrazioaren isiltasunagatik gaitzespenari buruzko arauak aplikagarriak zirela. Administrazio isiltasunak ez du esan nahi administrazioak berariaz erantzuteko betebeharra ez duenik. Horregatik eta kexa-espeditente hori behar bezala izapidetzeko helburua genuenez, erakunde publikoaren lankidetzara berriro eskatzea erabaki genuen. Txostena bidaltzeko eskatu genion. Bertan, arduradunak interesdunak mahai gainean jarri zuen gaiaren inguruan zuren iritzia arrazoitua jaso behar zen baina aurrekoaren antza zuen erantzuna jaso genuen. Horrenbestez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren jardunak ezaren ondorioz gure esku-hartzea amaitu behar izan genuen interesdunari kexak hizpide zuen arazoari buruzko erantzun arrazoitua eman gabe.

Bestalde, ohikoa den moduan, beste lehiaketa prozesuei buruzko zenbait kexa jaso ditugu, hala nola, **lanpostuak betetzeko** iragartzen direnak. Adibide bezala, **Donostiako Udalak** iragarri zuen lehiaketa zehatza aipatuko dugu, zehazki, Herritzarrentzako Arreta Bulegoko eta Bilketa Barne Zerbitzuko buru lanpostua betetzekoa.

Kasu horretan, erakunde honetan aurkeztutako kexan jasotako alegazioak gorabehera, ez dugu arrazoirik antzeman baieztatzeko batzordeak egin zuen balorazioaren berezko **zuhurtziak** arbitrariotasuna eragin zuela egiaztatutako **alde zuzentzeko aukera** ematea. Horrenbestez, ez badira epe barruan egiaztatu ondorioztatu behar da ezin dela zuzentzeko aukera ematea. Horrenbestez, ez badira epe barruan egiaztatu ondorioztatu behar da ezin dela zuzentzeko aukera ematea. Horrenbestez, ez badira epe barruan egiaztatu ondorioztatu behar da ezin dela zuzentzeko aukera ematea. Horrenbestez, ez badira epe barruan egiaztatu ondorioztatu behar da ezin dela zuzentzeko aukera ematea.

Horri dagokionez, nabarmendu nahi dugu **Olaberriko Udalak** hirugarren mailako **idazkari lanpostua** betetzeko iragarritako deialdiaren harira burututako jarduna. Ondorioz, **Gipuzkoako Foru Aldundiari** gogorarazi genion iraupen motzeko lanpostu hutsak izan arren, aldundiak ziurtatu behar duela toki korporazioek ez dutela **behin-behineko izendapenik** egingo, gutxienez, eskubide hobeko interesdunek berariaz eskaerak egin baldin badituzte, izan ere, horien bidez plaza hutsak bete daitezke lehentasuna duten formulak erabiliz, hala nola, zerbitzu eginkizuna.

Lehiaketa prozesuekin jarraituz baina **aldi baterako enplegua** lortzeko prozesuak hizpide hartuz, aurten nahitaez aipatu behar ditugu **irakasleen ordezkapenen** kudeaketari lotutako zenbait jarduerak.

Lehenengoa irakaskuntzako ordezkapenak egiteko hautagaiak sustatu dute, izan ere, aurreko **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak** homologatu zuen **lehen hezkuntzako irakasleentzako espezializazio ikastaro** bat gainditu ostean, sartzeko eskaera gaitzetsi dutela ikusi behar izan dute, nahiz eta 2013ko apirilean iragarri zen urteko birbaremazio prozesuaren baitan espezialitate horietan ordezkari izateko prestakuntza jaso.

Erakunde honen ustez, 2012ko abuztuan onetsi ziren hautagaien zerrendak kudeatzeko jarraibide berriek **prestakuntza berria 2010-2012 denbora tartean egin duten hautagaien-tzak gaikuntza araubide iragankorra** gaineratu beharko lukete, azaroaren 4ko [1594/2011 Errege Dekretuaren](#) bigarren xedapen iragankorraren 3. puntuan erabilitakoaren antzerakoa. Ez denez horrela gertatu, une honetan, Langileen Kudeaketa Zuzendaritza izan behar da, 2012ko abuztuaren 27ko aginduaren bigarren azken xedapenaren bitartez aitortu zaion gaitasuna baliatuz, aldaketa sustatzen duena; indarrean jarri aurretik hasitako eta homologatutako espezializazio ikastaroak aitortuz dagozkion espezialitateak irakasteko gaikuntza nahiko gisa. Hezkuntzako arduradunak prest agertu dira egungo jarraibideak berrikuste aldera, erakunde honek proposatutako zentzuan.

Bigarren jarduerak **Arartekoaren 2013ko azaroaren 27ko ebazpena** eragin du. Modu horretan, hezkuntzako arduradunak eskatu diegu kexa aurkeztu duen pertsona konpentsatu dezaten eta deitu ez izanagatik eskaini ez dituen lanek dagoen puntuazioa aitortu diezaioten. Gure iritziz, interesdunek modu justifikatuan uko egiten dutenean, administratioari esan ahal diote zenbat denbora iraungo duen uko egitea eragin duen egoerak, beraz, egoera eragin duen gertakaria bertan behera geratu dela egiaztatzeko eskakizun osagarriak (berriz ere egoera aktiboan edo eskuragarrian egon ahal izateko) gehiegizkoa dirudi eta ematen du ez daukala oinarririk. Are gutxiago aztertu dugun kasuan, zeinetan interesdunak bakarrik argudiatu baitzuen une jakin batean osasun zentroan tratamendu bat jaso behar zuela eta horrek ez zuen ondorioz eragin lanerako gai izateari lotutako baldintzan. Dena den, ebazpen hori ez dute onartu.

Aldi baterako enpleguari buruzko atalarekin jarraituz, beste kexa bat azpimarratu egingo dugu. Pertsona batek aditza eman zuen 2008. urtetik **Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko (GOFE)** aldi baterako **lan-poltsaren barruan** dagoela, **sukaldeko laguntzaile kategorian**, eta urte horretan horretarako eskatu zioten dokumentazio guztia aurkeztu zuen arren, gaur egun, kontratatzeko bere garaian eskatu ez zioten titulazioa eskatzen diotela: HLH, Ostalaritza, Turismo eta Sukaldaritza adarra. Horrez gain, argudiatu zuen eskakizun berri horren ondorioz ezin izan zuela eskaini zioten bitarteko funtzionario izendapena eskuratu. Gainera, errekamazio bat aurkeztu zuen erakunde horren aurrean eta ez zuen espero zuen erantzuna jaso.

Gaiari buruzko informazioa eskatu ostean, egiaztatu genuen arazoa hasi zela abenduaren 28ko 76/2012 Foru Dekretua indarrean jarri ostean. Dekretu horrek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko lanpostuen zerrendaren aldaketa onetsi zuen. Arau horretan xedatu da sukaldeko laguntzaile lanpostua betetzeko Ostalaritza, Turismo eta Sukaldaritza adarreko HLH titulu akademikoa edukitzea beharrezkoa dela. Hau da, titulu hori edukitzea sukaldeko laguntzaile lanpostua burutu ahal izateko betekizun bihurtu da eta, esku artean genuen kasuan, interesdunak ezin izan zuten eskatutako titulu akademikoa aurkeztu ez zuelako.

Gure esku-hartzearen ostean, GOFeko langileen arduradunak adierazi dute interesdunak mahai gainean jarri zuen arazoari konponbide bat emateko asmoa dutela, hau da, foru arauan sukaldeko laguntzaile lanpostua betetzeko ezarritako titulazioaren baldintza eskatzeko betebeharraren

eta indarrean dagoen lan-poltsa osatzen duten pertsonen itxaropenen artean dagoen lehia konpontzeko asmoa; izan ere, pertsona horiei, lan-poltsan sartu zirenean, ez zieten eskatu titulazio hori egiaztatzeko lanpostu bera betetze aldera.

Atal horrekin amaitze aldera, ezinbestekotzat jo dugu **Diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko eta izapidetzeko programa** delakoaren amaieragatik eragindako pertsona guztien ordezkarietan aurkeztu diren kexak aipatzea. Horren bidez, 209 bitarteko funtzionario izendatu ziren **Langile-Euskal Enplegu Zerbitzuko** programagatik, oraindik ere izapidetze fasean dagoena.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Bide Azpiegituren Sailari atxikita dauden karrerako bi funtzionariok aurkeztu zuten kexa aipatzea interesgarria iruditu zaigu. Izan ere, ez daude ados egun sail hori osatzen duten (haiek sail horri atxikita daude) topografiako ingeniari teknikoek betetzen dituzten lanpostuei dagozkien ordainsariak eta sail berean lan egiten duten baina beste ingeniari tekniko batzuei lotutako titulazioak dituzten pertsonak jasotzen dituzten ordainsariak artean dauden aldeak. Zentzu horretan, foru erakundearen euren eskaera egin ostean, **informazioa** eskatu zuten **euren lanpostuen balorazioaren** inguruan. Zehatz-mehatz, euren lanpostuari dagozkion faktore mailen gainean galdetu zuten, baita hainbat faktorearen puntuazioaren, tarteen taulen eta abarren gainean ere. Laburbilduz, erantzun zieten Balorazio Batzorde Teknikoaren lan tresnak zirenez, organo horri zegokiola horien berri ematea. Dena den, organo horren funtzioak bertan behera geratu ziren 2010eko uztailan.

Erakunde honek esku-hartzea amaitu zuen adieraziz, gure iritziz, ez zegoela interesdunek eskatu zuten dokumentazioa ez ematea justifikatzen zuen arrazoirik; izan ere, herri-administrazioaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikulua, herritarrek administrazioaren fitxategietan dauden eta administrazio espediente bat osatzen duten agiriak ikusteko eskubidea daukatela xedatzen duenean, herri-administrazio orokorra du hizpide, ez hari lotutako organo zehatz bat (informazio eskaerak xede duen prozedura ebatzi duena). Orain dela gutxi jakin dugu foru erakundeak euren eskaera bete egingo duela.

Lizentzia eta baimenei buruzko kexei dagokienez, bereziki adierazgarria iruditzen zaigu foru funtzionario batek hala eskatuta izapidetutako kexa. Interesdunak bere ama zaintzeko baimen bat eskuratu nahi zuen Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren (aurrerantzean EBEP) apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 48.1.i) artikuluan araututakoarekin bat eginez. Kexa hori **Arartekoaren 2013ko azaroaren 27ko ebazpena** eman ostean amaitutzat jo dugu. Bertan, ondorioztatu genuen gaixoaren laguntza prozesuaren arduraren medikuak egindako txosten medikoan gaixotasun baten izaera oso larria ez izatzea ez dela izan behar, bere horretan, baimena ukatzeko arrazoi bat (zehazki, 48.1.i artikuluan xedatutako baimena). Horregatik, kasu horietan, kalifikazioa baimenaren emakidaren arduraren administrazio zerbitzuak egin behar du, betiere, eskatzeko espedientearen gaineratutako dokumentazio kliniko nahikoa oinarritzat hartuta.

laz **minbizia edo beste gaixotasun larriren bat pairatzen duen seme-alaba adingabea zaintzeko baimena** aipatu

genuen. Aurten udal funtzionario baten kasua aztertu dugu. Hasiera batean, lanaldia hilabete batean zehar %60 murrizteko baimena aitortu zioten. Hala eta guztiz ere, zegoen luzapena izapidetzerakoan, udalak eskaera hori gaitzestea ebatzi zuen, hura emateko eskatutako baldintzak betetzen ez zituela ondorioztatu zuelako, izan ere, ez zegoen ospitaleratuta eta ez zuen etxeko tratamendurik jasotzen diagnosi eta ospitaleratze baten ondoren. Horrez gain, bere alabak ez zuen zaintza jarraitua eta etengabea behar eta, gainera, eskolatuta zegoen.

Erakunde honek eskolara doazen hainbat adingaberen kasuak ezagutu ditu adingabe honek pairatzen duen gaixotasun berarekin (I. motako diabetes mellitus). Kasu horietan guztietan, erakunde honek eskola orduetan zehar osasun arreta bereziko onartutako zirkularra guztiz betetzea defendatu eta gomendatu du. Horregatik, kasu horretan uste dugu egin behar dena zera dela: eskolatuta dagoen ala ez alde batera utzita, bere gaixotasunaren ondorioz adingabe horrek dituen zaintza-beharrak zehaztu (medikuek zaintza zuzena, jarrai eta etengabea izan behar dela baloratu dute, zalantzarik gabe), haren gurasoen laneko ardurekin batera-garriak diren ala ez alde batera utzita.

Erakunde honen esku-hartzea eskatu duen beste udal funtzionario baten kasua ere aipatu nahiko genuke. Kasu horretan, interesdunak bere emaztea zaintzeko baimena eskuratu nahi zuen, **“amniozentesi” proba** egin baitzioten. Langile horren nahia ukatu egin zuten Udaltzuzen Euskal toki erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 49.2 artikuluan hitzez hitz jasotako aplikatuz. Hala ere, babesa jaso zuen zenbait talderen eskutik, hala nola, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako Defentsa Erakundearen Emakunde-**Emakumearen Euskal Institutuaren**. Bere ustez: *“...herri-administrazioak modu eredugarrian aplikatu beharko lituzke Langileen Estatutuaren jasotako laneko eskubideak, legeria loteslearen barruan ez egon arren. Zentzu horretan, araudiak 3/2007 Legeak ebakuntza eta gaixotasunei dagokienez eremu pribatuan ezarri duen interpretazioa gaineratu beharko luke, izan ere, ospitaleratzea beharrezkoa ez bada ere, atsedendaldia eta etxeko zaintzak ezinbestekoak izan ohi dira eta horrek ez du esan nahi haurdun dagoen emakumearen eta haurraren osasunarentzat garrantzitsuak ez direnik, esku artean dugun kasuan gertatu den bezala.* Erakunde honek egokitzat jo du **EUDELI** proposamen bat helaraztea, iradokizun gisa, beharrezkoak diren neurriak sustatzen saia daitezen, egoera horietan lizentzien eta baimenen emakiden gaineko hausnarketa berrikustea posible izan dadila, Udaltzuzen Euskal toki erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren testuinguruan.

Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea LAB sindikatuak **Metro Bilbaon** aurkeztu zuen kexa. Horren bidez, salatu da **zuzendaritzak ez diola alderdi sozialari informaziorik eman enpresako bi zuzendarik kargua utzi izanaren inguruan**. Zuzendari kudeatzaileak ez zuen daturik eman kontseilari ordezkari batek kargua utzi izanaren inguruan eta argudiatu zuen goi zuzendaritzako langileen izaera berezia zuen laneko harremana zuen zuzendaria zenez, kargua utzeari lotutako inguruabarrek langileen ordezkarietara aitortu zaizkien **Langileen Estatutuaren (LA)** 64. artikulua bidez- eskumenak gainditzen dituztela, izan ere, langile mota

horren ordezkari eta babesa ez dator bat estatutu horren II. tituluan ezarritako ibilguekin. Erakunde honek kexagileei jakinarazi zien zaila izango zela legezko interes bat baliatzea zuzendarien kargu-uzteari buruzko informazioa biltzeko nahia babeste aldera, jarduera sindikala garatzeko eskubidearen ondoriozko alderdi funtzionala aintzat hartuta ere (azken horrek langileen ordezkari ahalmena ematen die langileen interesak defendatu, babestu eta sustatzera zuzenduta dauden jarduerak burutzeko). Hau da, beharrezkoak diren ekintza bitartekoak abian jartzea konstituzioaren arabera dagozkien funtzioak bete ahal izateko. Gure ikuspegiaren arabera, eskatu den informazioa eskuratzeari lotuta helburu argi eta bistakoa aurkezteko ezintasunak kexan defendatu den planteamenduari oinarria ematen dio zentzu honetan: erakunde publikoen kudeaketaren gardentasun handiagoa sustatu nahi da.

Azpimarragarria iruditzen zaigun beste kasu bat foru funtzionario batena da, berak zalantzan jarri zuen **identifikatzeko betebeharra prestakuntza ekintzei buruzko txostenak betetzerakoan**. Erakunde honetan ondorioztatu dugu kasu horietan laneko harremanak justifikatzen duela datu pertsonalak baimenaren beharrik gabe erabiltzea, izan ere, eskaintako prestakuntza lanpostuari egokitzen zaion ezagutze aldera informazio hori beharrezkoa da, beraz, ezin dugu esan eskatzen diren datu horiek desegokiak edo gehiegizkoak direnik.

Gure aurreko txostenean une horretan Herrizaingo Saila zenak **behin-behineko ezintasunen** inguruan onetsi zuen **aginduari** lotuta aurkeztu zen kexa bat islatu genuen. Horri dagokionez, adierazi behar dugu orain Segurtasun Saila deitzen denaren arduradun berriekin burutu ditugun kudeaketen emaitza hauxe izan dela: agindu berria eman da eta, bertan, gutxienez ez dira jaso kexa eragin zuten alderdi eztabaidagarriak, horien ondorioz, erakunde honek ohartarazi baitzuen aginduak barne hartzen zuten Ertzaintzako kideen osasunari buruzko datuen tratamendua ez zettorrela bat tratamendua legezko bihurtzen duten kasuekin; izan ere, ez zegoen hori ahalbidetzen zuen arau orokor edo berezirik. Horrez gain, errepikatu genuen datuen babeserako araudian, laneko arriskuak prebenitzeari buruzkoan edo Gizarte Segurantzaren legerian (ezintasunagatik prestazioaren gainekoan) ez zegoela agindu horretan jasotako tratamenduentzako babes edo estaldurarik.

lax sektore publikoko langileei lotuta **gastuari eusteko neurriak** ezartzearen inguruko erreferentzia anitzak egin genituen. Aurten ere horietako batzuen aplikazioak eragin dituen zenbait kexa jaso ditugu. **Derrigorrezko erretiratzeeen aitopene** eragin dituztenak, besteak beste. Horien bitartez, zerbitzu aktiboaren egoera luzatzeko aukera ukatzen da.

Bestalde, **irakasleen sektoreko** erretiratze kasu batzuetan, eztabaidagarriak ari dira izaten **zenbait araubideren** artean antzeman diren **desberdintasunak** (orokorra eta eskola pasiboak).

Bide batez, **EHU**ren aurrean garatu genuen jarduera aipatu nahiko genuke. Jardun hori **Arartekoaren 2013ko azaroaren 29ko ebazpenaren** bidez amaitu da. Bertan, EHUri gomen-datu genion Euskal Herriko Unibertsitateko lan-kontratudun irakasle eta ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboaren 32.4.

artikuluaren aldaketa sustatu zezan, EHUri atxikita dauden eta prestakuntza fasean dauden **ikertzaileen ordainsarrietan antzeman daitezkeen araubide ezberdinak** sailhesteko.

3.

Bestelako jarduerak

2013. urtean Herriaren Defendatzaileen XXVIII. **Koordinazio Jardunaldiak** honi buruzkoak izan dira: **ezintasunen bat daukaten pertsonen** eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena Espainian aplikatzeari dagokionez.

Jardunaldi horiek prestatzeko tailerretako baten izenburua hauxe izan da "Enplegua eta zerga-sistema ezintasuna duten pertsonen eskubideei buruzko hitzarmenaren aurrean".

Onetsitako ondorioen artean 11. zenbakikoa ageri da, bertan, defentsa bulego guztiek herri-administrazioei eskatu diete diskriminazio positiboko neurriak hartzen jarrai dezaten enpleguaren arloan ezintasunen bat daukaten pertsonen berdintasun materiala lortze aldera.

Euren iritziz, gizartean sentsibilizazio handiagoa sustatu behar da pertsona horien laneko aukerei dagokienez, ezintasunen bat daukaten pertsonen zehazki zuzenduta dauden mekanismoetatik harago. Modu berean, garrantzitsua da aurrera egitea lantokiak eta lanpostuak egokitzearen arloan, baita xede horrekin pizgarrien eta diru-laguntzen ildo egonkorra sustatzea ere.

Horren inguruan berezko ekarpen bat egin genuen, martxoaren 4ko **Arartekoaren 4/2013 Gomendio Orokorra** hain zuzen ere, aldi baterako kontratazio politzak erregulatzen dituzten arauetan diskriminazio positiboko neurriak gaineratzeari buruzkoa. Modu horretan, ezintasunen bat daukaten pertsonen errazago eskuratu ahalko dituzte euren ezaugarriekin bat datozen lanpostuak.

4.

Balorazioak

2013. urtean 118 kexa-idatzi jaso dira herri-administrazioaren zerbitzura lan egiten duten langileen arloan. Kopuru hori urte horretan zehar izapidetzen ari diren guztien %4,41 da.

Orokorrean, kexek hizpide dituzten administrazioek laguntza eskaini izan diote erakunde honi, baina jokabide nakarren kasuak ere egon dira, horietako batzuk izapidetzea zaildu dutenak. Hala gertatu izan da, adibidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin.

Oro har, izapidetutako kexak eta herri-administrazioen zerbitzura lan egiten duten pertsonen arlo horretan aurkeztu ohi diren kexak ez dira bereziki desberdinak.

Ohikoa izaten den moduan, horietako zati handi bat enplegu publikoa eskuratzeko sarbideari buruzkoa izan da. Horregatik, errepikatu nahi dugu berriz ere, hautapen prozeduren kudeaketan gardentasun handiena ziurtatzeko kontu handiz ibili behar dela eta prozedura horietan parte hartzen duten interesdunei aitortutako bermeak zaindu behar direla. Enplegu publikoak eskuratu nahi dituzten herritarren erabateko aukeraberdintasuna bermatzeak lehentasuna izaten jarraitzen du.

Enplegu publikoaren sektorea ere berdintasun printzipioarekin bat etorri behar da eta, EKren 9.2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, enplegu publikoa eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten taldeen aldeko diskriminazio positiboko neurriak hartu behar dira.

2013. urtean, talde horien artean, arreta berezia eskaini zaio ezintasunen bat daukaten pertsonen osatzen dutenari. Hala, Herriaren Defendatzaileen XXVIII. Koordinazio Jardunaldien testuinguruan, [ezintasunen bat daukaten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena](#) Espainian aplikatzeari buruzkoan, defentsa bulego guztiek herri-administrazioei eskatu diete diskriminazio positiboko neurriak hartzen jarrai dezaten enpleguaren arloan ezintasunen bat daukaten pertsonen berdintasun materiala lortze aldera.

Izapidetutako kexen beste zati garrantzitsu batek lizentziei eta baimenei lotutako arazoekin zerikusia eduki du. Gure iritziz, horrek agerian jarri du familia eta lana bateratzeko neurrien arloan sakontzen jarraitzeko beharra. Zentzu horretan, aurreko batzuetan azpimarratu izan dugun moduan, adi jarraituko dugu, gastuari eusteko neurrien inpaktuak, sektore publikoko langileengan eragina duenak, ez ditzala langile publikoen bateratzeko aukerak arriskuan jarri, batez ere, senideen zaintza euren gain hartzea bezalako eginbeharrei aurre egin behar dietenean.

Gastuari eusteko neurriak (2012ko ekitaldian horiei buruzko erreferentzia zabala egin genuen) aurten ere sumatu ditugu derrigorrezko erretiratzeen aitortunei lotuta jaso ditugun kexen ondorioz. Horrek zerbitzu aktiboaren egoera luzatzeko aukera ukatzen du. Irakasleen sektoreko erretiratze kasu batzuetan, eztabaidagarriak ari dira izaten zenbait araubideren artean antzeman diren desberdintasunak (orokorra eta eskola pasiboak).

Nolabait berritzaileak izan diren alderdiei dagokienez, ondorengo kexak aurkeztu izan direla aipatuko dugu: informazio jakin bat ikusteko eskubidea eta izaera pertsonaleko datuak babesteko beharra mahai gainean jarri dutenak. Aurrerantzean kexa horiek orain dela gutxi onetsi den gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu egokiari buruzko [abenduaren 9ko 19/2013 Legearekin](#) lotuko ditugu.

a t a l a

QIP.10.

Animaliak babestea eta edukitzea



1.

Arloa kopurutan

2013an 9 kexa-espeditente hasi dira animaliak babesteko arloan, alegia, erakundeak ekitaldi honetan zehar izapidetu dituen guztien %0,34.

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
10	4	6	-	6	-	-

2.

Kexarik aipagarrienak

Ekitaldi honetan, espazio publikoetan pertsonen eta animalien artean sortzen diren bizikidetzaz-azaroak mahai gainean jarri dituzten kexak nagusitu dira atal honetan eta, gehienbat, ustez arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak espazio publikoetan aske eta muturrekorik gabe ibiltzen direla adierazi duten salaketak gailendu dira.

Kasu horietan, salaketek zehaztu dute udal-agintaritzak espazio publikoetan kontrol nahikorik ez duela. Erakunde honetan egindako ikerketen ondorioz, egiaztatu dugu leku gehienetan udaltzaingoaren presentzia parke eta espazio publikoetan areagotuz joan dela, baita toki-erakunde desberdinetan animaliak edukitzea eta babestea arautzen duten udal ordenantzak ez betetzeagatik hasitako zigortzeko espeditenteak ere.

Era berean, gure esku-hartzea eskatu zuen kexa jaso dugu, Meñakozeke hondartzan txakurrak zeudelako eta agintaritzaz-agenteez ez zutelako ezer egiten udaldian txakurrak hondartzetara sartzea mugatzen edo debekatzen duen eta aplikatu behar den araudia betetzen ez zenean.

Horri dagokionez, idazkian adierazi da azken urteotan gero eta jende gehiago etorri dela hondartza horretara eta, era berean, txakurrak dituzten pertsonen kopurua areagotu egin dela. Horren ondorioz, batzuetan dozena bat txakur aske baino gehiago zenbatu ahal izan dira. Nahiz eta azken urteotan **Sopelako Udalean** hainbat salaketa jarri, Meñakozeke hondartzaren zati handiena udal horri baitagokio, ez dira

beharrezkoak diren neurriak hartu Sopelako Hondartzetako eta Animalien Jabetzari buruzko Udal Ordenantza betetzen dela bermatzeko. Udal ordenantza horren bidez, hondartzetan gisa guztietako animalien sarrera eta bertan egotea debekatzen da guztiz maiatzaren 1etik urriaren 31ra arteko epean, biak barne, Gida-txakurren azaroaren 21eko 1997/17 Legean ezarritakoaren kalterako izan gabe.

Zentzu horretan, esan dezakegu salaketak zehazki azaltzen duela hondartzan zaintzarik ez dagoela eta txakurren jabeak mugatutako epean hondartzara joanaraziko lukeen lege-hausleak zigortzeko espeditenterik hasi ez dela.

Agiri hau idazten amaitzerakoan, Sopelako Udalak helaraz diezagukeen informazioaren zain gaudela.

3.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

Interesgarria iruditu zaigu atal honetan Diputatuaren Kontseiluaren abuztuaren 1eko [26/2013 Foru Dekretua](#) onartu dela aipatzea. Foru dekretu horrek arautzen du txakur abandonatu edo deslaidak jasotzeko prozedura Arabako Lurralde Historikoan, bai eta zerbitzua eskaintzeko modua hitzartzea ere, hain zuzen, udalek kudeatzeko ardura emanez. ALHAO-ren 95. zenbakian argitaratu zen, 2013ko abuztuaren 21ean.

[Urriaren 29ko 6/1993 Legeak](#), Euskal Autonomia Erkidegoko animaliak babestekoak, 15. artikuluan ezartzen du udalen eta foru aldundietako sail eskudunen egitekoa izango dela abandonatutako animaliak eta, identifikazioa eraman arren, edukitzailearen kontrolik gabe noraezean dabilzanak hartzea, harik eta berreskuratu, jabe berri bati eman edo hiltzen dituzten arte.

Arabako lurraldean, Armentiako Animaliak Babesteko Zentroak jasotzen zituen animaliak. Zentroa [Gasteizko Udalaren](#) menpe dago, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak urtero ematen duen diru-laguntza kontuan izanda. Egun, sistema hori ekonomikoki bideraezina zen, zerbitzua iraunkorra eta eskaera handikoa bihurtu zelako.

Horregatik, aipatutako dekretuaren bitartez Nekazaritza Sailak hori nahi duten eta horrela adierazten duten udalei emango dien kaleko txakurrak edo txakur abandonatuak hartu, zaindu eta mantentzeko zerbitzuaren antolaketa berria arautzen da. Hori dela eta, dekretuaren eranskinetan esku hartzen duten eragile guztien betebeharrak ezartzen dira, baita [Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailean](#) zerbitzuaren kudeatzeko gomendioa egitea erabakitzen duten udalen arteko harremanak zein zerbitzua Animaliak Babesteko Zentroko baliabideen bidez emateko Nekazaritza Sailaren eta Gasteizko Udalaren arteko harremanak gauzatzeko tresnen antolaketa ere.

4.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Urte hauetan zehar arlo horretan jasotako erreklamazio kopurua handia izan ez bada ere, jakitun gara gero eta gatazka gehiago sortzen ari direla pertsona eta animalien arteko bizikidetzan, ezin baitugu ukatu EAEko udalerrietan gero eta txakur gehiago daudela.

Udalen zeregina da pertsonen kalteak eragitea ekiditeko animaliak edukitzeari buruzko araudia betetzen dela ziurtatzea.

Hartara, hiriko bide eta espazio publikoetan txakurrak kontrolaturik eta loturik egon daitezen eskatu behar dugu, eta, horretarako, kateak edo uhalak erabili behar dira. Halaber, animalia horiek mikrotxiparekin identifikaturik, erroldaturik eta kasuan kasuko udalerriko erregistroan erregistraturik egon behar dute. Horretarako, garrantzitsua da toki-erakundeek animaliak identifikatzeko kanpainak egitea, txakurrak abandonatzeak, erasoek, kexek, etab. eragin ditzaketen ondorio negatiboak ekiditeko.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar dugu etxeko animaliak dituzten pertsonen eta gainontzeko herritarren arteko bizikidetzaren orekatua ahalbidetzen duten bestelako konponbideak bideratzea ezinbestekoa dela.

Horri dagokionez, aurreko txostenetan proposatu ziren eta animaliak babesten dituzten hainbat elkarterk bermatu zituzten neurri batzuen garrantzia nabarmendu nahi dugu berriro ere.

1. Beharrezkotzat jotzen da animalientzako aisialdirako eremu zehatzak prestatzea, izan ere, animaliak etengabe uhalekin daudenean eta, zenbaitetan, baita muturrekoekin ere, jarrera erasotzaileak eduki ditzakete.

2. Hiriko bitarteko nahikoak egotea animalien edukitzaileek txakurren eginkariak jaso ahal izateko.

3. Informazio kanpainak egitea herritarrek eskuarki eta zehazki animaliak dituztenak animaliak edukitzearen inguruko kontuei buruz kontzientziatzeko eta hezteko, euren betebeharrei eta horiek ez betetzearen ondorioei buruzko informazio nahikoa izan dezaten.

a t a l a

4111

**Herri-administrazioen araubide
juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak**



1.

Arloa kopurutan

Aurten arlo honetan guztira 148 erreklamazio idatzi kudeatu dira. Eragindako administrazioen arabera banaketa honako hauxe izan da:

– Tokiko administrazioa	127
– Foru Administrazioa	7
– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza)	4

Azpiarloen banaketari dagokionez, sailkapena hurrengoa izan da:

– Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura	47
– Tokiko zerbitzu publikoak	36
– Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazioen erantzukizuna	30
– Udal eroldaren kudeaketa	26
– Beste alderdi batzuk	3
– Herritarren eskubideak	3
– Informazioa eta herritarren parte-hartzea	3

Urte honetan zehar kudeatu diren espediente horien (jasotakoak zein ebazteke egoteagatik horiei gaineratutakoak) izapidetze prozesuaren xehetasunei dagokienez, azpimarratzekoa da txosten hau idatzi den unean honako egoera honetan daudela:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaítuta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
201	76	107	57	36	14	18

Datuei erreparatuz gero, nabarmendu behar dugu bideratutako kexa-espedienteen kopurua hazi dela. Multzorik garrantzitsuenetan, aurten ere, jardunbideari eta araubide juridikoari buruzko gaiak ditugu, guztira %30 inguru; bereziki azpimarratu behar dira administrazio isiltasunari eta interesdunek espedienteak eskuratzeko dituzten zailtasunei dagozkienak. Aurreko multzoarekin batera, biztanleen udal eroldaren arloan izapidetutako espedienteak aipatu behar ditugu, ukitutako pertsonen dakartzkien ondorio larriak direla eta; izan ere, nahiz eta kexei konponbide egokia eman, eroldan alta hartzeko trabek kalte handiak eragiten dizkie interesdunei oinarritzko gizarte eskubideak eskuratzeko orduan. Gainera, zenbaitetan ezin dira eskubide horietaz baliatu, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan izandako eroldatzearen gutxieneko antzinatea egiaztatze hutsuneak sortzen direnean.

Jaso ditugun espedienterik gehien izapidetze egoera arrazoizkoa da; hala eta guztiz ere, erantzuna jasotzeko eta ukitutako administrazioaren iritzaren berri izateko agindeia edo ohartarazpena egin behar izan dugun kasuei dagokienez, aipatu beharra dago horiek beti izaten direla nahi baino gehiago. Ekitaldi honetako oso alderdi negatibo gisa aipatu behar genuke arlo honetan emandako gomendua eta ondorioak onartzeko maila ia-ia hutsaren hurrengoa izan dela; ebazpen horiek guztiak aztergai eta ikusgai daude [gure webguneko](#) atal batean. Edozein kasutan ere, ebazpen horiei men egingo diegu zehatzago nabarmendu beharreko kexei buruzko hurrengo atalean.

2.

Kexarik aipagarrienak

Atal honetan izapidetu ditugun kexarik esanguratsuenen laburpen bat jaso dugu, aurten aurrera eramandako lanaren isla modura; horrela bada, bereziki aipatuko ditugu gomendioen bat edo ondorioren bat emateko aukera ahalbidetu dutenak. Horiek guztiak beharrezko azpiarloen barnean txertatu ditugu, jarraian zehaztutako epigrafeei jarraiki.

2.1. Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

Atal honetan urterik urte atzematen ditugun arazoak laburbil genitzake prozedura falta dela adieraziz; esan nahi baita, herri administrazioek ez diote prozedurari ekiten eskabide bat aurkeztu duten pertsonen dagokienez edo ez dute behar bezala izapidetzen manuzko espedienteak edo ez dute osatzen ebatzia eta jakinarazia izan arte legezkoa den **administrazio prozedura**. Gauzak horrela, administrazio prozedurari buruzko Legearen ez-betetzearen barruan sar daitezkeen kasuak honako hauek guztiak dira: **administrazio isiltasuna**, udal artxiboetako **informazioaren eskuragarritasun** falta horretarako arrazoirik eman gabe, organo eskudunek eman beharreko ebazpen falta (espedientearen manuzko izapidetzea ere falta delarik), espedienteak eskuratzeko beren-beregi emandako ukoak eta abar.

Aipatutako alderdien adibide gisa, zenbait herri administrazioari zuzendutako gomendioetariko batzuk aipatu behar ditugu. Horietan agerian jarri eta azpimarratu nahi da ez dela legezotasun formala betetzen; izan ere, aurkeztutako gaiaren muinaren gaineko ez-betetzeak egon daitezkeen arren, beharrezko espedienteak berme guzti-guztiekin izapidetzeko ukoak inolako babesik gabe uzten ditu erreklamazioak.

Horrela, [Arartekoaren 2013ko maiatzaren 15eko Ebazpena](#) azpimarra dezakegu; ebazpen horren bitartez, [Sestaoko Udaleri](#) gomendatzen zaio barne dekoratzaile eta diseinatzaileen eskumena aintzatesteko proiektu eta egitasmo zehatz batzuk prestatzeko eta zuzentzeko orduan.

Gomendio horrek argi eta garbi erakusten du zeintzuk diren aipatu ditugun prozedura arazoak; izan ere, kasu honetan udalak alegatu zuen, [Bizkaiko Dekoratzailen Elkargo Ofizialari](#) modu formalean erantzun ez arren, interesdunarekin izandako zenbait elkarrizketatan azaldutakoaren berri zehatza eman zitzaioela. Barne dekoratzaile eta diseinatzaileek jarduera proiektuak prestatzeko eskumena duten kasuei buruzko gaiaz gainera, udalari gomendatu genion, segurtasun juridikoa bermatze aldera, barne prozedurak edota protokoloak zehatz zitzala eta modu egokian manuzko irizpideen berri eman ziezaiela proiektuen informazioan edo tramitazioan inplikaturako udal langileei guztiei, betiere indarreko arautegian eta jurisprudentziaren interpretazioan oinarri hartuz.

Beste alde batetik, honakoa ere gomendatu genion: proiektu zehatz baten erdiespenari eta egitasmoa izenpetu behar duen profesionalaren eskumenari buruzko zalantza edo eztabaida bat azaltzen den bakoitzean, beren-beregiko ebazpena har dadila kasu guztietan, behin udalaren jarraera arazoitzen duten txosten tekniko eta juridikoak eginda. Sestaoko Udalak ez dio erantzunik eman gomendio horri eta ez du baloraziorik egin; horrenbestez, gure esku-hartzea amaitutzat eman behar izan dugu gure gogoetak ez direla onartuak izan pentsatuz.

Administrazioaren esku dauden artxiboak eskuratzeko sarritan agertzen den arazoari gagozkiolarik, Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzari gomendio bat egin genion erreklamaziogileari eskatutako dokumentua eman ziezaion.

Zehatzago, [Arartekoaren 2013ko irailaren 25eko Ebazpenaren](#) bitartez, honako gomendio hau egin genuen: kontzejuko presidente-erregidorearen eskariz kexa aurkeztu zuen auzokidearen sinaduraren inguruan egindako txosten grafologikoa entregatzeko gomendioa, hain zuzen ere, txosten hori erakunde administratiboaren artxiboetan baitzegoen.

Aurrekoari lotuta, kasu honetan presidente-erregidoreak bere funtzioen mugak gainditu zituela egiaztatu zen; izan ere, aurkeztutako berraztertze errekurtsioan agertzen zen sinadura erreklamaziogileari zegokion ala ez ziurtatzeko azterketa grafologikoa agindu zuen. Kontzejuko ez zuen errekurtsio hori onartu behar bezala arrazoitutako bestelako gaiak izan zirela eta; horrenbestez, ez zegoen legezko arrazoirik adituen txosten hori agintzeko, ez baitzegokion inola ere interes publikoaren defentsari. Gainera, sinaduraren egiazkotasunari buruzko “zalantzarik egonez gero, auzia honela konpondu behar zen: beharrezko lege izapidea abian jarri; izan ere, interesdunak berak egiaztatu zuen agiria berea zela, hau da, dokumentu hori berak izenpetu zuelako borondate zalantzagabea adierazi zuen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko [azaroaren 26ko 30/1992 Legearen](#) 70.1.d artikulua).

2.2. Udal erroldaren kudeaketa

Sarreran nabarmendu dugun legez, udalerrri batean bizi diren pertsona guztien eskubidea nahiz betebeharra denari buruz izapidetzen ditugun kexen kopuruak bere horretan dirau; are gehiago, auzia hazi dela esan beharra dago. Kasuistika

askotarikoa izanagatik ere, adieraz dezakegu izapidetutako kexen multzorik garrantzitsuenak bazterketa arriskuan dauden pertsonen eragiten diela, hala nola immigranteei, ijitoen etniako pertsonen, etxerik gabeko pertsonen eta abar. Memoria honen beharrezko ataletan gaia sakonago jorratzen den arren, hementxe ahaleginduko gara aurkeztu zaizkigun arazorik larrienak zertzelada batez laburbiltzen.

Krisi ekonomiko larria, lan falta handia eta politika publikoaren finantzazioaren murrizketak izaten ari diren une honetan, biztanleen erroldan alta hartuta egotea aurreneko beharrezko gaitza da oinarrizko gizarte baliabideak eskuratu ahal izateko. Udalek gai horretan esku hartzeko dituzten mekanismoak bakar-bakarrik zuzendu behar dira erregistro horrek udalerriko auzokideak zehatz-mehatz islatzea lortzeko.

Horixe da udalek esku hartzeko duten testuingurua; hortaz, ez da bidezkoa biztanleen erroldak dauka helburu bakarrari men egiteko egokiak ez diren edo xede horretatik aldatzen diren betekizunak eskatzea; izan ere, erroldaren xedea da zehaztea ea pertsona bat bizi den ala ez erroldatzea eskatu duen udalerrian.

Izapidetutako kexei dagokienez, Sestaoko Udalari buruzkoak azpimarratu behar ditugu, bai udal administrazio horren kontra izapidetutako kopuruengatik bai gure gogoetak onartzeko orduan erakutsitako jarreragatik. Zehatzago, [Arartekoaren 2013ko irailaren 6ko ebazpenaren](#) bitartez udalari gomendatu genion egiaztatze ahalmenaren egikarizapenarekin zerikusia zuten zenbait jardun legezketasunaren arabera egokitzeko; era berean, gomendatu genion erroldan alta emateko ukoak behar bezala arrazoitzeko eta erroldatze gaietan beharrezko jarraibide zehatzak emateko; horren guztiorren helburua honakoa zen: interesdunek bizi diren egoitzan erroldatzeko informazio eta orientazio sinesgarria eskuratzeko eskubidea behar bezala egikaritu ahal izatea, hain zuzen ere. Gomendio hori ez da onartua izan.

Beste alde batetik, [Arartekoaren 2013ko azaroaren 21eko ebazpenaren bitartez](#), Sestaoko Udalari gomendatu genion erreklamaziogileari eta haren familiari urtebete lehenagotik benetan bizi ziren egoitzan erroldatzeko. Aipatutako etxebizitzan izandako gorabeherak, horien barnean etxebizitzaren jabearen aldetik etxebizitzaren husteko aginduaren ez-betetzeak, ez diote udalari ahalbidetzen egitatezko bidetik jardutea, legez ezarritako izapideei eta prozedurei lotu gabe. Memoria hau prestatzeko unean, oraindik ere ez zaio gomendio honi erantzun, hau da, udalak ez du erantzunik eman erakunde honen gogoetak onartzeko jarrerari buruz.

Azkenik, [Bilboko Udalari](#) zuzendutako [Arartekoaren maiatzaren 9ko ebazpena](#) nabarmendu behar da; ebazpen horretan ondorioztatu genuen udalerrian egoitza aldatzeari dagokion jakinarazpenaren eragin data eskabidearen aurkezpen egunari egokitu behar zaiola, nahiz eta udaltzaingoaren txostenaren bitartez edo bestelako bideen bitartez eskatutako helbidearen benetako egoitzaren gaineko egiaztapenen bat egin beharra egon. Udalak irizpide hori onartu du; halaber, zehaztu du herritarrak artatzeko bulegoetan beharrezko jarraibideak emango dituela, pertsona bat espedienterik bati buruzko interesa azaltzera bertaraten den bakoitzean (ebatzia izan dena edo izapidetzen ari dena), eskabide eredu bat eskaini diezaioten, idatziz interesdunak espedientearen eskuratu duela egiaztatu ahal izateko.

2.3. Informazioa eta herritarren parte-hartzea

Gai honi gagozkiolarik, herritarrek jardunbide arazoei eta informazioa eskuratzeko zailtasunei buruzko zenbait kexa aurkezten jarraitu dute Araban; izan ere, herritarrek legez-kotasuna betetzeko eskatzen dute, betiere gai publikoetan esku hartzeko duten eskubidea egikaritzuz. Gai honi buruz eta, zehatzago, kontzejuei men eginez, aurreko urteko memorian aipatu genuen erakunde horiek dituzten gutxieneko egiturak eta baliabideen urritasuna ezin daitezkeela aitzakiak izan Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko [marxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak](#) ezarritako oinarriko betebeharrak ez betetzeko. Horrela bada, ezin onartu daitezke auzokideen biltzarrerako deia ez egitea urtebetean, presidentek lan egiten duelako, edo kontuak ez onartzea arrazoi berberetatik edo erreklamazioei ez erantzutea informatzeko langile gaituak falta direlako. Kontzejuek eta administrazio batzak, gobernu organoak diren aldetik, bete behar dituzten gutxieneko lege betebeharrak konplitzeko bitartekoak jarri behar dituzte.

Kexen beste multzo batek men egiten die zinegotziek edo oposizioko udal taldeek euren kargua egikaritzeari begira beharrezko duten informazioa lortzeko dituzten oztopo eta zailtasunei. Ildo horri jarraituz, [Arartekoaren 2013ko marxoaren 14ko ebazpena](#) izapidetu dugu; haren bitartez, [Gamiz-Fikako Udalari](#) gomendatzen zaio udal talde bati beharrezko informazioa ematea, udal zeregina garatu ahal izateko eta konfiantzako pertsonaren izendapena berrikusteko. Gomendio hori ez da onartua izan; hala eta guztiz ere, udalak berriki jakinarazi digu izendatutako aholkulari partikularrak kargua uzteko ukoa aurkeztu duela.

Azkenik, [Arartekoaren 2013ko martxoaren 6ko ebazpena](#) azpimarratu nahi dugu; haren bitartez, [Gatikako Udalari](#) gomendatzen zaio partikularrei bilkuren grabazioa baimen diezaiela.

Gomendio horretan [Konstituzioaren 20.](#) artikulua aplikatuz aztertzen dugu; izan ere, ezarpen horrek gogoetak, ideiak, iritziak askatasunez eta ahoz, idatziz edo bestelako erreproduktzio bitartekoaren bidez adierazteko eta zabalteko eskubidea onartzen eta babestu du, betiere eskubide horien egikaritzea alde aurretiko inolako zentsurarik gabe mugatu gabe.

[Auzitegi Konstituzionalak](#), jurisprudenzia sendo batean, manu hori interpretatu du ildo honetan: konstituzioaren 20. artikulua askatasunak **herritar bakoitzaren funtsezko eskubideak** izateaz gain, **funtsezko instituzio politiko baten** onarpena eta **bermea** dira, **iritzi publiko askearen** onarpena eta bermea, hain zuzen; izan ere, hori derrigorrean lotzen zaio estatu demokratikoaren funtsezko balioa eta jardunbide betekizuna den pluralismo politikoari ([AKren 1998ko otsailaren 15eko 20/1990 epaia](#)).

2.4. Kontratazioa

Herri administrazioek kultura arloa sustatzeko jarduerak zabaldu garatzen dute eta eskuratutako konpromisoak betetzera beharturik daude. Zentzu horretan, [Arartekoaren 2013ko abuztuaren 30eko ebazpena](#) izapidetu dugu eta

haren bitartez [Vitoria-Gasteizko Udalari](#) gomendatzen diogu artista batekin izenpetutako kontratu bati darizkion betebeharrak aintzatetsi ditzan, erakusketa katalogo bat argitaratu emate aldera. Udalak kontratua betetzeko betebeharrak baiezkatzen duten txosten tekniko-juridikoak gorabehera, organo eskudunek ez zuten beharrezko erabakia hartu betebeharrak betetzea ahalbidetzeko; gainera, ez da inolako arrazoirik eman jarrera horri eusteko orduan. Gomendioa ez da onartua izan.

2.5. Herri-administrazioen ondarea

Izapidetutako kexek askotariko gaiei heltzen diete, ukitako pertsonen iritziz, administrazioak ondare publikoa babesteko eskumena egikaritzen ez duelako edota titularitate publikoko ondare eskubideei darizkien betebeharrak aurre egiten ez zaielako.

Horrela bada, [Arartekoaren 2013ko irailaren 23ko ebazpenean Laudioko Udalari](#) gomendatzen zaio jabetza pribatu baten sestraren gaineko erabilera publikoari darizkion betebeharrak bere gain har ditzan. Komunitate erreklamazio-gileak ez zituen jabe pribatuen betebeharrak eztabaidatu nahi ondasun pribatuei zegokionez; izan ere, kolokan jartzen zuen espazio pribatuaren erabilera publikoari zegokion betebeharrak ere bere gain hartzea, haren titularitatea udalarena baitzen, erakunde horrek zeukan aprobetxamendu publikoaren ondorioz. Gomendioa ez da onartua izan.

Beste alde batetik, Santurtziko Udalari ere gomendio bat zuzendu diogu baimenik gabeko terraza baten instalazioa berehalakoan ken dezan, gai horri buruzko udal ordenantza arautzailea betetzen ez duelako ([Arartekoaren 2013ko azaroaren 19ko ebazpena](#)). Udalaren erantzunaren zain gaude.

Azkenik, zehaztu beharra dago herritarrek kexak aurkezten jarraitzen dutela herri bideak behar adina babesten ez direlako. Zentzu horretan, [Arartekoaren 2013ko martxoaren 8ko ebazpen bidez](#), Artziniegako Udalari eskatu diogu herri bide baten mugak ezartzeko, bidea berritzeko eta berreskuratzeko espedienteak ahalik denik eta lasterren izapide dezala. Udalak ez dio Arartekoaren gomendio horri erantzun eta ez du inolara ere baloratu; horrenbestez, gure esku-hartzea amaitutzat eman dugu, gomendioa ez dela onartua izan ondorioztatuz.

2.6. Ondare erantzukizuna

Honako hau berriro ere herritarren aldetik kexa kopuru handia eragin duen gai bat izan da; era berean, gure esku-hartzea eskatzeko arrazoiak eta funtsak ere ez dira oso berriak, aurreko ekitaldietakoekin alderatuz gero. Horrela bada, espedienteen sortan oso ohikoa izaten da egindako erreklamazioak epearen barruan ez ebazteko kasuak, hau da, tramitazioan izaten den berandutza (nahi baina gehiagotan gertatzen dena eta, zalantzarik gabe, herritarrek herri administrazioekin dituzten harremanen funtsezko eskubide bati eragiten diona, hau da, euren asmoei buruzko administrazio erabakiak arrazoizko epe baten barruan ezagutzea); era berean, ohikoak izan dira emandako ebazpenekin izandako desadostasunen eta gorabeheren ondorioak sortutako espedienteak.

Hori bai, herri administrazioek izapidetutako erreklamazioa behar bezala baloratzeko betebeharra konplitzen dutenean, ondorioak beharbada ez dira bat etorriko kexa aurkeztu duten pertsonen asmoekin, prozeduran oso-osorik egiaztatu ez delako egindako kaltearen eta herri administrazioaren jarduketaren arteko kausalitate erlazioa.

2.7. Tokiko zerbitzu publikoak

Aurten ere jarraitu dugu Gipuzkoan kexak edota kontsultak jasotzen, zenbait udaletan etxeko hondakinak jasotzeko sistema berria (“atez ate” izenekoa) ezarri dela eta. Aurreko ekitaldian bezala, guregana jo duten pertsonak azaldu dituzten kezkek edo desadostasunak hurrengo gai hauei buruzkoak izan dira: bilketa sistema zehazteko udal eskumena; komunitateei zortasunak ezartzeko aukera, esate baterako espazio pribatuetan edo fatxadetan zutoinak jartzea; erabiltzaileek pribatutasunerako duten eskubidearen balizko urraketa, eta abar.

Gai berezi honen inguruan, nabarmentzekoak dira sistema hauen ezarpenaren kontrako zenbait plataformak aurkeztutako kexak. Memoria hau amaitutzat emateko orduan, kexa horietariko batzuk izapidetzen ari diren arren, gure esku-hartzea bukatutzat eman dugu [atez ateko sistemaren kontra azaldu den Legazpiko Herritarren Plataformak](#) aurkeztutako kexaren auzia. Plataformak sistema horren ezarpena zalan-tzan jartzen zuen, baldin eta ukitutako auzokiderik gehien borondatea kontuan hartzen ez bazen eta prozesuaren hasieratik parte hartzeko prozedura osoa abiarazten ez bazen.

Horrela, [Arartekoaren 2013ko maiatzaren 6ko ebazpenean](#) ondorioztatu genuen [Legazpiko Udalak](#) hondakinaren gaikako bilketa egiteko egokitzat jotzen duen sistema ezartzeko eskumena duela, baina ezarritako helburuak betetzeko beharrezkoa dela jarduketa aurrera eramanean behar duten herritarren inplikazioa. Horrenbestez, Legazpiko Udalarari proposatu genion adostasun politika baten buru jardun zezala, sortutako gatazka egoera gainditzeko, eta herritarren kezka hondakinaren gaikako bilketa maila handiagoak lortzera bidera zezala, nahiz eta horretarako hasieran onetsitako sistema berrikusi.

Beste alde batetik, tokiko zerbitzu publikoak emateko baldintzen barruan, [Lasarte-Oriako Udalarari](#) hurrengo gomendio hau egin diogu: udal kiroldegia irisgarritasunari eta erabiltzaileen diskriminaziorik ezari buruz indarrean dagoen legeriara egokitzeko beharrezko obra proiektuaren prestaketa lehenesteko gomendioa, hain zuzen; horrela, udalak berritze lan horiei buruzko kuantifikazio ekonomiko zehatza izango du egokitzapen lan horiek beharrezko programazioan sartu ahal izateko. Halaber, irisgarritasuna sustatzeko [abendua-ren 4ko 20/1997 Legeak](#) ezarritako edukiarekin bat etorritik, udalerriko irisgarritasun plangintza berrikusteko, eguneratzeko eta osatzeko eskatu genion, betiere eraikin publikoen beharrezko egokitzapenak aurrera eramateko lehentasunak eta burutzapen egutegia finkatuz ([Arartekoaren 2013ko azaroaren 13ko ebazpena](#)).

3.

Ofiziozko jarduerak

Arabako Lurralde Historikoko hirugarren sektoreko irabazi-asmorik gabeko zenbait elkarerekin izandako bileren markoan, ofiziozko jarduketa bati ekin diogu Arabako Foru Aldundiko Ongizate Institutuaren aurrean, kontaktatutako erakundeen iritziz, beren jarduera garatzeko eta ekitaldi bakoitzerako programatutako proiektuak betetzeko dituzten zailtasunak direla eta. Azaldutako problematika Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen aplikazioaren eremuan kokatu beharra dago.

Gizarteari zenbait zerbitzu emateko sustapen eta lankidetzaz jarduera funtsezkoa da eta elkarrekin azaldu dizkiguten arazoetariko batzuk Arartekoaren arretagune izan dira aspalditik. Horren erakusgarri, hona hemen gomendio hau: [“Gizarte eremuan lan egiten duten elkarrekin erakunde laguntzaren bideak eta prozedurak hobetzeko premia”](#) (2005eko txostena). Honako hau ere Eusko Legebiltzarrari 2008an zuzendutako aparteko txosten baten gaia izan zen; txosten horren izenburua hurrengo izan zen: [“Gizarte Esku-hartzearen hirugarren sektorearen lan baldintzak”](#).

Memoria hau prestatzeko orduan, erreferentziako espediente izapidetzen ari da, betiere foru administrazioaren erantzuna aztertu eta gure balorazioa emateko zain.

4.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Aurreko ataletan egiaztatu ahal izan den bezala, herritarrek arlo honetan aurkeztu dituzten gaiak askotarikoak izan daitezke; hala eta guztiz ere, esan beharra dago ez dagoela berrikuntza handirik aurreko urteetako memorieta azaldu-tako gaiak dagokienez.

Laburpen honi ekingo diogu honakoa aipatuz: herritarren eskubideak egikaritzeko, garrantzi handi-handikoa dela herri administrazioek modu arbitrarioan ez jardutea, baizik eta aurkeztutako eskubideak beharrezko **administrazio espedientearen bitartez** izapidetzea eta bertan administrazioaren erabakia arrazoitzen duten izapideak eta txostenak jasotzea. Horrela, aipatu beharra dago, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 53, 54 eta 55. artikuluei jarraiki, administrazio egintzak ezarritako prozedurari lotuko zaizkiola eta arrazoiturik emango direla, idatziz zuzenbide oinarriak eta gertakariak labur eta zehatz azalduz. Eskatutako edukiari buruzko desadostasunak daudenean edo administrazioak eskatutakoari

men egiteko asmorik ez duenean, funtsezkoa da forma zain-
tzea, betiere ukitako pertsonen beren eskubidearen arabe-
rako erabakiak hartu ahal izateko.

Beste alde batetik, udal erakundeen eremuan (bertan azal-
du ohi dira gai honi buruzko kexarik gehienak), **Toki Erakun-
deetako Antolakuntza eta Jardunbideari buruzko Araudiak**
(azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua) definitzen du
zer den espediente bat eta zein den hori izapidetzeko jarrai-
tu beharreko prozedura. Horrela, araudi horrek ezartzen du
espedientearen administrazio ebazpenaren aurrekari eta oinarri
gisa erabiltzen diren agirien eta jarduketan multzo ordenatua
dela, bai eta ebazpena betearaztera bideratutako diligentiak
ere (164.1. artikulua). Beste alde batetik, araudiaren 172. ar-
tikuluak ezartzen du administrazio espedienteak izapidetu
behar dituen bulegoko buruak informatuko dituela, bere iriz-
pidea oinarritzeko legezko edo arauzko aurrekari eta xeda-
penak azalduz.

Hori guztia ezinbesteko bermea da herritarrek eskabide iza-
pidetu baten ezespina oinarritzeko zuzenbide oinarrien berri
izan dezaten; horrek eta eraz egindako idatzizko jakinaraz-
penak interesdunari ahalbidetzen diote administrazio jar-
duketa baloratzea eta legezko argudioak kontrajartzea ebaz-
penaren inguruko desadostasunik izanez gero.

Beste alde batetik, espediente horiei hasierako emateko, in-
teresdunaren eskabide edo eskaera behar da. Horrek zen-
baitetan azaltzen den problematika azaltzera garamatza; izan
ere, batzuetan pertsona bat administrazio batera bertaraten
da eta bertan ahoz azaltzen zaio ez dituela betetzen bere
asmoak aurrera eramateko beharrezko baldintzak. Egoera
hori ohikoa izaten da alta **biztanleen udal erroldan** eska-
tzen den kasuetan. Horri buruz honakoa azpimarratu nahi
dugu: biztanleen erroldako arduradunek edo herritarrek arta-
tzeko bulegoek erroldan alta hartzeko eskabide bat jasotzen
dutenean eta horri ezin diotenean une horretan bertan eran-
tzun, kasu guztietan eskatu beharko dute eskabidea idatziz
egiteko, betiere beharrezko administrazio tramitazioa haste
aldera, interesdunari jarraitu beharreko beharkizunak edo
izapideak modu egokian jakinaraziz. Gai honi buruz, berri-
ro ere nabarmendu behar dugu zerbitzu publikoen jardunbide
zuzena funtsezkoa dela, administrazio erregistro horretako
inskripzioa eta oinarritzeko zerbitzu publikoak eskuratzeko
benetako egoitzaren antzintasuna egiaztatzeak daukan
garrantziagatik.

Aurrekoari lotuta, ezin ahanztu dezakegu herritarrek, beren
eskubideak egikaritzea errazte aldera, betebeharrak juridiko eta
teknikoen gaineko **informazio eta orientazio sinesgarria**
eskuratzeko eskubidea dutela, egin nahi dituzten eskabideei
ezartzen zaizkien indarreko xedapenei dagokienez (Herri Ad-
ministrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Proze-
dura Erkideari buruzko Legearen 35 g-i artikulua).

Zentzu horretan, gure gomendioetariko batzuk barne pro-
tokoloak eta jarraibideak hobetzera bideratu dira, betiere
interesdunak prozedura desberdinetan artatzen dituzten ad-
ministrazio unitateetako arduradunek legerian oinarri hartzen
duen informazio sinesgarria eman dezaten. Horren inguruan,
zehaztu dugu ez dela onargarria agintaritzaren eskudunak na-
hiz teknikari arduradunek ukitutako pertsonen ematen dieten

informazioa ahozko agindu edo irizpideetan oinarritzea, are
gutxiago aginduok edo irizpideok saihestu nahi den arauaren
interpretazio egiaztatutako batetik aldatzen badira.

Gai honen inguruan eta aurrekoari lotuz, gardentasunari,
informazioaren eskuragarritasunari eta gobernu egokiari
buruzko **azaroaren 9ko 19/2013 Legearen** onespina aipatu
behar dugu; izan ere, lanabes berri horrek gaur egun baino
gehiago erraztuko du arduradun publikoen jarduna herrita-
rren azterketaren pean jartzea haiei dagozkien erabakiak har-
tzean. Lege horrek arduradun publiko guztien jarduna (baita
goi karguena ere) eraundu behar duten gobernu egokiaren
printzipio etikoak ezartzen ditu; horrela bada, ez-betetzerik
egonez gero, bidezko zigorra jasoko dute. Zentzu horretan,
ez-betetzeen kasuen artean nabarmendu behar dira herrita-
rrei kalte egiten dieten ez-legezko erabakiak hartzea eta ez-
legezko txostenak izenpetzea.

Ildo horri jarraituz eta une honetan informazio publikoa
eskuratzeko eskubidea egikaritzeko 30/1992 Legea izan
arren (bai eta beste lege sektorial batzuk), lege berri horrek
oztopo garrantzitsuak kentzeko salto handia eragin dezake,
informazio **publikoa eskuratzeko eskubidearen** egikari-
tzapenari dagokionez. Horrela, beste aurrerapen batzuen
artean, azpimarratzekoa da eskubide hori pertsona guztiei
egokikito zaiela eta egikaritu ahal izango dutela eskabidea
arrazoitzeke betebeharrak gabe; hala eta guztiz ere, hori
guztia ez da oztopo izango babesteko moduko bestelako
interesengatik arauzko mugak ezartzeko. Ukitutako per-
tsonen aurkeztutako informazio eskabideen arrazoiketa fal-
ta herri administrazioek erabili ohi duten arrazoietariko bat
izaten da dokumentazio zehatzak eskuratzeko eskabidea
ukatzeke.

Azkenik, lege horren hirugarren alderdiak, izenburuan bertan
aipatzen den bezala, **gardentasunari** egiten dio men, hau
da, informazio aktiboa izenekoari; herri administrazioek in-
formazio hori argitara emateko betebeharra dute, labur bada
ere. Herri administrazio askok gai honetan egin dute aurrera,
webguneak dituzte eta halakoetan informazio zabala eskaini-
tzen dute bai erakundeari buruz bai aurrera eramaten duten
zereginari buruz. Gauzak horrela, administrazio horiek legez-
ko betebeharrak hartu diete aurre; hala eta guztiz ere, beste
batzuek ahalegin garrantzitsuak egin behar izango dituzte
legezketasun berrira egokitzeke. Hori dela eta, urtebetetik bi
urtera bitarteko epe iragankorra ezarri da. Araua oso-osorik
indarrean sartzen denean, interesdunak gaur egun eskura-
garri ez dagoen informazioa zuzenean eskuratu ahal izango
dute, eskatzeko eta interesa arrazoitzeke betebeharrak gabe.

Beste ikuspegi batetik, korporazio bateko kideek informazioa
eskuratzeko duten eskubidea ere aipatu behar dugu; izan
ere, **zinegotziek** beren zeregina garatzeko beharrezko in-
formazioa eskuratzeko eskubidea dute, nahiz eta batzuetan
udalen jardunean mugak egon, eskatutakoari erantzunik ez
emateko teknikaren bitartez. Toki Erakundeetako Antolakun-
tza eta Jardunbideari buruzko Araudiaren 14. artikulua eza-
rritakoarekin bat etorritik, administrazioaren isiltasunaren bi-
tarteak eman dela ulertuko da, baldin eta bost eguneko epean
uko egiteko ebazpen edo erabakirik ematen ez bada, betiere
eskaeraren egunetik zenbatzen hasita.

Azkenik, **herritarren partaidetzari** men egin behar diogu, bai eta horrek bete beharreko zeregin aktiboari ere, baldin eta ezarri nahi diren politika publiko guztien emaitzak bermatu nahi badira. **Hondakinen gaikako bilketari** buruzko gaiak beste edozein proiektuk baino hobeto islatzen du ideia nagusi hori; izan ere, egitasmo gutxitan ikusi ahal izango dugu udalerrri bateko herritar guztien inplikazio zuzen eta gogotsuagorik, baldin eta gaikako bilketaren maila egokiak bermatuko badira. Hartutako erabakiak udalerriko pertsona

guztiak ukitzen ditu zuzenean, guzti-guztiek hondakinak sortzen baitituzte; Beraz, erronka da herritar guztiak inplikaturik egotea aurreikusitako sistemaren ezarpenaren emaitzak egitasmoaren helburuen neurrikoak izan daitezen. Horrenbestez, gure iritziz, hondakinen gaikako bilketa sistema bat ezartzeko proiektu guztiek arrakastatsuak izateko berme gehiago izango dituzte, baldin eta adostasunik zabalena lortzen badute zeregin hori aurrera eraman behar duten auzokideen artean.

a t a l a

000.12.

Osasuna










1.

Arloa kopurutan

Aurten arlo honetan 84 kexa-espeditente kudeatu dira. Kexa horiek azpiarlotan sailkatu dira:

– Erabiltzaileen eskubideak.....	44
– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa.....	11
– Osasun laguntza.....	10
– Itxaron zerrendak.....	9
– Herritarren eskubideak.....	4
– Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna.....	4
– Beste alderdi batzuk.....	2

Hauxe da arloko estatistika-informazioa abenduaren 31n.

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
101	23	67	36	24	7	11

2.

Kexarik aipagarrienak

2.1. Farmazia prestazioak

Arlo honetan jasotako kexen kopuru handi batek osasunaren babeserako eskubidearen funtsezko alderdietan gertatutako aldatzarekin zerikusirik izan du berriro ere: [Apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretua](#), Estatuko Osasun Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa.

Gehienak zenbait prestaziotarako, prestazio farmazeutikorrako besteak beste, xedatutako ekarpen berriarekin lotuta egon dira.

Esparru horretan, sendagai bat emateari buruzko kasu batean, sindrome lehor larria (Lyll sindromearen bigarren mailakoa) daukan pertsona baten gurasoek VISCOFRESH sendagairako bisa jasotzeko eskaera bat aurkeztu zuten. Sendagai hori finantzaketa publikotik kanpo dago Sjögren sindromea daukaten gaixoen begietako lehertasuna arintzeko izan ezik (Osasun eta Farmazia Sistema Nazionalaren Oinarritzako Zerbitzu Zorroaren Zuzendaritza Nagusiaren [2012ko abuztuaren 2ko ebazpena](#); horren bitartez, Osasun

Sistema Nazionalean prestazio farmazeutikotik kanpo geratzen diren sendagaien zerrenda eguneratzen da).

Pertsona horren eta Sjögren sindromea daukatenen patologiarean artean elementu bereizgarriak ez badago, tratatu desberdina ez dago justifikatuta.

Gure balorazioa [Arartekoaren irailaren 25eko ebazpenean](#) jaso da. Horren bidez, [Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari](#) gomendatzen zaio gaixo bati sendagai baten finantzazioari begira emandako ukoa berrikusteko; izan ere, gaixo horren benetako premia bestelako patologia batean kontuan hartu den berbera da eta azken hori finantzatu egiten da.

Gomendio horri ez diote jaramonik egin. Erabaki hori babes-teko, sendagaiak finantzaketa publikora gehitzeko eskumenik ez daukatela argudiatu dute, baina, gure ustez, horrek egon daitezkeen beste bide batzuk alboratzen ditu, esate baterako, bermeei eta sendagaiak eta osasun-produktuak zentzuz erabiltzeari buruzko uztailaren 26ko 29/2006 Legean xedatutako bidea bera, izan ere, horri esker, Osasun Sailak proposamen bat egin diezaiotke Osasun Sistema Nazionalaren Farmazia Batzordeari. Nolanahi ere, Estatuko Herriaren Defendatzaileari proposatu diogu Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari gaur egungo irizpidea, patologia batean oinarritutakoa, aldatzeko aukera proposatzea azter dezala, egiaztatuta dagoenean Viscofresh sendagaia gaixoen benetako osasun-premiei egokitu ahal izateko.

2.2. Erabiltzaileen eskubideak

laz adingabe atzerritar batek osasun-txartela lortzeko izan zuen arazoaren berri eman genuen. Kexaren jatorria osasun-txartela ukatzea izan zen, gure ustez oinarriak ez zuten arrazoiengatik. Egin genuen balorazioa [Arartekoaren 2012ko maiatzaren 28ko ebazpenean](#) jaso da. Horren bidez Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari gomendatzen zaio eskolatzeko asmoz aldi baterako egonaldian dagoen adingabe atzerritar bati osasun laguntza onar diezaioten.

Horren ondoren lege-aldaketa bat egon zen, gaiaren hainbat alderdi garrantzitsutan eragina duena (norbait aseguratuta dagoela aitortzeko administrazio eskuduna, orain GSIN) baina mamian eraginik ez duena, aurreko egoera, 18 urte baino gutxiagoko atzerritar guztiei osasun laguntzarako eskubidea onartzen ziena, mantentzen baita.

Aurten aldi baterako adingabe atzerritar bat hartu duen familia batek aurkeztutako kexa berdin bat jaso dugu, GSINek ez diolako adingabeari osasun laguntza espainolen baldintza beretan jasotzeko eskubidea aitortu ([maiatzaren 28ko 16/2003 Legea](#), Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoa, 3. ter. artikuluan).

Aurrekoa gorabehera, Osasun Sailarekin egindako kudeaketei esker [Osakidetza](#)ren aurrean lehenago hasi zen laguntza-prozesuaren jarraipena bideratu da.

Pertsona bat aseguratuta dagoela aitortzeko administrazio eskudunarekin orobat lotuta dagoen beste gai batean, kexa batek adierazi zuen zergen inguruko zenbait datu haren osasun-txartel indibidualean jasota zeuden moduarekin ados ez zegoela. Zehazki, pentsiodun gisa zeukan koordainketa farmazeutikoko koefizientea berrikusteko eskatu zuen.

Pertsona horri jakinarazi genion erregulazio berriarekin bat eginez aseguratu edo onuraduna dela aitortzea eta ekarpenak egitea GSINi dagokiola eta aitorten hori apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritako baldintzetan egiten dela.

Era berean, esan genion GSINek aitortu eta gero Osasun Sailak laguntzarako eskubidea zein eskubide farmazeutikoa eraginkorrak egiten dituela, estatuko erakunde horrek onartutako baldintzetan.

Pertsona hori Arartekoarekin harremanetan jarri zen berriro azaltzeko GSINek jakinarazi ziola mahai gainean jarri zuen gaia erantzuteko eskumenik ez daukala (jakinarazpen hori erantsi zuen).

Gaineratu dezakegu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak baieztatu digula arrazoi teknikoengatik ezingo luketela esku hartu gaiaren mamiaren inguruan interesdunaren eskaera baiestea egokia dela uste izango balute.

Kontuan hartuz ehunekoa jasotzen duen ekarpen-kodean eragina izan dezakeen edozein alderdi GSINen adierazi behar dela eta erakunde hori, Estatuko Administrazioaren menpe dagoenez, gure eskumenetatik kanpo geratzen dela, jardun horiek estatuko gure homologoari helarazi genizkion.

Atal honetan, kokleako inplanteen kanpoko osagaiak berritzearen egoera mahai gainean jarri da, inplantea sistema publikoan egin ez den kasuetan. Zehazki, gure iritzia pean jarri den auzia ez dago berez kokleako inplantearekin lotuta, horren osagaiak berritzearekin baizik. Egoera hori finantziario publikotik kanpo geratzen da, Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritzaren 2/2011 Zuzentarauak, kanpoko osagaiak berritzeari buruzkoak, aurreikusten duenaren arabera.

Finantziarioa onartzeak bereizkeriari atea irekitzen zaiola pentsaraz dezake, izan ere zentro pribatu batean interbentzioa ordaindu dezakeen norbaiten alde egingo litzateke, eta modu horretan arreta azkarrago bat lortuko luke, nahiz eta hobe ez izan. Osakidetzan diagnostikatutako adingabeak diren arren, bereizkeria hori begi-bistakoa izango litzateke inplantearen gastuen itzulera proposatuko balitz. Baina proposatzen dena osagaiak sistema publikoan berritzea aukerari atea ez ixtea denez, gure iritziz, kasuari beste modu batean hel dakioko.

Aukera hori proposatzean, kontuan hartu dugu interesdunen egoera alda daitekeela, hau da, inplantea egin zen unekoaren desberdina izan daitekeela, eta, nahiz eta une batean inplantea finantzatzeko gai izan, hori egiteko moduan ez egotea hurrengo batean, osagaiak berritu behar direnean alegia. Aintzat hartu beharreko alderdi bat da hori, bi urte geroago berritu behar diren elementuak direla kontuan hartuta.

Kontuan hartu dugu inplantearen diagnostikoa kasu horietan sistema publikoan egin dela, nahiz eta ondoren zentro pribatu batean egin den, baita teknikoki bateragarria dirudie-la ere, hau da, modu pribatuan egindako inplantea sistema publikoan egingo zenaren berdina dela. Alderdi biak garrantzitsuak iruditzen zaizkigu, batez ere lehena, zeren eta prestazio publikoaren ikuspuntutik sistema publikoko fakultatibo batek agindu zuen prestazio bat baita.

Ekarpen berriari buruzko kexek mahai gainean jarri duten alderdi garrantzitsu bat gaixo kronikoek eta pentsiodunek, besteak beste, jasan beharko duten kostuarekin lotuta

dago. Haien egoera ekonomiko estuaren ondorioz, egoera jakin batzuetan benetako zailtasun batek zenbait pertsonen prestazio farmazeutikoak eskuratzeko dituzten aukerak baldintzatu ditzake.

Kexa horiek izapidetu bitartean, administrazioak horrelako egoerei aurre egiteko neurriak prestatu zituen. Neurri horiek [azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuan](#), Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzekoan, gauzatu dira.

laz ezgaitasunen bat duen pertsona baten gurasoek mahai gainean jarritako egoera aipatu genuen. Esku-hartze odontologiko baterako laguntza ukatu zioten, eta kexan osasun arloetan tratatu desberdin bat eta pertsona horien premien inguruko gaur egungo xedapenen egokitasuna adierazi zituzten.

Gai horri behin eta berriz ekin diogun arren, ezgaitasunen bat duten pertsonen egiten zaizkien enpasteetarako, ortodontzietarako edo bestelako esku-hartzeetarako laguntzan egon daitekeen tratatu desberdinari buruzko kexaren alderdia erantzunik gabe geratu da. Beraz, ez dakigu lantzen ari den hortz-asistentziari buruzko dekretu-proiektuan horri helduko dioten. Espero dugu, berrikusi eta gero, ezgaitasun intelektuala duten EAEko pertsonen euren zailtasunak gainditzeko laguntza jaso ahal izatea.

Lagunduriko ugalketa-tratamenduetarako (LUT) sarbideari buruzko kexa berriak jaso ditugu. Batzuek adierazi dute ez daudela ados sartzeko irizpideetan xedatutako adinaren betekizunarekin eta frogek obulutegien erreserba on bat agerian uzten ez bazuten zikloen kopurua murriztearekin.

Beste batean mahai gainean jarri zen Gurutzetako Ospitalean azterketa egin eta gero 6 hilabetez itxaron behar zela zentro pribatu batera ezarpenaren aurretiko diagnostikoa egitera joateko baimena lortzeko. Azkenean, arazoa baimena eman ez bideratu zen.

Kexa batzuek erakutsi digute izapide jakin batzuk bideratzeko xedatuta dauden hainbat prozedurak ez dituztela zenbait eskubide aintzat hartzen. Horrela, osasun laguntzaren fakturazioa dela-eta, pertsona bati hirugarren batek eragindako lesioen ondorioz eman zioten laguntzaren zenbatekoa ordaintzeko eskatu zioten. Egindako azterketa eta gure gomendioa [Arartekoaren 2013ko abenduaren 10eko ebazpenean](#) jasota daude. Horren bidez, aseguratutako gaixo bati egindako faktura berrikusi dadin gomendatzen da.

Historia klinikoa eskuratzeari dagokionez, zenbait kexek mahai gainean jarri dute haien ustez murriztapenak direnak.

Historia klinikoa eskuratzeko eskubidea, araudiak jasotakoa, ez da eskubide absolutu bat, baizik eta muga batzuk ditu. Sarbide hori mugatzeko erabakiak, lege ezarritako mugetan oinarritutakoak, aipatutako sarbidearen ukapena justifikatzen duen legeak xedatutako kasu zehatzen azterketa eskatuko lioke Osakidetzari. Zenbait kexa-espeditetan azterketa hori modu horretan egin ez dela egiaztatzen da.

Egindako azterketa Arartekoaren [azaroaren 5eko 9/2013 Gomendio Orokorrean](#) jaso da. Dokumentazio klinikoa eskuratzeko eskabideak ebazterakoan oinarritzat hartzen diren irizpideak egokitzea.

Osakidetzak gomendio horretan jasotako gogoetekin ados dagoela jakinarazi digu, baina ohar subjektiboen inguruko

mugari dagokionez, betetzeko beharrezkoak diren ahalegin guztiak egiteko asmotik abiatuta, betetzeak ekar dezakeen konplexutasuna nabarmendu dute. Gomendio horren edukia modurik egokienean ezartzeko, Osakidetzak Dokumentazio Klinikoaren Batzordea bilduko duela jakinarazi digu.

2.3. Osasun laguntza

Osasun laguntzari buruzko atal honetan ohikoa izaten da Osakidetzaren jarduera zabor bati buruzko iritziak helaraztea.

Hasiera batean, kontu tekniko medikoak direnez, ezin ditugu pertsona horiek salatzen dituzten prozesu medikoak baloratu. Halakoetan, gure muga jakinarazteaz gain, bide batez, jardute oker baten eta hasiera bateko diagnosia eta ondoren zuzena dena ezberdinak izatearen arteko aldea azaltzen dugu, eta, nolahi ere, erabil dezaketen ondare-erantzukizuneko bidearen berri ematen dugu.

2.4. Itxaron zerrendak

Itxaron zerrendei buruzko atal honen barruan zenbatutako kexen zati bat osasun laguntzaren atalean jaso zitekeen, itxaronaldiarengatik jaso genituen batzuk larrialdietako gertakariekin batera patologia mingarriak pairatzen zituzten gaixoenak baitziren.

Aurreko urteetan bezalaxe, itxaronaldi estandarra gainditu duten kexak funtsatutzat jo ditugu.

Kexa askoren elementu komuna esku-hartzeko aurreikuspena izan zitekeenaren inguruko informazio falta izan dela antzeman dugu berriro ere, zegokien arreta-zerbitzura jo zuten arren.

Kexaren alderdi hori garrantzitsua da, eta esku-hartze baten zain dagoenaren ziurgabetasuna murrizten duen informazio-maila bat egon beharko litzateke. Garrantzitsua deritzogu data orientagarri bat eskaintzeko aukera aztertzeari.

2.5. Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

Atal honen barruan osasun-txartel indibidualak berritzean egondako atzerapena hizpide zuten zenbait kexa koka ditzakegu. Kexa horiek prestazio farmazeutikoaren ekarpen berriari buruzko xedapenak (apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretua) aplikatzearen testuinguruan kokatzen dira. Zehazki, Osasun Sailak jakinarazi digu OTI kopuru handia jaulkitzeko beharrak eskatu duen ardurak pertsona askori egiaztapen berria ohikoa baino epe luzeagoan ematea eragin duela.

Denbora horretan behin-behineko txartelak eman dizkiete eragindakoei, baina kontuan izan behar da bitartean erabil-tzaileek ezin izan zutela Interneten bidez balia litzaketen zerbitzuak (adib., hitzorduak) erabili, hain zuzen ere behin betiko OTIrik ez edukitzeagatik.

Funtzionamenduari buruzko atal honetan lehen mailako arretan hitzordua emateko egon diren atzerapenak koka

ditzakegu. Kexetako batek ohiko itxaronaldiak 7 egunekoak izaten direla adierazi du.

Osakidetzaren erantzunaren arabera kasu horretan mahai gainean jarritako arazoaren funtsezko faktore bat esleutitako fakultatiboaren agenda bera zen arren, uste dugu neurrik hartu ezean atzerapenak iraungo dutela, eta, logikoki, pentsatu behar da ez diotela bakarrik pertsona horri eragingo. Horregatik, atzerapenei dagokionez, hau da, kexak hizpide dituen itxaronaldiei (7 egun ohikoak dira hitzordu arrunt baterako) dagokionez, murrizteko irtenbideak bilatu behar dira.

Administrazio korporatiboaren esparruan, zehazki profesionalen elkargoen funtzionamenduen eremuan, aurkeztutako salaketei berriazko erantzunik eman ez dietela adierazi da. Profesionalen elkargoak erakunde pribatuak diren arren, haien jardueraren zati bat botere publikoen jarduna zuzentzen duten printzipio beren menpe daude; besteak beste, euren eskumenen barruan jasotzen dituzten eskaerei edo erreklamazioei erantzuteko betebeharra. Horregatik, gure jarduna ez da haien balorazioak berrikustera bideratu, baizik eta haien salaketak ezarritako prozedurarekin bat eginez, hau da, berriazko erantzun bat emanez, izapidetzen direla sustatzea.

Ekitaldi honetan kexa berriak jaso ditugunez, ondare-erantzukizuneko espedienteen ebazpenean egondako atzerapenak mahai gainean jarri dituztenak aipatu behar ditugu. Espediente horien azterketak eta izapidetzeak izan dezaketen konplexutasunaz jakitun gara, baina, ordenamenduan xedatutako epea nabarmen gainditu denez, aipatu egin behar dugu.

3.

Araudi-testuingurua

Apirilaren 20ko Errege Lege Dekretuaren onarpenak osasun laguntza publikorako eskubidearen funtsezko alderdiak aldatu ditu; besteak beste, aseguruaren izaera berria, zenbait talde horretatik kanpo utzi baitira, eta onuradunek prestazioen finantzaketan parte hartzea.

Autonomiako ondorengo araudia, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko [ekainaren 26ko 114/2012 Dekretua](#), haren esparruan aseguratu izateko eta finantzaketan parte hartzeko betekizunak egokitzeko onartutakoa, kautelaz eten zen estatuak jarritako eskumen-gatazka positiboaren ondorio gisa, laguntza publikoa eskuratzeko eskubidearen esparru subjektiboa zabaltzeari buruzko 2012ko abenduaren 13ko Konstituzio Auzitegiaren autoak etetetik salbuetsitako artikuluetan izan ezik.

Aipatutako Konstituzio Auzitegiaren 2012ko abenduaren 13ko autoan egindako gogoeten testuinguruan, uste genuen gure autonomia erkidegoan 16/2012 Errege Lege Dekretua-

ren babesean aseguratua edo osasun publikoaren onuradunak ez diren taldeek modu normalizatuan osasunerako sarbidea edukitzeko bidea irekita zegoela. Beraz, 114/2012 Dekretuak arreta jasotzeko eskatzen zuen betekizuna, urtebetez errolatuta egotea, egokitu zitekeen.

Osasuneko sailburuaren 2013ko uztailaren 4ko agindua –Osasun Sistema Nazionalean aseguratu edo onuradun ez diren pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-asistentzia aitortzeko prozedura ezartzen duena, eta identifikazio-dokumentua eta hori emateko prozedura arautzen dituena– onartu denean, ikusi dugu 114/2012 Dekretuak xedatutako betekizun hori, urtebetez errolatuta egotea, mantendu dela.

Lehen adierazi dugunez, uste genuen beste modu batean jardun zitekeela, eta horregatik Osasun Sailari **Arartekoaren irailaren 24ko 8/2013 Gomendio Orokorrean** jasotako gogoeak helarazi genizkion. Osasun Sistema Nazionalean asegururik ez duten pertsonen osasun-arreta jasotzeko orduan aldez aurretiko erroldak eragiten dizkien mugak.

Harrigarriro, Konstituzio Auzitegiak goian aipatutako autoan egindako gogoetak gorabehera, estatuak Osasuneko sailburuaren uztailaren 4ko agindua aurkaratu du, eta hori ezinbestean kontuan izan behar da.

Horri dagokionez, gogorazi behar da 114/2012 Dekretuaren indarraldiaren etetea kentzea justifikatzeko Konstituzio Auzitegiak estatuak aurkaratutako neurriek eragiten dieten pertsonen osasunerako eskubidea eta osotasun fisikorako eskubidea aintzat hartu zituela, baita gizarte osoaren osasunerako arriskuak saihestea komenigarria dela ere. Konstituzio Auzitegiak bere egiten ditu Eusko Jaurlaritzaren argudioak, bereziki babestu beharreko konstituzioko ondareen defentsari lotutakotzat jotzen baititu, eta uste du ekonomia-aurrezki soil batengatik indargabetu ezin diren arrazoiak direla.

Larrialdi zerbitzu horrekin orobat lotuta dagoen kexa bat dela-eta, iaz ofiziozko espediente bat hasi genuen. Orduan helarazi ziguten informazioaren ondorioz –gripe-gertakariak aurreikusten ziren urteko beste une bati buruzkoa–, bazirudien jazotakoaren arrazoia aurreikuspen nahikorik ez egotea izan zela; izan ere, Gurutzetako Ospitalean horretarako xedatuta ez dauden guneeetan sartuta egon behar izan ziren pertsonak baldintza egokietan egongo liritekeen beste zentro batzuetara edo ospitale bereko beste ospitalizazio-unitate batzuetara lekualdatu izan balituzte.

Orduko egoerak desberdina zirudien gertakaria ezin zelako gripea bezala aurreikusi, eta horrek galdera bat sortu zigun, hots, giza baliabideen edo baliabide materialen murrizketa egon ote zen aurreko urteekin alderatuta.

Gure informazio-eskaerari emandako erantzunari jarraiki, eskaeraren iguera puntual, ohiz kanpoko eta ustekabeko bat egon zen, baliabide faltarekin lotuta ez zegoena. Honakoak izan ziren inguruabarrak eta ospitaleko zuzendaritzak premiak bideratzeko izan zuten erreakzioa:

Larrialdi Zerbitzuaren egoera normala izan zen igandeko 15:00etara arte, une horretan eskaera nabarmen igo zelako, batez ere ospitalean sartu behar ziren gaixoena. Sartzeko zain zeuden gaixoak 40 ere izan ziren.

Egoera horretan, ospitaleko zuzendaritzak 40 ohe irekitzeko erabakia hartu zuen; modu horretan, hurrengo goizeko lehen orduan gaixo horietako 13 sartu zituzten. Era berean, Santa Marina Ospitalearekin harremanetan jarri ziren, eta horrek 8 ohe prestatu zituen sartzeko zain zeuden eta gaixo kronikoen profila zuten gaixoak hartzeko.

Astelehen goizean Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendaritzak sindikatu-ordezkariei egoera eta hartutako neurriak jakinarazi zizkien. Arratsaldean egoera erabat normala zen (gaixo guztiek ohe bat esleitura zeukaten, eta 24 ohe libre zeuden arratsalde eta gau horretan sor zitekeen eskaerari aurre egiteko). Hurrengo egunetan egoera guztiz normala izan zen.

Txostenak, bukatzeko, laguntzaren kalitatea eta segurtasuna une oro bermatuta egon zirela adierazi zuen.

Gertatutakoaren arrazoia baliabideen murrizketa izan ote zen galdetu genuenean, Osakidetzak, erkatzeko elementu gisa, datu hau eman zigun: Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak 218 ohe itxi zituen 2012. urteko udan, eta aurten, berriz, 201 ohe itxi ziren.

Beste espediente batek azaldu zuen Euskadiko ospitale publiko batean egoiliar gisa baimenduta ez zegoen atzerritar bati laguntza urgentea fakturatu ziotela. Gure jardunak xede bikoitza izan zuen: a) kasu zehatz horrekin lotutako inguruabarrak ezagutzea, eta b) jarraipen bat egitea Osasun Sailak uztailaren 26ko 114/2012 Dekretuaren xedapenak berrikustea aurreikusten zuen jakiteko, estatuak jarritako konstituzio kontraktotasun-errekurtsoari jarraiki indarraldia etenda ez zuten atalei dagokienez, zehazki 2. artikuluari dagokionez, egoera irregular batean dauden pertsonen arretari buruz.

Bigarren alderdi horren inguruan egindako jardunen emaitza gisa, Arartekoaren irailaren 24ko 8/2013 Gomendio Orokorrean jasotako gogoetak egin genituen.

4.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Gure jardueraren zati handi bat banakako kexekin lotuta dago. Kexa horietatik abiatuz, Ararteko erakundearen jarduera planak aurreikusi du espedienteak ofizioz hasita kexa horiek gizabanakoen egoeretatik harago joan daitezkeen arazoak erakusten dizkigutenean. Gauza bera gertatzen da gomendio orokorren kasuan.

4.1. Ofiziozko jarduerak

Komunikabide batzuek esan dutenaren arabera, pertsona batzuek desiragarria den denbora baino gehiago itxaron behar izan zuten ospitalean sartzeko, dirudienez ohe nahikorik ez zegoelako.

Lehen alderdiari buruzko azterketak, administrazio-egoera irregular batean dauden atzerritarrei emandako laguntza urgentearen (doan jasotzeko eskubidea izan lezaketzen pertsoneri emandako osasun laguntza urgentearen) kostua fakturatzeari buruzkoak, izapide horren arrazoa emandako laguntzarako eskubidea ez ezagutzea berezkoa ez zela egiaztatzea ahalbidetu zigun.

Izan ere, laguntzarako eskubidea egiaztatzen duen txartelik egon ezean, aurreikusitako kudeaketa-sistemak fakturazio-espeditante bat sortzen du automatikoki. Era horretan, aseguratuta daudela egiaztatu ez duten pertsona guztiei laguntzaren kosta fakturatzeko diete, baita laguntza horretarako eskubidea izan dezaketenei ere, aipatutako 16/2003 Legearen 3 ter artikuluan xedatutako egoera bereziak baitira.

Kontuan izan behar da pertsona horiek beti dutela laguntza berezi horretarako eskubidea, eta beraz kostua ez ordaintzeko eskubidea, eta gainera Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan laguntzarako eskubidea egiaztatzen duen agiri bat edukitzeko eskubidea izan dezaketela.

Horretan oinarrituta adierazi genuen, hasiera batean halabeharrezkoa bada, fakturak hartzaileei jakinarazi behar diela 16/2003 Legearen 3 ter artikuluan jasotako egoera horretan daudela egiaztatu dezaketela. Era berean, hala balegokio, Euskal Osasun Sistemaren barruan laguntzarako eskubidea dutela egiaztatzen duen agiri bat lortzeko prozeduraren berri eman behar die.

Osakidetzako ekonomia eta finantza zuzendariak Arartekoari eman dion erantzunean esandakoaren arabera, erakunde horretako Fakturazio Batzordeak informazio hori fakturen atzealdean gehitzeko kudeaketa egokiak hasi zituen. Txosten hau egiten ari garen unean gauzatzeke dagoen xedapen horrek bi alderdiei –Osakidetzari eta ukitutako pertsonen segurtasun juridiko handiagoa eskainiko die, laguntza doan jasotzeko eskubidea zein inguruabarretan daukaten benetan jakinarazi dietela bermatuko baitu.

4.2. Gomendio orokorrak

Erabiltzaileen eskubideen atalean historia klinikorako sarbidea gauzatzean egon daitezkeen zailtasunak aipatu ditugu. Zailtasun horiek ordenamenduak sarbide hori xedatzen duen moduaren inguruan hausnartuz konpondu behar dira, eta helburu horrekin lehen aipatu dugun Arartekoaren azaroaren 5eko 9/2013 Gomendio Orokorra, dokumentazio klinikoa eskuratzeko eskabideak ebazterakoan oinarritzat hartzen diren irizpideak egokitzeari buruzkoa, helarazi diogu administrazio arduradunari.

Gaur egungo arazoak konpondu ahal izango direlako eta sarbiderako eskubidea erabat egikaritzeko egon daitezkeen

zailtasun teknikoa gainditzeko erantzuna bilatzen ari delako uste osoa dugu.

Arlo honetako bigarren gomendio orokorra, Arartekoaren 8/2013 Gomendio Orokorra, Osasun Sistema Nazionalean aseguruirik ez duten pertsoneri osasun-arreta jasotzeko orduan alde aurretiko erroldak eragiten dizkien mugei buruzkoa, hirugarren atalean –araugintzako testuingurua– aipatu dugu, hain zuzen ere gaur egun osasun laguntzarako sarbidea baldintzatzen duen araudia egokitzean datzalako.

5.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Topikoa da gaur egungo ekonomia-koiunturaren gaia ateratzea gizarte eskubideei buruz eta osasunari buruz hitz egiten dugunean.

Gogora dezagun hemen lehen esandakoa, hots, 114/2012 Dekretuaren indarraldiaren etetea indargabetzen dela justifikatzeko Konstituzio Auzitegiak aintzat hartu ditu estatuak aurkaratutako neurriek eragiten dieten pertsonen osasunerako eskubidea eta osotasun fisikorako eskubidea, baita gizarte osoaren osasunerako arriskuak saihestea komenigarria dela ere. Honakoa dio 5. oinarrian estatuak ekonomia-aurrezkiaren inguruan egindako alegazio soilari buruz: *“el derecho a la salud y el derecho a la integridad física de las personas afectadas por las medidas impugnadas, así como la conveniencia de evitar riesgos para la salud del conjunto de la sociedad, poseen una importancia singular en el marco constitucional, que no puede verse desvirtuada por la mera consideración de un eventual ahorro económico que no ha podido ser concretado, entendemos que se justifica el levantamiento de la suspensión de la vigencia de los preceptos referidos a la ampliación del ámbito subjetivo del derecho a acceder a la asistencia sanitaria pública y gratuita.”*

Osasunerako eskubidearen konfigurazioan egon den atzerakadak hartutako neurriek falta duten justifikazio bat behar du. Alderdi hori funtsezkoa irudituz zaigu 8/2013 Gomendio Orokorrean egindako gogoeten barruan.

Krisialdia ez da neurri murriztaileak hartzeko erabili behar, baina osasun sistemen inguruan hausnartzeko eta haien eraginkortasuna hobetzeko balio du.

a t a l a

013.

**Informatzeko eta ezagutzeko teknologiak
eta datuak babestea**

1.

Arloa kopurutan

2013. urtean zehar 5 kexa-espeditente erregistratu dira IETen (Informazioaren eta Ezagutzaren Teknologiak) arloan; beraz, erakundeak izapidetutako kexa guztien %0,19 arlo hone-takoak izan dira.

Eragindako administrazioen arabera banatuta, administrazio ezberdinak izan dira tartean: udal administrazioa, Eusko Jaurlaritza, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa edo Arabako epaitegi bat.

Datu pertsonalak babesteari buruzkoak izan dira guztiak.

Izapidetze-egoerari eta emaitzari dagokionez, egoera honelakoa da urtearen bukaeran:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herriarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
4	2	2	1	-	1	-

Aurkeztutako datuen harira, jarraikako bi hausnarketa egin behar da:

- Datuen babesaren gaian, berariazko erakunde bat dago –[Datuak Babesteko Euskal Bulegoa](#)– euskal administrazioek datuen babesaren araudia bete dezaten, eta horrek eragin egiten du gai honi buruzko kexa gehienak erakunde hari aurkeztea.
- IETen eskubideen arloan kexa idatzirik ez jaso izanak ez du adierazten behar bezala betetzen ari denik IETen arloko legedia, are gutxiago administrazio elektronikorako sarbide eskubideak. Aldiz, jatorria administrazioarekiko harreman elektronikoak gutxi erabiltzean kokatu behar da, eta, are kezagarriagoa dena, herriarrek administrazio elektronikoarekiko dituzten eskubideei eta eskubide horiek balia daitezzen zer organorengana jotzeari buruz duten ezagutza mugatua da.

Aipatutako gogoetei jarraiki, ezinbestekoa da administrazioarekiko harremanetan IETen erabilera sustatzen duten ekimenak hedatzea, baita berariazko esparru horretan herriarrek dituzten eskubideak ezagutzea eta zabaltzea ere.

Ekimen horiek justifikatzen dituen datu enpiriko gisa, egiaztatu behar da, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko [2013ko Euskadiko Administrazio Elektronikoaren Barometroaren](#) arabera, administrazio elektronikoaren erabilera nabarmen hazi dela azken urteotan (%4,5 igo da urte batean), eta ia euskal biztanleen %36k maiz erabiltzen dituzte leihatila elektronikoak. Erabileraren ehunekoari begira, hartzaile nagusiak foru aldundiak (%43) eta Eusko Jaurlaritza (%33) dira, baita estatu-administrazioa ere (%36).

Lurraldeen arabera, Gipuzkoako herri-administrazioek eskainitako prozedura eta izapide guztien %41 izapidetu ditzakete osotasunean Interneten bitartez. Horren atzetik Bizkaia dago (%32,4), eta gero, Araba (%18,4).

2.

Kexarik aipagarrienak

2.1. Aldizkari ofizialak: Joan den urtean aldizkari ofizialetan norberaren datuen deuseztapenarekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden bi kexa-espeditente izapidetu eta ebatzi dira.

Kaleratze batengatik egindako prozedura judizial batean zehar, Lan-arloko Epaitegiak zegozkion iragarkiak bidali zituen [Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialera](#). Gerorago, iragarki horretan haren datuen deuseztapena arrakastarik gabe eskatu ostean, Arartekoak epaitegi eskudunari –aldizkarian argitaratzeko agindu zuen eta tratamenduaren arduraduna zen organoari– eskatu zion norberaren datuak deuseztatzeko eskaerari arreta jartzeko eta foru organo horri deuseztapenerako beste ofizio bat bidaltzeko. Eskaera horri era egokian jaramon egin zioten.

UPV/EHUK eskatuta [Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian](#) argitaratutako iragarkien ondorioz, kexagileak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen unibertsitate horren adostasuna lortzeko EHAAko iragarki horretako norberaren datuen deuseztapenaren inguruan. Horrela ebatzi zen.

Kexa-espeditente horretan bertan, egiaztatu zen kexagilearen norberaren datuak, nahiz eta EHAAn deuseztatzea lortu, [Irekiaren](#) webgunean zeudela. Gure esku-hartzea eta gero, [Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailak](#) datu horiek kendu zituen, eta azpimarragarriena da antolaketa-neurriak hartuko direla esan zigula, aurrerantzean deuseztatzen diren izaera pertsonaleko datuak aldi berean EHAAtik eta Irekiatik kentzen direla ziurtatzeko.

2.2. Bizkaiko Foru Aldundia: Funtzionario batek zalan-tzan jarri zuen foru erakunde horrek antolatutako etengabeko prestakuntzako ekintza bateko ebaluazioko galde-sorta bat norberaren datuekin betetzea egokia izatea. Prestakuntza kudeatzeko prozesuan *ISO 9001-2008 Araua* aplikatzen zen. Arau horren arabera, giza baliabideen kudeaketarekin lotutako kalitate-betekizunetan inkesta-txosten hori betetzea eskatzen da. Horregatik, Arartekoaren ustez, ez zen neurri-gabekoa edo alferrikakoa prestakuntza jaso zuen pertsona identifikatzeko informazio hori eskatzea eta, azken finean, ez zen irregulartasunik igarri.

2.3. Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU: Ikasle Kontseiluak kexa bat aurkeztu zuen Irakasleen Zuzendaritzak ez zuelako irakasle baten aurka diziplinazko ekimenik abiarazi. Irakasle horrek azterketa baten notak ikasleen norberaren datuekin ikusgai jarri zituen, eta ez NAN zenbakiarekin,

UPV/EHUko berriazko araudiak xedatzen duen bezala, EHUK akatsa zuzendu zuen eta irakasleari araudia ohartarazpen soil batez gogorarazi zion. Kontseiluaren ustez, hori ez zen nahikoa, eta horregatik Arartekora jo zuen. Espedientean eztabaidatutako gaia, azkenean, kexagileek diziplinazko espediente irekitzeko eskatzeko interes legitimorik zuten edo ez jakitera bideratu zen, eta Arartekoak ez zuen elementu nahikorik antzeman UPV/EHUK egindako balioespena indargabetzeko.

Beste arlo batzuetan kudeatutako kexak bideratu bitartean, IKTen eta datuen babesaren inguruko kontuak agertu dira, eta duten interesarengatik aipatuko ditugu:

■ **KZgunea (Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saila):** Aurrekontu-murrizketen ondorioz KZgunea izeneko zentroen sareak emandako zerbitzuetan eta antolaketa-sisteman egondako aldaketari buruzko hainbat kexa jaso ditugu. Horien bitartez, neurri horiek zerbitzu publikoan eragina izan zezaketela adierazi zen. Sailak emandako erantzunetik sarea mantenduko dela ondorioztatu da, programak eskaintzen dituen zerbitzuak eta jarduerak birplanteatuko diren arren. Izan ere, KZguneetako jardun-esparrua funtsezko eran aldatu da programa abiarazi zenetik: oraindik aurrera, oinarritzko eta berriazko prestakuntzako eginkizunetan jarriko du arreta, tutoretza-lanetarako eta erabiltzaileen euskarrirako oraingo sare presentzialak lagundutako *e-learning* ildo berri bat sustatuko du, eta bazterkeria egoeran dauden taldeentzat nabigazio lagundutako zerbitzu historikoa mantenduko du.

■ **Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila:** Aurreko urteetan bezala, hainbat pertsonak Arartekora jo dute historia klinikoko datuak ezin zituztelako eskuratu. Mota horretako kexak ugaritu direnez, Arartekoari beharrezkoa iruditua zaio horri buruzko irizpide argiak finkatzea, eta horixe egin du **Arartekoaren azaroaren 5eko 9/2013 Gomendio Orokorraren** bitartez. Gomendio horretan adierazi da kasu guztietan historia klinikoa ikusteko eskaerak ebatzi behar direla antolamenduak barne hartzen dituen ukatzeko arrazoiak antzeman diren ala ez modu eraginkorrean egiaztatutako ostean. Ezin da arrazoi horiek aplikagarriak direla dioen alegazio orokor baten bitartez dokumentazio kliniko jakin bat ikusteko eskaera ukatu.

Aurreko urteetan gertatu den bezala, ordua Interneten bidez edo telefonoz eskatzeko sistemaren sarbideari buruzko erreklamazioak egon dira, baita etxeko medikuekin ordua izateko atzerapena berriaz aipatu zuen bat ere. Bigarrenari dagokionez, Arartekoak Osakidetza atzerapen horiek murrizteko irtenbideak ezartzeko eskatu zion. Sarbide-arazoei dagokienez, berriz, telefonoaren bidezko arreta automatizatuaren ereduaren aldaketaren berri eman ziguten. Azkenean hartutako erabakiak Arartekotik azken urteotan erreklamatu denarekin bat egiten du. Izan ere, ordua eskatzeko sistema automatizatuak ez zuen ekainaren 22ko **11/2007 Legeak**, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen zuen kanal anitzeko zerbitzua edukitzeko eskubidea bermatzen.

■ **Lanbide (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila):** 2013. urtean Lanbideren jardunare-

kin lotutako arazoengatik jasotako kexa guztien artean, nabarmendu nahi dugu jardun bat garatu dela kudeaketarako aplikazio informatikoak ez daudelako prestazioekin eta orientazioarekin integratuta, eta horrek eragina duelako arreta jasotzen duten pertsonen eskubideen aitortpenaren izapidetze egokian. Horri dagokionez, Arartekoaren ustez, premiazkoa da informazioaren integrazio edo interkomunikazio hori ahalbidetuko duten irtenbide teknikoak ezartzea.

■ **Sestaoko Udala:** Espediente amaitutako ondare-espediente bat eskuratzeko eskatzaileak interes legitimoa eta zuzenakoa zuela egiaztatzeko eskakizunari buruzkoa zen. Ondare-espediente horretan datu izendunak eta intimitateari buruzko datuak zeuden, eta datu pertsonalen babesean eragina izan zezakeen. Arartekotik uste dugu eskubide biek ez dutela zertan bateraezinak izan. Nolanahi ere, eskuratzeko eskubidea babestuta ez dauden datu izendunen gainetik jarri behar da, eta udalaren eginkizuna da datu horiek isilean gordetzeko edo bereizteko formulak bilatzea.

■ **Irungo Udala:** Kexa-espedientearen ebazpenean, Arartekoak gogorarazi du udalek euren gobernu-organismoek egindako udal-akordioei publikotasuna emateko betebeharra dutela. Publikotasun- eta gardentasun-betebehar hori egikaritzean, informazio horrekin zerikusia duten pertsona fisikoen eskubideek ez dute eraginik jaso behar, eta akordioen laburpenak harira ez datozen, desegokiak edo gehiegizkoak izan daitezkeen datuen bereizketa ekarri behar du.

■ **Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila:** 2013an berriz ere ingurumen-informaziorako sarbidearekin lotutako espediente bat izapidetu dugu. Bertan emandako ebazpenean, ingurumen-informazio eskaerak albat lasterren, lehentasuna emanik eta **uztailaren 18ko 27/2006 Legean** jasotako epea –hilabete bat– errespetatuz izapidetu eta ebazteko betebeharra azpimarratu dugu (lege horren bidez ingurumen-informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikorako eta ingurumenaren arloan justiziara heltzeko eskubideak arautzen dira). Beste eskubide batzuk –adibidez, erabaki publikoetan parte hartzeari buruzkoa– baliatzeko funtsezkoa den epe hori bete ahal izateko, euskal herri-administrazioek baliabide tekniko eta elektronikoa nahikoak eduki behar dituzte.

3.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

2013. urtean ez da datuen babesera edo IKTetara berriaz zuzendutako jarduerak arauemailerik egon, baina horrekin harreman eztabaida ezin duten arau- eta jurisdikzio-berrikuntzak egon dira, adibidez:

■ Europako eremuan:

– 2013ko ekainean Europako Justizia Auzitegiko abokatu nagusiaren txostena ezagutu genuen, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren eta Google-en artean ahazteko eskubidea delakoari buruz dagoen eztabaida dela eta. Txosten horren arabera, Google Europar Batasunak pribatutasunari buruz ezarrita duen legeriaren menpe dago –multinazionalak hori ukatzen zuten–, baina ez dago behartuta bereziki babestu beharreko informazioa bilaketa-indizetik ezabatzeri. Izan ere, abokatu nagusiak dioenez, *bilaketa-tresnen zerbitzuen hornitzaileak, datuak babesteko zuzentarauan oinarrituta, ez dira web-orrietan agertzen diren norberaren datuen arduradunak, eta bilatzaile bati publikoa egin den egiazko informazioa ezabatzeko eskatzea zentsuraren baliokidea izango litzateke*. Irizpenak, artean loteslea ez bada ere, oraindik izapidetzen ari den eta gai horretan hain garrantzitsua izango den Datuak Babesteko Europako Erregulamendu berriaren eragina izan dezake zalantzarik gabe; izan ere, bide emango dio Batasun osorako egoera berri bati, oraingo araudia zaharkituta dagoelako, Internet fenomenoaren zabaldu aurretik egin baitzen.

– **Informazioa eta argitalpenak formatu irekietan erabiltzeari** dagokionez –Arartekotik politika hori irmoki sustatu da–, emaitza zientifikoak modu irekian argitaratzeko joera “itzulbiderik ez duen puntu” batera heldu da, Europako Batzordeak aurkeztutako **azterketa** baten arabera. Gero eta argitalpen zientifiko gehiago modu librean eta doan eskaintzen dira, eta eskuragarri daude bai zientzia-komunitatearentzat bai herritarrentzat, gobernuentzat, enpresa pribatuentzat eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat. Europako Batzordeak aurkeztutako txostenaren arabera, 2011n argitaratutako *paperen* %50 inguru doan eskuragarri daude jadanik, eta 2004 eta 2011 bitartean mundu osoan argitaratutako eta pareek berrikusitako artikulu zientifikoaren %40 baino gehiago linean eskuragarri daude. Azterketa horren aurkezpenean, Europako Batasunak sarbide irekiak ezagutzaren zirkulazioa eta berrikuntza hobetzeko duen garrantzia azpimarratu du, eta gogorarazi du *open access* delakoa lehentasunezkoa izango dela **Horizonte 2020** izena duen Europar Batasuneko I+G programaren barruan, 2014-2020 aldian, finantzatutako argitalpen zientifikoetarako.

■ **Estatuaren eremuan, *abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzkoa***, onartu berri da. Lege horrek, besteak beste, informazio publikorako sarbidea edukitzeko eskubidea egikaritzea ahalbidetzen du (norberaren datuen babesaren arloan 15. artikuluan ezarritako murriztapenekin, besteak beste), eta informazioa berrerabiltzea indartzen du, Gardentasunaren Atarian argitaratzen den informazioa berrerabiltzeko bidea ematen duten formatu irekietan egotea sustatzen baitu, **azaroaren 16ko 37/2007 Legeak**, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoak, eta hori garatzeko araudiak xedatzen dutenarekin bat eginez.

■ **Autonomia-erkidegoaren eremuan**, Eusko Jaurlaritzak Arartekoaren ustez interesgarriak diren bi ekimen aurkeztu ditu abenduan, eta 2014an dagokien jarraipena egingo diegu:

- Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko liburu zuria, sustatzaileen hitzetan erreferentziako marko bat izango baita gizartea eta administrazioa sustatu, mobilizatu eta engeiatzeko.
- Euskal Administrazio Publikoaren Lege Proiektua egiteko izapideak hastea, proiektu horrek gardentasunerako herritarren eskubidea eta administrazioaren betebeharrak ezarri nahi baititu eta pertsonen haiengan eragina duten erabakietan era aktiboan parte hartzea sustatuko baitu.

Testuinguru sozialean, agerian utzi behar dugu herritarrek gero eta kezka handiagoa adierazi dutela Interneten dauden euren datuen segurtasunagatik. Arartekoak horren berri eman zuen hurrengo atalean aipatuko den ebazpenean. Bertan azpimarratu zuen 2013. urtean sarean anonimotasuna babesteko hainbat ekimen zabaldu direla, hala nola nortasun digitalen hazkundera, aplikazio espezifikoaren garapena edo gai horren inguruko azterketak, adibidez orain dela gutxi egin den eta Internet and American Life Project-ek argitaratu duen inkesta bat. Bertan, erabiltzaileen %55ek aitortu dute beste erabiltzaileen, erakundearen edo gobernuaren aurrean informazioa ezkutatzeko neurriren bat hartu dutela. Neurri nagusia nabigatzaileko “cookie”-ak ezabatzea da, inkestan parte hartu dutenen %64k baieztatu dutenaren arabera.

Bestalde, IKTen bidezko gizarte-aktibismoa kontuan izanik, eta Europako Batzordeak finantzatutako ikerketa baten esparruan, **Digital Social Innovation** ekimenak, metodo berri-zaileen bitartez, gizarte-hobekuntzarako tresna digitalak erabiltzen dituzten Europako erakundearen eta taldeen mapa egiteko proiektuari ekin dio.

4.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

2010ean sortu zen IKTen eta datuen babesaren lan esparru honetan, Arartekoaren helburua, besteak beste, herritarrek datuen babesarekin eta administrazio elektronikotik eratorritako eskubideekin lotuta dauzkaten eskubideen garrantzia azpimarratzea da. Era berean, eskubide horiek zabaltzean eginkizun proaktiboak eduki nahi du, horien erabilerak eta babesak berrikuntza-potentzial handiagoa duten herritarrek sustatzen laguntzen dutelako uste osoa du eta.

Horregatik, 2013an helburu horrekin lotutako zenbait jardun planifikatu eta egikaritu dira.

4.1. Gomendio orokor berriak

2. atalean azaldu denez, Arartekoaren azaroaren 5eko 9/2013 Gomendio Orokorra eman da, dokumentazio kliniko eskuratzeko eskaerak ebatze aldera oinarri gisa erabil daitezkeen irizpideen egokitzapenari buruz.

4.2. Txosten bereziak

2013. urtean “E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea” txosten berezia argitaratu da.

Laburbilduz, ondorioen artean hauek nabarmen ditzaitegu:

■ E-inklusioari dagokionez:

- Egindako azterketak ondorioztatu du, zalantzarik gabe, adinak, sexuak, diru-sarrera mailak eta jatorri geografikoak IKTen bidezko inklusioaren inhibitzaila gisa jarduten dutela modu argian.
- Alde batera uzten badugu pertsonen ehuneko jakin batek ez duela IKT erabiltzeko interesik, besteek mota guztietako zailtasunak identifikatzen dituzte: kostua – pisu txikiarekin, hala ere –, informatikako ezagutzen falta, ekartzen dituen abantailen berri ez edukitzea, non bilatu eta non aurkitu ez jakitea.
- Horregatik, herri-administrazioei gomendatzen diegu IKTen ikasketa bizitzan zehar sartzan duten programak diseinatzea, enplegarritasunaren alde egitea, gizarteratzearekin lotutako gaitasun digitalak indartzea, IKT adinekoei hurbiltzea, bide horretatik autonomia pertsonalaren alde egitea, gizarte-erakundeek eten digitala arintzeko egiten dutenaren garrantzia nabarmentzea, komunitatean IKTen arloko trebakuntzara bideratutako gaitasun digitalen eremu bat definitzea eta bikoiztasunak saihestea erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatuz, eta orobat e-inklusioarekin lotutako profil profesional berrien sorrera (adibidez, aholkulari digitala) eta adingabeen eta gazteen artean Interneten erabilera ziurra bultzatuz.

■ E-partaidetzari dagokionez:

- Arlo publikoan parte hartzeko desioa igarri da, ia modu berean bide elektronikoaren bidez eta bide presentzialaren bidez, eta nagusiki erakundearenak ez diren webguneetan, baina begien bistakoa da oraindik ez direla antzeman partaidetza horren benetako erabilera eta ondorioak.
- Parte hartu duten pertsonen pertzepzioa era sakonagoan aztertuz gero, partaidetzaren itzulera jaso ez dutela adierazi dute: horrekin zer egin den, aintzat hartu den ala ez; eta agerian utzi dute ez dela *feedback* egon sustatzaileen aldetik. Beharrezkoa eta premia-koa da gizarte-partaidetzaren oinarriak, modalitateak eta ondorioak ezartzen dituen testuinguru arauemai- le bat sortzea. Zentzu horretan, gogorarazi nahi dugu Arartekoak 2011. urtean, demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko gomendio orokorraren bitartez, herritarren partaidetza hori legitimatzeko, bideratzeko

eta egituratzeko gure ustez ezinbestekoak diren printzipioak adierazi zituela.

Arartekoaren “E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea” txosten berezia zabaltzeko, herri-administrazioen eta gizarte-erakundeen laguntza eduki nahi izan dugu. Horregatik, urteko azken hilabeteetan, txostenaren ondorioak aurkeztu eta eztabaidatzeko Helduak Adi adinekoei elkartearekin bildu ginen, baita txostenarekin lotuta dauden eskumen-esparruetan sustatzeko, koordinatzeko eta kudeatzeko erantzukizuna duten Eusko Jaurlaritzako hainbat sailekin ere: herritarren parte-hartzea, herritarren arreta eta berrikuntza; teknologia, berrikuntza eta lehiakortasuna; gizarte politikak; informatika eta telekomunikazioak, Lanbide, e.a., baita In-nobasque ere.

4.3. Ofiziozko jarduerak

2012ko azaroan komunikabideetan eta gizarte-sareetan agertutako informazioen eta berrien bitartez, Arartekoak jakin zuen antza Deustuko Unibertsitatearekin lotutako hainbat pertsonen argazki eta bideo intimoak ustez baimenik gabe zabaltzen zirela. Sortutako gizarte-alarmaren ondorioz, eta gero eta kasu gehiagok haurrei, nerabeei eta gazteei era negatiboan eragiten dietela kontuan hartuta, Arartekoak erabaki zuen gertakariari eta ohorerako eta norberaren irudirako eskubideen eta norberaren datuen babesari buruzko arazoa sakon aztertzea.

2013ko maiatzean emandako ebazpenean, Arartekoak azpimarratu zuen gizarte-sareek eskaintzen duten berritzeko eta informazioa elkartrukatzeko potentzialaren eta pribatasunerako eta norberaren irudirako eskubideen babesaren arteko oreka aurkitu behar dela. Horretarako funtsezko elementuak informazioa, gardentasuna eta ezagutza eraginkorra dira, “heldutasun digitala” deitutakoaren osagaiak hain zuzen ere. Hori lortuz gero, pertsona guztiak gailu mugikorren, Interneten eta gizarte-sareen potentziala erabili ahal izango lukete, euren intimitatea eta euren irudia arriskuan jarri gabe.

4.4. Bilerak

Ararteko mapak proiektuaren inguruko hainbat bilera egin dira, kasu batzuetan proiektua zabaltzeko eta horren erabilera sustatzeko: Helduak Adirekin eta ezgaitasun fisiko eta zentzumen-egaitasunen arloan lan egiten duten elkarteekin; eta beste kasu batzuetan baliabideei buruzko informazioa eguneratzea lortzeko (Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzarekin, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuarekin eta Euskal Trenbide Sarearekin), baita Eusko Jaurlaritzako Herritarrak Hartzeko Zuzendaritzarekin webgunearen baliabideen mapa zabaltzeko aukera aztertzeko ere.

Era berean, Arartekoaren informazioaren formatu irekiari buruz sakontzeko (etorkizuneko datu irekien katalogoa), laneko bilerak egin dira aipatutako Eusko Jaurlaritzako Herritarrak Hartzeko Zuzendaritzarekin.

Agirien elkartruke elektronikoa indartzeko, laneko bilerak egin dira Eusko Jaurlaritzako Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzako, Gobernu eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Idazkaritzako eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteko (EJIE) arduradunekin, Arartekoaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean teleizapide-proiektua ezartzeko. Tes-tuinguru juridiko eta eraginkorra 2013ko azaroan sinatutako [lankidetzaren hitzarmena](#) izan da.

informazioa eskuratzeko eta publikotasunerako eskubideak eta norberaren datuen errespetua bateratzeko.

3. Interneten bidez argazki eta bideo pribatuak hedatu izanaren ondorioz hasitako **ofiziozko jardunaren** esparruan, gizarte-sareen eta komunikazioko sare publikoen erabileran informazio, kontzientziario eta jokabide arriskutsuen saihestea falta orokorra antzeman ahal izan dugu. Horren ondorioz, errazagoa izan daiteke informazioa, datuak eta irudiak nahi gabe hedatzea, artxibo horien zaintza eta transmisioa kalteberak baitira.

Hori herritarrek **euren datuen segurtasunaz** duten kezka gero eta handiagoarekin lotu behar da, Arartekoak uste duelako lortu beharreko helburua berrikuntzaren eta gizarte-sareen ohiz kanpoko potentzialtasunaren arteko oreka izan behar dela, baita pertsonen eskubideak bermatzea ere. Horretarako funtsezkoak dira informazioa, gardentasuna eta ezagutza eraginkorra, benetako komunitate digital baten eraikuntzan aurrera egiteko.

4. Arartekoak, proiektu batzuen bidez –Ararteko mapak, argitalpenen formatu irekiak, e.a.–, **informazioa berrerrabil-tzea eta datu publikoak irekitzea** sustatzeko eginkizunarekin jarraitu du.

5. 2013an Arartekoaren **e-inklusioari eta gizartearen partaidetzari buruzko** txosten berezia argitaratu da, eta horri esker iritzi-elementu berriak lortu ditugu gaur egungo egoeraren eta IKTek gizarte aktibo eta inklusibo bat sustatzeko eta herritarren partaidetza errazteko daukaten potentzialaren diagnostikoa egiteko, baita euskal herri-administrazioei helarazitako proposamen eta ekimen multzo bat ere.

Laburbilduz, txosten hori ez da amaiera, lan-elementu iraunkor bat izango baita eta honetarako balio izango baitu:

- Infobaztertearen arriskuak saihesteko eta herritarrak ahalduz lortzeko erronketarako ibilbide-orri bat edukitzea.
- Euskal administrazioen hurrengo jardunak ebaluatzeko. Zentzu horretan, 2014. urtean hiru alderditan jarriko dugu arreta:
 - Herri-administrazioen webguneen bitartez zerbitzuak aurkitzea eta horietarako sarbidea edukitzea.
 - Kanal anitzak edukitzea eskubidea sustatzea eta telefono mugikorren bitartez erabil daitezkeen aplikazio erabilgarri eta errazki bidea ematea (batez ere, adinekoengan pentsatuz).
 - IKTen bidez herritarren partaidetza-ekimenak egitea eta gardentasuna bultzatzea.

5. Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

1. Datuen babesaren arloan, aurten herritarrek askotan adierazi digute ez daudela ados **Aldizkari Ofizialetan** norberaren datuak geratzearekin, eta deuseztatzeko eskubidea erabili dute. Hori arazo garrantzitsu bat da, gatazka bat dagoelako administrazioek euren eginkizunak egiteko eta prozedura-betekizunak betearazteko erabiltzen duten tresna baten –aldizkari ofizialetako iragarkien– eta deuseztatzeko eskubideak egikaritzearen artean. Urte honetan, zorionez, Arartekoaren esku-hartzeak gatazka konpontzen lagundu du mahai gainean jarritako kasuetan, baina antzeman da ahal-eginak areagotu behar direla tratamenduko arduradunak aldizkarietan dauden interesdunen datuak deuseztatzeko era azkarrean eska dezaten kontzientziatzeko, baita aldizkariaren mekanismoetako arduradunak datuen indexazioa saihestu dezaten kontzientziatzeko ere, etorkizuneko arazoak ekiditeko. Arazo horietako bat izan daiteke datuak Interneteko bilatzailetara gehitu izana, horren ondorioz deuseztapenak ez bailuke ezertarako balio izango.

Horri dagokionez, era positiboan azpimarratu nahi dugu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari eta lurralde historikoen aldizkari ofizialetako arduradunak eta webgune batzuk –hala nola Euskadi.net– egiten ari diren ahaleginak, indexazioa zailtzen duten bitarteko teknikoak erabiliz, haietan dauden norberaren datuak Interneten hedatzea saihesteko.

2. Kapitulu honetan azaldu den bezala, beharrezkoa da **erakundeak (bereziki toki-erakundeak) kontzientziatzea** herritarrek udal-akordioa eta –agiritako informazioa eskuratzeko duten eskubideak eta haien erabakien publikotasun-printzipioak ekartzen dutenari buruz. Era berean, pertsona partikularren datuak babestu behar dira, eta horretarako alde aurretik datu horiek isilean gorde edo bereizi behar dira,

a t a l a

010.14.

Lana eta Gizarte Segurantzza










1.

Arloa kopurutan

Aurten arlo horretan guztira 25 kexa-espediente bideratu dira.

Hauxe da arloko estatistika-informazioa abenduaren 31n:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
						
22	6	13	5	6	2	3

2.

Kexarik aipagarrienak

2.1. Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

Jaso ditugun kexen zati batek zerbitzuen funtzionamendua-ekin zerikusia dauka, enplegu-eskarien kudeaketa sistemen edo enplegu eta lanbide prestakuntza sustatu eta babes-teko jardueraren alorrean.

Prestakuntzari dagokionez, prestakuntza ikastaroetara joateagatiko laguntzen ordainketari lotuta egon den atzerapena mahai gainean jarri da. Laguntza hori [718/2008 TAS Aginduan](#) 26. artikularen eremuan kokatu daiteke. Jasotzeko eskubidea abiapuntutzat hartuta, Lanbidek jakinarazi zигun arazoaren arrazoia izan zela laguntza eta diru-laguntza horien onuradunek gain hartu zuten betebeharraren ondorioz nahitaezkoa zela 2013. urteari zegozkion aurrekontuek beharrezkoa zen kreditua bideratu zezaten. Dena den, arazoa konpondu egin zen.

Zenbait kexek espedienteen kudeaketari lotutako arazoak mahai gainean jarri zituzten, hala nola, aditzera eman zuten datuak ez datozela bat enplegu eskatzaile gisa izena eman zutenean emandako datuekin. Arazoa behin bideratuta, zaila da akats horren eta enplegu eskaintzak helarazteko deirik ezaren arteko lotura ezartzea, Lanbideren akats bat izan zela egiaztatuta bada ere.

Mota horretako kexek eta beste batzuek (persona batzuek jaso duten tratu desagokiari buruzkoak besteak beste) zailtasunak eragiten dituzte modu objektiboan hartzeko edo frogak aurkezteko. Gainera, azken kasu horretan, aintzat hartu behar da geroago harremana mantenduko dela kexak hizpide

duen pertsona horrekin. Aurrekoa gorabehera, saiatu behar gara saihesten kexa horiek antzu bilakatu daitezzen, hortaz, zerbitzuko arduradunek horren berri eduki behar dute.

Enplegu eskaeren kudeaketari buruzko atal honetan jarduera okerre lotutako beste kexa batzuk gaineratuko ditugu, izan ere, administrazio baimen motari buruzko ohar okerrak dituzte, horrela agertzen baita *“mugaketak dituen denbora tarte iragankorrean dagoen batasuneko herritarra eta mugaketak dituen denbora tarte iragankorrean dagoen batasuneko herritar baten senidea den batasunetik kanpoko atzerritarra”*. Errumaniako pertsona bat zen, beraz, erkidegoko herritar bat zen, lan egiteko eskubidea duen Errumaniako langile baten senidea hain zuzen ere. Lanbidek jakinarazi zигun kexak hizpide zuten arazoa konpondu dela.

Laguntzen eremuan, kexa batek baino gehiagok aditzera eman dute ez dela berriaz ebatzi eta zenbait interesdunek ez daudela ados informazioa eskatu zutenean ukapenari lotuta jasotako erantzunarekin: aurrekontua agortu izana. Kultura ekintzailearen eta enpresen sorreraren aldeko [abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuaren](#) barruan izapidetu diren espedientei buruz ari gara.

Eskaera horiek ebazteko prozedurak ez zuten lehiaketarik barne hartzen. Prozedura lehia jarraituan oinarritu zen, beraz, laguntzak eskaeren aurkezte dataren ordenaren arabera eman zituzten.

2012ko ekainean erabaki zen 2012. urtean ez zela baliabiderik esleitu programa hori finantzatzeko aldera. Erabaki hori Lanbideko lurralde mailako bulegoetara jakinarazi zien eta azaldu zien aurkeztutako eskaerak ezin izango zirela izapidetu eta informazio hori diru-laguntza horien gainera informazioa eskatzen zuten edo diru-laguntzari lotutako eskaera aurkeztu zuten edo aurkezteko asmoa zuten pertsona orori helarazi beharko ziotela (iragarki taulan argitaratuz, ahoz azalduz...).

LANBIDEren erantzunaren arabera, zenbait inguruabarren ondorioz ez ziren berriazko ebazpenak eman: igarotako denbora, [TAS/1622/2007 Aginduan](#) xedatutako isiltasun negatiboa gauzatu zela eta deskribatutako egoera, hau da, ebazteke zeuden eskaeren kopuru altua. Erabaki horretan kontuan hartu zen informazioa eskuragarri zegoela lurralde mailako bulegoetan.

Aurrekoa gorabehera, aitortu da ezin dela alde batera utzi araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen [azaroaren 26ko 30/1992 Legearen](#) 42. artikuluan ezarritakoa, hau da, administrazioak prozedura guztietan berriazko ebazpena emateko eta jakinarazteko eginbeharra duela. Hala ere, egiaztatuta ahal izan genuen geroago jardura hori burutu zela.

Kexa horien bidez desadostasuna adierazi zuten eskaera berriak onartu zituztelako, azkenean emaitza gaitzespena izan zen arren, izan ere, aurrekontua agortua zegoen.

Alderdi horri dagokionez, kontuan hartu behar da eskaera berriak onartzea ez dela nahitaez alferrekoa, kexa jakin batzuetan adierazi bezala, izan ere, azterketa a posteriori gauzatzen da, erregistratu ostean. Dirudienez, ezin da honelako mekanismorik abian jarri: aurkezte-ordenenean bakarrik oinarrituta, interesdunei aurreikusitako aurrekontuko zuzkiduraren arabera onartuak izango diren ala ez jakinarazteko aukera ematen duena.

Prestakuntza ikastaroak egiteko aukerari dagokionez (lehenengo Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren [2012ko maiatzaren 8ko agindua](#), horren bidez, 2012ko ekitaldiko enplegurako prestakuntzarako laguntza ekonomikoak iragarri dira), EAEn bizi den pertsona batek, kanpoan kokatuta dagoen enpresa bateko langileak, mahai gainean jarri zuen ez ziotela aukerarik eman aipatutako azken inguruabarraren ondorioz. [HOBETUZ](#) fundazioari kexaren berri eman ostean, Arabako lurralde arduradunak jakinarazi zigun, agindu arautzailearekin bat eginez, EAEko langile guztiek diruz lagundutako ekintzetan parte hartu ahalko dutela. Informazio hori osatze aldera, aditzera eman zuen kasua bideratzeko helburuarekin ikastaroaren ardura duen erakundearekin harremanetan jarri zirela.

Erreklamazio baten erantzunik ezaren ondoriozko kexa bati administrazioak emandako erantzuna lan-ikuskaritzak izan duen lan-karga islatzeko baliagarria izan da. Kexaren kasuan atzerapenak krisi ekonomikoaren ondorio den gizarte errealitatearen ondoriozko lehenetsunekin zerikusia dauka; izan ere, hori guztia dela-eta, esleitutako espedienteak izapidetzeko jarraitzen den ordena honen arabera da: lehenengo izapidetzen dira legez epe bat ezarrita daukatena (enplegu-erregulazioak edo justizia auzitegiek eskatutako txostenak), heriotza eragin duten edo oso larriak izan diren istripuen gainekoak eta Gizarte Segurantzaren aurkako iruzurrak hizpide dituztenak.

Izapidetu genuen kexan aipatzen zen erantzunik eza testu-inguru horretan azaldu zitekeela eta ez zeukala jarduerarik ezarekin edo izapidetzea bertan behera utzi izanarekin zerikusirik. Beraz, salaketa ez zen artxibatu eta prozedura sustatu zen. Edonola ere, txostenak adierazi zuen gaiaren mamia lotuta ikuskatzaile arduradunak bilera bat egin zuela interesdunarekin 2012ko azken hiruhilekoan eta, bertan, salaketak hizpide zituen gertakariak aztertzeaz gain, emaitza posibleen inguruko hurbilketa burutu zutela.

Elkartasunaren sektoreko adinekoentzako egoitzen eta arreta zerbitzuen federazioaren barruan ([LARES](#)) elkartzeko zenbait erakundetako ordezkariak kezka adierazi zuten Ararteko erakundearen aurrean adinekoen egoitzen gatazkaren ondoriozko egoeragatik.

Euren iritziz, [Gipuzkoako Foru Aldundiak](#) berari ez dagokion eremuan esku hartu du, hau da, langileen eta zerbitzuak eskaintzen dituzten zentroetako erakunde titularren arteko harremanen esparruan. Esku-hartze hori aipatzerakoan (adibidez, aipatu dute foru erakunde horrek proposamen bat aurkeztu zuela PRECON) adierazi dute esku-sartzea gertatu dela bi alderdien (erakundeak eta langileak) arteko lan-harremanetan gailendu behar den autonomian.

Halaber, adierazi dute presioa sumatu dutela esku-hartze hori gauzatzek moduaren ondorioz eta horrek laneko gatazkari lotutako zenbait konturen negoziazioan bertan eragina daukala. Jakin badakigu zaila dela presioari lotutako alderdi hori modu objektiboan hartzea baina hala adierazi zigutenez, gogoeta hori aditzera eman genuen.

Irabazi asmorik gabeko (horixe baita funtsezko ezaugarria) zentro eta zerbitzuetako titullarrak diren heinean, kexatzeko beste arrazoi baten berri eman ziguten: ez zeuden ados Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzuak hitzartzeko ezarritako tarifarekin.

Gai horren inguruan, adierazi zuten tarifa horrek euren zentron bideragarritasuna baldintzatu dezakeela. Tarifa [abenduaren 27ko 12/2012 Foru Arauaren](#) hamargarren xedapen gehigarrian jaso den konfigurazioaren emaitza da; horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmenen eta dirulaguntzen arloan beharrezkoak diren neurriak abian jarriko ditu irabazi-marjinan %3ko gehienezkoa ezartzeko, betiere, hori zerbitzu publikoen kudeaketa, hornidura eta zerbitzuen kontratuetan zenbatzen denean, baita zerbitzuak eskaintzeko hitzarmenen kasuan ere.

Foru aldundiari alderdi horien gainean helarazi zizkiguten kezken berri eman genion.

Foru aldundiak mahai gainean jarri genituen inguruabarrei buruzko balorazioa helarazi zigun: funtsean, aipatutako gatazkan izan zuen esku-hartzearen eta ezarritako tarifen alderdi ekonomikoaren ingurukoa.

Lehenengo kontuari dagokionez, aldundiak bere pertzepzioa adierazi du eta, erakundearen ikuspegitik, [Batzar Nagusien Gizarte Politika Batzordean emandako 2013ko otsailaren 8ko ebazpenaren](#) bidez justifikatu du.

Aldundiari bidali genion informazio eskaeran adierazi genuen bezala, kexaren alderdi hori jorratu genuenean jakin bagenekien zaila izango zela, izan ere, legez kontrako jardueraren barruan sar daitekeen ezer bakarrik aztertu daiteke beharrezkoak diren prozesu-bermeen bidez eta prozedura judicial baten baitan eta horrek gure eskumenak gaintzen ditu. Gainera, aldundiaren portaera ezegokitzat jotzeko izaera horretako egozte babesten duten agiri bidezko frogak beharrezkoak dira. Foru diputatuaren erantzuna barne hartzen duen idazkiak dio ez dela eskumenen arloan gehiegikeriarik burutu edo portaera desegokirik antzeman.

Erantzun horrek ekarpen ekonomikoa zuen hizpide, aldundiak abenduaren 27ko 12/2012 FORU ARAUAREN barruan sartu duena (horren bidez, 2013. urterako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorra onetsi dira).

Beste gatazka bati dagokionez, unibertsitatekoa ez den hitzartutako irakaskuntza hain zuzen ere, kexa baten bidez desadostasuna adierazi zen hezkuntzako arloan funtsezko zerbitzua mantentzeko gutxieneko zerbitzuen aurrean. Enplegu Sailera jo zuela aditzera eman zuen eta, dirudienez, bertan arreta eskaini zion pertsonak jakinarazi zion ez zeukala jarduteko aukerarik estatuak ezartzen baititu.

Ahoz emandako informazioari buruz ari zenez, gure iritzia helaraztea erabaki genuen, hau da, autonomia erkidegoko administrazioaren eskumena dela. Horrez gain, azaldu genuen zerbitzuak ezarri dituen 2013ko urriaren 16ko aginduak berak adierazi duela zein den eskumena duen organoa (Eusko Jaurlaritza) unibertsitatekoa ez den hezkuntzaren arloan zerbitzu horien edukia ezartze aldera, funtsezko zerbitzutzat jo dena hain zuzen ere.

Zerbitzuen nazioz gaindiko eskaintzaren baitan Espainiara lekualdatu diren langileen kontratazioak ere kexa bat eragin du. [Azaroaren 29ko 45/1999 Legeak](#) jaso duen egoera bat da. Lege horrek zerbitzuen nazioz gaindiko eskaintzaren baitan lekualdatzen diren langileen gaia jorratu du.

Lege horrek, zioen azalpenean, aditzera eman du kide den estatu batek ezin diola kide den beste estatu batean ezarrita dagoen zerbitzu-emaile bati lurralde osotik bere

langileekin modu librean lekualdatzeko aukera debekatu. Dena den, gogora ekarri du batasuneko zuzenbidea ez dela honen aurkakoa: kide diren estatuek euren legeria edo gizarte hizketakideek egindako lan hitzarmen kolektiboak zabaldu ditzaten eta bere lurraldean lana norbere kontura egiten duen langile oro barne har dezaten, behin-behinean bada ere, enpresaria zein herrialdetan ezarrita dagoen alde batera utzita.

Kexak legeak enpresentzat ezarri dituen baldintzen ez betetzea zuen hizpide, izan ere, egoera horietan esku-hartzea beharrezkoa da.

Esku-hartze hori Laneko Ikuskaritzaren arloaren barruan egongo litzateke (aipatutako 45/1999 Legearen 8. artikulua jaso du, Laneko Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzaren agintzen duen [azaroaren 14ko 42/1997 Legeak](#) xedatutako funtzioak betetz) baina, eremu horretako laneko ikuskaritzarekin egiaz-tatu ostean, esan dezakegu gaia ikertzeko kexan jasotakoak baino datu zehatzagoak beharrezkoak direla. Horregatik, interesdunei esan genien enpresek ez-betetzeak burutu dituztela jakinez gero, [Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren](#) Laneko Ikuskaritzarekin harremanetan jarri beharko liratekeela.

3.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Kexen atalean aipatu dugu horietako askok zerbitzuen funtzionamenduarekin zerikusia izan dutela. Ezin dugu baieztatu kexak funtzionamenduaren erradiografia bat direnik baina jaso dugun horiek ez dute zehaztasunik ematen beste arlo batzuetan gertatzen denaren inguruan; horrez gain, ez da erantzunik eza edo kexagileek jaso duten tratua hizpide duen kexarik jaso.

Adinekoen egoitzen eremuan egon den gatazkak Arartekoaren kezka piztu du, gai horren ondorioz betidanik kezkatuta egon den arren; izan ere, egoera horrek pertsona askoren lan baldintzetan eragina edukitzeaz gain, zerbitzuaren kalitatean ere eragina dauka. Espero dugu, finantzazio arazoak izan dituzten zentro hitzartuen kasuan gertatu den bezala, gatazkaren arrazoa bideratzeko aukera egotea.

a t a l a

000.15.

Hirigintza eta lurralde antolamendua

1.

Arloa kopurutan

Hirigintza eta lurralde antolamenduaren arloan, Arartekoak gai horren inguruan egindako esku-hartzeak biltzen dira; horren barruan sartzen dira hiri-antolamendua, lurzorua urbanizazioaren bidez eta ondoko eraikuntzaren bidez hirigintza aldetik eraldatzeko prozesua eta hirigintzako legez-kotasunaren babesa.

Hirigintza eta lurralde-antolamenduaren arloan kudeatutako kexa-espeditentak 73 izan dira guztira, hau da, bideratu diren erreklamazio guztien %2,73. Eragindako administrazioen arabera, modu honetan banatzen dira:

– Tokiko administrazioa	62
– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jauriaritza).....	2
– Foru administrazioa.....	1

Azpiarloak, berriz, honakoak izan dira:

– Hirigintzako diziplina.....	47
– Hirigintzako informazioa eskuratzea.....	9
– Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura	8
– Hirigintzako kudeaketa	4
– Lurraldearen antolamendua.....	3
– Beste alderdi batzuk.....	1
– Irisgarritasuna	1

Izapidetze-egoerari eta emaitzari dagokienez:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
105	40	60	36	17	7	5

Ekitaldi honetan arlo horretako erreklamazio-kopurua mantendu da. Arartekoaren aurrean aurkeztutako gaiak aipatzen jarraitzen dute, besteak beste, administrazioak ez duela esku hartzen hirigintzako salaketak edo hirigintzako kudeaketatik eratorritako arazoak direla eta.

Arartekoak alor horretan duen eraginkortasun mailari dagokionez, kontuan hartu behar dugu arlo horretan Arartekoaren ebazpen kopurua handitu egin dela. 2013an zehar 12 ebazpen egin dira, [gure web orriko](#) dagokion atalean kontsulta daitezkeenak. Bertan, azaldutako arazo desberdinei buruzko gomendioak, iradokizunak eta ondorioak aurkeztu ditugu.

Espedienteen artean Arartekoaren aurrean aurkeztutako erreklamazio batzuen aldeko erantzuna azpimarratu behar dugu. Hainbat toki-administrazioek lizentziarik gabe egindako obrei buruzko hirigintzako legez-kotasuna betearazteko aurkeztu

diren salaketak izapidetu eta ebatzi dituzte. Konpondutako beste gai batzuk honekin lotuta daude: udalaren esku-hartzea beharrezkoa dela jabetza publiko eta pribatuak osasun-garritasuneko, higieneko eta apaingarri publikoko baldintza egokietan daudela bermatzeko. Adibidez, Guardiako auzotar talde bat kexu zen [Guardiako Udalak](#) ez ziolako udal lurzati bat garbitzeko eta egokitzeko eskaerari erantzun. Informazioa eskatu eta gero, kexagileek jakinarazi digute lurzati garbitzeari ekin diotela.

Hirigintzako espedienteen eskuragarritasunari dagokionez, herritarren elkarte batek adierazi zigun zailtasunak zeudela [Donostiako Udala](#) eraikin bat aurri egoeran zegoela aitortzeko izapidetzen ari zen hirigintzako espedientea kontsultatzeko. Elkarteak udal bulegoetara joan zen espedientea aztertzeko helburuarekin. Udalak elkarteko kideei esan zien une horretan eskaera zerbitzu teknikoak jakinarazten ari zirela. Beste une batean joan zirenez eta ezin izan zuten dokumentazioa kontsultatu, hirigintzako informazio horretarako sarbidea berariaz eskatzea erabaki zuten eta Arartekoara jo zuten. Erreklamazio horren ondorioz, udalaren hirigintzako zerbitzuko teknikari arduradunekin harremanetan jarri ginen. Udalaren zerbitzuek jakinarazi digute elkartearen eskaera jaso dutela eta espedientearen dagoen dokumentaziorako sarbidea ahalbidetzeko neurri egokiak hartuko dituztela berehala.

2.

Kexarik aipagarrienak

2.1. Lurzoru urbanizaezinean dauden eta interes publikokotzat jo diren eraikinak

Aurten aztertu dugun erreklamazio batean, pertsona batek adierazi digu [Erriberagoitiko Udalak](#) lurzoru urbanizaezinean dagoen lurzati batean biltegi-aterpe bat eraikitzekeo hirigintzako lizentzia ezetsi diola. Eraikin hori eraikitzekeo alegatu duen arrazoia da jasaten duen patologia tratatzeko egonaldi-leku bat prestatzeko beharra duela. Kexagileak sentikortasun kimiko anizkoitz izenez ezagutzen den gaixotasuna daukala egiaztatu du. Gaixotasun horrek eskatzen du leku urbanizatuetan egon ohi diren eragile kimiko eta toxikoe-kiko esposizioa saihestea; eragile horiek, besteak beste, konposatu organiko lurrunkorrek edo beste produktu toxiko batzuk dira. Tratamendu horretarako lekuri aproposena, ingurune naturala izateagatik eta patologia horrek eskatzen dituen ingurumen-ezaugarriengatik, kexagilearen ustez, landa-lurzati hori da. Kexagileak azaldu du udal-txostenak berariaz adierazi duela posible litzatekeela ekipamendu hori baimentzea, betiere interes publikokotzat joz gero hirigintzako arau subsidiarioek jasotzen dutenaren arabera. Nolanahi ere, kexagileak bere kexa-idazkian adierazi du erakundeek erantzun aktibo bat eman behar dutela berak jasaten duen egoeraren antzeko kasuetan, eta patologia hori modu

egokian tratatzeko egonaldi-lekuen prestaketa zaildu edo eragozten duten egoerak saihestu behar dituztela.

[Arartekoaren 2013ko otsailaren 19ko ebazpenean](#), azaldu dugu toki-administrazioak direla hirigintzako antolamendurako eta udal-mugarterako lurzorua erabilera kontrolatzeko eskumena duten organoak. Toki-administrazioek egiaztatu behar dute aurkeztutako eraikitze proiektua udal plangintzan jasotako zehaztapenekin eta hirigintzako legezkotasunarekin bateragarria dela. Lurzoru urbanizaezinen antolamenduak lurraldea antolatzeko tresnetan jasotako xedapenak kontuan hartu behar ditu, baita lurraldearen antolamendurako artezpideak eta gainerako arloko planak edo garapenerako plan partzialak ere. Aztertzen ari garen kasuan, antolatzeko tresnek, basoen babeserako eremu gisa kalifikatutako lurzoruen barruan, interes publikoko jarduerari lotutako eraikinen eraikuntza barne hartzen dute. Nolanahi ere, [ekainaren 30eko 2/2006 Legeak](#), lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, 28.5.a) artikuluan lurzoru mota horretan zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzeko aukera ematen duen prozedura xedatzen du. Xedatutakoaren arabera, dagokion lizentzia eskuratu aurretik, foru aldundiaren ebazpenak interes publikotzat jo behar du. Hala ere, aztertzen ari den kasuan, foru organoaren erabakiak ez du interes publikotzat jo eta ezespren hori hirigintzako irizpidean oinarritu du, berari ez dagokiona. Bestalde, sentikortasun kimiko anizkoitza duten pertsonen arazoa eta egoera okerragora joan ez dadin prebentziozko neurriak hartzeko beharra Espainiako Konstituzioaren 43. artikuluari jarraiki botere publikoek herritarren osasuna zaintzeko duten behararen arabera dira. Era berean, Osasun Publikoari buruzko [urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrak](#) zehazten du osasuna babesteko jarduerak eragile kimiko, fisiko eta biologikoek osasun publikoan izan ditzaketan ondorioak saihestera zuzenduta daudela. Jadanik diagnostikatutako sentikortasun kimiko anizkoitza daukan kexagileak eragile kimikoen eragin txikiagoa jasotzen duen toki bat behar du aldi baterako tratamendurako. Ingurune egoki hori nekez koka daiteke hiri-lurzoruan, produktu mota horiekin harremanetan egoteko arriskua baitago, beraz, landa-ingurunean lokalizatzeko eskaera justifikatuta egongo litzateke. Zentzu horretan, interes publikoko aitopeneri dagokionez, foru organoak, abiapuntu gisa, kexagileak bere eskaeran adierazitako gertakariak eta inguruabarrak hartu beharko litzuke kontuan horren inguruan egokiena iruditzen zaiona ebazteko.

Erreklamazio horrekin lotuta, gomendio bat bidali genion [Arabako Foru Aldundiko Hirigintza Sailari](#), sentikortasun kimiko anizkoitza duen pertsona baten aldi baterako tratamendurako erabiliko den eraikin bat interes publikokoa den balioets ezan, [ekainaren 30eko 2/2006 Legeak](#), lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, 28. artikuluan zehazten duenaren arabera. Halaber, [Erriberagoitiko Udaleria](#) jo genuen, Arabako Foru Aldundiak eraikinaren herri-onuraren aitopena berriro balioetsi ostean hirigintzako eta lurralde-antolamenduko legeriak jasotako moduan lizentziaren eskaera ebazteko. Era berean, egungo plangintza-arauek interes publikoko eraikuntzak lurzoru urbanizaezineko kategoria horretan kokatzeko aukera jasotzen ez dutela uste izanez gero, udal horrek irizpide hori aldatzeko aukera balioetsi beharko luke eta eraikuntza horiek Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan eta EAEko Nekazaritza, Basozaintza eta Landa Inguruneko Lurraldearen

Arloko Planean jasotakoaren arabera gaineratu. Administrazio biek ez dituzte ebazpen horretan jasotako gaiak onartu.

2.2. Arkitektura-oztopoak dituzten egoitza-eraikin kolektiboetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko beharra, bereziki igogailuak instalatuta

2013. urtean [otsailaren 5eko 2/2013 gomendio orokorra](#) bidali da gai horren inguruan. Gomendio horren jatorria Barakaldoko auzotar batek, igogailurik gabeko etxe batean bizi denak, helarazitako kontsulta bat da. Haren bizilekuan mugikortasun-arazo bat duen pertsona bat bizi da, eta arazo hori hain larria da ezen ezin baita etxetik atera. Esan digu arazoa bere jabeekideen erkidegoan azaldu duela baina ez dagoela arazoa konpontzeko asmorik. Nabarmendu du etxetik ateratzeko eskubidea daukala eta gaineratu du betebeharrak izan beharko litzatekeela etxeek igogailua edukitzea. Igogailuak instalatzea eta irisgarritasuna bermatzea betebeharrak izan da garaiera bat baino gehiagoko eraikin guztietan, bai erabilera publikokoetan bai pribatukoetan, Euskadin. Hala ere, denok jakitun gara oraindik irisgarritasun-arazoak daudela eskakizun horiek indarrean sartu baino lehen eraikitako eraikin askotan. Eustaten 2010eko datuen arabera, EAEko etxebizitzaren %34k baino gehiagok ez dute etxebizitzaren eta higiezinako gainerako espazio pribatiboen arteko irisgarritasun-arazoa behar bezala konponduta. Horrenbestez, biztanleriaren zati handi bat irisgarritasun-baldintza egokirik gabeko etxebizitzetan bizi da, eta beraz, herritar moduan dituzten eskubideak erabiltzeko arazo larriak dituzte edo izango dituzte etorkizun hurbilean. Lehendik eraikitako eraikinetan irisgarritasun unibertsala bermatuko duen legezkotasun esparrua ezartzeko zailtasunak askotarikoak dira. Alde batetik, etxebizitza-parke horretan irisgarritasun-plana ezartzeak ekar dezakeen kostu ekonomikoa dago. Beste alde batetik, eraikinen forma zehatzak eragin ditzakeen zailtasun teknikoak daude. Kontuan hartu beharreko beste eragozpen bat jabetza horizontala taxutzeko araubidea da. Jabetza horizontalari buruzko legeriaren eskumen-esparrua Gorte Nagusiei dagokie eta behin baino gehiagotan aldatu du instalazioaren alde egiteko araudia. Dena den, interes partikularren desadostasunak kasu askotan oztopo horiek ezabatzeke zailtasunak dakartza. Herritarrek azaltzen dizkiguten arazoak askotarikoak dira: etxebizitza guztietara iristea ahalbidetuko duen igogailua instalatzeko eraikineko jabe guztien adostasuna lortzeko zailtasuna, edo proiektua eraikinen segurtasunerako eta bizigarritasunerako araudiarekin bat etorri behar izatea. Gainera, behin erabaki bat hartuta, ez da beti posible izaten oztopoa eraikinean bertan edo erkidegoaren lurzati pribatuaren baitan kentzea. Arartekoaren gomendio horren helburua Euskadiko botere publikoaren jardura-esparrua balioestea eta aztertzea da, egoitza-eraikinen barruan arkitektura-oztopoak kentzea ahalbidetuko duten tresnak eskuratzearen inguruan. Bestalde, proposatu dugu eraikinen birgaitzea eta hiria biziberritzea arautzen dituen araudia era egokian garatzea, eraikinaren irisgarritasun osoa eraikinen kontserbazioarekin lotutako betebeharrak gisa berariaz gehi dezan. Araudi hori aplikatuz, Eusko Jaurlaritzak, udalekin koordinatuta, hiria biziberritzeko tresnen garapena

sustatu behar du –teknikoki eta ekonomikoki–, halako guzietan non herritarren zati esanguratsu bat eraikin gehienek irisgarritasun-arazoak dituzten eremu batean bizi den. Lehendik eraikitako eraikinetan igogailuak instalatzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako etxebizitza arloak eraikinetan segurtasun eta bizigarritasun egokia bermatzeko kontuan hartu beharreko gutxieneko irizpide teknikoak eta espazioak antolatzeke irizpide batzuk zehazteko jarraibideak eman behar ditu. Era berean, udalek lehendik eraikitako eraikinetan igogailuak instalatzeko eta, hala balegokio, espazio publiko zein pribatuak betetzeko beharrezkoak diren segurtasun- eta bizigarritasun-irizpide teknikoak jaso eta moldatu beharko lituzkete euren eraikuntza-ordenantzetan.

2.3. Udalek esku hartzeko beharra Diogenesen sindromearen eta antzeko nahasmenduen ondorioz etxebizitza batzuetan dagoen osasungarritasunik eza konpontzeko

Arartekoak [2013ko abenduaren 9ko ebazpena](#) helarazi dio [Bilboko Udalari](#), hondakin kopuru handia pilatu duen etxebizitza bateko osasungarritasunik ezaren ondoriozko arazoa konpontze aldera esku har dezan. Higiezin baten jabekideen erkidego batek etxebizitza bateko osasungarritasun eta higienik eza azaldu zigun. Bertan, ustez *Diogenesen sindromea* izeneko gaixotasun bat zeukan pertsona bat zendu zen. Higiezin horretako auzotarrak etxebizitzan pilatzen zuen zikinkeraren ondoriozko eragozpenen kexu ziren. Etxebizitzaren titularra hil zenez eta jaraunslarik ez zegoenez, ezin zen jabetzan esku hartzeko eskatu. Horregatik, agintaritzak eskudunaren esku-hartze subsidiarioa proposatu zen, zikintasunak eragindako eragozpenak eta horrek eraikinetan sor litzakeen infekzio-fokuak saihesteko. Gure eskaerari erantzunez, Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Sailak bisita bat egin zion etxebizitzari. Etxebizitzaren kanpoaldearen ikuskaritzan, inork ez zuen atea ireki eta ez zen osasun publikorako arriskua adierazten zuen kanpo aztarnarik antzeman. Txostenak adierazi zuenez, garbiketa etxebizitzaren jabeari zegokion, eta udalak agintaritzak judizialaren berariazko aginduak baino ez du jabetza pribatuari jarduten. Kasu horretan, gertakariak etxebizitzan egon daitekeen osasungarritasunik eza ohartaraztea eragin digute. Horregatik, Bilboko Udalari etxebizitza bateko osasungarritasunik eza konpontzeko esku har dezan gomendatzen diogu. Izan ere, udal administrazioaren erantzun azkarra behar da etxebizitza ikuskatzeko. Jabea ez zegoenez, ezin izan zen etxebizitzaren barrualdea ikuskatu, eta hori ordenamenduak aurreikusten dituen beste proba-mekanismo batzuen bidez (salatzaileek aurkeztutako deklarazio eta frogak, beste erakunde batzuen txostenak, gizarte zerbitzuen informazioa...) zuzendu behar da. Edonola ere, bildutako ebidentziak ikusita, uste dugu osasungarritasun publikoko betebeharrak betetzen direla bermatzeko neurriak hartu eta egokiak diren betearazpen aginduak eman behar direla. Arartekoaren gomendioak orobat proposatu du horrelako kasuetan esku hartzeko jarduteko udal protokolo bat egin dadila, salbuespenezko inguruabar pertsonal baten ondorioz (hala nola *Diogenesen sindromea* edo antzeko nahasmenduak) etxebizitzetan hondakin

pilaketa gertatzen denerako. Kasu horietan, udalaren esku-hartzeak koordinazioa eskatzen du udaleko hainbat arlo eta zerbitzuren artean (osasun publikoa, hirigintza, gizarte zerbitzuak). Era berean, administrazioaren jardunak era azkarrean ebatzi behar du, jabetzatik eratorritako betebeharrak eta eskubideak zehaztuz eta konstituziozko garantiak, hala nola beharrezkoak den baimen judiziala lortu ondoren bizilekuan sartzea, zainduz.

2.4. Hirigintzako arau-hausteen eta zigorraren araubidea

Arartekoak nabarmendu du aintzat hartu behar dela administrazio-ahalak –ikuskaritza, hirigintzako legezketasunaren babesa, urratutako ordena berrezartzea eta arau-haustek zigortzea– era xedaezinean eta utziezinean gauzatu behar direla.

Edozelan ere, jurisprudentziak administrazioaren ahal horien gauzatzea mugatu du. Administrazioaren jarduera prozeduran oinarritu behar da guztiz eta, herritarrekin dituen harremanetan, objektibotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak aintzat hartu behar ditu. Prozedura administratiboari esker, herritarrek erabakiak haien banakako eskubideak errespetatu hartzen direlako bermea daukate. Objektibotasuna zentzu honetan: ahala legezketasuna berrezartzean datzan xede publikoa lortzeko gauzatu behar da. Proportzionaltasuna zentzu honetan: administrazioak erabiltzen dituen bitartekoak, helburuari dagokionez, egokiak izan behar dira eta ez dira gehiegizkoak izan behar. Zentzu horretan zehaztu behar dugu, hirigintzako legeriak ezarritakoarekin bat eginez, dagokion lizentziarik gabe egindako obrak eta erabileren aurrean udalak hirigintzako legezketasuna berrezartzeko eskatu behar duela bai eta, hala balegokio, zigortzeko espedienteari hasiera eman ere.

Utziezinak diren ahal horiei hasiera eman ahal izateko, udalak epeei, preskripzioari eta herritarren bermeei dagokien hirigintzako legerian tasatutako prozedura jarraitu behar du. Aipatu behar da ahal horiek guztiak epe batzuen menpe daudela. Hirigintzako antolamendua berrezartzeari dagokionez, antolamendutik kanpo egindako obrak amaitu eta gero lau urte igaro badira, administrazioak ezin izango du eraisteko agindu. Zigortzeko ahalari dagokionez, preskripzio-epeak [ekainaren 30eko 2/2006 Legeak](#), lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, 229. artikuluan ezartzen dituenak dira.

Printzipio horren arabera, [Arartekoaren 2013ko otsailaren 26ko ebazpenaren](#) bitartez, [Zumarragako Udalari](#) gomendatu zaio lursail baten gehiegizko aprobetxamenduagatik igorritako balorazioa eta ondorengo likidazioak bertan behera utzi ditzala.

Hirigintzako arloan zigortzeko ahala egikaritzeari dagokionez, [Elorrioko Udalari Arartekoaren 2013ko uztailaren 5eko ebazpena](#) helarazi diogu. Horren bitartez gomendatu zaio hirigintza-araudia urratzeagatik isun bat ondorenik gabe uztea. Kasu horretan, isuna baserri baten birgaitze-obretako zuzendari teknikoari ezarri zieten, udal lizentzian aintzat hartu gabeko egokitzapeneko obra batzuk egiteagatik. Kexaren sustatzaileek adierazi dute ez direla obra osagarriak egitearen errudunak eta, horrenbestez, lizentziak bermatutako obra nagusiko zuzendari teknikoari ez zaiela automatikoki hedatu

behar zigortzeko erantzukizuna. 2/2006 Legeak 228. artikuluan ezartzen du hirigintzako arau-hausteen erantzukizuna zenbait subjekturi dagokiola modu independentean; kasu honetan, erabileren sustatzaileei eta higiezinen jabeiei. Hala ere, erantzukizuna zenbait subjekturi esleitu behar izateak ez du salbuesten dagokion zigortzeko espedientean erantzuleari gertaerak behar bezala egotzi behar izateak. Aipatu isunaren bakoitze printzipioaren arabera, derrigorrezkoa da behar adina proba eskatzea zuzendari teknikoek obra osagarrietan egindako zuzendaritza-lanetan erruduntasunik izan duten frogatzeko.

Gomendio horrek Eusko Legebiltzarrean [maiatzaren 17ko 81/2013 ez-legezko Proposamena](#), gune publiko eta pribatuen irisgarritasun unibertsala bermatzeari buruzkoa, egiteko aukera eman du. Proposamen horrek Eusko Jaurlaritzari eskatu dio bederatzi hilabeteko epean prestatu dezala eraikinen birgaitze eta berrikuntzarako laguntzei buruzko araudiaren aldaketa, irisgarritasuna hobetzeko beharrezkoak diren lanak gehituta, laguntza horiek eskuratzeko bete beharreko baldintza gisa. Orobat jasotzen du igogailuak ipintzea ahalbidetuko duten neurri legal, tekniko eta ekonomikoak sustatzea.

3.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

Aipatu behar da [ekainaren 26ko 8/2013 Legea](#), birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzkoa, onartu dela. Lege horrek eraikinak birgaitzeko eta hiri-inguruneak berroneratzeko eta berritzeko jardueren baldintzak arautzen ditu. Haren helburua bizi-kalitatea eta etxebizitza duin eta egoki bat edukitzeko eskubidearen eraginkortasuna hobetzea da.

Bestalde, [azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege-Dekretuak](#), ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onartzen duenak, hainbat xedapen orokor jasotzen ditu gune publiko urbanizatuen eta eraikuntzaren arloko irisgarritasunaren eta bereizkeriarik ezaren oinarritzko baldintzei buruz.

4.

Ekintza-planaren esparruko bestelako jarduerak

Ekintza-plan honetan jasotako proposamenean lotura zuzena dute ingurumen arloko planean sartutakoekin, bereziki ingurumenaren eremuan jarduten diren elkarrekin batera aurreikusitako jardunei dagokienez.

4.1. Gomendio orokorra

2013. urtean [otsailaren 5eko 2/2013 gomendio orokorra](#) egin da. Horren bitartez adierazi da arkitektura-oztopoak dituzten egoitza-eraikin kolektiboetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko beharra, bereziki igogailuak instalatuta.

5.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

- Hirigintzaren arloan, hiria biziberritzeko eta eraikinak birgaitzeko egoitza-eraikinen barruan arkitektura-oztopoak ezabatzea ahalbidetzen duten tresna bizzorak behar dira. Horretarako, eraikinen birgaitzea eta hiria biziberritzea arautzen dituen araudia garatu behar da, eraikinaren irisgarritasun osoa eraikinen kontserbazioarekin lotutako betebeharrak gisa berariaz gehi dezan. Hori egiteko, Eusko Jaurlaritzak, udalekin koordinatuta, hiria biziberritzeko tresnen garapena sustatzen jarraitu behar du, halako guneetan non herritarren zati esanguratsu bat eraikin gehienek irisgarritasun-arazoak dituzten eremu batean bizi den.

Lehendik eraikitako eraikinetan igogailuak instalatzeari dagokionez, gune publiko eta pribatuen antolamenduan eta eraikinetan segurtasun eta bizigarritasun egokia bermatzeko kontuan hartu beharreko gutxieneko irizpide teknikoak eman behar dira.

- Toki-administrazioek modu egokian erantzun behar diete aurkeztutako salaketei, eraikin eta lurzati pribatuen jabeek kontserbatzeko eta birgaitzeko betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko. Modu horretan, udalek salbuespeneko kasuetan, esaterako patologia baten ondorioz (hala nola *Diogenesen sindromea* edo antzeko nahasmenduak) etxebizitzetan hondakinak pilatzen direnean, esku hartzeko protokoloak eduki behar dituzte. Kasu horietan, udalaren esku-hartzeak koordinazioa eskatzen du udaleko hainbat arlo eta zerbitzuren artean (osasun publikoa, hirigintza, gizarte zerbitzuak). Era berean, administrazioaren jardunak era azkarrean ebatzi behar du, jabetzatik eratorritako betebeharrak eta eskubideak zehaztuz eta konstituziozko garantiak, hala nola beharrezkoa den baimen judiziala lortu ondoren bizilekuan sartzea, zainduz.

a t a l a

16.

Etxebizitza



1.

Arloa kopurutan

2013. urtean, gaitzetsi diren kexak edo beste herriaren defendatzaileen bati helarazitakoak kanpo utzita, guztira 155 espediente kudeatu dira etxebizitzaren arloan. Hau da, Ararteko erakundearen izapidetutako guztien %5,79. Dagozkien administrazioen arabera, honela sailkatzen dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritzaren)..... 103
- Tokiko administrazioa 23

Bestalde, gaiari erreparatuta, honela sailkatu dira:

- Etxebizitza babestuaren alokairua..... 73
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura 36
- Etxebizitzarako sarbidea: premia frogatzea eta esleitzeko prozedura..... 28
- Beste alderdi batzuk..... 14
- Kalteak etxebizitza babestuetan eraikitze akatsengatik 4

Urte honetan zehar kudeatu diren kexen izapidetze prozesuaren xehetasunei dagokienez, 2013. urtean jaso diren kexa guztiak, 2012ko urtarrilaren 1ean abian zeuden kexak barne, txosten hau idatzi zen unean, ondorengo egoera honetan zeuden:

GUZTIRA	Izapidetzen	Amaituta	Jarduera okerra	Jarduera okerrik ez	Herritarrei aholkuak eta informazioa ematea	Gerora ez dira onartu
169	59	93	40	39	14	17

Hurrengo atalean nabarmendutako kexen gainean egin den azterketan ikusi ahal den moduan, herri-administrazioak harberak izan dira Ararteko erakundeak egin dituen proposamen eta gomendioen aurrean. Horren emaitza izan da herritarrek salatu dituzten jarduera okarren portzentaje altu bat modu positiboan konpondu dela.

Dena den, erantzuteko erabilitako epeei dagokienez, egiaztatu dugu [Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak](#) gure laguntza eskaerei erantzun diela baina erantzun horiek horretarako ezarritako epea behin amaituta heldu izan direla eta, ondorioz, askotan zegoen errekerimendua bidali behar izan dugu.

2.

Kexarik aipagarrienak

Etxebizitza arloaren barruan dauden gaien sailkapenari jarraituz, herritarren erreklamazioa eragin duten kontu nagusiak aztertuko ditugu jarraian.

2.1. Etxebizitza eskuratzea: premia frogatzea eta esleitzeko prozedura

Urtearen hasieran etxebizitza eskatzaileen erregistroari eta Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko [2012ko urriaren 15eko agindua](#) indarrean sartu eta gero, hainbat kontsulta eta kexa jaso ditugu arau horrek babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan eta Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroaren kudeaketan gaineratu dituen aldaketan ondorioz. Herritarren erreklamazioek gora egin dute aipatutako araudiaren ondoriozko aldaketan berezitasun eta garrantziagatik, izan ere, lehengo arauketa modu uniformean aplikatu izan zen urte askotan zehar.

Egia esan, aztertu ditugun espedienteetan (horiei lotutako esku-hartzea amaitu dugu txosten hau bukatzerakoan) ez dugu antzeman kontsultek hizpide izan dituzten kontuek babestutako etxebizitza eskatzaileen eskubideak edo interesak gutxitu direla adierazi dutenik eta, zentzu horretan, gure esku-hartzea, funtsean, legeen testuinguru berriari buruzko aholkularitza eta informazio lana izan da.

Erreklamazio gehien eragin dituzten gaiak honako hauek izan dira: Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan babestutako etxebizitzaz gozatzeko erregimen bakar batean izena emateko aukera (hau da, erosketa edo alokairua); alokairuko etxebizitza baten onuradun izatea eta erosketa erregimenean izena ematea bateraezinak izatea; babestutako etxebizitza baten esleipen bakar bati uko eginez gero Eskatzaileen Erregistroan baja ematea eta etxebizitzarik ez edukitzeari buruzko betekizunetik salbuetsita dauden jabeen edo beste eskubide errealek batzuen titularraren kasuan, erosketa erregimenean etxebizitza babestua eskuratzeko ezintasuna.

lazko txostenean aipatu genuen bezala, oraindik ere babes ofizialeko etxebizitzaren esleipendun izan diren eta etxebizitza aldaketa eskatzen duten familiek aurkeztutako kexak jasotzen ditugu. Aurten aztertu ditugun kexen artean honekin topo egin dugu: herritar batek adierazi zuen bere familia handitu zela azken urtetan eta, ondorioz, esleitutako etxebizitzak ez zuela gutxieneko legezko ratioa betetzen.

Kexagileak gure esku-hartzea eskatu zuen [Alokabide](#) sozietate publikoari etxebizitza aldatzeko eskatu ziolako baina birkokatze eskaera gaitzetsi egin zuten.

Kexa behin aztertuta, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari azalpen txosten bat eskatu genion, kexagilearen eskaera ukatzeko arrazoien berri edukitzeko asmoz. Gure lankidetzaren eskaerari erantzunez, sailak aitortu zuen eskatutako etxebizitza aldaketa onartzeko legezko baldintzak betetzen zituen aztertu behar zela eta, azkenean, Etxebizitzako

Arabako Lurralde Ordezkaritzak zegokion ebazpena eman ostean, kexagileak bere familia unitatearen esparru beharrei egokitzen zen etxebizitza batera joan ahal izan zen.

2.2. Etxebizitza babestuaren alokairua

Aurten antzeman dugu alokairuen errenta jaisteko eskatu duten babes publikoko etxebizitzaren errentarietara aurkeztu dituzten kontsulten eta kexen kopuruak gora egin duela. Zalantzarik gabe, ekonomia eta lan arloko ezegonkortasun egoerak, hainbat pertsona eta familiek pairatzen dutenak, azaltzen du zergatik hileko errentak garestitzeak kalte ekonomiko larria eragin dezakeen.

Aurrekoaz gain, kontuan hartu behar da alokairu pribatuen errentak modu nabarmenean merkatu direla, hortaz, herri-administrazioek nahitaez aztertu behar dute alokairu publikoak egun bizi dugun egoerari egokitzeko aukera, zehatzago esanda, etxebizitza babestua behar duten pertsonen familia-ekonomiari egokitzeko aukera.

Horri lotuta, aintzat hartu behar da Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2013ko uztailan aditzera eman zuen “[2012an alokairu-politikaren ebaluazio txostena](#)”. Bertan adierazi da, azken urtetan, alokairu publikoen errenten eta alokairu pribatuen errenten ibilbideak elkarrengandik urruntzen ari direla eta aipatu da, batez beste, babestutako errentaren zenbatekoa %24 garestitu den bitartean, merkatu librearen errenta %4,5 merkatu dela.

Alokairu publikoen zenbatekoari dagokionez, hain zuzen ere, aurten kexa-espeditze bati amaiera eman diogu eta, bertan, alokairu publikoen kasu batzuetan jarduera desegokia eta neurritz kanpokoia izan dela baloratu dugu eta, ondorioz, honako gomendio hau egin genuen: “[Arartekoaren 2012ko azaroaren 12ko ebazpena](#)”. Horren bidez, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari gomendatzen zaio 2010eko azaroaren 3ko agindua baino lehenagoko araudiaren bidez erregulatutako alokairu publikoen prezioak modulatu daitezkeen arrazoikoakoak izan daitezkeen, errentaren urteroko eguneratzean mekanismo zuzentzaile egokiak ezarri.

Babestutako etxebizitza baten alokairuaren neurritz kanpoko garestitzea salatu zuen herritar baten kexa aztertu ostean ondorioztatu genuen, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzko [2010eko azaroaren 3ko agindua](#) indarrean sartu ondoren, arau hori baino lehenagoko alokairuko kontratuek ezarritako errenten eguneratzeari buruzko erregulazioa desegokia zela eta horrek errentak gehiegi garestitzea eragin zezakeela eta, gure ustez, hori guztia egungo gizarte errealitatearen aurkakoa izateaz gain etxebizitza behar duten pertsonen bermatu behar zaien babesaren kontrakoa da.

Horregatik, dagoeneko existitzen ez den Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari gomendatu genion 2010eko azaroaren 3ko agindua indarrean sartu aurretik adostutako alokairuen eguneraketak azter zitzan eta beharrezkoak ziren neurriak har zitzan alokairuen prezioak modu neurrigabearen gotzea eragiten zuten eguneraketa horiek baretzeko.

Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak aurten erantzuna bidali du eta ez du onartu kexagilearen errenta modu neurrigabearen igo

zenik. Halaber, ez du gure eskaera onartu, hau da, 2010eko azaroaren 3ko agindua baino lehen zegoen araudiaren arabera erregulatutako alokairu publikoen errentak zuzentzeko mekanismoak ezartzeari buruzkoa.

Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari zenbait gomendio bidaltzea eragin duen beste gai bat hau da: “Etxebizitza Hutsen Programa” (Bizigune) delakoaren barruan dauden etxebizitzak zein egoeratan itzuli behar diren. Aipatutako programa publikoaren barruan laga eta alokatu zituzten etxebizitza batzuen jabeek gure esku-hartzea eskatu zuten sailak etxebizitzetatik desagertu ziren altzariak eta tresnak ordezkatzeari eta bertan antzemandako gabeziak konpontzeari uko egin ziolako. Bi erreklamazioak aztertu ondoren, ebazpenak eman genituen: “[Arartekoaren 2013ko otsailaren 18ko ebazpena](#); horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak, ‘Etxebizitza Hutsen Programa’ (Bizigune) delakoan gaineratutako etxebizitzaren errentamendua amaitu ondoren, euren jabeek itzultzean etxebizitzek izan behar duten egoera zehazten da” eta “[Arartekoaren 2013ko martxoaren 1eko ebazpena](#); horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak, ‘Etxebizitza Hutsen Programa’ (Bizigune) delakoan gaineratutako etxebizitzaren errentamendua amaitu ondoren, euren jabeek itzultzean etxebizitzek izan behar duten egoera zehazten da”.

Bi gomendioetan, amaitzeko, adierazi genuen sailak, alde batetik, jabeek altzariak eta tresnak ordezkatzeko eskubidea aitortu behar diela (edo, modu subsidiarioan, dagoen ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea) eta, bestetik, etxebizitzak aipatutako programa publikoan sartzeko beharrezkoa den mandatu-kontratuaren ereduak berrikusi behar dituela eta etxebizitzarekin batera uzten diren altzari eta tresnen inguruan dagozkion xedapenak gaineratu behar dituela.

Bi jarduera horiek Enplegu eta Gizarte Politiken aldeko konpromisoarekin amaitu dira, hau da, programa publikoaren baitan etxebizitzak lagatzeko kontratuak aldatzeko konpromisoa, “Etxebizitza Hutsen Programari” (Bizigune) buruzko araudi berria onetsi eta indarrean sartu ondoren. Azken hori 2013ko abenduaren 30ean argitaratu zen ([abenduaren 23ko 466/2013 Dekretua](#)).

Erreklamazioa aurkeztu zuten jabeek altzariak eta tresnak desagertu izanaren ondoriozko eragozpenengatik ordaina jasotzeko daukaten eskubideari dagokionez, sailak gure gomendioa baztertu zuen kasuetako batean eta bestean, aldiz, etxebizitzaren jabeak ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea zuela onartu zuen.

Atal hori ixte aldera aipatuko dugu, aurreko urtetan bezala, 2013an hainbat kexa jaso direla babes ofizialeko etxebizitzaren eta “Etxebizitza Hutsen Programaren” (Bizigune) barruan dauden etxebizitzaren errentarien eskutik. Horien bidez, fidantzak edo behar ez bezala ordaindutako hornidura-gastuak (ura, gasa eta elektrizitatea) itzultzerakoan egon diren atzerapenak salatu dituzte. Kasu gehienetan, Alokabide sozietate publikoak, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari atxikita dagoen sozietateak, behar bezala eta arin errentarietara eskatu dituzten zenbatekoen itzultzea bideratu du.

2.3. Eraikuntza akatsen ondoriozko kalteak etxebizitza babestuetan

Etxebizitza babestuetan antzematen diren eraikuntza akatsak gatazka eragin ohi dute etxebizitzaren esleipendunen eta herri-administrazioen artean. Batzuetan, administrazioek atzerapenarekin erantzuten diete eraikuntza akatsen ondorioz aurkeztutako erreklamazioei eta, horregatik, herritarrek gure esku-hartzea eskatu ohi dute, bai kexak hizpide duen alderdiarentzako erantzun formalak eskuratzeko, bai administrazio eskudunak dagozkion konponketa neurriak abian jar ditzan.

Ikusi dugu jasotako kexen %80k alokairu erregimenean laga diren babes publikoko etxebizitzetan antzemandako akatsak aipatzen dituztela. Kasu horietan, funtsezkoa da argitzea zein den kexak hizpide dituen akatsen jatorria, konponketa herri-administrazioaren kargura egin behar den baloratu ahal izateko. Hala, adibidez, akatsak etxebizitzaren erabilera okerrak edo ohiko erabilerearen ondoriozko higadurak eragindakoak baldin badira, konponketa errentariak berak egin beharko du. Edonola ere, garrantzitsua da administrazioak dagokion txosten teknikoak ematea eta bere ebazpenaren zentzua behar bezala arazoitzea.

Aurten burutu diren esku-hartzeen adibide gisa, hauxe aipatu dugu: "Etxebizitza Hutsen Programaren" (Bizigune) barruan zegoen etxebizitza bateko errentariak salatu zuen etxebizitza zenbait akatsekin eman ziotela eta kezka adierazi zuen, alokairuko kontratua amaitzerakoan eta fidantza itzultzeko unea heltzerakoan, beharbada azken hori atxiki ahal ziotelako berak eragin ez zituen kalteen konponketa bere ardura zela argudiatuz.

Laguntza eskaera bat igorri genuen Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari eta txosten batekin erantzun zigun. Horren bitartez azaltzen zen etxebizitzak (zenbait konponketa egin zituzten bertan) bizigarritasun baldintza bikainak zituela eta kexagileak helarazitako oharrak Alokabide sozietate publikoak zuen informazioan islatu zirela, etxebizitza itzultzerakoan eta errentariari fidantza itzultzeko unea heltzen denean aintzat har daitezkeen.

Kexa horrekin eta antzerako edukia zeukaten beste batzuekin egiaztatu da Enplegu eta Gizarte Politika Sailak alokairuko erregimenean laga diren edo etxebizitza hutsen programa publikoan gaineratu diren etxebizitza babestuetan antzematen diren akatsei buruzko erreklamazioak aurkezteko ahalbidetzen duten mekanismoak sendotzea beharrezkoa dela. Modu horretan, errentariak, beharrezkoak diren berrimekin, euren eskubideak defendatu eta eginbeharrak bete ahalko dituzte.

2.4. Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

Atal honetan esku-hartze bat nabarmendu nahi dugu. Horri esker, bananduta dagoen eta seme adingabea bere kargura daukan ama batek esleitu zioten etxebizitza babestua erosteko oniritzia eskuratu ahal izan zuen.

Kexagileak salatu zuen Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan jakinarazi ziotela bere erosketa-kontratuak ez

zuela zegokion baimena lortuko, euren ustez, ez zegoelako etxebizitza beharrei buruzko 2008ko apirilaren 16ko aginduan (une honetan indargabetua dagoena) jasotako etxebizitza behar egoeretako baten barruan. Dirudenez, lurralde ordezkaritza horretan ondorioztatu zuten agindu horren xedapenak bakarrik direla aplikagarriak senar-emazteak edo Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan izena eman duten izatezko bikoteak banandu edo dibortziatzen direnean eta jakinarazi zioten bera eta bere bikotekide ohiak ez zutelako egiaztatu aipatutako erregistroan izena eman zutenik.

Kexa horren izapidetzean zehar, hainbat lankidetzak eskara igorri genizkion dagoeneko existitzen ez den Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari kexagileak eta bere semeak banandu ostean esleitu zioten etxebizitza babestua gozatzeko duten eskubidea defendatze aldera. Une oro aipatutako aginduaren interpretazio ez-murriztailearen alde egin genuen, etxebizitzaren beharra egiaztatzen duten baldintzak betetzen dituzten bikote egonkor guztien kasuan aplikatu dezaten, lotura egonkor hori Izatezko Bikoteen Erregistroan jaso den ala ez alde batera utzita.

Horrez gain, argudiatu genuen aipatutako arauaren izaera eta xedea aintzat hartuko dituen interpretazioak tratatu bera eman beharko liekeela senar-emazteen bizitzaren antzeko bizitza izan duten eta harremana haustearen ondotik etxebizitza premia larria duten horiei guztiei. Zentzu horretan, gure ustez, kexagileak babestutako etxebizitza eskuratzeko zuen eskubidea eztabaia ezina zen, izan ere, bikotekidearekin bizi zen bitartean seme bat eduki zuen eta haren legezko zaintza eta babesa berari esleitu zioten.

Azkenean, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak erakunde honek proposatu zuen interpretazioa onartu zuen eta kexagileak esleitu zioten etxebizitza babestua erosteko oniritzia lortu ahal izan zuen. Sailak ondorengo balorazioa helarazi zigun, etorkizunean antzerako kasuak egonez gero aplikagarria izango dena:

"Sail honen iritziz, izatezko bikote bat eratu dela jotzeko irizpidea aldatu behar da etxebizitza-premia izateko eskakizunari dagokionez. Horrela, baldin eta zuzenbideak onartutako beste bitarteko batek -Izatezko Bikoteen Erregistroan izena ematea ez dena- frogatzen badu izatezko bikote bat eratu dela, egoera salbuespenezkoa dela onartu behar da".

2.5. Beste batzuk

Etxebizitza behar berezia daukaten taldeei dagokienez, aurtun herritarrek aurkeztutako zenbait erreklamazio aztertu ditugu. Horien bidez, agerian jarri da higiezinaren merkatuaren egungo baldintzak kontuan hartuta, irisgarritasun baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzaren jabeak zailtasunak dituztela esleitu dieten etxebizitza egokituak eskuratzeko.

Bi familiek (kideetako batek ezintasun fisikoa dauka) mahai gainean jarri zuten, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak euren jabetzakoa zen etxebizitza saltzeko eskaintzari uko egin zionez eta merkatu librean besterentzea ezinezkoa zenez, ez zeukatela baliabide ekonomikorik esleitutako etxebizitza egokituak erosi ahal izateko, premiazkoa bazen ere, euren jabetzakoa zen etxebizitza mugatua baitzegoen mugikortasunari dagokionez.

Bi kasuetan tartean zeuden administrazioei, hau da, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari eta Bilboko Udalari, eskatu genien konponbide bat bilatu zezaten familia esleipendun horiek etxebizitza egokituz goza zezaten (alokairuko erregimenean lagaz edo bere jabetzakoa zen etxebizitza salduz) edo, modu subsidiarioan, babes ofizialeko etxebizitza egokitu bat alokairuan eman diezaieten.

Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak zein Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeak gure eskaerari erantzun zioten eta familia horientzat egokia zen alternatiba eskaini zuten, izan ere, euren borondatearen kontrako inguruabarren ondorioz, ez zeukaten baliabide ekonomiko nahikorik esleitutako etxebizitza babestua erosi ahal izateko.

3.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

2013. urtea amaitu zenean [etxebizitzari buruzko Ez Legezko Proposamena](#) zuzenketak aurkezteko fasean zegoen. Proposamen horren xedea Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko eskubidea arautzea da. Azken urtetan aipatu izan dugu euskal herritarrek lege bat behar dutela etxebizitza batez gozatzeko eskubidea modu errealean eta eraginkorrean ziurtatzeko. Horregatik, espero dugu hurrengo ekitaldian, izapidetzen ari den legebiltzarreko ekimenari esker, oinarrizko gizarte zerbitzu hori finkatzeko aukera emango duen araua onestea.

Jorrazten duen arazoaren larritasunari erreparatuta, [etxegabetzeak gelditzeari buruzko 1/2013 Ez Legezko Proposamenak](#) nabarmentzea merezi du. Horren bitartez, Eusko Legebiltzarrak estatuko gobernuari, finantza erakundeei eta euskal herri-administrazioei eskatu die guztira hamaika neurri zehatz har ditzaten etxegabeteen ondoriozko gizarte eta pertsonen zorigaitza gelditzeko helburuarekin.

Jarraian euskal herri-administrazioei zuzenduta dauden neurrietako batzuk aipatu ditugu. Gure iritziz, berehala ezarri behar dira edo, hala badagokio, finkatu euskal pertsona eta familia gehiagori euren ohiko etxebizitza kendu diezaieten saihesteko. Gure herri-administrazioen eskumenen eremua- ren barruan dauden batzuk honako hauek dira:

“7. Eusko Legebiltzarrak eskatzen du ezar daitezela lankidetzak-formulak Eusko Jaurlaritzaren, diputazioen, udalen eta finantza-erakundeen artean etxegabetze-prozesu larri-larrietan dauden pertsona eta familientzako laguntza-programa bat ezartzeko aukera aztertzeko.

8. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aktibatuta ditzala bere bizileku-baliabideak etxegabetutako familien beharizanei erantzuteko, betiere ohiko etxebizitza denean, lehentasuna emanik alokairu sozialeko etxebizitza-programetan sartzeari.

9. Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eskatzen die jar ditzatela arrazoi objektiboengatik

etxegabetutako pertsonen eskura hutsik dauden udal titulartasuneko etxebizitzak.

11. Eusko Legebiltzarrak instituzioei eta finantza-erakundeei eskatzen die koordinatu ditzatela jarduerapro-tokolo batzuk egingo diren kaleratzeen berri alde zuzen nahikoa denboraz izateko, eta sor dezatela etxebizitza-parke bat kaleratuei ostatu emateko, horretarako hipoteka-exekuzioen ondorioz hutsik gelditutako etxebizitza stock-a ere erabiliz”.

2013. urtean zehar etxebizitza babestuari lotuta [Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren](#) jarduerara arauemailea eskasa izan da. Dena den, etxebizitza eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko [2012ko urriaren 15eko agindua](#) indarrean sartu izanak (2013ko urtarrilaren 2ra atzeratu zen) ahalegin handia eragin du babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena baremazio bidezko esleipen sistema berrira egokitze aldera, bereziki, alokairuko erregimenean dauden etxeen kasuan.

Enplegu eta Gizarte Gaien sailburuaren proposamenari jarraiki, Gobernu Batzordeak abenduaren 23ko 466/2013 Dekretua onetsi du. Horren bidez, Etxebizitza Hutsen Programa “Bizigune” arautu da eta programa publikoaren gaineko aurreko araudia bateratu da. Berritasun nagusia da etxebizitzak alokatzeko lagatzen dituzten jabeek jasoko duten kontraprestazioaren zenbatekoaren maximoa jaitsi dela (450 euro hilean).

Gaineratu duen beste berritasun bat honetan datza: etxebizitzarekin batera lagatzen diren altzari eta tresnei buruzko araudi zehatza; izan ere, aurreko atalean azaldu dugun moduan, erakunde honek horren beharra antzeman zuen eta ziur gaude etorkizunean etxebizitzak lagatzeko sinatzen diren kontratuetan gaineratuz gero, gatazkak saihestuko direla, itzultzen diren unean, etxebizitzaren programa publikoaren barruan dauden etxebizitzaren egoerari dagokionez.

Zenbait xedapen argitaratu dira birgaitzearen eta irisgarritasunaren arloan laguntzen emakida sustatzeko helburuarekin: [2013ko uztailaren 31ko agindua](#), horren bidez, Etxebizitza eta Eraikinen Birgaitze eraginkorraren alorreko Renove Planaren laguntza-programarako deialdia egiten da eta programa hori arautzen da; laguntza horien xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Ondare Eraikiko Esku-hartzeko Proiektuak egitea eta horien ondoriozko obrak egikaritzea da; [2013ko uztailaren 31ko agindua](#), horren bidez, hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko udalentsako, toki erakunde txikiak eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak arautu eta horietarako 2013ko deialdia egiten da eta [2013ko urriaren 23ko agindua](#), horren bidez, birgaitze integratuko aretan edo bizitegi area degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzak ematea arautzen duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindua aldatzen da.

Aurreko urteetan bezala, deialdi berri bat egin da babes ofizialeko etxebizitzaren titularrek (azalera-eskubidea daukatenek) lurzorua erosteko aukera eduki dezaten, izan ere, horren titulartasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio

Orokorrak dauka, [2013ko azaroaren 20ko aginduarekin](#) bat eginez. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren lurzorua erosteko baldintzak ezarri dira, lurzoru horretan azalera-eskubideko zenbait etxebizitza eraikita baitaude.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Gaien Sailak sustatu dituen ekimenen artean 2013-2016 Etxebizitzari buruzko Plan Zuzentzailea ageri da, Gobernu Batzordeak 2013ko abenduaren 23an onetsi zuena hain zuzen ere. Txosten hau itxi zen unean horren gaineko [laburpen exekutibo](#) bat argitaratu zen.

Etxebizitzari buruzko politika publikoaren plangintza egiteko agiri hori Eusko Legebiltzarraren aurrean aurkeztu behar da eta dagokion balorazioa eta ondoriozko legebiltzarreko ebazpenak jaso beharko ditu. Orduan, agiria osotasunean ikusi ostean, horren inguruko azterketa sakona egin ahalko dugu.

Estatuaren eremuan, aipatuko dugu alokairuan lagatzen diren etxebizitzaren merkaturak handitzeko xedearekin, hiri- alokairuen legea, alokairu pribatu edo publikoko kontratu guztietan aplikagarria dena, aldatu duela etxebizitzaren alokairuaren merkaturak malgutzeko eta sustatzeko neurriak buruzko [ekainaren 4ko 4/2013 Legeak](#), kontratu-harremnaren alderdi garrantzitsu batzuetan, hala nola, itun askatasuna, kontratuen iraupena eta kontratuen luzapenak. Modu berean, estatu mailako arau horrek zenbait aldaketa gaineratu ditu etxebizitzaren prozesu judizialean eta alokairuko errenten ez ordaintzei buruzko epai irmoen erregistroa sortu du.

Hiri- alokairuak erregulatzen dituen araudiaren funtsezko izaeraren ondorioz alokairuko erregimenean etxebizitzak lagatzen dituzten herri-administrazioek 2013ko ekainaren 6tik aurrera sinatutako alokairuko kontratuak egokitu behar izan dituzte aipatutako 4/2013 Legeak gaineratu dituen aldaketak islatzeko.

Amaitzeko [Europako Parlamentuaren 2013ko ekainaren 11ko ebazpen](#) erabakigarria aipatu nahi dugu, Europar Batasunean gizarte etxebizitzari buruzkoa. Bertan, zenbait jarraibide eta proposamen jaso dira Europako estatuaren eta herrialdeen etorkizuneko jardura bideratzeko, gizarte etxebizitzaren arloko Europako politika sustatzeko eta gizarte etxebizitzaren zeregin sozial eta ekonomikoa bultzatzeko helburuarekin.

4.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Ohiko etxebizitza erosteko hipoteka maileguak ordaindu ez izanagatik etxebizitzaren saihesteko asmoz sortutako [Eusko Jaurlaritzaren Familien Gaiak](#) [Laguntzeko Zerbitzuari](#) esleitutako funtzioaren garrantzia

dela-eta, aurreko ofiziozko jardura bat abian jarri dugu, 2012ko maiatzean funtzionatzen hasi zenetik, zerbitzu horren funtzionamenduari eta lortutako emaitzei buruzko informazioa biltze aldera.

Zerbitzu hori kontsumo, justizia eta etxebizitza arloetan eskumenak dituzten sailen arteko elkarlaneko izaera transbertsalarekin eratu zenez, lankidetzak eskaerak bidali izan dizkiegu Herri Administrazio eta Justizia Sailari eta Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari.

Txosten hau egin zen unean eta bi sailei eskatutako informazioa bidaltzeko emandako epea behin amaituta, ez genituen zegozkion txostenak jaso. Horregatik, ezin izan dugu egin nahi genuen azterketa burutu. Espero dugu hurrengo ekitaldian egiteko aukera izatea.

Modu berean, etxebizitzaren arazoari lotuta, aurreko herri-administrazioetako, talde politikotako eta zenbait elkartetako ordezkariarekin batera Gasteizko Udalak antolatutako jardunaldi batean parte hartzeko aukera izan dugu. Jardunaldiak helburu bikoitza zuen: lehenengoa, etxebizitzaren prozesuan eragile bakoitzak gauzatzen duen lana komunean jartzea eta, bigarrena, “eragile guztiek sinatuko duten ondorioen eta gomendioen baterako agiria” idaztea.

Oso positibotzat jo genuen ekimen horrek –izan ere, gure iritziz, jardura mota hori herri-administrazioek krisi garai hauetan agerian jarri den arazo larrietako bat gelditzeko sustatu behar dituzten neurrien adibide argia da– oraindik ez du bigarren helburua lortu baina espero dugu datozen hilabeteetan “eragile guztiek sinatuko duten ondorioen eta gomendioen baterako agiria” sinatzeko adostasun nahikoa lortzea.

5.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Krisi ekonomiko eta sozial larria dela-eta euskal herri-administrazioek etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko eskubidearen eraginkortasuna bermatzera zuzendutako baliabideak sendotu behar dituzte, behar gehien dituzten pertsona eta familiak babesik gabe eta funtsezko izaera duen ondasunik gabe gera ez daitezela.

Ekonomiaren eta lanaren ezegonkortasuna da, hain zuzen ere, gure erkidegoan etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen lehentasuna alokairuko erregimena izatea eragin duena. Horrenbestez, herri-administrazioek alokairuko etxebizitza babestuen eskaintza modu nabarmenean handitu behar dute.

Era berean, herri-administrazioek berehala aztertu behar dute egungo alokairu publikoaren prezioak arrazoizkoak diren eta, beharrezkoa izanez gero, neurriak hartu behar dituzte etxebizitzaren ondoriozko gastua onargarria izan dadila eta

(II). EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN JARDUERA IKUSKATZEA

babes publikoko etxebizitzaren onuradunek gastu horri zailtasunik gabe aurre egin diezaioten.

Era berean, egokitzen jo dugu erosketaren erregimenean sustatutako etxebizitza babestuak erabiltzeko eta/edo esleitzeko formula berriak bultzatzea, hala nola, erosketaren aukera barne hartzen duen alokairua, alokatzeko behin-behineko baimena ematea, birkalifikatzea alokatze aldera, etab. Modu horretan,

finantzaziorik ezaren ondorioz erosketaren aukerarik ez duten esleipendunek etxebizitza gozatu ahalko dute.

Egungo inguruabarrak kontuan hartuta, nahitaezkoa da etxebizitza eta gizarte zerbitzuen arloetan eskumenak dituzten herri-administrazioen artean koordinazio mekanismoak ezartzea etxegabetzeak, pobrezia egoerak eta gizarte bazterkeria egoerak saihesteko helburuarekin.



**Arartekoaren
jarduerak**
arreta publikoa behar duten
taldeak babesteko



a t a l a

III. Atala

Arartekoaren jarduerak arreta publikoa behar duten taldeak babesteko

Arartekoaren lan-arloak gaikako banaketaren arabera egituratu izan dira beti. Banaketa hori osatzeko, Ararteko erakundearen jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazoan berriazko tratamendua egiten da.

Alde horretatik eta Ararteko erakundeak pertsona guztien eskubide guztiak bermatu behar dituela uste izanda, beharrezkotzat jo da beren eskubideak burutzean kalteren bat izan dezaketen talde batzuekin lehentasunez jardutea, ahultasun handiagoko balizko egoeran daude eta.

Arreta publikoa behar duten taldeen gaineko arlo horiei esker, ikuspegi praktikotik begiratuta, talde horiekin zerkusua duten gaiak bila eta aurki daitezke urteko txostenean, eta ikuspegi orokorra ematen dute. Baina garrantzitsuena zera da: talde horiek dituzten arazo eta beharrei berriaz erantzuteko eta beraien arazoak ikusarazteko jarduera-esparruak sortzeko asmoz eratu zirela. Gainera, talde horien inguruan estrategia koherentea burutzen laguntzen dute, talde bakoitzari dagokion arloko jarduera-planaren barruan.

Talde horiekin lehentasunez jarduteari eman nahi zaion garrantziak justifikatzen du urteko txostenean bakoitzak bere atala izatea, haien eskubideen gaineko berme-lan garrantzitsu hori balora dadin.

Aurreko bi urteetan egin zen moduan, Haur eta Nerabeentzako Bulegoa ikusgai egitea sustatu da. Bulego horrek berezko proiektzioa izango du, eta bereizitako tokia urteko txosten honetan, izan ere, txosten orokor honi erantsitako txosten batean bilduko da 2013an burutu duen jarduera.

Atal honetan, hamabi puntutan bildu dira arreta publikoko taldeez burutu diren jarduerak:

1. Familiak
2. Emakumeen berdintasuna eta osotasuna
3. Ezintasunen bat duten pertsonak
4. Gaixo kronikoak
5. Buruko gaixotasuna edo nahasmenduak dituzten pertsonak
6. Espetxeratuak
7. Gizarteratzea
8. Ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk
9. Etorkinak
10. Lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta transexualak
11. Adinekoak eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak
12. Talde terroristen biktimak

a t a l a

2011

Familiak



Aurrekariak



Botere publikoek familiak babesteko duten betebeharrak [Konstituzioaren](#) 39. artikuluan du azken oinarri juridikoa. Halaber, [Euskal Herriko Autonomi Estatutuak](#) 10-39. artikuluetan dio familien babesa eskumen eskusibokoa dela, estatutu-arauak “*komunitate-garapen, emakume kondizioaren arazo, eta haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika*” gisa definitzen dituen arloen barrukoa. Familiak, zalan-tzarik gabe, botere publiko guztien babes berezia behar du, pertsonen garapen osorako euskarri material eta afektiboa izatearen funtzio ezinbestekoa baitu, bai eta egiteko kuantitatibo eta kualitatibo bat ere, adingabeei, adinekoei eta gaixotasunagatik edo mendekotasunagatik premia bereziak dituzten pertsonen arreta emanez betetzen duena.

Arartekoak, arlo honetan, familiak babesteko politika publikoak bultzatu eta indartu daitezten sustatzen du, familia-eredu askotarikoen garrantzia kontuan hartuta. Zuzenbideak aintzatetsiak ditu familia-ereduok, eta zenbait kasutan arreta berezia behar izango dute, beren funtzioak betetzeko behar dituzten prestazio guztiak erabateko berdintasunez eskuratzeko. Era berean, familiak babesteko politika publiko horiekin loturiko herritarren kexak bideratzen ditugu, baita horiei arreta eskaintzea helburu duen beste edozein jarduera publiko ere.

1.

Kexarik aipagarrienak

1.1. Seme-alabengatik eta lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko laguntzen atzerapenak

laz gertatu zen moduan, azpimarratu behar dugu arlo honetan 2013an jaso diren kexa gehienek [Eusko Jaurlaritzaren 177/2010 Dekretua](#), familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa, eta [255/2006 Dekretua](#), seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen, aplikatzearen ondoriozko laguntzak izapidetzean eta jasotzean atzerapena egon dela aipatu dutela. Egiaz, espediente horiek era positiboan ebatzi dira gobernuan ordainketei aurre egiteko beharrezkoak diren bitartekoak aktibatu eta gero, eta kexagileen kobratzeko itxaropenak kasu guztietan bete dira.

1.2. Laguntzak eskuratzeko betekizunak formalki ez betetzea

Kontu hori aurrekoarekin lotuta dagoen arren, kasu hauek desberdinak dira: laguntzak ukatu dira eskuratzeko betekizunak –hala nola, EAEn administrazio-egoitza edukitzea seme-alabak jaiotzeagatik laguntzak eskuratzeko– bete ez direlako. Kasu horietan, antzeman dugu administrazioaren jarduna zorrotzagoa izan dela betekizunak materialki bete direnean baina ez direnean behar bezala frogatu zegoen prozedura-unean, hau da, prozedura hasteko eskaerarekin batera edo, hori ezean, geroko 10 eguneko zuzenketa-izapidean (denbora hori askotan laburregia da, bereziki beste herrialde batzuetako administrazioetan dagoen dokumentazioa eman behar denean, adibidez atzeritarren kasuan).

Alegia, akats formalak dagokion izapidean behar bezala zuzendu ez direnean, administrazioak ez du onartzen errekurtsuaren izapidean betekizunak materialki bete direla egiaztatzeagatik ematea. Agerikoa da legearen ikuspuntu formal batetik jardun hori zuzena dela eta Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen [30/1992 Legearen](#) 112. artikulua era nahikoan babesten duela, ez baitu onartzen espedientean epea kanpo erantsitako dokumentazioa kontuan izatea.

Hala ere, uste dugu garrantzitsua dela interesdunei prozeduraren hasieratik bertatik behar bezala eta era nahikoan azaltzea zein dokumentazio zehatz eman behar duten. Informazio hori –beharrezkoa bada– zuzenketa-izapidean zehaztasun nahikoekin errepikatu beharko da. Horrela, laguntzak eskuratzeko betekizunak erabat betetzen dituzten eta behar bezala ez egiaztatzeagatik ezeta jaso duten pertsonen frustrazioa saihestuko litzakete, kasu gehienetan eman behar zuten dokumentazioa ez jakiteagatik soilik gertatzen baita.

Puntu honetan nabarmendu behar dugu, aurreko urteetan egin dugun bezala, komenigarria dela seme-alabak jaiotzeagatik laguntzen emakida automatizatzea, interesdunentzat gero eta konplexuagoa den eskaera-izapidearen menpe ez egoteko. Izan ere, izapide horren ondorioz laguntzen onuradunak izan litezkeen pertsona askok ez dituzte jasotzen.

1.3. Banantzea gertatu denean zaintza ez daukaten gurasoei bateratzeko laguntzak ez onartzea

Lehen ere aipatu dugun gai errepikaria da. 177/2010 Dekretuak, banantzea gertatu denean bateratzeko laguntzak eskuratzeko, legezko zaintza edukitzea eskatzen du. Izan ere, horrela ez bada, gurasoa ezin da laguntzaren onuraduna izan, kontuan izan gabe zenbat denbora ematen duen materialki seme-alabak zaintzen, nahiz eta denbora horrek eragina izan lanaldia laburtzeko eskatzeko beharrean –horrek, printzipioz, laguntza eskatzea justifikatuko luke–. Arau horrek, berriz, judizialki onartutako zaintza partekatua duten gurasoei bateratzeko laguntzak eskatzeko aukera onartzen die (kasu horretan, bi gurasoek laguntza horiek modu proportzionalean eska litzakete). Nolanahi ere, ezin dituzte laguntza horiek eskatu zaintza ez duten gurasoek –formalki beste bikotekideari soilik onartu baitzaio–, bisita-erregimena bateratzeko laguntzak eskuratu nahi dituen bikotekidearentzat oso zabala izan arren.

Jadanik aipatu da Gizarte Gaietako Sailari 177/2010 Dekretua puntu horri dagokionez erreformatzeko egin diogun eskaera, hain zuzen ere betekizun hori seme-alabekin igarotako denbora erreala aintzat hartuz malgutzeko. Eusko Jaureritzako [Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak](#) berak jakinarazi digunez, aipatutako dekretua erreformatzea aurreikusita daukate eta gogoeta horiek eta aldatzeko prozesuan sor litezkeen aztertuko dituzte. Dena den, ez dugu alderdi zehatz horri dagokionez arauaren irismen subjektiboa aldatuko dutelako konpromisorik lortu.

1.4. Seme-alaben adina laguntzak jasotzeko

Seme-alaben adina ere arlo honetan jaso ditugun kexen arrazoi errepikari gisa agertzen den gaia da. Alde batetik, adin-zenbaketek batzuetan laguntza horien onuradunei nahasmendua sortzen dietela agerian jarri da. Hori gertatzen da **bigarren edo hirugarren seme-alaba jaiotzeagatiko laguntzak** direnean, haurren adinen arabera mugak baitituzte eta horiek jaito diren urteko unearen menpe baitaude. Horrek batzuetan azkenean ematen ez diren laguntzen zain egotea ekartzen du.

Halaber, adina kexatzeko arrazoa da **bateratzeko laguntzen** kasuetan seme-alabek 8 urte baino gehiago dituztenean. Halakoetan, arauaren erregulazioaren eta errealitatearen arteko dikotomia sortzen da, adibidez enplegatu publikoen kasuan, haiek lanaldi laburragoa izan baitezakete haien seme-alabek 12 urte bete arte, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren [apirilaren 12ko 7/2007 Legeak](#) horrela onartzen dielako. Bestetik, hori hain zuzen ere sektore pribatuko langileentzat kexatzeko arrazoa da, haien ustez erregulazio hori konparaziozko bidegabekeria baita. Izan ere, haiek ez daukate horrelako babesik, [Langileen Estatutuak](#) (Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua) bateratzeko eskubide hori adingabeak 8 urte dituen arte baino ez baitu bermatzen.

Ararteko erakundean badakigu erregulazioaren desberdintasun horiek, justifikatzen dituen babes materialik gabekoek, langileei **sistema juridikoa bidegabea eta inkoherentea delako sentsazioa** sortzen dietela. Nabaria denez, gaur egungo *status quo*a aldatu nahi duen edonolako legezko erreforma bat sustatzea ez dago gure esku. Euskadiko 177/2010 Dekretua, bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa, erregulatzeari dagokionez –horren bitartez, laguntza horiek eskuratu nahi dituzten onuradunen seme-alaben adin-muga 8 urtekoa dela xedatu da–, sektore pribatuan lan egiten dutenek bateragarri egiteko ezarrita dagoen legezko mugarekin koherentea da, baina ez die sektore publikoan lan egiten dutenei erantzuten.

Desberdintasun horiek erabat deuseztatu behar dira, bateratzea gure ekonomia-ereduaren iraunkortasunaren funtsezko xedetzat hartzen duten politikei ekinez. Politika horien irismena herritarren eskubideen balorazioan aipatuko dugu berriro, familiei buruzko atal honen amaieran.

1.5. Guraso bakarreko familien errealitatea onartzea

Urtero guraso bakarreko familien kexak jasotzen jarraitzen dugu, haien familia estatusa onartua izateko eta seme-alabengatik dagozkien hobariak eskuratzeko zailtasunak dituztelako, kontuan izanda familiako titular bakar bat seme-alaben arretaz eta hezkuntzaz arduratzeak dakarren zailtasun erantsiak. Gure toki-administrazioetan familia horiek oso modu desberdinetan onartzen direla igarri dugu (berezi udal-kiroldegien esparruan). Izan ere, kasu batzuetan guraso bakarreko familien berezitasuna erabat onartzen eta aintzat hartzen dute, baina beste batzuetan ez dute errealitate hori inola ere ezagutzen, eta horrek kalte nabaria eragiten die mota horretako familiei. Horrek guztiak pentsarazten digu euskal herri-administrazio guztiak berdin onartu behar dituzten familien kategoriak zehatz-mehatz erregulatu behar direla –familiei laguntzeko [abenduaren 12ko 13/2008 Legea](#) garatuz–, familia horiei emandako tratuan justifikatu ezin diren desberdintasunak ezabatzeko, egoera ahulagoan edo larriagoan daudenei kalte nabarmena eragiten baitiete.

1.6. Izena eman ez duten izateko bikoteak onartzea etxebizitza babestuak eskuratzeko

Azkenik, etxebizitza babestu baten esleipendun baten kasua aipatu behar dugu. Pertsona horri hasieran aipatutako etxebizitza erosteko bisa ukatu zioten, etxebizitza babestua eskatu baino bi urte lehenagotik etxebizitzarik ez edukitzearen betekizuna betetzen ez zuela pentsatu baitzen. Herritar horrek, aurreko bikotekide egonkorrekin hautsi eta gero, elkarrekin zeukaten etxebizitza saldu behar izan zuen. Hala ere, ez zeuden zegokien izateko Bikoteen Erregistroan izena emanda. Izena eman ez zutenez, administrazioak ondorioztatu zuen ez zegoela bikote egonkorren haurtagatik elkarrekin zeukaten etxebizitzaren salmentaren

kasuaren barruan (horrek ez betetzea justifikatzen du eta alde zuzenetik etxebizitzarik ez edukitzearen betekizunaren salbuespena hartzen da). Hori dela eta, administrazioak etxebizitza babestuen salerosketa-kontratuak hobetzeko behar zuen bidea ukatu zion. Gure esku-hartzearen ostean, Eusko Jaurlaritzako [Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak](#) kasu horretarako interpretazio-irizpide hori zuzendu du, eta erabaki du etorkizunean izateko bikoteen onarpena malgutuko duela etxebizitza babestuen esparruari dagokionez. Interpretazio-aldaketa horren garrantzia kontuan hartuta, erabakia hitzez hitz kopia dugu, erakunde honi jakinarazi dioten bezala: *“Sail honen irizpideak, izateko bikote bat eratu dela jotzeko irizpidea aldatu behar da etxebizitza-premia izateko eskakizunari dagokionez. Horrela, baldin eta zuzenbideak onartutako beste bitarteko batek –Izateko Bikoteen Erregistroan izena ematea ez dena– frogatzen badu izateko bikote bat eratu dela, egoera salbuespeneko dela onartu behar da”*. Etxebizitza arloa aztertzen duen txosten honen atalean aipatuko dugu gai hori zehaztasun gehiagorekin.

2.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

Euskal Autonomia Erkidegoan, familiei laguntzeko politika publikoetarako oinarriak ezartzen dituen lege- eta arau-esparrua, lehenik eta behin, familiei laguntzeko [abenduaren 12ko 13/2008 Legeak](#) eratu du; horren bidez, arlo horretan izan beharreko esku-hartze publikoaren oinarriak eta printzipioak ezarri dira. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak azken urteetan familiei laguntzeko araudi bat egin du, eta hori da seme-alabengatiko diru-laguntzak arautzen dituen oinarria, bai eta familiako bizitza eta lana bateragarri egiten laguntzeko oinarria ere. Gaur egun arlo horien gainean indarrean dauden arau esanguratsuenak honako hauek dira: [255/2006 Dekretua](#), [abenduaren 19koa](#), seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena, eta [177/2010 Dekretua](#), [ekainaren 29koa](#), familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa. Azkenik, araudi hori familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko [uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuaren](#) bidez osatu da. Dekretu horrek, 13/2008 Legearen 6. artikulua garatuz, familia-errenta estandarizatzeko sistemak ezarri ditu, hain zuzen ere, familia-egoera eta –mota guztiak ekitatez tratatu ahal izateko. Sistema horiek familientzako laguntza ekonomikoetan edo familiei laguntzeko zerbitzuetan aplikatzekoak dira, baldin eta familia-unitatearen maila ekonomikoa laguntza edo zerbitzu horietara iristeko baldintza bada, edo prestazio horren zenbatekoa edo zerbitzuagatik ordainduko den zatia zehazteko irizpidea bada. Familia-errentak estandarizatzeko sistema horiek baliokidetasun-sistemak dira, errenta neurtzeko gai direnak, ez

bakarrik familia-unitateko kide-kopuruaren arabera, baizik eta baita ere unitatearen osamoduaren arabera. Izan ere, kontuan izan behar da ezen, diru-sarreraren maila berbera duten baina osamodu desberdina duten familia-unitateek, ez dutela izaten gaitasun ekonomiko berbera, erosteko ahalmenari eta bizi-kalitateari dagokionez.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan familiei laguntzeko politika publikoen ildoak eta norabideak familiei laguntzeko erakundeen arteko planetan jasota daude. Horien abiapuntua Familiei Laguntzeko Erakundeen Arteko I. Plana izan zen; izan ere, familiei laguntzeko sistema unibertsal, integral eta koordinatu bat lortzeko bidearen hasiera izan zen hori, eta horren ondoren [Familiei Laguntzeko Erakundeen Arteko II Plana](#) etorri zen, 2006tik 2010era bitarteko aldirako programaturikoa; dena dela, urtebete gehiagoko indarraldia eman zioten.

2013. urtea [Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana \(2011-2015\)](#) indarrean egon den bigarren urtea izan da. Plana Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartu zuen 2011ko abenduaren 27an. Plan horrek datozen bost urteetan familiei laguntzeko politika publikoak lotuko dituen estrategia eta helburuen esparrua ezartzen du.

Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak, Euskadin familiei laguntzeko autonomiako politika publikoak zuzentzeko eta ezartzeko organo eskuduna den heinean, **jardun-esparruei eta ekintza estrategikoei lehenetasuna emateko lan-prozesu bat sortzea erabaki du 2013. urtean**. Horrela, aipatutako Erakunde Arteko III. Plana Familien Euskal Behatokiak antzematen dituen errealitate eta premia berrietara egokituko du. 2013-2016ko legealdirako, planean jasotako 32 neurri erantzuten dieten 16 ekintza estrategiko hautatu dira. Era berean, zeharkako ekintzak gehitu dira, esaterako erakundeen arteko (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta [EUDEL](#)) lanmahai bat sortzea eta lehenetsitako ekintzen garapenari eta ebaluazioari buruzko txosten bat egitea. Lehenetsunez sustatu nahi diren eremuetako gai azpimarragarrienak hauek dira:

- Familiako bizitza, bizitza pertsonala eta lanbidea bateratzea:
 - Sektore pribatuko enplegua xede duten neurriak.
 - Sektore publikoko enplegua xede duten neurriak.
 - Neurri esperimentalak.
 - Gizarte onarpenerako neurriak.
- Gurasotasun positiboa.
- Belaunaldien arteko elkartasuna.
- Diru-laguntzak.

3.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

2013. urterako egindako jarduteko planaren esparruan, arlo honetan egindako jardun nagusien berri emango dugu. Hain zuzen ere, agerian jarriko dugu zein izan diren Arartekoaren-tzat gai nagusiak familien arretaren arloan:

3.1. Euskadin familiak babesteko politika publikoen egoerari buruzko txosten berezia

2013. urtean zehar Euskadin familiak babesteko politika publikoen egoerari buruzko txosten berezia egin da. Eusko Legebiltzararentzako iazko txostenean horren hasieraren berri eman genuen jadanik. Aipatutako azterketa bereziaren azken fasean gaudenez, **2014an aurkeztuko diogu Eusko Legebiltzarrari**. Horren bitartez EAEko familia-politiken konparazio-diagnostiko bat egin nahi dugu, gure ingurune hurbileneko Europako herrialdeetan sustatutako politika aurreratu eta babesleenen alderatuz. Horrela, familiak babesteko sistema hobetzeko gomendio batzuk proposatuko ditugu, euskal botere publikoek Euskadiko familien eskaera eta premiei erantzun egokiago bat eman ahal izateko.

Lehen esan dugun moduan, familiaren kontzeptuaren ikuspegi zabala hartu dugu oinarri, haurrentzat, adinekoentzat eta ezgaitasunen bat, mendetasuna eta gaixotasunak dituzten pertsonentzat euskarria den giza bizikidetzako esparru gisa ulertuta. Ikuspuntu integral edo ez murriztaile horri esker, euskal familien errealitatera hobeto hurbiltzen diren hainbat familia-egoera kontuan hartu ahal izango ditugu, eta horrela Euskadin familiei laguntzeko politika publikoetan heldu behar zaien hobetzeko esparruen ikuskera oso bat edukiko dugu.

3.2. Bilera familia ugarien elkartearekin

Aurten ere bilera bat egin dugu **Hirukide** Euskadiko kide ugariko familien elkartearekin. Elkarte horrek –erakunde hau urtero biltzen da harekin familien arloa sortu zenetik– bere lan-ildo nagusiak eta botere publikoei egindako eskaerak ezagutarazi dizkigu. Arartekoak jaso egin ditu, aztertze eta, hala balegokio, tartean dauden administrazioei helarazteko asmoz. Hirukide elkarteak, familien beste elkarte batzuek bezala, aurreko atalean aipatu dugun eta egiten ari garen txosten bereziaren esparruan egin den landa-lanean eta informazio-bilketan parte hartu du. Txostenak, esan bezala, Euskadiko familien egoera du hizpide. Erakunde honetan familia ugarien egoera berezia kontuan izateko eta horri jaramon egiteko konpromisoa hartu dugu –aipatutako txostenaren esparruan–.

Hala eta guztiz ere, orobat uste dugu familia ugarien eskaera asko seme-alabak dituzten gainerako familiek egiten dituztenak direla, nahiz eta seme-alaba gehiago edukitzeak

eremu batzuetan laguntzak falta direla eta euskarri publikoa nahikoa ez dela areago nabarmendu.

Nolanahi ere, elkarte horri adierazi diogu 2014. urtean jendurrean aurkeztuko dugun txostenean haren eskaeretako batzuk aintzat hartuko ditugula, bidezkoak eta arrazoizkoak deritzegulako, kontuan izanda familia askori eragiten dietela eta, beraz, askotan botere publikoei seme-alabak dituzten familien premia gisa aurkeztu behar zaizkiela. Testuinguru horretan, aurreratu dezakegu beharrezko helburutzat daukagula gure babes-mailak, seme-alabak dituzten familiei dago-kenez, familiak babesteko politika indartsuak garatu dituzten Europako herrialdeen estandarretara helaraztea. Helburu horri laster argitaratuko den txostenean ekingo diogu eta botere publikoei helaraziko diegu.

3.3. Beste harreman eta bilera batzuk elkarte-sarearekin

Lehen aipatu dugun txosten berezia dela-eta, 2013an zehar, ahultasun bereziko inguruabarrak edo eskaera espezifikokoak dituzten familien elkarte sorta handi batekin harremanak eta bilerak izan ditugu (gaixotasun fisikoak edo buruko gaixotasunak dituzten pertsonen senideen elkarteak, etorkinen familienak, familia ijitoenak, ezgaitasunen bat duten pertsonen familienak, genero-indarkeriaren biktimen familienak, familia ugariarenak, familia homoparentalenak, adopzioegileen familienak, guraso bananduenak, guraso bakarreko familienak, familia abegi-hartzaileenak, e.a.). Elkarte horiek erakunde honi eskaini dioten lankidetzak eskuzabala oso baliotsua eta erabilgarria izan da. Izan ere, euren ikuspuntuarekin euskal familien gaur egungo egoeraren diagnostiko egokiago bat egiten lagundu dute.

3.4. Bilerak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako Sailburuordetzarekin

2013an, Eusko Jaurlaritzako familia gaietako zuzendaritza eskuduneko arduradun eta langile teknikoaren eta Ararteko erakundearen arteko beste bilerez gain, **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko** Gizarte Gaietako Sailburuordetzako arduradunekin bilera bat egin dugu. Haren bi zuzendaritzak egon ziren bertan, eta haietako bat, hain zuzen ere, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza da, hots, aztertzen ari garen arloko arduraduna (baita beste gai batzuetakoa ere). Bilera horretan erakunde hau kezkatzen duten eta aipatutako zuzendaritzaren eskumenei dagozkien kontuei era sistematikoan heldu diegu eta egiaztatu ditugu. Era berean, erakunde biek familiei arretea emateko egiten duten lanaren inguruko informazio orokorra trukatu dugu. Eztabaidatutako gai azpimarragarrienak honakoak izan dira:

- Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko eta bateragarri egiteko diru-laguntzei buruzko arauak –**255/2006 Dekretuak** eta **bateragarri egiteko laguntzei buruzko 177/2010 Dekretuak**, hurrenez hurren– onartutako laguntzak ordaintzean egon diren atzerapenak. Esan digute ordainketa guztiak eguneratu direla eta ez dela atzerapen gehiagorik egongo.

- Bateragarri egiteko laguntzei buruzko 177/2010 Dekretuaren onuradunen esparrua zabaltzeko beharra, zaintza ez daukaten gurasoak barne hartuz zaintza daukaten gurasoei eskuarki laguntza horien onuradun izateko eskatzen zaien adina denbora ematen dutenean seme-alabak zaintzen. Ezin dute arau horren aplikazioa aldatzeko konpromisoa hartu, baina, etorkizunean bi dekretuak erreformatzeko prozesu bat hasiko denez, adierazi digute berrikustean egin geniezazkiekeen proposamen eta balorazio guztiak kontuan hartuko dituztela.
- Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planaren ezarpena: esan digute lehentasunezko lan-arlo batzuk finkatu behar izan direla planari berehalako etorkizunean erreialismoz heltzeko. Arlo horiek lehen aipatu ditugu, testuinguru arauemaile eta sozialari buruzko atalean. Modu positiboan baloratzen dugu lehenespene horren bitartez bateratzeari eman nahi dioten nagusitasunari. Hala ere, orobat kezkatuta gaude familiei diru-laguntzak murriztu liezazkieketelako seme-alabengatikoa laguntzei buruz eta bateratzeko laguntzei buruz aurreikusita dagoen araudia-
ren erreformaren ondorioz.

3.5. Parte hartzea foro eta jardunaldietan

Ararteko erakundeak familiei zuzenean eragiten dieten gai-ekin lotutako hainbat foro eta jardunalditan parte hartu du. Horrela, 2013an bereziki azpimarratu behar dugu **partekatutako zaintzari** buruzko zenbait jardunalditan parte hartu dugula (**Emakundek** Bilbon 2013ko urriaren 7an antolatutako jardunaldian, Emakume eta Gizonezkoen arteko Berdintasunerako X. Gunearen esparruan: *“Eztabaidaren egoera, partekatutako kustosdiari buruz ikuspegiak eta jarrera hartzeak”*; eta Kideztzak urriaren 4an eta 5ean Bilbon antolatutako jardunaldietan: *Gurasoen erantzukizun partekatuari buruzko jardunaldiak*). Gai horren inguruan nolabaiteko eztabaida soziala sortu da, 2013. urtean Eusko Legebiltzarraren aurrean gai horri buruzko legegintzako ekimen bat aurkeztu izanaren ondorioz.

Hain zuzen ere, 2013ko abenduan, ekimen hori zela-eta eta Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordeak hala eskatuta, Arartekoak legebiltzarreko agerraldian kontu horren inguruan erakunde gisa zein jarrera daukagun adierazteko aukera izan du. **Arartekoaren 1/2010 Gomendio Orokorrak** luze jaso du erakunde honek horri buruz daukan jarrera: laburbilduz, bikotea hautsi eta gero seme-alabak zaintzeko araubidea erregulatzerakoan, funtsezkoa da desadostasunez egonez gero bikoteak seme-alabak zaintzeari eta hezteari dagokienez –hautsi baino lehen, hautsi bitartean eta hautsi eta gero– bizi dituen baldintza errealk era objektiboan argitzeko prozedura bat ziurtatzea. Horren xedea da **adingabearen interes gorena eta bi gurasoen berdintasunaren eta erantzukizun partekatua-
ren helburua bateratzea ahalbidetzen duen zaintza-
araubidea ezartzea, apriorismorik gabe**, araubide horrek –ez da hori ahaztu behar– halaber seme-alaben bizi-baldintzak hobeto garatzen laguntzen baitu, funtsean.

Zentzu horretan, honelako legezko erregulazio bat nahiago dugu: aldean arteko akordioaz haraindi joaten dena (jakina,

akordio hori gailenduko litzateke, egonez gero) eta organo judizialari, hala balegokio, partekatutako zaintza dekretatzeko aukera ematen diona, era nahikoan familia-egoera zehatzaren inguruabar guztiak neurtu ostean kargura dauden adingabeentzat, haien egonkortasun afektibo eta materiale-
rako eta, azken finean, bi gurasoein egoteko eskubiderako hobe izango dela uste duenean.

4.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

Familiei publikoki laguntzea banakoei euren giza garapenean laguntzea dela kontuan hartuta, norbanakoaren eta gizarte-eskubideak lortzeko eta premia gehien dutenak (adingabeak, adinekoak, gaixotasunen bat edo mendekotasuna duten pertsonak) bereziki babesteko, erakunde honek uste du **familiei laguntzea gizarte-estatu mantentzeko ezinbesteko estrategia publikoa dela**; beraz, **krisiaren testuinguruan**, inoiz baino gehiago, **familia-politikak gizartearen kohe-
sioa bermatzeko eta** garai hauetan horrenbeste ageri den **pobrezia eta gizarte desegituraketa saihesteko inbertsio publiko onena dira**.

Gogorarazi nahi dugu familien arloan jardutea ez dela bakarrik laguntza publikoak edo diru-laguntzak emateko politikak gauzatzea (bereziki seme-alabak edukitzeari, mendeko pertsoneri, lanbidea eta familiako bizitza bateratzeari eta abarri dagokienez); izan ere, horretaz gain, eta gero eta gehiago, kulturarekin, gizartearekin eta ekonomiarekin lotutako aldaketa sakonak sustatu behar dira, familien premiak gure ekonomia-jardueran erabat sartzeko ikuspuntu berriak eratzeko. Botere publikoak pentsamoldea aldatzeko prozesuen buru izan behar dira, zaintzaren, etxeko lanen, atsedenean, aisiaren, giza harremanen eta gizartean parte hartzeko bestelako moduen (bai borondatezkoak bai soldatapekoak ez direnak) beharrezko tokia –eta balio nagusia– onartzeko.

Arlo honetan antzemandako arazo eta hobetzeko eremu nagusiak honakoak dira:

■ Seme-alabengatikoa laguntzak automatizatzea

Jasotako kexen bidez laguntza horiek kudeatzeko arazoak daudela ikusi dugu. Horietako asko laguntzak eskatzeak eta eskuratzeko betekizunak betetzen direla frogatzen duen dokumentazioa emateko izapideek interesdunentzat dituzten zailtasunekin lotuta daude. Gure ustez, laguntza horiek seme-alabak dituzten familientzako euskari ekonomiko unibertsaltzat jotzen badira, **ofizioz hasitako emakidarako sistema automatizatu bat prestatu** beharko litzateke, eta horretarako euskal administrazioen esku dauden datuetara eta dokumentaziora jo beharko litzateke. Horretarako, desiragarria litzateke seme-alabak jaiotzen direnean edo adoptatzen direnean automatikotasuna nagusi duen eta gurasoei,

gaur egun ez bezala, laguntza horiek epe eta forma jakin batean eskatzearen zama ematen ez dien laguntzen prozedura berri bat sustatzea.

Bestalde, gure iritziz, zerga-sistema familia-egoera desberdinetarako laguntza publikoa antolatzeke tresna erabilgarria bihurtu beharko litzateke, eta horrela adieraziko dugu zehaztasun gehiagorekin 2014an argitaratuko den Euskadiko familien egoerari buruzko txosten berezian.

■ Familia-kategoria jakin batzuen definizioa, bereziki guraso bakarreko familiak

Familiei laguntzeko [abenduaren 12ko 13/2008 Legeak](#) herri-administrazioak oztopoak gainditzera eta oso egoera ahulean dauden familien alde egiteko jarduketa-neurri positiboak hartzera behartzen dituen arren, gure legeriak, esate baterako Kataluniakoak ez bezala, ez dauka definiziorik edo zedarritze-jarraibiderik guraso bakarreko familien eremuan zein familia-unitate sartzen diren zehatz samar identifikatzeko, eta, ondorioz, zalantzak sortzen dira dauden onurak aplikatzerakoan. Arazo horixe hainbat esparrutan azaldu da, hala nola, udal kirol-instalazioetan familientzat sorturiko tarifa hobaridunak eskuratzean. Toki-erakundeak, oro har, estaldura zabaltzearen alde egon ohi dira, baina lurraldearen edo udalerriaren arabera tratu desberdinak sortzen dituzten ikuspegi ezberdinek irauten dute. Gainera, guraso bakarreko familietako gurasoen kexak jasotzen ditugu sistematikoki. Horien bitartez, harridura adierazten dute familia horientzako laguntza berezirik ez dagoelako, mota horretako familiak zailtasun handiagoko egoeretan egon daitezkeen arren, ekonomia-esparruan ez ezik bateratzearen esparruan ere.

Arrazoi horientatik, uste dugu guraso bakarreko familiak era argian onartuta egon beharko lirakeela, euskal herri-administrazio guztiek modu berean aintzat hartzen dituztela ziurta dadin. Onarpen horretarako, familien kategoriak zehatz-mehatz erregulatu beharko lirakeke –familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea garatuz–, familia horiei emandako tratuan justifikatu ezin diren desberdintasunak ezabatzeko jarduketa-parametro bat finkatzeko euskal herri-administrazio guztietarako, egoera ahulagoan edo larriagoan daudenei kalte nabarmena eragiten baitiete.

■ Familiako bizitza, bizitza pertsonala eta lanbidea bateratzea

Kargura dauzkaten pertsonak zaintzen denbora gehiago emateko lanaldiak laburtu edo eszedentziak eskatzen dituztenen egoerari laguntzeko diru-laguntzak partzialki arintzeko neurriak baino ez dira jasotzen dituztenentzat. Jasotako

kexen inguruan eta familien elkarrekin ditugun harremanen inguruan egin dugun balorazioak pentsarazten digu –aspalditik adierazi dugun moduan– gaur egun lanbidea eta familiako bizitza bateratzea familien kezka nagusia ez ezik gizartearen eta ekonomiaren antolaketa osoa arrakastatsua izateko gai garrantzitsu bat ere badela, oro har.

Gero eta beharrezkoagoa da, bereziki krisiko garaian, **denbora antolatzeke planteamendu global berriak** nabarmentzea, **lana gure bizitzen erdialdea izatea zalantzan jartzen dutenak eta norbanakoaren eta familien premiak era nahikoan betez lanbideari eustea ahalbidetzen dutenak.**

Gainera, pertsonak artatzeko eta **zaintzeko erantzukizun partekatua** nahitaezkoa da sexuen arteko berdintasunaren printzipioa betetzeko, soilik **bateratzen duen gizarte baterako oinarriak sakonki garatzen baditugu** izango baita bideragarri. Horrela ez bada, pertsonak artatzeko eta zaintzeko tokirik uzten ez duen eta, beraz, gizalegez bideragarria ezin izan daitekeen gizarte-eredu bat eraikiko dugu.

Hori dela eta, botere publiko guztiei dagokie **bateratzea gure ekonomia-ereduaren iraunkortasunaren funtsezko xedetzat hartzen duten politikiei** ekitea. Estatuko botereei ere badagokie, noski, gure autonomia-eremutik susta daitezkeen bateratzeko neurri batzuen irismena legearen arabera kokatu eta baldintzatzen baitute euren eskumen-eremutik.

Euskal herri-administrazioei dagokienez, egia da helburu horrekin **bateratzeko diskurtso berritzaile eta ausartago baten buru izan** behar direla. **Diskurtso horrek pertsonen bizitzetarako gero eta eutsiezinagoa den eta gure gizartearen demografian eta gure bizi-kalitatearen hondatzean eragin nabarmena duen eredu bat zeharo zalantzan jarri behar du.** Horretarako, gai horrek gehiago ukitzen dituen eragileak –hala nola, enpresak– sozialki sentsibilizatzeko lan egin behar da, eta kontu hori botere publikoaren instantzia guztietako agenda politikoetan lehentasunezko gai gisa sartzea lortu behar da.

Pozgarria da Eusko Jaurlaritzak bateratzea sustatzeko politikiei lehentasuna eman nahi izatea, arlo hori legealdi honetan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana garatzeko jarduteko eremu lehenetsizat hautatu baitu. Hala eta guztiz ere, **ekintza hori zeharkakoa** da, eta ezin da sozialki sentsibilizatzeko neurrietara edo bateratzeko diru-laguntza puntualak ematera mugatu. **Gure sistema ekonomiko eta politiko osoa denbora arrazionalizatzeko eta zaintzari berriro balioa emateko diskurtso berri baten eraginpean jarri** behar da, **arreta nagusiki pertsonengan eta ez produktzioan jartzeko.**

a t a l a

2.

**Emakumeen berdintasuna
eta osotasuna**



Aurrekariak



Arartekoak, pertsonen eskubideak defendatzeko lanen barruan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipio konstituzionala ([EK 14. artikulua](#)) betetzen dela ziurtatu eta defendatzeko funtzioa dauka. Horretarako, euskal agintari publiko guztiei eskatzen die beharrezko neurriak har ditzatela, berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipio hori ez dadin postulatu formal hutsa izanik, baizik eta erreala eta eraginkorra bihur dadin, horretarako helburu hori zailtzen duten oztopoak era aktiboan baztertuz ([EK 9.2 artikulua](#)).

Berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren eskubidean egiten den edozein urraketari dagokionez **euskal herri-administrazioen jarduerak edo jarduera-faltak kontrolatzea** da, funtsean, Arartekoak berdintasunaren arloan duen funtzioa, **bai ikuspegi formaletik, bai ikuspegi materialetik**. Eremu horretan, geroz eta garrantzitsuagoa bilakatzen ari da administrazio desberdinei berdintasun materiala lortzeko ekintza positiboak martxan jartzeko eskatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako [Eusko Legebiltzarren 4/2005 Legeak](#) eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako [3/2007 Lege Organikoak](#) ezarritako parametroen arabera, lehen aipatutako aurreikuspen konstituzionalak garatuz.

Genero-indarkeria ere erakunde honen arduraren nagusietako bat da, eta, ondorioz, arlo honetan egiten dugun lanaren zati handi bat horretan oinarritzen da. Hala, gure funtzioen artean ezinbesteko lehentasuna daukate genero-indarkeria ezabatzeko borroka eta ahaleginak, jakin badakigulako emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoia emakume eta gizonen arteko egitura-desberdintasunean aurkitzen dela.

Arlo honetako jardueran proiektatzen dira, era berean, **emakumeen herritartasun oso eta aktiboaren eta protagonismo sozialaren** alde egiten duten ekimen desberdinen **sustapen eta bultzada**, oraindik emakumeak gizonen aldean gutxiesten dituzten inertzia kultural eta sozialen aurrean.

1.

Kexarik aipagarrienak

1.1. Emakumeen bereizkeria kulturaren eta kirolaren arloan

Aurten ere, kultura-eremuetako emakumeen berdintasunaren kontuak erakunde honen esku-hartzea sustatu du. Zehazki, gai horrekin lotuta erreklamazioetan ageri diren kontuak honakoak dira:

- Alde batetik, **emakumeek alardeetan** parte hartzeko duten arazoak, berriro ere, gure esku-hartzeari bidea eman dio. Oraingo honetan, emakumeen toki-elkarte baten egindako kontsulta baten ondorioz izan da. Izan ere, **Irungo Udalaren udal-ordenantza baten zirriborroa** aztertzeko eskatu ziguten. **Horren helburua ekitaldi-jarduerak izenekoak baimentzeko araubidea zehazki erregulatzea zen, eta ekitaldi horien artean alardeen antolaketa berariaz aipatu zen.** Ordenantzaren zirriborro horrek gure erakundearen eragin duen kezka nagusia da **Irungo Udalak arau-ekimen horren bidez alardea antolatzeko adierazi dituen era diferenteetan tratu desberdina** egon daitekeela. Izan ere, desberdintasun hori kaltegarria izan daiteke, eta, nolatan ere, ordenamendu juridikoarekin bat eginez aztertu behar da, eta bereziki pertsonen sexu-berdintasuna erregulatzen duten arau juridikoekin bat eginez. Horrela, Irungo Udalaritzaren zuzenean dagokion **emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren halabeharrezko sustapenaren** ikuspuntutik, bai Konstituzioaren 9.2 artikulua aplikatuz, bai –zehazkiago– berdintasunari buruzko euskal legeak euskal herri-administrazioei ezartzen dizkien betebeharrak zehatzak betez, nabarmendu behar dugu garrantzitsua dela Irungo Udalak eta alardeak egiterakoan modu batean edo bestean tartean dagoen herri-administrazio orok eginkizun proaktibo bat hartzea (hartara, bereziki, Eusko Jauriaritza, herritarren segurtasunaren ikuspuntutik –Konstituzioaren 17. artikulua– eta berdintasunezko alardea antolatzen dutenak babesten dituen biltzeko eta manifestatzeko eskubidea modu askean egikaritzen dela bermatu behar duena den heinean –Konstituzioaren 21. artikulua aplikatuz–). Zentzu horretan, eta bereziki aintzat hartzen badugu Irungo berdintasunezko alardeak soilik gizonen eta emakumeen herri horretako jai-manifestazio nagusian parte hartzeko gune bat ziurtatzen duela, uste dugu **berdintasunari buruzko euskal legearen xedepena guztiz eraginkorrek direla udal horretarako, haien xedea berdintasun materiala eta eraginkorra ziurtatzeko konstituzio-betebehar hori gauzatzea baita**, eta horretarako hirian eta bertako jaietan berdintasun osoko egoera bat egotea galarazten duten oztopoak aktiboki kentzeko ekintza positiboko neurriak ezartzen baitituzte. Horrela helarazi diogu kontsulta egin duen elkarteari ordenantza-proiektua onartzeko prozeduraren atariko fase horretan, alde batera utzita erakunde honen geroko esku-hartzea, prozedura horren bilakaerak hala eskatuko balu.

■ Azkenik, **sexua dela-eta kirolean berdintasunez parte hartzeari dagokionez**, orobat aipagarriak dira erakunde honek gai horrekin lotutako bi kexengatik izandako esku-hartzeak. Kexek eskola-adineko neskek tradizioz gizonak edo mutilek egindako kirol-modalitateetan parte hartzea dute hizpide. Gure esku-hartzearen emaitza gisa, gomendio bana eman da: alde batetik, **Arartekoaren 2013ko apirilaren 22ko ebazpena** (horren bidez, **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailari** hainbat neurri gomendatzen zaizkio Eskola Kirol Programan kimu-kategoriako kirolarientzat “errendimenduko” emakumezkoen ligarik ez dagoelako); bestetik, **Arartekoaren 2013ko ekainaren 19ko ebazpena** (horren bidez, **Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostiako Udalar**ari gomendatzen zaie futboleko aritzeko espazio publikoetan eta, bereziki, Kontxako hondartzan, neurriak har ditzaten eta txapelketa maskulinoak eta femeninoak berdintasun irizpideei jarraiki joka daitezten).

1.2. Ekintza positiboak eta berdintasun-printzipioa enplegu publikorako sarbidean

Aurreko aldi bezala, 2013. urtean zenbait kontsulta jaso ditugu emakumeek ordezkaritza txikiagoa duten esparruetako lanpostuetarako emakumeen sarbidearen alde egiten duten ekintza positiboen legitimotasunarekin lotuta. Kontsulta horiek partikularrengandik datoz, baina baita enplegu publiko jakin batzuetarako sarbidean berdintasuna sustatu nahi duten toki-administrazioetatik ere, berdintasun-printzipioa urratu gabe ekintza positiboko neurriak aktibatzeke moduari buruzko aholkuak bilatzen baitituzte. Kontu horiek Konstituzio Auzitegiaren eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren doktrinak ezarritako parametroei jarraiki ebazten saiatu gara. Oro har, merezimenduen berdintasunaren printzipioa ezartzen dute ekintza positiboko neurriak aplikatzeko alde aurretiko betekizun gisa. Nolanahi ere, eskaera horiek gai horretan orientazioa behar dela adierazten dute, eta gure sistema publikoak artez bete behar du premia hori.

1.3. Administrazioaren egitura eta antolaketa genero-indarkeriaren arloan

Gai horri dagokionez, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen elkarte baten kexa jaso genuen, 2012ko abenduan Euskadin gobernua aldatu ostean Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza ezabatu zelako. Kexak salatu zuen ezabatzearen ondorioz aipatutako zuzendaritzak lehen ematen zituen zerbitzu batzuen estaldura falta egon zitekeela. Zehazki, kexaren sustatzaileek adierazi zuten kezkatuta zeudela zuzendaritza horrek ematen zituen hainbat laguntza-zerbitzu desager zitezkeelako eta, euren ustez, horren ondorioz, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek jasotzen zuten arretari dagokionez egindako hobekuntzak eta aurrerapenak bertan behera gera zitezkeelako.

Gai horretan izan genuen esku-hartzearen emaitza gisa, **2013ko irailaren 19ko Arartekoaren ebazpena** eman

genuen. Horren bidez bere jarduerari amaiera ematen zaio, GIBLZen (Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren) desagerpenaren ondoren genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeen arreta- eta laguntza-egoera salatzen duen kexa bati dagokionez. Ebazpen horretan, mahai gainean jarritako gaia aztertu ostean, ondorio hau ateratu genuen: Eusko Jaurlaritzak jarraitutako antolaketa-aukera berria **Erakundeen Arteko II. Akordioa** sinatu zuten erakundeek era nahikoan egiaztatuta eta ebaluatuta zegoen, eta ez zuen zertan genero-indarkeriaren biktimei zor zaizkien babesaren eta laguntzaren murrizketa ekarri. Nolanahi ere, orobat egokia iruditu zitzaigun **Emakundek**, Erakundeen Arteko II. Akordioaren Batzordeko burua eta genero-indarkeriaren arloan koordinatzeko eginkizunak dauzkan erakundea den heinean, aurreko GIBLZren zereginak integrazteko antolaketa-formula berria abiaraztearen eragina zaindu eta ebaluatzea –horren bidez, Euskadin genero-indarkeriaren biktimak diren emakumei emandako arretari erantzun nahi izan zaio–.

1.4. Polizia-jarduna genero-indarkeriaren arloan

Bikotekide ohiek bi emakumeren kontra egin zituzten eta heriotza ekarri zuten bi eraso bortitz direla-eta (emakumeak Euskadiko genero-indarkeriaren biktime gisa hil ziren, 2010ean eta 2011n hurrenez hurren), Ararteko erakundeak ofiziozko esku-hartze bana hasi zuen, bi kasuen zorigaitzoko amaiera baino lehen jazotako gertakariak argitzeko asmoz, horrelako kasuetan jarraitutako jardun publikoetan hobe daitezkeen eremuak antzemateko eta etorkizunean antzeko emaitzak saihesteko.

Aztertutako gertakariak eta alde aurretik egindako gogoetak kontuan harturik, 2013an **Arartekoaren 2013ko martxoaren 4ko ebazpena** eman zen. Horren bidez, ofiziozko bi espediente amaitzen dira, genero-indarkeria jasaten zuten eta bikotekide ohiek bortizki erasota hil ziren bi emakumeren kasuan emandako polizia arretaren zioz abiarazitakoak. Bertan, arlo horretan hobe daitezkeen eremuak jaso dira.

1.5. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek etxebizitza babestuetarako sarbidea izateko betekizunak

Ararteko erakundetik 2006. urtetik geroztik genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek etxebizitza babestuetarako duten sarbidea erregulatzen duen araua, **Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko agindua**, erreformatzeko eskatu dugu. Besteak beste, uste dugu funtsezkoa dela agindu horrek erregulatzen dituen zenbait betekizun malgutzea; zehazki, haren irismen subjektiboa zabaldu behar da, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktimak diren emakumeak ez ezik, familia-unitateko beste kide batzuen (esaterako, aitaren, semearen edo nebaren) indarkeria pairatzen dutenak ere barne hartzeko, zeren eta kasu horietan guztietan emakumeek arazo berbera baitute, hots, etxebizitza aldatu behar dute.

Kontu horrekin lotuta, emakume baten kexa jaso dugu, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako etxebizitzaren arloan ekintza positiboko neurrien inguruan aipatutako arauari heltzeko eskaera ukatu ziotelako. Izan ere, etxebizitza baten titulartasunaren zati bat zeukan, baina ezin zen bertan bizi, etxebizitza horretan haren seme eta erasotzailea zegoelako, emakumeak etxebizitzaren erabilera laga baitzion. Herri-administrazioaren erantzuna Zuzenbidearekin bat datorren arren, kasu horretan, gure iritziz, funtsezkoa da alde batetik administrazio eskudunei indarkeriaren biktimak diren emakumeak babesteko neurrien aplikazioa haien banakako egoera kontuan izanda malgutzeko bitartekoak ematea arauen bidez, eta bestetik aintzat hartzea kexagileak bezala gizalegez kudeatzen oso zailak diren egoerak jasaten dituzten emakumeei laguntza eta babesa emateko zerbitzu espezializatueta bideratu eta aztertu behar direla kasu horiek. Zentzu horretan, kexagilea bizi den lurraldeari (Bizkaia) dagozkion foru-aldundiko zerbitzuetara bidali dugu. [Etxebizitza arloa](#) aztertzen duen txosten honen atalean aipatu dugu kasu hori zehaztasun gehiagorekin.

2.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

EAEren esparruan 2013an genero-berdintasunaren arloan egon den erreforma azpimarragarri bakarra lehendakariaren [abenduren 2ko 34/2013 Dekretuak](#) (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duenak) urtearen amaieran eragindakoa izan da. Dekretu horrek Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeari egotzitako egitekoekin eta bitartekoekin lotutako erreformak gauzatu ditu, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei dagokienez, Emakundek gai horri buruzko politikak zuzentzeko eta koordinatzeko zituen eginkizunak mantenduz baina arretaredu berri bat diseinatuz, jadanik bazeuden zerbitzuen bitartez. Eredu horrek bitarteko pertsonalen eta materialen berresleipena dakar, biktimentzako zuzeneko arretaren eta kudeaketaren egitekoak herritarrentzako arretako departamentu-unitateetatik eraginkorrakoak izan daitezkeela egiaztatu ostean, horiek hurbilagoak eta espezializatuagoak direlako.

Era berean, [EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plan](#) berria aipatu behar dugu. 2013ko abenduan amaitu da lantzen, eta euskal herri-administrazio guztiek indarrean dagoen legegaldian berdintasunaren alde lan egiteko jarraibideak ezarri ditu. VI. planak ekonomia-, politika-, gizarte- eta kultura-bizitzaren eremu guztietan balioak aldatzeko lan egitearen aldeko apustua egin du, gizarteak berdintasunerantz egitea sustatzeko; halaber, berdintasuna lortzean aurrera egiteko erronkak adierazi ditu EAEko herri-administrazioek jarraibide moduan erabiltzeko baliagarri

izango diren hainbat helbururekin. VI. Planak berdintasunerako xedatu dituen helburuek erronkak ekarri dituzte, bai administrazioaren antolaketa edo barne-funtzionamendua aldatzeko, baita gizartearekin lotutako erronkak ere, hala nola balioen aldaketa, emakumeen ahalduntzea, erantzukizun partekatuan oinarritutako gizarte-antolaketa eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea sustatzekoak. Batzuek eta besteek, hurrenez hurren, VI. Planaren egiturak oinarri hartu dituen bi gai handiak osatzen dituzte: berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak (berdintasun-printzipioa euskal botere publikoaren antolaketan eta funtzionamenduan bertan sartzea) eta berdintasunaren arloan esku-hartzea, beharrezkoa den balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta soziala sustatzeko, erantzukizun partekatuan oinarritutako gizarte-antolaketan aurrera egiteko eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko.

Azkenik, aipatu behar da [Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak](#) 2013. urtean [Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana](#) onartu duela. Plan horren helburua transformazio-prozesua sustatzea da, eskola mistoko eredu-tik hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredura aurrera egiteko, sexuaren araberako estereotipoak eta rola alderantziz utzita pertsonen garapen integrala bultzatzeko eta genero-indarkeriari aurrea hartzeko. Erakunde hau pozik dago ekimen horrekin, gelan ikasleen berdintasuneko harremanak erdietsi, edonolako bereizkeria eta genero-indarkeria arbuia eta generoarekin lotutako joerarik gabeko orientazio akademikoa eta profesionalari bidea eman nahi baitio.

3.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Arartekoan 2013. urterako egin dugun jarduteko planaren esparruan, arlo horretan nagusiki zer jardun egin ditugun azalduko dugu. Hain zuzen, agerian jarriko dugu zeintzuk izan diren Arartekoarentzat gai nagusiak emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan:

3.1. Bilerak elkarrekin

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zenbait ikuspuntutatik lan egiten duten elkarrekin egindako bilera hauek azpimarratu behar ditugu:

3.1.1. Emakumeen ikusgarritasuna artean defendatzen duen elkarrea

Emakumeen ikusgarritasuna artean defendatzen duen emakumeen talde batek, Plataforma con A izenekoak, arartekoarekin bilera bat eskatu zuen, euskal museoetan

emakumeen artelanak ikusezinak direla salatzen. Izan ere, haien ustez, gizonak nagusi diren lan-inertzia batean jarraitzen dute eta ez dute emakumeek egindako lanak euren erakusketetan eta aurkezpenetan sartzeko beharrezko baliabideak jartzen. Salaketa hori dela-eta, orain izapidetzen ari den kexa-espedita bat hasi da. Horren bidez, Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari euskal museo-sistema eratzen duten erakundeetatik bultzatzen diren jarduera guztietan genero-ikuspegia sartu behar dela adierazi diogu. Era berean, talde horri EAEko Berdintasunerako VI. Plana lantzeko prozesuan parte hartzea proposatu genion, eta planaren helburuetarako hain garrantzitsua den eskaera hori berariaz gehitu genuen.

3.1.2. Emakumeek alardeetan parte hartzea defendatzen duten elkarteak

Aurreko urteetan bezala, zenbait bilera egin ditugu, emakumeek alardeetan parte hartzea defendatzen duten taldeen eskaerari erantzunez, Irunen eta Hondarrribian arrazoi horrengatik dagoen gatazka eztabaidatzeko. Bilera horietan honakoei heldu diegu: alde batetik, urtero alardeak egitearen ondorioz gertatzen diren erakundeen (bi herrietako udalak eta [Eusko Jaurilaritzako Segurtasun Saila](#)) esku-hartzeekin lotutako alderdi zehatzei; bestetik, kontu estrategikoagoei, emakumeak alarde bietan erabat sartzeko aurrera egiteko beharrezkoa den gizartearen eta erakundearen laguntza lortzeko.

Talde horiekin egindako bileretan, Ararteko erakundeak, berriro ere, gatazka hori hasi zenetik egin dugun bezala, lan egiteko eta gure esku dauden bitarteko guztiak jartzeko konpromisoa adierazi du, emakumeak Irungo eta Hondarrribiko jaietan berdintasun osoz sar daitezkeen.

3.2. Bilerak administrazio eta erakundeekin

Arlo horretan eragina duten esparruetan funtzioak dituzten herri-administrazioekin egindako bileretatik hauek azpimarratu nahi ditugu:

3.2.1. Ararteko erakundeak Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordean parte hartzea

Aurreko txostenetan dagoeneko jaso dugunez, 2011. urtean Ararteko erakundeak Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordean parte hartzen du –bai batzordean bai erakundearen arteko talde teknikoan–, gure erakundearen ikuspuntua emateko helburuarekin, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei zuzendutako jardun publikoaren osotasunean sor daitezkeen

hutsuneak edo arazoak agerian jartzeko eta horiek hobetzeko proposamenak egiteko.

2013. urtean Ararteko erakundeak batzorde horren eta bertan sortutako erakundearen arteko talde teknikoaren bilera guztietan parte hartu du. Zenbait lan-bileretan, gure ikuspuntua eman dugu genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arretaren inguruan landuz joan diren zenbait alderdiaren inguruan.

Erakundearen arteko bilera horietan, orain lantzen ari diren lehen tasun batzuk adostu dira, erakundearen arteko akordioa abiapuntutzat hartuta lehen tasun horiek ukitzen dituzten zerbitzuetan eta administrazioetan dagozkien aldiak egitea ahalbidetuko duten oinarriak jartzeko. Lehen tasunen artean, hauek nabarmentzen dira: gai horren inguruko terminologia berrikusteko beharra, horrek ekar ditzakeen ondorio sozial eta juridikoekin; genero-indarkeriako egoeren antzematea hedatzeko beharra; genero-indarkeriaren biktimak diren seme-alaba adingabeentzako arreta; indarkeria jasaten duten emakumeak artatzen dituzten pertsonak eta profesionalak generoan trebatzeko behar urgentea; genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek justiziara jotzeko baldintzak hobetzeko beharra, esku-hartze publikoa emakumei prozesu judizialean zehar laguntzera bideratuz; arlo horretan esku har dezaketen agente publikoaren arteko koordinazioa areagotzen jarraitzeko beharra. Erakundearen arteko talde teknikoak aipatutako lehen tasunak gauzatzeko neurriak (planak edo programak) abian jartzea bultzatzen ari da.

3.2.2. Erakundearen arteko lankidetzaren Emakunderekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasuneko Zuzendaritzarekin emakumeen berdintasuna alardeetan defendatzeko

Aurten, ohiko bileren bitartez, lankidetzaren iraunkor eta egonkorra izan dugu Emakunderekin eta [Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasuneko Zuzendaritzarekin](#). Lankidetzaren horren helburua erakundearen arteko aliantza bat erdiesteko oinarriak eratzea da, Irungo eta Hondarrribiko alardeetan erabakitasunez emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko. Erakunde honen ustez –eta horrela adierazi dugu jadanik hainbatetan–, emakumeen berdintasunerako eskubidea eta printzipioa argi eta garbi zalantzan jartzen duen gatazka baten irauteak zinez oztopatzen eta ahultzen du gure sistema demokratikoa, eta euskal botere publikoek erabakitasunez heldu behar diote. Horretarako, aipatutako erakundeekin (gai horrek biak ukitzen baititu) ibilbide bat hasi dugu, eta horri esker igarri dugu erakundearen arteko estrategiak behar direla eta alardeetako gatazka hori bideratzeko bide posibleei buruz gizartearen eta erakundearen adostasun berriak susta daitezkeela. Emaizta zehatzagoak ikusteko ekin diogun lanean sakondu beharko dela alde batera utzita, Arartekotik oso era positiboan baloratzen dugu ekimen hori, orain arte ezezaguna izan den bide bat ireki duenez zalantzarik gabe gure laguntza osoa merezi baitu.

4.

Herritarren eskubideek emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan duten egoeraren balorazioa

Aurreko urteetan bezala, herritarrek ez dute kexa askorik egin sexuagatiko bereizkeriako arazoak edo euskal herri-administrazioekiko harremanetan berdintasunaren arloko zailtasun bereziak salatzeko. Horrek, alde batetik, administrazioaren jardutea berdintasun formala errespetatzeari dagokionez zuzena dela erakusten du; hala ere, ezin dugu ondorioztatu herri-administrazioek eskura dauzkaten bitarteko guztiak erabiltzen ari direla berdintasun formal hori erreala eta eraginkorra izan dadin.

■ Emakumeek kultura parte hartzea

Egiaztapen horren erakusgarri dira herritarrek botere publikoei jardun gehiago eskatzeko egin dituzten kexak eta salaketak, formalki aldarrikatutako berdintasun hori eraginkortasunez gauzatu dezaten. Horren adibideak dira emakumeek **kulturaren eta kirolaren** arloan parte hartzeko zailtasunak dituztela eta ikusgarriak ez direla salatu dituzten kexak. **Arlo horietan oraindik nabarmena da emakumeek ez daukatala presentziarik ezta ikusgarritasunik ere (esaterako, artean), edo partaidetzako eta onarpeneko maila batzuetarako sarbidea mugatuta dutela (hala nola kirol-jarduerak jakin batzuetan).**

Testuinguru horretan, azken urteotan dagoeneko adierazi dugu herri-administrazioek **emakumeak historikoki oso presente edo ikusgai egon ez diren eremuetan haien partaidetza eta ikusgarritasuna sustatzeko bideak irekitzen dituzten ekintza positiboko neurriak abiarazteko erronkari** aurre egin behar diotela gaur egun. Ondorioz, erakundeek ezinbestean ahaleginak egin behar dituzte genero-ikuspegiz jarduteko, ordezkaritza txikiago hori antzemateko eta emakumeentzako desberdintasun materialeko egoerak iraunarazten dituen gizarte-inertziari era kontzientean aurre egiteko berariazko borondateaz. Izan ere, desberdintasun horiek ezin dira onartu sexuen arteko berdintasun osoa aldarrikatzen duen sistema batean.

■ Berdintasunezko partaidetza alardeetan

Aurten ere txosten honetan gogorarazi behar dugu **jai-ekitaldietan parte hartzeko emakumeen nahia dela eta sortutako gatazka jakin batzuk konpondu gabe daudela oraindik; gatazka horiek aspaldikoak dira, adibidez urtero emakumeek Irungo eta Hondarribiko alardeetan parte hartzearen inguruan gertatzen direnak.** Horrek, tamalez, agerian jartzen du arlo eta eremu batzuetan, gizartearen nolabaiteko babesaz, emakumeen desberdintasunak edo bereizkeriak irauten dutela, eta tartean dauden erakunde publikoek, jokabide horien pribatutasunean babestuta, ez dute gure sistema demokratikoan onartezinak diren egoera horiei

azkena emateko erabakitasun nahikoaz jarduten. **Erakunde gisa nabarmendu behar dugu ez garela geldituko euskal botere publikoek, bakoitzak bere eskumenen arabera, kasu horiek agerian uzteko eta era proaktiboan jarduteko daukaten betebeharra bete arte.** Izan ere, ekintza positiboko neurrien bitartez arlo horietan emakumeen berdintasunerako eskubidea defendatzeko ekimenen alde egin behar dute, eta jokabide horiei ez diete inolako babesik edo laguntzarik eman behar, ez zuzenean ez zeharbidez. Gainera, beharrezkoa da euskal erakunde guztiak herritarren sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa sustatzea, emakumeak edozein gunetan baztertzeko dituzten jokabideak gure kulturatik, gure jaietatik eta gure tradizioetatik behin betiko erazteko.

■ Pobretasunaren feminizazioa

Alde batetik, azpimarratu behar dugu **biztanleriaren maila batzuen pobretze-egoera eragin berezia izaten ari dela emakumeengan**, adineko, mendeko pertsona eta haur gehienak haien ardurapean daudelako. Hortaz, emakumeek, bereziki guraso bakarreko familien titularrak direnek, krisi-egoeran bereziki ahulak diren talde bat osatzen dute eta horrela gure ingurunean ere aspaldi igarri zen prozesu bat areagotzen ari da, alegia **pobretasunaren feminizazioa**. Erakunde honen ustez, euskal botere publikoek pobretasunaren feminizazio-prozesu hori ezagutu eta era kontsekuentean jardun behar dute, **emakumeak ahalduzkoak aztertuz eta abiaraziz, pobretze eta gizarte-bazterkeriako egoerei aurre egiteko gizarte-agente estrategikoak bihurtu ahal izateko.** Egoera bereziki larrietan dauden emakumeek, adibidez emakume etorkinek edo ezgaitasunen bat duten emakumeek, apartekoak eta bereziki indartsuak diren ekintza positiboak abiaraz daitezela eskatzen dute, berdintasun materialeko maila handiagoak lortzeko eta haien gizarte-bazterkeria saihesteko.

■ Genero-indarkeria

Azkenik, adierazi behar dugu **genero-indarkeriaren arloan** emakumeentzako arreta etengabe hobetzeko asmoa agerrarazten duten **aurrearapen aipagarriak** dauden arren –esaterako, **polizia-arretaren esparruan** batez ere gertatzen den moduan– **indarkeriaren infernua pairatzen duten eta amaiera emateko erabakia hartzen duten emakumeek zailtasun handiak dituztela oraindik ere.** Zailtasun horiek testuinguru hauetan sortzen dira batez ere: **prozesu judizialean, etxebizitzaren arloan eta lanerako sarbidean.** Hala eta guztiz ere, orobat onartu behar dugu **Euskadin esparru horretan egiten den erakundearen arteko lan handia ezinbestekoa dela** zailtasun horiek antzemateko eta emakumeei indarkeriatik ateratzeko prozesu zail horietan laguntzeko bitarteko egokienak prestatzeko. Emakunde gai hori koordinatzeko egin duen erakunde-berregituraketak emakumeentzako laguntza eta zuzeneko arreta haiengandik hurbilago dauden zerbitzuen esku utzi ditu, formulazioan koherentea da eta hurrengo aldia etengabe ebaluatu behar da.

a t a l a

0000.3.

Ezintasunen bat duten pertsonak



1.

Araudi- eta gizarte-testuingurua



Aurreko urteetan bezalaxe, atal honetan saiatuko gara desgaitasuna duten pertsonen eskubideak aldezteko 2013ko ekitaldian planteatu dizkiguten gai guztiak aztertzen, erakunde honen jarduketa esparruei buruzko zeharkako ikuspegi batetik.

Arartekoaren erakundeak, pertsona ororen eskubideak defendatzeko duen lehenetsuneko eginkizuna betetz, azpimarra berezia, ahal bada, jarri izan du beti beren eskubideez baldintza- eta aukera-berdintasunean baliatzeke zailtasun handienak dituzten pertsona guztien defentsan.

Horri dagokionez, [otsailaren 27ko 3/1985 Legeak](#), Arartekoa Erakunde Sortu eta Arautzeak, honakoa dio: *“Legebiltzarrek Konstituzioaren I Idazpuruak dakartzan eskubideak Legeak dionez bermatuz aldeztu, eta Autonomia-Estatutuaren 9. Atalak dakartzan demokraziatzko oinarri irizpide orokorrrak bete daitezenez arduratzeko jarritako goi-karguduna da Arartekoa”*. Horretarako, erakunde honen egitekoa da, herritarrek eskatuta edo bere ekimenez, administrazio publikoen jarduketa kexa espedienteen bitartez ikertzea, baina, baita ere, politika publikoak eta pertsonen eskubideen babes-sistema ebaluatzea, botere publikoei gomendioak zuzenduz nahiz pertsonen eskubideekiko errespetua edo haien babes-sistema errespetarazteko kultura indartzea xede duten txosten, analisi edo ideien produkzioa sustatuz.

Ekitaldi honetan zehar jarraitutako kexen eta jarduketan xehetasunetan sartu baino lehen, aipatu behar dugu 2013ko abenduaren 3an, Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunarekin bat datorren egunean, azaroaren 29ko [1/2013 Legegintzako Errege Dekretua](#) argitaratu zela. Izan ere, haren

bidez onesten da Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina.

Lege horren bitartez desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko hiru lege aipagarri batean biltzen dira:

- [Apirilaren 7ko 13/1982 Legea](#), desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari buruzkoa.
- [Abenduaren 2ko 51/2003 Legea](#), desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, bazterkeria ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa.
- [Abenduaren 26ko 49/2007 Legea](#), berdintasunaren arloko arau-hauste eta Zehapenei buruzkoa.

Arau honek, aipatutako hiru legeak testu bakarrean bateratzeaz gainera, azpimarratu beharreko alderdi berriak sartzen ditu. Hartara, egiazta dezakegu nola berrikusten dituen legea bera informatzen duten printzipioak, Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 2006ko abenduaren 13an onetsitako [Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioan](#) aurreikusi zenaren arabera. Espainiako Estatuak 2007ko abenduaren 3an berretsi zuen hura eta 2006ko maiatzaren 3an hartu zuen indarra. Horri dagokionez, arau honako printzipio hauek informatuta dago: duintasunarekiko errespetua, dibertsitatea dela-eta inor ez baztertea, bizimodu independentea, aukera-berdintasuna, irisgarritasun unibertsala, normalizazioa, parte-hartze eta barneratze oso eta eraginkorrek, elkarrizketa zibila, nortasunarekiko errespetua eta politika publikoen zeharkakotasuna.

Bestalde, adierazi behar dugu arauak modu berritzailean ezartzen duela elkartzeagatik bazterkeriari dagokiona; izan ere, hura gertatzen da pertsona batek edo hura integratuta dagoen taldeak bazterkeriazko tratua jasotzen dutenean desgaitasuna dela-eta beste batekin daukaten harremanaren ondorioz. Halaber, bazterkeria anizkoitza dela-eta babes berezia azpimarratzen da, arrazoi edo zio bat baino gehiagoren biktima izan daitezkeen pertsonen eskubideak bermatze aldera.

Lanaren eta enpleguaren esparruan, esan beharra dago lehengo aldiz modu sistematikoan determinatzen eta zehazten dela desgaitasuna duten pertsonen zein enplegu-modalitateen arabera gauzatu ahal izango duten lanerako daukaten eskubidea. Hartara, honakoak ezartzen dira: Enplegu arrunta –eta horren barruan enplegu laguntzaduna–, enplegu babes-tua –eta horren barruan, enplegu zentro bereziak; esate baterako lan-guneak– eta enplegu autonomoa.

Legeko V. kapituluari, “Bizimodu independenterako eskubidea” izenburupean, sistematikoki arautzen dira legeak babestutako esparruek bete behar dituzten irisgarritasun baldintzak, desgaitasuna duten herritar guztiei aukera-berdintasuneko maila berak bermatze aldera, bai eta bizimodu independenterako eskubideaz baliatzea laguntzera bideratutako ekintza positiboko neurriak ere.

Azkenik, nabarmendu behar dugu ezen Legeko laugarren xedapen gehigarrian xedatuaren arabera, Gobernuak, hark indarra hartu eta urtebeteko epean, Irisgarritasun Plan Nazional bat onetsi behar duela bederatzi urterako. Plana hirurteko jarduketa faseen arabera garatu beharra dago. Haren prestaketan, estatu mailan desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten entitate edo elkarte garrantzitsuenek hartuko dute parte.

Bestalde, esan beharra daukagu ezen, [Bizkaiko Foru Aldundiko](#) Gizarte Ekintza Sailak Gutxitasun Fisikoa edo/eta Organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazioarekin ([FEKOOR](#)) batera lan eginez, Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoari buruzko araupetze berria onetsi duela, Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautzen duen uztailaren 23ko [103/2013 Foru Dekretuaren](#) bitartez.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko [abenduaren 14ko 39/2006 Legeak](#) figura hori erregulatzen du bere prestazioen zorroan, baina hura mugatuz soilik mendetasun handia dutenei eta bakarrik lan egiteko edo irakaskuntza arautuan ikasten jarraitzeko. Foru araupetze berri horrek murrizketak gainditu eta aukera ematen du bestelako egoerak jasotzeko, hain zuzen ere bizi proiektu pertsonal baten garapenean –erabakitzeko ahalmen osoarekin, parte-hartze sozialarekin eta bizi-modu-eredu independente batekin– funtsezkoak direnak.

Hartara, aipatutako foru dekretuko 2. artikulua honela definitu eta ezartzen ditu laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren baldintzak:

“Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa laguntzaile pertsonal bat kontratatzearen ondoriozko gastuak ordaintzeko da; laguntza hori asteko gutxienezko ordu kopuru jakin baterako izan behar da, eta onuradunari aukera eman behar dio ikasketak egiteko, lan egiteko eta eguneroko oinarrizko jarduerak modu autonomoagoan egiteko.

Mendetasunaren graduaren arabera ezarriko da astean zenbat ordutan eman behar duen zerbitzua laguntzaile pertsonalak: 5 ordu astean, III. gradurako; 4 ordu astean, II. gradurako; eta 3 ordu astean, I. gradurako.

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa aldizkakoa izango da, eta mendetasunaren graduaren eta puntuen arabera aitortuko da.

Laguntza-zerbitzuak ematen dituen enpresa baten bidez edo zuzenean lan-kontratu baten bidez edo zerbitzuak emateko kontratu baten bidez emango ditu zerbitzuak laguntzaz arduratzen den pertsonak, hau da, laguntzaile pertsonalak. Kontratuan, onuradunak zerbitzurako proposatutako baldintzak eta jarraibideak jasoko dira, eta, hala badagokio, konfidentzialtasun-klausula.”

Baliabide hau lehendik eta modu berean Gipuzkoako lurralde historikoan planteatu izan da, eta orain Bizkaia zabaltzen

da. Funtsezkoa da bizimodu independentea bermatzeko eta desgaitasuna duten pertsonen autonomia aukera-berdintasunean sustatzeko.

2.

Kexarik aipagarrienak

2.1. Hirigintzako irisgarritasuna eta garraioaren arloko mugikortasuna

Aurreko urteetan bezala, ekitaldi honetan adierazi behar dugu esparru honetako kexak nagusiki irisgarritasunari buruzko araudiaren arloko ez-betetzei buruzkoak direla, instalazio berriak ezartzeari edo egun dauden eraikinei dagokienez. Hartara, esate baterako, Bilboko Novia de Salcedo kaleko 9. zenbakian Buruko Osasuneko Zentrora sartzeko dauden irisgarritasun baldintzei buruz aurkeztutako salaketa bat aipatu behar dugu. Zentro hori lehenengo solairu batean dago eta hartara iristeko 30 eskailera-maila izo behar dira.

2011ko ekitaldian, [Osakidetza](#) konpromisoa hartu zuen 2012ko aurrekontuen kargura igogailu bat jartzeko, behin Jabekideen Elkargoarekin akordio batera iritsita. Horretarako elkarrizketak 2008an hasiak ziren. Hala eta guztiz ere, aurtengo maiatzean beste idazki bat jaso genuen, non esaten zitzaigun ezen instalazioa 2012an egitea aurreikusita bazegoen ere, ekitaldi hori iraganda eraikina inongo obra egin gabe zegoela. Hori dela eta, Osakidetza jo genuen, obra horien atzerapenari buruzko arrazoiei buruzko behar zen informazioa eskatzeko.

Gure eskariari erantzunez, jakinarazi digute 2012an programatu zela 2013an zehar ekitea igogailu bat jartzeari, eta horretarako zenbait aurrekontu eskatu zaizkiela enpresa batzuei. Halaber, jakitera eman ziguten Buruko Osasunaren Sareko Zuzendaritza finkako administratzailearekin jarri zela eskatzeko igogailuak jartzeko proposamena aintzat har zezala eta jabekideen bozketa egin zezala. Igorritako proposamenean aipatzen zen egungo arkitektura-oztopoak kendu behar zirela eta, aldi berean, Arartekoak 2011n emandako gomendioa aipatzen zen.

Obrak hasteko oztopoa zen aurrekontuan inbertsioak 2013. ekitaldi osoan egiteko dirurik ez zegoela, aurrekontu publikoetan inbertsioak egiteko ezarri diren murrizketak direla eta. Nolanahi ere, egun dauden oztopo fisikoei konponbiderik jartzen ez zaien bitartean, Osakidetza zuzendari nagusiak aipatzen zuen baloratzen ari zirela mugikortasun

arazoak zeuzkaten gaixoak halako oztoporik ez dagoen beste zentro batzuetara eramateko aukera, igogailuaren instalazioarekin behin betiko konponbidea jartzen ez zen bitartean. Gero, egiaztatu ahal izan genuen 2014ko aurrekontuan diru jarri dela igogailu hori jartzeko, hain zuzen ere mugikortasun murriztua duten pertsonen Bilboko Buruko Osasuneko Zentrorako sarbidea izan dezaten.

Bestalde, tokiko zerbitzu publikoak emateko baldintzen barruan, gomendio bat igorri diogu [Lasarte-Oriako Udalari](#) lehentasuna eman diezaion udal kiroldedia irisgarritasunaren arloko legedi indardunari egokitzeko beharrezkoak diren obrak egiteko proiektua idazteari, pertsona erabiltzaileak ez baztertzeko. Izan ere, horrekin lortu nahi da behar den kuantifikazio ekonomikoa egitea birmoldaketa hori programazioan sartu ahal izateko. Halaber, Udala premiatu genuen udalerriko irisgarritasun plana, berrikusi, gaurkotu eta osatzeko, Irisgarritasuna Sustatzeko [abenduaren 4ko 20/1997 Legearen](#) edukiari jarraituz, betiere erreferentzia berezia eginez eraikin publikoetan behar diren egokitzapenak egiteko lehentasunen ordenari eta betetze-egutegiari ([Arartekoaren 2013ko azaroaren 13ko Ebazpena](#)).

Bestalde, nabarmendu behar ditugu mugikortasun murriztua duten pertsonengan eragin berezia duten arazoak. Izan ere, pertsona horiek garraio egokituaren arloan gainerako herritarrek baino eskaintza dezentez txikiagoa baitute oraindik.

[Euskotren](#) enpresa publikoak 2012an tren unitate berriak abian jarri ondoren aurkitutako irisgarritasun arazoak, aurreko ekitaldiko txostenean adierazi genituenak, oraindik ere gertatzen dira, nahiz eta [Euskal Trenbide Sareak](#) hartutako neurriak, trenbidearen eta nasaren arteko distantziak gutxitzekoek, eta Euskotrenek bagoien diseinuari berari dagokionez hartutakoak, lagungarri gertatu diren mugikortasun murriztua duten pertsonen garraioa hobeki erabiltzeko.

2.2. Ogasuna

Zerga araudiak zenbait onura fiskal (salbuespenak, hobariak, murriztapenak...) ezartzen ditu, eta haien bitartez nolabait ere konpentsazio bat eman nahi zaie desgaitasuna duen pertsona bat daukaten familiei eta, aldi berean, arreta eskaini nahi zaio familia horiengan eragina duen gaitasun ekonomiko txikiagoari.

Kontuan hartu beharra dago desgaitasuna duten pertsonen gastu gehigarri handiei aurre egin behar dietela ondasun eta zerbitzu orokorrak erosi beharra dela eta, pairatzen duten desgaitasunarekin berariaz lotutako ondasun eta zerbitzuetan dauzkaten gastuez gainera (laguntza teknikoak; laguntza pertsonala; tratamendu mediko, terapeutiko, habilitatzaile eta errehabilitatzaileak; sendagaiak). Berriki egin diren ikerketetan kalkulatu da desgaitasuna daukaten pertsonak bizi diren etxeetako batez besteko diru-sarrerak gainerako etxeetakoak baino %25 txikiagoak direla.

Hori gorabehera, gaur arte, desgaitasuna duten pertsonen aplikatutako onura fiskalak mugatuak izan dira eta, gainera, haien aplikazioan ere desadostasunak sortzen ari dira.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak salbuespen bat jasotzen du desgaitasuna duten pertsonentzat. Hura 2009. urtearen amaieran aldatu zen eta aldaketa hori dela eta kexak izan dira, zeren eta ukitutako pertsonen aldaketa hori bizi baitute aitortuta dauzkaten eskubideen halako murrizketa baten gisara.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez (aurrerantzean PFEZa), esan beharra daukagu pertsona batek erakunde honetara jo zuela eta zalantzan jarri zuela zerga horren kariatara desgaitasuna egiaztatzeke beharra, desgaitasunarekin lotutako onura fiskalak aplikatzen diren lehenengo aldian.

Bizkaiko Foru Aldundian PFEZa kudeatzen duen bulegoak pertsona interesdunari behin-behineko likidazio bat igorri zion, non ezezkoa ematen baitzitzaion desgaitasunarengatik erreklamazio-egileari aplikatutako kenkariari. [Arabako Foru Aldundiaren](#) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako aitortpena, non interesdunaren desgaitasuna egiaztatzen baitzen, errekurtsio bidez aurkeztu ondoren, ukituari sartutako kopurua itzuli zitzaion, ordura arte sortutako berandutza-interesekin.

Azkenik, arlo honi dagokionez, aipatu behar ditugu [Gasteizko Udalak](#) etxebizitza hutsetako zaborrak direla-eta aplikatzen duen tasari buruz jaso ditugun bi kexa. Horri dagokionez, aipatu behar dugu Espainiako Konstituzioko 33.2 artikulua jabetzari aitortzen dion eginkizun sozialaren aurkakoa dela pertsonen partikularki tasa bat jartzea soilik beren titularitateko etxebizitza bat 2012ko urtarrilaren 1ean errentan emana ez dagoelako edo okupatuta ez dagoelako; izan ere, tramitatutako kexa-kasuetan gertatzen den bezala, batzuetan egiazta daiteke kasuko titularrak etxebizitza horretan bizi izanak direla, guztiz justifikagarria den aldi batean izan ezik.

Mendetasuna duten pertsonen arretak ezin du talka egin zaborren tasaren aplikazioarekin, hartara eraginez zama handiago jar dakiola bere ingurunean mendetasuna duen ahaide bat artatzeko lana bere gain hartzen duenari.

2.3. Herrizaingoa

Esparru honi dagokionez, aipatu behar ditugu oinezkoentzako eremu batean ibilgailuak sartzeko debekua kontrolatzeko modua dela-eta sortu diren arazoak, bai eta debeku horren ez-betetzeak eta eremua oinezkoentzako bihurtzea errespetatu dadila bermatzeko neurriak ez hartzeak ikusizko desgaitasuna duten pertsonen mugikortasunean duen eragina ere.

Jarduketa okerren bat gertatu izateagatik aurkeztutako kexa gehienetan, ukitutako administrazioek beren jarduna zuzendu dute. Moltzo horretan sar daitezke desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren titularrei ezarritako zehapenak direla-eta aurkeztutako bi kexa. Zehapen horiek heldu ziren halako pertsonentzako erreserbatutako toki batean aparkatzeagatik, zeuzkaten txartelak horretarako balio izan gabe. Kasuetako batean jo zen txartela manipulatu zegoela, baina hori ez zen egia. Beste batean txartelak ez zuela balio adierazi zen, zeren eta behin betiko izaeraz emana zegoela agertzen baitzen, bost urteko epe baterako balioa izan beharrean, [abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuak](#) exijitzen duen bezala; alabaina, akats hori ezin zitzaion titularrari egotzi, baizik eta hura eman zuen Administrazioari, zeina ez baitzen zehapena ezarritako bera.

2.4. Osasuna

Atal honen barrenean, inplante koklear bateko kanpoko osagaiak berritzeko egoera bat planteatu zaigu, inplante hori sistema publikoak jarrita ez den kasu batean. Zehazki, guri aztertzeke aurkeztu zaigun gaiak ez du zerikusirik inplantearekin berarekin, baizik eta haren osagaiak berritzearekin. Izan ere, egoera hori, Ziurtapen eta Kontratazio Zuzendaritzaren kanpoko osagaien berritzeari buruzko 2/2011 Jarraibidean ezarritakoaren arabera, finantzaketa publikotik kanpo dago.

Haren finantzaketa onartzeak pentsaraz lezake bazterkeriarako ate bat zabaltzen ari dela, zeren eta onura egingo baliok zentro pribatu batean ebakuntza bat ordain dezakeenari, hartara arretan arintasun handiagoa lortuz, nahiz eta arreta hori hobeagoa ez izan. Osakidetza horrelako diagnostikoa dutenak gutxiengo badiha ere, bazterkeria hori nahikoa nabarmena izango litzateke, baldin eta helburua bada planteatzea inplantearen gastua itzul dadila. Alabaina, eskatzen dena denez osagaiak sistema publikoaren bitartez berritzeko aukerari atea ez ixtea, iruditzen zaigu kasuari bestela ekin dakiokela.

Osakidetza aukera hori planteatzerakoan, kontuan izan dugu ezen interesdunen egoera ekonomikoa aldatu egin daitekeela; hau da, gerta daitekeela oraingo egoera inplantea egin zen unekoaz bestelakoa izatea, halako moduz non une hartan gaixoak hura finantzatu ahal izan baitzuen, baina gero, osagaiak berritu behar dituen garaian, halakorik ezin baitu egin. Kontuan hartu beharreko faktore bat da hori, urte batzuk igarota berritu beharreko elementuez ari baikara.

Halaber, kontuan hartu beharra dago ezen kasu honetan inplantearen diagnostika sistema publikoan egin dela, nahiz eta gero ezarpena zentro pribatu batean egin zen, eta, aldi berean, hala jokatzeko teknikoki bateragarria zela, zeren eta modu pribatuan jarritako inplantea sistema publikoan ezarriko zenaren berdina baita. Bi elementu horiek oso ere garrantzitsuak iruditzen zaizkigu, batez ere lehenengoa, zeren eta prestazio publikoen ikuspuntutik, sistema publikoko fakultatibo batek agindutako prestazio bati buruz ari baikara.

Bere erantzunean, [Osasun Sailak](#) jakinarazi digu aztertu nahi duela ez ote den komenigarria izango egungo irizpidea berraztertzea, eta irizpide horrek eragina duela prestazio ortoprosesiko honetan ez ezik, gainerako guztietan ere.

Bestalde, gogorarazi behar dugu aurreko ekitaldiko txostenean aipatu genuela adimen-desgaitasuna duen pertsona baten gurasoek azaldutako egoera, interbentzio odontologiko baterako laguntza ukatu ondorengoa. Izan ere, planteatu zuten balizko tratu desberdina ematen dela osasun arlo desberdinetan, eta egungo aurreikuspenak pertsona horien beharizanen arabera egokitu behar direla.

Nahiz eta guk gaia behin eta berriz adierazi, desgaitasuna duten pertsonentzako enpaste, ortodontzia edo bestelako interbentziotarako laguntzak direla-eta kexa honetako atal batean aipatzen den balizko tratu desberdinari dagokionez, ez dugu erantzunik jaso; horrenbestez, ez dakigu hortzetarako laguntzari buruz lantzen ari den dekretuaren proiektuan alderdi hori jasoko den. Nahi genuke hura berraztertu ondoren, adimen-desgaitasuna duten EAEko pertsonak beren zailtasunak gainditzeko laguntza jaso ahal izatea.

2.5. Etxebizitza

Etxebizitzaren premia berezia duten kolektiboaren kasuan, aurten herritarren zenbait erreklamazio aztertu ditugu, non agerian jartzen baitzuten higiezinaren merkatuaren egungo baldintzetan irisgarritasun baldintzak betetzen ez dituen etxebizitza baten jabe direnek zailtasun handiak aurkitzen dituztela esleitu zaien etxebizitza egokitua erosi ahal izateko.

Bi familiaren kasuan, non kideetako bat mugikortasun murriztu iraunkorra duen pertsona desgaitua baitzen, planteatu ziguten ezen, Eusko Jaurlaritzako [Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak](#) haien jabetzako etxebizitza saltzeko eskaintzari ezezkoa emana zionez eta etxebizitza hori merkatu librean ezin izan zuten besterendu, ez zutela behar beste baliabide ekonomiko esleitutako etxebizitza egokitua erosi ahal izateko, nahiz eta hura urgentziaz behar izan, beren jabetzapeko etxebizitzak mugikortasuna zela-eta zeuzkan mugengatik.

Bi kasuetan ukitutako administrazioei –Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Bilboko Udala– erreklamatu genien konponbide bat bila zezatela, familia esleipendunak etxebizitza babestu egokituaz baliatu ahal zitezen (alokairu-arabidean hura lagata, harik eta haien jabetzapeko etxebizitza saldu arte), edo, subsidiarioki, eskatu genien errentamendu arabidean babes ofizialeko etxebizitza egokitu bat lagatzeko.

Bai Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, bai Bilboko Udala Etxebizitzak entitateak baiezkoa eman zioten gure eskariari eta familia horientzako beste etxebizitza bat eskaini zuten, haien premien arabera egokitua, zeren beren borondatez kanpoko inguruabarrak tarteko, baliabide ekonomiko nahikorik ez baitzuten esleitutako etxebizitza babestua eskuratzeko.

2.6. Gizarte zerbitzuak

Atal honetan aipatu beharra daukagu [Bizkaiko Foru Aldundiak](#) ezintasuna duen pertsona bati **kontzazio gabeko pensio bat** iraugitzeari buruz bideratu dugun kexa bat. Esku hartzeko eskatu zigun pertsonak adierazi zuenez, dohaintza ekonomiko bat jaso zuen bere gurasoengandik eta oso osorik babes ofizialeko etxebizitza egokitu bat erosteko erabili zuen kopuru hura. Gizarte Ekintza Sailak pertsona horren errenta edo diru-sarrera gisa zenbatu zuen kopuru hura, eta bere ustez, kopuru haren bitartez, urte hartan kexagileak gaudituz zuen jasotzen ari zen pensioa jaso ahal izateko ezarritako muga.

Erakunde hau foru aldundiaren jokoarekin konforme ez dagoenez gero, ebazpen hau eman du: **Arartekoaren 2013ko martxoaren 13ko ebazpena. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari gomendatzen dio pertsona batek ohiko etxebizitza eskuratzeko jaso duen dohaintza ekonomikoa errentatzat edo diru-sarreratzat har ez dadila, ordaindutakoaren arabera ez den pensioaren ondorioetarako.** Beraz, pensioa iraugitzeko erabakia baliorik gabe uzteko eta kaltetuari bere eskubidea lehengoratzeko eskatu genuen. Gomendio hori ez zuten onartu.

- Bigarrenik, aipatu behar dugu [Arartekoaren martxoaren 4ko 4/2013 Gomendio Orokorra](#), aldi baterako kontratazio-burtsak erregulatzen dituen arauetan diskriminazio positiborako neurriak ezartzei buruzkoa, desgaituak beren ezaugarrietarako egokiak diren lanpostuetara iritsi ahal izatea errazteko.

Aldi baterako enplegu-burtsak erregulatzen dituzten arauak, oro har, zerrenda-kideen hurrenkera bi irizpideen arabera ezartzen dute: enplegu-eskaintza publikoaren ondoriozko aukeraketa-prozesuetako kalifikazioak eta Administrazioan emandako zerbitzuak. Alabaina, uste dugu ezen izangaiek lanpostuetan jarduteko gaitasuna izatea bermatzen den bitartean, hori baita, Espainiako Konstituzioaren arabera, funtzio publikora sartzeko gidatu behar duen printzipioa, ez dagoela arrazoirik bestelako formula batzuk bilatzeko desgaitasuna duten pertsonen kolektiboak aldi baterako enpleguetara sartu ahal daitezela eraginkortasunez bermatzeko, dela erreserba-kuota bereziak ezarriz, dela haien lanpostu jakin gordez, dela bilatu nahi den xedea lortzea erraztuko duen beste edozein neurri ezarriz.

3.2. Gizarte erakundeekiko topaketak

Atal honetan, aipatu nahi ditugu, halaber, erakunde honek EAEko esparruan lan egiten duten elkarteekin izan dituen topaketak. Betidanik jo izan dugu entitate horiek egiten duten lanak gure eginbeharra aberasten duela, eta kolektiboaren errealitatea transmititzen duten antenen modura lan egiten dutela. Hori dela eta, ezin ezinbestez eskerrak eman nahi dizkiegu erakunde honekiko lankidetzarako beti erakutsi duten jarrerarengatik. Horri dagokionez, esan dezakegu ekitaldi honetan zehar hartu-emanak izan ditugula FEVAPAS, EUSKAL GORRAK, ELKARTU, FEKOOR, AGI eta EGINAREN EGINEZ elkarteekin, desgaitasuna duten pertsonen kolektiboak dauzkan kexa, erreklamazio edo arazoak bideratzeko xedez, kexa horiek administrazio publikoari baldin badagozkie.

Lankidetzan jarduteko eta elkartegintzaren mugimendua-ekin parte hartzeko xede horrekin, Arartekoak aukera izan zuen *“Austeritate politikei buruzko epaia: desgaitasuna duten pertsonen eskubideetan eta bizi kalitatean daukan eragina. Gizarte ongizate iraunkorraren eredu baterantz”* izenburupean egin zen jardunaldian parte hartzeko. Jardunaldi horien atzealdean Ongizate Estatuaren eraispena dago. FEKOOR-Gutxitasun Fisikoa edo/eta Organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazioak antolatu zuen jardunaldia, joan den azaroaren 15ean, Bilboko Euskalduna Jauregian. Jardunaldi horren bitartez ikustarazi eta salatu nahi zen murrizketa sozialaren politikak desgaitasuna duten pertsonen duintasunean, bizi-kalitatean eta eskubideetan daukan eragin eta inpaktua-ren errealitatea.

3.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

3.1. Gomendio orokorrak

- [Arartekoaren otsailaren 5eko 2/2013 Gomendio Orokorra](#), Arkitektura-oztopoak dituzten egoitza-erakunde kolektiboetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko beharrari buruzkoa, bereziki igogailuak instalatuta.

Igogailurik ez duten egoitza-erakunde irisgarritasuna erakunde honek behin eta berriz adierazitako aldarrikapena izan da. Eragin horietarako, arazo horri bi gai nagusien bitartez ekin diogu: alde batetik, jabeen erkidegoek arkitektura-oztopo horiek kentzeko duten betebeharraren inguruan botere publikoaren jarduera-eremua zein izan behar den zehazten saiatzea; bestetik, igogailu bat instalatzeko edo arkitektura-oztopoak kentzeko orduan administrazioek jarraitu behar dituzten irizpideak zehaztea, baldin eta segurtasun-edo bizigarritasun-arazoak badaude edo hori egiteko espazio berririen bat hartu behar bada.

Arartekoa izan zen eztabaida zabaltzeko ardura izan zuena, eta austeritate-politikek eta krisiak bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboentzat izan dituzten ondorioak aztertu zituena giza eskubideen ikuspuntutik.

3.3. EAEko garraio sistema publikoaren irisgarritasunari buruzko txosten bereziaren jarraipena

Euskal Trenbide Sareko kideekin 2013ko maiatzaren 21ean egindako bileran, entitate horrek ustiatutako lineen irisgarritasunari buruzko txostena aurkeztu ziguten, kontuan izanda 2011n *EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa* txosten berezia aurkeztu genuenetik sartzen joan diren aldaketak. ETSk emandako txostenean, balorazio bat egiten da gure diagnostikoan ETS sarea osatzen duten 82 geltokiei buruz eman genituen datuen gainean, lau ustiaketa-lineei dagokionez, bai eta baliabide horiek direla-eta *Ararteko Mapak* tresnaren bitartez emandako informazioaren gainean ere.

Azterlan horretatik abiatuta, lineetako bakoitzean jarraitutako jarraibideak deskribatzen dira, zehazki 4 lineak osatzen dituzten baliabideetako bakoitzari dagokionez, gure txosten berezian emandako gomendioak betetzeko. Nabarmendu beharra dago irisgarritasuna modu integralean landu dela teknikoki hori bideragarri gertatu den instalazio guztietan. Horrek aukera eman du aurrera sarbideetako eta ekipamenduen barne mugikortasuneko oztupoak kenduz irisgarritasun-baldintza hobetzeko ez ezik, komunikazio-sistemei dagozkien irisgarritasun baldintzak ezartzeko ere. Hartara, bermatuta geratzen da ikusizko eta entzunezko desgaitasuna duten pertsonentzako informaziorako sarbidea erabakigarri gertatzen dela garraio-sistemaren erabile- ra egokirako.

Trenbide sareen irisgarritasun-egoeran antzemandako gabeziak irisgarritasunerako gakoa diren etapa guztietan gertatzen ziren. Hartara, honako gabeziak adierazi genituen:

- Trenbide azpiegiturara sartzeko ibilbidean.
- Trenbide geltokietarako eta geralekuetarako sarbideetan.
- Geltokiko barne mugikortasunean, nasetarako sarbidean eta material mugikorrean. Horri dagokionez, nabarmendu genuen, batetik, nolako egoera larrian aurkitzen diren gure autonomia erkidegoko trenbide geltoki gehienetako pasaguneak, eta, bestetik, nasa-trena irisgarritasuna dela-eta konponbiderik eman ez zaion arazo bat bada-goela.

ETSk adierazitako gabeziei konponbidea emateko egindako jarduketan artean, honakoak nabarmen ditzakegu –guztiak ere hainbat baliabideetan orokorrean egin diren obra eta jarduerak dira–:

- Geltoki eta nasetarako sarbidean arrapala keta barandak jartzea edo daudenak hobetzea.
- Seinaleztapen horizontala eta bertikala margotzea mugikortasun murriztua duten pertsonentzako tren-sarbideetan.
- Nasako ertzetan segurtasun-linea margotzea.
- Pedestrial delakoa jartzea nasen arteko pasabideetan.
- Behar zenean, nasak goratzea edo beheratzea.
- Nasetarako sarbideetan igogailuak jartzea.
- Geltokietarako sarbideetan ate automatikoak jartzea.
- Komun auto-garbigarri egokituak jartzea.
- Megafonia-sistemak gaurkotzea.
- Informazio-panel berriak jartzea.

Zehazkiago, esan dezakegu obra berrietan, 2010etik 2012ra, hurrengo geltoki berriak jarri direla zerbitzuan, taulan adierazitako kostuekin:

Durango	24.983.085,00 €
Traña	2.050.000,00 €
Ardantza	1.458.761,28 €
Azitain	798.000,00 €
Aia-Orio	2.490.336,91 €
Intxaurren	20.674.010,00 €
Herrera	11.172.000,00 €
Fanderia	2.136.510,92 €
Oiartzun	2.247.404,83 €

Zaharberritu diren geltokiak:

Amorebietako geralekua	133.928,02 €
Usansolo	141.976,00 €
Eibar	2.122.975,00 €
Irun (Colón)	116.108,72 €

Jarduketa puntualak:

JARDUKETAK	KOSTUA
Amara nasak beheratzea (8), Galtzaraborda (2), Pasaia (2), Lasarte (2), Amorebieta (3), Atxuri (3), Lemoa (3), Ermua (1)	
Gaintzurizketako arrapalak egokitzea, haiek goratuta (4), Arizko nasak goratzea (2), Zuhatzuko bakoitiak, Zarauzko bakoitiak, Usurbil (2). Gaintzurizketako (2) eta Irungo (2) nasak egokitzea. Sarbideko arrapalak egokitzea Usurbil, Berriz (bi nasak) eta Amaran (2)	349.064,39 €
Arrapaletarako baranda egokituak Berriz (4), Amara (5) eta Irungo Bentetan (2)	
Pedestral delakoa jartzea Larrondo, Ciudad Jardín, Ariz (2), Berriz, Elgoibar, Mendaro, Zarautz, Erreterria, Irungo Bentak, Zugastietia eta Gernikako nasen arteko pasabideetan	154.886,89 €
Diseinua eta seinale horizontal eta bertikalak margotzea mugikortasun murriztua duten pertsonentzako trenbide-sarbideetan, nasaren inguruan mugikortasuna murriztua duten pertsonentzako seinaleztapeneko errotuluak (Bilbo-Donostia eta Lasarte-Hendaia), segurtasun linea margotzea nasetako ertzetan (linea guztietan)	96.685,50 €
Kanpoko informazio panelak, 4 gorputzetakoak, Lasarte, Errekalde, Añorga, Lugaritz, Amara, Anoeta, Loiola, Intxaurren, Herrera, Pasaia, Galtzaraborda, Erreterria, Oiartzun, Fanderia, Gaintzurizketa, Bentak, Belaskoenea, Irungo Ficoba eta Hendaian	97.350,68 €
Ate automatikoak atalondorako sarbideetan Amorebietan eta Pasaian	22.710,00 €
Tele-seinaleak jartzea Derion eta Amaran	88.400,00 €
Kanpoko moduluko komuna edo mugikortasuna murriztua duten pertsonentzako komun ahokatu egokitua Sondika, Ariz, Lemoa, Amorebieta, Euba, Eibar, Elgoibar, Zumaia, Anoeta (2), Galtzaraborda, Erreterria, Bentak, Gernika (2) eta Itsasbegin. Konbentzional egokitua Berriz eta Ermuan	906.631,14 €

ETSk adierazitako trenbide-korridoreetan egindako esku-hartze horiek guztiak ikusita, gaurkotu edo berrikusi behar-koak dira egoeraren diagnostikoari buruz egin genuen txostenean irisgarritasunaren ezaugarriari buruz lortu genituen datuak lantzeko erabili genituen tresnak.

Hartara, datu horiei buruzko ebaluazio konparatuan, bi tresna erabili ziren: gabezien matrizea eta irisgarritasun diagrama. Bada, gaurkotze hori egiteko, Euskal Trenbide Sareak gabezien matrizearen tresna erabiltzearen alde egin du, zeren eta haren bidez azterketa kuantitatibo bat egin baitaiteke eta informazioa modu integratuan eta konparatuan eskaintzen baitu kasuko garraio-sistemarako desplazamendu-katearen irisgarritasunaren ezaugarriari buruz.

Laburki bada ere, aipatu nahi dugu gabezien matrizeen abiapuntua dela **Irisgarritasun Adierazlea (IA)** izeneko adierazle sintetikoa sortzea, zeinak, garraio-ekipamendu bakoitzerako (aztergai dugun kasuan, trenbide geltokia) parametro uniforme batzuk analizatu zeta baloratuz, aukera ematen baitu oinezkoen ingurunearen eta instalazioen irisgarritasun gradua objektiboki alderatzeko. Azterketa kateko etapa guztietako desplazamenduaren segurtasunaren eta autonomiaren (funtzionaltasuna) ikuspuntutik egiten da. Parametro horietako bakoitzaren balorazioarekin –irisgarritasunaren alderdiak esaten zaie– eta ekipamendu bakoitzetik ateratzen diren irisgarritasun adierazleekin, gabezien matrizea sortzen da. Matrizeak aukera ematen du desplazamendu-kate osoan (ingurunea-ekipamendua-material mugikorra) irisgarritasunaren egoera ikusteko. Gabezien matrizeak formulatzeko erabilitako metodologia gehiago zehazteko, [EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa](#) txosten berezira jo beharra dago.

Kontuan hartu beharra dago alde aurretiko ezaugarriak eta sailkapena, instalazioetan ezarritako parametroen arabera, erraztu zuela, Arartekoak egindako diagnostiko txostenean, gero egingo ziren gomendioen hierarkia ematea, ekipamendu batzuetan esku hartzeko lehentasunezko beharrak ezarrita.

Euskal Trenbide Sareak matrize horiek gaurkotuta, egiazta dezakegu esku hartu deneko lineetan gertatu diren aldaketak garrantzitsuak izan direla eta kritikotzat jotzen ziren geltokien kopuruak nabarmen egin duela behera.

Ondoren erakusten ditugu 2013ko ekitaldian gaurkotu diren lau adarren matrizeak, 2011ko gure txosten berezian emandakoekin batera. Horrek aukera ematen du eta ETSren esku-hartzearen menpekoak diren instalazioen irisgarritasun- eta segurtasun-baldintzen hobekuntza egiaztatzeko.

BILBO-DONOSTIA LINEA

ETS-EUSKOTREN GELTOKIETAKO GABEZIEN MATRIZEA		BILBO-DONOSTIA IRRIBIDEA																																												
TIPOLOGIA	IRISGARRITASUNAREN ALDERDIAK	IRIZPIDEAK	ATXURI BILBO	BOLETUA	ETXEBARRI	ARIZ - BASAURI	ZUHATZU - GALDAKO	USANSOLO - GALDAKO	BEDIA - GALDAKO	LEMMA	AMORREBETA	EUBA - AMORREBETA	DUNANGO	FAUSTE - DUNANGO	DURANGO	TRANA - ABADINO	BERRIZ	ZALDIABAR	EMMUA	ERROTABARRI - EMMUA	SAN LORENTO - EMMUA	UNIBERTSITATEA - EMIBAR	AMARA - EIBAR	ARMOANTZA - EIBAR	EIBAR	AZTAIN - EIBAR	ELOGIBAR	TOLEKEGAIN - ELOGIBAR	ALIZOLA	MENDAKO	DEBA	ARROA	ZUMUA	ZARAUZ	ZARAUZ - SAN PELAI	MAA - ORIO	USURBIL	ERRERKALDE	AIORGA	LUGARITZ	AMARA DONOSTIA					
SARBIDEAK	1. Oinezkoentzako kanpoko ibilbidea	F	0	2	0	1	1	0	1	0	0	0	0	1	0	1	2	1	2	2	2	2	2	1	0	1	1	1	1	0	0	1	0	0	0	0	2	0	1	1	0	0				
	2. Espalio, beheargintza, errupidea, trafikoa	F	0	2	1	1	1	0	2	0	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	0		
	3. Erpelmendura iristea	F	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
	4. Areak, arripalak, eskalerek...	F	0	0	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	
	5. Nisarako sarridea	F	0	0	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	
	6. Berrirako joan-etorria	S	0	0	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2		
	7. Ateak, atzapadak, zoladura, seinalea, Gida	F	1	1	1	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2		
	8. Salmahaiak, leihatile egokituak	F	1	1	1	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2		
	9. 6. Atzari egokituak	F	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
	10. esnekuak, autosalmentako makinak...	F	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	
	11. 7. Komun egokituak	F	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	12. 8. Info-komunikazio sistemak	F	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
13. 9. Karpelo zeladura	F	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
14. 10. Seguritasun seinaleak, tapena	F	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
15. 11. Naisen arteko joan-etorria	S	0	0	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
16. 12. Nasa-bilgailua-nasako irisgarritasuna	F	0	0	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	
17. 13. Nasa-bilgailua-nasako irisgarritasuna	F	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	
18. 14. benantze horizontal-bertakala	F	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	
19. 15. 11. 12. 13. 14. 15. 16. 17. 18. 19. 20. 21. 22. 23. 24. 25. 26. 27. 28. 29. 30. 31. 32. 33. 34. 35. 36. 37. 38. 39. 40. 41. 42. 43. 44. 45. 46. 47. 48. 49. 50. 51. 52. 53. 54. 55. 56. 57. 58. 59. 60. 61. 62. 63. 64. 65. 66. 67. 68. 69. 70. 71. 72. 73. 74. 75. 76. 77. 78. 79. 80. 81. 82. 83. 84. 85. 86. 87. 88. 89. 90. 91. 92. 93. 94. 95. 96. 97. 98. 99. 100. 101. 102. 103. 104. 105. 106. 107. 108. 109. 110. 111. 112. 113. 114. 115. 116. 117. 118. 119. 120. 121. 122. 123. 124. 125. 126. 127. 128. 129. 130. 131. 132. 133. 134. 135. 136. 137. 138. 139. 140. 141. 142. 143. 144. 145. 146. 147. 148. 149. 150. 151. 152. 153. 154. 155. 156. 157. 158. 159. 160. 161. 162. 163. 164. 165. 166. 167. 168. 169. 170. 171. 172. 173. 174. 175. 176. 177. 178. 179. 180. 181. 182. 183. 184. 185. 186. 187. 188. 189. 190. 191. 192. 193. 194. 195. 196. 197. 198. 199. 200. 201. 202. 203. 204. 205. 206. 207. 208. 209. 210. 211. 212. 213. 214. 215. 216. 217. 218. 219. 220. 221. 222. 223. 224. 225. 226. 227. 228. 229. 230. 231. 232. 233. 234. 235. 236. 237. 238. 239. 240. 241. 242. 243. 244. 245. 246. 247. 248. 249. 250. 251. 252. 253. 254. 255. 256. 257. 258. 259. 260. 261. 262. 263. 264. 265. 266. 267. 268. 269. 270. 271. 272. 273. 274. 275. 276. 277. 278. 279. 280. 281. 282. 283. 284. 285. 286. 287. 288. 289. 290. 291. 292. 293. 294. 295. 296. 297. 298. 299. 300. 301. 302. 303. 304. 305. 306. 307. 308. 309. 310. 311. 312. 313. 314. 315. 316. 317. 318. 319. 320. 321. 322. 323. 324. 325. 326. 327. 328. 329. 330. 331. 332. 333. 334. 335. 336. 337. 338. 339. 340. 341. 342. 343. 344. 345. 346. 347. 348. 349. 350. 351. 352. 353. 354. 355. 356. 357. 358. 359. 360. 361. 362. 363. 364. 365. 366. 367. 368. 369. 370. 371. 372. 373. 374. 375. 376. 377. 378. 379. 380. 381. 382. 383. 384. 385. 386. 387. 388. 389. 390. 391. 392. 393. 394. 395. 396. 397. 398. 399. 400. 401. 402. 403. 404. 405. 406. 407. 408. 409. 410. 411. 412. 413. 414. 415. 416. 417. 418. 419. 420. 421. 422. 423. 424. 425. 426. 427. 428. 429. 430. 431. 432. 433. 434. 435. 436. 437. 438. 439. 440. 441. 442. 443. 444. 445. 446. 447. 448. 449. 450. 451. 452. 453. 454. 455. 456. 457. 458. 459. 460. 461. 462. 463. 464. 465. 466. 467. 468. 469. 470. 471. 472. 473. 474. 475. 476. 477. 478. 479. 480. 481. 482. 483. 484. 485. 486. 487. 488. 489. 490. 491. 492. 493. 494. 495. 496. 497. 498. 499. 500. 501. 502. 503. 504. 505. 506. 507. 508. 509. 510. 511. 512. 513. 514. 515. 516. 517. 518. 519. 520. 521. 522. 523. 524. 525. 526. 527. 528. 529. 530. 531. 532. 533. 534. 535. 536. 537. 538. 539. 540. 541. 542. 543. 544. 545. 546. 547. 548. 549. 550. 551. 552. 553. 554. 555. 556. 557. 558. 559. 560. 561. 562. 563. 564. 565. 566. 567. 568. 569. 570. 571. 572. 573. 574. 575. 576. 577. 578. 579. 580. 581. 582. 583. 584. 585. 586. 587. 588. 589. 590. 591. 592. 593. 594. 595. 596. 597. 598. 599. 600. 601. 602. 603. 604. 605. 606. 607. 608. 609. 610. 611. 612. 613. 614. 615. 616. 617. 618. 619. 620. 621. 622. 623. 624. 625. 626. 627. 628. 629. 630. 631. 632. 633. 634. 635. 636. 637. 638. 639. 640. 641. 642. 643. 644. 645. 646. 647. 648. 649. 650. 651. 652. 653. 654. 655. 656. 657. 658. 659. 660. 661. 662. 663. 664. 665. 666. 667. 668. 669. 670. 671. 672. 673. 674. 675. 676. 677. 678. 679. 680. 681. 682. 683. 684. 685. 686. 687. 688. 689. 690. 691. 692. 693. 694. 695. 696. 697. 698. 699. 700. 701. 702. 703. 704. 705. 706. 707. 708. 709. 710. 711. 712. 713. 714. 715. 716. 717. 718. 719. 720. 721. 722. 723. 724. 725. 726. 727. 728. 729. 730. 731. 732. 733. 734. 735. 736. 737. 738. 739. 740. 741. 742. 743. 744. 745. 746. 747. 748. 749. 750. 751. 752. 753. 754. 755. 756. 757. 758. 759. 760. 761. 762. 763. 764. 765. 766. 767. 768. 769. 770. 771. 772. 773. 774. 775. 776. 777. 778. 779. 780. 781. 782. 783. 784. 785. 786. 787. 788. 789. 790. 791. 792. 793. 794. 795. 796. 797. 798. 799. 800. 801. 802. 803. 804. 805. 806. 807. 808. 809. 810. 811. 812. 813. 814. 815. 816. 817. 818. 819. 820. 821. 822. 823. 824. 825. 826. 827. 828. 829. 830. 831. 832. 833. 834. 835. 836. 837. 838. 839. 840. 841. 842. 843. 844. 845. 846. 847. 848. 849. 850. 851. 852. 853. 854. 855. 856. 857. 858. 859. 860. 861. 862. 863. 864. 865. 866. 867. 868. 869. 870. 871. 872. 873. 874. 875. 876. 877. 878. 879. 880. 881. 882. 883. 884. 885. 886. 887. 888. 889. 890. 891. 892. 893. 894. 895. 896. 897. 898. 899. 900. 901. 902. 903. 904. 905. 906. 907. 908. 909. 910. 911. 912. 913. 914. 915. 916. 917. 918. 919. 920. 921. 922. 923. 924. 925. 926. 927. 928. 929. 930. 931. 932. 933. 934. 935. 936. 937. 938. 939. 940. 941. 942. 943. 944. 945. 946. 947. 948. 949. 950. 951. 952. 953. 954. 955. 956. 957. 958. 959. 960. 961. 962. 963. 964. 965. 966. 967. 968. 969. 970. 971. 972. 973. 974. 975. 976. 977. 978. 979. 980. 981. 982. 983. 984. 985. 986. 987. 988. 989. 990. 991. 992. 993. 994. 995. 996. 997. 998. 999. 1000. 1001. 1002. 1003. 1004. 1005. 1006. 1007. 1008. 1009. 1010. 1011. 1012. 1013. 1014. 1015. 1016. 1017. 1018. 1019. 1020. 1021. 1022. 1023. 1024. 1025. 1026. 1027. 1028. 1029. 1030. 1031. 1032. 1033. 1034. 1035. 1036. 1037. 1038. 1039. 1040. 1041. 1042. 1043. 1044. 1045. 1046. 1047. 1048. 1049. 1050. 1051. 1052. 1053. 1054. 1055. 1056. 1057. 1058. 1059. 1060. 1061. 1062. 1063. 1064. 1065. 1066. 1067. 1068. 1069. 1070. 1071. 1072. 1073. 1074. 1075. 1076. 1077. 1078. 1079. 1080. 1081. 1082. 1083. 1084. 1085. 1086. 1087. 1088. 1089. 1090. 1091. 1092. 1093. 1094. 1095. 1096. 1097. 1098. 1099. 1100. 1101. 1102. 1103. 1104. 1105. 1106. 1107. 1108. 1109. 1110. 1111. 1112. 1113. 1114. 1115. 1116. 1117. 1118. 1119. 1120. 1121. 1122. 1123. 1124. 1125. 11																																														

LASARTE-HENDAIA LINEA

ETS-EUSKOTREN GELTOKIETAKO GABEZIEN MATRIZEA		LASARTE - HENDAIA KORRIDOREA														HENDAIA				
		IRISGARRITASUNAREN ALDERDIAK	IRIZPIDEAK	ERREKALDE	ANORGA	LUGARITZ	AMARA	ANOETA	LOIOLA	HERRERA	PASAJA	GALTZARABORDA	ERRENTERIA	OIARTZUN	GAINTXURIZKETA	BENTAK	IRUN BELASKOENA	IRUN KOLON	NAZIOARTEKO ZUBIA	HENDAIA
SARBIDEAK	1. Oinezkoentzako kanpoko ibilbidea	S	0	1	1	0	0	0	0	1	0	0	0	1	2	1	0	1	0	0
	2. Ekipamendura iristea	F	0	1	2	1	0	0	1	1	0	0	2	2	2	1	0	1	0	1
	ateak, arrapalak, eskailerak...	S	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	ateak, arrapalak, eskailerak...	F	1	0	0	0	0	2	1	0	0	1	1	1	1	1	1	1	1	1
	ateak, arrapalak, eskailerak...	S	0	1	2	0	0	0	1	1	0	0	2	1	2	0	0	0	0	0
EKIPAMENDUAN	4. Barruko joan-etorria	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	ateak, oztopoak, zoladura, seinalea. Gida	F	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	2	2	2	2	2
	5. Salmahaiak, leihatila egokituak	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	ateak, arrapalak, eskailerak...	F	1	0	0	0	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
	ateak, arrapalak, eskailerak...	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
NASAN	6. Altzari egokituak	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	eserlekuak, autosalmentako makinak...	F	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
	7. Komun egokituak	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	ateak, arrapalak, eskailerak...	F	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	8. Info-komunikazioko sistemak	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	teleadierazgailuak, panelak, megafonia	F	0	1	1	0	0	1	1	1	0	0	0	2	2	2	1	0	1	0
	9. Kanpoko zoladura	S	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	trinkoa, gogorra, irristaden aurkakoa	F	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	10. Segurtasun seinaleztapena	S	1	1	1	0	0	0	0	1	2	0	1	1	1	1	0	1	0	0
	zerrenda kromatikoak, botoiak	F	1	1	1	0	0	0	0	1	1	1	0	2	2	0	1	0	0	0
	11. Nasen arteko joan-etorria	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	arrapalak, igogailuak, gidatzeko seinaleztapena	F	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
12. Nasa-ibilgailua-nasako irisgarritasuna	S	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	
banantze horizontal-bertikala	F	1	1	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	
ALDERDI GUZTIAK	GUZTIRA 1		11	11	15	8	8	6	12	16	9	6	17	14	17	13	11	16	6	12
BALORAZIOA	GUZTIAK		0,92	1,38	1,88	0,73	0,67	0,55	1,2	1,6	0,82	0,55	1,55	2	2,43	1,3	1,22	1,33	0,86	1,2
LEHEN MAILAKO ALDERDIAK BAKARRIK	GUZTIRA 2		6	9	13	6	5	3	10	14	6	3	14	12	15	11	9	13	4	9
BALORAZIOA	1. MAILAKOAK		0,67	1,29	1,86	0,67	0,56	0,33	1,11	1,56	0,67	0,33	1,56	2	2,5	1,22	1,13	1,44	0,67	1,13
GELTOKIEN KATEGORIZAZIOA ESKARIA GORABEHERA	KOP.		5	16	15	10	1	2	11	6	8	7	4	14	17	?	12	3	13	9

ALDIRIKOAK edo ESQUALDEKOAK BAKARRIK
 ALDIRIKOAK eta ESQUALDEKOAK
 Geltoki irisgarriak (≤1)
 Geltoki kritikoak (≥2)

IRISGARRITASUNAREN ALDERDIAK	ALDERDI GUZTIAK	2
LEHEN MAILAKOAK BAKARRIK		1
BALORAZIOA	OSO NEGATIBOA	2
	NEGATIBOA	1
	EZIN HOBEA	0
	AGERI EZ DEN / AINTZAT HARTU EZ DEN ELEMENTUA	

LÍNEA LASARTE-HENDAIA (ACTUALIZACIÓN MARZO 2013)

MATRIZ DE CARENCIAS DE ESTACIONES ETS (LÍNEA LASARTE-HENDAIA) VALORACIÓN DOCUMENTADA ETS		PUNTOS DE INACCESIBILIDAD DE LA RED																					
		LASARTE	ERREKALDE	AÑORGA	LUGARITZ	AMARA	ANOETA	LOIOLA	INTXAURRONDO	HERRERA	PASAJA	GALTZARABORDA	RENTERIA	FANDERIA	OLIARTZUN	GAINTXURIZIKETA	BENTAK	BELASKOENEA	IRUN COLÓN	FICIBA	HENDAIA		
TIPOLOGÍA	ASPECTOS DE ACCESIBILIDAD	CRITERIOS																					
ACCESOS	1. Itinerario peatonal exterior acera, rebajes, carretera, tráfico 2. Acceso al equipamiento puertas, rampas, escaleras,... 3. Acceso al andén puertas, rampas, escaleras,... 4. Desplazamiento interior puertas, obstáculos, pavimento, señal, guía 5. Mostradores, taquillas adaptadas	S	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
		F	0	1	0	1	0	0	0	0	0	0	2	0	0	0	2	0	0	0	0	0	0
		S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1
		F	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1
EN EL ANDÉN	6. Mobiliario adaptado asientos, máquinas autoventa,... 7. Aseos adaptados 8. Sistemas de info-comunicación teleindicadores, paneles, megafonía 9. Pavimento exterior compacto duro, antideslizante 10. Señalización de seguridad bandas cromáticas, botoneras 11. Desplazamiento entre andenes rampas, ascensores, señalización guía 12. Accesibilidad andén-vehículo-andén separación horizontal-vertical	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
		F	1	1	0	1	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	1	1	0	0	0	0	1
		TOTAL	2	7	0	6	0	0	0	0	0	0	2	10	0	2	15	5	7	4	4	8	
		Nº	8	6	7	9	9	9	9	9	9	9	9	8	6	9	8	9	8	9	6	8	
EN EL EQUIPAMIENTO	6. Mobiliario adaptado asientos, máquinas autoventa,... 7. Aseos adaptados 8. Sistemas de info-comunicación teleindicadores, paneles, megafonía 9. Pavimento exterior compacto duro, antideslizante 10. Señalización de seguridad bandas cromáticas, botoneras 11. Desplazamiento entre andenes rampas, ascensores, señalización guía 12. Accesibilidad andén-vehículo-andén separación horizontal-vertical	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
		F	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
		TOTAL	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
		Nº	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ASPECTOS PRIMARIOS			0,3	1,2	0	0,7	0	0	0	0	0,1	0,2	1,1	0	0,3	2,5	0,6	0,9	0,4	0,7	1		
CATEGORIZACIÓN POR DEMANDA (DATOS EUSKOTREN 2012)			4	17	16	10	1	2	14	7	9	6	5	11	13	19	12	15	3	18	8		

PRÓXIMO COMIENZO DE OBRAS

SOLO CERCANÍAS o REGIONALES
CERCANÍAS y REGIONALES

Estaciones accesibles (menor o igual que 1)
Estaciones críticas (mayor o igual que 2)

VALORACIÓN	
MUY NEGATIVO	2
NEGATIVO	1
IDÓNICO	0
ELEMENTO NO PRESENTE /NO CONSIDERADO	

DATOS ANTIGUOS (PENDIENTE DE ACTUALIZACIÓN)

AMOREBIETA-BERMEO LINEA

ETS-EUSKOTREN GELTOKIETAKO GABEZIEN MATRIZEA		URDAIBAI KORRIDOREA																						
TIPOLOGIA	IRISGARITASUNAREN ALDERDIAK	IRIZPIDIAK	BERMEO	MUNDAKA	ITXASPEN - SUKARIETA	BUSTURIA AXPE	SAN KRISTOBAL - BUSTURIA	FORUA	INSTYTUA - GERNIKA	GERNIKA	LURGORIA - GERNIKA	MUXIKA	ZUGASTETA - MUXIKA	AMOREBIETA - GERALEUA	LEMOA	BEDIA	USANSOLA - GALDAKAO	ZUHATZU - GALDAKAO	ARIZ - BASAURI	ETXEBARRI	BOLUTA	ATXURI BILBO		
			IRISGARITASUNIK GABEKO PUNTUAK SAREAN																					
SARBIDEAK	1. Oinezkoentzako kanpoko ibilbidea espaloia, behiraguneak, errepeidea, trafikoa	S	0	1	1	1	1	2	0	0	1	2	2	2	1	0	1	0	1	1	0	2	0	
	2. Ekipamendura iristea atepak, arrapalak, eskailerak...	S	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
	3. Nasarako sarbidea atepak, arrapalak, eskailerak...	S	0	0	1	0	1	0	0	0	0	1	1	2	2	1	1	1	2	2	0	0	0	0
	4. Barruko joan-etorria atepak, oztopoak, zoladura, seinalea. Gida	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	5. Salmahaiak, leihatila egokituak	F	1	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	2	1	1	2	1	1	1	1	1	1
EKIPAMENDUAN	6. Altzari egokituak eserlekuak, autosalmantako makinak...	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
	7. Komun egokituak	F	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	
	8. Info-komunikazioko sistemak teledierazgailuak, panelak, megafonia	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
	9. Kanpoko zoladura trinkoa, gogorra, irristaden aurkakoa	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	
	10. Segurtasun seinaleztapena zerranda kromatikoak, botoiak	F	0	1	2	0	2	2	2	1	0	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
	11. Nasen arteko joan-etorria arrapalak, igogailuak, gidatzeko seinaleztapena	S	0	0	2	0	0	0	0	0	1	0	2	2	2	0	2	2	2	2	2	0	0	0
	12. Nasa-ibilgailua-nasako irisgarritasuna banantze horizontal-bertikala	F	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
NASAN	ALDERDI GUZTIAK		11	15	17	9	15	14	8	8	11	17	21	17	5	19	12	21	15	7	11	6		
	KOP.		12	9	10	7	7	7	7	12	7	8	8	8	12	8	11	10	8	10	12	12		
	BALORAZIOA		0,92	1,67	1,7	1,29	2,14	2	1,14	0,67	1,57	2,43	2,63	2,13	0,42	2,38	1,09	2,1	1,88	0,7	0,92	0,5		
	LEHEN MAILAKO ALDERDIAK BAKARRIK		6	13	15	7	13	12	6	5	9	15	19	15	3	17	10	19	13	5	8	3		
	KOP.		9	8	9	6	6	6	6	6	9	6	6	7	7	9	7	9	7	9	9	9		
BALORAZIOA 1. MAILAKOAK		0,67	1,63	1,67	1,17	2,17	2	1	0,56	1,5	2,5	2,71	2,14	0,33	2,43	1,11	2,11	1,86	0,56	0,89	0,33			
GELTOKIEN KATEGORIZAZIOA ESKARIA GORABEHERA		3	8	12	20	14	17	15	5	13	18	16	9	6	19	4	11	7	10	2	1			

ALDIRIKOAK edo ESKUALDEKOAK BAKARRIK
ALDIRIKOAK eta ESKUALDEKOAK

Geltoki irisgarriak (≤1)
Geltoki kritikoak (≥2)

IRISGARITASUNAREN ALDERDIAK	
ALDERDI GUZTIAK	
LEHEN MAILAKOAK BAKARRIK	
BALORAZIOA	
OSO NEGATIBOA	2
NEGATIBOA	1
EZIN HOBEA	0
AGERIEZ DEN / ANITZAT HARTU EZ DEN ELEMENTUA	

LÍNEA AMOREBIETA-BERMEO (ACTUALIZACIÓN MARZO 2013)																							
MATRIZ DE CARENCIAS DE ESTACIONES ETS (LÍNEA AMOREBIETA-BERMEO) VALORACIÓN DOCUMENTADA ETS		PUNTOS DE INACCESIBILIDAD DE LA RED																					
TIPOLOGÍA	ASPECTOS DE ACCESIBILIDAD	CRITERIOS	BERMEO	MUNDAKA	ITXASPEGI	AXPE	SAN KRISTOBAL	FORUA	INSTITUTO	GERNIKA	LURGORRI	MUXIKA	ZUGASTIETA	AMOREBIETA GFR.	LEMOA	BEDIA	USANSOLO	ZUHATZU	ARIZ	ETXEARRI	BOLUETA	ATXURI	
ACCESOS	1. Itinerario peatonal exterior acera, rebajes, carretera, tráfico	S	0	1	0	0	1	2	0	0	1	1	2	0	0	1	0	1	1	0	2	0	0
	F	0	1	0	1	2	0	0	0	0	1	1	2	0	0	2	0	1	1	0	2	0	0
	S	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0
	F	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0
EN EL EQUIPAMIENTO	3. Acceso al andén puertas, rampas, escaleras,..	S	0	0	1	0	1	0	0	0	1	1	1	0	0	1	0	1	1	0	0	0	0
	F	0	1	1	0	1	1	1	0	0	1	1	2	0	0	1	0	1	2	0	0	0	0
	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	F	0	2	1	0	0	0	0	0	0	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
EN EL ANDÉN	6. Mobiliario adaptado asientos, máquinas autoventa,..	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	F	0	1	1	1	1	1	1	1	0	1	1	1	1	0	1	1	1	1	1	1	0	0
	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	F	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ASPECTOS PRIMARIOS	8. Sistemas de info-comunicación teleindicadores, paneles, megafonía	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	F	0	1	1	1	1	1	1	1	0	1	1	1	1	0	1	1	1	1	1	1	0	0
	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	F	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
CATEGORIZACIÓN POR DEMANDA (DATOS EUSKOTREN 2012)	10. Señalización de seguridad bandas cromáticas, botoneras	S	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	F	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	S	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	0	0	1	0	1	0	0	0	0
	F	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	0	0	1	0	1	0	0	0	0
TOTAL		2	10	10	3	11	10	3	2	7	17	14	1	0	14	1	14	8	1	6	0	0	
Nº		8	8	9	6	6	6	6	6	9	6	9	7	6	9	7	9	9	7	9	9	9	
PRIMARIOS		0,3	1,3	1,1	0,5	1,8	1,7	0,5	0,2	1,2	1,9	2	0,2	0	2	0,1	1,6	1,1	0,1	0,7	0	0	
3		7	7	13	14	16	17	15	4	12	18	20	8	6	19	5	11	9	10	2	2	1	

DATOS ANTIGUOS (PENDIENTE DE ACTUALIZACIÓN)

SOLO CERCANÍAS o REGIONALES
CERCANÍAS y REGIONALESEstaciones accesibles (menor o igual que 1)
Estaciones críticas (mayor o igual que 2)

VALORACIÓN	
MUY NEGATIVO	2
NEGATIVO	1
IDÓNEO	0
ELEMENTO NO PRESENTE /NO CONSIDERADO	

CASCO VIEJO-LEZAMA LINEA

ETS-EUSKOTREN GELTOKIETAKO GABEZIEN MATRIZEA		TXORRIKO KORRIDOREA														
		DEUSTU - BILBO	UNIBERSITATE - BILBO	MATIKO - BILBO	ZUMALAKARREGI - BILBO	ZAZPI KALEAK - BILBO	OLA - SONDIKA	SONDIKA	LARRONDO - LOIU	ELOTXELERRI - LOIU	DERIO	LEKUNBIZ - ZAMUDIO	ZAMUDIO	KURTZEA - LEZAMA	LEZAMA	
SARBIDEAK	IRISGARritasunaren Alderdiak	1. Oinezkoentzako kanpoko ibilbidea espaloia, beheraguneak, errepeidea, trafikoa	1	0	1	1	1	1	1	1	1	1	2	2	1	1
		2. Ekipamendura iristea	0	0	1	1	2	1	1	1	2	1	2	2	1	1
		ateak, arrapalak, eskaierak...	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
EKIPAMENDUAN	IRISGARritasunaren Alderdiak	3. Nasarako sarbidea	0	0	0	0	2	1	1	0	1	0	1	0	1	0
		ateak, arrapalak, eskaierak...	0	0	0	0	1	0	2	1	0	2	0	2	0	0
		4. Barruko joan-etorria	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
		ateak, oztupoak, zoladura, seinalea. Gida	1	1	1	1	1	1	2	2	2	1	1	1	1	1
		5. Salmahaiak, leihatia egokituak	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
NASAN	IRISGARritasunaren Alderdiak	6. Altzari egokituak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
		eserlekuak, autosalmentako makinak...	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
		7. Komun egokituak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
		8. Info-komunikazioko sistemak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
		teleadierazgailuak, panelak, megafonia	0	2	1	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
		9. Kanpoko zoladura	0	1	0	1	0	1	0	1	0	1	0	1	0	0
		trinkoa, gogorra, irristaden aurkakoa	0	1	0	1	0	1	0	1	0	1	0	1	0	0
		10. Segurtasun seinaleztapena	0	1	0	1	0	1	0	1	0	1	0	1	0	0
		zerrenda kromatikoak, botoiak	1	2	1	2	1	2	1	1	1	2	0	1	0	2
		11. Nasen arteko joan-etorria	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
		arrapalak, igogailuak, gidatzeko seinaleztapena	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
		12. Nasa-ibigailua-nasako irisgarritasuna banantze horizontal-bertikala	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira 1 KOP.			8	14	10	22	11	13	18	10	16	10	10	10		
Guztira 2 KOP.			11	9	10	8	7	10	7	9	8	9	8	9		
Lehen mailako alderdiak bakarrik			0,73	1,56	1	2,75	1,57	1,3	2,57	1,11	2	1,11	2	1,11		
Balorazioa 1. Mailakoak			5	12	7	20	9	10	16	8	14	8	8	8		
Balorazioa 2. Mailakoak			9	8	8	7	6	8	6	8	7	8	7	8		
Balorazioa 3. Mailakoak			0,56	1,5	0,88	2,86	1,5	1,25	2,67	1	2	1	1	1		
Balorazioa 4. Mailakoak			5	11	7	9	1	14	3	8	10	2	13	4	12	
Balorazioa 5. Mailakoak			6	11	7	9	1	14	3	8	10	2	13	4	12	

ITXITA DARDEN GELTOKIAK

ALDIRIKOAK edo ESKUALDEKOAK BAKARRIK
 ALDIRIKOAK eta ESKUALDEKOAK
 Geltoki irisgarriak (≤1)
 Geltoki kritikoak (≥2)

IRISGARritasunaren Alderdiak	Lehen mailakoak bakarrik
ALDERDI GUZTIAK	
BALORAZIOA	2
OSO NEGATIBOA	1
NEGATIBOA	0
EZIN HOBEA	0
AGERI EZ DEN / AINTZAT HARTU EZ DEN ELEMENTUA	

LÍNEA CASCO VIEJO-LEZAMA (ACTUALIZACIÓN MARZO 2013)														
MATRIZ DE CARENCIAS DE ESTACIONES ETS (LÍNEA CASCO VIEJO-LEZAMA) VALORACIÓN DOCUMENTADA ETS		PUNTOS DE INACCESIBILIDAD DE LA RED												
		CASCO VIEJO	CUIDAD JARDÍN	LA OLA	SONDIKA	LARRONDO	ELOTXELERRI	DERIO	LEKUNBIZ	ZAMUDIO	LA CRUZ	LEZAMA		
TIPOLOGÍA	ASPECTOS DE ACCESIBILIDAD	CRITERIOS												
ACCESOS	1. Itinerario peatonal exterior acera, rebajes, carretera, tráfico	S F	0 0	1 2	0 1	0 1	1 1	1 1	1 2	1 1	2 1	0 1	0 1	
	2. Acceso al equipamiento puertas, rampas, escaleras...	S F	0 0	0 2	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 1	
	3. Acceso al andén puertas, rampas, escaleras...	S F	0 0	1 1	0 1	0 0	2 2	1 1	0 0	1 2	0 0	1 0	0 1	
EN EL EQUIPAMIENTO	4. Desplazamiento interior puertas, obstáculos, pavimento, señal, guía	S F	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 1	0 1	
	5. Mostradores, taquillas adaptadas	S F	/	/	/	/	/	/	/	/	/	/	/	
	6. Mobiliario adaptado asientos, máquinas autoventa,...	S F	/	/	/	/	/	/	/	/	/	/	/	
	7. Aseos adaptados	S F	/	/	/	/	/	/	/	/	/	/	/	
	8. Sistemas de info-comunicación teleindicadores, paneles, megafonía	S F	0 0	0 1	0 1	0 1	0 1	0 1	0 1	0 1	0 1	0 1	0 1	
EN EL ANDÉN	9. Pavimento exterior compacto duro, antideslizante	S F	0 0	0 0	1 1	0 0	1 0	0 0	1 0	0 0	1 0	0 0	0 0	
	10. Señalización de seguridad bandas cromáticas, botoneras	S F	0 0	0 0	1 1	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	1 0	0 0	0 0	
	11. Desplazamiento entre andenes rampas, ascensores, señalización guía	S F	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 0	0 1	0 1	
	12. Accesibilidad andén-vehículo-andén separación horizontal-vertical	S F	1 1	1 1	1 1	1 1	1 1	1 1	1 1	1 1	1 1	1 1	1 1	
ASPECTOS PRIMARIOS			TOTAL	2	10	9	3	12	8	4	14	6	7	6
			Nº	9	9	7	9	7	6	9	6	8	7	8
			PRIMARIOS	0,2	1,1	1,3	0,3	1,7	1,3	0,4	2,3	0,8	1	0,8
CATEGORIZACIÓN POR DEMANDA (DATOS EUSKOTREN 2012)				1	5	7	3	8	9	2	11	4	10	6

SOLO CERCANÍAS o REGIONALES
CERCANÍAS y REGIONALES

Estaciones accesibles (menor o igual que 1)
Estaciones críticas (mayor o igual que 2)

DATOS ANTIGUOS (PENDIENTE DE ACTUALIZACIÓN)

VALORACIÓN	
MUY NEGATIVO	2
NEGATIVO	1
IDÓNEO	0
ELEMENTO NO PRESENTE /NO CONSIDERADO	/

4.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

4.1. Beharrezkoa da ezen botere publiko guztiek irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua har dezatela, herritarren multzoaren beharrezko dibertsitateari erantzun dion ingurune bat sortuz, eta behar diren neurriak ezarri irisgarritasun unibertsal hori erabilera publikoko eraikin, establezimendu eta instalazioetan, lurraldea antolatzeko tresnetan, hirigintza-planetan eta urbanizazio-proiektuetan bermatzeko.

Irisgarritasun unibertsal hori lortzeko, garrantzitsua da administrazio publikoek sentsibilizazio, sustapen eta prestakuntza jarduketak egitea, batetik, gizarte osoaren eraldakuntza kulturalera bideratuak eta, bestetik, aukera-berdintasunaren eta bazterkeria ezaren ikuspuntutik, eta errealitate horri eta haren arrazoi ea ondorioei buruzko ezagutza handiagora.

Badakigu irisgarritasun osoa lortzeko eta dauden oztopo ugariak kentzeko ikaragarriko baliabideak mugiaraztea eta esleitzea eskatzen dutela.

Hori dela eta, aitortzen dugu egungo zailtasun ekonomikoek oztopoak jartzen dituztela epe laburrean irisgarritasun unibertsalaren helburua lortzeko. Hala eta guztiz ere, eta kontuan hartuz ezen administrazioen baliabide ekonomikoak eta teknikoak, oro har, bereziki eskasak direla, beharrezko gertatzen da administrazio autonomikoaren eta tokiko autonomiaren arteko kooperazio tekniko eta ekonomikoa.

Administrazioen aurrekontu-murrizketaren egoerak ez luke ekarri beharko oztopoak kentzera zuzendutako finantzaketa publikoa deuseztatzea. Komenigarria da, beraz, administrazio publikoek ahalegin ekonomikoa egitea lan horri ekiteko, kontuan hartuta kasu guztietan egokitze lanak egungo atzeraldi ekonomikoko egoera iritsi baino lehen hasiak eta amaituak behar zutela izan.

Garraioaren esparruko irisgarritasunak eskatzen du zerbitzu hori bokazio unibertsalez eman dadila, pertsona guztien ibilera autonomoa erraztuz berdintasun-baldintzetan.

Esparru honetan irisgarritasun baldintzak ezartzeko sortzen joan diren aurrerapenak garrantzitsuak badira ere, oraindik ere ageriko gabezia batzuk badaude, zerbitzua modu unibertsalean erabil dadila baldintzatzen dutenak.

Horretarako, beharrezkoa litzateke, behar diren ahaleginak egiten jarraitzea garraio-moduak irisgarritasun unibertsalaren helburuari egokitzeko, bai azpiegitura eta material mugikor berriari dagokionez, bai lehendik daudenak egokitzeari dagokionez; hartara, bermatu nahi da, era berean, dauden elementuen kontserbazio egokia, garraio-moduetara sartzeko eta haietatik jaitea errazteko, uneoro segurtatuz haien erabilera operatiboa dela. Horri dagokionez, beharrezkoa da garraio-elementuen irisgarritasuna era erabilera erraza bideratuko duten aurrerapen teknikoak sartzeko.

4.2. Kontuan hartuta desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiek desgaitasunetik heldutako beharrei erantzuteko

egin behar duten gehiegizko esfortzua, gure ustez oraingoa bezalako *krisi ekonomikoko* kointura batean, botere publikoek aurrera egin behar dute dauden onura fiskalen tratamenduan, desgaitasun-egoerak gutxitzen lagunduko duen babes-neurri gisa.

4.3. Desgaitasuna duten pertsonentzako sendagaien doakotasuna prestazio farmazeutikoaren bereziki menpekota den kolektibo horrentzako laguntza-neurri bat da, zeina ezin baita geratu arauen arteko igorpen-jokoaren menpean; hari eusteak eta hura orokorrean aplikatzeak funtsezko ekitate-beharkizunei erantzuten diete. Ildo horretan, Herri Defendatzaileak Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioari gomendio bat zuzendu dio, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioarekin koordinatuta, lege erreforma egokia egin dezan, haren bidez ehuneko 33ko eta gehiagoko desgaitasun gradua duten pertsonak, desgaitasun gradu horretara zein momentutan iritsi ziren kontuan izan gabe, salbuetsita egon daitezzen Osasun Sistema Nazionalari egin beharreko ekarpenetik.

Aldi berean, prestazio ortoprotesikoen zorroa arintasunez eta maiztasunez gaurkotzeko lehentasun bat izan beharko luke, desgaitasuna izan eta horrelako prestazioak behar dituzten pertsonen eguneroko bizitza hobetzeko.

4.4. Administrazio publikoek jarraitu behar dute diskriminazio positiboko neurriak hartzen, desgaitasuna duten pertsonak enplegua dela-eta berdintasun materiala erdiets dezaten. Horretarako, beharrezkoa da gizartea gehiago sentsibilizatzea haien lanerako aukerei buruz, desgaitasuna duten pertsonentzat berariaz dauden mekanismoez harantzago, eta, halaber, garrantzitsua da lantokiak eta lanpostuak egokitzen aurrera egitea, bai eta horretarako pizgarri eta diru-laguntzan linea egonkor bat erraztea ere. Horri buruzko ekarpen gisa, aipatzekoa da [Arartekoaren martxoaren 4ko 4/2013 Gomendio Orokorra](#), aldi baterako kontratazio-burtsak erregulatzen dituen arauetan diskriminazio positiborako neurriak ezartzeari buruzkoa, desgaituak beren ezaugarrietarako egokiak diren lanpostuetara iritsi ahal izatea errazteko.

4.5. Azkenik, azpimarratu behar dugu azken urteetan murrizketa handiak egin direla kolektiboko elkarteei zuzendutako politika publikoetan. Egitate hori eragina izaten ari da elkarte horiek beren erabiltzaileei ematen dizkieten zerbitzuetan, zeinak, itxura batean, administrazio publikoek berek ez dituzten beren gain hartuko. Esan beharra dago erakunde horiek desgaitasuna duten pertsonentzat funtsezkoak diren banakako orientabide-laguntza-lanak egiten dituztela; dauden baliabide komunitario eta berariazkoei buruzko dokumentazio- eta informazio-iturriak direla, eta, aldi berean, kolektibo jarduera sozialaren esparru desberdinetan ikus-tarazteko bermea direla. Horri dagokionez, erakunde honek nabarmendu eta defendatu behar du ezen, krisi garaian sekula baino gehiago, botere publikoek giza eskubideen printzipioak hartu behar dituztela beren politika publikoen diseinurako gida-lerro gisa.

a t a l a

2014.

Gaixo kronikoak



Aurrekariak



Gaixo kronikoek berariazko premiak izaten dituzte, eta horiek euskal herri-administrazioek artatu behar dituzte ezinbestean. Iraupen luzeko gaixotasunak direnez eta, oro har, motel egiten dutenez aurrera, sendagarriak direnak ez bezalako tratamendu edo zaintzetan oinarritutako arreta behar izaten dute batez ere, pertsona horien bizi kalitatea bermatzen duen arreta soziosanitarioan oinarritutakoak gehienbat, autonomia eta zaintza sustatuz, narriadura prebenituz eta tratuen eta aukeren berdintasuna eskainiz.

1.

Kexarik aipagarrienak

1.1. Sendagaia finantzaketa publikotik kanpo egoteagatik –Sjögren sindromea daukaten gaixoen begietako lehortsuna arintzeko izan ezik– sindrome lehor larria (Lyell sindromearen bigarren mailakoa) daukan pertsona bati sendagai hori ez emateari buruzko gure erabakia eman genuen [Arartekoaren 2013ko irailaren 25eko ebazpenean](#). Horren bidez, *Osasun Sailari gomendatzen zaio paziente bati sendagai baten finantzazioari begira emandako ukoa berrikusteko; izan ere, gaixo honen benetako beharrian eta premia bestelako patologia batean kontuan hartu den berbera da eta azken hori finantzatu egiten da.*

Ebazpen horren azterketa laburra, osasun-administrazioak gure gomendioari emandako erantzuna eta erakunde honek hartutako neurriak txosten honen [II.12 kapituluko 2.1 atalean](#) jasota daude, Osasun arloari baitagozkio.

1.2. Herritar baten kexaren izapidetzeak agerian jarri zuen, berriro ere, kalte zerebralak eragiten dien pertsonentzako baliabide espezializatuak nahikoak ez direla.

1.3. [Apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretua](#) –*Estatuko Osasun Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa*– aplikatzearen ondorioz prestazio farmazeutikoetarako xedatutako ekarpen berrien inguruko kexa batzuek gaixo kronikoek eta pentsiodunek, besteak beste, jasan behar duten kostua azpimarratu zuten. Haien egoera ekonomiko estuaren ondorioz, egoera jakin batzuetan benetako zailtasun batek prestazio farmazeutiko horiek eskuratzeko dituzten aukerak baldintzatu litzake.

Uste dugu egoera hori [azaroaren 19ko 447/2013 Dekretua](#) –*Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzekoa*– eta [2013ko abenduaren 23ko agindua](#) –*Osasuneko sailburuarena, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2013ko eta 2014ko laguntzak emateko deialdia egiten duena*– aplikatuz zuzenduko dela. Bai dekretua bai agindua gure osasun-administrazioak egin dituen osasun-planetan finkatu diren helburu nagusietako batean gauzatzen diren tresnak dira: helburu hori, hain zuzen ere, gizarte-egoera ahuleneko pertsonen osasuna hobetzea eta eremu horretan gizarte-desberdintasuna gutxitzea da.

1.4. Aurten Dravet sindromea daukan adingabe bati mendetasunaren inguruan egindako balorazioaren emaitzarekin desadostasuna adierazi duen kexa bat jaso dugu. Patologia hori [iazko txostenaren III.4 kapituluko 3.2.2. atalean](#) aipatu genuen. Erakunde hau kezkatuta dago gaur egungo baloratzeko baremoaren aplikazioak ematen dituen emaitzengatik eta baloratutako pertsonen laguntza– eta gainbegiratze-premiak ikusita ulertzen zailak diren mailaketei buruzko perzeptzioagatik –sare publikoko osasun edo gizarte-laneko

profesionalek adierazi dute, eta gure informazioa haiekin egiaztatzeak aukera eduki dugu-. Kezka horri [txosten honen III.11. kapituluan](#) helduko diogu.

1.5. Arartekoaren ebazpena, 2013ko otsailaren 19koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailari gomendatzen zaio balora dezala urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan eraikin bat jasotzeak duen interes publikoa, Sentikortasun Kimiko Anizkoitzaren sindromea duen pertsona bat han aldi batean tratatzeko. Ebazpen hori eragin zuen kebaren azterketa Hirigintza arloari buruzko [II.15. kapituluan](#) giten da, [2.1. atalean](#).

2.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

2.1. Arauen berrikuntza nagusiak osasun publikoaren esparru orokorrean egin dira: [azaroaren 19ko 447/2013 Dekretua](#), [Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzekoa](#); [2013ko abenduaren 23ko agindua](#), [Osasuneko sailburuarena](#), agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2013ko eta 2014ko laguntzak emateko deialdia egiten duena; eta [2013ko uztailaren 4ko agindua](#), [Osasuneko sailburuarena](#), [Osasun Sistema Nazionalan aseguratutako edo onuradun ez diren pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-asistentzia aitortzeko prozedura ezartzen duena, eta identifikazio-dokumentua eta hori emateko prozedura arautzen dituena](#). Hortaz, [Osasun arloari buruzko II.12 kapituluan](#) 3. atalean aztertuko dira.

2.2. [Abenduaren 30eko 473/2013 Dekretua](#), [Euskal Autonomia Erkidegoko gaixotasun arraroen erregistroaren sorrari eta funtzionamenduari buruzkoa](#). Erregistro hori sortzea [Gaixotasun Arraroetarako Estrategiaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ekintza Planaren](#) helburuetako bat zen. Planak Euskal Autonomia Erkidegoko gaixotasun arraroak hobeto ezagutzeko, artatzeko eta arlo horretan hobeto koordinatzeko neurriak biltzen ditu, eta Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak [Osasun Sistema Nazionalaren Gaixotasun Arraroetarako Estrategiaren](#) inguruan aurkeztutako 2011/2012ko Lan Egitasmoan oinarrituta dago.

2.3. [Historia Dosimetrikoaren](#) sistemak indarrean jarraitzen du. Proba diagnostiko jakin batzuek ekartzen dituzten erradiazio ionizatzaileetarako (beraz, kaltegarrietarako) esposizioen erregistroan datza, eta horren bitartez behar ez diren esposizioei aurrea hartzeko eta horiek ekiditeko neurriak har daitezke.

2.4. 2013ko urtarrietik aurrera bost gaixotasun berri-homoszitunuria, astigar ziroparen gaitza (MSUD), 1 motako

aziduria glutamikoa (GAI), aziduria isobalerikoa eta kate luze gantz-azidoen azil COA deshidrogenatuaren gabezia (LCHADD)- [Osakidetzaren Jaioberrientzako Behaketa Programan](#) sartzea pentsatzen zen arren, praktikan ez da hori gertatu. Sailak jakinarazi digu 2014ko otsailerako aurreikusita dagoela.

3.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

Jarraian erakundeak 2013. urtean garatutako jarduera nagusiak deskribatuko ditugu:

3.1. Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko strategiaren jarraipena

2010etik geroztik esan dugun moduan, gure osasun-administrazioak sustatutako tresna horrek pertsona horiei eskainitako arreta hobetu nahi du, 14 proiektu estrategikoren bitartez. 2010-2012ko aldiari dagokion proiektu horien eboluzioa [Compartiendo el avance de la estrategia de cronicidad](#) agirian jaso da. 2013an Osasun Sailari honako arloetan erregiratutako aurrerapenez galdetu diogu:

3.1.1. Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenak egiten dituzten, jarduerak EAEn burutzen dituzten eta gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetu nahi duten erakundetarako laguntzak.

Laguntza-ildo horretarako deialdia egiten jarraitzen da (aurten, [2013ko uztailaren 3ko Aginduaren bidez](#)). Hori biziki garrantzitsua da gaixotasunen bat duten pertsonen zuzendutako laguntzaren alde egiten duelako, nor bere burua zaintzeko eta autonomia lortzeko trebetasunak eta baliabideak garatzeari dagokionez; era berean, haien premia soziosanitariak artatzearen alde egiten du, eta eragindako pertsonen eta haien familiei gaixotasuna, horren arrisku-faktoreak eta bizi-aztura egokienak ezagutzen eta horiei buruzko informazioa lortzen laguntzen die.

Aurrekontuko zuzkidura aurten 300.000 eurotan mantentzen da. [2013ko azaroaren 12ko ebazpenaren](#) bitartez, 62 elkarrek aurkeztutako 99 proiekturi laguntzak eman dizkiete.

3.1.2. Gaixoaren erantzukizunaren eta autonomia sustatzeko hartutako neurrien inguruan erdietsi diren lorpenak.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Osakidetzarekin lankidetzan, [Osasun Eskola](#) (OE) sortu du 2013an. Gaixoei, zaintzaileei eta herritarrei informazioa eta prestakuntza eskaintzen dizkien zerbitzu bat da, osasunari eta gaixotasunari buruz erantzukizun partekatuko jarrera bat lortzeko.

Sailak esan digu **Paziente Bizia-Paciente Activo** Programak gaur egun “Stanford metodologian” gaitutako 20 profesional eta gaixo bat dauzkala, baita 103 prestatzaile (profesionalak eta gaixoak) ere, ikastaroak emateko Programaren helburua nor bere burua zaintzeko eta gaixotasuna kudeatzeko trebetasunak jakinaraztea eta horietan prestatzea da. Antolatzen diren lantegien bidez, gaixo kronikoak bere gaixotasuna hobeto ulertu eta bere osasunaz arduratu har dezala nahi da. Ikastaro horiek gaixo kronikoek edo zainketaileek ematen dituzte, taldea osatzen dutenek dituzten esperientzia eta zailtasun berak bizi izan dituztenak, ikuspuntu fisikotik, psikologikotik eta sozialetik. 2013ko abenduaren 31n adierazi digute 123 ikastaro egin direla eta 1.501 gaixo aktibatu dituztela.

Gaixoei euren gaixotasuna kudeatzen eta erabakiak era partekatuan hartzen irakasteko teknikei buruz Osakidetza profesionalak jaso behar duten etengabeko prestakuntzari dagokionez, sailak 162 prestakuntza-jarduerak egon direla eta haietan 7.943 profesionalak parte hartu dutela azaldu digu.

Era berean, taldeko hezkuntzarekin lotuta egin diren osasun komunitarioko 120 jarduerak (tabakoa erretzeari uztea, diabetesa, e.a.) aipatu ditu, baita *altarako zainketa-planen* garrantzia ere. Azken horien helburua da gaixoari eta familiaria alarma-zeinuen, hasiera batean hartu beharreko neurrien eta aztura gomendagarrien (elikadurari, higienerari, jarduerak fisikoki, gorputz-jarrerari eta abarrei dagokienez) inguruko informazioa ematea eta horietan trebatzea.

3.1.3. Aurrerapen nagusiak gaixo kronikoari etengabeko laguntza bermatzeari dagokionez.

Sailak esan digu helburu horretarako egindako egitura-jardunen esparruan *Erakunde Sanitario Integratuak* (ESI) sortzen ari direla. Horien bidez, hainbat laguntza-erakunde (ospitalea bere lehen mailako arretako erreferentzia-zentroekin) erakunde sanitario bakarrean elkartzen dira. Horietako bost abian daude dagoeneko: Bidasoa ESI, Debagoiena ESI, Debabarrena ESI, Goierri-Urola ESI; hiru 2014ko urtarrilean hasiko dira funtzionatzen: San Eloy Barakaldo-Sestao ESI, Barrualde ESI eta Bilbo-Basurtu ESI; hiru 2014an hasiko dira integrazio-prozesuarekin: Tolosaldea ESI, Gipuzkoa ESI eta Araba ESI; eta bi, berriz, 2015ean: Ezkerraldea ESI eta Uribe ESI.

Laguntzaren jarraitutasuna bermatzeko helburua duten laguntza-jardunei dagokienez, osasun-administrazioak helarazitako informazioaren arabera, honakoak azpimarratzen ditugu:

- Lau laguntza-bide sortu dira: gaixo pluripatologikoa, diabetesa, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa eta bihotz-gutxiegitasuna; horietan egintzen segida, eragiten dituzten agenteak eta jardun bakoitzeko erantzukizunak deskribatzen dira.
- Gaitasun profesional berriak gehitu dira: erreferentziazko mediku espezialista, praktika aurreratuko erizaina (PAE) eta ospitale-lotuneko erizaina.
- Lehen mailako arretako mediku eta erizainen eta Osakidetza inguruetik zein gizarte-esparrutik etorritako gizarte-langileen arteko koordinazio soziosanitarioa lortu da.

- Osarean, jarduerak presentzialari laguntza ez presentzial osagarria ematen dion elementu teknologikoa (medikazioaren jarraipena eginez, konfortaren inguruko galderak eginez, euren bizilekuan monitorizatutako gaixo kroniko konplexuengan gertatzen diren alertak kontrolatuz eta kudeatuz, e.a.).
- Osabide Global-en bitartez (historia kliniko bateratua) gaixoaren informazio kliniko guztira eta lehen mailako arretako profesionalaren eta ospitaleko esparruko erreferentziazko medikuaren arteko kontsulta ez presentzialerara sarbidea edukitzen da, besteak beste.
- *Laguntzaren Jarraitutasunerako Planak*: ospitaleratutako gaixoaren balorazio osoa, altarako tratamendu- eta zainketa-plan bat eta nor bere gaixotasuna kudeatzen lagunduko duen gaixoen eta senideen prestakuntza.

Jakinarazi digute hainbat espezialitate (hala nola, zainketa aringarriekin, giltzurruneko gaixotasunarekin, gaixotasun neurologikoarekin, digestio-gaixotasunarekin, patologia onkologikoarekin, min kronikoarekin eta buruko patologiarekin lotutakoak) ukitzen dituzten beste bide batzuk lantzen ari direla.

3.1.4. *Kronikoen Sarea* programaren, eraginaren eta erdietsitako lorpenen balorazioa.

2011ko gure urteko txostenean gizarte-sare proiektu hori deskribatu genuen. Gaixotasun kronikoren batekin bizi diren pertsonak eta horiei lagun egiten dietenak eta zaintzen dituztenak daude bertan, denen bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. Adierazi genuen parte hartzeko modu erraz eta azkarra osatu nahi zela, ahalduz, elkarrekin ikastea, emozioen kudeaketa eta afinitatean oinarritutako interakzioa bultzatzeko.

Osasun Sailak esan digu 2013/12/31n 1.637 erabiltzaile erregistratu direla eta kopuru horrek hazteko joera etengabea baina motela daukala.

Deusto Research-ek eta BIOEF-ek bizi-kalitatean eta gaixotasunari aurre egiteko gaitasunean izan duen eragina ebaluatu dute: erabiltzaileek egin duten balorazioa positiboa da, eta %81ek beste pertsona batzuei gomendatuko liekete; erabiltzaileen profila Euskadiko gaixo kronikoen batez bestekoa baino gazteagoa (batez besteko adina 45 urte dira) eta prestakuntza handiagokoa da; erabiltzaileen %67,2 emakumeak dira; parte-hartzaileek sare horren bidez laguntzeko eta laguntza jasotzeko ahalmena baloratu dute bereziki, baita pribatutasuna kudeatzeko ere.

Sailak uste du sortzerakoan finkatutako helburua betetzen duela, baina hobetu beharreko arloak daudela onartzen du: *“erabiltzaile gehiago lortzea, daudenak era aktiboagoan berrain sartzera (beste gizarte sare batzuetan bezala, KSn erabiltzaile pasibo asko daude), sareko elkarrizketak osasun arloa bideratzea, eta ahalduz, gaixoen aktibazioa kapital sozial erlazionalaren sorrera eta antzeko kontzeptuak oinarri hartuta ebaluatzea”*.

3.1.5. Erizaintzako eskumen aurreratu berrien garapena.

2011ko urteko txostenaren III.4 kapituluko II.1 atalean kronikotasunaren arreta integratuta bideratutako erizaintzako

hiru rol berriren pilotajearen hasiera aipatu genuen, eta bakoitzaren helburuak deskribatu genituen: eskumen aurreratuen erizain kudeatzailea (EAEK), jarraitutasunaren erizain kudeatzailea (JEK) eta ospitale-lotunearen erizain kudeatzailea (OLEK).

Hasierako planteamendua –2013ra arte guztira 300 erizain prestatzea– gorabehera, gaur egungo egoera honakoa da:

- 42 profesionalak OLEKen eskumenak gauzatzen dituzte Osakidetzako ospitaleetan.
- 78 profesionalak JEKen eskumenak egikaritzen dituzte lehen mailako arretaren eremuan.
- EAEKen eskumenak dituzten 59 profesional daude lehen mailako arretaren eremuan.

3.2. Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak. Hurbilketa txosten bereziaren jarraipena

Aurten Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak 2011ko otsailaren 28an onartutako *Osasun Sailari Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Soziosanitarioaren Ildoak Prestatzeko Esparru-Dokumentua* gauzatzeari dagokionez erregistratutako aurrerapen nagusiei buruz galdetu diogu Osasun Sailari.

Jakinarazi digutenez, kontseilu horrek 2013ko uztailaren 3an EAEko arreta soziosanitarioko bost ildo estrategikoak onartu zituen:

- Zerbitzu soziosanitarioen zorroa definitzea.
- Informazio eta komunikazio soziosanitarioen sistema bat ezartzea.
- Sektoreen arteko akordio soziosanitarioak formalizatzea.
- Helburu-taldeetarako garapen-plana.
- Prestakuntza, berrikuntza eta ezagutzaren zabalkuntza sustatzea.

Erakundeei dagokienez, sailak adierazi digu 2013an zerbitzu soziosanitarioen zorroa idazteko lan-batzordea abiarazi dela; batzorde horrek lurralde bakoitzeko eta EAEko mapa soziosanitarioak egingo ditu eta lurraldeko plan operatiboetarako egitura komuna ezarriko du. Era berean, arreta goiztiarrean erabat esku hartzeko dekretua onartzeko espedientea oso fase aurreratuan dagoela esan digu.

Aipatu du zein eremutan den nabarmen gaur egun arreta soziosanitarioaren garapena herritarrentzat:

- Gizarte- eta osasun-guneen artean koordinatutako jardunak, osasunaren lehen mailako arretaren, udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuen eta foru aldundiko gizarte zerbitzuen arteko koordinazio soziosanitarioa lortzeko protokoloetan formalizatutakoak. Protokolo horien artean honakoenak nabarmen dira: Donostialdea Eskualdearenak, Donostiako Udalarenak eta Gipuzkoako Foru Aldundiarenak; Arabako Eskualdearenak eta Gasteizko Udalarenak; Uribe Eskualdeko 27 udalerrirenak eta Bizkaiko Foru Aldundiarenak. Jakinarazi digutenez, *“protokolo horiek adinduen eta mendeko pertsonen sektorea dute helburu, etxeetan bizi zein egoitzetan bizi”*.

- Premia bereziak dauzkaten eta 0 eta 6 urteren arteko adina duten haurrentzat arreta goiztiarreko ereduaren pixkanakako ezarpena (Beharizan bereziak dituzten haurren arreta integraturako prozesua, Basurtuko Ospitalearen eta Bilboko Eskualdearen, Hezkuntza Sailaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren artean).
- Osakidetzako historia kliniko informatizatua adinekoen egoitzetan sartzeko lehenengo urratsak. Esan digu honetan lan egiten ari dela: *“bi testuinguruaren elkarreragin-garritasunean, helburu-biztanleriaren zainketa soziosanitarioen plangintzaren balorazio osoa egiteko balio duen tresna komun bat garatuz eta balioztatuz, baliabide soziosanitario guztietarako bidezko sarbidea lortzeko eta jarraitu beharreko bide soziosanitarioa definitzeko”*. Zentzu horretan, gaineratu du gaur egun fase pilotua zabaltzen ari dela. Fase horretan osasun- eta gizarte-esparruko 50 profesional prestatzen eta aipatutako tresna erabiltzen ari dira.

Helburu-taldeak honela definitu ditu: *“buru-nahasmenduren bat daukaten pertsonak, mendekotasun egoeran dauden pertsonak, ezgaitasunen bat duten pertsonak, baztertuta dauden edo baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonak, babesik gabe dauden edo babesik gabe egoteko arriskuan dauden pertsonak, premia bereziak dituzten haurrek edo talde txiki baina sentikorrek, hala nola gaixotasun arraroren bat daukaten pertsonak”*.

Jakinarazi digu Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak 2013ko abenduaren 26an egindako bileran 2013an gertatutako aurrerapenen inguruko informazio eguneratuta aurkeztu zela. Txosten hau idazteko uenean bilera horren akta onartuta ez dagoenez, 2014an aztertu beharko da.

3.3. Lehen eta bigarren mailako linfedemak dituzten pertsonen emandako arretaren jarraipena

Arartekoak eremu honetan izandako esku-hartzeak testuinguruan kokatzeko, komeni da hauen edukira jotzea: [Legebiltzarrentzako 2010ko txostenaren III.4 kapituluko IV.2 atala](#), [2011ko txostenaren III.4 kapituluko III.1 atala](#) eta [2012ko txostenaren III.4 kapituluko 3.1.1. atala](#).

Aurten Osasun Sailaren aurrean nabarmendu dugu eragindakoen taldeak egiten zituen proposamenak aintzat hartu behar direla, egoera etengabe eta kroniko hori –horren gradu aurreratuenak eta larrienak elefantiasi du izena– sailhesteko. Era berean, adierazi dugu komenigarria dela gure inguruko herrialdeek gaur egun erabiltzen duten Europako praktika klinikorako gida, [Best Practice Guide for the Management of Lymphoedema](#), jarraitzea.

Taldeak jakinarazi digu aurrerapen nabarmenak erregistratu dituela bigarren mailako linfedemari emandako arretan, baina ez lehen mailako linfedemari emandakoan. Azpimarratu du osasun-sistema publikoak gaur egun eskaintzen diren baino galtzerdi eta atzandel gehiago ordaindu behar dituela, gaitutako profesionalen egindako drainatze linfatikoko saioen kopurua handitu behar duela eta lehen mailako linfedemako kasuetan jarraipena eta tratamendua bermatu behar dituela.

3.4. Sentsibilizazio zentraleko gaixotasunak dituzten pertsonen emandako arretaren jarraipena: fibromialgia (FBM), neke kronikoa (NK), sentikortasun kimiko anizkoitza (SKA) eta elektrohipersentikortasuna (EHS)

3.4.1. Arartekoak eremu honetan izandako esku-hartzeak testuinguruan kokatzeko, komeri da hauen edukira jotzea: [Eusko Legebiltzararentzako 2011ko txostenaren III.4 kapituluko III.5 atala](#) eta [Eusko Legebiltzararentzako 2012ko txostenaren III.4 kapituluko 3.1.2 eta 3.2.1 atalak](#).

3.4.2. Iaz fibromialgia eta neke kronikoa duten pertsonen arretarekin lotuta erregistratutako aurrerapenak aipatu genituen, funtsean jarduteko protokoloen aplikazioari, profesionalen prestakuntzari eta gaixoen partaidetzari dagozkien alderdietan.

Hala eta guztiz ere, urte honetako amaieran osasun arloko profesionalen ematen ari zaien prestakuntza nora ezean ibiltzearekin lotutako inguruabar batzuen berri eduki dugu. Baieztatuz gero, presazkoa litzateke sail horrek jardunak bideratzea. Elkarrekin sareek eta eragindako hainbat pertsonak bildutako informazioen arabera, ematen ari den prestakuntza ez da koherentea euskal osasun-administrazioak hartu duen kronikotasunerako estrategiarekin, ezta Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak 2011n argitaratutako [Fibromialgiari buruzko Gidan](#) ezarritako jarraibideekin ere. Arrazoi horrengatik hasitako kexa-espeditentia izapidetzeko fasean dago txosten hau idazteko unean.

Hain zuzen ere, osasun arloko profesionalen prestakuntza sustatzea, gida klinikoaren diseinuan eta zabalkundean sakontzea, lehen mailako arreta eta arreta espezializatua koordinatzea eta gaixotasun horiek eragindako pertsonen elkarteak laguntzea dira Eusko Jaurlaritzak aurtan bere [120/2013 Ez Legezko Proposamenean](#), fibromialgiari eta neke kronikoari buruzko jardunbideen gainekoan, nabarmendu dituen kontu nagusiak.

3.4.3. Sentikortasun kimiko anizkoitzak (SKA) eragindakoei dagokienez –persona horien immunitate-sistemak eta sistema endokrinoak ez dute produktu kimikoekiko, lurriketako eta abarrekiko esposizioa jasaten, ezta pertsona gehienek eskuarki onartzen dituzten mailetan ere, bestela euren osasuna arrisku larrian jarriko zuketelako–, haien arretan aurrerapen gutxi egon direnez eta haien egoera arraz kezagarria denez, Osasun Sailari ondoren adieraziko ditugun gogoetak helaraztea erabaki genuen.

SKAk eragindako pertsonen, bestelako patologiek eragindako pertsonen bezala, bermatuta daukate Osasun Sistema Nazionala (OSN) zerbitzu komunaren zorroa eta hori eguneratzeko prozedura ezartzen dituen indarreko araudian definitutako prestazioetarako sarbidea; bestalde, prestazio horiek emateko baliabideak autonomia erkidegoen eskumenekoak dira.

Araudi horrek zerbitzu komunaren zorro horren edukia hedatuki definitzen du, arreta osoa eta erabilizaleari emandako laguntzaren jarraitutasuna bermatzeko helburuarekin, artatzeko laguntza-maila edozein dela ere, eta lehen mailako

arretaren eta arreta espezializatuaren artean koordinazio handia lortzeko helburuarekin. Hori funtsezko alderdia da euren ezaugarriengatik bi mailen aldibereotasuna behar duten patologiei –adibidez, SKAri– ekitean eraginkortasun handiagoa lortzeko.

Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak SKAko adituen lantalde bat osatu ostean, Osasun Sistema Nazionala Kalitate Agentzia burua izanik, ministerio horretako eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren menpe dagoen Carlos III Osasun Institutuko ordezkariak, elkarte zientifikoak eta adituek elkarrekin lan egin dute eskuragarri dagoen frogaz zientifiko hobereana oinarri hartuta. Haien helburua, besteak beste, Sentikortasun Kimiko Anizkoitza duten pertsonen osasun-arretari buruzko “adostasun-agiri” bat egitea da; agiri hori OSNen barruan patologia horren arretaren kalitatea eta ekitea hobetzeko tresna da eta OSNeko Kalitate Planak ezartzen dituen planteamendu estrategikoekin bat dator.

Agiriak gaixotasun horren portaera epidemiologikoari, zein kliniko eta fisiologikoari, diagnostikoari eta ekite terapeutikoari buruzko gaur egungo ezagutzei heltzen die, baita eragin fisiko, psikologiko eta sozialari buruzko ezagutzei ere. Prebentziozko neurriak eta zainketak proposatzen ditu, bai osasun-zerbitzuetako profesionalentzat, bai gaixotasuna jasaten duten pertsonentzat, osasuna kontrolatzen eta bizikaltatea hobetzen laguntzeko asmoz.

EAEen SKAk eragindako pertsonen emandako arretaren eta ezarritako osasun publikoko politiken inguruan 2011tik geroztik egiten ari garen analisiari esker, hutsune batzuk eta dagozkien hobetzeko arloak seinala ditzakegu:

3.4.3.1. Euskal osasun-sistemak ez dauka sentikortasun kimiko anizkoitza eta merkurio-intoxikazioa duten pertsonak artatzeko profesional espezializaturik. Hori dela eta, ezin da diagnostiko egokia egin eta dagozkion tratamenduak ezarri. Gainera, horrek espezialista batetik bestera joanarazten du gaixoa, era kezagarrian.

Oro har, osasun arloko langileek ingurumen-patologiak ezagutzen ez dituztela erregistratu da. Dirudienez, sailak ez dizkie profesionalen kontu horren inguruko kontsultatresnarik ematen, ezta gidarik ere.

Lehen mailako arretako fakultatiboaren oinarriko **prestakuntza** –alderdi orokorrak eta kontraindikazioen ezagutza– eta **profesionalen espezializazioa** (horiengan jarri behar da arreta etorkizunean) **sustatu** behar dira. Horrez gain, bitartean, zerbitzu egokira **bidaltzeko** edo zentro pribatu batek emandako arretaren ondorioz sortutako gastuak **itzultzeko bideak atzerapenik gabe** eta gaixoei **behar bezalako informazioa emanez** gauzatu behar dira.

3.4.3.2. Egon daitezkeen ospitaleratzeetarako **ospitale-protokolo** bat eduki behar da, baita **larrialdietako zerbitzuetan arreta emateko protokoloak** ere, pertsona horien agente abiarazle edota sentsibilizatzaileekiko esposizioa murrizteko eta arreta urgentera zuzendutako guneak prestatzeko. Zentzu horretan, osasun-administrazio katalanaren [Recomanacions de bona pràctica clínica sobre l'atenció als serveis d'urgències hospitalàries dels afectats de sensibilitat química múltiple](#) izeneko gomendioak har ginitzake erreferentzia gisa.

3.4.3.3. Eragindako pertsonen **eritrozito-mikromante-nugaien analisia gehitzeko** eskatu dute, horri esker eragindakoaren mantenugaien estatus funtzionala ezagutaraz daitekeelako ohiko serum-proben bitartez baino aldi luzeagoan.

3.4.3.4. Haien osasunerako nahitaezkoak diren **produktuen estaldura** falta erregistratu da –maskara bereziak, aire- eta ur-iragazkiak, nutrizio-gehigarriak, e.a.–.

3.4.3.5. SKA **Osakidetzako gaixo kronikoak artatzeko estrategian sartu** behar da.

3.4.3.6. **Osakidetzak publikoari eskuarki eskainitako informazioa** teknologia berriak erabiliz zabaldu behar da, bereziki kontuan hartzen badugu pertsona horiek euren etxebizitzetatik ateratzeko dituzten zailtasunen –kasu larrirenetan, ezintasunaren– ondorioz bakanduta egon ohi direnez tresna horiek direla komunikatzeko eta informazioa jasotzeko daukaten bide nagusia. Osasun Institutu Katalanaren web orriak **SKAri buruzko informazioa** eskaintzen du. Osakidetzaren webgunean ez dugu gaiaren aipamenik aurkitu.

3.4.3.7. Osasun-zentroetan, gizarte-zentroetan, ikastetxeetan, garraibideetan eta abarretan **agente abiarazlerik gabeko guneak egokitu** behar dira eta toki publikoetan zona zuriak sortu behar dira.

SKA eragindako pertsonen salatu dute ezin direla ospitale batean geratu, larrialdietara joan, ebakuntza bat anestesiarekin gainditu edo bestelako gaixotasunetarako tratamendua jaso Osakidetzako instalazioetan. Zentzu horretan, komenigarria litzateke Ingurumen Medikuntzako Europako Akademiak ospitaletan SKA duten gaixoentzako zona zuriak sortzeko dituen proiektuak ezagutzea.

3.4.3.8. Osasun publikoko prebentziozko neurriei buruzko politiken barruan **ingurumena babesteko** neurrien alde egin behar da: fumigazio-arazoak, aire-ihintzapenak, pestizidak eta hiriak garbitzeko produktuak.

3.4.4. 2013an, **elektrohipersentikortasuna duten pertsonen** emandako arretarekin lotutako jardunak ingurumena telefonía mugikorrek eta wifi sareetako antenetatik datorren kutsadura elektromagnetikotik babesteko esparruan kokatu dira. Azpimarratu dugu eremu elektromagnetikotik espazioak osasun publikorako sortzen duen arriskua kudeatu behar dela eta zuhertasun-printzipioa aplikatzea komenigarria dela. Hartara, honakoak nabarmen ditzakegu:

- Erakunde honek eman duen erabakia **Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Eskola 2.0 programak** erabilitako ordenagailuen wifi bidezko hari gabeko konexioak sortutako eremu elektromagnetikoen inguruko polemikaren testuinguruan (**Arartekoaren 2013ko apirilaren 4ko ebazpena**).
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 12ko ebazpena**. Horren bidez, Donostiako udalerriko telefonía mugikorrek deien banaguneko hainbat instalazioen udal kontrola jorratu da.

Arartekoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren eta Lurralde Politikaren Batzordearen aurrean agertu zen **telefonía mugikorrek estazioek sortzen duten kutsadura elektromagnetikoari buruz eta esparru arautzailearen proposamenari buruz duen iritzia** azaltzeko. Erakunde honen aburuz, euskal herri-administrazioek telefonía mugikorrek instalazioen inguruan esku-hartzeko eskumenak daukate, lurraldea antolatzeko eta ingurumena babesteko eskumenetan oinarrituta.

Kontu horien analisi zehatzagoa **ingurumenari buruzko II.6 kapituluan** egin da.

4.

Bilerak administrazio eta erakundeekin

4.1. Osasun Saileko Osasun Sailburuordetza eta Koordinazio Soziosanitarioa (Eusko Jaurlaritza)

Heldu genien gaiek lehen eta bigarren mailako linfedemak jasaten dituzten pertsonak eta sentikortasun kimiko anizkoitza daukaten pertsonak artatzearekin zerikusia izan zuten.

Sailaren jarrera irekia izan da eta mahai gainean jarritako kontuak aztertzeko prest azaldu da.

5.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Osasun Sailak tratamenduak jarraitzea errazteko hartu dituen neurriek eragin positiboa daukate gaixo kronikoen prestazio farmazeutikoetarako sarbidean, eta horrek osasun eremuko gizarte-desberdintasunak murrizten laguntzen du.

5.2. Euskal botere publikoek, erakundeen arteko lankidetzaren bidez, premiazko neurriak hartu behar dituzte gaixo kronikoen arreta soziosanitario falta saihesteko. Horren arazoia 2012ko otsailean indarrean sartu zen eta estatuko esparruan ezarrita dagoen Mendetasuna Baloratze Baremoaren aplikazioa da.

5.3. Jaioberrientzako behaketa-programa zabaldu behar da, eta horri buruzko aurreikuspenak gauzatzean gainditu behar den moteltzea gertatzen ari da.

5.4. Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenak egiten dituzten eta gaixo kronikoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetu nahi duten erakundetarako laguntza areagotu behar da, frogatuta baitago eragindakoengan eta horien familia- eta gizarte-ingurumenean norik bere burua zaintzea, autonomia eta ahalduntzea sustatzen eraginkorrak direla eta prestakuntza, informazioa eta laguntza psikologikoa ematen dituztela. Haien proposamenak kontuan hartu, haien ekimenak sustatu eta aurrekontu-zuzkidurak handitu behar dira. Era berean, zuzentzen dituzten zerbitzuen eta programen egonkortasuna eta jarraitutasuna bermatu behar da, deialdiak urteko lehenengo hilabeteetan argitaratuz eta ebatziz eta laguntzarako eta lankidetzarako bideak bultzatuz. Bide horiek aurrekontu-urtearen denbora-esparru laburra gainditu eta segurtasun handiagoa eskaini behar dute (urte anitzeko konpromiso-kredituak, epe ertaineko hitzarmenak, e.a.).

5.5. Altarako zainketa-planek eta *Osasun Eskola* (OE), *Paziente Bizia-Paciente Activo* eta horrelako programek gaixo kronikoen gaixotasuna kudeatzearen alde egiten laguntzen dute.

5.6. Ikusi dugu laguntzaren jarraitutasunaren bermean aurrerapenak egon direla, *Erakunde Sanitario Integratuak* sortuz, laguntza-bideak eratuz, eskumen profesional berriak gehituz eta laguntzaren jarraitutasunerako planak erabiliz.

Gure ustez, beharrezkoa da osasun arloko langileak kronikotasunaren arreta integratura bideratutako erizaintzako rol berrietan gehiago trebatzea: eskumen aurreratuen erizain kudeatzailea (EAEK), jarraitutasunaren erizain kudeatzailea (JEK) eta ospitale-lotunearen erizain kudeatzailea (OLEK).

5.7. Kronikoen Sarea Programak eragin ahula izan duen arren, aipatu behar da bere erabiltzaileek era positiboan baloratzen dutela, funtsean laguntza eskaini eta jasotzeko

ematen duen aukeragatik eta pribatutasunarekin lotutako ezaugarriengatik.

5.8. Hartutako kalte zerebrala duten pertsonak ez daukate baliabide nahikorik. Horregatik, gure herri-administrazioek dispositibo berriak abiarazi behar dituzte, eta jadanik dauden egonkortasuna eta jarraitutasuna bermatu.

5.9. Azpimarratu behar da sentikortasun kimiko anizkoi-tza duten pertsonen arretarekin lotutako neurriak hartu behar direla. Osatzen duten komunitatearen eskubide osoko kideak dira eta, beraz, botere publikoek titularrak diren eskubideak egiatan erabili ahal izateko baldintzak bermatu behar dituzte.

Haien arazoak –larria da, kasu askotan ezgaitzailea eta ezezaguna zurbiderik gabe– agerian geratu behar du hausnarketarako eta behar diren neurriak hartzeko esparruak sortzeko.

Zerikusia duten administrazioek osoko arreta eman behar dute osasun eta gizarte eremuetan, laguntza produktuak eskuratzea erraztu behar dute; arreta zuzeneko zerbitzu publikoetako profesionalen prestakuntza bermatu behar dute; prebentzioa bultzatu behar dute; haien etiologiari eta tratamenduari buruz ikertu behar dute; ingurumena babestea eta hobetzea eta gune zuriak sortzea bultzatu behar dute eta euren jarduketetan arreta, gardentasun eta ingurune-informazioaren printzipioak jaso behar dituzte, beste neurri batzuen artean.

5.10. Gune soziosanitarioa garatzeko urrats garrantzitsuak eman direla onartu behar dugun arren, honakoei urgentziaz ekin behar zaiela ondorioztatu dugu: hiru lurralde historikoetako baliabide soziosanitarioen garapenaren homogeneizazioa, lehen mailako arretako koordinazio soziosanitarioa diziplinarteko taldeen bitartez, arau-esparru komun baten sorrera eta partekatutako informazioko sistema baten ezarpena.

a t a l a

2015.

**Buruko gaixotasuna edo
nahasmenduak dituzten pertsonak**



Aurrekariak



Arartekoak arreta handia jartzen du burutik gaixo dauden pertsonen taldeengan, **ahultasun berezia** baitute.

Hala, arlo honetan egiten dugun lanaren oinarria zera da, burutik gaixo dagoen pertsona hori **eskubideak dituen herritarra** dela. Ondorioz, pertsona hauen jabekuntza, gizarteratzea, errehabilitazio psikosoziala eta benetako partaidetza dira jorratzen ditugun ideiak.

Gure herri-administrazioen, eta, batez ere osasun, gizarte, hezkuntza, enplegu, justizia eta etxebizitzaren arloko jardueraren inspiraziorako **printzipioak** honako hauek izan behar direla uste dugu: norberaren autonomiaren sustapena eta estigmaren ezabapena, zainketen jarraipena, ekitatea, erantzukizuna, koordinazioa, integrazioa, eraginkortasuna eta gaixo eta senideen partaidetza-foro eta elkarteen sustapena.

Arartekoaren xedea da, beraz, administrazioen jarduerak printzipio horiekiko leial izatea eta horretarako lan egitea, babesteko zeregina daukagunez gero.

1.

Kexarik aipagarrienak

1.1. Arartekoaren 2013ko ekainaren 11ko ebazpena. Horren bidez, Guruzetako Psiko-Gizarte Laguntzarako Moduluak elkarrekin eta hiru erabiltzailek hasitako kexari buruzko jardura bukatzen da, Eusko Jaurlaritzako **Osasun Sailari** zenbait hobekuntza neurri bultzatzeko gomendatuz; izan ere, kexa hori egin zen euskal osasun administrazioak elkarrekin horrekin izenpetutako lankidetzak hitzarmena berritzeko asmorik ez zegoelako eta horrek moduluaren itxiera ekar zezakeelako.

Ebazpen horretan, Arartekoak funtsean ondorioztatu du aipatutako hitzarmena ez dela berritu Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareak zerbitzua bere gain hartu izanaren ondorioz ezarri diren antolaketa-irizpideei erantzunez.

Era berean, aitortu du moduluak –osasun administrazioarekin batera 30 urte baino gehiagoz lan egin du– arreta psikosoziala behar duten pertsonen arretan ibilbide bikaina egin duela, eta haren taldeak konpromisoa eta profesionaltasuna erakutsi dituela. Hortaz, Osasun Sailari gomendatu dio moduluaren nolabaiteko jarraitutasuna antolatzea, sare publikotik eskaintzen den arreta osatzeko helburuarekin. Horretarako, saila erakunde honek egindako azterketa batera bidali du: **EAEko haurren, nerabeen, gazteen eta helduen buruko osasunaren arretaren inguruan egindako hurbilketa: erronkak eta aukerak**. Bertan hobetu beharreko arloak eta gaur egun gure administrazioek eskaintzen duten arretan dauden hutsuneak nabarmendu dira.

Ebazpen horri lekua eman zioten kexen izapidetzeak Osasun Sailak hartutako zenbait konpromiso sustatu zituen, hala nola ludopatiak dituzten pertsonen eta genero-indarkeriaren biktimei emandako arretarekin lotutakoak. Orain dela gutxi sailak esan digu Ekintza-Aluviz elkarrekin (ludopatiak artatzen ditu) koordinazioari dagokionez Arartekoak ebazpen horretan koordinatzeko eta bideratzeko egindako gomendioei jarraitzen ari direla.

Bosgarren gomendioak elkarrekin, herritarrekin, gaixoen komunitatearekin eta Barakaldoko udalbatzarekin partaidetza-, komunikazio- eta informazio-bideak berreskuratu eta abian jarri behar direla esan du. Horri dagokionez, Osasun Sailak bide horiek berreskuratu direla jakinarazi digu eta egin diren bilera eta komunikazioak zehaztu dizkigu.

Ebazpenaren seigarren gomendia dela-eta, sailak adierazi digu herritarren erante egokia eta ia erabatekoa gertatu dela, *“maiztasuna biztanleen ezaugarrietarako aurreikusitakoaren %90 baino gehiago”* izan baita.

Txosten honen itxiera hurbil zegoenean, moduluaren elkarrekin ordezkaritzak jakinarazi digu EAEko 2014ko aurrekontu orokorretan modulurako partida bat gehitzea adostu dela, eta Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeak artatzeko programa aurrera eramateko finantzaketa eman diola.

1.2. Arartekoaren 2013ko urriaren 16ko ebazpena. Horren bidez 1541/2012/39 kexa-espeditentean egindako jarduketari amaiera ematen dio eta osasun administrazioari neurri jakin batzuk hartzeko gomendatzen dio. Espediente horretan, herritar batek salatu zuen bere eskubideak urratu zizkiotela ospitalean bere borondatearen aurka sartu zutelako.

Ondoren, ebazpen horretan gomendatutako neurri orokorrak nabarmenduko ditugu laburki, osasun administrazioaren jardunean antzeman diren gabeziak ikusita:

- Borondatearen aurkako sarreraren neurria hartzeko eskatu beharreko betekizunak betetzen direla bermatzea (Arartekoak ebazpen horretan betekizun horiek bere ustez zeintzuk izan behar diren azaltzen du).
- Askatasun pertsonala hainbeste murrizten duten horrelako neurriak hartzea eragiten duten premiazko arazoak behar bezala dokumentatzea eta argi eta garbi jasotzea.
- Gaixoei borondatearen aurkako sarrerako egoeretan dauzkaten eskubideak eta auto judizialen edukia benetan ezagutzen dituztela bermatzea (kontu horri kapitulu honetako 4.3 atalean helduko diogu).
- Euspen mekanikoaren neurria guztiz salbuespenekoa eta *azken baliabidea* dela azpimarratzea.
- Batzorde judizialaren bisitaren unean gaixoa zentroan dagoela ziurtatzeko beharrezkoa den koordinazioaren alde egitea.
- Borondatearen aurkako sarrerari buruzko protokolo berri bat egitea. Bertan, neurri horren lege-esparruari eta ebazpenean zehazten diren beste eduki garrantzitsu batzuei heldu behar zaie.
- Jatorrian borondatearen aurkakoa zen sarrera batekin jarraitzeko, adostasuna behar bezala dokumentatzea.
- Agintaritzak judizialari sarrera albait lasterren jakinaraztea, sarrera justifikatzen duen diagnostikoa edukitzen denean, legez ezarritako gehieneko epea -24 ordu- amaitu arte itxaron gabe.
- Alta agintaritzak judizialari berehala jakinaraztea.

2.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

2.1. Arauen berrikuntza nagusiak osasun publikoaren esparru orokorrean egin dira: **azaroaren 19ko 447/2013 Dekretua**, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzekoa; **2013ko abenduaren 23ko agindua**, Osasuneko sailburuarena, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2013ko eta 2014ko laguntzak emateko deialdia egiten duena; eta **2013ko uztailaren 4ko agindua**, Osasuneko sailburuarena, Osasun Sistema Nazionalean aseguratuta edo onuradun ez diren pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-asistentzia aitortzeko prozedura ezartzen duena, eta identifikazio-dokumentua eta hori emateko prozedura arautzen dituen. Hortaz, **Osasun arloari** buruzko II.12 kapituluaren 3. atalean aztertuko dira.

2.2. Osasun zientzietan espezializatutako osasun-presakuntza sistemaren tronkalekotasuna eta beste alderdi batzuk arautzen dituen errege dekretuaren proiektuak Haurra- ren eta Nerabearen Psikiatria delako espezialitatea sartzeari xedatzen du. Hori profesionalen taldeen, zientzialarien elkar- teen eta hirugarren sektoreko erakundeen etengabeko alda- rrikapena zen.

3.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

3.1. Arartekoaren 2012ko azaroaren 23ko ebazpenaren jarraipena. Horren bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari gomendatzen zaio nortasun-nahasmendu larriak dituzten pertsonen arreta emateari lotutako neurri orokor batzuk eta eragindako gazte baten arretaren gaineko beste neurri berezi batzuk har ditzan

Arartekoaren 2012ko azaroaren 23ko ebazpenari erantzunez, **Osakidetza** hitzeman zuen *“nortasun-arazoak dituzten nerabeentzako Eguneko Unitateak sortzeko proposamenak”* baloratuko zituela eta ziurtatu zuen *“aurreikusteko modukoa dela urtebeteko epean abiaraztea”*.

Osasun Sailak duela gutxi esan digunez, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleak, ikerkuntzaren eta esku-hartze ildo berrien garapeneren arloan, nortasun-nahasmenduei partzialki edo guztiz lekua ematen dieten programa batzuk abiarazi ditu, bai tratamenduari bai jarraipenari dagokionez; besteak beste, nerabeentzako eguneko unitatea, ospitale horretako eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko 8 klinikok osatutako taldeak, O. Kemberg-ek gainbegiratuta, egindako transferentzia-psikoterapia, eta jokabide-terapia dialektikoko trebetasunetako talde egonkorak. Baieztatu du horren bitartez Bilbo Handiko eskualdean dauden nortasun-nahasmenduen zati handi bati arreta ematen diotela.

Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren ustez, hilabete batzuk barru *“ospitale guztiek paziente eta senideei zuzendutako informazio-foiletan izango dute, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko informazioan oinarritua, eta Lurralde Historiko bakoitzari egokitu”*.

Orain dela gutxi jakinarazi digute Basurtuko Psikiatria Zerbitzuak egindako protokoloaren transmisio bat egon dela. Adierazi digunez, *“protokolo horrek gomendioetan aipatutako kontuei heltzen die: patologiar buruzko informazioa, azterketa, eskuragarri dauden tratamenduak, patologiarekin berarekin lotutako gatazken aurkezpeneko gertaerak eta haien ebazpen arazoak. Kontsultatutako zerbitzuetan, berezkoak dituzten ezaugarriak protokoloak gehitu eta ego- kitu zaizkie. Uste dugu lehendik antzemandako harreman-*

arazoak hobetu direla, kontu gatazkatsuak hobeto mugatu direlako eta gaixoak hasieratik bertatik parte hartu duelako”.

Gainera, Osakidetzak hauxe adierazi zuen: arlo horretako profesionalak prestatzean, *“bateratu egingo dira, Psikiatriako Zerbitzua duten Ospitale Orokorretan eta Osakidetzako Ospitale Psikiatrikoetan, arauak ez betetzeagatik helburu terapeutikoekin alta emateko arrazoia. Horrela, jasota geratuko da pazienteak beren asistentzia-eskubide guztien jabe izango direla, eta arreta jaso ahal izango dutela: bai presako patologiatik, edozein unetan; bai ingresua eragin zuen patologiatik, pazienteen tratamenduan inplikaturako zentro guztiek zehaztu beharreko epe batean.”*

3.2. Azterlan honen jarraipen-lana: EAEko haurren, nerabeen, gazteen eta helduen buruko osasunaren arretaren inguruan egindako hurbilketa: erronkak eta aukerak

laz adierazi genuen bezala, [azterlan horretan](#) aintzat hartu zen talde bereziki ahul horien buru-osasuna artatu eta babestean arloan euskal herri-administrazioek azken urteotan egin duten ahalegin handia. Aldi berean, ekimen berriak, garapen handiagoa edo hobekuntza behar dituzten gaiak nabarmendu ziren, egokiak ziren gomendioak eginez.

Erakunde honek azterketa horretan gomendio ugari egin zituen, 12.1.4 Gomendioa zein mailatan betetzen den jakitera bideratu dugu gure arreta. Gomendio hori [EAEko osasun mentaleko estrategia dokumentuan](#) (OME-2010) jasotako xedapen jakin batzuk gauzatzeko beharri buruzkoa da.

Horrela, borondatearen aurkako edozein esku-hartzeren asistentzia-praktikako etika- eta lege-alderdien gaineko jardunbide egokiei buruzko gida orokor bat prestatzeari dagokionez (4.14. helburu espezifikoak), osasun administrazioak jakinarazi digu tresna hori arrazoi honengatik ez dela garatu: *“gizarte eta osasun eremuetan banatuta dauden (asistentzia-praktikako) batzordeen kokapen desberdinei egotz dakiekeen adostasun falta”*. Haren ustez, *“proposamen batzuk, hala nola gaur egun Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren estrategia-ildo soziosanitarioetan xedatuta dagoena, erakunde horretatik eta administrazio eta laguntza-eremu guztien baterako aholku organo baten proposamenetik igarotzen dira. Proposamen horrek mota horretako gidak, alderdi horien ikuspegi nahiko adostu bat eskaintzen dutenak, idatzarazi beharko du”*.

Gainerako neurri dagokionez, osasun administrazioak bere erantzunean agiri honen edukira bidali gaitu: [EAEko osasun mentaleko estrategia dokumentuari buruzko txostena](#). Azpimarra dezakegu buruko osasunaren sustapenarekin lotutako ekintzen gauzatzeko ez dela nahikoa.

3.3. Gomendio orokorrak

laz adierazi genuenez, kexagilea bere borondatearen aurka ospitaleratu zutela eta, hainbat kexa-espeditente bideratu ginituen. Horregatik, 2012ko otsailean ofiziozko espeditentea ireki genuen, [Prozedura Zibilar buruzko urtarilaren 7ko 1/2000 Legean \(PZL\)](#) egoera horietarako [aurreikusita dau den neurrien betarazpena aztertze](#)ko.

Azterketa horren ondorioz, Arartekoak [otsailaren 15eko 3/2013 Gomendio Orokorra](#) egin zuen, buruko osasun-arazoak dituen norbait bere borondatearen kontra ospitaleratzeko dutenean, bere eskubideak benetan ezagutzen dituela bermatuko duten neurriak hartu beharraz.

Bertan islatzen da osasun administrazioak, jakinarazpen formal batek ekar dezakeen izapide soila ez ezik, gaixoek PZLren arabera borondatearen aurkako sarrerako egoera horietan dauzkaten eskubideak benetan ezagutzen dituztela bermatzen duten neurriak ere hartu behar dituztela, zeren eta esku-hartze judiziala baino lehen eskubide horiei buruzko informazio osoa eta egiazkoa ez izateak haien edukia hustu baitezake.

Hortaz, osasun administrazioari gomendatzen zaio gaixoari informazioa emateko agiri idatzi bat edukitzea. Bertan, besteak beste, epaitegiari komunikazioa egiteko eta berrespen judizialerako epeak jaso behar dira era argi eta errazean, baita gaixoak dituen eskubideak ere (agintaritzak judizialak entzunda eta aztertuta izatea; agintaritzak judizialari hirugarren baten agerraldia eskatzea, beharrezkoa iruditzen bazaio; prozesuan bere defentsarekin –abokatu-laguntzarako eskubidea– eta ordezkariarekin agertzea; auzitegiak sarreraren inguruan hartzen duen erabakia errekurritzeko aukera, e.a.). Era berean, eragindako pertsonak eskubide horiek behar bezala ulertu dituela frogatzea ahalbidetzen duen bide bat prestatu behar da.

Orobat, pazientearen historia klinikoan dagoen informazioa eta nahi gabeko barneratzearen gainekoa eskuratzeari dagokionez, osasun-administrazioak hartutako murrizketak neurriek behar bezala bermatu beharko lukete babestu egin direla hain kontuzkoak diren datu horiek.

Ararteko erakunde honek ez dauka eskumenik borondatearen aurkako sarrera psikiatrikoaren berrespen judiziala egitean egon daitezkeen atzerapenen inguruan, nahitaezko epean –72 ordu– egiten ez denean. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusira eta EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salara helarazi genuen kontua, zegozkion ondorioak izan zitzaizkien. Lehenak hauxe erabaki du: *“fiskalek ahaleginak egingo dituzte barneratzeko zentroek eta barneratze psikiatrikoak baimendu edo berresteko eskumena duten epaitegi-azitegiek legean ezarritako epeak bete ditzaten; hori lortzeko, beharrezko ekintzak burutuko dituzte eta zuzenbidean bidezkoak diren helegiteak jarriko dituzte, norberak askatasunerako duen eskubide oinarrikoan eragina baitu”*; bigarrenak, berriz, arazo horiek zuzentzeari ekin diola jakinarazi digu, legeko epeak kasu guztietan errespetatu daitezkeen.

Osasun Sailak gomendio orokorra onartu du, eta orain dela gutxi hori betetzea lortzeko egindako urratsen berri eman digu:

- 3/2013 Gomendio Orokorra borondatearen aurkako sarrerak egiten diren psikiatria zerbitzu guztietara helarazi da.
- Gero, aipatutako zerbitzuekin harremanetan jarri dira gomendioa zein mailatan ezarri den ebaluatze. *“Sarreraren baldintzen ahozko komunikazio sistematikoa antzeman da, borondatearen aurkako sarrerarako protokoloetan islatzen dena eta gomendioetan adierazitako puntuei jarraitzen diena”*.

■ Zerbitzu horiek ahozko komunikazioarekin batera dokumentazio idatzia ematera hertsatu dituzte, 3/2013 Gomenio Orokorrek islatzen duen moduan.

Era berean, hauxe jakinarazi digu: *“psikiatria zerbitzu handietan, batzorde judizialen presentzia ohikoa da (astean bi aldiz), eta legezko epeak eta sarreraren baldintzen komunikazio zehatza sistematikoki eta era egokian egiten dituzte”.*

3.4. Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo txosten bereziaren jarraipena

3.4.1. Osasun-sareko baliabideen egoera buru-osasunaren alorren 2013. urtearen amaieran

Osasun administrazioak eskaintako datuak [Gipuzkoako Osasun Mentaleko Atlasean](#), [Bizkaikoan](#) eta Arabako Unibertsitate Ospitalearen eta Arabako Osasun Mentaleko Sarearen 2012ko txostenetan oinarritu dira.

Honako hauek dira:

2013	Dispositiboaren kopurua	Plaza-kopurua
BOZ (1) Helduen Buru Osasuneko Zentroak	42	
HGBOZ (1) Haur eta Gazteen Buru Osasuneko Zentroak	15	
OLU Ospitalizazio Laburreko Unitateak, bai Ospitale Orokorretan, bai Ospitale Psikiatrikoetan	6	234
HGOLU Ospitalizazio Laburreko Unitateak haur eta gazteen Ospitaletan	3	19
EO Helduen Eguneko Ospitaleak	23	600
HGEO Haur eta Gazteen Eguneko Ospitaleak	5	50
EEU (2) Egonaldi Ertainetarako eta Azpiakutuen Unitateak	6	296
PIU Psikosi Immuneen Unitatea	1	14
EU Errehabilitazio Unitateak	7	263
LU (3) Egonaldi Luzeen Unitateak	5	778
PG (4) Psikogeriatrikoak	1	109

Iturria: Euskal Osasun Zerbitzua-Osakidetza.

- (1) **BOZ** eta **HGBOZ**; bertan, non toxikomaniak, Elikadura Jokabidearen Arazoak berariaz jorratzen dituzten taldeak eta Lehenengo Gertakari Psikitikoak lantzen dituztenak ere sartzen dira.
- (2) Gipuzkoaren kasuan hitzartuak dira
- (3) Izen desberdinekin. Gipuzkoaren kasuan hitzartuak dira
- (4) Gipuzkoaren kasuan hitzartuak dira

Kasu batzuetan 2012ko datuak direnez eta administrazioak erabilitako iturriak ez datozenez bat aurreko urteetan baliatutakoekin, ezin da plazen kopuruaren eta dispositiboaren eboluzioaren analisi konparatibo egoki bat egin.

Horrek agerian uzten du osasun administrazioak tresna fidagarri bat, autonomia erkidegoaren esparrukoa, behar duela haren baliabideen (dispositiboaren eta plazen kopurua) eboluzioa modu zehatzean aztertu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, azpimarra dezakegu plaza psikogeriatrikoen kopurua ez dela aldatu, eta aurreko egonaldi luzeko unitateenak Gipuzkoako itundutako plazei buruzko datua hartzen duela barne; horri esker desinstituzionalizazio-prozesuaren benetako egoera ezagut dezakegu.

Droga-mendetasunak artatzeari dagokionez –OMZren zereendaren barne dago ikuspegi anbulatorioa dela eta–, 2013an Arabako lurraldean bi zentro bildu dira mendetasunak tratatzeko eta horiei buruzko orientazioa emateko zentro (COTA) berri bat osatzeko; Galdakaoko Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuko Desintoxikazio Unitatean 10 oheak mantendu dira.

Sarrerak gertatzen diren zazpi komunitate terapeutiko daude EAEko esparruan (2 Bizkaian, 4 Gipuzkoan eta 1 Araban).

3.4.2. Desinstituzionalizazio-prozesuari dagokionez, jakinarazi digute Bizkaian, 2013an, Osasun Lurralde-Ordezkaritzak eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareak honakoak prestatu dituztela: *“buruko nahasmendu larri bideratutako miniegoitzetan eskuragarri dauden plazak zabaltzeko baldintzak, (...) Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan, baita instituzio-aldaketako plazetan jarraitzea ere”.* Aurreko digute plaza horiek –20 eta 35 bitartean izango direla aurrekusten da– Bizkaiko ospitale psikiatrikoetan egonaldi luzeko oheak berregituratzea ekarriko dutela eta 2014. urtean beteko direla.

Arabian eta Gipuzkoan ez da desinstituzionalizaziora zuzendutako plazarik gehitu.

3.4.3. Ospitaleetatik kanpoko egoitza-egiturei dagokionez, Osakidetza 2011n emandako informazioaren arabera, tutoretzapeko pisuetako eta ikuskatutako pisuetako plaza-kopurua 468koa zen. 2012an emandako datuaren arabera, 332 plaza zeuden. 2011n miniegoitzetako plaza-kopurua 90koa zen; 2012an, aldiz, 136 plaza erregistratu ziren. 2011n erkidego terapeutikoetako plaza-kopurua 30koa zela jakinarazi zitzaigun. 2012an, bestetik, 449 plaza egon ziren eguneko ospitale eta erkidegoetan. Hala ere, iritsi zaigun azken datu hori ez dagoenez banakatuta, ezin dugu ondorioz atera.

Aurreko lurraldeen arabera banandutako datuak eskaini dizkigute. Guztira 674 plaza tutoretzapeko etxebizitzetara, miniegoitzetara, egoitza txikietara eta ostatu-etxetara dagozkie.

Zaila da ospitalekoak ez diren egoitza-egitura horien eboluzioa era zehatzean baloratzea, urtero datu horiek osatu gabe eta terminologia desberdinekin eskaintzen baitizkigute. Hala eta guztiz ere, gauzatu dugun gutxi gorabeherako azterketatik eta elkarteekin eta sareen arduradunekin egin dugun egiaztapenetik ondoriozta dezakegu mota horretako baliabideak pixkanaka handitzen ari direla.

3.4.4. Estigma erazteko asmoz egin diren esku-haritzei dagokienez, osasun administrazioak Arabako Ospitale Psikiatrikora eta COTARA egindako bisitaldi gidatuak aipatu ditu, baita erakunde guztietan ohikoak izaten diren egitura normalizatueta buruko osasuna integratzeko neurriak ere. FEDEAFESekin, ASASAMekin, ASAFESekin, AVIFESekin eta AGIFESekin estigma eraztearekin lotutako hainbat jardueratan egondako lankidetzak ere nabarmendu da; aitortu du erakunde publikoek ez dutela estigman parte hartzeko ildo planifikaturik erakutsi.

3.4.5. Arabako Ospitale Psikiatrikoan aire zabalean dauden neurri egokiko gune berde bat sortzearen alde egiteko garatutako jardunei dagokienez, Osakidetzak iaz adierazi zizun obra egiteko asmoa zeukala eta horretarako lizentzia izapidetuta zegoenez hasteko moduan zegoela.

Jakinarazi digute 2013. urtean atzealdean 1.400 metro karratu berregokitu direla, eta aire zabalean gimnasio bat eta baratze ekologiko bat dituen aisiarako gune berde bat instalatu dela; birmoldaketa horren bidez, ospitaleko lursailak zabaltzeko dela eta ibilgailuen zirkulazioa berrantolatu da, lehen aparkatzeko baliatzen zen lekua ospitaleko erabiltzaileen gozamenerako izan dadin.

3.5. Bilerak elkarrekin

3.5.1. Aurten lankidetzak-dinamika bat hasi dugu **ACABE BIZKAIA** Anorexiaren eta Bulimiaren aurkako Bizkaiko elkarrekin.

Esan digute osasun sistemako buruko osasuneko zentroetako profesionalak arazoarekin konpromiso handia erakutsi dutela eta ACABErekiko harremana eta koordinazioa erraza dela.

Antzematen ari dira jatearen nahasmendua duten gero eta pertsona gehiago, funtsean emakumeak, adingabeak direla.

Haien ustez, haurren eta gazteen buruko osasuneko zentroetan eta helduentzako buruko osasuneko zentroetan eskaintzen ari den arreta, oro har, egokia da. Hala ere, hobetu beharreko eremu batzuk eta ematen den arreta nahikoa ez den zenbait alderdi nabarmendu dituzte:

- Euskal osasun sisteman ezin dira ospitalizazioaren bidez kasu larriak behar bezala tratatu.
- Osasun Sailak ez du akordiorik egin Institut de Trastorns Alimentaris delakoarekin, nahiz eta, haien ustez, bide hori arreta egokia bermatzeko beharrezkoa den (ospitaleratzten dute eta tutoretzapeko etxebizitzaren sarea daukate, gainbegiratzeko maila desberdinekin, gaixoa dagoen fasearen arabera). Akordio horiek hedatuta daude gainerako autonomia erkidegoetan.
- Heldutasunera igarotzen denean arretaren kalitatea jaitzi egiten da.
- Familiatik lan terapeutikoa areagotu behar da.
- Jantoki-zerbitzuan (nahasmenduari aurre egiteko beharrezkoak diren jarraibideak ikasteko) ez dago psikologo profesionalik. Uste dute psikoterapia bermatzeko lanbide-profil hori jantoki-zerbitzuan ezinbestekoa dela. Galdakaoko ordutegia, 15:00etara arte, eskasa da. Guru-

ztetan ordutegia 17:00etan amaitzen da eta, haien ustez, egokiagoa da.

- Medikazioaren kontrola eta psikiatriko profesionalen eginkizuna, zalantzarik gabe, garrantzitsua dira, eta hori eskaintzen du funtsean euskal sistemak. Dena den, uste dute psikologo profesionalen laguntza egiten den lan terapeutikoa ez dela nahikoa, eta areagotu beharko litzatekeela.
- Erakundearen laguntza jasotzen dute, baina, haien ustez, ez da nahikoa garatzen dituzten zereginen aurre egiteko.
- Unitate espezializatu bat sortzeko eskatu dute.
- Jatearen nahasmenduak eta nortasun-nahasmenduak maiz batera agertzen direnez, uste dute Arartekoak azaroaren 23ko ebazpenean gomendatu zuen moduan egutegi ospitalea abiaraztea bi nahasmenduen ekiteko urrats garrantzitsu bat izango litzatekeela.

3.5.2. Aurten **AVATI-Nortasun-nahasmenduak dituzten pertsonentzako eta haien familientzako euskal elkarrekin** ere lankidetzak-dinamika bat hasi dugu. Elkarrekin eginkizuna psikosoziala, psikoheztizalea eta autolaguntzako da. Kide diren 40 familiari eta informazioa eta aholkuak eskatzen dituzten 120 familia baino gehiagori ematen diete arreta.

- Esan dute euskal sistema publikoak nortasun-nahasmenduak (NN) kudeatzen dituzten profesional bikainak dituela, baina haien kopurua oso txikia dela. Gainerako profesionalen prestakuntza faltak diagnostiko egokia egiteko zailtasunak sortzen ditu.
- Krisialdiko egoeren arretan profesionalen konpromiso handiagoa hartzea eskatu dute. Ohartarazi dute krisialdiko egoeretan eragindako pertsonak garrantzi penaleko egintzak eta jokabide autolitikoak egiteko arrisku errealean daudela (eragindako biztanlerian buru-hiltze indizea aipatutako nahasmenduak ez dituen biztanlerian baino 50 aldiz handiagoa da; halaber, oso ugariak dira euren burua egoera izugarri arriskutsuetan jartzen duten pertsonen kasuak). Beraz, krisialdiko une horietan arreta/euspen handiagoa behar dute (oro har, ez dute egun bat edo bi baino gehiago irauten). Ohiz kanpoko larritasuna sortzen duten despersonalizazioko egoerak izaten dira eskuarki.
- Baiezatu dute pertsona horiek espetxean jasaten duten sufrimendu-maila oso altua dela, gainerako barneratuegandik jasotako tratuen ondorioz. Beraz, ez da batere ingurumen aproposa, eta sarrerak saihesteko neurriak ezarri behar dira (segurtasun-neurriak, euspen egokia krisialdiko uneetan, eragindako pertsonen profilari dagozkion betetzeko baliabideak, e.a.).
- Psikoterapia-baliabideen urritasuna igarri dute. Haien ustez, *“farmakologiak ez itotzen laguntzen du, baina ez du laguntzen igeri egiten”*.
- Ezinbestekotzat jotzen dute sistemak ekiteko ereduari edo paradigmari buruz (dialektiko-jokabidekoa, analitiko funtzionala, e.a.) erabaki bat hartzea profesionalak trebatzeko eta zehaztasun metodologikoei amaiera jartzeko.
- Mugako nortasun-nahasmenduan buru-hiltze arriskuari aurre egiteko protokolo bat egon behar da osasun publikoan.
- Adierazi nahi dute oso kezkatuta daudela azaleratzen ari den errealitate batengatik: NN duten gazte batzuk

bakanduta geratzen dira euren etxeetan, ordenagailuaren aurrean, eta bat-batean ustekabeen ateratzen dira eta egoera lazgarriak sortzen dituzte. Azpimarratu dute garrantzitsua dela oinarrizko gizarte zerbitzuek eta kaleko hezitzaileek funtsezko alerta tresna gisa parte hartzea.

- Heziketaren esparruan arreta goiztiarra eta prestakuntza sustatu behar dira, berritzeguneen jardunaren bitartez.
- Ezinbestekoa deritzote krisialdiatarako protokoloak neurri batzuk sartzeari:
 - Krisialdian zehar, euspena. Egoiliarraren giza kalitatearen arabera, eragindako pertsonaren sufrimendu-maila aldatu egiten da. Alderdi hori nabarmendu behar da.
 - Poliziaren esku-hartzea beharrezkoa denean, agenteak uniformerik gabe azaldu behar dira. Esku-hartze horietan erizainek laguntza eman behar dute.
- Oso era positiboan baloratu dute Arartekoaren azaroaren 23ko erabazpena, eta erakundearekin ados daude bertan egindako gogoetei eta gomendioei dagokienez, bereziki eguneko ospitalea abian jartzeko beharra dela eta. Era berean, hiru lurraldeetan ezaugarri horietako unitate bana abiarazi beharko litzatekeela uste dute.

Aipatutako erabazpena betez Osasun Sailak eta Osakidetzak hasitako urratsak baino lehen mahai gainean jarritako kontu horiek ikusita, elkartearekin beste egiaztapen bat egin beharko da.

3.6. Bilerak administrazio eta erakundeekin

3.6.1. Osasun Saileko Osasun Sailburuordetza eta Koordinazio Soziosanitarioa (Eusko Jaurlaritza)

Heldu genien gaiek 4.2. atalean aipatu den azterketan eta Arartekoak egindako azken erabazpenetan jaso diren gomendioen balorazioarekin zerikusia dute; norberarenaren desberdinak diren kulturetako pertsonekin egiten den bilera klinikoan sortzen diren arazoak; haurrentzako eta gazteentzako eguneko ospitale nahikorik ez egotea, bereziki Araban, eta bitarteko baliabide soziosanitarioak sustatzeko beharra.

Azken alderdi horri dagokionez, uste dute orain dela gutxi sortu eta abiarazi den batzorde soziosanitarioak (foru aldundiko gizarte esparrua eta autonomia erkidegoko osasun esparrua ordezkatzeko dituzten bost pertsonak osatutako taldeak) sustapen horren alde egingo duela.

Azpimarratu behar dugu erakunde honek mahai gainean jarritako kontuak sustatzeko oso irekita eta erabat prest egon direla.

3.6.2. Arabako Osasun Mentaleko Sarearen eta Arabako Ospitale Psikiatrikoaren kudeaketa

Heldu genien kontuen artean hauxe nabarmendu behar dugu: Araban haurrentzako eta gazteentzako eguneko ospitale nahikorik ez dagoela. Gure iritziarekin bat zetozen, eta adierazi ziguten gaiaren inguruan hausnartzen ari zirela irtenbide bat bilatzeko.

3.7. Bestelako jarduerak

3.7.1. Ekainaren 18an, Arartekoak *Babesik gabe gertatzeko arriskuan dauden buru-gaixoak artatzea* udako ikastaroan parte hartu zuen *EAEko buruko osasunaren arreta: erronkak eta aukerak* txostenarekin. Ikastaroa HURKOA Fundazioak antolatu zuen eta Donostiako Miramar jauregian egin zen.

3.7.2. Arartekoak, Patologia Dualeko Espainiako Elkarte-ko presidentarekin batera, *Patologia Dualari buruzko Euskadiko IV. Jardunaldi* amaiera eman zien abenduaren 5ean Bilbon.

Txostenean, jardunaldien gaiarekin lotuta erakundeak egindako jardunak deskribatu eta gero, patologia dualari ekiteko zailtasuna azpimarratu du. Halaber, nabarmendu du ekite terapeutiko integratuak programatu behar direla eta patologia horren arretan adituak diren osasun-langileen prestakuntzaren alde egin behar dela. Era berean, adierazi du patologia hori erronka bat dela osasun sistemarako, hainbat osasun-baliabidetatik igarotzen diren gaixo konplexuei, patologia medikoak, psikiatrikoak eta mendetasunezkoak dituztenei, arreta egokia eman behar baitie; gizarte zerbitzu, etxebizitza eta enplegu sistematarako ere erronka bat da, patologia hori jasaten duten pertsonen benetako gizarteratzea bermatu beharko dutelako, baita ekiteko ezinbestekoa den koordinazio soziosanitariorako ere.

4.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

4.1. Burutik gaixo dauden pertsonen baliabide publikoetara sarbidea edukitzeko ahulezia eta zailtasun handiagoak dauzkaten eta euren komunitateko eskubide osoko kide direnez, botere publikoek haien titulatasunekoak diren eskubideak benetan egikaritzea ahalbidetzen duten baldintzak bermatu behar dituzte. Horrek komunitatean benetan gizarteratzeko bidea ematen duen jardun oro sustatzea eskatzen du: ostaldea, hezkuntza, enplegua, nahikotasun ekonomikoa, estigma eraztea, parte hartzea, e.a.

Krisialdi larriko egoeran gaude, eta horrek herri-administrazioen ardurapean dauden eta haien kudeatu behar dituzten osasun eta gizarte prestaziotarako sarbideari, mailari eta kalitateari eragiten die. Horregatik, Euskadiko politika publikoetan burutik gaixo daudenak babesteari eman behar diote lehenetsua.

4.2. Gizarte izaerako eta izaera soziosanitarioko zerbitzuetarako eta prestazioetarako sarbide-arazoak burutik gaixo daudenen mendetasunaren balorazioarekin lotutako kontuen ondoriozkoak dira, eta aurreikuspenei jarraiki

2014an argitaratuko den Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan islatu beharko diren neurri positiboak eskatzen dituzte.

4.3. Borondatearen aurkako sarrerako egoeretan, psikiatriaren esparruan, norberaren askatasunerako eta tutoretza judiziala izateko funtsezko eskubideak babesteko (EKEN 17. eta 24.1 artikulua, oinarritzko giza eskubideak eta askatasunak babesteko Europako hitzarmenaren 5.1 e) eta 5.4 artikulua, eta Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren 14. artikulua), gure osasun administrazioak, indarrean dauden legeak zehatz-mehatz betetzeaz gain, neurriak ezarri behar ditu neurri murrizgarri hori hartzeko eskatu behar diren betekizunak betetzen direla, gaixoak egoera horietan dauzkan eskubideak benetan ezagutzen dituela eta proportzionaltasun- eta dokumentazio-printzipioak gauzatzen direla bermatzeko.

4.4. Egin diren aurrerapenak gorabehera, buruko osasunaren esparruan errehabilitaziorako bitarteko egitura nahikorik ez dagoela antzematen jarraitzen dugu (eguneko ospitaleak/zentroak, gainbegiratze-maila desberdinetako ostatuak, okupazio-zentroak, komunitate terapeutikoak, klub sozialak eta errehabilitazio psikosozialerako ospitaleak).

Egitura horiek ezinbestekoak dira buruko osasuneko zentroetan edo egonaldi laburreko ospitalizazio-unitateetan egindako esku-hartzeak osatzeko, arreta psikiatrikoko programak (hala nola, etxerik gabeko pertsonei zuzendutakoak) ondo ezartzen direla bermatzeko edo arreta eredu komunitarioa egikaritzea ahalbidetuko duten desinstituzionalizazio-prozesuak garatzeko.

Arabako eta Gipuzkoako lurraldeei dagozkien desinstituzionalizazio-prozesuetan ez da aurrerapenik igarri.

Tartean dauden administrazioen (osasun administrazioa, gizarte zerbitzuetako administrazioa eta etxebizitza administrazioa) arteko akordioen alde egiten duten ekimenak indartu behar dira, autonomia erkidegoaren, foru aldundiaren eta

udalaren esparruen konpromisoarekin batera, buru-nahasmendu larria duten pertsonek gizarte alokairuko etxebizitza normalizatu baterako sarbidea eduki dezaten.

Ez dago haurrentzako eta gazteentzako eguneko ospitale nahikorik, bereziki Arabako lurraldean.

4.5. *2010eko Osasun Mentaleko Estrategia Dokumentua* betetzeari dagokionez, zenbait aurrerapen igarri dira. Hala eta guztiz ere, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Gizarte eta osasun eremuko asistentziaren etikako komiteek bat egin behar dute borondatearen aurkako edozein esku-hartzeren asistentzia-praktikako etika- eta lege-alderdien gaineko jardunbide egokiei buruzko gida orokor bat prestatzeko (4.14. helburu espezifikoak).
- Osasun administrazioa burua dela, estigma erazterea bideratutako politika publiko eraginkor bat abiarazi behar da, gizarteak sustatutako ekimenetan jadanik badagoen laguntzaz haraindi (hirugarren lerro estrategikoa).
- Tratamendu asertibo komunitarioko programen alde egin behar da eta taldeen zuzkidura areagotu behar da (laugarren lerro estrategikoa).
- Osasun mentalaren sustapenarekin lotutako egintzen egikaritzea ez da nahikoa (lehenengo lerro estrategikoa).

4.6. Nortasun-nahasmenduak dituzten pertsonak artatzeari dagokionez, nahiz eta egia den neurriak hartu eta urrats garrantzitsuak eman direla (nerabeentzako unitatearen sorrera, programa bereziak, e.a.), oraindik kezkatuta gaude gure osasun sistemak autonomia erkidegoaren esparruan nahasmendu horiei ekiteko dituen mugak direla eta. Horregatik, 2009an jadanik proiektatuta zegoenaren ezaugarriak dituen eguneko ospitale bat abiarazteko beharra nabarmentzen dugu, *Arartekoaren 2012ko azaroaren 23ko ebazpean* adierazi genuen bezala.

Hori gauzatzen ez den bitartean, ezinbestekoa da beste bide batzuk kontuan hartu eta aplikatzea, esaterako bideratzea, ituntzea eta gastuak itzultzea.

a t a l a

OMP.6.

Espetxeratuak



Aurrekariak



Gure presondegiko biztanleria izugarri hazi da azken bi markadetan, zigor-sistema pixkanaka gogortzearen ondorioz, eta aldi horren azken laurdenean, ekonomia-krisiaren kariatz ezarritako ongizate-estatua berrikusteko politiken ondorioz. Bi faktore horien konbinazioa dela eta, kartzelaren funtzioak berriz zehazten ari dira, eta funtsezkoak izateari inoiz utzi ez ziotenak bakarrik geratzeraino: zigorra eta delitua prebenitzea; eta ez delitu guztia, baizik eta oso jazarpn penal hautakorren xede direnena.

Testuinguru horretan, Arartekoak esku hartu du kontraesana dagoelako legeak askatasunaz gabetzeko zigorrari esleitzen dion gizarteratzeko funtzioaren eta, egiatan, preso dagoen pertsona familia-, gizarte- eta lan-erreferentzietatik aldentzeak eragiten duen gizarte-kanporatzearen artean. Aipatu erreferentzia horiek ez izateak gizarte-bazterketa, pobrezia eta marjinazioa eragiten ditu, eta marjinazio horretan, ez kasualitatez, sortzen da gure kartzelak betetzen dituen delinkuentzia.

Hala, Espainiako kartzelako biztanleriaren profil nagusia osatzen dute atzeratutako inguruneetan bizi izan diren edo gizarte-bazterketako egoeran dauden familia-sistemetatik datozen, prestakuntza gutxi duten eta gaikuntza profesionalik ez duten 31 eta 40 urte bitarteko gizonak (%92 dira, eta emakumeak %8).

Azpimarragarria da osasun egoera txarra dutela, bai fisikoa (GIB-eramaileak dira, hepatitis...) bai mentala, eta aurten gai horri buruzko txosten berezi bat egin dugu.

Atzerritarrak kartzelako biztanleriaren %32 dira. Herrialdean bizitzeko baimenik ez duten pertsonak dira gehienbat. Kasu askotan, zailtasunak dituzte hizkuntzarekin eta ez dute inolako babesik kanpoan. Hori dela eta, bereziki egoera ahula bizi dute.

Halaber, emakumeak ere kolektiborik ahulenetako bat osatzen dute, oso gutxi izateak beren esku-hartzea baldintzatzen baitu eta baztertuak izatea errazten baitu: askatasunik gabeko emakumeak artatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak hondarrak baino ez dira (Bizkaian, esate baterako, ez dago emakumeentzako modulurik Basauriko kartzelan). Gizonen espetxe-establezimenduetako modulurik txikienetan eta hornidura okerrenak dituztenetan sartzen dituzte.

Baldintza horietan, erakundeek gizarte-egoera ahuleneko kolektiboari arreta ematea sustatzea helburu nagusienetakoa duen erakundea den aldetik, Arartekoari arduratu egiten dio zigorra betearazteak bazterketa kroniko bihurtzea, arindu ordez. Beraz, presoek eskubideen defentsa presoak gizartetik ateratzearen aurkako borroka bihurtzen da.

Aztertzen ari garen urtea amaitu zenean, 1.430 pertsona zeuden preso Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan:

- 735 pertsona Arabako espetxean.
- 65 pertsona Basauriko espetxean.
- 330 Martuteneko espetxean.

2013. urtean, euskal administrazioek espetheen esparruan ematen dituzten hainbat zerbitzuekin lotutako egoeretan esku hartu dugu, funtsean osasunaren eta laneratze eta gizarteratzearen esparruan. Hala ere, arlo horretan jasotako kexa gehienak oraindik Eusko Jaurlaritzari besterendu ez zaizkion esparruei buruzkoak izan dira, hala nola lekualdatzeak, zigorrak, helmugak, graduz atzeratzeak, espetxeko abantailak ukatzea eta senideen bisitak.

Esparru horiek ez direnez Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak, ezin izan ditugu formalki izapidetu kexa horiek, eta hori dela eta, ez dugu garrantzitsutzat jo erreklamazio mota horiei buruzko estatistika-atal bat jartzea. Defentsa-bulego honen irizpidea da, ordea, kexaren funtsa egiaztatzen dugun orotan, eskatzen digunari gure eskuetan dagoen laguntza guztia ematea. Horrela egin dugu aurten ere, batez ere bi mailatan egin ditugun borondate oneko kudeaketan bidez:

- Batetik, **Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren** aurrean, Zigor Betearazpenaren zerbitzuen bidez.
- Bestalde, espetxe horietako zuzendaritzen aurrean nahiz Barne Arazoetako Ministerioaren mende dagoen **Espetxeetako Idazkaritza Nagusiaren** aurrean.

Halaber, Espetxe-zaintzako epaitegiaren eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren laguntza izan dugu, kondenen likidazioaren kalkulari eta segurtasun-neurrien betetzeari buruzko arazoak konpontzeko.

1.

Kexarik aipagarrienak

Jarraian aurkeztuko ditugun kasuak aipatu ditugun maila guztietan egindako esku-hartzeen lagin bat izango dira:

1.1. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eramatea gaixotasun mental bat duen preso bat

Jasotako kexa: Buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarte Euskadiko Federazioko (FEDEAFES) presidentek erakunde honetara jo zuen, Arabako espetxean zegoen preso batentzako laguntza eskatuz. Preso hau Mansilla de las Mulaseko (Leon) espetxera lekualdatu zuten, gaixotasun mental larri bat izan arren, sortu zuen gertaera bortitz baten ondorioz. Bere erreklamazioaren oinarria zen presoaren erreferentziazko gizarte- eta familia-esparrutik urrun egoteak bere gizarteratzeko aukeretan, gaixotasunak baldintzatzen zituenean, ondorio negatiboak izango zituela.

Arartekoaren esku-hartzea: Kexa helarazi genion espetxeko zuzendaritzari, eta jakinarazi genion, gure ustez, erreklamatuak emandako argudioak kontuan hartzeko modukoak zirela. Izan ere, euskarri duen eta erreferentziazkoa den familia-ingurunetik urrun egotea kaltegarria bada preso ororentzat, arazoa larriagotu egiten da gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan. Edonola ere, erakunde honen ustez zalantzan jartzeko modukoa da espetxeak irtenbide egoki bat bilatzea pertsona horiek egin ditzaketen delituei, preso horrek sortu zuen bezalako gertaera onartezinak aintzat hartu behar direla onartzeari utzi gabe. Beraz, ondorioztatu genuen komenigarria zela ahal zen guztia egitea pertsona hori bere familia bizi zen lekutik gertu zegoen espetxe batera lekualdatzeko, espetxean egon behar zuen aldian.

Espetxeko zuzendaritzak gertaera mota horiek Gaixo Mentalei Arreta Osoa emateko Programan (PAIEM) sartutako presoei eragiten dietenean neurriak hartzeko zer irizpideri jarraitzen dieten helarazi zigen. Era berean, adierazi zigen Tratamendu Batzordeak gertatu ziren baldintza guztiak aztertu zituela, sailkatzeko proposamena egin aurretik. Hala ere, graduaren berrikusketara joateko deia egin zigen. Azterketa horretan, Tratamendu Taldeak aintzat hartuko zuen espetxez aldatzeko eskaera.

Emaitza: Espetxeko zuzendaritzari adierazi genion nahiz eta preso bere gaixotasunagatik eta bere ingurunetik urrun egoteagatik mugatua egon eskaera hori aurkezteko, gure ustez, FEDEAFESen idatzia aintzat hartu behar zela xede horietarako, hain zuzen gertatu zen bezala, jakinarazi zitzaizkigun jarduketa-irizpideak kontuan izanda gizarte- eta familia-loturak hartzen zuen garrantzi berezia ikusita.

1.2. Arabako espetxean atarira ateratzeko orduak mugatzea

Jasotako kexa: Letradu batek Teixeiroko espetxean zegoen bezero preso baten kexa helarazi zigen. Preso hori aste batzuk lehenago Zaballako espetxean egon zen, amaren hiletara joan ahal izateko. Pertsona honek azaltzen zuenaren arabera, bai berari bai sartzeko-moduluetan zeuden gainerako presoei patioa ateratzeko eguneroko 4 orduak mugatu egin zitzaizkien egun horietako batzuetan, eta erabaki hori hartu zuten funtzionarioek ez zieten azaldu zergatik egin zuten.

Horrez gainera, presoak esan zuen, mugatze horiek zirela eta, ez zitzaieela uzten telefonoz deitzen, gauzak horrela horretarako patioan egon behar zenean. Halaber, aipatu zuen antzeko egoera bat bizi izan zuela hiru aste lehenago, Zaballara lekualdatu zuten beste parada batean, ama agurtu ahal izateko.

Arartekoaren esku-hartzea: Salatutako gertaeran inguruan borondateko oneko kudeaketak egin nahi izan genituen, etorkizunean gutxienez, txanda eta modulu guztietan patioa arazko orduetarako betetzen zirela ziurtatzeko beharrezko prebentzio-neurriak hartzen laguntzeko.

Espetxeko zuzendaritzak aitortu zigen, espetxean langile gutxi zeudenez, ezin izan zutela lehen graduan eta erregimen itxian sailkatutako presoentzako modulu ireki oraindik, eta horrenbestez, sartzeko-modulua gela okupatzen zutela. Era berean, jakinarazi zigen zenbait egunetan bideratze kopuru handi bat biltzeak berekin dakarrela egun horietan segurtasun-neurri bereziak hartzea sartzeko-moduluan. Arrazoi hori zela eta, jakinarazi zitzaigun, salbuespen gisa eta bideratze iraunen bitartean, segurtasunari eta espetxeko erregimen-ordena egokiari eragiten ez badiote soilik uzten dela sartzeko-moduluko patioa ateratzen.

Neurri horrek patioa irteteko ohiko orduetarako eragin diezaioke, eta ez, esan zitzaigunaren arabera, preso bakoitzari dagozkion ateratzeko ordu kopuruari eta ateratzean telefono bidezko deiak egiteko aukerari. Edonola ere, esan zitzaigun patioa sartzeko kontrolatzeko sistema bat jarri zela abian, bai preso patioa ateratu den egiaztatzeko, bai zentzu horretan gerta daitekeen edozein gorabehera hautemateko.

Emaitza: Jasotako erantzunetik ondorioztatu genuen espetxeko zuzendaritzak neurriak hartu zituela, sartzeko-moduluko egoerak, nahiz eta langileen urritasunak eragindakoa izan, modulu horretan dauden presoei dagozkien patio ordu kopuruari ez eragiteko, baizik eta ordu kopuru horren banaketari eragiteko. Halaber, gure ustez, patioa sartzeko kontrolatzeko sistema berria lagungarria izango da zaintza-langileen jarduketa uneoro irizpide horietara egokitzen denaren bermeak sendotzeko.

1.3. Preso baten osasun-arazoak artatzea

Jasotako kexa: Arabako espetxeko preso baten emazteak Arartekora jo zuen, bere senarra zer egoeratan zegoen azaltzeko. Emakume honek esaten zuenaren arabera, bere senarra nahasmendu eskizoafektiboa zuen, haluzinazioak zituen eta hitz egiteko gero eta zailtasun handiagoak. Emakume

honek esaten zigunaren arabera, bere senarrak narriadura kognitibo atzeraezina zuen, eta espetxean uneoro babes-pertsona bat zuen ondoan, suizidioa prebenitzeko protokoloaren zati gisa esleitu zitzaiona, bere burua lesionatzeko ahaleginak egin izan zituela kontuan hartuta.

Preso horren osasun-egoerari buruzko dokumentazioa ekarri zuen, eta espetxean ere aurkeztu zuela esan zigun. Dokumentazioa aurkeztu arren, oraindik ez zuen espetxeko osasun-zerbitzuen diagnostikorik, eta zerbitzu horiek tratamendu sintomatiko bat baino ez zioten ematen bere senarrari. Eta hala ere sintomak ez ziren arintzen, esaten zigunaren arabera, psikiatrak bisita gutxiegi egiten zituelako, une jakin bakoitzean, bere botika-preskripzioa gaixoa zegoen gogo-faserako egokiena izateko. Bere ustez, behar adina arreta ez izateak eta aurretik psikiatraren agindua jaso gabe botika aldatzeak gaixotasuna larriagotzea eragin zuten, presoaren bizitza arriskuan zegoela iristeraino, kontuan izanda zer historial zuen eta gaixoak bere komunikazioetan zer adierazten zuen.

Arartekoaren esku-hartzea: Espetxeko zuzendaritza eta [Euskal Osasun Sistema Publikoa-Osakidetzaren](#) laguntza eskatu genuen. Hasiara batean, ukatu egin zuen presoari emandako arreta nahikoa ez zenik eta adierazi zuen ez zegoela ados erreklamatzailerak aipatu diagnostikoarekin, esanez erreklamatzailerak ez zela harremanetan jarri presoari esleitutako psikiatrarekin eta ez zuela presoaren egoerari buruzko informaziorik eman. Familiak espetxeko agintariari eman zizkien txostenen eta mediku-ziurtagirien kopia bidali genizkion Osakidetzari, horietako batzuk Osakidetzaren zerbitzuek egindakoak. Kontuan izanda 2013. urtean espetxea jada gure osasun-sareko osasun-zentro bat zela, Osakidetzari adierazi genion dokumentazio horrek pertsona horren historialean sartuta egon beharko zukeela, eta eskatu genion ziurtatzeko presoak jasotzen zuen arreta eraginkorrak, bai eta botikan izandako aldatetok ere, bere nahasmendu mota zehazteko klinikoki egokiak diren probak oinarri izatea uneoro.

Emaitza: Bigarren errekerimendu horren ondoren, Osakidetzako arreta psikiatrikoko eta osasun mentaleko arreta zerbitzuek behar bezala jakinarazi zizkieten Arartekoari preso horri emandako arretan eragina izan zuten gorabeherak, bai eta jakin nahi izan genituen diagnostiko- eta jarraipen-alderdiak ere. Pixka bat geroago, erreklamatzailerak berriz jo zuen erakunde honetara, adieraziz hobekuntza igarri zuela bere senarrari emandako arretan, eta berariaz eskertuz esleitutako psikiatrak familiarekin eta konfiantzazko psikologoarekin adierazten zuen prestutasuna. Era berean, adierazi zigun oso eskertuta zegoela Txagorritxu ospitaleko kardiologia-zerbitzuan bere senarrak jaso zuen arretagatik. Hauteman zitzaion aorta-gutxiegitasun batengatik eraman behar izan zuten zerbitzu horretara.

Espetxeko osasungintza komunitatekoan sartzeko aipatu jarduketan esparruan, kasu horri jarraipena egiten jarraitu dugu, ziurtatzeko, kasu horretan nahiz beste edozeinetan, erregimen-betekizunek ez duela baldintzatzen Osakidetzak espetxean bere gaixoei eman behar dien arreta psikiatrikoaren edukia, bai bisiten maiztasuna ezartzeko askatasunari dagokionez, bai diagnostikoaren arabera egokientzat

lotzen duen tratamenduari eta botikari dagokionez. Era berean, gai horri buruz jardungo dugu espetxeetan osasun mentalari ematen zaion arretari buruz aurten argitaratuko dugun txosten berezian.

2.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

Jarraian azalduko ditugun bi alderdiak lagungarriak dira hobeto ulertzeko, aztertzen ari garen urtean zehar, zer garrantzi hartu duen Arartekoak jarduera-esparru honetan egindako esku-hartzeak.

2.1. Espetxeetako errealitatea eta politika kriminala

Konstituzioaren aginduz, zigorrak betearazteko gure sistemaren legezketasunaren oinarria da estatuaren zigor-bote-rea murrizteko funtzioa duela, Zuzenbide Penaleko eta Kriminologiako programa ilustratuko printzipioetara egokitzen duelarik: legezketasunarena, zigorren bihozberatasunarena, norberak egiten duenak, eta ez pentsatzen duenak edo adierazten dituen ideiek, gizarteari eragiten dion kaltearekiko erantzukizun proportzionalarena, zuzenbide penala bizikidetzaren ahalbideratzeko balioak eta baldintza materialak zaintzeko azken tresna izatearen printzipioa –eta hala ere, ez eraginkorra–, eta zigorrak jartzeko arrazoia mendekua ez izatearen printzipioa, baizik eta delituak prebenitzeko eta gizarteratzeko duen gizarte-balioa.

Hala ere, gure politika kriminalean nagusi den eta bi zentzutan jarduten duen zigor-populismoaren ondorioz, printzipio horien helmen eraginkorra mugatuta dago:

- Batetik, espetxe-zigorren baliabidea handituz, nahiz eta gizarte-gatazka handiagoak ez duen berekin ekarri bizikidetzako funtsezko balioen aurkako erasoak areagotzea. Horren ondorioz, eta 100.000 biztanleko 153 preso dauden ratio batekin, Espainiak Europako batez bestekoa bikoitzen du, eta beste hainbat herrialderen aurretik dago espetxeko biztanleriari dagokionez, hala nola Frantzia, Italia, Erresuma Batua eta Alemaniaren aurretik. Aitzitik, Espainiako kriminalitate-tasak, 1.000 biztanleko 45 delitu ingurukoa denak (40,53 Euskadin), oro har beheranzko joera du duela 20 urtetik hona eta Europako hirugarren baxuena da¹.
- Bestalde, Lege Penalak zigortzen duen pertsona haute-mateko modua aldatzearen arrazoiketa ideologiko gisa, pertsona hori gizartekoa ez den norbait balitz bezala ikusteraino. Eskubideak, gizarteak gizarteko kideentzat soilik gordetzen dituenak, errespetatu behar ez zaizkion

¹ [European Sourcebook of Crime and Criminal Justice Statistics-2010.](#)

norbait bezala, ez eta gizarteratzearen eta laneratzearen bidez bazterketaren aurka borrokatzeko erabiltzen diren baliabideak ere. Gizarte-desberdintasuna areagotzen ari den testuinguru honetan, gero eta biztanleria-sektore handiagoek eskatzen dituzte baliabide horiek.

Baldintza horietan, espetzeak gizartea kontrolatzeko mekanismo den aldetik duen osasun ona bateragarria da, paradoxikoa badirudi ere, [Atenea Fundazioak](#) 2013. urtean argitaratu zituen datuek adierazten duten gizarteratzeko bertualtasun gabeziarekin: hiru pertsona presotatik bik berri ere delitu bat egiten du espetxetik ateratzen denean, eta presoek %13 adingabekoen zentro itxi batean egonda: egiatan, 20 urterekin espetxean egon diren hamar pertsonatik zortzi beren bizitzan zehar gutxienez beste lau aldiz egongo dira espetxean.

2.2. Gizarteratzeko gizarte-baliabideen sareari emandako erakundeek babesaren argiak eta itzalak

Duela urte batzuetatik hona aditzera eman dugun bezala, euskal elkarte-ehundurak ezin ordainduzko lana egiten du gizarteratzearen eta laneratzearen esparruan, eta bereziki, espetxean sartzearen ondorioz gizartean baztertuak izan diren pertsonen gizarteratzean eta laneratzean. Zenbait programetarako diru-laguntzekin osatutako baliabide propioen bidez, erakundeek jarraipen eta babes pertsonalizatua eskaintzen diete askatasuna kendu zaien pertsonari, gutxienez gure esperientziaren arabera, espetxe-sistema emateko gai ez dena.

Hori dela eta, ohartarazten aritu gara programa horien finantziario publikoaren murrizketak zer ondorio izan ditzakeen, bai justiziari dagokionez, espedienteen eta prozesu judizialen saturazioari eta tratatzeari dagokionez, espetxeko biztanleriaren areagotzeari dagokionez, eta zigortutako eta preso sartutako pertsonen egoeraren larriagotzeari dagokionez.

Urtean zehar, gure esku-hartzeari esker, hainbat lankidetzatza-hitzarmen egin dira Eusko Jaurlaritzako hainbat sailen artean edo Eusko Jaurlaritzaren eta administrazio orokorren, foru-administrazioen eta tokiko administrazioen artean. Hitzarmen horiek baliabide eta programa horietako batzuk, bizitegiak nahiz bizitegiak ez direnak, ixtea eragotzi dute. Hala ere, bat baino gehiago itxi behar izan dira finantziario faltagatik, eta erabiltzaileen kalterako izateaz gain, espetxeak eta euskal auzitegiei zenbait euskarri material eta giza euskarri kendu dizkie, legeak espetxea ez diren zigorrak tratatzeko eta betetzeko esparruan aurreikusten dituen formulak aplikatzea ahalbideratzen dutenak.

3.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

3.1. Bilerak elkarrekin

Pertsona presoek gizarteratzean lan egiten duten gizarte-ekimeneko erakundeekin bilerak egin ditugu hiru lurralde historikoetan, bai eta abokatuen hiru elkargo bakoitzeko Laguntza Penitentiarioko letradu arduradunekin ere.

Urtero egiten ditugun bilera horien bidez, batzuk nahiz besteak egiten ditugun jarduerari buruzko informazioa elkarri emateko espazio egonkor bat izan nahi dugu, urtean zehar gure esku-hartzea eskatzen duten berariazko kasuekin lotuta izaten dugun harremana edozein izanda ere. Bestalde, zerk kezkatzen dituen jakinarazten digutenean, lehen eskutik jakin dezakegu zer-nolako bilakaera duen gure espetxeetako egoerak.

3.2. Bilerak administrazioarekin

Urtean zehar etengabe izan dugu harremana Justizia Sailburuordetzarekin, gizarteratze- eta laneratze-ibilbideekin lotutako gaien inguruan. Sailburuordetza horren mendean daude Eusko Jaurlaritzako zigorrak betearazpenaren zerbitzuak.

Halaber, Osakidetzako arduradunekin biltzeko aukera ere izan dugu. Osakidetzako arduradunen lankidetzatza erabakigarria izan da, espetxeko osasungintzaren esparruan planteatu diren espedienteak ebazteko. Bereziki eskertu behar dugu Laguntza Psikiatriko eta Osasun Mentaleko Agintaritzaren ekarpena, bai espediente partikularretan egin duena, bai gai horri buruz egiten dugun txosten berezian egindakoa.

4.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

4.1. Krisiaren hasieratik, ohartarazten ari gara ongizate-estatuaren erasketa zer ondorio izaten ari den premia handieneko sektoreen artean, eta sektore horien artean, espetxea zer garrantzia hartzen ari den bizikidetzaren ondoriozko gatazkak kudeatzeko modu gisa, gero eta desegituratuagoa dagoen eta berdintasun gutxiagokoa den gizarte batean.

Hori dela eta, kezkatu egiten gaituzte zigorrak betearazpenaren arloan iragarri diren araudi-aldaketa batzuek, betierekoak izan daitezkeen zigorrarekin, hala nola berrius daitezkeen behin betiko espetxe-zigorra eta segurtasun-zaintza. Halaber, kezkatzen gaitu gaizkileen arriskugarritasunari gehiegizko protagonismoa eman izanak, zigorra bete ondoren segurtasun-neurriak ezartzearen bidez, zaintzapeko

askatasuna luzatzearen bidez edo espetxe-zigorak handitzearen bidez.

Testuinguru horretan, defendatzen dugu **espetxearen esku-menak bere gain hartzeaz** gain (Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz eskatu du eskumen horiek emateko), gizartea kontzientziatzeko prozesu bat ere abian jarri behar dela, non **zer** egiten den axola izateaz gain, **nola** eta batez ere **zertarako** egiten den ardura izatea. Zentzu horietako bakar batean ere ez dugu hauteman aurrerapen esanguratsurik aztertzen ari garen urtean. Horrenbestez, erakunde honen ustez, puntu horietan ekin eta ekin jarduten jarraitu behar du.

4.2. Gai horri dagokionez, ezinbestekotzat jotzen dugu prozesuak lehentasuna ematea Euskal Administrazioa bi esparru handitan erabakiak hartzeko prestatzeari, gure ustez, bi esparru horiek arlo honetan politika koherente autonomo bat garatzeko aukerak baldintzatzen baitituzte:

- Batetik, **sailkapenei, helmugei eta espetxeetako barne-erregimenei** buruzkoa. Nahiz eta laguntza-izaerarik ez izan, esperientziak erakutsi du bere eragina erabakigarria dela pertsona presoaren ibilbidean kondena betetzen ari den bitartean, bai eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan laguntza eraginkorra jasotzeko aukeretan ere. Esparru horietako esku-hartze gehienak, publikoak nahiz pribatuak, Euskadin egiten dira.
- Bestalde, hiru instantzien arteko **lankidetz**-esparruari buruzkoa. Hiru esparru horien babesa funtsezkoa da prozesu horrek arrakasta izan dezan: **gizarte zibilekin** horrekin lankidetzan jarduten duten ekimenak, espetxeetako **gizarte-zerbitzuak** eta **Eusko Jaurlaritzako zerbitzuak**.

4.3. Prozesuak hartzea nahiko lukeen esangurari dagokionez, horren inguruko estatutu-aurreikuspenak arlo horretan transferentziak eskatzeko titulu bat baino gehiago dira erakunde honen iritziz: Euskal gizarteak bere izenean egiten den esku-hartze penalaren erabileraren ardura hartzeko aukera bat ere bada, bere ondorioak ezagut ditzan, eta gizarte-justiziako parametro batetik onargarriak iruditzen ez zaizkion neurrian, **espetxe-eredu propio** baten diseinua eta kudeaketa sustatzeko, marjinazioa areagotuko ez duen zigorrak betearazteko sistema bat, gure espetxeak betetzen dituzten pertsona gehienak berriz delitua egitera bultzatzen dituen faktoreak kroniko bihurtuko ez dituen.

Urterik urte, Eusko Legebiltzarrari egiten dizkiogun gure txosten orokorrek gure ustez eredu horrek jaso beharko lituzkeen ezaugarriak biltzen dituzte. Aztertzen ari garen urtean zehar gertatukoaren harira, oraingoan, Zubieta proiektua berriz aktibatze gertaera azpimarratu behar dugu. Irailean jendaurrean jakinarazi zenaren arabera, hasiera batean planteatutakoa baino espetxe txikiagoa egitea aurreikusita dago, eta Gipuzkoan eraikitze asmoa zegoen gizarteratze-zentroa eraikitzea baztertu da, bai eta Bizkaian eta Araban proiektatuta zeudenak ere. Erakunde honen ustez, espetxearen tamaina berriz aldatzea eragin duten aurrekontu-murrizketa horiek gizarte zibila artatzeko aukera bat izan beharko lukete, esparru horretan lan egiten duten erakunde bidez, **eredu-aldaketa** bat eskatzen ari dena: Onartzea **Euskal Autonomia Erkidegoan nahikoa dela espetxe "itxi" bat**

edo **"zigorra betetzekoa" (Arabakoa), eta Bizkaian eta Gipuzkoan gizarteratze-zentroak behar direla**, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideetan aurrerapenak egiten ari diren askatasunik gabeko pertsonak artatzeko. **Arabian bizi diren presoentzat nahikoa izango litzateke Gasteizen harrera-etxebizitzak izatea.**

Badakigu sistema integral mota horien diseinuak erreferentziatzat izan behar duela, beharrezkotzat jotzen diren eguneratzeak eginez, bere garaian Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak eskatuta Euskal Herriko Unibertsitateak egin zuen **Zigor eta espetxe betearazpen politikaren ildo nagusiak** azterketa.

Eredu bat edo bestea aukeratzeko eztabaida politikoiari dagokio, eta gure ustez, eztabaida horrek arlo horretan eskumena bere gain hartzeko prozesua bideratu beharko luke. Edonola ere, gure ustez, gai horri buruzko eztabaida arduratsu orok **aukera desberdinei dagozkien kostuak aztertu beharko litzuke**: gizarte- eta justizia-baldintzetan beste ezeren gainetik, baina baita horietako bakoitzak bideragarria izateko behar dituen azpiegituren eta langileen gastu ekonomikoari erreparatuz ere.

4.4. Euskadik oraindik aktibo handi bat du arlo horretan: **ekimen zibilak**, espetxean egoteagatik, sistemaren bazterketa neurri handiagoa pairatzen dutenentzat **gizartearen elkartasuna** sustatzen eta bideratzen dutenak. Aurten, funtsezko ekarpen hori aitortzeaz gain, balioetsi egin behar dugu **erakundeetatik**, batez ere Eusko Jaurlaritzatik eta foru-erakundeetatik, jasotako **babesa** bereziki zaila den aurrekontu-testuinguru batean. Erakundeen inplikazioa, edonola ere, ez da nahikoa izan gizarteratzearen arloan erreferentziakoak izaten ari ziren baliabide garrantzitsuen desagertzea oztopatzeko.

Horrela gertatu zen Martuteneko espetxearen mendekoa den Ametzagaña Fundazioaren instalazioetan garatutako programarekin. Hogei urtetan espetxearen alternatiba bat izan zen eredu arrakastatsu bat garatu zuen preso gazteentzat, non preso bakoitzak prestakuntza-programa individualizatua zuen. Programa hori berreskuratzea eta sustatzea, **Gipuzkoako Batzar Nagusiek gomendatutakoak**, lehentasun bat izan behar du zentzu horretan botere publikoentzat, eta urtean zehar finantziario faltagatik desagertu diren gizarteratze-baliabide eta -programa guztietara hedatu beharko lirateke. Horretarako, eta nolana ere, premiazkoa da gizarte- eta osasun-espazioetan, gizarte- eta zuzenbide-espazioetan eta gizarte- eta lan-espazio anitzetan kokatzen direla aintzat hartzea. Hori dela eta, **plangintza integral eta koordinatu** bat egin behar da, gizarte-ekintzaz, enpleguaz, gizarte-gaiez, osasungintzaz, justiziaz, berdintasunaz, bai eta bakeaz eta bizikidetzaz ere, arduratzen diren erakunde mendeandauden neurrian. Instantzia horiek guztiak batera lan egitea ezinbestekoa da, hainbat urtetarako hitzarmenak eta konpromisoak har daitezkeen programak eta zerbitzuak garatzeko. Bestela, eta aztertzen ari garen aldi zehar egiaztatutako dugun bezala, baliabideak ixtera halaberrez bideratuta daude edo epe laburrera mugatutako funtzionamendu-dinamika batera, gutxienean egonkortasun eta plangintza bat egiteko aukera ematen ez duenera.

Lankidetzaren horien adibide da Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Zuzendaritzak eta Aita Menni ospitaleak ezarri dutena. Lankidetzaren horren emaitza izan da gizarte-interes handiko zerbitzu psikiatriko bat ireki izana 2013. urtean, patologia mental larriak dituzten gaixoei zuzendua. Gaixo horiek ohiko psikiatria-zerbitzuez gain, segurtasun-neurri handiak behar dituzte, eta bestela, espetxean bukatuko lukete, betetzeko auzi penalak izateagatik.

4.5. Gure erkidegoko espetxe bakoitzaren egoerari dagokionez, gure ustez, adierazgarria da 2013. urtean zehar gizarte-ekimeneko erakundeek, funtsean, iaz Arartekora iritsi ziren kexa-zio beretan jardun izana, salbuespen esanguratsu batean izan ezik: osasungintzaren arloa. Arlo horretan Osakidetza sartu izanak balorazio ona jaso du, arreta hobetzeko faktore bat izan den aldetik, aldian aldiko disfuntzioak alde batera utzita. Horren adierazle da **osasungintzaren arloko espetxeetako laguntza-eredu berriaren arrakasta**. Eredu berri horren arabera, osasun-baliabidea kartzelan osasun-laguntza publikoaren egitura osoko beste zati bat da. Edonola ere, disfuntzio zehatzak daude oraindik, bai eta gairak beharrezko inertziaz ere. Horretarako, eskertu egin behar dugu Euskal Osasun Zerbitzu Publikoak uneoro eman digun laguntza.

4.6. Jarraian, zentro bakoitzean erakunde honetan kexa jartzeko arrazoi izan diren esparru esanguratsuenak aurkeztuko ditugu:

- **Arabako** espetxean, funtzionatzen hasi zela urte bat igaro ondoren, elkarrizketatu ditugun gobernuz kanpoko zazpi erakundeak bat datoz honako gabezia hauek salatzean:
 - Presoen eta erakundearen harremana funtzionarioekin: Langraizaren zegoena baino urruntasun eta gogortasun handiagoa. Harreman hotza eta inpersonala. Kontrol eta zailtasun handiagoak gizarteratzean lan egiten duten erakundeak sartzeko. Espetxeko langile gehienek ez jakitea zenbateraino behar duen espetxeak erakunde horien lana.
 - Arazo hori lotuta dago aurreko puntuarekin, langileen eskasiarekin hain zuen. Langileen sindikatuko ordezkariak salatu dute langile kopurua espetxeko beharren %55ekoa baino ez dela. Horren ondorioz, hainbat modulu itxita daude.
 - Presoen bakartzea. Lantegietara joaten ez direnak ez dira egun osoan beren modulutik ateratzen. Modulu bakoitzak bere patioa du, Langraizaren zegoena baino txikiagoa –eta are txikiagoa oraindik, erizaintzako moduluan eta emakumeen moduluan–.
 - Garraioa eta irisgarritasuna: espetxea bakartuagoa dagoenez eta garraio publikorik ez dagoenez, aurretik eskatutako taxia ez bada, presoen irteerak nahiz erakundearen eta senitartekoen bisitak zailagoak dira aurreko egoeran baino.
 - Hirugarren graduan dauden presoek, oraindik Langraizeko instalazio zaharretan daudenei, arretarik ez ematea. Erakunde guztiek salatzen dute zer-nolako osasun-egoera txarrean dauden instalazio horiek. Horrez gainera, ez dute arreta medikorik, ez eta espetxe batek eskaini behar dituen gainerako zerbitzuak ere.

- **Martuteneko eta Basauriko** espetxeetan, 1990. urtetik gizarte-erakundeek garatzen zituzten droga-menpekotasunak tratatzeko programak desagertu dira, eta Osakidetza hartu ditu bere gain. Horren ondorioz, patologia dual horiek zituzten pertsonak jasotzen zituzten tratamendu psikologikoa eta kontsumoerik buruzko hezkuntza murriztu egin dira, eta horren ondorioz, zigorra bete ondoren, kaleara are baldintza okerragoetan ateratzen dira.

- **Martutenen**, kexak eraikinaren baldintza materialei buruzkoak dira batez ere, hala nola hezetasuna, iluntasuna eta komunikazio txarra solastokietan. Sekzio irekiak pairatzen du batez ere instalazioen egokitzapen-gabezia hori, gizarteratze-zentro bat ez izateak eragindako gainpopulazioak larriagoak. Une jakin honetan, preso asko, bere saiklapena dela eta, bizimodua erdi-askatasunean egiteko moduan daude, baina espetxean egotera behartuta daude, zigortzeko zioagatik edo kanpoan lan-, prestakuntza- edo gizarteratze-jarduerak ez izateagatik.

- **Basaurin**, txosten honen beste zati batzuetan aipatutako arazoez gain, berariazko bi kexa-esparru daude:

- Euskaditik kanpo dauden espetxeetara lekualdatzeak (funtsean, Dueñas, El Dueso, Villabona, Burgos eta Texeiro) banakako gizarteratze-prozesuak ezerezean uzten ditu, beste espetxe horietan ez baitaude hemen erabilgarri ditugun baliabideak. Zentzu horretan, helmugak tratamendu-prozesuekin gehiago lotzearen falta igarri da, bai eta prozesu horiek baimenen, irteeren eta prestakuntza-jardueretan parte hartzearen aldean hartzten diren erabakien muina izatearen falta ere.
- Espetxeko laguntza juridikoaren txanda eratu zenetik, lehen aldiz, gizarte-erakundeek jakinarazi digute txanda horren kalitate-mailak behera egin duela, eta espetxe-zuzenbidean berariazko prestakuntza ez izateari egotz dakiokela. Abokatuen Elkargoarekin lantzen ari gara gai hori, txanda espezializatueta sartzeko prestakuntza-betekizunen esparruan.

Azterritar jatorriko presoekin lan egiten duten elkarteek ere zenbait berariazko kexa aurkeztu dizkigute, eta txosten honen etorkinei buruzko atalean aztertuko ditugu.

4.7. Aztertzen ari garen urtean zehar, Arartekoak adierazten jarraitu du **terrorismoko delituen zigor- eta espetxe-tratamendua** aldatzearen alde dagoela, iritzi-artikuluaren, adierazpen publikoen eta forum espezializatueta parte hartzearen bidez. Kontuan izanda aurrean ez dela aurrerapen bakar bat ere egin gai horren inguruan, erakunde honek irizten du bere lana dela berriz eskatzea pertsona preso guztiek kondena beren jatorrizko lekuetatik gertu bete behar dutela, helburu hirukoitz bat betetzeko: preso horien gizarteratzea errazteko, ordenamendu juridikoak eskatzen duen bezala: zigortuen gizarte-deserrotzea saihesteko, beren gizarte-loturen alde eginez; eta urruntzeak senitartekoei eta lagunei dakartzkien ondorio negatiboak, kostuak eta arriskuak desagerraraztea, ezin baitira inolaz ere arazoitu eta gaur egungo egoeran ezin hobeto saihesten baitaitezke. Bestalde, eskatzen ari gara espetxe-administrazioak gaixotasun larriak eta sendaezinak dituzten presoak kartzelatik ateratzea aurreikusten duten lege-arauen aplikazioa errazteko, beharrezko neurriak

hartuz. Eta berriz eskatu behar dugu kentzeko talde eta delitu terroristei buruzko xedapen bereziak, hirugarren graduako erregimena ematea eta baldintzapeko askatasuna eskuratzearagozten dutenak.

4.8. Askatasunik gabeko pertsonen eskubideen egoera balioztatze aldera, ezinbestean aipatu behar ditugu presoan errespetua eta berea zaintzeaz arduratzen diren **nazioarteko erakundeek** urtean zehar aditzera eman dituzten **erabakiak**. Espainiarekin lotuta 2013an eman diren erabakietatik hiru hauek aipatu behar ditugu, bai garrantzi berezia izateagatik, bai bere garaian Arartekoak salatu zituen egoerei eta arazoei (Arartekoak Legebiltzarrean egoera eta arazo horiek kezkatzen zutela adierazi zuen) buruzkoak izateagatik:

- Martxoan, **Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak irizpen bat onartu zuen**, terrorismoaren akusaziopean atxilotua izan zen baina absolutu zuten bizkaitar emakume batek aurkeztutako torturen salaketarekin lotutakoa. Batzordeak adierazi zuen egintza horiek agerian uzten zutela urratua izan zela emakume honen torturak ez pairatzeko eskubidea, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmeneko 7. artikuluan jasotakoa. Era berean, adierazi zuen estatuak ez ziola biktimari eskaini, eta ahalik eta lasterren eskaini behar ziola, egintzen alderdikierarik gabeko ikerketa oso eta eraginkor bat, arduradunak auzipetzea eta zigortzea, eta eragindako kaltearen ordainketa osoa, bai eta laguntza mediko espezializatuko neurriak ere.
- Hilabete bat beranduago, **Tortura eta tratu edo zigor ankerrak Prebenitzeko Europar Batzordeak Espainiara egindako bisitari buruzko txostena** argitaratu zuen. Bisita 2011ko maiatzaren 30etik ekainaren 13ra egin zen. Txosten horretako gomendioak eta erakunde honek gai horren inguruan eman dituenak bat datoz: Inkomunikazioa ezeztatzea, eta hori gertatzen ez den bitartean, inkomunikazioa aplikatzen zaion pertsonaren eskubideak eraginkortasunez bermatzeko jarrera gehiago aktibotasunez kontrolatzea, atxilotetaren kontrol judizialari dagokionez nahiz auzitegiko azterketei dagokienez. Auzitegiko azterketen esparruan, beste urte batez egiaztatu dugu Euskadiko Legezko Medikuntza Institutua besteek berdindu nahiko luketen erreferentzia bat dela.

- Urrian, **Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Komisarioak txostena** argitaratu zuen. Txosten horretan, adierazi zuen, beste hainbat alderdi kezagarriren artean, *legea betearazteko ardura duten erakundeetako kideek emandako tratu txarrak eta kide horiek duten zigorgabetasuna giza eskubideen gai oso kezagarria eta aspaldikoa dira Espainian*. Agintariei erregutzen die atxiloteta inkomunikatuaren praktika desagerrarazteko, eta Tortura eta tratu txar edo zigor ankerrak Prebenitzeko Europar Batzordeak emandako neurri berak hartze gomendatzen du.

Erakunde honen ustez, horrek guztiak aukera on bat izan behar du, Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoak aktibo ager daitezten eskubideak bermatzeko nazioarteko goi-karguek, urterik urte, oraindik indarrean daudela agerian uzten dituzten errealitateen aurrean: inkomunikazioak tortura eta tratu txarrak ematea ahalbideratzen duela, eta horregatik indargabetu egin behar dela; Espainian torturaren eta tratu txarren aurkako borrokak egiturazko hutsune garrantzitsuei aurre egin behar diela, bai prebentzioaren arloan, bai ikerketaren eta ordainketaren arloan; eta tortura pairatu izanak pertsona bat torturaren biktima bihurtzen duela, tortura diktaduraren testuinguru batean pairatu den, edo hemen gertatzen zen bezala, zuzenbide-estatuak garatutako terrorismoaren aurkako borrokaren testuinguruan pairatu den alde batera utzita.

4.9. Gaixotasun mentala duten pertsonen oso ehuneko handi bat ari da betetzen espetxean askatasunaz gabetzeko kondena. Pertsona horiek, beren patologia eta beharrak kontuan hartuta, ez lukete espetxe batean egon behar, baizik eta komunitateko baliabide egokitan zaindu eta hartu behar harko lirakeke, behar adina gizarte-laguntzekin eta laguntza terapeutikoekin. Arartekoa txosten berezi bat egiten aritu da arlo horren inguruan. Osakidetza espetxeko osasungintzan sartzeko prozesua txostenena sartu behar zuenez, beharrezkoa zen eskumenak eskualdatu zirenetik (2011ko abuztua) gutxieneko denbora-ikuspuntu bat izatea. Ordutik hona, prozesua aztertu ahal izan dugu urte honetan, eta aipatu berriazko txostenean gomendioak egin ahal izan ditugu. Espero dugu gomendio horiek lagungarriak izatea Euskal Autonomia Erkidegorako espetxeko esku-hartze eredu propio bat diseinatzeko.

a t a l a

COMPWA

Gizarteratzea



Aurrekariak



Atal honetan, gizarte-bazterkerian dauden edo hala geratzeko arriskua duten pertsonen eragiten dizkieten jarduerak jorratuko ditugu, kontuan hartuta egoera hori eragiten duten arrazoiak batez ere **gizarte- eta ekonomia-arloko desberdintasunak** direla.

2012ko txostenean **dagoeneko aipatu genuen enpleguaren suntsipena** gizarte-bazterkerian geratzeko arriskuan dagoen pertsona-kopurua handitzeko faktore lagungarria zela; bada 2013ari buruzko datuak oso antzekoak dira.

2013. urtea amaitzean, **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko** bulegoetan enplegua eskatzen duten 167.374 langabe zenbatu dira; langabezia administratiboaren indizea (LA) %16,1ekoa da, hots, iaz baino hamarren bat gehiago.

Estatuan langabeziako tasa hori %22,3koa da, euskal tasa baino 6,2 puntu gehiago. Langabeak guztira 4.701.338 dira. Araban ehuneko hori %15,8koa da; Bizkaian, %17,6koa; eta Gipuzkoan, %13,8koa.

Jakin badakigu krisi ekonomikoak bereziki eragiten diela klase ahulenei eta **etxeetako ohiko betebeharrak eta gas-tuak ordaintzeko zailtasunak** handitzea eragin duela. Diru-sarrerarik ez edukitzeak, aldi berean, pobrezia- eta eskasia-egoeran geratzeko arriskua handitzen du eta egoera horiek gizarte-bazterkeria pairatzen duten edo pairatzeko arriskua duten inguruabarrei lotuta daude.

Lanbidek emandako datuen arabera, 2013an diru-sarrerak bermatzeko errentaren 62.817 titular egon dira, baina prestazio hori baliatzen duen pertsona-kopurua nabarmen handiagoa da. Izan ere, prestazio hori bizikidetz-unitatera zuzentzen da eta, oro har, aipatu unitatea familia osatzen duten hainbat pertsonen eragiten dute. Lurraldeak aintzat hartuta egindako banaketa hauxe da: Bizkaian hartzaileak %63,66; Gipuzkoan %22,4 eta Araban %14,34.

Guztizko zifra horri dagokionez, hamarretik sei emakumeak dira eta horien %13 adingabeak haien kargura ditzuten guraso bakarreko familiek osatzen dute. Horrez gain, titularren %28,06 pentsiodunak dira (modalitate desberdinetakoak) eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren bidez pentsiodun horiei haien pentsioa osatzen zaie, lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekora iritsi arte. Azken talde honetan gehienak (%71) emakumeak dira eta horietako %67,63 65 urtetik gorakoak. Horrek agerian jarri du zein den adineko emakume askok jasotzen duten pentsio batzuen zenbatekoa (alarguntasuna, zahartzaro eta baliabidezko derrigorrezko aseguruak, kotizazio gabeko pentsioa, etab.). Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen prestakuntza-mailari dagokionez, ehuneko handi batek (%60 baino gehiagok) ez du ikasketarik edo ez du derrigorrezko maila gainditu eta %17ri ez diote datu hori jaso. Goi-mailako titulazioa duten 2.200 pertsona baino gehiago badaude ere, prestakuntza enplegua bilatzeko funtsezko elementua da.

Joan den urteko txostenean dagoeneko aipatu genuen diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemak gure gizartean daukan eragin positiboa. **Sistema hori osatzen duten prestazio ekonomiko eraginari esker –diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta gizarte-larrialdietarako laguntzak–, EAEko pobrezia- eta bazterkeria-tasak Europar Batasuneko batez besteko zifren azpitik daude** eta, hala, Euskadi da Europan desberdintasun-maila gutxieneko duen gizarteetako bat. Alderdi horretan, EAE asko aldentzen da gainontzeko estatuak ezaugarritzat duen egoeratik.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazio garrantzitsua da, bai haren zenbatekoagatik, bai baliatzen duten pertsonen kopuruagatik, bai horretarako erabiltzen den aurrekontuagatik. Prestazio hori askotan etxebizitzarako prestazio osagarriari lotuta dago eta horiek biak Lanbide kudeatzen ditu. Horregatik, sistemaren kudeaketa eredu azkarra eta eraginkorra izan behar da eta baliabide nahikoz hornitua egon behar da –giza baliabideak eta baliabide materialak, izan ditzaketan erabiltzaileen babesa bermatuko dutenak–.

Zerbitzuko erabiltzaileen ikuspegia eta erakunde honena bat datoz esaterakoan 2013an zehar pixkanaka-pixkanaka diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kudeaketa hainbat hobekuntza **jazo direla**. Izan ere, urtea amaitzean, esan daiteke **hainbat alderdi asko hobetu** direla, besteak beste, aurretiko hitzordua lortzeko ilara luzeak, eskaera berriak aurkezteko bideak, ebazpena emateko batez besteko denbora eta prozedurazko zenbait alderdi (entzunaldi-izapidea, kasu). Hala ere, kexen ohiko tramitazioan **beste disfuntzio batzuk jarraitu dute, prozedurazkoak eta materialak**, Lanbideren funtzionamenduari eta aipatu prestazio ekonomiko kudeaketa-jarduerari dagokienez.

Disfuntzio **nagusiak**, bada, txostenaren kapitulu honetan jorratuko ditugu.

1.

Arloa kopurutan

Beste behin, 2013an tramitatu dugun kexa-kopuru handiena Lanbidek Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DBE) eta Etxebizitzaren Prestazio Osagarriari (EPO) emandako kudeaketarekin lotuta egon da. Bi prestazio horiek eskubide subjektiboak dira Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko [abenduaren 23ko 18/2008 Legearen](#) arabera, bertan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztientzat.

2013. urtean, gizarteratzeko arloan, guztira 883 kexa erregistratu dira, honako azpi-arlo hauetan banatuta:

- Diru-sarrerak bermatzeko Legetik eratorritako prestazio ekonomikoak (DBE, EPO, GLL)..... 860
 - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio-prozedura 14
 - Gizartean baztertuta dauden pertsonentzako prestazioak eta zerbitzuak 8
 - Herritarren eskubideak..... 1
- ESPEDIENTE KOP., GUZTIRA 883**

Zenbateko horietan kexa-kopurua **murriztu** egin dela ikus daiteke, 2012. urtean erregistratutakoekin alderatuta, %**12,6 soilik** bada ere. Izan ere, oraindik ere gurean dirauen krisi-egoerak lotura sendoa dauka enplegu-galerarekin eta bazterkeriaren kontra borrokatzeko bitartekoen eskariarekin. Edonola ere, aurretiazko hitzorduen eta DBEren lehen eskaeren kudeaketa hobetu delako ere murriztu ahal izan dira kexak.

Gaika aztertuz gero, iaz bezala, 2013an arlo honetan jasotako kexa gehienak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin (DEB) eta Lanbidek (prestazio hori kudeatzen duenak) duen funtzionamenduari lotuta daude.

2012an jasotako kexak ikusita, hainbat hutsune antzeman eta desadostasun izan genuen Lanbiderekin, aplikatu beharreko araudia interpretatzean. Horrenbestez, eta zerbitzu publiko hau hobetze aldera administrazioarekin lankidetzan aritzeko asmoz –kasu honetan, batez ere ahulezia-egoeran dauden hiritar batzuentzat–, agiri zabal bat egin genuen. Bertan, Arartekoaren iritzia azaldu genuen Lanbideren funtzionamenduari, jarraitzen diren administrazio-prozedurei eta aplikatu beharreko araudiaren (kasu honetan, Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea eta Diru-sarrerak bermatzeko Errentaren [maiatzaren 25ko 147/2010 Dekretua](#)) interpretazioari dagokienez. Agiri horri [Lanbideren Diagnostiko Txostena](#) izena eman genion eta organismo horri igorri zitzaion otsailaren hasieran.

Diagnostiko horren oinarri dira, funtsean, jasotako kexetan planteatu eta aztertutako gaiak, Lanbideren erabiltzaileek Arartekoaren zuzeneko arreta-bulegoetara egindako bisitak, Lanbiderekin eta eremu honetan lan egiten duten gizarterakundeekin izandako bilerak eta erakunde honetako langileek Lanbideren bulego batzuetara egindako bisitak. Azterlan honen bidez, zerbitzua hobetzen lagundu nahi da eta, horren gaineko jarraipena gure jardueraren ardatz nagusi bihurtu da 2013. urte osoan zehar.

Sarrera labor baten ostean, agirian zehatz-mehatz jasotzen dira administrazio-prozedurako fase desberdinetako bakoitzean antzemandako disfuntzio eta arazoak eta horien gainean dugun iritzia. Era berean, Lanbidek arauaren (18/2008 Legea eta garapen-dekretuak) hainbat alderdiren gainean egiten duen interpretazioarekiko ditugun desadostasunak islatzen dira. Azkenik, hainbat gomendio (guztira 41) egin dira, zehazki, txosteneko atal bakoitzeko bat.

Egindako jarraipenean horietako batzuk bete direla ikusi da, baina prozeduran oraindik ere hutsuneak daude. Jarraian, hori guztia landuko dugu.

Bestalde, aurtengo **maiatzean** Lanbide agiri-zirkularrean jasotako eta **arauan aplikatu beharreko barne-irizpide** berriak aplikatzen hasi zen. Irizpide horiek aztertuta, eta horien gaineko desadostasun nabarmenak zeudela kontuan hartuta, agiri bat prestatu genuen, Lanbideri igortzeko.

Lanbideko arduradunekin egindako bilera eta harremanetan ere arauen interpretazio eta aplikazioaren gaia jorratu dugu eta gure iritzia azaldu diegu, kasu askotan organismoak berak ere onartu duena.

Azkenik, aipatzekoa da foru-aldundien prestazioekin (adibidez, kotizazio gabeko pentsioekin edo gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko laguntzarekin) lotutako kexak ere tramitatu ditugula.

2.

Kexarik aipagarrienak

2.1. Prozedurazko alderdiak

Jasotako kexak tramitatzean gure arreta piztu duten arazo formal guztien artean nabarmentzekoak dira, batetik, prestazioen ukapen-, aldaketa-, etendura- eta irautze-ebazpenetako **arrazoiketa-falta**, eta, bestetik, **interesdunari entzunaldirako aukera eskaini ez izana**. **Bi arazo** horiek, bai bereizita, bai batera, garrantzi handia dute onuradunen eskubideak benetan bermatzeko orduan, babesik gabeko egoera larriak sortzen baitituzte. Arazo horiez gain, jarraian beste prozedura-disfuntzio nabarmen batzuk azalduko ditugu.

2.1.a) Arrazoiketa nahikorik eza

Aipatutako hutsune formalen arteko lehenengoari dagokienez, hau da, Lanbideren **ebazpenetako arrazoiketa-faltari** dagokionez, legegilearen manua ez errespetatzeaz gain, eskubideak mugatzen dituzten ebazpenen arrazoiketaren harira, kontuan hartu behar da egintza horiek sarritan DBEren eskubide subjektiboa ukatu edo galtzea eragiten dutela, kasu askotan pertsona ukituak horretarako arrazoiak zeintzuk diren jakin gabe. Hau da, Lanbideren jardunbide honen **babesik gabeko egoera asko sortu ditu**, arrazoiak ez

jakitean pertsona ukituek ezin baitute alegazio eraginkorrik aurkeztu.

Nabarmentzekoa da Lanbideren eskutik beren DBEri eragiten dien ebazpen-idatzi bat jaso ondoren Arartekora hurbildun diren pertsonetako askok ebazpen horren arrazoia soilik jakin nahi dutela, **sarriegi agertzen baita arrazoi hori ez ulertzeko moduan edo era nahasian.**

Mota horretako ebazpenak arrazoitzeko betebeharra, modu orokorrean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen [azaroaren 26ko 30/1992 Legearen](#) 54.1.a) artikulua xehatzen du: “*Jakinarazpenetan arrazoiak azalduko dira, eta gertakariak eta oinarri juridikoak laburki jasoko dira. Eskubide subjektiboak edo bidezko interesak mugatzen dituzten egintzak (...)*”.

Bestalde, DBE arautzen duen berariazko araudiak berak ebazpenen arrazoiketa aipatzen du, funtsean 147/2010 Dekretuko 33. eta 55.2 artikuluetan adierazita.

Pertsona interesdunari negatiboki eragiten dioten erabakietan arrazoiketa nahikoa falta bada, ezin dira erabaki horren arrazoiak ezagutu eta horien kontra egin, eta, ondorioz, babesik gabeko egoerak sortzen dira. Egoera hori are nabarmenagoa da sarritan DBE-ko eskubide subjektibo ukatu edo galtzea eragiten duten eta ahulezia-egoeran dauden pertsonen eragiten dien kasuei buruz ari garela kontuan hartuta.

Lanbidek ukapen-, etendura- eta iraungitze-ebazpenetan ematen dituen arrazoiak oso laburrak dira gertaerak azaltzean eta, orokorrean, ez dira zuzenbideko oinarriak aipatzen. Gure ustez, ez dute legezko manua betetzen. Hori dela eta, neurri garrantzitsuak ezartzen dira, oinarri juridiko ahularekin.

2.1.b) Interesdunaren entzunaldia

Gure aburuz, berebiziko garrantzia dauka tramite hau errespetatzeak, hau da, pertsona ukituei beren burua defendatzeko aukera emateak, kalte egin diezaiekeen neurri bat hartu baino lehen. Hiritarren eskubide hori gure antolamenduan aitortuta dago eta, era berean, Administrazioak dagokion gaia hobeto argitzeko eta berme handiagoko ebazpenak emateko aukera da. Batzuetan, tramite honek, gainera, erabaki oker bat saihestez, gero zuzentzeko denbora behar duena, ukitutako pertsona edo familiari kalte oker bat eragiteaz gain. Kasu askotan ikusi dugu laguntzaren bat eten edo iraungi egin dela, oker, tramite hori gabe.

DBE eta EPO prestazioak eteteagatik tramitatutako kexetako askotan, onuradunek bazuten etenduraren berri hil horretako nomina ordaindu ez zitzaizela egiaztatzean. Izan ere, normalean prestazioaren ordainketaren kautelazko etendura aplikatzen zitzairen, aurretiazko jakinarazpenik gabe, eta, ondorioz, ordainketen etendura hori saihesteko alegazioak aurkezteko aukerarik gabe.

Arartekoak entzunaldiaren tramitea errespetatzeko beharrezko garrantzia azpimarratu du behin eta berriz eta Lanbidek 2013an zehar bere jardunbidea zuzendu du. Horrenbestez, aldaketa-, etendura- eta iraungitze-prozeduren entzunaldi-tramitea ematen dela esan genezake, prestazioen kautelazko etenduran aukera hori aurreikusten ez den arren.

2.1.c) Eskubidea etetearen kausak eta ondorioak

Gure ustez, **DBE-ko eskubidea etete**ko araudia nabarmen hobetu daiteke.

Arazo nagusia **Lanbidek baldintza-galeraren eta betebeharruraketaren artean duen nahasura** da.

Lanbidek eskubidea etetea arrazoi desberdinak jorratzen ditu, baina ez du bereizkeria edo mailaketarik egiten betebehar bat urratzean edo prestazio baten hartzaile izateko baldintzak galdu edo urratzearen artean, nahiz eta kalifikazio baten edo bestearen ondorioek oso tratamendu desberdina duten 18/2008 Legean.

Gure iritziz, betebeharrak urratzean prestazioaren eskubidea eteteari ematen zaion egungo tratamenduak ondorio neurrigabeak ditu bizikidetzaren unitateak prestazioaren hartzaile izateko baldintzak guztiak betetzen jarraitzen duenean, kasu horretan bere oinarriko beharrenei aurre egin ahal izateko diru-sarrerak faltan izaten jarraitzen baitu.

Horren harira, egokiagoa iruditzen zaigu orokorrean betebeharrak urratzen badira prestazioa ez etetea, **baizik eta zigor-prozedura bat hastea**, arau-hausteak eta zigorrak mailakatzeko aukera emango delarik. Zigor-prozedura 12/2008 Legeko VII. Tituluko 99. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da, baina ez da inoiz aplikatu, ez eta arau bidez nahitaez garatu ere.

Etenduraren iraupena kasu batzuetan soilik aurreikusten da, 18/2008 Legeko 45.2 artikuluan (etenduraren iraupena arautzen duena) eta 26.3 artikuluan (etendura altxatzeko ezartzen duena, haren arrazoia eten denean) arteko koherentzia edo arrazoia ulertu gabe.

2.1.d) Berriz martxan jartzeko atzerapena

Prozedurazko disfuntzio ohikoenetako bat, eta hiritarrentzat ondorio larriak dituen, zera da, prestazioaren ordainketa eteten denean, **berriz martxan jartzea atzeratu egiten dela**, etenduraren iraupena mugatua denean edo Lanbideren akats baten ondoriozkoa izan denean ere.

Etenda dagoen aldi zehar, eta Lanbidek hartutako erabakia egokia den ala ez egiaztatzen den bitartean, interesdunek bizikidetzaren unitatearen diru-sarrera bakarrik galtzen dituzte, eta, ondorioz, ezin diete aurre egin beren kideen hezkuntza, elikadura eta ostaturako gastuei.

Etendura desegokia zela egiaztatuta eta prestazioaren ordainketa berriz ere martxan jartzeak, atzerapenak egonda ere, ez ditu saihesten erabaki horren kalteak, kasu batzuetan bizikidetzaren unitatea etxetik kaleratzea eragin dezaketenak, atzerapen horren ondorioz.

Halaber, prestazio bat ez da berriz ere martxan jartzen ofizioz, nahiz eta araudiak hala aurreikusten duen (18/2008 Legeko 26.3 artikulua). Izan ere, dirudienez, Lanbideren sistema informatikoak ez du aukera hori ahalbidetzen. Alderdiak eskatuta jarriko da martxan, etendura arrazoitzen zuten egoerak eten egin direla aitortzen den kasuetan ere. Hala eta guztiz, gai hori ere hobetu egin da, interesdunak Lanbideri etenduraren arrazoia amaitu dela jakinarazten dionean, prestazioa berriz ere jartzen baita martxan. Automatikoki martxan jartzeko aukera ezartzea falta da.

Horren harira, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Etxebizitzaren Prestazio Osagarriaren eskubidea bertan behera uztearen eta horretarako erabilitako moduaren ondorioei buruzko **azaroaren 29ko gure 9/2011 gomendio orokorra** azpimarratu nahi dugu.

2.1.e) Lanbideren bulegoetan agiriak eta erregistroak aurkeztea

Antzeman genuen arazoetako bat hiritarrek agiriak Lanbiden aurkezteko duten zailtasuna da. Askotan, epe baten barruan aurkeztu behar dira agiriak eta ez da erraza arreta jasotzeko txanda eskuratu ahal izatea. Batzuetan, arreta lortzen dutenean, ezarritako epea iraungi egin da.

Nahiz eta pertsona batzuek Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean zerbitzua erabiltzen duten, salbuespen kasuetarako dela uste dugu eta egokiena Lanbideren bulego guztietan agiriak jasotzeko erregistro-zerbitzu bat egotea eta aurkeztutakoaren egiaztagiri zehatza ematea izango litzateke. Halaxe planteatu genion Lanbideri aipatu diagnostiko-agirian.

Erregistroak ezartzearen eta hiritarren informatzeko beharren gainean egindako gomendioa gogorarazi zaie arduradunei. Adierazi digutenez, ordutegi zabalagoa eskaintzen duen arreta ezartzeko prozesuan daude, agiriak jasotzeaz gain horiek baloratuko dituen eta gaiaren ondorengo tramitazioa erraztuko duena.

2.1.f) Atzerapenak eskaerak eta errekursoak ebaztean

18/2008 Legeak bi hilabeteko epea ezartzen du DBE eskaerak ebazteko (62.2 artikulua), baina epe hori nabarmen luzatu da kasu askotan, behintzat urtearen lehen erdian. Horrenbestez, alderdi horretan hobekuntzak egon diren arren, oraindik ere aipatu legezko epe hori ez da betetzen espediente askotan.

Bestalde, 30/1992 Legeko 117. artikulua hilabeteko epea ezartzen du berraztertze errekursoaren ebazpena eman eta jakinarazteko. Lanbidek epe hori urratzen du, kontuan hartuta ebazpenak sei hilabete edo gehiago atzeratzen direla orokorrean.

Onuradunek jarritako errekurtoa baieztatzen denean, **espedientea aurkaratutako egintza eman zen unera atzeratzen** da soilik, eta, orokorrean, Lanbidek prozedura bat hasten du, baldintzak bete diren bezala berrikusteko. **Ezinbestekoa da berrikuspen-prozedura hori ahalik eta azkarren ematea, edo errekurtoa baieztatzean, zuzenean jartzea martxan prestazioen ordainketa.**

2.1.g) Berritzeko betebeharraren jakinarazpena

Aipatu dugun eta ohikoa den besteko prozedura-hutsune bat **eskubideak berritzeko fasean** aurkitzen da. Sistematikoki urratzen da 18/2008 Legeko 23.1 artikuluan **jasotako** aurreikuspena, Lanbideri **idazki bat igortzeko** betebeharra ezartzen diona, DBEren titularrei aitortutako prestaziorako epea betetzeko gogorarazi diezaie, data hori baino hiru hilabete lehenago. Adierazi dugun bezala, ez dugu ezagutzen

kasu bakar bat ere idazki hori izan duenik eta Lanbidek halaxe berretsi digu. Ondorioz, arrazoi horren ondorioz iraungitzen diren DBE guztietan hutsune formal larria izango genuke, 147/2010 Dekretuko 49b artikulua arrazoi horren ondorioz iraungitako DBEren kasuak aipatu eskakizunaren bidalketarekin lotzen baititu (halaxe zehazten du aipatu manuak).

2.2. Desadostasunak aplikatu beharreko araudia interpretatzean: DBEren titular izateko baldintzak eta haren ondoriozko betebeharrak

Lanbide DBEren titular izateko baldintzen eta baldintza horiek eragiten dituen betebeharraren betearazpenaren gainean egiten ari den interpretazioaren ondorioz, pertsona asko prestaziorako eskubiderik gabe geratzen ari dira. Jarraian, 2013an aztertutako kexa-arrazoi nagusietako batzuk aztertuko ditugu.

2.2.a) Egoitza efektiboaren galera, EAETik kanpora bidaiatzeagatik

Arazoi horren ondoriozko iraungipenak kexa ugari eragin ditu. Lanbideri gure desadostasuna azaldu diogu eta, adierazi digunez, irizpide hori berrikusten ari dira, txosten hau idatzi den unean indarrean jarraitzen duen arren.

Lanbidek ezarritako irizpideen arabera, lan egiten duten titularrek eta onuradunek EAETik irteteko eskubidea dute, urtean 30 egunez, bidaia-kopurua edozein izanda ere, Lanbiden aurretik jakinarazi ostean. Lan egiten ez dutenek EAETik irteteko eskubidea dute, gehienez 15 egunez. **Lanbideren irizpidearen arabera baimendutako gehieneko epea gainditzen bada, egoitza efektiboa galdu egiten da.**

Gaia are larriagoa da kontuan hartzen badu Lanbidek DBE eskatu aurretik egindako irteerak ere aintzat hartzen dituela.

Gainera, urteko gehieneko irteera-egunen irizpide horrek ez du legezko oinarririk. Printzipioz, kontraktorik frogatzen ez bada, erroldan izena emateak egoitza efektiboa ematen du. Azken hori berariaz egiaztatze beharrak, errolda dagoenean, Administrazioak haren betearazpenari buruzko zalantza dituenean soilik dauka zentzua, baina ezin da, inola ere, betebeharrak hori orokorrean eskatu.

Egungo araudiak ez du horren gaineko aurreikuspenik xedatzen, ondorio oso larriak eragiten dituen arren. **Gure ustez**, Lanbideren irizpide batek ezin du datu objektibo bat guztiz nahierara aldatzeko balio, egoitza efektiboa kasu. Hau da, **EAETik kanpora behin-behinean lekualdatzeak**, helbidea aldatu gabe (oporraldi baterako edo senideak bisitatzeko, adibidez), **ez du inola ere esan nahi egoitza efektiboa galtzen denik**. Ulertzen dugu irteerak DBE jatorrizko helburuetara bideratzeko betebeharraren urraketatzat jo daitezkeela eta horrek prestazioen ordainketa eten lezakeela interesduna kanpoan dagoen bitartean, baina irteera horiek ezin dira inola ere interpretatu helbide-aldaketa gisa (horixe baita azken finean egoitza efektiboaren galerak esan nahi duena).

Ondorioz, **beharrezkoa litzateke gai hau araututa egotea, behin-behineko mugak eta Lanbideri bidaiaz informatzeko betebeharra ezarriz**, berau egin baino lehen, bai eta xedatutakoa ez betetzearen ondorioak adieraziz ere. Gainera, DBEren titularrek argi izan beharko lukete hori guztia.

2.2.b) Familia berrelkartzea

147/2010 Dekretuko 5.1.a) artikuluko azken paragrafoan berriaz aipatzen dira bakarrik bizi diren etorkinen bizikidetzaren unitate ekonomiko independenteak, horien ezkontidea edo horiekin ezkontza-harremanaren antzeko harreman iraunkorra daukaten pertsonak estatuan bizi ez direnean.

Salbuespenezko tratamendu hori gehienez bi urtez hedatzen da, eta, epea amaitzean, familia berrelkartu ez bada, Lanbidek eskubide hori iraungitzen du.

Gehienetan, indarkeriari lotutako egoerak direla-eta, bizirik irauteko eta/edo migrazio-prozesu baten ondorioz egin dute ihes pertsona horiek euren jatorrizko herrialdeetatik, nahiz eta ez dieten errefuxiatu-egoera aitortu.

Espaniako sarrera eta egoitza arautzen dituen araudiari jarraiki, **atzeritarrek Estatuko Administrazio Orokorri Espainian sartzeko, bizitzeko, lan egiteko edo jatorrizko herrialdean bizi den bikotekidearekin elkartzeko baimena eskatu behar diote.**

Jatorrizko herrialdean bizi den bikotekideak familia berriro elkartzeko duen aukera honen menpe dago: legezko zenbait baldintza bete behar ditu eta Estatuko Administrazio Orokorri berriro elkartzeko baimena eman behar dio.

Baldintza horiek betetzea zaila da. Hori dela eta, beste bikotekidearekin berriro elkartzeko baimena eskatu duten bikotekide askok **ez dute lortu**. Praktikan, familia berriro elkartzeko eskatzen duten pertsonak langabezia baldin badaude edo laguntzen titularrak baldin badira, ez dituzte berriro elkartzeko bete beharreko baldintzak betetzen, azken kasu horretan, gizarte-laguntzaren sistematik datozen diru-sarrerak ez direlako aintzakotzat hartzen.

Lanbidek, Arartekoaren iradokizunei jarraiki, 147/2010 Dekretuko 5.1 a) artikuluan jasotako araudi-aurreikuspenaren aldeko interpretazioa egiteko aukerari buruz zuen iritzia adierazi zigun, hau da, Estatuko Administrazio Nagusiak ezkontidea berrelkartzeko administrazio-baimena ukatu duenean eta pertsonak prestazio horren onuradun izateko gainerako baldintza guztiak betetzen dituztenean DBE ez ukatu edo iraungitzearen alde agertu zen. Gauza bera pertsona errefuxiatuen kasuan.

Hala eta guztiz, arazoa da askotan ez dagoela berrelkartzearen ukapen formalik, eskaera bera ere ez delako jaso, diru-sarreraren baldintza betetzen ez dela-eta. Bi urteren ondoren Lanbidek prestazioa iraungitzen duenean, prestazio horiek babesik gabe gelditzen dira. Ikusi ditugun egoera hunkigarrien artean hauexek daude: guraso bakarrek familiak, adingabeak euren kargura dituztenak. Kasu horietan lehentasunez 147/2010 Dekretuko 5.2 c) artikulua aplikatzea izango litzateke beste aukera bat. Garrantzitsua iruditzen zaigu legezko xedapen horrek etorkinen egoerak dituen ondorioen gaineko **hausnarketa** bat egitea, batez ere tartean adingabeak daudenean.

2.2.c) Bizikidetzaren unitatearen gastuen kontrola

2013. urtean zehar, kexa ugari egon dira DBE eten edo iraungi egin delako, *“prestazioa oinarritzko beharrezkoak ez erabiltzeagatik”*. Lanbideren ustez, pertsonen bankumugimenduetako gastu batzuk ez direnean funtsezkoak izan edo ez direnean “oinarritzko beharrezkoak” kontzeptuan sartu gertatu dira halako kasuak. Hori horrela, egon bada go araudi-gaikuntza bat Lanbidek betebeharrak betetzen ote diren egiaztatze aldera edozein datu eska dezan, zehazki, prestazioa legez esleitutako helbururako erabiltzen dela ziurtatzeko (18/2008 Legeko 19.1 artikulua). Horretarako, titularrak epe jakin bateko kontuko mugimenduak aurkeztu behar ditu.

Nabarmendutako gastu horiek izaera askotarikoak izan dira, bai kontzeptuan (telefonía mugikorra, ostalaritza, aisia eta bidaiak, aseguru mediko pribatuak, etab.), bai kopuruan. Berriz ere, araudian ez daukagu DBEren kopuru eta kontzeptu horien gaineko muga zehatzik.

Edonola ere, Lanbidek gastuen mugak zehaztu beharko ditu, bai kualitatiboak, bai kuantitatiboak, eta pertsona ukituei jakinarazi egin behar die zein gastu ez diren beharrezkotzat jotzen eta prestazio gisa jasotako kopurutik zenbat erabili daitekeen askatasunez. **Horrenbestez, irizpide objektibo horiek pertsona interesdunei jakinarazi beharko zaizkie.**

2.2.d) Enplegu-eskatzaile gisa altan egoteko betebeharra

Beraz, 18/2002 Legearen eta 147/2010 Dekretuaren idazkuntzatik ondorioztatu daitekeenez, eskakizun-maila desberdina da lan egiteko eskuragarritasunaren gainean. Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko DBEren kasuan, enplegu-eskatzaile gisa alta eman beharko litzateke (18/2008 Legeko 19.2b) artikulua), eta laneko diru-sarreraren DBE osagarriaren kasuan, enpleguari eusteko eskakizun orokorragoa ezarriko litzateke (ez ematea baja borondatez edo lan-utzialdirik edo lanaldi murrizketarik ez hartzea, 18/2008 Legeko 19.3 artikulua). Eduki hori gizarteratze aktiborako hitzarmen baten bidez zehaztuko da.

Edonola ere, Lanbidek aplikatutako irizpidea argitu behar da, lan-sarreraren DBE osagarria enplegu-eskatzaile gisa ez azaltzeagatik eten izanaren kexaren bat jaso baitugu. Betebehar hori ezin eska daiteke aipatu araudiaren arabera.

Laneko diru-sarreraren osagarri gisa DBE kobratzen duenak enplegu-eskatzaile gisa izena emanda jarraitu behar badu (enplegu hobea edo lanaldi osokoa aurkitzeko, lanaldi partzialeko kontratua badu), **Lanbidek argi eta garbi adierazi beharko lieke pertsona ukituei**. Gure ustez, gizarteratze aktiborako hitzarmena bera jakinarazpen-tresna egokia litzateke, enplegu-eskatzaile gisa altan jarraitzeko betebeharra sortuko bailuke bide honek, esan bezala indarreko araudiak ez baitu zehazten kasu horietan betebehar hori betetzeko beharrezkoa.

2.2.e) Elkarrekin bizi diren pertsonen izatezko harremanaren ustea

Kexak tramitatzeko antzeman ahal izan dugunez, Lanbidek sexu desberdineko bi pertsona etxebizitza berdinean bizi direnean bien artean harreman afektiboa duela pentsatzeko joera dauka.

Beharbada ezkontza-harremanaren antzeko egoera dagoen ala ez zehazteko irizpiderik objektiboena dagozkien erregistro publikoetan agertzea da, horren ondoriozko eskubide eta betebeharrekin. Aitzitik, aitorten publiko hori ez balego, Lanbideren ardura izango litzateke harremana frogatzea.

Posible da, bestalde, eskatzaileek zinpeko aitorten bat egitea, beren bizikideekin harreman afektiborik ez dutela adierazteko. Agiri hori eskatzeak atzera botako luke errealitatearekin bat ez datorren informazioa eskaini nahi duten pertsonen asmoa.

edo Gipuzkoan epe jakin batean era egonkorrean egon izana egiaztatzen duten bestelako agiriak.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Sailak maiatzaren 6ko **577/2013 Foru Agindua** onartu du, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren ondoretarako aldi baterako harrera-zentroak eta ostatuak zehazteari buruzkoa. 147/2010 Dekretuko 6.2.b) artikuluan etxebizitza edo ostatuaren gainean jasotzen den adierazpenari buruzkoa da aipatu foru-agindua.
- Eusko Jauriaritzak **Bazterkeria Balioesteko Tresna** onartu du, uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuaren bidez. Tresna hori Gizarte Zerbitzuen Legearen garapenean kokatzen da eta, 20. artikulua arabera, zehazki, euskal administrazio publikoek balioespen eta diagnostiko tresna komunak aplikatuko dituzte, aplikazio-irizpide homogeneoak bermatzeko. Hala, onartutako testua balioespen-adierazle desberdinak jasotzen dituen tresna teknikoa bihurtzen da eta oso erabilgarria izango da udaleko eta foruko gizarte-zerbitzuentzat, bazterkeria-egoerak edo bazterkerian egoteko arriskua antzemate aldera.

3.

Lege-testuingurua eta politika publikoak

Epigrafe honetan, aurrean indarrean sartu diren araudi-aldaketa batzuk eta arloari eragiten dieten jarduerak publikoak azalduko ditugu.

2012ko urteko txostenean aurreratu genuen bezala, 4/2011 Legearen bidez nabarmen aldatu zen 18/2008 Legea eta, ondorioz, **DBE, EPO eta GLL arautzeko araudiak egokitu egin behar ziren** (egungo [147/2010 Dekretua](#), [2/2010 Dekretua](#) eta [4/2011 Dekretua](#), hurrenez hurren), nahiz eta gaur egun, oraindik ere, ez den halakorik gauzatu, 18/2008 Legea aldatzen duen 4/2011 Legearen azken xedapenetako lehenengoan aurreikusitako urtebeteko epea igaro den arren.

Aurreko epigrafean adierazitako gaiak eta beste asko konpondu egingo lirateke irizpide argiak ezarriko balira, hau da, hautazkotasuna saihesten dutenak eta eskubide hauen titularrentzat segurtasun juridiko handiagoa bermatzen dutenak.

- Gizarte Larrialdietarako Laguntzetako gastu espezifiko bakoitzeko 2013. urtean gehienez eman daitezkeen dirukopuruak ezartzen **dituen Enplegu eta Gizarte Politika-tako sailburuaren 2013ko martxoaren 27ko Aginduak** Arartekoak 2012ko abenduaren 4ko ebazpenean gomendatutakoa osorik bereganatzen du, hau da, funtsean, Gizarte Gaietako Sailaren Aginduaren bidez ezin direla aldatu GLL eskuratzeko 18/2008 Legearen baldintzak, hori arau-hierarkiaren printzipioaren aurkakoa baita.
- **Gipuzkoako 31/2012 Foru Dekretua**, iaz ere aipatzen genuena, urriaren 15eko 35/2013 Foru Dekretuaren bidez aldatu da. Testu berrian errolda-ziurtagiriaren osagarri diren agiriak eskatzeko aukera nabarmentzen da, interesdunak lurraldean duen egoitza efektiboa egiaztatzeko, besteak beste, posta, ordainagiriak, fakturak, ziurtagiriak

4.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Ofiziozko jarduerak

2013an zehar Eusko Jauriaritzako Enplegu eta Gizarte Gaien Sailari buruzko ofiziozko honako jarduerak egin ditugu:

[357/2013 espedientea](#), **DBEren gastu-mugei buruzkoa**, bai eta gastu horien izaerari buruzkoa ere, prestazioa aurreikusitako xedeetarako erabiltzen dela aztertzeko.

[540/2013 espedientea](#), **Lanbideren funtzionamenduari buruzko diagnostiko-txostena** egiteko eratu zena.

[2945/2013 espedientea](#), hiritarrei agiriak aurkezteko modu balioudunei eta bulegoetan agiriaren onarpen-erregistroak ezartzeari buruzko informazioa emateari buruzkoa. Horixe bera landu dugu kapitulu honetako 2.2 c) atalean.

4.2. Ekitaldiak eta jardunaldiak

2013. urtean erakundearen titularrak, Iñigo Lamarcak, hainbat esku-hartze egin ditu komunikabide desberdinetan, DBEren kudeaketari eta kexen tramitazioan jorratutako arazo nagusiei buruz mintzatzeko.

Era berean, honako **jardunaldietan** parte hartu zuen: “**Nadie sin hogar ¿Es posible en Euskadi?**” **BesteBi** plataformak antolatutako jardunaldiak 2013/06/14an, Bilboko la Bolsa Zentro Zibikoan, etxerik ez duten pertsonen arazoa jorratzeko.

Abenduaren 16an erakundeak **Sartuk antolatutako jardunaldian** parte hartu zuen, **Donostian**. Alkateak eta

Gipuzkoako Gizarte Ekintzako foru-diputatuak inauguratu zituzten, hain zuzen ere, **gizarteratzeari eta hiritartasunari buruzko** jardunaldi hauek, eta hainbat aldiz aipatu zen Arartekoak eremu honetan egiten duen lana.

4.3. Bilerak

Urtean zehar lau bilera izan ditugu **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin**, eta, zehazki Lanbideko arduradunekin, Lanbideren funtzionamenduari eta prestazioak eskatu, eten, iraungi, berriz martxan jarri eta berritzeko prozedurari eragiten dieten kexen tramitazioan erregistratutako arazoak jorratzeko.

Era berean, gizarteratzearen alorrean, gizartean bazterte-prozesuak nozitzen dituztenen eskubideen defentsan lan egiten duten zenbait **hirugarren sektoreko elkarterekin** bildu gara. Bilera horietako batean, **urte hasieran**, pertsona askok Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemara **sartzeko** edota bertan mantentzeko arazoak izan dituztela jakinarazi zizuten. Horren harira, Lanbidek hiritarrei emandako arretan eta prozeduren tramitazioan egindako disfunczioei buruzko kexa ugari jaso ditugu, txosten honetan aipatutakoak kasu.

behar dira, ematen den zerbitzuaren eraginkortasun hobea bermatzeko.

4. Beharrezkoa da Lanbidek bai diru-sarrerak bermatzeko berriazko araudian, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen ondoriozkoan **aurreikusitako prozedura-bermeak** betetzea, zehazki prestazioak eten, ukatu edo iraungitzen diren kasuetan. Prestazio horien izaera delikatuak, geroz eta kolektibo zabalago honek gizarte-bazterkeriaren muga ez gainditzeko xedea duenak (batez ere desberdintasun sozial eta ekonomikoen ondorioz), geroz eta kalitate altuagoko arreta lortzeko ahalegina justifikatzen du.

5. Premiazkoa eta beharrezkoa da Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko 18/2008 Legea garatzea, 4/2011 Legearen bidez aldatu ondoren, **DBE, EPO eta GLL arautzen dituzten araudiak egokituz** (gaur egun 147/2010 Dekretua, 2/2010 Dekretua eta 4/2011 Dekretua, hurrenez hurren). Esan bezala, gaur, oraindik ere, ez da egokitzapen hori gauzatu, 18/2008 Legea erreformatzeko 4/2011 Legearen azken xedapenetako lehenengoan aurreikusitako urtebeteko epea igaro den arren.

Garapen horretan, egun aurreikusi ez diren eta zehaztu beharrekoak diren alderdiak jorratu beharko lirake (besteak beste, EAetik kanporako irteerak, berrelkartzeko aukera, baimendutako gastu-mugak –prestazioa oinarritzko beharizanetara bideratzeko betebeharra urratzen ez dutenak–, ezohiko diru-sarrerak, etab.). Era berean, argi eta garbi arautu beharko lirake etendura –betebeharrak urratzearen ondorioz– eta iraungipena –baldintzak galtzearen ondorioz–. Halaber, garrantzitsua da zigor-prozedura garatzea, 18/2008 Legean aurreikusitakoa bera (VII. tituluari), arau-hausteak eta zigorrak mailakatzeko aukera ematen baitu.

6. Gizarte-bazterkerian lanean ari diren **gizarte-erakundeak** finantzazio-arazoak jasaten ari dira, laguntzetan eta diru-laguntzetan egindako murrizketen ondorioz. Hori dela eta, horien jarraitutasuna ere arriskuan dago. Garatzen duten egitekoa oso beharrezkoa da gure gizartearentzat, hiritarrei hurbiltasuna eta malgutasuna eskaintzen dizkietela eta administrazio publikoetara hurbiltzen ez diren edo bete beharreko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen arreta ematen dietela kontuan hartuta. Hau da, halakorik ezean arretarik gabe geratuko litzatekeen espazio bat betetzen dute. Horrenbestez, beren lana babestea ezinbestekoa da gizarte-kohesioa lortu eta desberdintasunen kontra borrokatzeko. Horretarako, aurrekontu-partidek hornidura egokiak izan behar dituzte, pertsona kaltetuenen beharizanak asetzeko aldera. Aurrekontu-partida horiek, gainera, lehentasunezkoak izan behar dira krisi-garaietan, pertsona ahulenen zailtasunak areagotu egiten baitira.

7. **Etixerik ez duten pertsonen** beren oinarritzko beharizanak (elikadura, ostaturia –batez ere neguan–, higiene eta arropa egokia) estalita edukitzea **lehentasunezko eta premiazko helburua da oraindik ere**.

5.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

1. Bizitzen ari garen krisi ekonomikoak oraindik ere gurean dirauenez, DBE eta EPOren onuradunen kopurua igo egin da 2013an zehar, diru-sarreraren sisteman marka historikoa lortuz.

Igoera horren ondorioz, hartzaileen profila geroz eta anitzagoa da.

2. Diru-sarrerak bermatzeko sistema hau elementu garrantzitsua da gizarte-kohesiorako. Halaber, **EAEko txirotasun-eta bazterkeria-tasak Europar Batasuneko batez beste-kopuruen azpitik mantentzen** laguntzen du, Euskadi Europan desberdintasun-maila baxuena duen gizartearen artean finkatuz.

3. 2013an zehar hobekuntza nabarmenak antzeman dira **Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren kudeaketan**, zehazki DBE eta EPOren kudeaketan. Lanbidek geroz eta azkarrago ematen ditu ebazpenak, itxarote-zerrendak ezabatu ditu eta entzunaldi-izapidea eskaintzen du. Hala ere, oraindik hainbat alderdi garrantzitsutan aurrera egin behar da, arrazoiketa egokian adibidez. Era berean, baliabide materialak hobetu egin behar dira, zehazki, **aplikazio informatikoak** eta **giza baliabideak**, Lanbideren bulego guztietan. Hornidura horiek areagotu egin

a t a l a

2018.

**Ijitoak eta
beste gutxiengo kultural batzuk**



Aurrekariak



Mendeak igaro badira ere Europar daudenetik eta Europar Batasuneko gutxiengo handiena osatu arren, ijitoek aurreiritzien, tolerantziarik ezaren, bereizkeriaren eta bazterkeriaren biktima izaten jarraitzen dute.

Horregatik, ezinbestekoa da beharrezko neurriak hartzea haien giza eskubideak, [Oinarrizko Eskubideen Gutunean](#) eta [Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean](#) jasotakoak, baita Europar Batasuneko legeetan ere, errespetatu, babestu eta sustatzen direla bermatzeko.

Gizarteratzea eta laneratzea bultzatuko duten, ijitoen haurren eta nerabeen hezkuntza hobetzearen alde egingo duten eta behar bezalako baldintzetan etxebizitza bat eskuratzeko aukera emango duten politika publikoak behar dira. Gutxiengo kulturaltzat jotzeak, gainera, haien kultura eta gizarte- eta politika-izaerako partaidetza sustatzea dakar.

Xede horiek guztiak lortzeko plangintza estrategikorako tresna baliodunak egon badaude, bai Europa eremuan bai autonomia eta erkidego mailan, baina eragile publikoen asmo irmoa nahitaezkoa da –asmo horren bidez programatutako neurriak modu eraginkorrean abian jarri behar dira eta hori gauzatzeko behar den finantzaketa eman beharko da–.

Horri guztiari lotuta botere publikoen eta gizartearen jarrera proaktiboa egon behar da, oro har, ijitoek pairatzen duten estigma errotik ateratzeko jarrera baten aldekoa.

1.

Kexarik aipagarrienak

1.1. Basaurin bizi zen ijito familia bati erroldan izena eman ziezaioten egindako eskaera ukatu zenez, Arartekoaren esku-hartzeak bidea eman zuen azkenean familiako kide guztiei izena emateko, hasiera batean eskatutako helbidean izan ez bazen ere. Arartekoaren azaroaren 27ko ebazpena aipatu behar da. Bertan adierazi da [Basauriko Udalak](#), biztanleen erroldatik baja ofizioz emateko espedienteetan, izapide bat gehitu beharko lukeela Udaltzaingoak eta gizarte zerbitzuek baja emateko proposamenean barne hartutako pertsona batzuen helbidearen gaineko datuak egiaztatzeko aukera izan dezaten, alden espediente bat ofizioz has dadin eta udal errolda eta errealitatea bat etor daitezten.

1.2. Eskola-jantoki zerbitzuari dagokionez, 2013. urtean hezkuntza-eragile batzuk esan digute kezkatuta daudela adingabe batzuen egoerarengatik. Izan ere, aipatu adingabeen familiek ezin dituzte jantokiko kuotak ordaindu, beken deialdi orokorraren esparruan urtero-urtero iragartzen diren jantokiko laguntzen onuradun izatea espero badute ere, zerbitzu horren funtzionamenduari lotutako instrukzioek ezartzen baitute kuotak behin eta berriro ez ordaintzeak jantokiko plaza galtzea ekar dezakeela.

Gure esku-hartzeari esker, behin-behineko kasuen ebazpena lortzeaz gain, hezkuntza administrazioaren konpromisoa lortu dugu: alegia, ikastetxe guztiei instrukzio bat bidaltzekoa, ahal den neurrian halako egoerak saihesteko.

1.3. Ijitoei eragiten dieten izaera ekonomikoko gizarte prestazioak iraungi, eten eta ez berritzeari buruzko kexak jasotzen jarraitu dugu.

“Interesdunak izaera ekonomikoko haren eskubideak baliatu ez izanaren ondotik” [Lanbidek](#) diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa berritu ez zuen kasu batean, administrazioari esan genion interesdunaren jarduerak ez zuela bizikidetzaren unitatearen ondarea aldatzen. Lanbidek gure gogoetak aintzat hartu eta haren jardura zuzendu zuen eta, hala, prestazioa eman zion, baita zegozkion atzerapenak ere.

Dena den, adierazi behar dugu kezkatuta gaudela eragindakoen eta haien familien bizitzan halako ukapenek sor ditzaketan ondorio larriengatik –askotan familiek adingabeak dituzte haien kargura–. Izan ere, prestazioak onar diezazkioten eskubidea badute ere, errekursoak ebazteko espedienteen atzerapen bidegabeak denbora-aldi onartezinak dakartzate eta une horietan ezin diete erantzunik eman oinarrizko premiei eta, hala, benetako gizarte bazterkeria egoeran geratzen dira.

[Gizarteratze arloan](#) kexa horien azterketa orokorra jorratu da.

2.**Araudi- eta gizarte-testuingurua**

2.1. Aurten Europako Parlamentuak ijitoak Europan gizarteratzeko xedea duten bi ebazpen onartu ditu: la [Europako Parlamentuko 2013ko abenduaren 12ko ebazpena](#), ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionalak aplikatzean izandako aurrerapenei buruzkoa, eta [Europako Parlamentuko 2013ko abenduaren 10eko ebazpena](#), ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionalen Europako esparruaren generoari lotutako alderdiei buruzkoa.

2.2. 2013an OSF izenekoaren ([Open Society Foundations](#)) deialdiaren barruan egindako txostena argitaratu da: *Ijitoak gizarteratzeko Europar Batasuneko funtsek erabiltzen dituzten ikuspegiak, programen eta politiken azterketa*. Espainiaren kasuan, Sekretariado Gitano Fundazioak 2000. urtetik kudeatzen duen [Eskuratu](#) programaren bidez aztertzen da, Europako Gizarte Funtzaren [Bereizkeriaren aurkako borroka](#) programa operatiboaren esparruan –aipatu programaren xede nagusia ijitoen laneratzea sustatzea da-. Bertan, programaren egokitzapen-ahalmena eta krisi-egoeran baliagarriak izan daitezken abian jarritako aldaketa-estrategiak nabarmendu dira.

2.3. Europar Batasuneko Kontseiluak [2013ko abenduaren 9ko gomendioa](#) eman du, ijitoak estatu kideetan gizarteratzeko neurri eraginkorrak hartzeari buruzkoa. Horren bidez kontseiluak estatu kideei berriazko orientazioak eman dizkie alor horretako haien jarduerari bultzada handiagoa emateko eta ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionalen Europar Batasuneko esparrua indartzeko, 2011. urtean estatu kide guztiek xedatutakoa.

2.4. Aurreko urteetan bezala, 2013an Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan aritu nahi duten irabazi asmorik gabeko erakundeei deia luzatu zaie, hain zuzen, eskolaren esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak gara daitezen ([2013ko irailaren 18ko Agindua](#)). Aurreko urtearekin alderatuta zuzkidura ekonomikoa murriztu egin da, ijitoen erabateko sustapenerako gizarte partaidetzarako kontseiluaren baitan sailak partida hori handitzeko asmoa adierazi bazuen ere.

2.5. Aurten, Sekretariado Gitano Fundazioak [Krisiak ijitoengan izan duen eragina](#) izeneko azterlana argitaratu du eta horren bidez egungo krisi ekonomikoaren ondotik ijitoek pairatzen duten egoera larriaren berri eman du: tasak handitzea pobreziaarena, langabeziaarena (ijitoen %42an kokatzen da), infraetxearena, pilaketarena eta txabolismoarena; baita haur ijitoen elikadura-arazoak eta adinekoen gaixotasun kronikoen jarraipenaren inguruko arazoak larriki ugartzea ere.

3.**Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak****3.1. Erkidegoko ijitoen asentamenduak**

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2004tik, erkidegoko ijitoen asentamenduak egon dira. Ararteko erakundeak [Ortuella](#) eta [Portugalete](#) herriei buruzko 2005ko ebazpenetan eta [urriaren 5eko 3/2011 Gomendio Orokorrean](#) mahaigaineratu du pertsona horiek gizarte eskubideak izan badituztela, haien betebeharrak konplitzen dituztela, bizilekuaren bortxaezintasunerako eskubidea eta pertsona horien harrera hobetuko dela bermatzen duten jarduera-protokoloak gartzeko premia dagoela (esku-bideok: hezkuntza, lana, lanbide heziketa, osasuna, gizarte babesa eta etxebizitza).

EAEko erkidegoko ijitoen asentamenduen egoeraren ezaggarriak hauek dira: oinarrizko premiei erantzuna emateko baliabide nahikoak ez egotea (gizarte babeserako sistemak ez du egoera arindu), osasun arretaren inguruan jarraitutasunik ez egotea, baldintza higieniko-sanitarioak ez egotea, enplegarritasun maila oso baxua izatea, bereizkeria pairatzea etxebizitza edo lana eskuratzekoan, eroldan izena ez ematea, gizartearen gehiengoarekin harreman gutxi izatea, marjinazioa, pobrezia eta haiekiko gizarte bazterkeria eta gaitzespena sufritzea.

Gure erkidegoko gizarte zerbitzuek aldiari-aldiari eta modu esporadikoan esku hartu dute, gizarte arreta eta erkidegoko egitekoa lehentasunezkoztat jo baitute. Hala ere, gure administrazioek askotan ordena publikoko neurriak hartu dituzte, adibidez, utzarazpenak edo zigorrak, gizarteratzearen xedea lortzeko aukera ematen ez dutenak, ezta mahaigainean jarritako arazoen iraunarazpena saihesten ez dutenak ere –hori beste eremu geografiko batera baino ez da igaro-. Horregatik, neurri eraginkor eta zuzenena da hasiera-hasieratik erabateko arreta ematea eta bazterkeria prozesua larriagotu ez dadin eta ahaleginak sakabanatu daitezen saihestea.

Joan den urtetik hainbat esku-hartze –esaterako, Astigarragan eta Hernanin bideratutakoa- burutu dira, toki, foru eta autonomia administrazioek bultzatutakoak eta beste asentamendu batzuetarako eredu gisa hartu behar diren jardunbide egokiaren adibidetzat hartu behar dira: gizarteratzeko bideak finkatu; eroldatu; gizarte-, osasun- eta hezkuntza-arloko bultzada; bizikidetzara-erakundeak betetzeko konpromisoak eskatu; eta hori ezartzearen ondorioak ezarri; baita asentamenduen jarraipenerako batzordeak sortu ere –batzorde horietan zenbait gizarte eragile publikok parte hartu-.

Esku-hartze horiek Europar Batasunak ijitoen sustapenerako eta gizarteratzerako xedatutako estrategiak, planak eta neurriak bete dituzte.

Gure ustez, Ergobiako asentamenduen (Astigarraga) inguruan jazo zitekeen uholde arriskuaren inguruan 2013an jakinarazitako albistea prozesu horretan esku hartu duten herri-administrazioen arteko koordinazioarako eta hausnarketarako elementu bat da.

Oro har, gure autonomia erkidegoko ibai guztietan eremu horiek hartzen dituzten pertsona guztien segurtasunerako

arriskuak murriztu eta saihestuko dituzten beharrezko neurriak hartu behar dira. Segurtasunaren gaineko eskakizun horiek kaltetu gabe –azaldutako asentamenduetan bezalakoetan beharrezkoak dira–, egoera horrek gizarteratzeko prozesuen ekimenak babestu, sakondu eta arintzeko premiaren inguruan hausnarketa egiteko bidea eman behar digu (ekimen horiek, adibidez, Gipuzkoan abian jarritakoak). Horretarako, asentamendu horietan bizi diren pertsonen gure herrietan integrazio maila handiagoa lortu behar dute, segurtasun baldintzak edukita eta gizarte eskubideak erabat garatuz.

3.2. Ijitoen erabateko sustapenerako eta gizarte partaidetzarako euskal plangintza estrategikoaren jarraipena

Joan den urtean adierazi genuenez, ijitoen erabateko sustapenerako eta gizarte partaidetzarako kontseiluak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitakoak, erabaki zuen **Ijitoen erabateko sustapenerako eta gizarte partaidetzarako II. planaren** iraunaldia luzatzea, bi urteko aldi osagarria (2012-2013).

Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak emandako informazioari jarraiki, 2012ko apirilean egindako azken bileraren ostean, 2013ko azaroaren 20an kontseiluaren osoko bilkura izan zen. Gauzak horrela, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak hauxe adierazi zuen: *“sailaren asmoa, hau da, ijito komunitatea identitate propioa duen eta errealitate desberdin bat duen komunitatez jotzen duen ekintza-ildoak mantentzea, luzatutako II. Planetik hartutako aurreikuspenak berrikusiz, esaldiak sinplifikatuz, eta aldi berean oinarri eta erakunde babes gehiago emanaz”*, hortik aurrera egungo legeetarako **Euskal Estrategia Ijitoekin** izeneko osatutuz. Sailak eta berak espresuki kontseiluari lankidetzarako eremu gisa ematen zioten balioa nabarmendu zuen eta, hala, *“berriz adierazi zieten ijitoen elkarrekin gobernua haien ondoan zegoela senti zezatela eta elkarrekin lan egiten has zitezela”*.

Aipatu foroan, **Euskal Estrategia Ijitoekin** aurkeztu zuen. Tresna hori honela definitu zuen: *“ijitoekin baliatzeko ekintza-ildoak orientatu eta jorratzen dituen agiri dinamikoak, hori garatuko duten ekarpenak barne hartzeko prest dagoena”*. II. Planean adierazitako hiru estrategia-ildoak mantendu dira eta ekintza-ildoak 15 arte murriztu ditu. Hala:

I. Ijitoen bizi-kalitatea hobetu

1. Eskola inklusiboaren esparruan ikasle ijitoen eskolatzeari hobetu.
2. Emakume ijitoek pairatutako genero indarkeriaren egoera ebentualak prebenitu eta horiei arreta eman.
3. Ijitoak, helduak, laneratzeko eta horien enplegarritasuna hobetzeko zerbitzu-sarea finkatu, Lanbide enplegu zerbitzu publikoarekin koordinazio-mekanismoak ezarri.
4. Osasunaren erkidegoko agentearen irudia sortzea aintzat hartuko duen osasunaren sustapenerako programa diseinatu, garatu eta ebaluatu.
5. Premiazko aparteko egoerei erantzuna emango dien titulartasun publikoko etxebizitzak eskuratzeko sistema.

6. Justizia administrazioarekin lankidetzan aritu kultura gakoak egoki irizitako kausetan edo esku-hartzeetan aintzat har daitezkeenean.
7. Ijitoekin lan egiten duten ardurak publikoko zerbitzuetako profesionalak benetako egoerara eta ijitoen kulturara gerturatu, aurreiritziak eta estereotipoak gainditzen eta harremana eta, beraz, zerbitzuen kalitatea hobetzen aurrera egiteko.
8. Kontseiluari eta Ijitoen Planari lotutako eragileekin lankidetzan arituz, estrategia honen, intereseko jardunbide egokien eta ezagutza eta praktika hobetzen lagunduko duen bestelako edozein informazio osagarri eta garrantzitsuren inguruan EAEn garatutako jarduerak jarraitu eta hedatzeko prozedurak ezarri.

II. Ijitoen gizarte partaidetza

9. Ijitoen eta ijitoen aldeko gobernu kanpoko erakundeekin (GKE) partaidetzarako sustapena eta laguntza teknikoak ijitoen komunitateari lotutako gaiak jorratuko dituzten kontsulta- eta lankidetzaren eremuetan.
10. Ijitoen eta ijitoen aldeko elkarrekin profesionalen eta boluntarioen gaitasuna hobetu, prestakuntza premien diagnosia eta prestakuntza plana batera eginez.
11. Emakume ijitoak eta haien komunitateko aldaketaren eta garapenaren eragile gisa egindako lana agerian jartzen eta onartzen lagundu.

III. Ijitoen kulturaren ezagutza eta bizikidetzaren hobetu

12. Ijitoen eguna, azaroak 16, Euskadin ospatu.
13. Hedabideetako baliabide eta profesionalekin elkarlanean aritu sentsibilizazio eta lankidetzaren formulak definitzeko, baita erreklamazioak eta salaketak egiteko ere, hala dagokionean.
14. IKTen eta gizarte sareen erabilera sustatu, EAEko ijitoen eta horri lotutako beste gaien inguruko informazio garrantzitsua zabaldu eta sentsibilizatzeko tresna gisa.
15. Bereizkeriaren, prebentzioaren eta tratu berdinen bermearen, bereizkeriako egoera jakinen aurrean erantzuteko sistemen arloan jarduteko prozedura eta baliabideak diseinatu eta ezarri.

4.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

4.1. Ijitoek, gutxiengo kulturaltzat jotakoek, jazarpena, gaitzespena, marjinazioa eta bazterkeria jasan duten mendeetan. Pertsona horiei egindako kalteen ondorioz, egun **argi eta garbi gizarte desabantaila** egoeran kokatzen ditu. Ikuspegi hori ezin da alde batera utzi politika publikoen trazaduran.

Ijitoen gizarte, etxebizitza, osasun, hezkuntza, prestakuntza eta bizikidetzaren baketsuko premiei erantzuna emateko aipatu politikak nahikoak ez direla agerian jarri ostean, gure botere publikoek haien erabateko integrazioa eta eskubideen benetako baliatze eraginkorra bermatuko duten ekintza positiboko neurri horiei guztiei lehentasuna eman behar diete.

4.2. Ijitoei dagokienez, **eroldan izena emateko eskaerak** oraindik **arrazoirik gabe ukatzen direla** erregistratu dugu. Ezinbestekoa da egoera hauek gainditzea erolda egun nahitaezko baldintza bat delako gizarte, osasun eta hezkuntza babeserako sistema eskuratzeko, azken batean, gizarte eskubideak bermatzeko.

4.3. Egungo krisi ekonomiko larriaren ondotik pairatzen ari garen enpleguaren suntsipenak eta osasun- eta gizarte- arloko prestazioak eskuratu eta horien mailan eta kalitatean jazotako mugak bereziki eragiten diete gizarte desberdintasun eta desabantaila handiagoko egoeretan daudenei –adibidez, ijitoei–. Gauzak horrela, **diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema funtsezkoa da** pertsona horien **gizarte bazterkeriaren aurka borroka egiteko**.

Hori dela eta, Lanbideren kudeaketa hobetzea, araudian jasotako prozedurazko bermeak betetzea eta ijitoek pairatzen dituzten desberdintasunak, haien premiak eta berezitasunak kontuan hartzea nahitaezkoa da prestazioak eskura ditzaten eta laneratu daitezen.

4.4. Gure autonomia erkidegoko ibaien mugakide diren eremuak okupatzen dituzten pertsonen segurtasunerako

arrikuak murriztu eta saihestuko dituzten neurri orokorrak hartzeaz gain, gizarteratzeko prozesuen ekimenak babestu, sakondu eta arintzeko premia gailendu behar dugu –adibidez, **Gipuzkoan ijitoen asentamenduen** inguruan abian jarritakoak–. Pertsona horien gizarte eskubideak behar bezala bermatzeko xedea duten jardunbide onak dira. Halaber, konpromisoak gain hartuta, ekimen horiek behar bezala auzotarren bizikidetzarako bidea ematen dute. Horretarako, gure herri-administrazioen asmo irmoa behar da.

4.5. Ijitoen berezitasunak eta premiak kontuan hartuko dituen plangintza estrategikoaren tresnak egitea ezinbesteko baliabide bat da ijitoen gizarteratzea, laneratzea eta hezkuntza integrazioa sustatzeko. Plan horiek izan baditugu baina horien egikaritzea bermatuko duen apustu irmoa behar da. Horretarako, gure iritziz, nahitaezkoa da aipatu planetan, argi eta garbi, proiektatutako programak, burutzapen epeak, aurrekontuen zenbatekoa eta dagokion erakunde arteko konpromisoen onespina, metodologia egokia eta erabiliko diren ebaluazio adierazleak gaineratzea eta horiek beteko direla bermatzen duten formulak sustatzea.

Hala, beharrezkoa iruditzen zaigu **Ijitoen erabateko sustapenerako eta gizarte partaidetzarako II. Planean** proiektatu diren baina egikaritu ez diren neurri jarraitutasuna ematea, aurretik betearazpen mailaren gaineko ebaluazioa eginda.

4.6. Ijitoek pairatzen duten estigma erazterea bideratutako erakundeen lana ez da nahikoa, beraz, helburu hori duten erakundeen arteko programak eta jarduerak bultzatzea beharrezkoa da.

a t a l a

2019.

Etorkinak



Aurrekariak



Emigratioak **ahultasun-egoeran** jarri ohi ditu pertsonak, kultura-deserrotzearen ondorioz, enplegurik ez edukitzearen edo enplegu ezegonkorra edukitzearen ondorioz, administrazio-egoeraren ziurtasunik ezaren ondorioz eta euren jatorrizko komunitatetik kanpo sozializazio-bide eskas izatearen ondorioz. **Jarrera xenofoboek** azken faktore hori larritu egiten dute. Izan ere, gure gizartean gutxienena diren arren, ekonomia ez ezik erakundeak eta balioak ere ukitzen dituen krisi honetan azalera zuten ari dira. Inguruabar horietan, legeak etorkinei ematen dizkien eskubideak ez dira eraginkorrak izango **politika publiko integratzaileen** bitartez gainerako herritarren egoera berean egikaritzeko baldintza material eta sozialak sortu arte.

Horiei eusteko aurrekontuak murriztu egin dira krisia dela eta. Horregatik eta enplegua aurkitzeko zailtasunengatik, aztertu dugun urtean zehar **Euskal Autonomia Erkidegoan** 3.729 **atzeritar gutxiago egon dira**, hau da, **biztanle guztien** %6,9 izatetik **%6,8** izatera igaro dira. Horrela apurtu da, lehenengo aldiz, 1998tik geroztik erregistratu den goranzko joera.

Modu horretan, Euskadik estatuan atzeritarren ehuneko txikiena duten autonomia-erkidegoetako bat izaten jarraitzen du: estatuko batez bestekoa %11,70 da; Valentziako Erkidegokoa, %17,21; Madrilgoa, %16,45; eta Kataluniakoa, berriz, %15,73.

Immigrazioaren Euskal Behatokiak aztertu dugun aldia bukatzerakoan argitaratutako (behin-behineko) datuekin bat eginez, taldea **148.165 pertsonak** osatzen zuten, horien %51 gizonak ziren eta %49, ostera, emakumeak. Erdia Bizkaian zegoen; %30, Gipuzkoan; eta %20, Araban. Nazionalitate ugariena Marokokoa da (%12,2); horren ostean, Errumaniakoa dator (%11,7), emakume etorkinen artean gehienena dena.

Aipatu ditugun politika asko euskal administrazioen eskumenekoak dira. Atzeritarren Espainian sartzearekin, bizitzarekin eta lan egitearekin lotutakoak, aldiz, estatuko Administrazio Orokorraren eskumenekoak dira. Arrazoi horregatik, azken horien aurka jasotzen ditugun kekek Herriaren Defendatzailearen bulegora bidali behar dira. Hala ere,

ezin dira batzuk eta besteak bereizi, pertsonen eskubideen defentsa eraginkorra izateko pertsona bere osotasunean kontuan izan behar baita. Horregatik, Arartekoa, estatuko bere homologoarekin lankidetzan, bere esku dauden kudeaketa guztiak egiten saiatzen da, gure botere publikoek, Konstituzioaren aginduari jarraiki, euskal herritarren berdintasunerako eta askatasunerako baldintzak errealak eta eraginkorrak izatea susta dezaten, herritarren jatorria zein den aintzat hartu gabe.

1.

Arloa kopurutan

Etorkinak herri-administrazioekin gainerako herritarrak bezala harremanetan jartzen diren heinean, aurkezten dituzten kekek Arartekoaren jarduerako eremu guztiei eragiten diete. Arlo honek jaso dituenek, zehazki, atzeritar izateagatik sortutako ahultasun-egoerekin harreman zuzenagoa daukate.

2013an 17 izan dira guztira, eta modu honetan sailkatu dira:

– Herritarren eskubideak.....	7
– Atzeritarren erroldatzea.....	6
– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	4

Beste arlo batzuetan izapidetu ditugunen eta atzeritarren ere ukitu dutenen artean, **gizarte-prestazio ekonomikoak** ukatu, eten eta iraungi izanak eragindako kekek izan dira kuantitatiboki nabarmenak, zeren eta aurten ere jatorri atzeritarreko pertsonak ordezkari handiagoa izan baitute eremu horretan egiaztatu ditugun akats eta disfuntzioek eragindakoen artean (**ikusi gizarteratzeari buruzko atala**). **Justiziaren** arloan izapidetutako kekek ere azpimarratu behar ditugu, erregistro zibilek nazionalitatearen inguruan izandako jardunari dagokionez. **Segurtasunaren** arloan, **Ertzaintza eta udaltzaingoak** atzeritarrei emandako **tratuarekin** lotutako zenbait espediente izapidetu ditugu, eta **Osasunaren** arloan, berriz, **osun-arretarako sarbidearekin** lotutakoak. Era berean, zenbait espediente **udal-erroldaren** kudeaketarekin lotutako kexen ondorioz ireki dira (**ikusi Herri-administrazioen araubide juridikoaren, ondasunen eta zerbitzuen arloa**), eta beste batzuk **alokairuko etxebizitzaren** parke publikoarekin lotutako kexengatik hasi dira (**ikusi Etxebizitzaren arloa**). Azkenik, **adingabe etorkinak** eta emantzipazio-prozesuan dauden gazteak ukitzen dituzten kekek eta jardunak **Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenean** kontsulta daitezke.

Jardunen edukia zehaztasun gehiagorekin ezagutzeko txostenaren atal horietara jo behar dela alde batera utzita, ondoren aurkeztuko ditugun kasuek aipatu ditugun eremu guztietan izan dugun esku-hartzearen lagin gisa balio izango dute.

2.

Kexarik aipagarrienak

2.1. Familia berrelkartu ezin izatea erroldako datuak eguneratuta ez egoteagatik, etxebizitza egokitzeari buruzko txostenen ondorioak izateko

Jasotako kexa: Gasteizko auzotar batek erakunde honetara jo zuen azaltzeko ezin zuela bere alabetako bat, adingabea, gainerako familiarekin berrelkartu; alaba aldi baterako haren etxebizitzan zegoen, baina ez zeukan bizileku-baimenik. Aukera hori baliatzea zegoen adingabeak hamazortzi urte bete arte, hau da, 2013ko abendura arte. Gazteak bide horren bitartez bizileku-baimena eskuratzeko eskatzen diren betekizun guztiak betetzen zituen, bat izan ezik: bere amarekin partekatuko lukeen etxebizitzak [Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko](#) Etxebizitza Zuzendaritzak egindako aldeko txostena jaso behar zuen. Txosten hori ukatu zioten etxebizitzaren baldintzak egokiak baziren ere bertan bizi ziren pertsonen kopurua gehiegizkoa zelako etxearen tamaina aintzat hartuta. Horren arrazoia zen aurreko errentariak oraindik bertan erroldatuta zeudela, etxea utzi zutenean jabearekin haserre zeudelako eta ez zutelako zegoen erroldako bajaren eskaera egin.

Arartekoaren esku-hartzea: Arartekoak udal-erroldara jo zuen jasota zeuden datuen eta errealtatearen arteko aldeak familia horri eragiten zion kaltea azaltzeko. Urtean zehar kexagilearen antzeko egoeran zeuden zenbait pertsonak mahai gainean jarri zuten arazo hori erakunde honen aurrean. Halaber, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera ere jo zuen, eta azaldutako xedearekin etxebizitzan bizi diren pertsonen kopuru erreala egiaztatzeko beste bide batzuk erabil zitzaizkien iradoki zion.

Emaitza: Udalak Errolda Unitateko buruak sinatu zuen txosten luze baten bitartez erantzun zuen. Bertan, azaltzen zen aurreko errentariei ofiziosz baja emateko prest zeudela, betiere legeak tartean dauden pertsona guztien eskubideak bermatze aldera xedatu dituen izapideak eta epeak errespetatuz.

Bestalde, aipatutako Eusko Jaurlaritzako sailak Etxebizitzako zuzendariaren idazki baten bidez erantzun zuen. Idazkia honela amaitu zen: *“Hori guztia kontuan izanik, eta adingabeak ukitzen dituzten kasuen gure lankidetzarik handiena eskaintzeko asmoz –guk ere uste dugu adingabeen interesak lehentasuna duela–, jarraibideak eman ditugu etxebizitzak ikuskatzeko zeregin horretan dihardutenek beraien irizpidearen arabera txostena eman dezaten, salbuespen gisa, errolda-ziurtagiri berria saihestuz, eta, beraien txostenaren oharretan horrela jaso dezaten. Horrez gain, geroago, nahikoa izango den epearen barruan, errolda-ziurtagiri berria jasota dagoenean, ikuskapen-bisita egingo da berriro ziurtagiri berria eskuratzeko, horrela espedientearen jasota egon dadin eta dagokion behin betiko konprobazioa egiteko”.*

Modu horretan, bai familia horrek bai antzeko egoera batean zeudenean euren egoera erregularizatu ahal izan zuten, eta

Arartekora jo zuten eskerrak emateko. Esker on hori Gasteizko Udal Erroldako langileei eta arduradunei helarazi genien, baita Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendaritzari ere.

2.2. Atzerapenak erregistro zibilean nazionalitate-espedienteak izapidetzean

Jasotako kexak: Urteko lehen sei hilabetean, erreklamazio ugari jaso genituen gure erkidegoko erregistro zibiletan Espainiako nazionalitatea lortzeko espedienteak izapidetzean pilotutako atzerapenarengatik. Kexagileek salatu zuten emakida arrazoizkoa litzatekeena baino gehiago atzeratu zela, lortu arren dokumentaziorik gabe zeudela eta, ondorioz, euren eskubideak erabili ezin zituztela.

Arartekoaren esku-hartzea: Erakunde honek egiaztatu zuen arrazoi horrengatik kexak aurkeztu zituzten pertsonak gure erregistro zibil guztietan neurri handiagoan edo txikiagoan gertatzen ari zen egoera batek eragindako pertsonen zati txiki bat baino ez zirela. Kausa zen Justizia Ministerioak, gai horretan pilotatzen zuen hiru urteko atzerapena arintzeko asmoz, 2012ko azaroan jabetza-erregistratzaileei agindu zela Espainiako nazionalitatea eskatzen zutenek legeak hori lortzeko ezarri dituen betekizunak betetzen ote zituzten egiazta zezatela.

Egia da horrek ebatzi gabe zeuden espedienteen pilaketa arintzen lagundu zuela. Dena den, orduetik aurrera, eta zegozkien ebazpenak ministerioaren web-orrian argitaratu eta gero, izapidetzeak hasi ziren erregistro zibiletan jarraitu behar zuten. Horiek ez zeukatenez bat-bateko lan-karga hori behar bezala hartzeko bitartekorik, lehendik ministerioan zegoen atzerapena pilotatzen amaitu zuten. Atzerapena arintzeko bi motatako arazoei aurre egin behar zitzaizkien, eta Arartekoak bietan esku hartu zuen:

- Hasiera batean, erregistro zibilek espedienteak jaso ere ezin zituztela egiaztatu genuen, zeren eta horretarako haien aplikazio informatikoen jabetza-erregistratzaileekin bateragarriak izan behar zutelako, eta dirudienez hori ez zelako gertatzen. Argi dago ezin zitzaizkela disfunczio horren erantzukizuna euskal administrazioari leporatu, funtzio horiek eragile berri bati esleitzea ekarri zuen aurreikuspen faltari baizik, aldeaz aurretik bertako tresna informatikoen eta legearen babesean haien lankide diren auzitegiaren arteko bateragarritasuna bermatu ez baitzuen. Nolanahi ere, [Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioa eta Justizia Sailaren](#) eginkizuna da bitartekoez hornitzea, eta horrengatik haren lankidetzak eskatu genuen. Aipatutako sailak haren Justizia Administrazioako Zuzendaritzako langileek hiru hiriburu-tako erregistro zibiletan egindako kudeaketan berri emanez erantzun zuen. Kudeaketan ondorioz, arazoa abuztuaren erdialdetik aurrera konponduta geratu zen.
- Hala ere, Konstituzioarekiko fideltasunaren zina notarioaren aurrean egiteak dakarren espedientearekin lotutako arazoei irauten zuten, zinetako atzerapenengatik, akordiorik gabeko herrialdeetan nazionalitateari uko egiteko egoeretako protokoloak aplikatzean egondako akatsengatik eta laguntza teknikoko arloko hutsengatik. Horri gehitu behar zitzaion gure erregistro zibiletako bitarteko

materialak eta langileak, haien idazkaritzek urtearen erdialdean arazo horren inguruan berriaz egin zituzten txostenetan adierazi zuten moduan, ez zirela nahikoak arlo horretan etorri zitzaizen lan-pilaketa hartzeko. Txosten horietako batzuek zerbitzua arrazoi horrengatik kolapsatzeko arriskua zegoela aipatu zuten.

Arazoan parte hartu ez bazuen ere, euskal administrazioak haren konponketan parte hartu behar zuela uste genuen, eskumenen bidez justiziak bere funtzioak garatzeko behar dituen bitarteko materialez hornitzea dagokion heinean. Horrenbestez, tartean zeuden gainerako erakundeekin –erregistro zibilak, Erregistroen eta Notaritzaren Zuzendaritza Nagusia, Justizia Ministerioko bestelako organoak, jabetza-erregistratzaileak...– koordinatuta jardun zezala eskatu genion, egoera azkartasunez eta eraginkortasunez konpontze aldera.

Emaitza: Aplikazio informatikoen bateraezintasuna azkenean konpondu zela alde batera utzita, ondorioztatu genuen gure erregistro zibilen esku dauden bitartekoak indartzeko koiunturazko neurriak ezarri behar zirela, aipatu ditugun lan-gainkargako ezohiko inguruabarrek irauten zuten bitartean. Zentzu horretan, [Arartekoaren 2014ko urtarrilaren 2ko ebazpena](#) egin dugu. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailari gomendatu zaio euskal erregistro zibilek nazionalitatearen emakidaren alorrean koiunturaz jasaten ari diren lan-gainkargari aurre egiteko baliabide nahikoak edukitzeko behar diren neurriak har ditzan.

3.

Araudi eta gizarte-testuingurua

3.1. Aztertu dugun urtean, Arartekoak bere jardueraren arlo horretan izandako esku-hartzea **EAEko migrazio-dinamikako inflexio-puntu** batekin bat egin du. Izan ere, etorkinen biztanleria, sarreran aipatu ditugun estatistika-iturrien arabera, jaitsi egin da lehen aldiz 1998tik geroztik, zenbaki absolutuetan ez ezik biztanle guztien ehunekoari dagokionez ere.

Ekonomia-krisiak enpleguan eta gizarteratzeko politiketan dauzkan **ondorioak** erabakigarriak izan dira zentzu horretan; badirudi aurreikus daitekeela atzerritarren biztanleria egonkortuko dela edo pixka bat jaitsiko dela, eta Latinoamerikako taldea behera eginez joango dela Afrikako eta Asiako taldeari dagokionez.

Hori guztia aintzat hartu behar da arlo horretako politika publikoak ebaluatu eta birformulatzerakoan. Ondorioen atalean helduko diogu kontu horri.

3.2. [2013ko urtarrilaren 31ko 17/2013 Epaia](#)ren bitartez, Konstituzio Auzitegiak Eusko Legebiltzarreko abokatuak jarritako **konstituzio kontraktotasun-errekurtsoa** ebatzi zuen. Errekurtsoak, besteak beste, azaroaren 20ko 14/2003 Lege

Organikoak –atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duenak– 58.6., 62. quinquies eta 66. artikuluetan eta 3., 4. eta 5. xedapen gehigarrietan ematen dituen manuen kontra egin du. Era berean, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen legearen 16.3. artikulua eta xedapen gehigarri berrietako zazpigarrenaren aurka dago.

Horren bidez, KAK, Eusko Legebiltzarreko abokatuak adierazitako irizpidearen aurka, atzerritarren eskubideetan eragin zuzena daukan erregulazio bat balioztatu zuen, bi **ñabardurarekin**:

- Alde batetik, baliorik gabe utzi du 4/2000 Lege Organikoaren 58. artikuluan 6. ataleko tartekia. Horrek xedatzen zuten paragrafo beraren b) idatz-zatia aplikatuta erabakitako itzularazte orok ekarriko zuela Espainiako lurralderako sarrera debekatzea gehienez hiru urteko epean. Auzitegi Gorenaren ustez, hori administrazio-zigor orok **EKren 24. artikuluan islatutako funtsezko printzipioak errespetatzen dituen prozedura** baten bidez ezarri behar dela dion Konstituzioaren eskakizunaren aurka dago.
- Bestetik, toki-araubidearen oinarri buruzko legearen zazpigarren xedapen gehigarria, erroldako datuak eskuratzeari buruzko 14/2003 Lege Organikoaren 3.5. artikulua sartu zuena, aplikatzean nolana ere errespetatu behar diren berme batzuk aipatu ditu. Xedapenak udal-erroldetan dauden **atzerritarren erroldako inskripzioko datuak eskuratzeko gaitzen du polizia**, gehienbat bide telematikoen bidez. Datu jakin hori **sarbidea justifikatu duen xedearekin lotuta egokia eta beharrezkoa** denean soilik eskuratu ahal izango da, eta bermatuta egongo da kasu zehatz bakoitzean sarbideak legeak ezarritakoaren babesa ote daukan aztertzeko aukera; izan ere, horrela ez bada, ezin izango da erabili.

3.3. Ekonomia-krisia dela-eta ezarritako murrizketen ondorio negatiboen artean, atzerritarrentzat nabarmenenak **osasan-laguntzaren izaera unibertuala** mugatu dutenak dira. [Apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuan](#) agertu dira arau gisa. Euskadik bere ildoari jarraitu dio, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko [ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuak](#) adierazitakoari. Horren arabera, prestazio horretarako sarbidea ez dago pertsonaren egoera administratiboaren menpe. Legebiltzarrentzako gure azken txostenak oso era positiboan baloratu zuen alderdi hori, atzerritarren bizitzarako eta osotasunerako eskubidea eta haien duintasuna bermatzeari eragin ziolako. Estatuak jarritako eskumen-gatazka positiboaren ondorioz, araudi horren indarra kautelaz eten zen.

Arlo honetako arauen testuingurua, urtearen hasieratik, [Konstituzio Auzitegiko 2012ko abenduaren 13ko autoak](#) eman zituen itxaropenen bidez osatu zen. Izan ere, auto horrek laguntza publikoa eskuratzeko eskubidearen eremu subjektiboa zabaltzearen inguruko artikulua jakin batzuk aipatutako etenalditik salbuetsi zituen. Erabakia bera alde batera utzita, gure ustez, bereziki interesgarriak dira Auzitegi Gorenak bertan adierazitako gogoetak, pertsonen

osasuna eta osotasun fisikoa **bereziki babestu beharreko konstituzio-ondasunak** izateari buruz Eusko Jaurilaritzak emandako argudioak bere egin baitzituen eta ekonomia-aurrezki bat lortzeko haien garrantzia indargabetu ezin zela ondorioztatu baitzuen. Erakunde honen aburuz, horri esker osasun publikoan asegurdunak edo onuradunak ez diren taldeen osasunerako sarbidea normaliza zitekeen, bereziki atzerritarrei zuzenean eragiten dien betekizun bat betetzen ez dutenean: Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerri errolatuta egotea, urtebetez gutxienez, etenik gabe, osasun-laguntza aitortzeko eskaera egiteko unean.

Horregatik, harrigarria izan zen betekizun hori **Osasun sail-buruaren 2013ko uztailaren 4ko aginduan** mantentzea. Agindu horrek Osasun Sistema Nazionalan aseguru edo onuradun ez diren pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-asistentzia aitortzeko prozedura ezartzen du, eta identifikazio-dokumentua eta hori emateko prozedura arautzen ditu.

Horrek guztiak eragin zuen erakunde honek **irailaren 24ko 8/2013 Gomendio Orokorra** ematea. Haren edukia zehaztasun gehiagorekin azaldu dugu Arartekoak **Osasunaren** arloan izan duen jarduerari eskainitako txosten honen atalean. Europako Kontseiluak berretsi du eta horren **Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak**, aztertu dugun aldia bukatzerakoan, **Europako Gizarte Gutuneko manu jakin batzuk Espainian betetzen diren mailari buruzko ondorioak, 2013. urteari dagozkionak**, argitaratu ditu, zehazki premia-egoeran dagoen pertsona orok laguntza egokia jasotzeko daukan eskubidearen inguruko 13.1. artikularekin lotuta.

Batzordeak Espainiari eskatu dio egoera irregularrean dauden atzerritarrak osasun-laguntzatik salbuesten dituen araudia alda dezan. Era berean, uste du “laguntza jasotzeko aukera izan baino lehen bizilekuaren betekizunek gehiegi irautea” bereizkeriazko tratua dela, nahiz eta kasu batzuetan bereizkeria *gizarte-laguntza behar duten atzerritarrei bizilekuaren estatusa automatikoki kentzearen* ondorioz gertatzen den.

Nolanahi ere, eta aipatutako ondorioekin bat eginez, Espainia ez da gutunaren puntu hori urratzen duen Kontseiluko herrialde bakarra; izan ere, Frantziak, Danimarkak, Austriak, Belgikak, Finlandiak, Lituaniak, Letoniak, Txekiak, Bulgariak eta Mazedoniak ere egiten dute, neurri desberdinetan.

Horrek arloan jasotako kexen izapidetzean izan duen isla alde batera utzita, azpimarra daiteke lankidetzari hori zenbait eremutan bereziki garrantzitsua izan dela:

- Askatasunik gabeko atzerritarrak kanporatzea.
- Arrazakeriarekin edo xenofobiarekin lotutako arrazoiengatik gehiegikeriak aisialdirako lokaletarako sarrera ukatzeko eskubidea erabiltzerakoan.
- Etorikinen egoera osasun-laguntzaren arloan.
- Etxerik gabeko pertsonak bizi diren instalazio eta eraikin abandonatuak utzaraztea.
- Immigrazioaren ahultasuna kalean prostituzioan aritzen diren emakumeentzako arrisku-faktore gisa, Bilbon bi emakume erailtzearen ondorioz.
- Enplegarritasun baxuko taldeak kontratatzearekin lotutako arazoak.
- Atzerritarrak barneratzeko zentroetan sartuta dauden pertsonen egoerak kontrol judizial eraginkorrik ez edukitzea. Kontu hori jadanik aipatu genuen iazko gure txosten orokorrean. Harrezkero, egoera, hobetu beharrean, okerrago egin zen, martxoan argitaratutako **txosten** osoak islatu zuen moduan. Horren ondorioz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Euskadiko kideari azaldu genion kontua. Hark arduraz lan egin zuen gurekin, eta kontseiluak horren inguruko neurriak har zitzaizkien lagundu zuen.

4.2. Gomendio orokorrak

Osasun-arretaren inguruan lehen aipatu denaz gain, aztertu dugun aldiaren Arartekoak etorkinen eskubideen defentsarekin lotutako bi gomendio orokor egin ditu:

Arartekoaren ekainaren 17ko 5/2013 Gomendio Orokorra, bakarrik dauden adingabe/gazte etorkinen arretarako bermei buruz.

Arartekoaren ekainaren 27ko 6/2013 Gomendio Orokorra; horren bidez, adierazi da berriz aztertu behar dela jendearentzat zabalik dauden establezimendu pribatuetan sarrera ukatzeko eskubidea baliatzeari eta diskriminazioa debekatzeari buruzko araudia, baita ere erreklamazioak izapidetzean erabiltzeko zigor-prozedurari eta berme-sistemari buruzko araudia eta horren aplikazioa.

4.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Arartekoaren lankidetzari gizarte zibil antolatuekin

Ohikoa denez, erakunde honek bere jardueraren esparru hau etorkinak gizarteratzea xede duten gizarte-ekimeneko erakundeekin etengabe harremanetan egonez garatu du.

5.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

5.1. Ikus daitekeenez, erakunde honek bi iturri baliatzen ditu arlo honetako politika publikoek erantzun behar dioten gizarte-errealitatea igartzeko eta azaltzeko: alde batetik, herritarrek aurkezten dizkioten kexak, eta, bestetik, landa-azterketen eta partekatutako gogoeten bidez **gizarte zibil antolatuak eta ikerketa akademikoak** egiten dioten ekarpena. Azken eremu horrek bereziki argia den eta erakunde honek

onesten duen azterketa bat eratu du, **dibertsitatearen kudeaketak ekartzen dituen erronkei** buruz, EAEko migrazio-dinamikako aldaketak ikusita, **Immigrazioaren Euskal Behatokiak** adierazi bezala.

- **Immigrazioa politikaren bigarren mailara igaro da:** Migrazio-fluxuak moteltzen ari direnez, gizarteak, politikariak eta komunikabideek migrazioen fenomeno hain garrantzitsua ez dela sumatzen ari dira. Hala ere, datuek erakutsi dute fenomenoak hain jarraitzen duela eta gero eta askotarikoagoa dela. Era mugatuan bada ere, batzuetan krisien ondorioei eta ongizate-estaturako sarbideari buruzko debatean *petxero* gisa erabiltzen da.
- **Kohesio sozioekonomikorako erronka gogorra:** Afrikako taldeak haztea erronka garrantzitsu bat da kohesio sozioekonomikoaren ikuspuntutik. AEI 2010en datuen arabera, talde magrebtarrak eta Sahara azpiko Afrikakoak enplegarritasun-arazo larriak eta langabezia-tasa izugarri altua (% 50etik gorakoa) dauzkate. EAEko lan-merkatuak ez dauka talde horientzako lan-sektore “erakargarririk”, eta horrek aipatutako bi taldeak gizarteratzeko erronka garrantzitsu bat dakar.
- **Dibertsitatearen igoera:** Afrikatik eta Asiatik datozen taldeen hazkundeak, mantenduz gero, EAEko kultura-, erlijio- eta hezkuntza-dibertsitatea igotzea ekarriko du, eta, beraz, dibertsitatea kudeatzeko ekintzak indartu beharko dira.
- **Harrera egitetik dibertsitatea kudeatzera:** Migrazio-dinamiketako aldaketek eta errealitate berri horiek kudeatzeko tresna berriak eskatzen dituzte. Migrazioen fenomeno sozialki, ekonomikoki eta kulturalki egituratu da gure lurraldean. Beraz, harrera egiteko politikek eboluzionatu behar dute, eta dibertsitatea kudeatu eta gizarte-kohesioa azpimarratzen duten politikak bihurtu behar dira.

5.2. Botere publikoek erronka horiei aurre egiteko erabiltzen dituzten politikek haien langileengan oraindik ikusten diren **aurreiritziak gainditzea** hartu behar dute barne, gutxienez badira ere. Adibidez, Sustapen Arloko arduradunak honako kasua azaldu zигun. Baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen eta laneratzen jarduten duen Bizkaiko elkarte ospetsu baten bidez, erabiltzaileetako batek etxeko lanak egiteko kontratu bat lortu zuen. Lan Ikuskaritza kontratazioa faltsutzat hartu zuen eta enplegatzailea zigortzea proposatu zuen. Erakunde kexagilearen ustez proposamena Zuzenbidean oinarrituta ez zegoela alde batera utzita (kontu hori zegokion espedientearen zehar argitu zen), formulatu zuen ikuskatzailearen arrazoibidea da garrantzitsua hemen interesatzen zaizkigun ondorioetarako. Izan ere, honakoa baieztatu zuen: *“egin beharreko lanak –etxea garbitzea– kontuan izanik, harriztekoa da aipatutako langilea kontratatzea, Marokoko nazionalitatea duelako eta kulturarekin lotutako arrazoiengatik ez delako espero izaten hain zuzen ere lan horiek egiteko gai izatea”*.

Osasun-arretaren esparruan, arazo horiek osasun-zentro jakin batzuetako administrazio-langileek **informazio nahikorik ez edukitzearekin** nahasten dira, bai EAEko arlo horretan dituen espezifikotasunekin lotuta, bai horrek OTI GSINen eta Diruzaintzaren aplikazioaz kudeatzean sortzen dituen

inkoherentziak ebazterakoan. Heine horretan, desiragarria litzateke Osakidetzak bermatzea langile horiek gai horri dagokionez une bakoitzean indarrean dauden jarraibideen berri daukatela eta zuzentasunez aplikatzen dituztela, eta herritarrek jarraibide horiek ezagutu eta erabil ditzaketela. Zentzu horretan, asiloa eskatzen duten pertsonak bereziki kezkatzen gaituzte, haien osasun-laguntzarako eskubidea bermatu behar delako.

5.3. Orobat osasun-arretaren eremuan eta **Gizarte Eskubideen Europako Batzordearen 2013ko ondorioen** argitalpenarekin bat eginez, hango presidentek baieztatu zuenez, Espainiako gaur egungo araudia “Gobernuak edo Parlamentuak aldatu behar du, autonomia-erkidegoek ez diote jaramonik egin behar, jurisdikzio-organismo nazionalak ez dute aplikatu behar eta Konstituzio Auzitegiak deuseztatu behar du”. Gaineratu zuen hori ez dela “asaldatze-egintza bat”, “Espainiak giza eskubideei buruz sinatutako nazioarteko konpromisoekiko erantzukizuna eta koherentzia ziurtatzeko egintza bat” baizik.

Horrek euskal administrazioak hartutako jarrera indartu du, alegia **ondorio horietarako atzerritarren administrazio-egoeraren arabera bereizketarik ez egitea**, eta oso era positiboan baloratu dugu, atzerritarren bizitzarako eta osotasunerako eskubideari eta haien duintasunari eragiten dielako. Era berean, ildo horretan bertan irizpideak nabarmentzeko adorea eman digu, eta, estaldura hori zuzenbide-estatu sozial batena dela bermatzeko, euskal botere publikoek **Arartekoaren irailaren 24ko 8/2013 Gomendio Orokorra** helarazi die.

5.4. **Atzerritarrak eraikin abandonatuetatik kanporatzeak** erakunde hau kezkatzen jarraitzen du; izan ere, egoera larriak daudelako aterpetzen dira bertan, bizitzeko toki hobirik ez baitaude. Kanporaketak pertsona horiek auzokoei mehatxu egin, eraso egin edo beldurra ematen dien jokabiderik izan ez dutenean ere gertatzen dira; halaber, osasun edo segurtasun publikoa arriskuan jartzen duen jokabiderik edo besteen eskubideak mehatxatzen dituen jokabide nabarmen kriminalik egon ez denean ere kanporatzen dituzte. Dena den, horrelako kasuetan baino ez daude Zuzenbidean justifikatuta kanporaketa horiek. **Erakunde honek ebazpen ugari egin ditu kontu horren inguruan.** Horien bitartez, azpimarratu behar ditugun irizpide batzuk adierazi dira, bereziki honakoak:

- Atzerritarrei bakarrik eragiten dieten eta arrazoi objektiboekin justifikatuta ez dauden polizia-eraso-hartzeek talde guztia estigmatizatzen dute eta ez dute bat egiten euskal herri-administrazioek eta erakundeek immigrazioari buruz eta bereizkeriaren aurka garatzen dituzten politikekin.
- Egoitzaren bortxaezintasunerako oinarritzko eskubidea betetzeko, utzarazteek baimen judiziala eduki behar dute.
- Etxebizitza egokia edukitzeko giza eskubideak eskatzen du pertsonen utzarazteak egoitza edo gizarte aukeraren bat behar dutela kontuan hartuta eta horiek eragiten duten giza kostua saihestuz egin daitezela.

- Utzaraztea baino lehen, aurreko bermeak eta jarraibideak, jardunaren gizarte-alderdia eta pertsonen oinarriko beharrak kontuan hartzen dituen plangintza bat egin behar harko litzateke, eta eragindakoei alde aurretik jakinarazi behar harko litzazieke.

5.5. Espetxearen arloa eta Espainian **sartzea edo kanporatzea** estatuaren eskumenekoak dira, eta beraz gai horren inguruan jasotzen ditugun keak Herriaren Defendatzaileari bidali behar dizkiogu. Bereziki, egoera erregularrean dauden pertsonen kanporaketek ari gara, ikusi dugunaren arabera [4/2000 Lege Organikoaren 57.2. artikuluan](#) oinarrituta kanporaketa administratiboa aplikatzen zaienean, euren titulartasuneko zen bizileku-baimena iraungiz eta Espainian errotuta zeudela kontuan hartu gabe.

Nolanahi ere, Legebiltzarrari horrelako egoerek sortzen dituzten kezka adierazi behar diogu, defentsa-erakunde batek defendatu behar dituen eskubide funtsezkoenei eragiten dietelako eta euskal erakundeek garatutako gizarteratze-prozesuak oztopatzen dituztelako. Horrela jakinarazi digute azken horiek, batez ere bi talderekin lotuta:

- Egoera bereziki ahulean dauden pertsonak:
 - Haurdun dauden emakumeak.
 - Kanporatuta izan eta gero jatorrizko herrialdean buruko osasuneko tratamenduekin, mendetasunak edo alkoholismoa gainditzeko programekin edo substantziarik gabeko mendetasunak (bereziki ludopatía) daudenean esku hartzeko programekin jarraitzeko bermerik ez daukaten pertsonak.
 - Aitortutako eta baloratutako ezgaitasunen bat daukaten pertsonak.
 - GIB/hiesa edo bestelako gaixotasun infekziosoak daukaten pertsonak, jatorrizko herrialdean tratamendu farmakologikorako sarbide normala edukitzeko bermea ziurtatuta ez dagoenean.
 - Jatorrizko herrialdean gizarte-arazoak daukaten pertsonak (LGTBI taldea, genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeak, jatorrizko herrialdean jazarpenaren biktimak izan direnak, e.a., zigortu dituztenean).
 - Hirurogeita hamar urte edo gehiago dituzten edo aitortutako mendetasun-arazoak dituzten atzerritarrak.
- Espainian **familia-lotura sendoak dituzten atzerritarrak** kanporatzea. Bereziki bikotekidea eta seme-alabak daukatenean eta familia- edo guraso-lotura hori gauzatzen dutenean.

5.6. Arartekoak nazionalitate-espeditentak izapide-tzean egondako arazoei etengabe eskaini die arreta aztertu dugun urte osoan zehar. Arazoaren jatorria Justizia Ministerioak gai horretan pilatzen zuen atzerapena arintzeko hartutako neurrien plangintza falta izan da; izan ere, atzerapen hori erregistro zibiletara eraman da, eta horiek arrazoi horrengatik heldu zaien lan-gainkargari aurre egiteko bitarteko

nahikorik ez daukatenez gaindituta egon dira. Eusko Jaurlaritzako Justizia **Sailaren lankidetzari** esker, gure kezagileek horren inguruan mahai gainean jarri dituzten arazoetako batzuk konpondu ahal izan dira, baina gure erregistro zibilen egoerak **errefortzuko neurri espezifikoak** eskatzen jarraitzen du; **erakunde honek gomendatu du** neurri horiek ezarzea, eta kontuaren jarraipen puntuala egingo du.

5.7. Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak egindako bi epaik, 2013ko urriaren 7koak eta 8koak, Saharatik datozen pertsonak aberrigabeak direla aitortu dute. Hortaz, iheslaritzat jo ahal izango dira, eta horri esker haien egoera argitu ahal izango da, Espainiako nazionalitatea eskuratzeko aurkeztutako eskaerekin lotuta estatuko Herriaren Defendatzaileak eskatu duenez (erakunde honek ofiziotik jardun bat irekita dauka kontu horren inguruan).

5.8. Aurten ere aipatu behar dugu sexu-esplotazioko helburua duen pertsonen salerosketaren biktimen arloan politika publikoak aldatu behar direla. Zentzu horretan, aurrerapen bat da Espainiak lehenengo aldiz biktima horietako bati eta haren alabari –bortxaketa baten ondorioa– asilo eman izana, modu horretan nazioarteko babesa eman baitie. Irizpide hori zabaldu behar da, zeren eta salerosketaren eta asiloari buruzko legeak aitortutako generoagatiko jazarpenaren artean lotura argia dagoen arren Espainiako agintariak sexu-esplotazioko mafien biktimak diren emakumeen asilo-eskaerak ukatzen jarraitzen dutelako. Badirudi fenomeno horri heltzeko ikuspuntuak kriminalen sarean aurkako borrokan poliziaren eraginkortasunari lehentasuna eman nahi diola, biktimen ahultasunaren gainetik eta haien babes-premia berezien gainetik. **Iheslarietako laguntzeko Espainiako Batzordeak** praktika hori aldatzeko eskatu du aurten ere.

5.9. Nabarmendu behar dugu garrantzitsua dela poliziak ikerketa sakonak egitea publikoarentzat irekita dagoen establezimendu pribatu baterako sarbidea bereizkeriarekin lotutako arrazoiengatik ukatu izanari buruzko salaketa bat dagoenean. Jokabide horrek Arartekoaren zenbait esku-hartze eragin ditu eta Arartekoak, goian aipatutako gomendio orokorraz gain, horri buruz **2013ko azaroaren 7ko ebazpena** eman du. Izan ere, pertsona orok duintasunerako eta berdintasunerako daukan eskubideari eragiten dio, baita bereizkeriarik edo tratu laido garri edo iraingarririk ez jasotzeko eskubideari ere. Jardun horiek arau-hauste administratibo bat edo delitu bat izan daitezke, eta horren ondorioz egiten diren polizia-jardunek horien garrantziaren arabera arreta eman behar diete eta aintzat hartu behar dituzte. Zentzu horretan, tokiko eta autonomiako poliziek jarduteko protokoloak ezarri behar harko litzazieke, publikoarentzat irekita dauden establezimendu pribatuarentzako sarrera galarazi dietela salatzen duten pertsonen erreklamazioen aurrean jarduteko modua xedatzeke, baita gertakarien berri edukitzeko eta ikertzeko ere, egilea zigorrik gabe gera ez dadin.

a t a l a

2010.

Lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta transexualak



Aurrekariak



Arartekoak arlo honetan egiten duen lanak Konstituzioaren 14. artikuluan du oinarria; izan ere, pertsona guztiak berdinak direla dioen printzipioa ezarri du eta bereizkeria debekatu du. Halaber, LGBT pertsonen eskubide berdintasuna aldarrikatzeko duten nazioarteko beste tresna batzuetan ere oinarritzen da. Ezin da inolako bereizkeriarik egin sexu-orientazioa edo genero-identitatea aintzat hartuta, eta euskal botere publikoak behartuta daude pertsona guztien berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izatea eragozten duten oztopoak kentzera. Arlo horretan, gure lanaren xedea hau da: lesbiana, gay, bisexual eta transexualek herritarren eskubide guztiak osotasunean gauzatzeko duten aukera babestea, berdintasunaren ikuspuntutik eta sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik inolako bazterkeriarik pairatu gabe. Zentzu horretan, euskal herri-administrazioen artean beharrezkoak diren neurrien eta jardueren garapena sustatu nahi dugu, eskubide horiek berdintasun baldintzetan gauzatu daitezten. Auzi horri lotutako gure jarduketara guztien xedea hiru helburu hauen bitartez laburbiltzen da:

- Euskal herri-administrazioek euren jarduera guztietan berdintasuna erabat errespetatu dezaten eta sexu-joeraren eta genero-identitatearen ondoriozko bereizkeriarik egin ez dezaten lortzea, eskubide horien gauzatzea erreal eta eraginkorra izan dadila beharrezkoak diren neurriak abian jarri.
- Euskal gizartean bazterkeriarik ezan eta aniztasun afektibo-sexualari eta genero-aniztasunari lotutako eskubideen errespetuan oinarritutako kultura zabaltzea.
- Homofobia edo transfobiaren aurka borrokatzea (edozein formatan agertzen bada ere), Euskadin LGBT pertsonen egoeraren gaineko ezagutza eta sentsibilizazioa zabaltzea.

Gai horrekin zerikusia daukaten kexak izapidetzeaz gain, hainbat jarduera egin ditugu euskal administrazioek talde horren eskubideak erabat integartzeari dagokionez hobeto funtziona dezaten bultzatu eta sustatzeko.

1.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

Talde horri eragiten dion esparru juridikoa aldatu egin da azken urteetan, pertsona horien eskubide zibilak erabat parekatzeko asmoz, bai sexu bereko pertsonak ezkontzeko aukerari dagokionez, bai transexualen edo transgeneroen genero-identitatea sentitzen duten sexura legez egokitzeko ahalmenari dagokionez. Hala, lehen-lehenik, izatezko bikoteak arautzen dituen [maiatzaren 7ko 2/2003 Legea](#) egin zen Euskal Autonomia Erkidegoan; ondoren, ezkontzeko eskubidearen arloan Kode Zibila aldarazteko [uztailaren 1eko 13/2005 Legearen](#) bitartez [Kode Zibila](#) aldatu zen eta, azkenik, [martxoaren 15eko 3/2007 Legea](#), pertsonen sexuari buruzko erregistro-aipamenaren zuzenketa arautzen duena, etorri zen; beraz, arau-multzoko hori da LGBTen taldearentzako eskubideen eredu berria ezartzeko lege-oinarria. Orain dela gutxi, [Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkuraren 2012ko azaroaren 6ko 198/2012 Epaiak](#) behin betiko ziurtatu du [uztailaren 1eko 13/2005 Legea](#). Horren bidez, Kode Zibila aldatu zen ezkontzeko eskubidearen eremuan; izan ere, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren legezko araudia konstituzionalizat jo zen. Horrela, Espainiako zuzenbidean konstituzioan ezarritako sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen erabateko legezkotasuna finkatu zen eta aipatutako legearen aurka egin zenetik mahai gainean jarraitzen zuen eztabaida erabaki zen.

Euskal Herriaren eremuan genero-identitateari lotutako arrazoiengatik ez baztertzeko eta transexualen eskubideak aitortzeko [ekainaren 28ko 14/2012 Legearen](#) garapena oraindik burutzeko dago. Bertan, euskal erakunde publikoek talde horri eman diezaizoketen arretari buruzko alderdi garrantzitsuenak jorratu dira.

2013ko maiatzaren 17ari lotutako (Homofobiaren eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna) [Eusko Legebiltzarren Adierazpen Institutuzionalaren](#) edukia ere azpimarratzekoa da. Bertan, ganbera legegileak LGBT taldeen eskaeren arloan eta eskubideen legezko parekatzeari dagokionez egon diren aurrerapausoak aitortzen badira ere, gogora ekarri da oraindik ere indarkeria egoerak gertatzen direla sexu-joera edo genero-identitatearen ondorioz eta eskolak horren berri dauka. Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eta hezkuntza komunitateei dei egin die generoaren eta aniztasun sexualaren ikuspegia gaineratu dezaten ikastetxeen plangintza tresnetan. Baita irakasleei eta familiei ere, gai horri lotuta prestakuntza jaso dezaten eta ikasleei eskatu die jarrera kritikoa edukitzeko edozein homofobia edo transfobia motaren aurrean.

Botere legegilearen eskaera horren harira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 2013. urtean [hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarke-riaren prebentzioa lantzeko Gida Plana](#) onartu zuen. Plan horren helburua transformazio-prozesua sustatzea da, eskola mistoko eredutik hezkidetzan oinarritutako eskolaren

eredurantz aurrera egiteko, sexuaren araberako estereotipoak eta rolak alde batera utzita pertsonen garapen integrala bultzatzeko. Ekimen horren bitartez, gelan ikasleen artean berdintasunezko harremanak erdietsi, edonolako bereizkeria eta genero-indarkeria arbuia eta generoarekin lotutako joerarik gabeko orientazio akademiko eta profesionalari bidea eman nahi baitio, generoagatiko alborapenik edo sexu-joeraren ondoriozko bazterkeriarik gabe. Aurrerago aditzera emango dugun moduan, gure ustez, hori lan testuinguru egokia da eskolako esparruan hauren eta nerabeen aniztasun afektibo-sexuala erabat errespetatzeko tresnak ezartzeko aldera.

2.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

2013. urterako egin dugun jarduketa-planaren esparruan, arlo horretan nagusiki zer jarduketa egin ditugun azalduko dugu. Hain zuzen, agerian jarriko dugu zeintzuk izan diren Ararteko erakundearentzat arretagune nagusiak LGBT pertsonen eskubideen defentsaren arloan:

2.1. Bilerak elkarteekin

Euskadiko 28 J plataforma osatzen duten LGBT taldeekin egindako bilera, hezkuntzaren alorrean aniztasun afektibo-sexualerako eta genero-identitaterako eskubideei buruzkoa

Plataforma hori osatzen duten taldeekin bilerak egin ditugu euren eskaera jasotze aldera, hau da, adingabeak barne hartzen dituzten hezkuntza eremuan aniztasun afektibo-sexualerako eskubideen alde lan egiteko beharra. Eskaera hori LGBT harrotasunaren egunean (ekainaren 28an) helarazi nahi izan zieten estatuko defentsa bulego guztiei. Aipatutako plataformak aditzera eman zuen kezkatuta daudela euren ustez eskola-ingurunean sexu-joerari edo genero-identitateari dagokionez bestelako portaera erakusten duten haurrak askotan babesik gabe geratzen direlako. Talde horiei Europa mailako proiektu batean laguntzeko aukera eskaini diegu, zehazki, une honetan Ararteko erakunde horri lotuta lanean ari da eta aipatutako gaiarekin zerikusia dauka. Hezkuntza Sailak helburu hori erdiestea xede duen ildo politikoa gain hartu behar duela ondorioztatu da. Gai horri dagokionez gure esku-hartzea mahai gainean jarri genuen Rainbow Has Europa mailako proiektuaren bitartez. Horrek hezkuntza erakundeak, familiak zein irakasleak tartean sartzeko tresnen multzoa barne hartzen du, betiere, aniztasun afektibo-sexualerako eta genero-aniztasunerako eskubideen aldeko errespetuzko eskola lortze aldera.

2.2. Bilerak administrazio eta erakundeekin

2013. urtean zenbait bilera egin ditugu Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzaren eta Ararteko erakunde titularren eta zuzendariaren artean, baita Ararteko erakunde langile teknikoen eta aipatutako zuzendaritzaren artean ere. Urte guztian zehar, bilera horietan Eusko Jaurlaritzaren zein Ararteko erakundearen interesekoak diren gaiak jorratu dira eta, bereziki, honako hauek azpimarratu nahiko genituzke:

- Eusko Jaurlaritzaren lankidetzan aritzeko moduak hezkuntzaren eremuan LGBTen eskubideei buruzko Rainbow Has Europa mailako proiektuaren garapenari dagokionez, Ararteko erakundeak zuzentzen duena eta aurrerago aipatuko duguna. Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzak adierazi du laguntzeko presta dagoela eta aipatutako proiektuaren garapenaren alde egingo duela, horretarako, 2014. urtean modu aktiboan parte hartuko du.
- Guraso bakarreko familiei eta sexu bereko bikote eta ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzeari eta bi emakumez osatutako bikote batek laguntza bidezko ugalketa-tekniken bitartez seme-alaba bat duenean ama ez-biologikoaren legezko amatasunaren zehaztapenari buruzko [Arartekoaren abenduaren 23ko 4/2010 Gomen-dio Orokorraren](#) jarraipenaren gaineko jardueri lotutako kontuak.
- Genero-identitateari lotutako arrazoiengatiko bazterkeria deuseztatzeko eta transexualen eskubideak aitortzeko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen garapenari buruzko kontuak. Zuzendaritzak jakinarazi digu legearen eduki jakin batzuen garapenari lehentasuna eman dietela, funtsean, osasunaren arloarekin eta genero-unitatearekin zerikusia daukatenak. Horretarako, Osasun Sailarekin eta genero-unitatearekin harremanetan daude, eremu horren gaineko legezko xedapenen garapen hobea koordinatze aldera. Horrez gain, jakinarazi digute Estatuko Administrazio Orokorrak erabaki duela ez duela legearen kontrako errekurtsorik aurkeztuko dokumentazio iragankorraren kontuari lotuta, Erregistro Zibilean genero-identitatea legez aldatzeko prozedura amaitu ez dutenen kasuan, euskal eskumenen eremuan fitxategiak zuzentzeari eta administrazio erregistroei buruzko zuzenketaren gaineko xedapenak modu zorrotzean bete behar badira ere. Estatu mailako fitxategiak eta erregistroak, aldiz, estatuari dagozkio.
- Berdinu LGBTentzako arretarako zerbitzua berriro antolatzeko beharra, bereziki, adingabeentzako arretaren arloan. Modu berean, ildo horretan lanarekin aurrera egiteko beharra mahaigaineratu da, ikastetxeetan eta adingabeak tartean daudenean identitateari eta genero-rolari lotutako egoera eta jokabideen eremuan adingabeei, familiei eta irakasleei laguntzeko protokolo bat egite aldera. Halaber, Ararteko erakundeak jazarpen homofoboaren (edo joera afektibo-sexualetan dagoen aniztasunaren) ondoriozko zehaztasunak jazarpen egoeren aurrean jarduteko protokolo orokorrean gaineratzeko abian jarri zen lana baloratu du.

2.3. LGBTen eskubideak sustatzeko beste jarduerak batzuk

2.3.1. LGBT adingabeen eskubideen aldeko Europa mailako proiektuetan parte hartzea

Iaz aditzera eman genuen Ararteko erakundeak Europa mailako bi proiektutan parte hartu zuela, hezkuntzaren eremuan aniztasun afektibo-sexualerako eskubideei buruzkoak (Europako Batzordeko Justizia Zuzendaritza Nagusiak sustatu duen “Funtsezko eskubideak eta herritarrak” delako ekintza komunitarioko programaren testuinguruan finantzatuak): Rainbow (2011-2012)² eta Rainbow Has (2013-2014) proiektuak³, azken proiektu horren burua Ararteko erakundea da. Horri lotuta, Europako 8 herrialdetako 13 erakunde koordinatzen ditu (proiektuaren Europako erreferentzia ofiziala: JUST/2012/FRAC/AG/2652).

2013. urtean zehar, lehenengo proiektuaren emaitzak zabaldu ahal izan ditugu (2012. urtean amaitu baitzen), aurrerago azalduko dugun moduan, zehazki, III.4.2. atalean, zabalkuntza jarduerak aipatzerakoan.

Modu berean, 2013. urtean Rainbow Has proiektuan xedatutako jardueren zati bat garatu dugu, proiektu hori 2014. urtearen amaieran bukatuko da. Zehatz-mehatz, hainbat herrialdetan egindako azterketak eta eremu-ikerketak bukatu ahal izan ditugu, hezkuntzaren eremuko estereotipo eta jokamolde trans-homofobikoei lotuta dauden mintzaldi, behar eta estrategien inguruan. Une honetan ikerketak hizpide izan dituen herrialdeetako testuinguru zenbait azterketa esku artean daukagu (Euskadikoak barne), baita eremu-ikerketen emaitzak herrialdeen arabera ere. Azken horietan, metodologia kualitatiboa erabili da, hau da, elkarrizketak eta eztabaida-taldeak familiekin, familiekin osatutako elkarteekin eta guraso bakarreko familien zein jazarpen homofobikoa edo

transfobikoa pairatu duten seme-alabak dituzten familien kasuen azterketa. Era berean, baterako agiri bat osatu da ikerketak barne hartzen dituen herrialde guztientzat. Emaitzak hemen aurkitu daitezke: (<http://goo.gl/1ZkeIC>). Euskal testuinguruaren kasuan, Euskadin burutu diren azterketaren eta eremu-ikerketaren [emaitzen laburpena](#) islatzen duen agiria bereziki interesgarria da.

Orain arte egin den lanaren ondorio nagusiak desberdinak dira herrialde bakoitzaren berezitasunen arabera baina, oro har, mahai gainean jarri dute “armairutik irteteko” prozesua beti dela zaila. Dena den, ematen du LGBTen eskubideak aitortzen dituzten legeriak dauzkaten herrialdeetan (lotura egonkor edo ezkontzeko eskubidearekin) prozesu hori errazagoa dela. Horrek esan nahi du ikerketaren emaitzek frogatu dutela legezko testuinguru garrantzitsua dela. LGBTekin eta sexualitatearekin zerikusia daukaten gaiak tabu izaten jarraitzen dute familiaren testuinguruan, beraz, ezinbestekoa da eskolak kontu horiek programa zehatzekin jorratzea, dagoeneko herrialde batzuetan abiarazi direnak bezalakoak. Zentzu horretan, jarduerak hobeen aukeraketa ari da egiten, proiektuan parte hartu duten herrialde guztietan zabaltzeko asmoz. Ikerketari dagokionez garrantzitsuak diren beste kontu batzuk hauek dira: erlijioaren eginkizuna, neskatuen arten homosexualitatearen ikusgarritasun txikiagoa edo eremu horretan adopzioaren garrantzia.

2014. urtean proiektuari lotuta denboraldi berri bat abian jarri zen. Horren helburua mintegiak antolatzea da, kontu horren inguruan kezkatuta dauden hezkuntzako aginpideekin eta gizarte sektoreekin, gai hori jorratuko duen agenda politikoa sortzeko beharrezkoan gainean eztabaidatzeko xedearekin.

Era berean, irakasleekin, familien elkarteekin edo GEEKin prestakuntza eta sentsibilizazio tailerrak antolatuko dira eta dagoeneko existitzen diren elkarte egiturak oinarritzat hartuta Europa mailako sarea osatuko da, eragin-estrategiak ezartzeko helburuarekin, hezkuntza eremuan erantzukizuna daukaten eragileen (politikoa, hezkuntzako langileak, komunikabideak, etab.) kontzientziatzea azpimarratzeko agenda edo ibilbide-erria eratuz; betiere, haurren, nerabeen eta gazteen aniztasun afektibo-sexualerako eskubideen alde lan egiteko.

Proiektu horren garapena gizarte lotura sendoak ezartzean datza, herritarren eskubideen arloan aurrera egiteko xedearekin: elkarteekin, erakundeekin eta hezkuntzaren inguru formalekin arteko aliantzak, gehiengoaren interesak ordezkatzen dituzten elkarteekin (ikasleen familien edo gurasoen elkarteak) eta gutxiengoaren eskubideak defendatzen dituzten elkarteekin (guraso bakarreko familien elkarteak eta LGBTen eskubideen babeserako elkarteak) arteko aliantzak.

2013. urtean zehar bi topaketa egin ditugu proiektuko parte hartzaileen artean; lehenengoa otsailaren 21ean eta 22an izan zen Donostian eta bigarrena azaroan, Londresen.

2.3.2. Hainbat forotan, jardunalditan eta zabaltzeko beste jarduerak batzuetan parte hartzea

2013. urtean zehar, LGBTen eskubideekin zerikusia duten jarduerak edo jardunaldiak antolatuta dituzten hainbat forotan parte hartu dute bai arartekoak, bai arlo horretako arduradunek.

² Proiektua inspiratu duen kontzeptuaren ingeleseko sigla jasotzen dituen akronimoa da: Rights Against Intolerance: Building an Open-minded World (Intolerantziaren kontrako eskubideak: aurreiritzi gabeko mundu bat eraikitzen). Horren xedea haurren, nerabeen, gazteen eta irakasleen artean homofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatzeko testuak eta ikus-entzunezko materialak sortzea eta zabaltzea da, baita European homosexualen eta transexualen eskubideak erabat errespetatu eta aitortuko dituen kultura bat sustatzea ere.

³ Rainbow Has izena ondorengo ingeleseko sigla osatzen duten akronimoa da: Rights through Alliances: Innovating and Networking BOth Within Homes and Schools (Eskubideak elkartzaren bidez: Berrikuntzak egin eta sareak osatu etxean zein ikastetxean). Proiektu horrek alderdi hauen azterketa eta hobekuntza azpimarratu nahi ditu: haurren eta nerabeen eskubideen egoera hezkuntza eremuan, zentzu zabalean, hau da, hezkuntza erakundeak, irakasleak zein mota guztietako familien elkarteak barne hartuz. Xedea haurtzarotik aniztasun sexualerako hezkuntza irekia jasotzea da, sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen ondoriozko bazterkeria edo jazarpena (edozein formatan, hau da, jarra homofobo edo transfoboak) saihesteko eta horren aurka egiteko gai dena. Euskadiz gain, beste herrialde batzuetan ere proiektu horretan parte hartzen dute zenbait erakunderen bitartez (unibertsitateak, ikerketa soziologiko zein pedagogikoko lan-taldeak, udalak, haur hezkuntza sustatzeko elkarteak, LGBTen eskubideen aldeko elkarteak eta guraso bakarreko familien elkarteak), hala nola, Alemania, Belgika, Bulgaria, Holanda, Italia, Polonia eta Erresuma Batua.

Gure esku-hartze publikoen artean hiru euskal hiriburuetan antolatu ditugun aurkezpenak azpimarratu nahi ditugu –Bilbon, 2013.01.28an (Burtsa eraikina), Gasteizen, 2013.02.04an (Montehermoso), Donostian, 2013.02.11n (Koldo Mitxelena). Horien helburua **Rainbow lehen proiektuaren emaitzak jendaurrean ezagutaraztea, zabaltzea eta azaltzea** zen. Proiektuan Ararteko erakundeak eta Europako beste erakunde batzuek parte hartu dute: hezkuntza eremuan homofobia eta transfobiaren aurka lan egiteko tresna pedagogikoak 8 pelikula eta hezkuntza gida bat barne hartzen dituen DVD bat dauka. Tresna hori Euskadi osoko ikastetxe eta elkarteetara bidali dugu urtean zehar eta, jakin dugunaren arabera, hainbat ikastetxetan erabiltzen ari dira eta arrakastatsua ari da izaten.

Modu berean, proiektu horren emaitzak euskal irakasleei aurkeztu genizkien Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak antolatu zituen **VI. Bizikidetzaren Jardunaldietan (“Bizikidetzaren eta sexu- eta genero-aniztasuna” izenekoak)**, Bilbon egin zirenak 2013ko apirilaren 10ean eta 11n.

Horrez gain, honako parte hartze hau ere aipatu nahi dugu: Ararteko erakundeak, Haurren eta Nerabeen Bulegoaren bitartez, **“Eskola seguruaren aldeko talde egonkorra”** delakoan parte hartu zuen kide egonkor gisa. Talde hori osaera mistoa duen (soziala-instituzionala) lan egiteko foroa da, Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzak eta Berdinu zerbitzuak babestu dutena, eskolan haurren eta nerabeen aniztasun afektibo-sexualerako eskubideen errespetua eta sustapena bultzatzeko.

Amaitzeko, 2013ko maiatzean, **Madrilgo Carlos III unibertsitateak antolatu zuen jardunaldi batean** izandako parte-hartzea aipatu nahiko genuke. Horren xedea herritarren defentsarako bulegoek herritarren eskubideak sustatzeko dituzten aukeren inguruan eztabaidatzea zen. Jardunaldi horretan Ararteko erakundeak azken urteetan LGBTen eskubideen sustapenean izan duen esperientziari buruzko ikuspegia partekatu genuen, eremu horretan burutu dugun lana eta horrek LGBTen eskubideengan eduki duen eragina azalduz.

3.

Herritarren eskubideen egoeraren balorazioa

la ez dago euskal herri-administrazioei LGBT eskubideak urratu izana leporatzen dien kezarik. Horrek esan nahi du alor horretan berdintasun formala bermatuta dagoela gure sistema publiko ia osoan baina horrek ez du esan nahi gizarteari dagokionez ibilbide luzea geratzen ez denik, aniztasun afektibo-sexuala eta genero-aniztasuna arbuizaten dituzten jarrerak desagerrarazteko, nahiz eta askotan horiek oso modu leunean eta ezkutuan adierazi.

• Adingabeen aniztasun afektibo-sexualari buruzko eskubideak

Edonola ere, hori kontuan hartuta, pentsa dezakegu LGBTen eskubideen eremuaren aurrerapena herri-administrazioek sustatu behar dutela, **gure adingabeen hezkuntzan** bereziki azpimarratuz, hau da, **haurtzarotik berdin errespetua eta aniztasun afektibo-sexualerako eta genero-aniztasunerako eskubideen erabateko gauzatzea lortzera zuzendutako ekintzak** sustatuz.

Egiatzatu ahal izan dugu (Rainbow proiektuaren testuinguruan egindako ikerketen emaitza gisa, 2012. urtean legebiltzarrean aurkeztutako txostenean xehetasun handiagoekin aipatu genituenak) LGBT haurren eta nerabeei dagokienez, hezkuntzaren eremuan gabezia nabarmena dagoela aniztasun afektibo-sexualerako eta genero-aniztasunerako eskubideen erabateko errespetua integratzeko, azaleratzeko eta sustatzeko. Irakasleak prestatzeko eta sentsibilizatzeko plan edo programa nahikorik ez egotea, gai horiek ikasgelan modu sistematikoan eta antolatuan jorratu ez izana, sexu-joera eta genero-identitateari buruzko material zehatza modu antolatuan erabili ez izana edo egun dauden tresna didaktikoetan bizikidetzaren eredu berriak islatu ez izana horren adibide argiak dira. Halaber, aurreko ekitalditan jazarpen homofobikoa modu zehatzean jorratzen duten mekanismoen faltaren inguruan egindako gogoetak berresten ditugu, gero eta ikerketa gehiagok erakusten baitute eskolako jazarpenen barruan jazarpen mota hori eta haren ondorio larriak maiz gertatzen direla. Gainera, bereziki kontzientziatuak dauden irakasleek ez dute laguntza nahikoa jasotzen hezkuntza sistemaren eskutik, gai horiek behar bezala jorratu ahal izateko.

Dena den, esan dezakegu arlo horretan aurrerapauso aipagarriak ere eman direla: euskal administrazioak berriazko borondatea mahai gainean jarri du **hezkuntza sisteman ikuspegi hori gaineratze aldera eta, orain dela gutxi, 2013an Hezkuntza Sisteman Hezkidetzarako eta Genero Indarkeria Prebenitzeko Plan Estrategikoa onetsi du**. Plan hori hezkidetzaren kontzeptuaren ikuspegi zabaletik jorratu da. Horren bidez, pertsonen erabateko garapena lortu nahi da, jarrera estereotipatuak deuseztatuz eta generoan eta sexu-joeran oinarritutako aurreiritzien ondoriozko bazterkeria ororen kontra borrokatuz. Izan ere, kontuan hartu behar da DBHko ikasleen %23,6k baieztatu duela noizbait ikusi duela ikaskideren batek bazterkeria pairatu duela gay edo lesbiana dela ondorioztatu ondoren.

Aurrerapausoen testuinguru horretan, ezin dugu alde batera utzi **Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzaren funtsezko zeregina, izan ere, eskolako aniztasun afektibo-sexualaren gaia hezkuntza eragileen agendan gaineratu eta eztabaida sustatu duen organoa da**. **Eskola Seguruaren aldeko Talde Egonkorren** sorrerak (aipatutako zuzendaritzaren babesa eta Berdinu zerbitzuaren laguntza duena) zuzendaritza horren trebetasun eta borondate irmoa erakusten ditu, hezkuntzaren eremuan haurren eta nerabeen aniztasun afektibo-sexualaren erabateko integrazioa behar bezala jorratzeko aukera ematen duen funtsezko eta epe luzerako lanaren oinarriak ezarri baititu.

Bestalde, **Rainbow Has, aniztasun afektibo-sexuala errespetatzen duen hezkuntza lortzeko Europa mailako proiektuaren** garapenak (Europako 8 herrialdeetako erakundeek parte hartzen dute eta Ararteko erakundeak zuzentzen du) **euskal hezkuntza erakundeekin lanean aritzeko aukera eskaintzen digu, betiere, eskola haurrentzat toki segurua dela bermatzen duten tresnak ezartzeko asmoz**, euren sexu-joera edo genero-identitatea alde batera utzita, bertan pertsona bezala erabat garatzeko aukera eduki dezaten. Lan horren helburua da hezkuntza erakundeek, familiarek eta irakasleek loturak sortu eta baterako estrategiak bideratu ditzaten, ahaleginak bateratuz Euskadin honako hau bermatze aldera:

- Gazte-gaztetik errespetuan, berdintasunean eta askatasunean oinarritutako balioak irakastea, aniztasun afektibo-sexualaren aurkako aurreiritziak eta genero-rol zein identitateak zalantzan jartzen dituzten ideiak behin betiko gainditu ahal izateko.
- Sexu-joera edo genero-identitate ezberdinak dakartzan bazterkeria edo zailtasunak pairatzen dituzten edo jasan ditzaketen haur, nerabe eta gazteentzako laguntza eta konpainia, erabat gizarteratu daitezten.
- Haurren eta nerabeen segurtasuna eskolaren esparruan euren erabateko garapen pertsonal zoriotsua bermatzeko beharrezkoa den testuinguru gisa, aniztasuna konpantuan hartuta.

Baterako lan horren oinarrien zirriborroa egiten hasi zen 2013. urtean eta datozen urteetan garapenarekin aurrera egin beharko da –horixe da hain zuzen ere aipatutako Rainbow Has Europa mailako proiektuaren inplikazioaren helburuetako bat-. Horretarako, aipatu dugun Eusko Jaurlaritzaren Hezikidetzaren Plana testuinguru bikaina da.

• **Gay eta lesbianen eskubideak**

Bestalde, egiaztatu dugu **erakunde honek aurreko urteetan mahai gainean jarritako zenbait kontu jorratzeke daudela**, hala nola, **adineko gay eta lesbianeiei euren eskubideen gaineko informazioa emateko beharra** (bikotekidea hiltzen den unean babesgabatasuna saihesteko); administrazio guztietan **guraso bakarreko familiarek edo sexu bereko bikote edo ezkonduetako bikoteek gainditu behar dituzten oztopo formalak edo administratiboak deuseztatzeko beharra zabaltzea edo ama lesbianen egoera behin betiko argitzeko beharra**, **seme-alaben eta ama ez biologikoaren arteko seme-alabatasuna aitortzeari dagokionez**. Hori guztia, erregistro zibiletako praktikak bateratuz lortuko da, seme-alabatasun ez biologikoaren aitortzeari dagokionez, emakumez osatutako bikoteen kaltetan izan gabe eta bikote heterosexualei abantailarik eman gabe.

Zentzu horretan, euskal administrazioek ahalegin bat egin behar dute **administrazioen koordinazioa** hobetze aldera, **hala euren artekoa, nola Estatuko Administrazioarekiko koordinazioa**. Horrela, eragindako herritarrek ez dute modu bidegabean pairatu beharko legeriak berak barne hartzen ez dituen ondorio zitalak, legeak, kasu horietan berdintasuna aldarrikatu baitu.

• **Transexualen eskubideak**

Amaitzeko, aipatu behar dugu **genero-identitateagatiko bazterkeriaren aurkako eta transexualen eskubideak aitortzeko** ekainaren 28ko Eusko Legebiltzarraren 14/2012 Legearen aldarrikapenaren bidez abian jarritako ibilera oraindik ere garatu eta zenbait alderdiri dagokionez osatu behar dela. Transexualek jasotzen duten arreta hobetzeko eskatzen jarraitzen dute oraindik ere, **sexua aldatzeko osasun-eta lege-prozesuen ondorioz** talde horri **sortzen zaizkion arazoak** salatzen dituztenean.

Horregatik, **aipatutako legearen araudiko garapena** gauzatzea beharrezkoa da, **baita bertan aipatzen diren eremuetan dagokion zuzkidura ekonomikoa ematea ere**. Gauzak horrela, adierazi behar dugu arlo horretan erreferentziazkoa den osasun unitate bat dagoela eta haren kualifikazio eta ahalmena modu nabarmenean handitu dela sortu zenetik. Horregatik, ezinbesteko bilakatu da transexualen beharrak behar bezala asebetetzen direla ziurtatzeko. Iazko txostenean aipatu genuen bezala, **legezko xedapen horiek euskal osasun sistema osora zeharka eramateko** prozesua oraindik ere amaitzeke dago, batez ere, lehen mailako arreta, pediatria, endokrinologia eta buruko osasun zerbitzuetara. Modu horretan, osasun zerbitzu horietan erreferentziazko unitatearen ezagutza espezializatu eta planteamendu mediko eta psikologikoak integratuko dira eta euskal legerian aurreikusitako transexualen gaineko osasun gida osatuko da. Halaber, tartean dauden osasun arloko langileek gai horren inguruko **prestakuntza zehatza** jaso beharko dute.

Transexualentzako erabateko arretari buruzko euskal legearen garapenari dagokionez, **Euskadin transexualen izaera aitortzeko administrazio dokumentazioari buruzko legezko xedapenen** gauzatzea jorratu behar da –**disinuari eta gauzatzeari dagokionez**, zailtasun bereziak agerian jartzen badira ere, izan ere, eskumenen arloan dauden mugak kontuan hartu behar dira-. Horrez gain, euskal administrazioari **dagokion erregistroaren aldaketak burutzeko eta transexualei legez aitortutako identitate berriari erabat egokitzen diren agiriak emateko** egin beharra ezarri dioten legezko xedapenen gauzatzea ere jorratu beharko da.

a t a l a

COMP 11

**Adinekoak eta mendetasun-egoeran
dauden pertsonak**



Aurrekariak



Arartekoak **arreta berezia** eskaintzen die gero eta ugariagoa den 65 urtetik gorako pertsonen talde heterogeneoari. Talde horren %80 inguruk bizitza modu autonomoan gara dezakete (gehienak 80 urtetik beherakoak dira). Gaintzeko %20k eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza behar dute (gehienetan emakumeak eta 80 urtetik gorakoak izaten dira). Pertsona horien premiak batik bat beraien osasun-egoeraren (zentzu zabalean hartuta), menpekotasun-mailaren eta gaitasun ekonomikoaren arabera izaten dira. Familiarengandik zein gizartearengandik jasotzen duten laguntzak eta bizi diren inguruko ezaugarriek (irisgarritasuna, eta abar) eragin zuzena izango dute beren bizi-kalitatean.

Adinekoek gizarteari hainbat alorretan **egindako ekarpen** garrantzitsua, hala nola, ezagutza eta esperientziaren igorpena, trebakuntza, sormena, etab., baita senideak zaintzen eta laguntzen burutzen duten egiteko ukazina ere, adineko horien parte hartzea ahalbidetzen duten eta zahartzaroa ahalmenenez edo gaitasunez beteriko bizi etapa gisa agerian jartzen duten politika publikoen garapenean jaso behar dira; gizarte aldaketarako bidea eman duten eta adinekoei merezi duten gizarte esku-hartzerako eta solaserako protagonismoa eta gaitasuna ematen dieten politikak.

Eguneroko Bizitzarako Oinarrizko Jardueretarako (EBOJ) laguntza behar duten adineko pertsonen taldeak (gure zaharren arestian aipatu dugun %20a) **mendetasun-egoeran dauden pertsona** guztien %80 egiten du. Gainerako %20a ezgaitasunen bat duten pertsonak osatzen dute. Mendetasunari buruzko araudia izenaz ezagutu denak 2007an indarra hartu zuenetik modu monografikoan egin dugun analisiak justifikatzen du kapitulu honetan baterako azterketa bat egitea Arartekoak bi kolektibo horiek direla-eta egin dituen jarduketek buruz.

1.

Arloa kopurutan

2013an 46 kexa berri erregistratu dira adineko pertsonen arloan. Kexak izapidetzeko lana osatzeko, ekintza planari buruzko kapitulu honetako laugarren atalean azaldu ditugun jarduketak egin dira.

2.

Kexarik aipagarrienak

2.1. Iaz aipatu genuenez, kezkatuta gaude administrazioak **behin eta berriz jada esku artean dauzkan agiriak eskatzen dituelako**, norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasun egoera artatzeko zerbitzuak eta prestazioak eskatzeko prozeduretan. Izan ere, jokaera horren ondorioz, administrazioek administrazioaren eskuetan dauden agiriak ez aurkezteko duten eskubidea urra daiteke, prozeduran atzerapenak eragin daitezke eta hain ahula den talde horri bere eskubideak erabiltzeko asmoa ken liezaioke, gestio horiek egitea zaintzaileentzat neurritz gainera ahalegina izan daitekeelako.

Aurten ez dugu horri buruzko kexarik erregistratu. Positiboki baloratzen dugu gaia Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren zirriborroan sartu izatea, erakunde honetatik **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari** helarazi dizkiogun gogoetei kasu eginez.

2.2. Jasotako kexa batzuk aztertuta, ikusi dugu ezen, **Bizkaiko Foru Aldundiak** (BFA) mendetasunari buruz emandako balorazioen aurkako berraztertze errekurtsoen ebazpenak motibatze aldera, jo dela Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuen eta Lege Aholkularitza Zerbitzuak eginiko txosten batzuetara. Alabaina, txosten horiek ez dira erantsi, eta, horrenbestez, haien edukia ezagutzen ez duenez, **interesdunak ezin du bere defentsa behar bezala taxutu**. Egia da behin eskatuta, txosten horiek eskuratu egin dizkigutela edo interesdunari helarazi zaizkiola, baina haien ekarpena edo ebazpenaren edukirako dakarten erreferentzia askoz ere koherenteagoa izango litzateke Administrazioak bere ebazpenak behar bezala arrazoitzeko betebeharra betez gero. BFAren Gizarte Ekintza Sailak jakitera eman digu *“aztertzari delako txosten horiek eranstea aukera, jakinarazpenerako informatika-prozesua hobetzearen bitartez”*.

2.3. Arartekoaren 2013ko irailaren 27ko Ebazpena. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) **adinekoentzako egoitzetako ikuskaritza-zerbitzua-ren arreta falta** salatzeke zabaldu zen 106/2012/39 kexa-espeditentaren ondoriozko jarduera amaitutzat ematen da eta zerbitzu horri zenbait neurri hartzeko iradokitzen zaio. Hartan ondorioztatzen da, egoitza pribatu batean emandako **osasan-arreta eskasa** izan dela ondorioztatzeke behar beste elementu badagoela, eta ikuskaritza-zerbitzuek hori kontuan hartu beharko zutelako egoitzari gai horri buruz ohar-tarazteke eta behar ziren jarduketak abian jartzeko. Halaber, ikuskaritza-zerbitzuei iradokitzen zaie neurri batzuk hartu behar dituztela.

2.4. Nabarmen egin dute behera mendetasunaren balorazioan izandako atzerapenengatik aurkeztutako kexek. Ulertzen dugu horretan lagungarri gertatzen ari direla foru erakundeek *EAE n norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa* izeneko txosten bereziaren (hari buruz zerbaite aurreratu genuen 2012ko urteko txosteneko III.11 kapituluko 4.2.4. atalean) 11.6 gomendioaren ildotik hartu dituzten neurriak.

2.5. Zenbait kexa aurkeztu dira **Administrazioak erantzunik ez emateagatik**, zeinak guk esku hartu ondoren konpondu baitira. Nolanahi ere komeni da azpimarratzea prozedurazko tramite batzuk egotearen eta herritarrari erantzun efektiboa ematearen bermea Espainiako Konstituziotik bertatik heldu direla (103.1 eta 105. artikulua) eta herritarrek administrazio egokia izateko daukaten eskubidearen zati bat direla. Hain zuzen ere, eskubide hori Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikuluan jasota dago, eta Europarako Konstituzio bat ezartzen duen Itunaren bidez sartu zen.

2.6. Oraindik ere kexa batzuk erregistratu ditugu **ados ez egoteari buruz mendetasuna dela-eta Arabako Foru Aldundiak** (aurrerantzean, AFA) **egindako balorazioen emaitzarekin eta beheranzko azterketekin**.

Joan den urtean, horrelako emaitzek kasu batzuetan ekar-tzen dituzten ondorioak aipatzen genituen: familia ingurune-ko zainketarako prestazio ekonomikoa (aurrerantzean, FIZPE) ezin eskuratzea eta behar ez bezala jasotako prestazioen kontzeptuan hartutako zenbatekoak itzuli behar izatea.

Bigarren alderdiari dagokionez, adierazi behar dugu ezen AFAk, guk gomendatutakoari men eginez (2012ko urteko txosteneko III.11 kapituluko 2.9 atala), zenbait neurri hartu dituela, aurreko balorazioaren iraungipen datak mendetasunaren aitorten-ebazpen berriko balorazioarekin bat etor daitezkeen bideratuak, halako moduz non saihestuko baita behar ez bezalako kobratutako kopuruak sor daitezela. Horrek berarekin ekarri du urteko bigarren zatian horri buruzko kexarik ez izatea eta 2013ko lehenengo sei hilabeteetan nabarmen jaistea behar ez bezala sortutako kobrantzen kopuruak.

Erakunde honek gomendioa egin zuen esanez komenigarria litzatekeela kontuan izatea mailakatzeko berriaren ondorio negatiboak, ebazpenaren datatik aurrera, eta ez aurreko

balorazioaren balioa amaitzen zeneko datatik aurrera (behar ez bezala kobratutako zenbatekoak sortzen zueneko arrazoia). Bada gomendio horri jarraituz eta segurtasun juridikoaren printzipio konstituzionala osatze aldera, BFAk araudia aldatu du eta, hartara, *Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 23ko 24/2013 Foru Dekretuko* 13.4 artikulua *–dekretuak mendekotasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura arautzen du, baita ere, horrelako kasuetan, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura– ezartzen du mendekotasun graduaren berrikusketak (...) ondorioak eragingo dituela berrikusketa horri dagokion ebazpenaren datatik aurrera*. Dekretu hori 2013ko azaroaren 1etik dago indarrean.

Alabaina, foru erakundeak ez du bete behar ez bezala jasotako prestazioen itzulketa eskatzeko egintza administrati-boak ofizios berrikusi behar izateari buruz egin genion plan-teamendua.

FIZPEa eskuratzeko ezintasunari buruzko gaia, pertsona au-tonomoaren gradua edo aitortzea gutxitzen den kasuetan, eta, horrekin batera, zerbitzuarekin lotutako prestaziorako sarbidea, bai eta zerbitzurako beraroko sarbidea ere, galdu den kasu berriekin ekarzen dute ezen, behin eta ber-ritz, foru erakundeari helaraztea hori dela-eta daukagun kez-ka, eta gogoraraztea nolako pertzepzioa dagoen –sare pu-blikoko osasun-profesionalek adieraziaz, haietako batzuekin gure informazioa kontrastatzeko aukera baitugu– nekez uler daitezkeen graduazioei buruz, baloratutako pertsonen laguntza-beharrizan eta –ikuskaritza direla-eta . Erakundeak alegatu zuen, nolananahi ere, zuzen aplikatzen ari zela **mende-tasuna baloratzeko baremo berria** (otsailaren 18tik indarrean dagoen BVD agiria). Hala eta guztiz ere, aipatutako dekretu-ko lehenengo xedapen gehigarrian hartutako eta jasotako neurri batzuek egoera hori arin dezakete, kapitulu honetako 4.2.4 atalean azalduko dugun bezala.

Bestalde, berriz diogu ezen eskatzen duenari espediente osoaren kopia emateaz gainera, ukitutako pertsonak beren defentsa taxutzeko zailtasunak ikusita, komenigarritzat jo-tzen dugula ebazpenarekin batera balorazio-irizpena egotea.

Aurten, beste bi aldundiek ere egindako balorazioen emai-tzarekin ados ez egoteari buruzko kexak jasotzen hasi ginen. Bietan aipatzen zen arestian adierazitako baremo berriaren aplikazioa. Hartara, esate baterako, BFAk adierazten zigun ezen *“egia dela baremo berriaren aplikazioak aurrekoaz behe-rako graduak ematen dituela emaitza gisa, baina, beste biderik finkatzen ez den bitartean, horixe dela gizarte zerbitzuen arloko baliabide eta prestazio gehienak eskuratzeko sarrerako atea”*.

Kontuak, daukan garrantzia dela eta, eragin du Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gogoeta batzuk helaraztea, 4.3 atalean landuko dugun Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren zirriborroa lantzeko garaian.

2.7. Herritarrek eginiko kontsulta batzuek erakusten dute zein ulertzen gertatzen den **lurraldeen arteko desorekak egotea autonomia pertsonalaren eta mendetasun-egoeraren arretaren arloan**, hain zuzen ere *EAE n norbe- raren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa* izeneko txosten bereziaren

2. gomendioan aipatzen genuena. Gure ustez, Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren etorkizuneko onespena aukera bikaina izango da horrelako desoreken gainditzea araudian jasotzeko.

2.8. BFAk, erakunde honek planteatutakoa ikusita, zenbait neurri hartu ditu, zeinek beraiekin ekarri baitute **adineko pertsona bat egoitza batean sartu ahal izatea**, nahiz eta hasieran sarrera hori ukatzea proposatu zen, gure ustez berrinterpretatu beharrekoak ziren inguruabar ekonomiko batzuegatik.

3.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

3.1. Erkidegoaren esparruan, araudia dela-eta gertatu diren beritasun nagusiak 4.3 atalean, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen garapenari buruzkoan, jaso ditugu.

3.2. Ondoren nabarmenduko ditugu azken urte honetan **Estatu mailan** argitaratu diren arauak:

3.2.1. 2013ko apirilaren 23ko Ebazpena, mendetasun egoeren prebentziorako eta autonomia pertsonala sustatzeari buruzko planak egiteko irizpide, gomendio eta baldintzei buruzkoa; AMAESen informazio sistemaren oinarriko datuak, eta gizarte zerbitzuen erreferentziako katalogoa.

3.2.2. Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege-dekretua, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizartratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateratua onesten duena.

3.2.3. Abenduaren 17ko SSI/2371/2013 Agindua, Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Informazio Sistema (SISAAD) arautzen duena. Agindu hori, zeinak 2014ko urtarrilaren 1ean hartu baitu indarra, AMAESen informazio sistema berri bat arautzen du eta **aurreko araua** indargabetzen du, salbu eta izaera pertsonaleko datuei buruzko fitxategiari dagokionean; ezartzen du autonomia erkidegoek IMSERSORI hileroko alta, baja, aldatzea, berrikuspen eta leku-aldatzeen berri eman behar zaiola, aginduan erregulatzen den dokumentazio bidezko egiaztapenaren bitartez, eta, halaber, ziurtagiri bat emateko beharra ezartzen du, non islatuko baita Estatuko Aurrekontu Orokorreratik hura finantzatzeko heldu diren kredituen aplikazioa, bai eta autonomia erkidegoak xede horretarako egiten duen ekarpena ere.

3.2.4. Abenduaren 27ko 1050/2013 Errege-dekretua, zeinak arautzen baitu Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako gutxieneko babes-maila.

3.2.5. Abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretua, zeinak arautzen baititu AMAESen prestazioak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legean ezarritakoak.

3.3. Aurten Europar Batzordeak Euskadi **sartu** du, **zahartze aktiboa dela-eta egiten duen lan integralarengatik**.

3.4. Gipuzkoako Adineko Pertsonen Kontseiluak Adineko Pertsonen aldeko Manifestu bat onetsi du, non zenbait printzipio jasotzen baitira kolektibo horrekiko jarrera, kohesioa eta elkartasun soziala hobetzeko. Era berean, **Bizkaiko Adinekoen Kontseiluak** bere Manifestua argitaratu du.

3.5. Europar Batzordeak eta Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) **Bizimodu on bat zahartzaroon?** azterlana argitaratu dute. Horretan, besteak beste, adineko pertsonen arretari buruzko araudiaren segurtasuna eta eraginkortasuna bermatzera eta sistematikoki neurtzera bideratutako tresna batzuk garatzeko beharra aztertzen du.

4.

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak

4.1. Arartekoak EAE-ko haurren, nerabeen, gazteen eta helduen buruko osasunaren arretaren inguruan egindako hurbilketa: erronkak eta aukerak azterlanean emandako gomendioen jarraipena

Horren berri ematen dugu III.5 kapituluko 3.2 atalean, zeina **buruko gaixotasunen bat edo buruko nahasteak dituzten pertsonen arloari buruzkoa** baita.

4.2. EAEen norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa txosten bereziaren jarraipena

Arlo honi buruzko **analisi kuantitatibo fidagarria** egiteko garaian aurkitzen ditugun **zailtasunak**, zeinak jada aurreko urteetan ere aipatu baititugu, erakusten dute guztiz indarrean

(III). ARARTEKOAREN JARDUERAK ARRETA PUBLIKOA BEHAR DUTEN TALDEAK BABESTEKO

dagoela [lehenengo gomendia](#), informazio sistema integratu baten sorrera errazteko beharri buruzkoa.

Horrek berriz ere zehaztasunik ez edukitzera garamatza, eta ondorioz, kasu bakoitzean fidagarrien gerta daitezkeen datuak erabili behar ditugu edo, bestela, iturri bakoitzak ematen dien tratamendua kontuan hartuta gai honen inguruan gertatzen den bilakaerari buruzko ondorioak ateratzen lagunduko digutenak.


4.2.1. Foru aldundiek emandako datuei jarraituz, 2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko azaroaren 1era, EAEn guztira **men-detasun-egoera aitortzeko 221.823 eskabide aurkeztu dira**. Ondoren, datu horren banaketa erakusten dugu, lurraldeen arabera:


	Araba/ Álava	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Mendetasun-egoera aitortzeko eskabideak 2007-01-01etik 2013-11-01era	36.752	96.299	88.772	221.823

Iturria: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak.

2007-01-01etik 2013-11-01era mendetasun-egoeraren aitortpena eskatu duten pertsonak, hil ez direnak, 55.077 izan dira Gipuzkoan eta 23.497 Araban. Bizkaia aurten ez du datu hori. Horrek eragozten digu jakitea zenbat eskatzaile egon diren, guztira, adierazitako aldiari.

Honakoa da bizirik dauden eta baloratu diren pertsona horien graduazioa, 2013ko azaroaren 1ean:

Baloratutako pertsonak 2013-11-01ean	Gizonak	Emakumeak	Guztira
0. GRADUA**	1.907	3.093	5.000
I. GRADUA	1.429	1.996	3.425
II. GRADUA	1.490	2.294	3.784
III. GRADUA	915	1.845	2.760
GUZTIRA	5.741	9.228	14.969
			
0. GRADUA**	5.643	9.900	15.543
I. GRADUA	7.417	13.340	20.757
II. GRADUA	7.569	12.595	20.164
III. GRADUA	7.471	14.400	21.871
GUZTIRA	28.100	50.235	78.335

Baloratutako pertsonak 2013-11-01ean	Gizonak	Emakumeak	Guztira
			
0. GRADUA**	2.632	4.015	6.647
I. GRADUA	3.309	5.315	8.624
II. GRADUA	3.435	5.771	9.206
III. GRADUA	2.536	5.196	7.732
GUZTIRA	11.912	20.297	32.209

Iturria: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak.

(*) Aurten berriz gertatzen da Bizkaiko Aldundiak emandako datuak ez datozela bat eskatutakoarekin (baloratutako pertsonak); izan ere, graduen arabera balorazioei buruzko datuak dira. Horrek eragozten digu EAEn buruzko baterako azterketa egitea, ofizialki mendetasun-egoeran dauden pertsonen dagokionez; halaber, eragozten digu jakitea pertsona horiek euskal populazioaren guztikoan ehuneko zenbat diren eta lurraldeen arteko alderaketa egitea.

(**) 0 gradua autonomotzat jotako pertsonen dagokie.

Lurralde bakoitzeko populazioari dagokionez, Gipuzkoan mendetasun-egoera (I., II. eta III. gradua) aitortua duten pertsonen 1.000 biztanle bakoitzeko 36,25eko tasa erregistratu dugu. Tasa hori Araban 31,03koa da, lurralde horretan ehuneko hori berriz jaitsi baita aurreko urtekoarekin alderatuz gero.

Mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren sexuari dagokionez, EAE osoan, **emakumeen gehiengoa** erregistratzen jarraitzen dugu. Gipuzkoan %63,70 dira eta Araban, berriz, %61,54.

Arabian, baloratutako pertsonen %33,40 autonomo deklaratu dituzte. Gipuzkoan ehuneko hori askoz ere txikiagoa da (%20,63). Datu horrek azal lezake balorazioaren emaitzarekin ados ez egoteagatik kexa gehienak lurralde horretatik etortzea.

Mendetasuna duten herritarren graduazioari dagokionez, adierazi beharra daukagu Gipuzkoan %30,25ek mendetasun handia (III. gradua) duela, %36,01ek mendetasun larria (II. gradua) duela eta gainerako %33,74ak mendetasun arina (I. gradua) duela. Araban, honakoak dira ehunekoak, hurrenez hurren: %27,68, %37,96 eta %34,36. Aurreko urtearekin alderatuta, ikusten dugu **behera egin duela mendetasun handia dutenen proportzioak**, bereziki Araban.

Bi aldagaiak, graduazioa eta sexua, gurutzatuz gero, ondorioztatzen dugu, Arabako kasuan, **emakumeen** taldean mendetasun handia **-larritasun handieneko** egoera dutenen ehuneko sei puntu altuagoa dela gizonezkoen taldean baino; Gipuzkoako kasuan, berriz, lau puntu altuagoa da.

4.2.2. IMSERSOK eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Sailak emandako datuek aukera ematen digute 2011ren aldean erregistratu den bilakaerari buruzko ondorio batzuk ateratzeko.

	Araba/Alava	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE, GUZTIRA
Espedienteak	10.625	43.440	30.856	84.921
Irizpenak*	10.131	42.243	30.311	82.685
Prestaziorako eskubidea dute pertsonak	7.463	21.558	17.508	46.529
Prestazioak dauzkaten onuradunak	6.300	19.252	15.622	41.174
Esleitutako prestazioak	8.165	21.006	19.449	48.620
Prestazioen ratioa, onuradun bakoitzeko	1,29	1,09	1,24	1,18

Iturria: AMAESen Informazio Sistema (IMSERSO) eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

(* Administrazioaren pronuntziamentua, pertsona eskatzailearen mendetasunaren balorazioa dela eta, edo hura autonomotzat hartuz, edo daukan mendetasun-gradua eta maila zehaztuz.

Prestaziorako eskubidea izan eta jada prestazioren bat esleituta duten pertsonen ehunekoak nabarmen egin du hobera. Hartara, prestaziorako eskubidea izan eta arreta itxaroteko zain dauden pertsonak %11,51 dira 2013an (aurreko urtean, berriz, %15,47 ziren).

Gora egin du Bizkaian **1.000 biztanle bakoitzeko tramitatu diren espedienteen** kopuruak (2012an 32,65 izatetik 2013an 37,66 izatera), eta behera egin du, berriz, Gipuzkoan (2012an 46,61 izatetik 2013an 43,75 izatera) eta Araban (2012an 35,37 izatetik 2013an 33,07 izatera). Hori gorabehera, Gipuzkoako lurraldea da, populazioaren proportzioan, lan-bolumen handiena erregistratzen duena.

2013an hobera egin du **ebazpen-mailak** (espediente-kopuruan zenbat egiten duten emandako irizpenak); izan ere, 2012an hasitako espedienteetatik %95,93 ebatzi ziren eta 2013an, berriz, %97,37.

Aurreko urtearen aldean, **gora egin du prestazioak esleituta dauzkaten pertsona onuradunen 1.000 biztanle bakoitzeko tasak.**

EAE osoan, **pertsona onuradun bakoitzeko prestazioen ratioak**, zeina 2011n 1,15etik 1,19ra igo baitzen eta 2012an maila berean geratu baitzen (1,19), behera egin du pixka bat (1,18). Lurraldeen arabera, Gipuzkoak eta Arabak arinki egin dute hobera eta Bizkaia, berriz, behera egin du.

4.2.3. Prestazio motari eta haien banaketari dagokienez, bildutako datuek kontraesan batzuk badaukate. Soilik azpimarratuko dugu FIZPERen prebalentzia handiagoa erregistratzen jarraitzen dugula (prestazio guztien %49,99 da); egoitza-arretak (prestazioen %20,80) eta eguneko zentroetako arretak (% 11,02) ehuneko biaren inguruko igoera izan dutela 2012ko datuekin alderatuta, eta telelaguntzak prestazioen guztizkoan indarra galtzen jarraitzen duela. Gainerako balioetan (EAZ, PEVS-zerbitzuari loturiko prestazio

ekonomikoa eta PEAP-laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa) aipatzeko moduko aldaketarik ez dago.

4.2.4. Aurten, txosteneko gomendio batzuen betetze mailari buruzko azterketa egiten jarraitu dugu: [6](#), [7](#), [8](#), [11.1](#), [11.2](#), [11.3](#), [11.6](#) y [11.7](#) eta [11.13](#). Estatu mailan atzerapen nabarmena izan duten alderdiak dira. Honako ondorio nagusiak nabarmentzen ditugu:

Gipuzkoako Aldundiak, babes-maila gehigarriak ezartzeko daukan ahalmenaz baliatuta, 2013an bermatzen jarraitu du –eta 2014an ere hala egingo du– mendetasuna baloratzeko baremoko eskalan 40 puntura iristen diren pertsona guztiek sistemarako sarbidea izatea; eta ez du erabaki, ezta ere, 2012an estatu mailan zenbatekoetan proposatu zen jaitziera aplikatzea (hori guztia zazpigarren gomendia betez). Jakinarazi digu ezen, aurrekontu-zailtasunak gorabehera, gizarite-baliabideei eusten diela eta 2013an egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan 36 postu berri sortu dituela (seigarren gomendia). Aurreko urtean aurreratu zigutena gorabehera, azkenean ez du erabaki aintzat hartzea prestazio ekonomikoa arautzen dituen dekretua aldatzeko [urtarrilaren 22ko 2/2013 Foru Dekretuaren](#) onespeneren harira eman genion zortzigarren gomendia. 11.7 gomendioari jarraituz, ez du prestazio ekonomikoaren ordainketaren atzeraeragina indargabetu eta oraindik ere eskubidea aurkezteko dataren ondorengo lehen egunetik sortuko da prestazioa. Gainera, praktikan, 11.6 gomendioaren edukia betetzen du.

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi digu ezen, 11.6 gomendioari jarraituz, lanean ari dela administrazio-ebazpen bakarrean bateratzeko gaur egun dauden hiru ebazpenak; praktikan, balorazioa, BAParen onspena eta onuradunizaeraren aitortzea hiru hilabete baino gutxiagoko epean egiten dela adierazi digu. Aipatzen du 2013an 79 lanpostu berri sortu direla egoitza-zentroetan eta tutoretzapeko pisuetan, eta zaintzaileei laguntzeko programa berriak jarri dituela abian (seigarren gomendia). [Uztailaren 23ko 103/2013 Foru Dekretua](#) onetsi du. Haren bidez, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautzen da, eta pertsona onuradunen artean sartzen ditu mendetasuna baloratzeko baremoan 40 puntura iristen direnak ez ezik, gutxienez ere %33ko ezgaitasuna egiaztatzen dutenak (zazpigarren gomendia). Prestazio hori eta egoitza-zerbitzuak eta eguneko zentroko zerbitzuak bateragarri egiten ditu (zortzigarren gomendia). 2013an zehar, mendetasuna baloratzeko baremoan 40 puntura iristen direnei FIZPE jasotzea bermatu die. Aurreikusita dago 2014an horri eustea. I. graduan baloratutako pertsonak ere adineko pertsonentzako eta ezgaituentzako eguneko zentroetarako sarbidea badaukate. 2013an bezala, ez da erabaki 2012an estatu mailan proposatutako zenbatekoen gutxitzea (zazpigarren gomendia). Ez dio atzeraeragina aplikatzen inongo prestazioren eskaria aurkezteko momentuari, eta, horrenbestez, ez du 11.7 gomendia betetzen. Pertsona zaintzaileei emandako arretaren gaineko kontrolari dagokionez (11.13 gomendia), aurten BFAK II. graduko mendetasun-egoeran dauden pertsonak artatzen diren .568 etxeren jarraipena egin du. Aurkitu da kasuen %8an amore emateko arrisku larria zegoela, eta, horrenbestez, bestelako baliabide edo laguntzetara bideratu dira pertsona horiek. Kasu horietako bostetan, jo da presako kontua zela esku hartzea.

Arabako Foru Aldundiak, helarazi genizkion gogoetak ikusita (kapitulu honetako II.6 atala) eta mendetasuna baloratzeko baremoaren aplikazioak ekar lezakeen babesgabetasuneko agertokiaz jabetuta:

- Bere *Diputatuena Kontseiluaren uztailaren 23ko 24/2013 Foru Dekretu* berrian, ezartzen da, I. graduaren (40 puntutik gora), II. graduaren edo III. graduaren baloratuta egon eta, mendetasun-egoeraren azterketaren ondorio gisa I. graduko (40 puntutik beherako puntuazioarekin) aitortpena izatera pasatzen diren pertsonentzat, eutsi egingo zaiola gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubi-deari.
- Aurreikusten du aparteko izaeraz bai zerbitzu horiek, bai zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (ez, ordea, FIZPEa) jaso ahal izatea, baldin eta dekretu horretako I. tituluan araututako premia egoeretan egon eta haien eskuratzeko baldintzak betetzen ez badituzte. AFAk jakinarazi digu horrekin adimen-ezgarritasuna edo buru-gaixotasun kronikoa daukaten pertsonen sarbidea eman nahi diela, baldin eta, ezgarritasuna kalifikatuta eta mendetasuna baloratuta edukita, ezin badituzte eskuratu mendetasun-egoerari lotutako zerbitzu eta prestazioak.

Babes maila gehigarriak ezartzeko daukan ahalmenaz baliatuta (zazpigarren gomendioa), eusten dio mendetasuna baloratzeko baremoan 40 puntutik gora daukaten pertsonentzako arretari, bai eta I. graduaren baloratuta dauden 3 urtetik beherako pertsonentzako arretari ere, edozein dela ere haien puntuazioa. Gainera, zentro okupazionala eta eguneko zentroetara (adimen ezgarritasunerako eta buru-gaixotasunerako zentroak) joateko sarbidea ematen die 40 puntutik beherako puntuazioarekin I. graduaren baloratutako 3 urtetik gorako pertsonen, baldintza jakin batzuekin. Aurten, psikologiaren arloko profesional bat sartu da Mendetasuna Baloratzeko Batzordean (11.1 eta 11.3 gomendioak). 47.1 artikuluan, II. eta III. graduatarako, zortzigarren gomendioaren edukia jasotzen da. Ez du betetzen 11.7 gomendioa. Praktikan, 11.6 gomendioaren edukia betetzera hurbiltzen da. Zaintzaile ez-profesionalek ematen duten arretaren kontrol- eta jarraipen-neurriek bultzatzeari dagokionez (11.13 gomendioa), jakinarazi digute jarraipenak egiten direla, gutxienez ere urtean behin, FIZPERen titularrak izan eta gainera EAza daukaten pertsonen etxeetan; ondoren, batzuetan, beste zainketa-plan bat prestatzen da.

4.2.5. EAeko **Arreta goiztiarraren eredia** garatzeari buruzkoa den 12. gomendioaren jarraipenari dagokionez **Hautzaroaren Bulegoaren txostenaren** berri ematen da.

4.2.6. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari adierazi genion nolako nahigabea genuen **Estatuak utzi diolako finantzatzeari mendetasun-egoeraren dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantzaren kotizazioak** –halakoetatik gehienak adin ertain eta aurreratuko emakumeak dira–, eta planteatu genion ea aukerarik ba ote zuen egoera larri hori arintzeko neurriren bat hartzeko. Erantzunean bat zetorren erakunde honekin egitate hori gizarte-babesean emandako atzerapausotzat baloratzerakoan, eta nabarmentzen zuen Euskadin garatzen den etxeko zainketa

eredua arriskuan dagoela, eta hileroko kotizazio horrek, orain pertsona zaintzailearen kargura dagoenak, mendetasun-egoeraren dauden pertsonak jasotzen duen prestazioaren %50 hartzen duela, gutxienez ere. Gehitzen zuen ezen mendetasun-egoeraren dauden adineko pertsonen %62,80k zainketa ez-formal bat duela, zeina familiaren edo adiskideen elkartasunetik heldu baita, eta horixe dela haien zainketa-iturri bakarra. Hartu beharko lirakeen neurriek dagokionez, adierazten zuen ez eskumenik, ez kontu-sailik ez zuela kotizazio horiei aurre egiteko.

Gure iritziz, administrazio autonomikoak talde ahulenezko erantzukizun- eta konpromiso-ariketa batean, Estatuok esparruan egin diren osasun-mozketa batzuen ondorioak arintzeko neurriak hartu dituen bezalaxe, beharrezkoa eta presakoa da kotizazio horiei aurre egiteko laguntza-lerroak ezartzea, mendetasuna eraginkortasunez babestu eta genero-politiketan eta enplegua sortzeko politiketan eragite aldera.

4.3. **Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen garapen normatiboaren eta inplementazioaren gaineko jarraipena**

4.3.1. Ondoren, 2013an izan diren **aurrerapen** nagusiak nabarmenduko ditugu:

- Gizarte-zerbitzuen Erregistroei buruzko **uztailaren 24ko 155/2012 Dekretuak** indarra hartzea. Gizarte-zerbitzuen erregistroen berriazko araupetzea gaurkotu eta sistematizatzen du.
- **Maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretua**, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa. Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean ezarritakoarekin bat, dekretu honek tresna tekniko komunak ezartzen ditu esku-hartzerako oinarriko prozeduran erabiliko direnak.
- **Uztailaren 16ko 385/2013 Dekretua**, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena.
- **Urriaren 7ko 424/2013 Dekretua**, gizarte zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko deklaratzeari buruzkoa. Bertan, irabazi-asmorik gabeko entitateek gizarte-intereseko deklarazioa lortzeko behar-kizunak eta prozedurak arautzen dira, bai eta deklarazio hori mantentzeko edo errebokatzeko baldintzak ere. Deklarazio horren eraginak, praktikan, gauzatuko dira gizarte-intereseko deklaraturako entitateek lehentasuna izatean beste entitate batzuen gainetik diru-laguntzak eta laguntzak emateko garaian.

4.3.2. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jakinarazten digu **tramitatzen ari direla** Arreta Goiztiarreko Eskuhartzeari buruzko Dekretua, Ituntzeari buruzko Dekretua, Ezgarritasuna duten Pertsonentzako Egoitza-zentroei buruzko Dekretua, Ezgarritasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuei eta Eguneko Zentroei eta Zentro Okupazionalen buruzko Dekretua eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistemari buruzko Dekretua.

4.3.3. 2013an, **gizarte zerbitzuen zorroa arautuko duen dekretuaren** beste bertsio bat egin da. Bertan jasoko dira herritarrek nolako zerbitzuetarako eskubidea duen, zerbitzu horiek zein ezaugarri dituzten eta haiek eskuratzeko baldintzak, eta zein den eskumen-esparrua. Agiri horren garrantzia dela eta, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari zirriborroa dela-eta egindako iruzkin, zalantza eta gogoeta batzuk, Arartekoak, herritarren keak tramitatzekoan, ebazterakoan, gomendioak egiterakoan eta urteko txostenak eta txosten bereziak egiterakoan, aurrez adierazitako posizionamenduekin zerikusia zuten gaietan.

Sailak gogoeta horietako batzuk kontuan izan ditu. Horien artean honakoak nabarmentzen ditugu: testua *EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa* txosten bereziko 11.11 gomendioaren edukiaren arabera egokitzea –txostena mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia eta arreta sustatzeko eskubidearen titulartasunari buruzkoa da–; testuan jasotzea APPa lantzerakoan arreta egin behar izatea beste arreta sistema batzuen esparrukoak izan eta kasuko pertsonarekin bidean dauden beste plan batzuei, sistema sozialaren eta sanitarioaren arteko koordinazioa bultzatzeko beharrezkin bat, txosteneko 4. gomendioan jaso bezala; ukitutako administrazioetan ezinbestekoa den erakunde-arte koordinazioa bultzatzeari buruzko den 3. gomendioan ezarritakoarekin bat, erkidegoko administrazioak edo foru administrazioak emandako ebazpena jakitera eman behar izatea; testuan berariaz jasotzea pertsona orok eskubidea duela entzute-tramitean entzuna izateko zerbitzu eta prestazio ekonomikoetarako eskubidea kendu edo azkentzei buruzko prozedura guztietan; eta kontsigna sartzeari eguneko arreta-zerbitzuen osagarriak diren prestazio osagarrien artean.

Beste gogoeta batzuk –gure ustez, garrantzi handikoak– ez dira aintzat hartu:

- Mendetasunaren arriskua baloratzeko geure baliabideak eskuratzeari (aurreikuspen hori Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeko 20. artikuluan jasota dago), edo, bestela, arrisku hori mendetasuna baloratzeko baremoko 23-24 puntutik oso behera kokatzea, gaur egun maila horretan baitago.
- Testua mendetasun-egoera aitortzeko eta zerbitzuak eta prestazioak esleitzeko prozedurari buruzkoa den 11.6 gomendioaren edukiaren arabera egokitzea, bai eta txosteneko 8. gomendioaren arabera ere –prestazio ekonomikoaren bateragarritasunari buruzkoa da gomendioa–, are gehiago foru aldundiek bide horretan urrats batzuk egin dituztenean.
- Laguntzaren jarraitutasuna bermatzea mendetasun-egoeran dagoen pertsona eta egoitza-postu baten onuraduna dena EAE barruan lekuz aldatzen denean; horretarako, arreta dela-eta behin-behinekotasun epe batzuk ezarriko dira jatorrizko lekuen arretari dagokionean, destinoko lekuan posturik ez dagoenean; erakundeen artean horren araberrako behar diren akordioak egingo dira.
- AMAESA arautzen duen Estatuko araudian ezarritakoa kontuan hartu beharko da ezin igaro daitekeen gutxienezko muga baten gisara; hori, halere, ez da eragozpena izango babes-maila gehigarri batzuk ezartzeko. Foru erakundeek barneratua duten gai bat da hori, jada

aplikatu izan dutena zenbait alderdiri dagokionean: kopuruak, ahaidetasun eta bizikidetasun baldintzen arloko salbuespen kasuak, zerbitzuen eta prestazioen bateragarritasuna, prestazioetarako eskubidearen eraginkortasuna eta abar. Ezin da onartu alderdi horietan guztietan atzera egitea.

- Desadostasuna erroldatze-epe gehigarriak eskatzearekin, zenbait baliabide eskuratu ahal izateko baldintza gisa.

2014an, gogoeta horiek eta haiek aintzat hartzearen garrantzia azpimarratzen jarraitu beharko da, gure administrazio publikoek babes sozial eraginkorra eman dezatela bermatze aldera.

4.4. Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko autonomietako aurrerapausoak. Hurbilketa txosten bereziaren jarraipena

Aurreko urteetan bezala, *gaiari buruzko azterketa III.4 kapitulu 3.2.* atalean egiten da; kapitulu hori, izan ere, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen buruzkoa da. Hartan, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak 2011ko otsailaren 28an onetsi zuen *Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Soziosanitarioaren Ildoak Prestatzeko Esparru-dokumentua* gauzatzeari arloan egindako aurrerapauso nagusiak aipatzen dira.

4.5. Elkartekiko bilkurak

Aurten lankidetzaren dinamiko bat hasi dugu **HELDUAK ADII** Pertsona Nagusien Parte-hartze Plan Integral bat egitearen aldeko Sare Soziala elkarterekin. Elkarte horrek, banaka elkartekide egin diren pertsonen gainera, hiru lurraldeetan presentzia duten sei elkarte biltzen ditu: Elkarte horrek hiru lurraldeetako kolektiboak biltzen ditu bere baitan: Gasteizko Forum 50-70, Gipuzkoako Goierri-Urola Garaiko Gueske, Bizkaiko Hartu Emanak, Donostialdeko Helduen Hitza, Gipuzkoako Secot eta autonomia eremuko SSI (Servicios Sociales Integrados).

Horren jatorria Hartu Emanak elkarteak *Pertsona helduen PYMAen (elkarte txiki eta ertainen) Liburu Berdea* lana egiten 2006an izan zuen parte-hartzean dago. Lan hori lehenengo urratsa izan zen Hartu Emanak, Gueske eta Acex-Eske elkartekin egindako *Adineko Pertsonen Partaidetzarako Plan Integral baterantz* eta *Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonen partaidetza sozialari buruzko diagnosis (Sintesia)* lanerako. Azken hori 2008an argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak. 2009an, akordio batzuk finkatu ziren Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Partaidetzarako Zuzendaritzarekin baterako lan-estrategia bat abian jartzeko.

2011tik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren babesa jaso du UPV-EHUko uda ikastaroak antolatzearekin lotutako proiektuetan lan egiteko honako arlo hauetan: adineko pertsonen lotutako estereotipoak deuseztatzea; erretirorako prestaketa (hiru lurraldeetan ikastaroak eginez); adineko pertsonen egoitutako sare sozialen prestaketa; Urola Kostako etxeetako esperientziak zabaltzea; adineko pertsonen elkarreentzako

kudeaketa-eredua; EPA programarekiko lankidetzak, hura adineko pertsonen ikaskuntzari egokitzeko; Parte Hartuz-en partaidetzarako belaunaldien arteko eskola sortzeko lankidetzak eta ekarpena (UPV-EHU).

“Jubilatuta” baina gizartean aktibo dauden pertsonen talde gisa, gizarte zuzenagoa, ez hain baztertua eta parte-hartzaileagoa eraikitzen lagundu nahi dute. Hartara, beraien helburuen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Adinekoek erakundeekin eta gizarte-eragileekin Parte Hartzeko Osoko Plana egin eta ezartzeko prozesua garatzea.
- Arlo guztietan herritar aktiboaren printzipioa bultzatzea, gizartearen eraldatzeko elementutzat.
- Kide diren elkarten esperientziak eta jarduerak koordinatzea, honako hauek sustatuz: sareko lana eta elkarrekin proiektuak egitea, elkarrekin kolektiboa erakunde publiko eta pribatuarekin, beste elkarte batzuekin, gizarte-sarrekin eta gizartearekin, oro har.

Gazteek eta emakumeek gaur egun daukaten erakunde-laguntzaren parekoa lortu nahi dute, eta Adinekoen Institutu edo Erakundea sortu nahi dute, erdietsi nahi duten osoko plan hori sustatu, gauzatu eta ebaluatzea bere gain har dezan. Aipatzen dute “adinarekin ikuspegia” txertatu behar dela politika publikoak taxutzerakoan eta haien eraginaren azterketan, “generoaren ikuspegiarekin” egiten ari den bezala. Uste dute beren iritzia kontuan hartu beharra dagoela gizarte zerbitzuen iraunkortasunari buruzko eztabaidan eta pentsioetan eragina duten erabakietan.

Nabarmentzen dute Gasteizko Udalak adineko pertsonentzat bultzatu dituen kultur etxeek pertsona horien ahalmentzea errazten dutela. “Jubilatuaren etxearen” kontzeptu berri bat da, non kultur prestakuntzako eta jardueren eskaintza interesgarria dagoen, gainerako lurraldeetara zabaltzea komeniko litzatekeena.

Ikaskuntza kooperatiboaren aldeko apustua egiten dute (banakakoaren eta lehiakorren aurrean) eta eskatzen dute ikaskuntza-ekimenetan egonkortasun handiagoa lortzea (esperientziaren gelak, prestakuntza jarraitua eta abar).

Uste dute sakondu beharko litzatekeela toki nahiz foru esparruko adinekoen kontseiluen kontsulta-izaeran, bai eta entitate sozialek kontseilu horietan partaidetza erreal eta eraginkorren ere.

Azkenik, positibotzat jotzen dute orain arte harremana izan duten administrazioen jarrera.

Arartekoak elkarteari ezagutzera eman dizkio adineko pertsonen kolektiboa dela-eta *E-inklusioa eta Euskadin herritarrek ikten bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea* txosten berezian emandako ondorio eta gomendioak.

Halaber, *Ararteko Mapak* baliabidea aurkeztu die. Haren helburua da haien lankidetzak erraztea, pertsona erabilgaitzak diren aldetik, irisgarritasuna dela-eta proiektuan intereseko informazioa ematearen bidez.

5.

Herritarren eskubideen egoerari buruzko balorazioa

5.1. Adineko pertsonen kolektiboa oso heterogeneoa da eta pertsona autonomoen %80 eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen %20 inguru biltzen ditu. Gizarteari egiten dioten ekarpena zalantzagabea da, eta dauden estereotipoen aurka, **zainketa-emaileak dira ahalmenez betetako bizi-etapa batean**. Mendetasuna duen populazioaren %80 65 urtetik gorakoa da; gainerako %20a ezgaitasunen bat duten pertsonak dira.

5.2. Zahartze aktiboaren paradigmatik, adineko pertsonen giza eskubideen aitortzearen eta zenbait printzipiotan (independentsia, partaidetza, duintasuna, laguntza eta auto-errealizazioa) oinarrituta dagoenak, jarraitu behar du politika publikoaren taxutzea bultzatzen. Azken helburua pertsona orok ongizate fisiko, sozial eta psikoafektiborako duen ahalmena bere bizi ziklo osoan gauzatea, eta gizartean bere premien, desiren eta gaitasunen arabera parte hartzea da, behar duenean, babesa, segurtasuna eta zaintza egokiak jasoz.

Euskal herri-administrazioek sakondu behar dute bai adineko pertsonen prestakuntza, informazioa eta partaidetza bermatzera zuzendutako ekintzen bultzadan, bai nahi duten pertsonen beren ezagutza, esperientzia eta lankidetzaren ekarpena egitera bideratutako jarduketaren bultzadan ere.

5.3. Estatuaren esparruan, 2013an jarraitzen dugu ikusten nola atzerapen nabarmena egiten ari den **autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoerari arrete emateko** politiken garapenean. Haren berri ematen genuen jada joan den urteko txostenean, aurrekontu-egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko hartutako neurriak aipatzen genituen. Horrekin batera, gainera, Estatuko gastu publikoa izugarri jaitsi da arlo honetan, eta horrek berarekin ekarri du nabarmen gutxitzea Estatuko administrazio publikoak babes-maila gutxienezko ematen duen ekarpena. Horrek guztiak galera ekonomiko handia eragin die autonomia-erkidegoei.

Euskal herri-administrazioek erantzukizunez hartu behar dute beren gain horrek guztiak dakarren erronka, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasuna babesteko eskubide subjektiboa gauzatzeko aldera, bere politika guztietan lehenetsiz bereziki ahula den kolektibo horrentzako arreteak.

Horretarako, gakoa da, batetik, egun daukaten ahalmena betetzen jarraitzea, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legeko 7. eta 11.2 artikuluen arabera, ukitutako kolektiborako babes-maila gehigarriak ezartzeari dagokionez, eta, bestetik, Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren onarpenak dakarren aukera bikainaz baliatzea adierazitako atzeratzea arintzeko eta Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen egiazko ezarpena bermatzeko, gure erkidegoak esleituta daukan gizarte zerbitzuen arloko eskumen eskusiboaren adierazpen argi gisa.

Bigarren alderdi horri dagokionez, antzeman ditugun inboluzio-arriskuak gainditu beharko lirakeke.

Foru aldundiek arestian adierazitako ahalmenez baliatzeak aukera eman du, neurri batean, Estatuan hartutako neurri murriztaileen eragina arintzeko. Alabaina, adierazi beharra daukagu ahaleginak are handiagoa izan behar duela, arreta faltako agertokiak saiheste aldera. Hartara, bada, ezin saihestuzkoa da gure herri-administrazioek gizarte zerbitzuen arloan egiten jardun duten apustuarekin jarraitzea eta saihestea arreta eta hobekuntza jarraituak handitzen joateko ibilbide hori eragotz dadila.

5.4. 2012ko otsailean mendetasuna baloratzeko baremo berriak indarra hartu zuenetik –[otsailaren 11ko 174/2011 Errege-dekretuaz onetsi zen](#)–, nabarmen egin dute gora **aitortutako mendetasun-graduarekiko desadostasuna** dela-eta erregistratutako keak, eta egoera horrek 2013an ere bere horretan jarraitzen du. Hirugarren Sektoreko entitateek ere beren kezka helarazi digute. Baremo horren aplikazioa berarekin ekartzen ari da balorazio-azterketetan gradu txikiagoak ematea eta balorazio berriekin antzeko egoerarako aurreko baremoa aplikatuz lortzen ziren graduak baino gradu apalagoak aitortzea. Askotan, horrek eragotzi du zaintzaileei laguntza emateko funtsezkoak ziren prestazio ekonomikoak lortzea, eta, kasuren batean, zerbitzuak lortzea, eta hori oso ere larria iruditzen zaigu.

Bereziki kezkarria iruditzen zaigu ezen herritarrek balorazio horiek direla-eta erakutsitako desadostasunarekin batera, antzeman izan dela –gure informazioa alderatzek aukera izan dugun sare publikoko osasunaren nahiz gizarte-lanaren arloko profesionalak adierazi digutenaren arabera– nekez uler daitezken graduazio batzuk eman direla, baloratutako pertsonen laguntza- eta gainbegiratze-beharrak ikusita. Arazo horrek eragin berezia dauka buru-osasuneko arazoak dauzkaten pertsonen kolektiboan.

Gure iritziz, beharrezkoa litzateke, Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko dekretuaren onarpenaz baliatuta, geure buruari baliabide bereki bat ematea mendetasun-arriskuaren baloraziorako (Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeko 20. artikuluan jasotako aurreikuspena da hori) edo, bestela, arrisku hori mendetasuna baloratzeko baremoko 23-24 puntutik oso behera kokatzea, gaur egun maila horretan baitago, bai eta mendetasun-arriskuan dauden pertsonentzako arreta erraztea ere, sistemara sarbidea izateko baldintzak malgutzearen bidetik.

5.5. Zaintzaile ez-profesionalen Gizarte Segurantzaren kotizaziorako Estatuaren finantzaketa kentzea neurri izugarri kaltegarria izan da, gizarte-bazterketa eta mendetasunaren babesgabezia eragiten dituena; arriskuan jartzen du arretarako eredu komunitarioa eta larriki kaltetzen du familiak eta inguru hurbilak –gehienetan, emakumeek– egiten duten zainketa-lana, hain zuzen ere FIZPEk bideratzen zuena. Gainera, berarekin dakar aukera bat galtzea enplegua sortzeko gai den sektore batean inbertitzeko, horrek dakartzan itzulkin eskergarriak, alde batetik zergetan eta bestetik osasun-

gastuan eta langabeziarengatiko prestazioetan induzitutako aurrezkitan.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa eta premiazkoa da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak laguntza-linea bat ezar dezala kotizazio horiei aurre egiteko.

5.6. Egiaztatutako egitate bat da adineko pertsonak nahiago izaten dutela mendetasunari beren etxean aurre egin. Herritarren kekek behin eta berriz ohartarazten digute **personak bere etxean mantentzera bideratutako neurri** guztiak indartu behar direla: FIZPE eskuratzea –bere prebalentzia areagotzen jarraitzen duen prestazioa–, etxeko arreta, laguntza-produktuak, etxebizitza egokitzea, eguneko zentroak, zentro okupazionalak, aldi baterako egonaldiak eta asteburukoak egoitzetan eta eguneko zentroetan, zaintzaileei laguntzeko programak, norberaren autonomia sustatzeko zerbitzuak eta abar. Horrek guztiak eskatzen du botere publikoek berma dezatela haien funtzionamendu egokia, zainketa horien kalitatea eta egokitasuna, sarbideko baldintzen malgutzea eta bi sexuen baterako erantzukizuna.

5.7. Egoitza-arretan defizit batzuk erregistratzen jarraitzen dugu. Nabarmen gelditu da komenigarria dela ezen egoitza-zentroan artatutako pertsonaren osasun-egoerak zentro horretako arreta-ahalmenak gainditzen dituzenean, inguruabar hori berehala jakinarazi behar zaiola familiari, adineko pertsona lekuz aldatzeari ekin dakion. Ikuskaritza-zerbitzuek neurri horiek hartzeko beharrezko ahaleginak behar dira, adineko pertsonen egoitza-zerbitzuen titularrak diren entitateei aholkua emateko beren eginkizunean, ematen duten arreta garatzeko eta hobetzeko.

Gure erakundeetan aurrera egin behar da **personak erdigunean jartzen dituen arreta gerontologikoaren** ereduaz ezaizten, zerbitzuen adineko erabilzaileen autodeterminazioari eginkizun nagusia eman dielako. Pertsona bakoitza eta haren bizi proiektua arretaren eta, beraz, erakundearen eta laguntza prozesuen erdigunea dira. Izaki bakarra den aldetik pertsonaren duintasuna, haren eskubideak, haren lehentasunak errespetatzea eta norberaren ongizatea bilatzea funtsezko balioak dira arreta eredu horretan, baita adimenaren andeatze larriko egoeretan ere. Printzipio horiek ezartzeko sentsibilizazioa eta prestakuntza behar dira, eta rol profesional berriak pentsatu behar dira, antolakuntza sistema batzuk berrikusi eta eredu berri horren arabera esku-hartzeak diseinatu.

5.8. Adineko pertsonentzako egoitza-zentroen erabilzaileen kolektiboak zentroetako **greba eta lan-gatazkako egoeretan** duten ahuldade berezia dela eta, gehienetan mendetasun handia duten pertsonak baitira, ezinbestekoa da gure administrazioek, zerbitzuaren prestazio egokiaren bermatzaileak diren aldetik, behar diren jarraipenak egin ditzatela eta behar diren neurriak har ditzatela langileen grebarako eskubide legitimoaren eta mendetasun-egoeran dauden adineko pertsonak arreta egokia jasotzeko duten eskubidearen arteko oreka zuzenari euts dakion.

a t a l a

2012.

Talde terroristen biktimak



Aurrekariak



Zorionez, 2011. urtearen amaieran ETA erakunde terroristak “jarduera armatuaren behin betiko etetea” iragarri zuenetik ez da jarduera terroristaren ondoriozko eraiketarik gertatu.

Ararteko erakundeak urte askotan zehar aurrez aurre gaitzetsi ditu hainbat pertsonen giza eskubideen urraketa larriak eta, bereziki, bizitzeko, osotasun fisikorako eta askatasunerako eskubidearen urraketa jarduera terroristaren ondorio gisa. Pozik gaude 2013. urtean zehar ez direlako eskubide horiek urratu.

1.

Arloa kopurutan

2013. urtean kexa bakarra jaso dugu talde terroristen biktimen alorrean.

2.

Araudi- eta gizarte-testuingurua

2.1. Terrorismoaren biktimen ordain osorako eskubidea

Bi ganbera legegileek aho batez onetsi zuten terrorismoaren biktimen aitortza eta babes osoari buruzko [irailaren 22ko 29/2011 Legea](#) eta une garrantzitsu bat izateaz gain, horrek terrorismoaren biktimen elkartearen eskaeretako batzuei erantzuna eman zien.

Azken xedapenetako lehenengoan gaikuntza aurreikusi da arauzko garapena burutzeko. Terrorismoaren biktimen aitortza eta babes osoari buruzko irailaren 22ko 29/2011 Legearen araudia onetsi duen [irailaren 6ko 671/2013 Errege Dekretuak](#) legezko xedapenaren betetzea eragin du.

Errege dekretu horrek aldarrikapenak eragin ditu terrorismoaren biktimen artean eta arartekoak berak, aurreko urteko txostenean, arau hori al bait lasterren onesteko eskatu zuen; izan ere, horri esker biktimei buruzko legearen xedapen batzuk gauzatu ahalko dira.

I. kapituluak kalte pertsonalengatik ordaina jasotzeko erregimena barne hartzen du: heriotza, kalte fisiko edo psikikoak, bahiketa, epaian ezarritako erantzukizun zibilaren ordainketa eta atzerrian pairatutako kalteengatik salbuespenezko laguntzak. Halaber, jarduera terroristak etxebizitzetan; merkataritza edo industria establezimenduetan; alderdi politikoen, sindikatuen edo erakunde zibilen egoitzetan zein ibilgailuetan eragindako kalte materialen ordainketa ere barne hartzen du. Horrez gain, berehalako laguntza psikologiko eta psikiatrikoa; premia osasun laguntza; hezkuntzako laguntza; ezohiko laguntzak eta aurrerakinak etxebizitza publikoen arloan eta laneko eskubideak ere xedatu ditu. Mehatxupean bizi diren pertsonentzako ezohiko laguntzen emakida nabarmentzekoa da. Horretarako, prozedurak, baldintzak eta zenbatekoak xedatu dira. Aitorpen eta kondekorazioen erregulazioa gaineratu da.

Baita terrorismoaren biktimen erakundearen tutoretzari buruzko xedapen berritzaile bat ere. Horren arabera, [Barne Ministerioak](#) urteko txosten bat egin behar du biktimen taldearen egoeraren inguruan eta jarduteko proposamenak gaineratu behar ditu.

Gure ustez, txostena egiteko legezko agindu hori lagungarria izan daiteke terrorismoaren biktimen alorreko politika publikoen plangintza hobea egite aldera.

Arauetan jasotako agindu horren garrantzia azpimarratu behar da, horren bidez [irailaren 22ko 29/2011 Legearen](#) xedapenak gauzatuko baitira.

2.2. Terrorismoaren biktimek parte hartzeko duten eskubidea

Terrorismoaren biktimezako aitorten eta erreparazioari buruzko [ekainaren 19ko 4/2008 Legeak](#), 6. artikuluan, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua-ren sorrera xedatu du, zehazki, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua sortzeko [otsailaren 23ko 55/2010 Dekretuaren](#) bidez gauzatu dena. Herri-administrazioen eta gizarte zibilaren ordezkarien artean modu parekidean eratu den organo horretan terrorismoaren biktimegan eragina duten kontuak eztabaidatzen dira.

Gure iritziz, foro horrek garrantzi handi dauka, legez aitortutako parte hartzeko eskubidea betearazten baitu.

2.3. Bakean eta aske bizitzeko eskubidea: komunikabideen eta terrorismoa prebenitzeko hezkuntzaren bidez terrorismoaren legitimitatea kentzeko biktimen interesa

2013ko azaroan behin betiko aurkeztu zen [2013-2016 Bake eta Bizikidetzeta Plana](#), "Gizarte elkarretaratze helburu bat" azpigituluarekin. Plan hori ekainean aurreratu zuten eta hiru hilabeteko epea zabaldu zen ekarpenak aurkezte aldera, ez bakarrik legebiltzarreko taldeen eskutik, baita gizarte erakunde eta herritarren eskutik ere. Prozesu horren emaitza gisa, amaierako agiriak hitzaurre berri bat dauka, jasotako proposamen orokorrak eta ekarpen zehatz jakin batzuk barne hartzea xede duena.

Planteamendu orokorrean eta egoeraren diagnosian hain zuzen ere nagusitu dira adostasunik ezak legebiltzarreko taldeen eta gizarte erakundearen artean, planaren edukia lotuta.

Agiria hiru ataletan egituratuta dago:

- Lehenengoan proiektua definitzen da eta "Ezinegonetik ongizatera" izenburua dauka. Bertan, egoeraren diagnostia egiteaz gain planaren indarraldiak iraungo duen lau urteko denbora tarterako proiektuaren oinarriak ezarri dira.
- Bigarren atalaren izenburua "Mesfidantzatik konfiantzara" da eta, bertan, prozesua azaltzen da eta denborari dagokionez hiru fasetan antolatu da: iragana eta ikuspegi etiko-soziala; orainaldia eta ikuspegi soziopolitikoak; eta etorkizuna eta ikuspegi sozioedukatihoa.
- Hirugarren atalak programa definitzen du eta "Desadostasunetik adostasunera" izenburua dauka. Programa hiru ardatzetan oinarrituta dago eta horietako bakoitzean ekimen zehatzak daude, iraganaren, orainaldiaren eta etorkizunaren kudeaketarekin eta jarraipen eta ebaluazioaren zeharkako ardatzarekin.

2013ko azaroan [Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak](#) eta [Bakerako eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak](#) 2013-2016 Bake eta Bizikidetzeta Planaren oinarriak eta proiektuak aurkeztu zituzten hezkuntzaren alorrean. Plan horretan apustu irmoa egin da bizikidetzeta eta giza eskubideak hizpide dituen hezkuntzaren alde eta hezkuntza komunitateko eragileei eskatu zaie datozen hilabeteetan iradokizunak eta oharak helaraz ditzaten.

Jarduteko lau ardatz jarri dira mahai gainean:

- **Gizalegez erabakia**
Hezkuntza komunitateko lankidetzeta topaketa sustatu nahi du bizikidetzaren arloan hezteko erabaki sozioedukatihoa lortze aldera.
- **Elkarrekin programa**
Bizikidetzarako hezkuntzaren eremuan ikastetxeek garatzen dituzten ekimenak sustatu eta babestu nahi ditu.
- **Adi-adian hezkuntza modulua**
Biktima hezitzaileen programa eguneratu du.
- **Bakegune eskola**
Hezkuntza baliabideen web orrialdea berritzen eta optimizatzen du.

3.

Kexarik aipagarrienak

Aipatu dugun moduan, 2013. urtean kexa bakarra jaso dugu terrorismoaren biktimei lotuta. Kexaren bidez, ebazpen baten aurrean desadostasuna adierazi zen kexagileak lanaren eremuan [ekainaren 18ko 4/2008 Legean](#) jasotako laguntza jakin batzuk eskatu zituelako eta ukatu egin zizkiotelako. Ondoren, bere eskaera neurri batean onetsi zen, beraz, Arartekoa erakundeak bere esku-hartzea bertan behara utzi zuen.

4 .

Jarduera-planaren esparruko bestelako esku-hartzeak**4.1. Elkarte eta fundazioekiko harremanak**

Terrorismoaren biktimen elkarte eta fundazioek funtsezko zeregina daukate terrorismoaren biktimen eskubideen defentsan eta beharrezko eragileak dira euren eskubideak aldarrikatze aldera. Horrez gain, gizartearen eremuan bizikidetzaren eta bakearen alde lan egiten duten erakunde eta elkarten jarduna ere ezinbestekoa da.

Ararteko erakundeak oso modu positiboan baloratzen ditu erakunde horiek, modu horretan, adierazten baita antolatutako gizarte zibila konprometitua dagoela bakearen eta demokraziaren balioekin. Horregatik, harreman etengabea dauka erakunde, elkarte eta fundazio horiekin eta balio horiek defendatzeko antolatzen dituzten ekitaldietan parte hartu ohi du. Ekitaldi guztien artean, Bakearen Aldeko Koordinakundeari amaiera eman zion ekitaldia nabarmendu nahi dugu, bertan, arartekoak esku hartu zuen eta gogora ekarri zuen *“Bakearen Aldeko Koordinakunderik gabe amaiera luza-tuko zen eta desberdina izango litzateke, giza eskubideentzat eta gure gizartearen bizikidetzarako kaltegarriagoa”*.

Bakearen kulturaren balioekiko gizarte konpromisoa funtsezkoa izan da garai zailetan, herritar askoren eskubideak modu larrian urratu izan direnean.

5.

Giza eskubideen egoeraren balorazioa

Aipagarria da 2013. urtean zehar, ETAK “indarkeriaren behin betiko etetea” iragarri zuenetik, ez dela herritarren bizitzarako, osotasun fisikorako, askatasunerako edo segurtasun pertsonalerako eskubidea urratu.

Horrez gain, azpimarratzekoa da egoera horrek ETaren mehatxua eta estortsioa pairatu izan duten milaka pertsonen bizi baldintzak hobetu dituela.



**Arartekoaren
beste tresna batzuk
administrazio ona izateko eskubidea
sustatzeko**

W **a**

a t a l a

IV. Atala

Arartekoaren beste tresna batzuk administrazio ona izateko eskubidea sustatzeko

Herritarrek beren eskubideak urratu direlakoan edo indarreko legea bete ez delakoan administrazio publikoen aurka aurkezten dituzten kexen gainean ebaztea da Arartekoaren oinarrizko eginkizunetako bat.

Bere funtzio adierazgarria hori izanik, Ararteko erakundeak administrazioaren kontrol eta orientazio jarduera proaktibo ugari burutzen ditu asmo orokorreko beste tresna batzuen bidez. Horien helburuak administrazioaren jardueran praktika onak edo aldaketak proposatzea, esparru jakin bateko herritarren eskubideen betetzeari buruzko ikerketa eta eztabaida sustatzea edo horien hedapena bultzatzea dira.

Kapitulu honetan 2013. urtean zehar bideratutako jardueren emaitzaren laburpena gaineratu dugu eta Arartekoaren web orrira bidaltzen ditugu horien inguruko informazio zehatzagoa nahi dituztenak.

1. Gomendio orokorrak
2. Azterlanak
3. Txosten bereziak
4. Udako ikastaroak
5. Arartekoaren jardunaldiak
6. Bestelako jarduerak

1.

Gomendio orokorrak

Banakako kexen ebazpena, zalantzarik gabe, garrantzi handikoa da azaltzen diren kasu konkrituak argitzeko. Nolanahi ere, batzuetan ikusten da auzia kasu partikularrak harago doala eta modu orokorrean hel dakiokela, herritar ugari edo, modu estrukturalan, administrazioen jardunari eragin diezaiokelako.

Zenbaitetan, arau aldetik hutsuneak daudela sumatzen da, edo aldatu egin behar direla lehendik dauden arauak, bidegabekeriak egoerarik ez gertatzeko edo eskubideak hobeto bermatzeko dituzten arauak lortzeko.

Halako kasuetan, Arartekoak gomendio orokorrak egiten ditu, administrazio bati edo hainbati begira.

2013. urtean, 9 gomendio orokor egin dira, beste hainbeste gairen inguruan. Gomendio horiek osorik gure web gunean aurki daitezke (www.ararteko.net).

1.1. Arartekoaren 1/2013 Gomendio Orokorra, urtarrilaren 18koa

Deribazio judizialaren bidez familia elkarguneen erregulazioa eta funtzionamendua.

Arartekoak familia elkargunez duen kezka orain urte batzuk sortu bazen ere, gomendio orokor hau 2011 eta 2012. urteen bitartean bertatik bertara egin den ikerlan baten ondorioa da. Ikerlan horren bidez aztertu nahi zen zenbateraino betetzen den Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko familia elkarguneak erregulatzeko araudia.

Gomendio orokor horretan Arartekoak hainbat neurri proposatu ditu, batez ere epaitegiekin lankidetzan aritzearen eta koordinatzearen arloan.

1.2. Arartekoaren 2/2013 Gomendio Orokorra, otsailaren 5koa

Arkitektura-oztopoak dituzten egoitzeraikin kolektiboetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko beharra, bereziki igogailuak instalatuta.

Arartekoaren gomendio honen bitartez baloratu eta aztertu nahi dugu euskal botere publikoek zer-nolako jarduera-eremua duten bizitzeko eraikinetan arkitektura-oztopoak kendu ahal izateko tresnak bereganatzeko.

1.3. Arartekoaren 3/2013 Gomendio Orokorra, otsailaren 15koa

Buruko osasun arazoak dituzten pertsonak borondatearen kontrako ospitaleratze egoeran daudenean dituzten eskubideen aitortze eraginkorra bermatzeko dituzten neurriak hartzeko beharra.

Gomendio horretan, Ararteko erakundeak neurri batzuk proposatzen ditu, adibidez, pazienteari informazioa emateko idazki bat eskura izatea eta bertan argi eta erraz azaltzea haren eskubideak; eta bide bat abiaraztea, neurriak eragindako pertsonari eskubide horiek irakurri dizkiotela eta haien edukia behar bezala ulertu duela idatziz jaso ahal izateko.

Orobat, pazientearen historia klinikoan dagoen informazioa eta nahi gabeko barneratzearen gainekoa eskuratzea mugatzeari dagokionez, bidezkoa iruditzen zaio osasun-administrazioak hartutako murrizketa-neurriek behar bezala bermatzea babestu egingo direla hain kontuzkoak diren datu horiek.

Etorkizunari begira, azpimarratu dugu behar-beharrezkoa iruditzen zaigula Nahi Gabeko Barneratzeari buruzko Protokoloa betetzera bideratutako neurri gehiago hartzea.

1.4. Arartekoaren 4/2013 Gomendio Orokorra, martxoaren 4koa

Aldi baterako kontratazio-burtsak erregulatzen dituzten arauetan, diskriminazio positiborako neurriak ezar daitezela, ezgaituak euren ezaugarrietarako egokiak diren lanpostuetara iritsi ahal izatea errazteko.

Arartekoak gomendatzen die, batik bat oraindik neurririk hartu ez duten administrazioei, enplegu publikorako sarbidea eraendu behar duten printzipioak bermatuz, diskriminazio positiboko neurriak ezar ditzatela aldi baterako kontratueterako beren lan-poltsak erregulatzeko arauetan, ezinduek beren ezaugarrietara egokitutako lanpostuak errazago eskura ditzaten.

1.5. Arartekoaren 5/2013 Gomendio Orokorra, ekainaren 17koa

Bakarrik dauden adingabe/gazte etorkinen arretarako bermeak.

Arartekoak eskatzen du Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Sailak koordina dezala Euskal Autonomia Erkidego osoan jarduteko baterako protokolo baten prestakuntzaren bukaera. Protokolo horretan parte hartu beharko dute Fiskaltzak, Gobernuaren Azpiordezkariak, polizia kidegoak, Segurtasun Sailak, Herri Administrazio eta Justizia Sailak eta Osasun Sailak, baita foru aldundien adin txikikoak babesteko zerbitzuek ere, eta horien guztien eginkizunak eta jarduerak argitu beharko dira.

Orobat, Arartekoak nabarmendu du oso garrantzitsua dela gizarte-laguntza edota bideratze egokia izatea adin txikiko eta gazte horiek babes-baliabideetatik irteten direnean.

1.6. Arartekoaren 6/2013 Gomendio Orokorra, ekainaren 27koa

Berriz aztertu behar da jendearentzat zabalik dauden establezimendu pribatuetan sarrera ukatzeko eskubidea baliatzeari eta diskriminazioa debekatzeari buruzko araudia.

Ararteko erakundeak kexak jaso izan ditu erantzunik ezaren ondorioz edo administrazioak emandako erantzuna ez delako egokia izan. Kexek aditzera eman zuten atzerritar jakin batzuei ez dietela taberna edo diskoteka batean sartzen utzi, hau da, jendearentzat zabalik dauden establezimendu pribatuetan.

Gomendio horretan, Ararteko erakundeak ondorioztatu du sarrera ukatzeko eskubideari eta diskriminazioaren debekuari lotutako araudia hobetzea nahitaezkoa dela, bereziki, ikuskizun publiko eta aisialdirako jardueren arloan. Halaber, zigortzeko prozedura eta berme sistema ere hobetu beharko lirake.

1.7. Arartekoaren 7/2013 Gomendio Orokorra, abuztuaren 7koa

Abokatu elkargoetako orientazio juridikoko zerbitzuek eta doako laguntza juridikoko lurralde batzordeek doako justiziaren onuraren eskatzaileen datu fiskalak eskuratu ahal izatea.

Arartekoak hiru Foru Aldundiei eta Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailari eskatzen die neurriak har ditzaten eta beharrezko lankidetzak-hitzarmenak sina ditzaten Orientazio Juridikoko Zerbitzuek eta Doako Laguntza Juridikoaren Probintzia Batzordeek beharrezko zerga informazioa izan dezaten doako justizia erregulatzen duen araudiak esleitzen dizkien funtzioak aurrera eramateko. Era berean, gogorarazi du Datu pertsonalak babesten dituen lege organikoari jarraiki, informazioa ondorio horietarako bakarrik eman beharko dela eta, edozelan ere, aurretik eskatzailearen berriazko baimena izanda.

1.8. Arartekoaren 8/2013 Gomendio Orokorra, irailaren 24koa

Osasun Sistema Nazionalean aseguratzen ez duten pertsonen osasun-arreta jasotzeko orduan alde zuzeneko erroldak eragiten dizkien mugak.

Arartekoak honako gomendio hau egin dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari: berriki ezala ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuak ezartzen duen urtebetez erroldatuta

egon izanaren eskakizuna, Osasun-sistema Nazionalean aseguratzen ez diren pertsonen osasun-arreta jasotzeko aukera izan dezaten.

1.9. Arartekoaren 9/2013 Gomendio Orokorra, azaroaren 5koa

Dokumentazio klinikoa eskuratzeko eskabideak ebazterakoan oinarritzat hartzen diren irizpideak egokitzea.

Arartekoak, besteak beste, honako gomendio hauek helarazi nahi dizkio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari:

- Kasu guztietan, historia klinikoa ikusteko eskaerak ebatzi behar dira antolamenduak barne hartzen dituen ukatzeko arazoak antzeman diren ala ez modu eraginkorrean egiaztatuta otean. Ezin da arazo horiek aplikagarriak direla dioen alegazio orokor baten bitartez dokumentazio klinikoa jakin bat ikusteko eskaera ukatu.
- Zundu diren pertsonen senideek egiten dituzten eskaerak ebatzi baino lehen senideak direla egiaztatuta behar da. Horrez gain, hil den pertsonak datu horiek eskuratzeko berriazko debekua ezarri ote zuen egiaztatuta behar da.

2.

Azterlanak

2013. urtean, 2012an hasitako azterlan hau argitaratu da:

Krisiaren eragina haurren: EAEko errealitatea



Krisiak herritarren bizi baldintzetan eta pobrezia tasetan eragina dauka, baina eragin hau ez da berdina izan herritar guztientzat. Haurren taldea pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arrisku gehien duenetako bat da, haren mende-kotasun ekonomikoa, soziala, parte-hartzailea, legala eta politikoa dela-eta. Horrez gain, eragin hori beste kolektibo batzuetan baino oharkabeagoan pasatzen ari da. Eta bistakoagoa egiten laguntzeko, hain zuzen, Arartekoak **krisi ekonomikoak haurren duen eraginari buruzko azterlan** bat aurkeztu zuen 2013ko urtarrilean.

Azterlanak guztira **58 adierazle** jorratzen ditu, 7 eremutan taldekatuak, azken urtekoetan krisi ekonomikoak EAEko haurren ekonomia- eta gizarte-arloko eskubideen baliatzeari zuzenean nola eragiten dion agerian jartzen dutenak. Hainbat datu:

- **15 urtetik beherako 35.000 haur** (% 11,7) baino gehiago euren oinarrizko beharrak ase ahal ezin izateko **arriskuan** dauden etxebizitzetan bizi dira. Krisia hasi zenetik, **arriskuan dauden adingabeen kopuruak % 2,6 egin du gora.**
- Beste lurralde eremuetako datuekin zuzenean parekatzeko aukera eskaintzen duten adierazleek azaltzen dutenez, pobrezia larriko egoeretarako ezarritako atalasetik (batez bestekoaren % 40) beherako diru-sarrerak dituzten familietan bizi diren 15 urtetik beherakoaren proportzioa **% 3,5etik % 6,2ra pasa da 2008tik 2012ra.** Pobrezia erlatiboko tasak (batez bestekoaren % 60ko atalasea kontuan hartzen duena) estatuko (% 25,9)batez bestekotik dezente beherago dagoen balioa dauka, baina 15 urtetik beherako herritarren % 16,1i eragiten dio une honetan.
- Adingabeak dituzten familietako batzuek **pobrezia-rako arrisku berezia dute:** guraso bakarreko familiak, atzerriko nazionalitatea duen pertsona baten mendeko familiak, kualifikazio baxuko edo 35 urtetik beherako burua duten familiak.
- **Familien % 8 inguruk kide aktibo guztiak langabezian** ditu.
- Egun arte, **diru-sarrerak bermatzeko errentaren sistemak** EAEko **pobrezia-tasak eusten aldeko eragina** izan duela dirudi.
- Gutxienez 2 egunetan behin proteinak dituen janariaren bat izateko aukera ez duten familien ehunekoak gora egin du.

Gabezia materialen ondorioz, haurrak etorkizuneko desabantaila eta zaurkortasun egoeran daude, euren gara hezkuntza, gizarte eta laneko garapenean eragina izan dezakeena. Horregatik, ezinbestekoa da haurrak kontuan hartzea gure gizarteak pairatzen dituen erronken aurrean erabakiak hartzerakoan, ez soilik euren garapen eta ongizatearengatik, baita gizarte guztiarenarengatik ere, etorkizuneko kostea garestia izan baitaiteke (herritarren eskumen maila murriztea, produktibitate gutxiago, langabezia-tasa handiagoak, babeserako sistemaren koste handiak, hezkuntza eta osasun sistema urritzea, etab.)

3.

Txosten bereziak

3.1. 2013an argitaratutako txostena

Euskadin, e-inklusioari eta, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez, gizartean eta eremu publikoan parte hartzeari buruzko txosten berezia

Gaur egun, IKTak, gure bizitzen osagarri edo zati bat izatetik, gure bizitzetan zeharka eta modu iraunkorrean sartzera igaro dira. Presente daude eskolan, lanean, administrazioekiko eta banku-erakundeekiko harremanetan, ondo pasatzeko eta komunikatzeko dugun eran... Hainbestera daude presente, non lan-hipotesi hau onartzera garamatzen: gure egungo gizartean, gizarte-bazterketa sortzen duten faktoretzat har liteke teknologia horiek ez ezagutzea eta ez erabiltzea.

Bestalde, eguneroko bizimoduak argi eta garbi erakusten digu aspaldiko formulak ez dutela emaitza onik ematen arazoak konpontzeko garaian. Krisi orokorreko eta ezinegon sozialeko testuinguru honek agerian jartzen du badirela erronka berri eta zaharrak, eta erronka horiek jarduteko modu berriak behar dituztela, eta herritarrek parte hartzea ere beharrezkoa dela.

Pertsonak ahalduz digitalaren fase edo aldi batean edo bestean daudela kontuan hartuta, hainbat eten digital daudela esan dezakegu. Gai hori izango da txosten honen egituraren eta horren analisiaren bizkarrezurra.

Horrela, honako eten digitalak geureganatu ditugu gure txostenean:

- Sarbidearen eten digitala.
- Erabilera-eten digitala.
- Eskuratzeko eten digitala.
- Partaidetza-eten digitala.

2013an argitaratu den txosten berezi horren bidez, Ararteko erakundeak euskal gizartearen eskutik gaur egungo IKTen erabilera eta eskuratzeko mailaren egoera ezagutarazi nahi du, bai eta gizartean eta eremu publikoan IKTen bidezko parte hartze maila ere.

Bertako 41 **ondorioetatik batzuk** aipatuko ditugu:

- Irisgarritasunaren arabera eten digitala ezin da oraingoz gaituztat hartu: euskal familien % 34,2k ez du interneteko konexiorik.
- IKTen erabilera dagokionez, Euskadin egondako bilakera jarraitua izan da, izan ere, euskal herritarren % 65,3k internet erabiltzen du.
- Eskuratzeko aukeraren arabera eten batoratzen badugu, harrigarria da Euskadin internet erabiltzen duten herritarren % 13,5ak uste duela interneten edo IKTen erabilera ez diola hobekuntza zehatzik eskaini haren bizitzan.
- Euskal herritarren arabera IKTen eragin positiborik handienak honakoak izan dira: erakundeak herritarrengana hurbiltzea, bizi-kalitatea hobetzea eta herritarrek erakundeetan izandako parte-hartzea handitzea.

- Esparru publikoan parte hartzeko motibazioei buruz hitz egiten dugunean % 27k besterik ez du aipatzen erabakietan parte hartzea horretarako motibazio gisa; herritarren % 33,6k uste du haren parte-hartzea ez dela oso erabilgarria.

Txostenaren azken xedea da herri-administrazioei egindako gomendioen (guztira 39) agiri bat garatzea. Egindako ikerketan oinarritua dagoen agiri horrek, IKTen bidez, euskal gizartearen e-gizarteratzea eta gizartean zein eremu publikoan parte hartzea jorrazteko erronka eta ildo estrategiko berriak mahaigaineratuko ditu.

3.2. 2013. urtean egiten ari diren txosten bereziak

2013. urtean zehar dezente aurreratu da bi txosten bereziren prestaketa:

- **EAEn, askatasuna kendu dieten pertsonen buruko osasunak jasotzen duen arreta sozio-sanitarioaren egoerari buruzko txostena**



Urteak dira, Euskadin preso bizi diren pertsonen buruko osasuna haien eskubideen alde lanean diharduten kolektiboan eta Ararteko erakundearen kezka nagusietakoa dela. Espetxeetako biztanleriari buruzko azterlan askok agerian utzi dute preso bizi diren pertsonen buruko osasuna nabarmenki narriatzen dela. Buruko gaitzak dituzten, droga mendetasunarekin zailtasunak edota buruko ezintasunak dituzten pertsonak ugaritzen dira. Era berean, osasun arreta ematen dien sistemak gabeziak dituela hauteman da.

Txostenaren helburua zera da: preso dauden pertsonen egoera ezagutzea, euren buruko osasunaren egoerari dagokionez; espetxe bakoitzean arreta sozio-sanitarioa emateko baldintzak ezagutzea; osasun arretarekin eta, espetxetik ateratzerakoan, gizarte arretarekin lankidetzak hitzarmenak edo koordinazio mekanismoak eta presoan eskaera eta beharrak ezagutzea, euren buruko osasunean eragina duen edozein zailtasun barne.

Gainera, 2011ko uztailaren 1az geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu du Estatuko administrazioaren eginkizun eta zerbitzuen eskualdatzea espetxeetako osasunaren arloan, eta, hortaz, alderdi hori aintzat hartu beharra dago txostenean, izan ere, Euskadi da bere Osasun

Zerbitzuan espetxeetako osasuna osorik sartu duen lehenbiziko autonomia erkidegoa. Horrela, Osakidetza oinarritako arretarako bere eskualdeetan txertatuta dituen osasun zentro bihurtu ditu bere osasun-zentroak, eta erreferentziako ospitale bat dute, diagnosi- eta terapeutika-zerbitzu guztiekin.

Modu berean, Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailaren menpeko barneratze-zentroetan sartuta dauden adin txikiko enkaeren eta beharren azterketa bat egingo da txostenean.

- EAEn familiak babesteko politika publikoaren egoerari buruzko txostena

Familiei laguntzeko politika publiko horiek bultzatu eta indartzeko asmoz, Ararteko erakundeak azterlan bat hasi du, argitu nahi baitu arlo horretan zer politika publiko dauden, baita euskal familiek zer premia eta eskari dituzten eta zenbateraino dauden pozik oraingo laguntza-politikekin.

Kontu honekiko hurbilpena, zentzu zabal batean, egun arte familiak babesteko bideratutako **neurri publiko** azterlanaren bidez abiatu behar da.

Horretarako, **familia eredu ugari** daudela kontuan hartu beharra dago, amak aitak eta seme-alabek osatutako ohiko familia ereduaren barneratu ezin daitezkeenak.

Azterlanaren bidez, halaber, euskal familiek duten babes-maila **gure Europako inguruko beste erreferenttekin** alderatzen da.

4.

Arartekoaren udako ikastaroak



EHUko XXXII. Udako Ikastaro barruan, Donostiako Miramar Jauregian Ararteko erakundeak antolatutako ikastaro bat egin zen, *Pertsonen eskubideak babestea finantza-erakundeekin dituzten harremanetan* izenburukoa.

Azken urteotan, gure gizartea nozitzen ari den krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioz, esku lotuta ikusten ari gara zenbait herritar izugarriko ahultasun eta babesgabetasun egoeran daudela, bai finantza-produktuak edo finantza-zerbitzuak erosi dituztelako, bai bankuen jardura batzuek kontrolatu gabeko ondorioak sortzen dituztelako, familiaren bizitzan eragin handia dutenak. Egoera hori ezin larriagoa bihurtzen da hipotekak betearaztean eta ohiko etxebizitza galtzean.

Arartekoak arazo horren gaineko eztabaida piztu nahi du, kontzeptu-ikuspegi hau abiapuntu hartuta: banku-zerbitzuak interes orokorreko zerbitzuak al dira? Ikuspegi aprioristiko horretatik begiratuta, administrazioaren esku-hartzeak zuzena behar du izan, horren gaineko araudia eta kontrol eraginkorra barne direla.

Era berean, Estatuak ziurtatu behar du herritarrek kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dituzten eskubideak legez babestuta egongo direla. Ziurtatu behar da banku-kontratazioak berekin dakartzan betebeharrak guztietan beteko direla oinarrizko eskubide horiek.

Gainera, etxebizitza izateko eskubidea Konstituzioan babestutako eskubidea dela kontuan hartuta aztertu behar da hori guztia. Horregatik, ezusteko gertakarien baten ondorioz etxebizitza galtzen bada, hipoteka betearazi delako, administrazioak zenbait neurri abiarazi behar ditu oinarrizko eskubide horri eusteko.

Horretarako, hizlari garrantzitsuak izan ditugu ikastaroan. Hasteko, Fernando Zunzunegui jaunak kontsumitzaileen eskubideak babestu eta baliatzeko araudia zertan den azaldu zuen: ikuspegi juridikotzat jotzen den hori.

Jarraian, Carmen Gallastegi andreak ikuspuntu ekonomikoa ekarriko zuen, baina familien egoerarekin eta gizarte-ekonomiarekin lotuta.

Edmundo Rodríguez Achuteguik defentsa jurisdikzionalaren ikuspegia azaldu zuen, banketxeen zerbitzu eta produktuen kontsumitzaileen eskubideei dagokienez.

Bukatzeko, mahai-inguruak ikuspuntu osagarriak eskaini zizkigun:

- Justizia administrazioan eskumenak dituen administrazio autonomikoaren ikuspegia, Manu Valín Justiziako zuzendariaren eskutik, eta etxebizitza sustatzearen ikuspuntua, Mario Yoldi etxebizitza sustatzeko arduradunaren eskutik. Horrela aztertu ahal izan genuen zer tresna jarri diren abian herritarrek babesteko, baita etxebizitza izateko eskubidea benetan gauza dezaten ahalbidetzeko ere.
- Rafael Richen ikuspegia. Giza eskubideen arloan abokatu ekintzailea da eta Stop Desahucios Córdoba-ko defendatzailea. Gainera, aparteko eskarmentua du banketxeen sektorean.
- Ararteko erakundearen ikuspegia, María José Fernández de Landaren eskutik. Ogasun arloko arduraduna da eta

oso ondo ezagutzen ditu finantza-erakundearen produktuak. Arartekora etortzen direnek azaltzen dizkiguten arazoetara hurbildu gintuen.

Ikastaroan emandako hitzaldiak 2013ko abenduan [argitaratu](#) dira.

5.

Arartekoaren jardunaldiak

5.1. Jardunaldia: informazioa eskuratzeko eskubidea, herritarren eskubide gisa



Arartekoak jardunaldi bat egin zuen maiatzaren 6an, Bilboko Yohn jauregian, izenburu honekin: **Informazioa eskuratzeko eskubidea, herritarren eskubide gisa: hedabideen eta gizarte zibileko erakundearen eginkizuna.**

Ponentzia nagusia Access Info Europe-eko zuzendari exekutibo Helen Darbshire andreak eman zuen. Ondoren, mahai-ingurua egin zen, parte-hartzaile hauekin: Lucía Martínez Odriozola Kazetarien Euskal Elkarteko presidentea, Carlos Barcina –Arartekoko ingurumen arloko koordinatzailea eta Joserra Ortiz txipio Bai elkarte ekologistako partaidea.

Informazioa eskuratzeko eskubidea oinarrizko eskubidea da eta estu lotuta dago informazio-askatasunarekin eta botere publikoa gauzatzean funtsezkoak diren printzipio batzuekin, adibidez, gardentasunarekin eta parte-hartze eraginkorrarekin. Eskubide hori giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean aitortu dute, Europar Batasunaren eremuan, baita gure inguruko herrialde gehienetako legerietan ere.

2008an Europako Kontseiluak nazioarteko lehen ituna onartu zuen arlo horretan: hain zuzen, Informazioa eskuratzeko

eskubideari buruzko Europako Ituna. Espainiak oraindik ez du itun hori berretsi. Oraingoan, autonomia erkidegoan edo Estatuan ez dago legeriarik informazio publikoa eskuratzea herritarren eskubide gisa babesten duenik.

Iñigo Lamarca arartekoak bere mintzaldian adierazi zuenez, *“informazioa eskuratzeko eskubidea funtsezko osagaia da demokrazia ireki eta parte-hartzaile baterantz urratsak egiteko. Administrazio egokiaren printzipioak exijitzen du botere publikoak, beren eginkizunak betetzean, herritarren demokrazia-kontrolpean jar daitezten. Gizarte informatua gizarte eska-tzailea eta zorrotza da, bere eskubideak zaintzeko eta gartzeko borrokatzen duena”*.

5.2. Eudelek eta Arartekoak antolatutako lan-jardunaldia, gazteen lonjen erabilera arautzeko udal jardueren gainean

Arartekoko hainbat teknikari, baita ehunen bat euskal udalerri-tako ordezkari politiko eta tekniko ere, EUDEL-en egoitzan bildu ziren azaroaren 14an, Bilbon, gazteen lonjen erabilera arautzeko udal jarduerak aztertzeko lan-jardunaldian.

Topaketa horretan, EAEn burutu diren hainbat udal jarduerari buruzko erreferentziazko adibideak ezagutarazi zaizkie euskal udalei, gazteen lonjen erabilera arautu eta antolatzeko, horiek hiri-ingurunera egokitzeko eta erabiltzaile gazteen eta auzokideen elkarrekin arteko bitartekaritza egiteko. Gasteiz, Portugalete, Abanto-Zierbena, Gernika-Lumo eta Elgoibarko udal-tako ordezkariak mahai-inguru batean parte hartu dute, gainontzeko udal-erri horietako esperientzietako batzuk azaltzeko.

Orain azaleratzen ari den errealitatea da gazteen talde batzuek merkataritza-lonjak erabiltzea elkartzeko eta aisialdi-rako lokal bezala. EAEn egindako zenbait azterlanetan azaltzen denez, lokalen erabilera hori elkartzeko eta aisiarako lehenetsuneko toki gisa sendotzen ari da euskal gazteen artean.

Fenomeno horrek eztabaidak sortu ditu gai honen gainean: nola bateratu daiteke, modu egokian, aisialdiko jarduerari ingurumenaren kontrolarekin, segurtasunarekin eta lokale-tako arriskuak prebenitzearekin, alde batetik, eta hiri-inguru-ko auzokideen komunitatearekin duten harremanarekin, bestetik.

Gai horiek denak zehazki aztertu ahal izateko, Arartekoak ofiziosko espediente bat hasi zuen. Informazioa eskatu zuen gazteen aisialdiko jarduerari hasi berri horren testuinguru soz-ial eta juridikoaz, baita arlo horretan udalek jarduteko dauz-katen aukerez ere, gai horretaz irizpide eta printzipio orokor batzuk ezartzeko.

Jardunaldi horretan lortutako ekarpenak Arartekoak presta-tuko duen ondorio-txosten batean aztertuko dira.

6.

Beste jarduera batzuk

6.1. Arartekoaren Informazio-guneak egoitza publikoetan

Arartekoak euskal herritarrei egiten duen lanaren berri emate-ko zereginarekin jarraitzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztiek jakin dezaten erakunde honek zein zerbitzu publiko eskaintzen duen, eta nola izan dakie-keen erabilgarri. 2009an, Arartekoak informazio-kanpaina bat hasi zuen, hau da, EAEko udal-txetan informazio-gune batzuk jarri zituen, eskultura baten antzeko euskarri bat, kartoi-harrizkoa, erakundearen inguruko informazio interes-garriarekin (zer den, zer egiten duen, noiz jo Arartekoarenga-na, nola aurkeztu kexa bat...).

Lehenengo fasean, informazio-gune horiek EAEko udal bakoitzean jarri ziren, ikus daitezkeen eta normalean jendea askotan ibiltzen den tokietan. Bigarren fasean, informazio baliabideak hiru foru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako bulegoetara bidali ziren.

Ararteko erakunde euskal gizarteari hurbiltzeko eta gauza-tzen dituen zereginak gehiago eta hobeto ezagutzera emate-ko, ekimen berri bat jarri da martxan: **dibulgazioko aldizkari bat** bidaltzea informazio-guneetara, hain zuzen. Modu labur eta entretenigarrian azaltzen du Arartekoak urtean barrena gauzatu dituen jarduerari batzuk (txosten bereziak, gomendio-ak, kexak eta kontsultak...).

6.2. Aldizkari digitala

Arartekoak etengabe egiten du apustu modernizazioaren alde, baita herritarrei egiten dugun lanaren berri emateko bideak hobetzearen alde ere, eta, horri esker, 2013an **“e-albistek”** aldizkari digitala sendotu da. Oso tresna erabilgarria da herri-tarrei erakunde honek gauzatzen dituen jarduerari guztien ber-ri emateko. Bi hizkuntzatan argitaratzen da eta erraz irakur-tzen da. Aldizkari honen formatua malgu da, eta, bertan, Arartekoaren jarduerari garrantzitsuenetako batzuk jasotzen dira: gomendioak, artikulak, argitalpenak, ebazpenak...

Informazio eguneratua eskaintzeaz gain, aldizkari digita-lak, era berean, zuzeneko esteken bitartez **web** orriko bes-te eremu batzuetara sartzeko aukera ematen du; adibidez, Haur eta Nerabeentzako Bulegora, arreta publikoko kolekti-boetara, ebazpenetara, gomendioetara, ohiko txostenetara eta ezohiko txostenetara.

Gobernuz kanpoko erakundeak eta gizarte zibil antolatua buletin honen xede garrantzitsua dira, baita herri-administra-zioak, komunikabideak eta Arartekoak egiten duen lanaren informazio eguneratua izan nahi duten herritar guztiak ere.



**Gizartearekiko
harremanak
eta erakundeen arteko
lankidetzarako jarduerak**

a **v**

a t a l a

V. Atala

Gizartearekiko harremanak eta erakundeen arteko lankidetzarako jarduerak

1.

Gizarte erakundeekiko harremanak

Gobernuz kanpoko erakundeak eta antolatutako gizarte zibila, Arartekoaren ustez, euskal gizartearen arazoen begiak eta belarriak dira. Haien informazioari esker, jardunak hasten ditu ofizioz eta politika publikoen ebaluazio egiazkoagoa egiten du Arartekoak.

Arartekoaren erakundeetan beti baloratzen dugu elkarte horiek eta boluntarioek egiten duten lana. Gizarte esku hartzeko hirugarren sektorea, une honetan, Euskadin pertsonen eskubi-deen gizarte sistemaren bideragarritasunaren zutabeetako bat da. Orain bizi dugun krisialdi ekonomiko eta sozialean inoiz baino argiago ikusten dugu haien lana zein garrantzitsua den. Era berean, inoiz baino babes publiko handiagoa behar dute haiek beren baliabide ekonomikoei eusteko, horiei esker esku hartzen baitute gizartean. Bidezkoa da hori aitortzea eta gizartearen eta erakundeen aurrean hala aldarrikatzea. Gizarteak eta erakundeek laguntza eman behar diete egunetik egunera eta trukean ezer eskatu gabe beren lanarekin gizartearen eta baztertuen edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen arazorik larrienak beren gordintasun osoan ager daitezen galarazten dutenei. Bazterketa gero eta zifra kezkarriagoak lortzen ari da, eta gizarte-baliabiderik sekula jaso ez zuten pertsona askori eragiten ari zaie pixkanaka; horrela, eraldatzen ari da krisialdia piztu arte zegoen profila, hau da, pobrezia handian zeuden pertsonena.

Arartekoa pertsonak eta pertsonentzat asmatutako erakundea da, euskal administrazioak kontrolatzeko funtzioa herritarren arazoen arabera betetzen baitu. Horrek Arartekoak hiru planotan jardutea dakar:

- Salatutako administrazioak indarrean dagoen legeriaren arabera jardun duen egiaztatzea.
- Administrazioetan jardunbide egokia bultzatzea, herritarren eskubideei arreta hobea emateko eta tratu hobea eta eraginkorragoa emateko.
- Kasuan bitartekari lana egitea. Izan ere, askotan, administrazioak zuzen jokatu duen arren, gure esku hartzearekin, hurbileko tratua emanez, errealitatearen edo jardun den kasu zehatzaren ikuspegi ezberdina eskainiz edo araua modu malguagoan interpretatuz, pertsonen arazo zehatzak konpondu ahal izaten dira, edota berdintasun ezeko, babesik gabeko eta bidegabeko egoerak eragozten dira.

Eginkizun horiek bete eta lortu nahi diren helburuak lortu ahal izateko, gizarte-elkarteak ezinbesteko lankideak dira. Horregatik, Ararteko erakundeak 2013an hasi dituen hausnarketa estrategikoko prozesu guztietan (aliantzak kudeatzea, eragina ebaluatzea eta estrategia-plana), haien ikuspegia aintzat hartu da, hobetu beharreko alderdiei eta Arartekoaren lana egiteko moduari dagokienez.

1.1. 2013. urtean erakundearekin bilerak egin dituzten elkarteak eta taldeak

2013. urtean, Arartekoak gizarte eragileekiko harremana zaintzen jarraitu du bere ohiko jardunean. Batez ere, egoera txarrean dauden pertsonen laguntzeko edo askotariko gizarte arazoak konpontzeko lanean aritzen diren elkarte, erakunde eta taldeekin: giza eskubi-deen aldeko taldeak, atzeritarrei, presoiei edo baztertuta daudenei laguntzekoak, etxerik gabekoei laguntzekoak eta abar.

Urte hauetako esperientziak erakutsi digu, izan ere, erakunde eta talde ugari giltzarriak izan daitezkeela gure gizarteko sektore baztertuen edo oso ahulen eta Arartekoaren eta halako erakundeen arteko bitartekari lanetan; hala, beren eskubideen eta gatazkak konpontzeko bideen jakitunago egin ditzakete, beren aldarrikapenak adierazteko laguntza eman, administrazioei herritarrentzako zerbitzu arretatsua eman dezaten eskatu, eta, modu horretan, erakundeetan konfiantza handiagoa izateko eta gizarte kohesio handiagoa lortzeko modua egin.

Hala, 2012. urtean, Arartekoak lankidetzaren harremanak izan ditu, estuagoak edo ez hain estuak, honako elkarte, erakunde eta gizarte talde hauekin:

- ACABE
- AEK-KORRIKA
- AGI
- AGIPAD
- Amnistia Internazionala -LGTB
- Argilan
- Arrats Elkarte
- ASCUDEAN Mendeko adinekoak zaintzen dituzten familien Arabako elkarte
- ADAP elkarte
- Berriztu elkarte
- Gao Lacho Drom elkarte
- Izangai elkarte
- Libera Euskadi elkarte
- Lur Gizen elkarte (toxikomanien lantaldea)
- Susterra elkarte
- Zubietxe elkarte
- Zubiko elkarte
- Aupatuz
- AVATI- Nortasun nahasmendua duten pertsonentzako eta haien familientzako euskal elkarte
- Bidesari
- Cáritas
- CEAR
- Arabako HIESaren Kontrako Batzordea
- UPV/EHUko Ikasle Kontseilua
- Gurutze Gorria
- EKA-OCUV
- ELA
- Eleak
- Erne
- Etxerat
- FEVAPAS
- Frijale
- ADSIS fundazioa
- ANAR fundazioa
- Etorkintza fundazioa
- Lagungo fundazioa
- Zubiok kabinetea

- GEHITU, ERRESPETUZ
- Giza Eskubideen Behatokia
- Haurren eta Nerabeen Soziologiaren Taldea (GSIA)
- Harrera
- Helduak Adi
- Herrera
- Hizkuntza eskubideen Behatokia
- IRESGI
- IRSE Bizkaia
- Kolore Guztiak elkarte
- Lectura Fácil
- Loiola Etxea
- Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Kartzela Pastoralta
- Paz con Dignidad
- Plataforma A-rekin
- Fracking Ez Araba plataforma
- Gizakia Helburu-Gizakia fundazioa
- Pobreziaren aurkako sarea
- Salhaketa
- Save the Children
- SEAVI
- SOS Arrazakeria
- Stop Istripuak
- Kaleratzeak Stop Gipuzkoa
- Ume Alaia

Txosten honetako [III. ataleko](#) arreta publikoko kolektiboen arloetako ataletan, erakunde horiekiko lankidetzari buruzko erreferentzia zabalagoak daude.

2.

Giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeen inguruko jarduerak

2.1. Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXVIII. Jardunaldiak

Iñigo Lamarca arartekoak, erakundeko ordezkari batzuekin batera, [Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXVIII. Jardunaldietan](#) parte hartu du, Lanzaroten, urriaren azken egunetan.

Foro horrek urtero biltzen ditu autonomia erkidegoetako defendatzaileak eta Espainiako defentsa-erakundea, honako xede hau lortzeko: esperientziak eta ideiak trukatea eta defentsa-erakunde guztien jarduera eta helburuekin zeriku-

sia duten alderdiez eztabaidatzea, baita gai eta arazo komu-
nak jorratzea ere.

Oraingo edizio honetan, *Ezgaituen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Ituna Espainian nola ezartzen den* anali-
zatu dute herriaren defendatzaileek. Halaber, urtean barrena
egindako prestakuntza-lantegietan ateratako ondorioak az-
tertuko dituzte.

Aurretiazko lan horretan, hainbat gai landu dira: Espai-
niako eta autonomia erkidegoetako legeria nola egokitzen
den Ezgaituen Eskubideei buruzko Hitzarmenera; enplegua
eta zerga sistema; irisgarritasuna eta oztupo fisikoak eta
komunikaziozkoak kentzea.

Jardunaldiok hiru gai nagusiren inguruan egituratu dira eta
gai bakoitza dagokion lan-mahaian jorratu da. Lehenbi-
zikoan, ezgaituen egoeraz mintzatu dira, ezgaituak legearen
aurrean aintzatespen bera izateaz, eta gaitasun juridikoaren
irudiaz; horiez gain, beste alderdi batzuk ere izan dira hizpi-
de: osasunerako eskubidea, sendagaiak doakoak izatea eta
Osasun Sistema Nazionalaren beste prestazio eta laguntza
batzuetarako sarbidea.

Bigarren lan-mahaian, eztabaida-gai izan dituzte hezkuntza
inklusiboa, gaikuntza eta errehabilitazioa, bizi-maila egokia
eta gizarte-babesa. Hirugarrenean, berriz, batez ere irisga-
rritasunean eta unibertsitateko irakaskuntzen diseinu uniber-
tsalean jarri da arreta, baita ere 2010-2020 aldirako Ezgaita-
sunaren gaineko Europako Estrategian.

Jardunaldi horietan erabaki zen 2014ko edizioa Euskadin
egingo dela, irailean, Ararteko erakundeak antolatuta.

2.2. Nazioarteko harremanak

– Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren urteko Batzarra

Iñigo Lamarca arartekoak **Ombudsmanaren Iberoame-
rikako Federazioaren (FIO) Urteko Batzarrean** parte hartu
zuen azaroaren 7an, Puerto Ricoko San Juanen, baita “Om-
budsmanaren eginkizun berria”ri buruzko Nazioarteko Min-
tegian ere.

Arartekoak egiten duen lana azaldu du Lamacrak, bereziki
gizarte-erakundeekiko harremanetan, gizarte-errealitatearen
diagnostikoa egitean eta politika publikoak ebaluatu eta
hobetzean.

Biltzar horretan, Emakumeen defendatzaileen FIOren sa-
rea elkartu da, Arartekoa parte-hartzaile dela, eta Federa-
zioaren XVIII. Biltzar Orokorra egin da. Arartekoa Zuzendarit-
za Batzordeko partaide da, espainiar Estatuko herriaren
defendatzaileen ordezkari gisa.

FIOk bere baitan hartzen ditu Iberoamerikako edo Lati-
noamerikako herrialdeetako herriaren defentsa-erakundeak,
Espainia, Mexiko eta Argentinako autonomia erkidegoetako
edo estatuko defentsa-erakundeekin batera.

– NBEko adituen bilera, “Giza eskubideak krisi garaian” hizpide hartuta



Giza Eskubideetarako Nazio Batuen goi mandatariak 2013ko
uztailaren 1ean antolatu zuen adituen bilera batera gonbida-
tu zuten Ararteko erakundeak, oraingo ekonomia-krisialdian
giza eskubideak zer egoeratan dauden baloratzeko.

Vienan bildu ziren Nazio Batuetako zenbait aditu indepen-
dente, giza eskubideen nazioarteko batzordeetako kide
batzuk, gizarte zibilaren zenbait ordezkari eta finantza-
erakundeetako eta giza eskubideen arloko Estatuko erakun-
deetako hainbat partaide, politika ekonomikoaren, finantza-
erregulazioaren, krisi ekonomikoaren eta giza eskubideen
arteko erlazioa aztertzeko asmoz.

Arartekoaren ordezkaritzak, bere mintzaldian, honako azter-
lanean egindako gomendio nagusiak azaldu zituen: “Giza es-
kubideak politika publikoan oinarri gisa krisi garaian” (2012).
Gomendio horien artean, hauexek azpimarra daitezke: na-
zioarteko estandar bermatzaileen arabera bermatu behar
da eskubide guztien edukia; berdintasuna defendatu behar
da, demokrazia-printzipio eta ekonomia-eragile bezala; in-
formazio publikoa eskuratzeko eta herritarrek modu aktiboan
parte hartzeko eskubidea bermatu behar da; eta botere pu-
blikoari gomendatzen zaie ebalua dezatela zer-nolako eragina
duten beren politika publikoak herritarren batez ere talderik
ahulenen eskubideetan.

– Nazioarteko II. Biltzarra: “Ombudsmana eta demokrazia”


Iñigo Lamarca arartekoa Madrilera joan zen 2013ko irailaren
26an, **Ombudsmana eta demokrazia** deritzan **Nazioarteko
II. Biltzarrean** parte hartzea. “Ombudsmana eta demokra-
zia: protagonisten ikuspegia” izeneko ponentzia eman zuen.

Halaber, Arartekoaren ondokoa, Julia Hernández andrea,
kongresu horretara joan zen eta bertan “Ombudsmanak de-
mokrazioaren birsokuntzara egindako ekarpena”ri buruzko
komunikazio bat aurkeztu zuen.

Biltzar hori Iberoamerikan Herriaren Defentsa-erakunde
Laguntzeko Eskualdeko Programaren barruan egingo da.
Proiektu horretan, Alcalako Unibertsitatea elkarlanean aritu
da Espainiako Herriaren Defendatzailearekin (30 urte bete
ditu jardunean), Ombudsmanaren Iberoamerikako Federa-
zioarekin (FIO) eta Lankidetzarako Alemaniako Agentziarekin.

Topaketa horren helburu nagusia Iberoamerikako Ombudsmanaren erakundea sendotzea da.

- Hakamada Iwao kasuari buruzko apelazioak



Arartekoak, hilero, apelazioak igortzen dizkie Japoniako hainbat agintariri (Justizia ministroa, lehen ministroa, fiskal nagusia eta espetxeko zuzendaria), Hakamada Iwaoren egoeraz duen kezka berri adierazteko. Hakamada Iwaok 77 urte ditu gaur egun eta horietatik 44 kartzelan daramatza noiz hilko zain. Seguru asko heriotzako korridorean denbora gehien daraman pertsona izango da mundu osoan.

Hakamada 1968ko irailean errudun jo eta heriotzara kondenatu zuten. Epaiketan adierazi zuenez, polizia jo eta mehatxatu egin zuen aitoren bat sinatzeko; hori guztia polizia 20 egunez interogatu ondoren. Galdeketetan ez zuen abokaturik izan. Hakamada kondenatu zuen epailetako batek 2007an publikoki adierazi zuen bere ustez Hakamada errugabea zela, baina bozketan gutxiengoa zela. Amnesty Internationalentzat kezagarria da 1980an, heriotza zigorra berretsi eta hilabete gutxira, Hakamada bere pentsaeran eta jokaeran gorabeherak erakusten hasi izana. Kartzelako agintariek ez diete ez bere legezko ordezkari ez familiakoei Hakamadari buruzko txosten medikorik ematen. Japoniako legediak dio buruko gaixotasunen bat duten presoak ez direla exekutatu.

Arartekoak igortzen dituen apelazioak Gipuzkoan Amnesty Internationalen Taldeak Hakamada Iwaoren kasuari buruz bultzatuko kanpainan sartzen dira, beste herrialde bazuatuko Amnesty Internationalen taldeekin koordinazioan.

- Noxolo Nogwazaren kasuari buruzko gestioak

Amnesty Internationalen sexu gutxiengoaren atalarekin elkarlanean, Arartekoak bi komunikazio bidali dizkie Hegoafrikako polizia agintariei, Noxolo Nogwazaren erailketa iker dezaten. LGTBen eskubidearen eta duintasunaren defendatzailea zen bera eta 2011ko apirillean hil zuten.

Azkenik, nazioarteko hainbat eremutan hasitako ekintza anitzei esker, epaile hegoafrikar batek adierazi du erailketaren erantzuleak izan badirela eta ikerketak aurrera egin behar duela. Kasu hori Epaiketa Publikoaren Zuzendariaren bulegora igorri dute: organo independentea da eta fiskal bat izendatu du Noxoloren familiaren alegazioak entzuteko.

3.

Arartekoak sinatutako hitzarmenak

- Hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin



Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako sailburu Josu Erkorekak eta Iñigo Lamarca arartekoak **lankidetzaren hitzarmen bat** sinatu zuten 2013ko urriaren 8an, teknika eta bitarteko telematikoen, informatikoen eta elektronikoen erabilera eta aplikazioa sustatzeko bi erakundeen arteko harremanetan.

Gobernuak eta Arartekoak konpromisoa hartu dute bien arteko agiriaren trukean eta harremanetan **ziurtagiri elektronikoa** erabiltzeko.

Hitzarmena abian jartzen denean, Jaurlaritzak Arartekoarekin dituen **hartu-emanen eraginkortasuna eta arintasuna hobetuko dira**. Hobekuntza garrantzitsua da kalitatezko zerbitzu publikoak bidezko epeen barruan eman ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak zein Arartekoak balio eta eraginkortasun juridiko bera emango diete sinadura elektronikoko aurreratua daukaten agiri elektronikoei zein eskuz egindako sinadura duten agiriari.

- Hitzarmena GSIA elkartearekin

2013ko irailaren 15ean, hitzarmen bat sinatu zuten Arartekoak eta Haurren eta Nerabeen Soziologiaren Taldeak (GSIA elkarte). Horren helburu nagusia jarduera hauetan zehazten da:

- Gizartea sentikorrago bihurtzea haur eta nerabeen eskubideen gainean. Eskubideok Nazio Batuen Haurren Eskubideen Hitzarmenean aitortuta daude.
- Haurren eskubideen eta haurren soziologiaren arloetan, profesionalak, gizarte-ikertzaileak eta etorkizuneko profesionalak etengabe trebatzea.
- Txostenak, azterlanak eta ikerketak egitea haurren eta nerabeen egoeraz eta bizi-baldintzez.

4.

Beste jarduera batzuk

Arartekoaren eta haren ondokoaren jarduerarik esanguratsuenak, hitzaldiak emateari dagokionez, eta administrazioek eta gizarte erakundeek antolatutako ekitaldietan parte hartzeari dagokionez

Baloreak eta giza eskubideak sustatzeko lanean, Arartekoaren erakundeak urte osoan zehar jarduera ugari gauzatu ditu, adibidez, gizarte-erakundeek antolatutako ekitaldietan parte hartzen du, giza eskubideekin lotutako gaien inguruko foroetan hitzaldiak egiten ditu, erakundearen helburuekin estuki lotuta dauden ekitaldi instituzionaletan esku hartzen du, etab.

Jarduera horien guztien katalogoa [web orrian dagokion atalean](#) kontsulta daiteke.

Ondoren, **Iñigo Lamarca arartekoak egindako jarduera batzuen laburpena** eskaintzen dugu:

- Urtarrilean, ASVE Asociación Solidaridad Vasco-Ecuatoriana deritzan elkarteak “Araba bizia” izeneko ekitaldia antolatu zuen, krisi garaiko bizikidetzaz eztabaidatzeko. Arartekoak bertan parte hartu zuen, Arabako gizarteko beste sektore batzuetako ordezkariekin batera.
- Otsailaren 7an Donostiako Rotary Club-en egindako afori-solasaldi batean izan zen. Bertan, krisi garaiko gizarte-eskubideak izan ziren hizketa-gai.
- Martxoan Sabadellgo Síndic municipal de Greugesekin eta Panteres Grogues elkartearekin bildu zen, Rainbow europar proiektuen berri emateko.
- Apirilaren 10ean, Andaluziako Herriaren Defendatzaileak eta Arartekoak Krisi Ekonomikoari eta Eskubide Sozialei buruzko alde biko II. Topaketa egin zuten, Sevillan. Gizartea babesteko sistemari eta adin txikikoei dagozkien berriarazko gaiak jorratu ziren bertan.
- Maiatzaren 10ean, arartekoak “Gizarteratzeko ditugun erronkak” izenburuko hitzaldia eman zuen Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Gipuzkoako Berritzeguneeen bitartez, antolatu zituen jardunaldi hauetan: *Hezkuntza Berritzapen Proiektuen XII. Jardunaldiak: eskola inklusiboak eraikitzen proiektuen bidez.*
- Maiatzaren 16an, arartekoak hitzaldi bat eman zuen Bartzelonan lesbiana, gay, bisexual eta transexualen (LGBT) eskubideen arloan egin diren aurrerapauso eta atzerapausoez. Hitzaldi hori GAG, ACATHI eta FLG erakundeek antolatu zuten eta Bartzelonako Udalaren laguntza izan zuen.
- Ekainaren 1ean, Gesto por la Paz koordinakundeak Bilbon egin zuen agur ekitaldian parte hartu zuen.
- Era berean, ekainean, HURKOA fundazioak antolatutako ikastaroan esku hartu zuen, honako izenburuko ponentziarekin: “EAEn buru-osasunari ematen zaion arreta, erronkak eta aukerak”.
- Transexualen Espainiako Elkarteak (AET-Transexualia) hainbat sari banatzen dizkie transexualen alde egindako lanagatik nabarmentzen diren pertsoneri eta erakundeei. Sari horietako bat jaso zuen arartekoak uztailean, Madrilan, norberaren konpromisoari emandako saria, hain zuzen.
- Irailaren 19an, **Sartu Fundazioak** bere 25. urteurrena ospatzeko antolatu zituen jardunaldiotan parte hartu zuen: “Gizarte inklusibo baten erronka”. Arartekoak hitzaldi hau eskaini zuen: “Krisi garaian, giza eskubideak inklusio-politikaren oinarri”.
- Irailaren 27an, Espainiako Herriaren Defendatzailearen 30. urtemuga oroitzeko ekitaldira joan zen eta ponentzia hau eman zuen: “Giza eskubideak babesten dituzten erakundeen geroko erronkak”.
- Urriaren 4an Donostiako Udalak antolatutako jardunaldi hauetan parte hartu zuen: “HERRITARRAK ETA PARTAIDETZA POLITIKOA. Beharrezkoa al da herritarrek udal esparruan zuzenean parte hartzea?”. Arartekoak ponentzia hau eskaini zuen: “Partaidetza politikarako eskubidea bermatzea”.
- Urriaren, *Helduen Hitza-La Voz de los Mayores* elkartearen ekimenez, arartekoak hitzaldi hau eman zuen Donostiako Aieteko Kultura etxean: “Adinekoak gizarte berri baten aurrean”.
- Azaroan, “Hirugarren sektorea Estatu sozial berriaren euskarri” izenburuko ponentzia eman zuen **Boluntariotzaren Udazkeneko XVIII. Eskolan**. Eskola hori Espainiako Boluntariotzaren Plataformak antolatu zuen, Madrilgo Erkidegoko Boluntariotzaren Erakundearen Plataformarekin (FEVOCAM) elkarlanean.
- Abenduan, **Patologia Dualari buruzko Euskadiko IV. Jardunaldiak** itxi zituen. Jardunaldiok Galdakao-Usansolo ospitaleak antolatu zituen Bizkaiko Buru Osasunaren Sarekoa baita.

Hona hemen **Julia Hernández Arartekoaren ondokoak** egin dituen edo partaide izan den ekitaldirik esanguratsuenak:

- Maiatzaren 30ean, genero-indarkeriaren kontrako II. Biltzar Nazionalean esku hartu zuen Bilbon.
- Ekainean, Emakumeen Eskubideen Auzitegiari buruzko saioetan parte hartu zuen. Saio horiek Bizkaiko Abokatuaren Elkargoak antolatu zituen.
- Irailaren 25etik 27ra Ombudsmana eta demokrazia deritzan Nazioarteko II. Biltzarra egin zen Madrilan. Bertan, autonomia erkidegoetako herriaren defendatzaileen aldeko hitzaldi hau eman zuen: “Más es más”.
- Azaroaren 11n eta 12an, “Generoagatikoko jazarpena eta asilo eskubidea. Emakumeak joan-etorrian” gaiari buruzko II. Biltzarra egin zen Bizkaiko Abokatuaren Elkargoan. Hango mahai-ingurua aurkeztu zuen eta moderatzailean egin zituen. Biltzar horren bidez, salerosketaren biktima diren eta Espainiara iristea lortzen duten Saharaz hegoaldeko emakumeen errealitatea aztertu nahi zen.
- Azaroaren 26 eta 27an, Valedor do Pobok honako jardunaldi hau antolatu zuen Santiagon: Nerabeen arteko genero-indarkeria. Teknologia berriak tresna gisa. Arartekoaren ondokoa bertan izan zen.
- Orobat, abenduaren 3an, Bilboko Arenalean izan zen, Ezgaituen Nazioarteko Egunean. Ekitaldi hori Ezgaitu Fisikoen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak (FEKOOR) antolatu zuen.

Arartekoaren
berrikuntza
iarduerak

a t a l a

VI. Atala

Arartekoaren berrikuntza jarduerak

Arartekoak, eskubideak bermatzeko erakunde gisa, irmoki eutsi dio 2013. urtean bere apustuari: alegia, bere ohiko funtzionamenduan eta estrategian, etengabe hobetzeko, berritzeko eta gizarteari adi entzuteko helburuak ezartzea. Bere antolaketako alderdi estrategiko horiek, bi noranzkotan dituzte ondoreak. Barruranzko ondoreak: antolaketa hobetzea, kalitateko metodologia sartzea eta eraginkortasun handiagoa lortzeko tresnez hornitzea; eta kanporanzkoak: baliabideak antolatzea, bere lanaren hartzaille diren erakunde, talde eta pertsonekin modu aktiboagoan lankidetzan aritzeko.

Ararteko erakundeak, halaber, berrikuntza eskaera gisa barneratu du bere lana zabaltzeko moduan teknologia eta metodologia ezberdinen bidez eta, batez ere, herritarrekiko eta erakunde sozialekiko informazio eta lankidetzaren tresnak burutzean, gizartearekin jarduteko bitartekoak eta formatuak birpentsatuz.

Arlo horretan Arartekoak 2013. urtean zehar garatu dituen proiektuak tipologia ezberdinekoak dira.

1.

Lankidetzak-proiektuak



- Arartekoaren mapak

Arartekoak 2012ko abenduan abiarazi zuen geografian kokatzeko eta, parte hartuz, mapak eratzeko proiektu hori, eta horretan elkarlanean aritu dira herritarrak, elkarteak, herri-administrazioak eta Arartekoa bera. Urtebete geroago, eskuragarri dago deskargatzeko eta telefono mugikorretan erabiltzeko, bai Android sistema eragilerako, bai IOSrako ere.

2014ko lehen hilabeteetan jendaurrean aurkezteko asmoa dago.

Tresna horrekin eta software askean garatutako teknologia bati esker, aukera ematen da, internet bidez (aurrerantzean, baita dispositibo mugikorren bidez ere), mapa bisual eta interaktibo batera sartzeko. Mapa horrek erabilgarritasun handiko informazioa eskaintzen du aniztasun funtzionala duten pertsonentzat garraio publikoen sistemetara fisikoki, psikikoki edo sentzorialki iristeko (Arartekoaren Txosten Berezian egindako diagnostik lortutako informazioa), Erkidegoko liburutegi publikoen inguruan (**Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak** eskainitakoa) eta baliabide turistikoetarako buruzkoa (**Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailak** eskainitakoa).

Interneten ikusgai dago <http://mapak.ararteko.net/> helbide publikoan, software askean egindako aplikazio informatiko baten bitartez, eta doan deskarga daiteke, informazioa eta datuak formatu irekietan dituela.

sareArarteko



Gizarte sareak

■ 2013. urtean **SareArarteko** sendotu egin da komunikatzeko barneko gizarte-sare moduan, batik bat Ararteko Bernetik-en bidez. Barneko informazioa antolatzeko eta dinamizatzeko aukera eskaintzen du, eta erakundearen ezagutza partekatua bultzatzen du.

■ **Arartekoa Twitterren:** Arartekoak presentzia aktiboa du **Twitterren** (@Ararteko). 2013 amaieran Arartekoak 2.655 jarraitzaile zituen eta berak 1.764 lagun, organizazio eta erakunderi jarraitzen zien.

Twitterri esker, herritarrekin elkarreragin aktiboa dago, eta Arartekoaren ikerketen eta ebazpenen ondoriozko funtsezko mezuak hedatzen dira.

Foro medio ambiente
<http://blogak.ararteko.net/ingurumena/>

■ 2013an **Ingurumenaren Foroa** arlo honetan sortzen ari den informazioa hedatzeko tresna garrantzitsu gisa finkatu da, baita honi lotuta Arartekoak esaten dituenak hedatzeko ere, eta bereziki ingurumenaren defentsako elkarre eta erakunde erreferenteekin harremanak izateko eta elkarre eta erakunde horietara gerturatzeko; ingurumen arloko informazioa eskura izate eskubidearen eremuan egindako ekarpenak eta lankidetzak azpimarratzen dira.

rights Through
alliances:
innovating and
networking
both
within
homes
and
schools

- RAINBOW HAS proiektuaren bloga

RAINBOW HAS proiektua (2013-2014) **RAINBOW proiektuaren** (2011-2012) jarraipena da. Bi proiektuok Ararteko erakundeak koordinatu ditu eta **Europako Batzordearen Justiziako Zuzendaritza Nagusiak** aldi berean finantzatu ditu, "Oinarrizko eskubideak eta herritarrak" programaren esparruan.

RAINBOW HAS proiektuak blog bat dauka Arartekoaren web orrian eta, horren bidez, **sakon aztertu nahi da haur eta nerabeek hezkuntza arloan sexu-aniztasunerako dituzten eskubideen egoera, berori hobetzeko asmoz.**

2.

Izaera estrategikoa eta antolakuntzazkoa



– Arartekoaren plan estrategikoa burutzea

2013ko lehen sei hilabetean, batez ere parte hartzeko hausnarketa estrategikoa egiten jarri du arreta Ararteko erakundeak. Horri esker, bere eginkizuna, ikuspegia, balioak, ildo eta helburu estrategikoak adostu ahal izan dira, osoko agintemahaia lortu arte. Bertan laburtuta daude 2013 eta 2014rako programaturako ekintza guztiak (eskuragarri dago Arartekoaren webean).




– Arartekoari ardura zaizkion taldeen pertzepzioa aztertu da

Arartekoaren lanak duen eraginaren ebaluazioa ardatz nagusizat hartuta, azterlan sistematiko bat garatu du, jakin nahi baitu Arartekoaren ardurako taldeek (administrazioa eta gizarte-erakundeak) zer pertzepzio duten ingurumen arloan eta Haurren Bulegoarenean, Arartekoarekin izan duten harreman-esperientziari dagokionez. Azterlan hori erabilgarri dago Arartekoaren web orrian eta horri esker zehaztu ahal izan dira Arartekoaren indarguneak, oro har egin den balorazio ona, baita hobetu beharreko arloak ere. Azken horiek berriazko ekintza-plan batean gauzatu dira.

3.

Izaera teknologikoa



– Ekintza-planak egiteko prozesua ezarri da Arartekoaren lan-prozesuak kudeatzeko tresnan

Ekintza-planak (Arartekoaren lan-arlo bakoitzerako berariaz garatu dira txosten honen II. eta III. kapituluetan) plangintza eta barruko koordinazioa egiteko tresna baliotsua bilakatu dira. Prozedura berriz diseinatu eta gero, prozesu hori iaz ezarri zen. Arlo bakoitzean egindako jarduerak guztiak ezagutzeko aukera ematen du eta kexen, kontsulten eta ofiziozko jardueren prozesuan sartuta dago.

4.

Etengabeko hobekuntza/kalitatea/berritzea



– Arartekoaren zerbitzu karta aldatu da

Arartekoa bat dator Europako Kontseiluak Agiri Publikoak Eskuratu ahal izateaz sinatu zuen hitzarmeneko ikuskerarekin. Bere ustez, erakunde guztiak gardentasun handieneko irizpideak ezarri behar dituzte beren kudeaketa-lanean, eta herritarrei informazioa eman behar diete.


Printzipio horiek eta gardentasun- nahiz informazio-jarduera horiek ezartzeko asmoz, indarreko legeriak berekin dakartzan betekizunez harago joanda, Arartekoak hauxe erabaki du joan den urriaren 10ean emandako [ebazpen](#) batean: proaktibotasun goreneko irizpide gisa onartzea Arartekoaren web orriari informazio publikoa ematea, eta, horrez gain, zerbitzu karta berritzea, bertan sartu nahi baitu herritarrek informazioa eskuratzeko duten eskubidea eta hori baliatzeko modua.



- ARCO eskubideak

Arartekoak, legez eman dizkioten eginkizunak betetzeko orduan, erakunde honetara laguntza eske etortzen diren datu pertsonalak biltzen eta tratatzen ditu. Tratamendu hori indarreko legerian ezarritako jarraibideen arabera egiten da eta datu horiek dauzkaten fitxategiak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan adierazita daude.

ARCO eskubideak izenekoak (Datuetan Sartzeko, Zuzentzeko, Ezereztzeko eta Aurka egiteko eskubideak) arautzen dira araudi horretan. Horien bitartez, pertsona fisiko eta juridikoei bermatzen zaie beren datu pertsonalak kontrolatu ahal izango dituztela eta beren ohorea eta intimitatea nahiz beren familiarena babestu ahal izango dutela. Eskubideok **Arartekoaren webaren bitartez balia daitezke, edo beste edozein bide erabiliz.**



- Hobetzeko beste proiektu batzuk: gomendio orokorrak egitea, ikuskapen-bisitak, bilerak kudeatzea, administrazioekin eta gizarte-erakundeekin elkarlanean aritzea, e.a.

Ararteko erakundeak 2013an garatu dituen barruko nahiz kanpoko hausnarketa-prozesuen ondorioz, oinarritzko lan-prozesu guztiak berraztertu eta hobetu dira, kexa- eta kontsulta-prozesuak izan ezik, horiek iaz egin baitziren.

Beraz, prozesu horiek metodologia homogeneous hornitu dira, indartu egin dira administrazioekin eta gizarte-erakundeekin ditugun harremanak eta, aldi berean, barruko lankidetzaz erraztu da.

- Ingurumena hobetzeko sistema

Arartekoaren eguneroko jardunak –gizakiaren edozein jardunek bezalaxe– inguruan eragiten du, eta alderantziz, eta ingurumen-inpaktuak sortzen ditu; horretaz jabetuta, 2011. urtean, Ingurumena Kudeatzeko Sistema ezartzea erabaki genuen, Ekoscan arauari jarraiki. Kudeaketa-sistema horren bitartez, urteotan kutsadura prebenitzea barneratu dugu pixkanaka, gure erakundearen beste kudeaketa-faktore bat bezalaxe eta, horri esker, ingurumenarekin dugun portaera hobetu dugu egunetik egunera.

Ingurumena kudeatzeko sistema hori kanpoko erakunde ziurtagiri-egile batek ikuskatu du abenduan. Horren ondoren, IHOBE Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren Elkartea Publikoaren ziurtagiria lortu dugu, zeinak ziurtatzen baitu Ingurumena Kudeatzeko gure Sistema bat datorrela erakunde honen sustaturiko Ekoscan arauarekin.

Gure erakundeak ingurumenaren kudeaketa hobetzeaz harago, honako hauek dira ingurumenaren arloan orain arte lortu ditugun lorpen nagusiak:

- Gutxitu egin dugu paperezko argitalpenen kopurua, aleak zentuz banatuz eta argitaratzeko baliabide digitalak gehiago erabiliz. **Ohiko txostenetan erabili den paperaren kopurua % 96 murriztu da.**
- **Kontsumitzen dugun paperaren % 100k Europako ekoetiketa du, eta FSC iturri mistoen etiketa;** horrek esan nahi du paperaren jatorrian eta ekoizketan kontuan hartu direla ingurumen arloko betekizunak.
- **Erabili eta botatzeko plastikozko edalontzien kontsumoan 3.800 ale murriztu ditugu** eta botilaratutako uraren kontsumorik gehienaren ordean, txorrotako ura erabiliz dugu.
- Garbitasun eta argitalpen **zerbitzuak kontratatzerakoan ere ingurumenari lotutako irizpideak** sartzen hasi gara.

2014. urteari begira, ingurumenaren kudeaketa-sistema horren testuinguruan, jarduera berrien plangintza egin dugu dagoeneko, **bai materialen, bai energiaren kontsumoan.** Horri esker, gure ingurua zaintzen laguntzen jarraituko dugu.



– Arartekoaren argitalpenak hobetzea

Arartekoak formatu elektronikoarekin lan egitearen alde egin du apustu, bere argitalpen guztiak hedatzeko formatu onena eta erreferentea hori delakoan. Hala eginez gero, nabigagarria izango da atal guztietan, eta bilatzaile baten laguntzarekin nahi den informazioa aurkitu ahalko da, esteka bidezko sarrerekin, pasahitza edo administrazioak, araudia

eta halako erreferentziak sartuta. Horrek bide ematen du webguneko arlo jakin batzuk beste web gune batzuekin, beste erakunde batzuekin eta abarrekin lotzeko.

Web guneari erantsitako formatu elektroniko berri hori hainbat euskarritan kontsulta eta deskarga daiteke: pdf-n, eta baita formatu irekietan ere: html, xml, csv; horiei esker, errazago erabil daiteke web orrialdeko [datu irekien](#) ataletik abiatuta, eta, modu horretan, herritarrek libreki berrerabili ahal izango dituzte.

Hain zuzen ere, berrerabiltzeko aukera horren informazioa emateko, [creative commons lizentzia](#) erantsi da Arartekoaren ondoz ondoko edizio eta argitalpenetan. Lizentzia horrekin, txosten horiek berrerabiltzeko aukera ematen da.

Paperezko formatua kendu egin da argitalpen guztietan (ohiko txostenean izan ezik; horrentzat, oso ale-kopuru mugatua mantentzen da, erakusgarri gisa).

Erabaki horiek Arartekoak orain duen filosofian biltzen dira, hau da, bere onurarako zein beste erakundeen onurarako informazioa berriz erabiltzea erraztea eta baliabideak herri-tarrekin partekatzea.



Arartekoaren gomendioak eta iradokizunak

zenbateraino bete diren

a t a l a

VII. Atala

Arartekoaren gomendioak eta iradokizunak zenbateraino bete diren

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legeak –otsailaren 27koak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoari dagokio: *“Dagokien ihardutze-sailei, herri-lanariei edo hoi en lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriako egintzak zuzentzen edo Arduralaritza-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko”* (sic).

Horregatik, kekek aztertzean administrazioaren jokaera ez dela zuzena izan ondorioztatzen dugunean, gomendio edo iradokizun bat bidaltzen diogu kekek eragindako administrazioari, bere jokaera alda dezan eskatzeko.

Gomendioak ordenamendu juridikoa urratu dela, legez kontra jokatu dela edo hutsegite larria izan dela ikusten denean egiten dira eta, horien bidez, delako jarduera berrikusteko eskatzen zaio kasuan kasuko administrazioari. Formula honen pean egiten dira, orobat, legeak bete behar dela gogorarazteko oharrak.

Iradokizunak, aldiz, honelako kasuetan egiten dira: eragindako administrazioak legeei jarraiki jardunda ere, eskubi-deak babestearren edo administrazio egokia bermatzearren, beste era bateko jarduera behar denean. Kategoria honetan barneratzen dira, orobat, administrazio bakar bati zuzenduta dauden eta kexa-espeditente jakin batekin zerikusia duten arau aldaketako proposamenak ere.

Hala ere, adierazi nahi dugu beti ez dela beharrezkoa izaten gomendia edo iradokizuna egitea. Askotan, administrazioak bere jokaera jakin bati buruzko informazioa eskatzeko idazkia jaso eta bere jokaera legezkontasunarekin bat ez zetorrela egiaztatu ondoren, bere jokaera ez dela zuzena izan aitortzen du, luzamendutan ibili gabe, eta kezagileari urratutako eskubidea berrezartzen dio. Arazoak konpontzeko modu honen bidez, ez da beharrezkoa gomendio edo iradokizun bat beren-beregi egitea; horri esker, irregularitasunak antzeman

diren administrazio-jardueretatik % 97,24 gomendio edo iradokizun egin gabe konpondu dira.

Egindako gomendio eta iradokizunak betetzeari dagokionez, azpimarratu beharra dago 2013. urtean egindako 85etatik eta 2012ko txosteneko datuen arabera erabakitzeke zeuden beste 28etatik, 25 onartu egin direla; 38 ez direla onartu eta 50 erantzunaren edo azken erabakiaren zain daudela.

2012an bezalaxe, aurten ere egiaztatu da dezente igo dela gizarteratze arloan egindako gomendioen kopurua. Dirusarrerak Bermatzeko Legearen ondorioz sortu ziren prestazio ekonomikoen gainean espeditente asko bideratu direlako gertatu da hori. Gomendio horiek bereziki Lanbideri eragin diote.

Emaitza horiek aintzat hartzean, ezin dugu ahaztu erakunde honek egindako gomendio edo iradokizunak ez direla lotesleak eta, ondorioz, limurtzea edo pertsuasioa besterik ez dugula laguntza eskatu diguten pertsonen egoera juridikoak konpontzen saiatzeko.

Horregatik, aipatu nahi dugu erakunde honek garrantzi handia ematen diola administrazio publikoetara bidaltzen dituen erabakiak behar bezala arazoitzeko beharrari, batez ere erabaki bat edo esku hartzeko irizpide batzuk aldatzeko eskatzen denean. Beti esan izan dugu behartzeko gaitasunik ez izateak ahalegin dialektiko handiagoak egitera behartzen gaituela, gure analisisietan sakontzera, desadostasun juridikoak egiaztatzerantz eta gure argudioak errepikatzerantz, gure gomendioak eta gogorarazteko oharrak betetzeko orduan bidegabeko aitzakiak jartzen direla ikusten dugunean.

Beti onartu dugu Ararteko erakundeak administrazio jokaera bat aldatzea gomendatu edo iradokitzen duenean, administrazioak ez duela zertan onartu gomendioaren eta/edo iradokizunaren interpretazio juridiko hori, eta ados ez egoteko arazoak zeintzuk diren argudia dezakeela.

Batzuetan, eragindako administrazioak ez du adierazten gomendioa edo iradokizuna onartzen duen ala ez. Kasuok bestelako balorazioa merezi dute, eta halakoetan, erantzunik ezak gomendioa edo iradokizuna ez betetzeko asmoa estaltzen duela susmatzen da, eta, hortaz, administrazioari adierazten zaio erantzunik ez emateko jarrerari eusten badio, ez onartuzat joko dela gomendioa edo iradokizuna, eta zertzelada hori jakinaraziko dela Legebiltzarrari egiten zaion urteko txostenean.

Espedienteak bukatzeko beste modu desegoki bat zera da: eragindako administrazioak gomendioa ez onartzea eta bere ezezkia oinarritzeko argudio nahikorik ez ematea.

Egoera horrek kezkatzen gaituenez gero, berriz ere adierazi beharra daukagu horrelako jokaerek urratu egiten dutela Eusko Legebiltzarreko erakunde ordezkari gisa eman dizkiguten eginkizunak onartzea. Era berean, gure iritziz, jokae-ra horiek begirunerik eza erakusten dute Zuzenbideko Estatuak arazoak konpontzeko eman duen tresnetako bat erabiliz beren eskubideak aitor diezazkieten eta legeria bete dadin erakunde honetara babes eske etorri diren herritarrekiko. Ildo horretan, gogorarazi behar da onartu gabeko gomendio edo iradokizun bakoitzak, erakunde honen bermatze lanerako oztopoa izateaz gain, batez ere legea ez betetzen edo herritarren eskubideak urratzen jarraitzea dakarrela berekin, herritarrei legez dituzten eskubideak berrezartzea galaraziz.

Ohi bezala, atal honetan aipatuko dugu zein egoeratan dauden 2013an egin ditugun gomendio eta iradokizunak, baita 2012ko abenduaren 31n azken erantzunaren zain zeudenak ere. Aipamen hori hiru kategoriatan banakatutako gomendioen azaleko deskribapena baino ez da izango. Hiru kategoriak honako hauek dira: 1) Administrazioak onartu dituenak; 2) Administrazioak onartu ez dituenak, 3) txosten hau amaitutakoan, administrazioaren behin betiko erabakiaren zain daudenak.

Ebazpen guztiak, oso-osorik, gure web orrialdean kontsulta daitezke.

■ **Arartekoaren 2013ko apirilaren 4ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio Eskola 2.0 hezkuntza programara sartzeko baldintzak berrikus ditzan eta programa hori garatzeko irratzi-maiztasunen igorpen-mailak murrizteko aukera eskaintzen duten neurriak ezar ditzan.
1100/2011/23 espedientea

■ **Arartekoaren 2013ko urriaren 28ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio berrazter dezan eskaera honi buruz hartutako erabakia: 2013-2014 ikasturterako ikasleen onarpen-prozesuan aurkeztutako onarpen-eskaera.
1820/2013/QC espedientea

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

■ **Arartekoaren ebazpena, 2012ko abenduaren 4koa.** Horren bidez gomendatzen zaio, 2013rako gizarte larrialdietarako laguntzetan jasotako gastu espezifiko bakoitzeko gehienezko zenbatekoak ezartzen dituen aginduaren onespenerari dagokionez, 2011ko abenduaren 28ko Aginduan ezarritako irizpideak berrikus ditzan.
14/2012/43O espedientea

■ **Arartekoaren ebazpena, 2013ko urtarrilaren 14koa.** Horren bitartez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren ukapen bat berriro azter dezala, motibazioan akats larria egon baita.
1222/2012/43 espedientea

■ **Arartekoaren, 2013ko martxoaren 1eko ebazpena.** Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak "Etxebizitza Hutsaren Programa" (Bizigune) delakoan gaineratutako etxebizitzak, horien errentamendua amaitu ondoren, euren jabeen itzultzean etxebizitzek izan behar duten egoera zehazten da.
851/2011/34 espedientea

■ **Arartekoaren 2013ko irailaren 9ko ebazpena.** Horren bidez gomendatu zaio aplikagarriak diren arauetan jasotako baldintza guztiak betetzen dituen eskatzaile bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eman diezaion.
2434/2012/46 espedientea

Osasun Saila

Osakidetza

■ **Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 23koa.** Horren bidez gomendatzen zaio nortasun nahasmendu larriak dituzten pertsonen arreta emateari lotutako neurri orokor batzuk eta eragindako gazte baten arretaren gaineko beste neurri berezi batzuk har ditzan.
1063/2012/39 espedientea

Segurtasun Saila

■ **Arartekoaren ebazpena, 2012ko irailaren 28koa.** Horren bidez gomendatzen zaizkio espetxez kanpoko ospitaleko arreta jasotzen duten presoek zaintzari dagokionez irizpideak, intimitaterako euren eskubidea zaintze aldera.
1142/2012/32 espedientea

1.

Onartutako gomendioak eta iradokizunak

A) EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

■ **Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 29koa.** Horren bitartez gomendatzen zaio dagozkion neurriak har ditzan behar bereziak dituen adingabeak hezkuntzako laguntzaile espezialista baliabidea edukiko duela bermatze aldera. Adingabe horri bere familiaren etxebizitzatik gertu dagoen ikastetxe hitzarmendunean matriculatzeko baimena eman diote.
893/2012/20 espedientea

B) FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Zerbitzuen Saila

- **Arartekoaren 2013ko irailaren 19ko ebazpena.** Horren bidez (...) adingabearen legezko tutorea denez, tutore iza-teak eta osoko arreta eskaintzeak berekin dituen betebeharrak bete ditzala inolako salbuespenik gabe, erregulazio administratiboa lortzekoak barne.
1999/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 19ko ebazpena.** Horren bidez (...) adingabearen legezko tutorea denez, Arabako Probintzia Fiskaltzan premiamenduzko kontsulta egin dezala fiskaltzaren dekretuan adierazitako adina eta Kamerunek Madrilen duen Enbaxadan ondoren emandako pasaportearen ageri den jaioteguna ez baitatzen bat.
2005/2013/QC espedientea

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Nekazaritza Saila

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 27koa.** Horren bidez hiri kaioen populazioa kontrolatzeko plan baten hitzarmena sustatu dezan.
1751/2012/23 espedientea

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua

- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 19ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio futbolearen aritzeko espazio publikoetan eta, bereziki, Kontxako hondartzan, neurriak har ditzaten eta txapelketa maskulinoak eta femeninoak berdintasun irizpideei jarrai joka daitezen.
506/2013/QC espedientea

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UDALAK

Gasteizko Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko ekainaren 29koa.** Horren bidez gomendatzen zaio garraioaren erabiltzaile guztiak informazio sistema baliatzen dutela bermatzeko beharrezko neurri guztiak har ditzala. Hartara, ikusmen urritasuna dutenek Gasteizko hiri garraioaren zerbitzua modu normalizatuan, autonomoan eta seguruan erabiltzea bermatuko da.
2324/2011/17 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 11ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio erantzuna eman diezaion lokal baten irisgarritasun araudiaren eta baldintza higieniko-sanitarioen betetzea ikuskatzeko egindako eskaera bati.
2396/2012/23 espedientea

BIZKAIKO UDALAK

Berangoko Udala

- **Arartekoaren 2013ko uztailaren 5eko ebazpena.** Horren bidez iradokitzen zaio beharrezko neurriak har ditzan, aisialdiko gazte-lokalek sortutako eragozpenak saihesteko.
1400/2012/28 espedientea

Elorrioko Udala

- **Arartekoaren 2013ko uztailaren 3ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio beharrezko neurriak sustatzea, lokal partikular batean kontserbazio-, higiene- eta osasungarritasun-betebeharrak betetzeko.
735/2013/QC espedientea

Erandioko Udala

- **Arartekoaren 2013ko maiatzaren 31ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio har ditzala bidezko neurriak (...) pub. tabernak eta herriko jaietan pubaren inguruetan ipintzen den plataformak eragozpen gehiagorik sor ez dezaten.
136/2013/QC espedientea

Plentziako Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2011ko uztailaren 15koa.** Horren bidez gomendatzen zaio, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioari jarraituz, hiri horretako Zubi Zuri deritzon zubiaren pasabidean era iraunkorrean ikusgai jarritako laminak genero ikuspegitik berrazter ditzala eta, ondorioz, hautatutako argazki eta testuak ordezkari ditzala, emakumeek hiriko bilakaera sozial, kultural eta ekonomikoan izan duten presentzia esplizituki islatzen duten beste batzuk ipinita.
1271/2010/30 espedientea

GIPUZKOAKO UDALAK

Donostiako Udala

- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 19ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio futbolearen aritzeko espazio publikoetan eta, bereziki, Kontxako hondartzan, neurriak har ditzaten eta txapelketa maskulinoak eta femeninoak berdintasun irizpideei jarrai joka daitezen.
1760/2013/QC espedientea

Hondarribiko Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko uztailaren 24koa.** Horren bidez gomendatzen zaio Jaizkibel Konpainiak 2012ko Hondarribiko Alardearen antolamenduari dagokionez egindako eskaerari esleitutako sarrera erregistroaren zenbakia zuzendu dezan erregistroan sartu zeneko errealitatera egokituz eta datorren irailaren 8ko jai-ekintzen eta ekintza horien aurretiko entseguen antolamenduan Jaizkibel Konpainiak egindako eskaera beste batzuekiko nagusituz.
100/2012/30 espedientea

Legorretako Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2013ko urtarrilaren 17koa.** Horren bidez gomendatzen zaio (...) tabernak eragindako kalteak saihesteko neurri egokiak har ditzan eta jarduera horri, albait lasterren, ingurumeneko legeria bete dezala eska diezaion.
656/2012/28 espedientea

Zumaiako Udala

- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 15eko ebazpena.** Horren bidez gomendatu zaio industria poligono baten mugakide den urbanizazio batean zarata kontrolatzeko araudiaren betetzea egiaztatze aldera dagozkion neurriekin aurrera jarrai dezala.
1950/2011/23 espedientea

Zumarragako Udala

- **Arartekoaren 2013ko urriaren 1eko ebazpena.** Horren bidez etxebizitza-erakin bateko hezetasun-araioak konpontzeko beharrezko neurriak hartzeko gomendatzen zaio.
2696/2012/29 espedientea

D) BESTE ERAKUNDE PUBLIKO BATZUK

Bizkaiko Doako Laguntza Juridikoaren Batzordea

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 28koa.** Horren bidez gomendatzen zaio doako justiziaren eskari bat ukatu zuen erabakia ondorioz gabe uzteko, baita beste berri bat era dezan, eskatzaile honi onura hau onartzea bideratzeko.
1561/2012/32 espedientea

Interpreteak ordezkatzeko izangaia denak, administrazioan eginiko erreklamazioari emandako tratamendua berrikustea gomendatzen zaio, baita deirik jaso ez izanagatik egin ez zuen zerbitzu-aldiari dagokion puntuazioa aintzatetsi diezaiola ere.
788/2013/QC espedientea

HABE

- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 18ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio hizkuntza proben espedienteetan bideak ireki ditzan agiriak eskuratzeko eskubidea bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izateko.
1543/2012/18 espedientea

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 12koa.** Horren bidez gomendatzen zaio 2010eko azaroaren 3ko agindua baino lehenagoko araudiaren bidez erregulatutako alokairu publikoen prezioak modulatu daitezzen arazoizkoagoak izan daitezzen, errentaren urteroko eguneratzean mekanismo zuzentzaile egokiak ezarri.
1120/2011/34 espedientea
- **Arartekoaren, 2013ko otsailaren 18ko ebazpena.** Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak "Etxebizitza Hutsaren Programa" (Bizigune) delakoan gaineratutako etxebizitzak, horien errentamendua amaitu ondoren, euren jabeen itzultzean etxebizitzek izan behar duten egoera zehazten da.
884/2011/34 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko maiatzaren 7ko ebazpena.** Horren bitartez gomendatzen zaio berriro aintzat har dezan arrazoi faltagatik bideratutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren irautzeak.
1868/2012/43 espedientea

Osasun Saila

- **Arartekoaren 2013ko irailaren 25eko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio paziente bati sendagai baten finantzazioari begira emandako ukoa berrikusteko; izan ere, gaixo honen benetako beharrezan eta premia bestelako patologia batean kontuan hartu den berbera da eta azken hori finantzatu egiten da.
2161/2013/QC espedientea

2.

Onartu ez diren gomendioak eta iradokizunak

A) EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 15koa.** Horren bidez Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko langile batek eskatutako batezintasunagatik eszedentziaren adierazpen bati buruzko kexa-espedientea amaitzen da.
1285/2011/33 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 27ko ebazpena.** Horren bidez, kexa aurkeztu duenak, Zeinu Lengoiaren

B) FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Ingurumen eta Hirigintza Saila

- **Arartekoaren ebazpena, 2013ko otsailaren 19koa.** Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailari gomendatzen zaio balora dezala urbanizazio gisa sailkatutako lurzoruan eraikin bat jasotzeak duen interes publikoa, Sentikortasun Kimiko Anizkoitzaren sindromea duen pertsona bat han aldi batean tratatzeko.
1522/2012/23 espedientea

Gizarte Zerbitzuetako Saila

- **Arartekoaren ebazpena, 2011ko azaroaren 14koa.** Horren bidez gomendatzen zaio hainbat agiri onar ditzala benetako egoitzaren baldintza betetzearen egiaztagiri gisa. *888/2011/43 espedientea*
- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 30ekoa.** Horren bidez gomendatzen zaio eraginik gabe uzteko pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio ekonomikoen ordainketa eten eta zorra eskatzen dion ebazpena eta pertsona horri aitortzeko etenaldian jaso ez duen zenbatekoa kobratzeko eskubidea. *1577/2011/31 espedientea*
- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 30ekoa.** Horren bidez gomendatzen zaio eraginik gabe uzteko pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidearen etetea eta jaso ez dituen zenbatekoak kobratzeko eskubidea onar diezaion. *2093/2011/31 espedientea*
- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko ekainaren 4koa.** Horren bidez gomendatzen zaio pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestaziorako eskubidea ukatuz ebazpena ondorioz gabe utz dezan. *2269/2011/31 espedientea*
- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko urriaren 17koa.** Horren bidez gomendatzen zaio hainbat agiri onar ditzala benetako egoitzaren baldintza betetzearen egiaztagiri gisa. *1153/2012/43 espedientea*
- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 27koa.** Horren bidez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskatzailearen etxebizitzan prestazioa jasotzen zuen titular bakarreko bizikidetzaren unitate bakarra zegoela kontuan hartzea. Ondorioz, laguntza ukatzen duen ebazpena ondorioz gabe utz dezan eta prestaziorako eskubidea onar diezaion, gainontzeko baldintzak betetzen baditu. *1920/2012/01 espedientea*
- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko abenduaren 10ekoa.** Horren bidez gomendatzen zaio baliorik gabe utz ditzala gizarte-prestazioen etendura bat eta oker jasotako kopuruengatik sortutako zor bat, formazko akats larriak direla-eta. *1165/2012/43 espedientea*

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ekintza Saila

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 28koa.** Horren bidez gomendatzen zaio, gutxienez hamabi hilabetetan zehar, beste hamabiz luzatzeko aukerarekin, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa mantentzea onar berezitateko bizikidetzaren unitate bati. *2219/2011/46 espedientea*
- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 13ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen dio pertsona batek ohiko etxebizitza eskuratzeko jaso duen dohaintza ekonomiko errentatzen edo diru-sarreratzen har ez dadila, ordaindutakoaren arabera ez den pentsioaren ondorioetarako. *610/2012/01 espedientea*

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UDALAK

Artziniegako Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2013ko martxoaren 8koa.** Horren bidez gomendatzen zaio La Dehesako bide publiko delakoari lotutako espedientea prestutasunez izapidetu dezala. *748/2012/29 espedientea*

Iruña Okako Udala

- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 11ko ebazpena.** Horren bidez salgai arriskutsuen tangen barneko garbiketako jardueran ingurumen araudia urratu izanagatik salaketari erantzun diezaioa gomendatu zaio. *1590/2011/23 espedientea*

Guardiako Udala

- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 26ko ebazpena.** Horren bidez etxebizitza mugakide batean eguzki-energia atzitzeko sistema bat instalatu izanagatik salaketa bati erantzun diezaioa gomendatu zaio. *1784/2012/23 espedientea*

Laudioko Udala

- **Arartekoaren 2013ko irailaren 23ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio jabetza pribatu baten sestra gaineko erabilera publikoaren ondoriozko betebeharrak beregain har ditzala. *928/2011/29 espedientea*

Erriberagoitiako Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2013ko otsailaren 19koa.** Horren bidez iradokitzen zaio eraikin bat erabilera publikotzat jotzeko adierazpena baloratu ondoren, lizentzia-eskaera ebatz dezala eta, hala badagokio, udalerrian lurzorua erreserbatzea susta dezala, Sentikortasun Kimiko Anizkoitzaren sindromea duen kolektiboarentzako laguntza-ekipamenduak bertan kokatzeko. *618/2013/QC espedientea*

Urkabustaizko Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 22koa.** Horren bidez gomendatzen zaio eta gogorarazten zaio bere titularrari isilpeko jarduera baten legalizazioa eskatu behar diola eta eragindako auzotarren babeserako kautelazko neurriak hartu behar dituela. *588/2008/28 espedientea*

Gasteizko Udala

- **Arartekoaren 2013ko abuztuaren 30eko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio sinatutako kontratua bete dezala eta "...” erakusketaren katalogoa argitaratu dezala. *2381/2012/29 espedientea*

BIZKAIKO UDALAK

Barakaldoko Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 27koa.** Horren bidez iradokitzen zaie hiri kaioen populazioa kontrolatzeko plan baten hitzarmena sustatu dezan.
2644/2012/23 espedientea

Elorrioko Udala

- **Arartekoaren 2013ko uztailaren 5eko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio hirigintza-araudia urratzeagatiko isun bat ondorerik gabe uztea.
144/2013/QC espedientea

Gamiz-Fikako Udala

- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 14ko ebazpena.** Honen bidez gomendia egiten zaio udal-talde bati eskuordetutako udal-zeregina garatu ahal izateko beharrezkoa duen informazioa eman diezaion eta konfiantzazko langileen izendapena berrazter dezan.
2250/2012/29 espedientea

Gatikako Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2013ko martxoaren 6koa.** Horren bidez gomendatzen zaio partikularrei osoko bilkurak grabatzeko baimena eman diezaion.
2446/2012/29 espedientea

Sestaoko Udala

- **Arartekoaren 2013ko maiatzaren 15eko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio barne dekoratzaile eta diseinatzaileek hainbat proiektu idatzi eta zuzentzeko duten eskumena aitortu dezan.
1766/2012/29 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 6ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio eroldari lotutako hainbat praktika legezkotasunera egoki ditzan.
182/2013/QC espedientea

GIPUZKOAKO UDALAK

Astigarragako Udala

- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 5eko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio Ergobia auzoan kokatuta dauden (...) jardueraren sustatzaileari ingurumeneko legeria bete dezala eska diezaion.
2099/2011/23 espedientea

Azpeitiko Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko otsailaren 7koa.** Horren bidez gomendatzen zaio (...) tabernak eragindako kalteak saihesteko neurri egokiak har ditzan eta jarduera horri ingurumen legezkotasuna betetzea eska diezaion.
1347/2011/28 espedientea
- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko apirilaren 23koa.** Horren bidez gomendatzen zaio (...) tabernak eragindako kalteak saihesteko neurri egokiak har ditzan eta jarduera horri ingurumen legezkotasuna betetzea eska diezaion.
773/2011/28 espedientea

Lazkaoko Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2013ko martxoaren 25koa.** Horren bidez gomendatzen zaio ofizioz balio gabetu ditzala hexagileari bi ibilgailuren gainean bidali zizkieten 2009, 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldietako TMIZen ordainagiriak, izan ere, ekitaldi horietan, ibilgailu horien zirkulazio-baimenetan ez zen agertzen Lazkao udalerria titularraren bizileku gisa.
2332/2012/22 espedientea

Mutrikuko Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko urtarrilaren 16koa.** Horren bidez gomendatzen zaio eta gogorazten zaio bere titularrari isilpeko jardura baten legalizazioa eskatu behar diola eta eragindako herritarren babeserako kautelazko neurriak hartu behar dituela.
1853/2011/28 espedientea
- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 20koa.** Horren bidez gomendatzen zaio establezimendu batek eragindako kalteak saihesteko neurri egokiak har ditzan eta jardura horri ingurumen legezkotasuna bete dezala eska diezaion.
1515/2009/28 espedientea

Tolosako Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko ekainaren 18koa.** Horren bidez gomendatzen zaio (...) sozietate gastronomikoak eragindako kalteak saihesteko neurri egokiak har ditzan eta jardura horri ingurumen arloko legezkotasuna betetzeko eska diezaion.
358/2012/28 espedientea

Zumarragako Udala

- **Arartekoaren ebazpena, 2013ko otsailaren 26koa.** Horren bitartez gomendatzen zaio lursail baten gehiegizko aprobetxamenduagatik igorritako balorazioa eta ondorengo likidazioak bertan behera utzi ditzala.
1194/2012/23 espedientea

3.

Erabaki gabe dauden gomendioak eta iradokizunak

A) EUSKO JAURLARITZA

Herri Administrazio eta Justizia Saila

- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 29ko ebazpena.** Horren bidez Justizia Administrazioaren erabiltzaileei arreta hobea eskaintzeko hainbat neurri hartzea gomendatzen dio.
1916/2013/QC espedientea

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasun Saila

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 19koa.** Euskal herri administrazioek Gran Enara aztarnategian apurketa hidraulikoaren sistemaren bidez hidrokarburoak esploratzeko eta ondoren erauzteko proiektuan izandako esku-hartzeari buruzkoa.
74/2011/230 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 17ko ebazpena.** Horren bidez iradokitzen zaio salgai arriskutsuen zisternak barrutik garbitzeko jardueraren kontrolarekin jarraitzeko.
1086/2013/QC espedientea

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

- **Arartekoaren 2013ko maiatzaren 28ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio berriro azter dezala "Victoria-Gasteiz" Arte eta Goi Mailako Diseinuko Eskolako irakasle batzuen egoera.
2684/2012/20 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 27ko ebazpena.** Horren bidez, gomendioa egin zaio Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroaren jarduketari buruz.
2299/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 19ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio Donostiako Arte Ederren eraikina kultur ondasun izendatzeko espedientea hasi dezan.
2805/2013/QC espedientea

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

- **Arartekoaren 2013ko urtarrilaren 10eko ebazpena.** Horren bitartez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren ukapen bat berriro azter dezala, motibazioan akats bat egon baita.
1894/2012/43 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko otsailaren 20ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta jakin bat berriro abian jar dezala eta Lanbidezko zortuen zenbatekoak ordaindu ditzala.
2228/2012/43 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko otsailaren 27ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio berriro aintzat har dezan arrazoi faltagatik bideratutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren etete bat.
1064/2012/43 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 16ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren ukapen bat berriro aintzat har dezan.
2333/2012/43 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 30eko ebazpena.** Horren bidez Lanbideri gomendatu zaio berriaz ebatzi dezala enplegu autonomoa sustatzeko diru-laguntza eskaera bat.
889/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 13ko ebazpena.** Gomendio bat egiten diona, diru-sarrerak bermatzeko errenta bat eta etxebizitzarako prestazio osagarri bat kentzeko ebazpena, egitate-bidetik hartua, ondorioz gabe utzi dezan.
2887/2012/43 espedientea

- **Arartekoaren 2013ko uztailearen 4ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta baten suntsiarazpena ondorioz gabe utzi dezala.
2209/2012/43 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko uztailearen 30eko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio ondorioz gabe utzi dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta baten eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren ukapena, horretarako ziorik ez dagoelako.
2537/2012/43 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko abuztuaren 23ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio ondorioz gabe utzi dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta baten iraungipena babesik gabeko egoera eragin duten forma-akats larriak jazo baitira.
544/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko abuztuaren 27ko ebazpena.** Horren bidez hauxe gomendatzen: betebehar bat ustez urratu zen egunera eraman dezala diru-sarrerak bermatzeko errentari eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzko espediente bat, alegazioak egin ahal izateko, izan ere, akatsak egon dira motibazioan eta ez dira behar bezala bete prozedura-arauak.
162/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko abuztuaren 27ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio kautelaz etendako diru-sarrerak bermatzeko errenta berrabiaraz dezan eta kautelazko neurri horiek jakinaraz ditzan.
1291/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 9ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio ondorioz gabe utzi dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta baten eta etxebizitzarako prestazio osagarri baten iraungipena ez baitago hala jarduteko arrazoirik.
1112/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 12ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta bat berrabiaraz dezan, ofiziozko berraztertze prozedura bat hasi dela alde batera utzita.
1318/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 10eko ebazpena.** Horren bidez diru-sarrerak bermatzeko errenta baten etenaldia bertan behera uzteko gomendatzen zaio hura justifikatzen duen ziorik ez dagoelako.
2707/2012/43 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 14ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio sarrerak bermatzeko errenta baten azkentzea ondorioz gabe utzi dezala, motibazioan erroreak daudelako.
1450/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 15eko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio berriro azter dezala benetako bizilekuaren baldintza galdu izanagatik Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta bat suntsiaraztea.
2835/2012/43 espedientea

- **Arartekoaren 2013ko urriaren 31ko ebazpena.** Horren bidez, prestazioak ukatzeko ebazpen bat bertan behera uzteko, jarduera interesdunak agiriak aurkeztu zituen unera atzera eramateko eta dagozkion atzerakinak ordaintzeko gomendatzen da.
1999/2012/39 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 26ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio berrius dezan kexagileari Eskatzaileen Erregistroan baja emateko ebazpena, ez delako egiazaturik geratu esleitu zitzaion babes ofizialeko etxebizitzari uko egin zionik.
2159/2012/34 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 5eko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta baten horri dagozkion Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren etetea, arazoirik gabea izateagatik eta prozedura-arauak bete ez izanagatik.
2038/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 10eko ebazpena.** Horren bitartez, espedientea diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatu zen unera atzera eramateko eskatu zaio Lanbideri.
2115/2013/QC espedientea

Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila

- **Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 19koa,** euskal herri administrazioek Gran Enara aztarnategian apurketa hidraulikoaren sistemaren bidez hidrokarbonoak esploratzeko eta ondoren erauzteko proiektuan izandako esku-hartzeari buruzkoa.
74/2011/230 espedientea
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 23ko ebazpena.** Horren bidez, Ingurumen Sailak ingurumen-informazioaren eskaera bati emandako erantzuna agerian jartzen da.
1943/2013/QC espedientea

Osasun Saila

- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 11ko ebazpena.** Horren bidez, Gurutzetako Laguntza Psikosozialeko Moduluaren Elkarateak eta hiru erabiltzailek hasitako kexari buruzko jarduera bukatzen da, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari zenbait hobekuntza neurri bultzatzeko gomendatuz; izan ere, kexa hori egin zen osasun administrazioak elkarrekin horrekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmena berritzeko asmorik ez zegoelako eta horrek moduluaren itxiera ekar zezakeelako.
1436/2012/39 espedientea

Osakidetza

- **Arartekoaren 2013ko urriaren 16ko ebazpena.** Horren bidez 1541/2012/39 kexa espedientearen egindako jarduketari amaiera ematen dio eta osasun administrazioaren neurri jakin batzuk hartzeko gomendatzen dio. Espediente honetan, herritar batek salatu zuen bere eskubideak urratu zizkiotela Santiagoko Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuan (Vitoria-Gasteiz) bere borondatearen aurka sartu zutelako.
1541/2012/39 espedientea

- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 5eko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio berriz atzer ditzala hildako pertsona baten dokumentazio klinikoa eskuratzeko eskaera ebazterakoan oinarritzat hartu diren irizpideak.
513/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 5eko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio berriz atzer ditzala hildako pertsona baten dokumentazio klinikoa eskuratzeko eskaera ebazterakoan oinarritzat hartu diren irizpideak.
1056/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 10eko ebazpena.** Horren bidez, aseguratutako gaixo bati egindako faktura berrius dadin gomendatzen da.
2415/2013/QC espedientea

B) FORU ADMINISTRAZIOA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ekintza Saila

- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 10eko ebazpena.** Horren bidez Bizkaiko Foru Aldundiari, (...) adingabe-koaren legezko tutorea den aldetik, hura defendatzea gomendatzen zaio, egoitza-baimena berritatzearan ezespenaren aurrean administrazioarekiko auzi errekurtsioa eginez.
1389/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 18ko ebazpena.** Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatzen zaio bete ditzala araudian exijitutako baldintza material eta funtzionalak babesik gabeko haurrentzako El Vivero zentroan, eta baztertzaleak ez diren laguntza- eta emantzipazio-programak ezar ditzala, zentroko gazteak gizarteratzeko eta lanerako gaitzeko.
2384/2013/QC espedientea

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua

- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 22ko ebazpena.** Horren bidez hainbat neurri gomendatzen zaizkio Eskola Kirola Programan kimu-kategoriako kirolarientzat "errendimenduko" emakumezkoen ligarik ez dagoelako.
2606/2012/32 espedientea

Gizarte Politikako Departamentua

- **Arartekoaren 2013ko irailaren 27ko ebazpena.** Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren adinekoentzako egoitzetako ikuskaritza-zerbitzuaren arreta falta salatzeko zabaldu zen 106/2012/39 kexa-espedientearen ondoriozko jarduera amaitutzat ematen da eta zerbitzu horri zenbait neurri hartzeko iradokitzen zaio.
106/2012/39 espedientea

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK

Menagarai-Beotegiko administrazio Batzarra

- **Arartekoaren 2013ko irailaren 25eko ebazpena.** Horren bidez Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordeari Kontzejuko herritar baten sinaduraren gainean egindako azterlan grafologikoaren txostena emateko gomendatzen diona.
2702/2012/29 espedientea

BIZKAIKO UDALAK

Zornotzako Udala

- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 5eko ebazpena.** Horren bitartez gomendatzen zaio udalerrian egindako obra batzuen harira udalaren kontrola eskatzen duten zenbait idazkiri erantzun diezaien.
558/2013/QC espedientea

Areatzako Udala

- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 8ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio furgoneta baten titularrari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergarengatik (TMIZ) igorritako hainbat ordainagiri berrikus ditzan eta zerga hori arautzen duen udaleko zerga-ordenantzaren 6.2.a) artikuluan jasotako xedapena baliogabetu dezan.
1836/2011/22 espedientea

Bilboko Udala

- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 9ko ebazpena.** Honen bitartez gomendatzen zaio etxebizitza batean esku hartzeko, haren osasungarritasunik eza dela eta.
2707/2013/QC espedientea
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 11ko ebazpena.** Horren bidez, Bilboko Udaltzaingoak abandonatuta dauden eraikin batzuetan lo egiten zuten etxerik gabeko atzerritar batzuk aterarazteari buruzko kexa baten ondoriozko jarduna amaitu da.
141/2013/QC espedientea

Erandioko Udala

- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 18ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio lurzoru ez urbanizagarrian egindako obren udalaren kontrola eskatzeko aurkeztutako salaketak izapidetu ditzan.
1133/2013/QC espedientea

Santurtziko Udala

- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 19ko ebazpena.** Horren bidez, derrigorreko baimena ez duen terraza bat kentzea gomendatzen zaio.
2053/2012/29 espedientea

Sestaoko Udala

- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 21eko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio kexagilea eta haren familia bizi diren helbidean errolda ditzan.
2202/2013/QC espedientea

GIPUZKOAKO UDALAK

Azkoitiko Udala

- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 11ko ebazpena.** Horren bidez gomendatzen zaio ofizioz baliogabetu ditzala kexagileari igorritako likidazioak hilerriaren 01.a) tasaren ondorioz eta tasa hori ordenantzatik kendu dezala.
2095/2012/22 espedientea

Debako Udala

- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 9ko ebazpena.** Horren bidez, gomendatzen zaio gai honengatik aurkeztutako hirigintza-salaketa izapidetu eta ebatz dezan: eraikin bateko lehen solairuan egindako obrak eta hirigintza-erabilerak.
2118/2013/QC espedientea

Errenteriako Udala

- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 5eko ebazpena.** Horren bitartez bide pribatu bat ixteko hirigintzako lizentziari ezarritako baldintza berrikusteko gomendatzen zaio.
1406/2013/QC espedientea

Lasarte-Oriako Udala

- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 13ko ebazpena.** Horren bidez, gomendatzen zaio irisgarritasun-neurriak har ditzan udal-kiroldegian.
1102/2013/QC espedientea

D) BESTE ERAKUNDE PUBLIKO BATZUK

UPV/EHU

- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 29ko ebazpena.** Horren bidez gomendatu zaio Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratadun irakasle eta ikertzaileen II. hitzarmen kolektiboaren 32.4. artikulua aldaketa sustatu dezala.
621/2013/QC espedientea



Eranskinak

a W I I I

1. (eranskina).

Eman diren ebazpenak

Eman diren ebazpenak

- **Arartekoaren 2013ko urtarrilaren 10eko ebazpena.** Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren ukapen bat berriro azter dezala, motibazioan akats bat egon baita.
- **Arartekoaren 2013ko urtarrilaren 14ko ebazpena.** Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren ukapen bat berriro azter dezala, motibazioan akats larria egon baita.
- **Arartekoaren 2013ko urtarrilaren 17ko ebazpena.** Horren bidez, Legorretako Udalarari gomendatzen zaio (...) tabernak eragindako kalteak saihesteko neurri egokiak har ditzan eta jarduera horri, al bait lasterren, ingurumeneko legeria bete dezala eska diezaion.
- **Arartekoaren 2013ko otsailaren 18ko ebazpena.** Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak «Etxebizitza Hutsaren Programa» (Bizigune) delakoan gaineratutako etxebizitzak, horien errentamendua amaitu ondoren, euren jabeei itzultzean etxebizitzek izan behar duten egoera zehazten da.
- **Arartekoaren 2013ko otsailaren 19ko ebazpena.** Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailari gomendatzen zaio balora dezala urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan eraikin bat jasotzeak duen interes publikoa, Sentikortas Kimiko Anizkoitzaren sindromea duen pertsona bat han aldi batean tratatzeko. Era berean, Erriberagoitiko Udalarari iradokitzen zaio erabilera publikotzat jotzeko adierazpena aipatu bezala baloratu ondoren, lizentzia-eskaera ebatz dezala eta, hala badagokio, bere udalerrian lurzorua erreserbatzea susta dezala, kolektibo horrentzako laguntza-ekipamenduak bertan kokatzeko.
- **Arartekoaren 2013ko otsailaren 20ko ebazpena.** Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta jakin bat berriro abian jar dezala eta Lanbidek zor dituen zenbatekoak ordaindu ditzala.
- **Arartekoaren 2013ko otsailaren 25eko ebazpena.** Jazotako gorabeheraren ostean, Oiolako urtegitik datozen hiri-hornidurarako uren kalitatearen kontrolaren jarraipenari buruzkoa.
- **Arartekoaren 2013ko otsailaren 26ko ebazpena.** Horren bitartez, Zumarragako Udalarari gomendatzen zaio lursail baten gehiegizko aprobetxamenduagatik igorritako balorazioa eta ondorengo likidazioak bertan behera utz ditzala.
- **Arartekoaren 2013ko otsailaren 27ko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriro aintzat har dezan arrazoi faltagatik bideratutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren etete bat.
- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 1eko ebazpena.** Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak «Etxebizitza Hutsaren Programa» (Bizigune) delakoan gaineratutako etxebizitzak, horien errentamendua amaitu ondoren, euren jabeei itzultzean etxebizitzek izan behar duten egoera zehazten da.
- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 4ko ebazpena.** Honen bidez, ofiziozko bi espediente amaitzen dira, genero indarkeria jasaten zuten eta bikotekide ohiek bortizki erasota hil ziren bi emakumeren kasuan emandako polizia arretaren zioz abiarazitakoak.
- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 5eko ebazpena.** Horren bitartez, Zornotzako Udalarari gomendatzen zaio udalerrian egindako obra batzuen harira udalaren kontrola eskatzen duten zenbait idazkiri erantzun diezaien.

- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 6ko ebazpena.** Horren bidez, Gatikako Udalari gomendatzen zaio partikularrei osoko bilkurak grabatzeko baimena eman diezaion.
- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 8ko ebazpena.** Horren bidez, Artziniegako Udalari gomendatzen zaio La Dehesako bide publikoa delakoari lotutako espedientearen prestutasunez izapidetu dezala.
- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 13ko ebazpena.** Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari gomendatzen dio pertsona batek ohiko etxebizitza eskuratzeko jaso duen dohaintza ekonomikoa errentatzen edo diru-sarreratzat har ez dadila, ordaindutakoaren araberakoa ez den pentsioaren ondorioetarako.
- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 14ko ebazpena.** Honen bidez, Gamiz-Fikako Udalari gomendatzen zaio udal-talde bati eskuordetutako udal-zeregina garatu ahal izateko beharrezkoa duen informazioa eman diezaion eta konfiantzazko langileen izendapena berrazter dezan.
- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 18ko ebazpena.** Horren bidez HABEri gomendatzen zaio hizkuntza proben espedienteetan bideak ireki ditzan agiriak eskuratzeko eskubidea bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izateko.
- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 18ko ebazpena.** Horren bidez, Asteasuko Udalak errolatzea ukatu izanagatik abian jarritako jarduera amaitutzat jotzen da.
- **Arartekoaren 2013ko martxoaren 25eko ebazpena.** Horren bidez, Lazkaoko Udalari gomendatzen zaio ofizioz balio gabetu ditzala kexagileari bi ibilgailuren gainean bidali zizkioten 2009, 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldietako TMIZen ordainagiriak, izan ere, ekitaldi horietan, ibilgailu horien zirkulazio-baimenetan ez zen agertzen Lazkao udalerrira titularraren bizileku gisa.
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 4ko ebazpena.** Horren bidez, Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio Eskola 2.0 hezkuntza programara sartzeko baldintzak berrikusi ditzan eta programa hori garatzeko irati-maiztasunen igorpen-mailak murrizteko aukera eskaintzen duten neurriak ezar ditzan.
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 5eko ebazpena.** Horren bidez, Astigarragako Udalari gomendatzen zaio Ergobia auzoan kokatuta dagoen (...) jardueraren sustatzaileari ingurumeneko legeria bete dezala eska diezaion.
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 8ko ebazpena.** Horren bidez, Areatzako Udalari gomendatzen zaio furgoneta baten titularrari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergarengatik (TMIZ) igorritako hainbat ordainagiri berrikusi ditzan eta zerga hori arautzen duen udaleko zerga-ordenantzaren 6.2.a) artikuluan jasotako xedapena balio gabetu dezan.
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 11ko ebazpena.** Horren bidez Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari proposatzen zaio herritar bati zuzendutako diru-sarrerak bermatzeko errenta gisako prestazioen erreklamazioa ondorioz gabe utz dezan.
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 11ko ebazpena.** Horren bidez, Iruña Okako Udalari salgai arriskutsuen tangen barneko garbiketako jardueran ingurumen araudia urratu izanagatik salaketari erantzun diezaioela gomendatu zaio.
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 15eko ebazpena.** Horren bidez, Zumaiako Udalari gomendatu zaio industria poligono baten mugakide den urbanizazio batean zarata kontrolatzeko araudiaren betetzea egiaztatze aldera dagozkion neurriekin aurrera jarrai dezala.
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 16ko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari (Lanbideri) gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren ukapen bat berriro aintzat har dezan.
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 18ko ebazpena.** Horren bidez, Erandioko Udalari gomendatzen zaio lurzoru ez urbanizagarrian egindako obren udalaren kontrola eskatzeko aurkeztutako salaketak izapidetu ditzan.
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 22ko ebazpena.** Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailari hainbat neurri gomendatzen zaizkio Eskola Kirola Programan kimu-kategoriako kirolarientzat «errendimenduko» emakumezkoen ligarik ez dagoelako.
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 24ko ebazpena.** Horren bidez, Basurto auzoan dagoen Funespañaren jabetzako eraikinetik atzerritarrak aterarazteari buruzko jarduera amaitzen da.
- **Arartekoaren 2013ko apirilaren 30eko ebazpena.** Horren bidez, LANBIDERI gomendatu zaio berariaz ebatz dezala enplegu autonomoa sustatzeko diru-laguntza eskaera bat.
- **Arartekoaren 2013ko maiatzaren 6ko ebazpena.** Honen bidez amaitzen da Legazpiko udalerrian hondakinak atez ate biltzeko sistema ezarri nahi dutela-eta egindako jarduketa.
- **Arartekoaren 2013ko maiatzaren 7ko ebazpena.** Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari gomendatzen zaio berriro aintzat har dezan arrazoi faltagatik bideratutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren iraungitzea.
- **Arartekoaren 2013ko maiatzaren 9ko ebazpena.** Horren bidez, Bilboko Udaleko biztanleen erroldan inskribatzeari edota datuak aldatzeari buruzko hainbat egoeraren inguruko jarduera amaitzen da.
- **Arartekoaren 2013ko maiatzaren 15eko ebazpena.** Horren bidez Sestaoko Udalari gomendatzen zaio barne dekoratzaile eta diseinatzaileek hainbat proiektu idatzi eta zuzentzeko duten eskumena aitortu dezan.
- **Arartekoaren 2013ko maiatzaren 23ko ebazpena.** Horren bidez, amaitu da argazki eta bideo intimoen Internet bidezko ustezko hedapen baimendu gabeari buruz ofizioz hasitako jarduketa.
- **Arartekoaren 2013ko maiatzaren 31ko ebazpena.** Horren bidez, Erandioko Udalari gomendatzen zaio har ditzala bidezko neurriak (...) pub tabernak eta herriko jailetan pubaren inguruetan ipintzen den plataformak eragozpen gehiagorik sor ez dezaten.
- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 10eko ebazpena.** Horren bidez Bizkaiko Foru Aldundiari, (...) adingabe-

koaren legezko tutorea den aldetik, hura defendatzea gomendatzen zaio, egoitza-baimena berriztatzearen ezepenenaren aurrean administrazioarekiko auzi errekurtsua eginez.

- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 11ko ebazpena.** Horren bidez, Gurutzetako Laguntza Psikosozialeko Moduluaren Elkartek eta hiru erabiltzailek hasitako kexari buruzko jarduera bukatzen da, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari zenbait hobekuntza neurri bultzatzeko gomendatuz; izan ere, kexa hori egin zen osasun administrazioak elkarte horrekin izenpetutako lankidetzak hitzarmena berritzeko asmorik ez zegoelako eta horrek moduluaren itxiera ekar zezakeelako.
- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 12ko ebazpena.** Horren bidez erantzuna eman zaie Eroskiren eta Fagorren mendeko finantza-ekarpenak merkaturatzeari buruzko kexei.
- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 13ko ebazpena.** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendio bat egiten diona, diru-sarrerak bermatzeko errenta bat eta etxebizitzarako prestazio osagarri bat kentzeko ebazpena, egitate-bidetik hartua, ondorioz gabe utz dezan.
- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 19ko ebazpena.** Horren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostiako Udalari gomendatzen zaie futboleko aritzeko espazio publikoetan eta, bereziki, Kontxako hondartzan, neurriak hartzen eta txapelketa maskulinoak eta femeninoak berdintasun irizpideei jarrai joka daitezen.
- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 26ko ebazpena.** Horren bidez, Laguardiako Udalari etxebizitza mugakide batean eguzki-energia atzitzeko sistema bat instalatu izanagatik salaketa bati erantzun diezaiola gomendatu zaio.
- **Arartekoaren 2013ko ekainaren 27ko ebazpena.** Horren bidez, Getxoko Udalak kazetari plazak betetzeko deitu zuen oposizio-lehiaketari buruz egindako jarduerari amaiera ematen zaio.
- **Arartekoaren 2013ko uztailaren 3ko ebazpena.** Horren bidez, Elorrioko Udalari gomendatzen zaio beharrezko neurriak sustatzea, lokal partikular batean kontserbazio-, higie- eta osasungarritasun-betebeharrak betetzeko.
- **Arartekoaren 2013ko uztailaren 4ko ebazpena.** Horren bidez Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta baten suntsiarazpena ondorioz gabe utz dezala.
- **Arartekoaren 2013ko uztailaren 5eko ebazpena.** Horren bidez, Berangoko Udalari iradokitzen zaio beharrezko neurriak hartu ditzan, aisialdiko gazte-lokalek sortutako eragozpenak saihesteko.
- **Arartekoaren 2013ko uztailaren 5eko ebazpena.** Horren bidez, Elorrioko Udalari gomendatzen zaio hirigintza-araudia urratzeagatik isun bat ondorez gabe utzea.
- **Arartekoaren 2013ko uztailaren 13ko ebazpena.** Gasteizko garraio publikoko sistemaren erabiltzaileek BAT txartelaren iraungitasunari buruzko informaziorik eza dela-eta aurkeztu dituzten kexen gaineko jarduketak bukatutzat eman duena.
- **Arartekoaren 2013ko uztailaren 30eko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta baten eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren ukapena, horretarako ziorik ez dagoelako.
- **Arartekoaren 2013ko abuztuaren 13ko ebazpena,** Aste Nagusian Bilboko Udalak Europa parkea kontzertuarako eremu gisa erabiltzeari buruzkoa.
- **Arartekoaren 2013ko abuztuaren 23ko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta baten iraungipena babesik gabeko egoera eragin duten forma-akats larriak jazo baitira.
- **Arartekoaren 2013ko abuztuaren 27ko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio kautelaz etendako diru-sarrerak bermatzeko errenta berrabiaraz dezan eta kautelazko neurri horiek jakinaraz ditzan.
- **Arartekoaren 2013ko abuztuaren 27ko ebazpena.** Horren bidez, hauxe gomendatzen zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari: betebeharrak bat ustez urratu zen egunera eraman dezala diru-sarrerak bermatzeko errentari eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzko espediente bat, alegazioak egin ahal izateko, izan ere, akatsak egon dira motibazioan eta ez dira behar bezala bete prozedura-arauak.
- **Arartekoaren 2013ko abuztuaren 30eko ebazpena.** Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio sinatutako kontratua bete dezala eta «...» erakusketaren katalogoa argitaratu dezala.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 6ko ebazpena.** Horren bidez Sestaoko Udalari gomendatzen zaio eroldari lotutako hainbat praktika legezketasunera egoki ditzan.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 9ko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zaio aplikagarriak diren arauetan jasotako baldintza guztiak betetzen dituen eskatzaile bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eman diezaiola.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 9ko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta baten eta etxebizitzarako prestazio osagarri baten iraungipena ez baitago hala jarduteko arrazoirik.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 11ko ebazpena.** Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio erantzuna eman diezaiola lokal baten irisgarritasun araudiaren eta baldintza higieniko-sanitarioen betetzea ikuskatzeko egindako eskaera bati.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 12ko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta bat berrabiaraz dezan, ofiziozko berraztertze prozedura bat hasi dela alde batera utzita.

- **Arartekoaren 2013ko irailaren 12ko ebazpena.** Horren bidez amaiera ematen zaio gure esku-hartzeari, auzokide-talde batek Erandion Kukularra eta Altzaga arteko lotura eta aisialdi-eremua sortzeko udal-obren proiektuarekiko desadostasuna agertzean planteatu digun kexari dagokionez.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 17ko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurilaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari iradokitzen zaio salgai arriskutsuen zisternak barrutik garbitzeko jardueraren kontrolarekin jarraitzeko.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 19ko ebazpena.** Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari gomendatu zaio (...) adingabearen legezko tutorea denez, Arabako Probintzia Fiskaltzan premiarenduzko kontsulta egin dezala fiskaltzaren dekretuan adierazitako adina eta Kamerunek Madrilen duen Enbaxadan ondoren emandako pasaportearen ageridun jaioteguna ez baitatzen bat.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 19ko ebazpena.** Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari gomendatu zaio (...) adingabearen legezko tutorea denez, tutore izateak eta osoko arreta eskaintzeak berekin dituen betebeharrak bete ditzala inolako salbuespenik gabe, erregulazio administrati-boa lortzekoak barne.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 19ko ebazpena.** Horren bidez bere jarduerari amaiera ematen zaio, GIBLZen (Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren) desagertzearen ondoren genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen arreta- eta laguntza-egoera salatzen duen kexa bati dagokionez.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 23ko ebazpena.** Horren bidez Laudioko Udalari gomendatzen zaio jabetza pribatu baten sestra gaineko erabilera publikoaren ondoriozko betebeharrak beregain har ditzala.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 23ko ebazpena.** Horren bidez, Ingurumen Sailak ingurumen-informazioaren eskaera bati emandako erantzuna agerian jartzen da.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 25eko ebazpena.** Horren bidez Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordeari Kontzejuko herritar baten sinaduraren gainean egindako azterlan grafologikoaren txostena emateko gomendatzen diona.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 25eko ebazpena.** Horren bidez, Osasun Sailari gomendatzen zaio paziente bati sendagai baten finantzazioari begira emandako ukoa berrikusteko; izan ere, gaixo honen benetako beharizan eta premia bestelako patologia batean kontuan hartu den berbera da eta azken hori finantzatu egiten da.
- **Arartekoaren 2013ko irailaren 27ko ebazpena.** Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren adinekoentzako egoitzetako ikuskaritza-zerbitzuaren arreta falta salatze-ko zabaldu zen 106/2012/39 kexa-espeditzearen ondorioz-ko jarduera amaitutzat ematen da eta zerbitzu horri zenbait neurri hartzeko iradokitzen zaio.
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 1eko ebazpena.** Horren bidez, Zumarragako Udalari etxebizitza-erakin bateko hezetasun-arazoak konpontzeko beharrezko neurriak hartzeko gomendatzen zaio.
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 7ko ebazpena.** Horren bidez, Bilboko Udaltzaingoaren atestatu batek hura bideratzea eragin zuten gertaerak behar bezala adierazi ez zituela salatzen zen kexan izan duen jarduketa amaitzen da.
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 8ko ebazpena.** Horren bidez, osasun-laguntza doan jasotzeko eskubidea izan dezaketen pertsonen premiako osasun-laguntza fakturatzeari buruz abiarazitako espeditzea amaitzen da.
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 8ko ebazpena.** Horren bidez, Laguardiako Udalak ondoko lur-zatien obrak egitearen kontrako salaketari erantzunik eman ez ziolako hasitako esku-hartzea amaitutzat ematen da.
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 10eko ebazpena.** Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari diru-sarrerak bermatzeko errenta baten etenaldia bertan behera uzteko gomendatzen zaio hura justifikatzen duen ziorik ez dagoelako.
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 14ko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurilaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari gomendatzen zaio sarrerak bermatzeko errenta baten azkentzea ondorioz gabe utz dezala, motibazioan erroreak daudelako.
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 15eko ebazpena.** Horren bidez Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari gomendatzen zaio berriro azter dezala benetako bizilekuaren baldintza galdu izanagatik Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta bat suntsiaraztea.
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 16ko ebazpena.** Horren bidez 1541/2012/39 kexa espeditzean egindako jarduketari amaiera ematen dio eta osasun administrazioaren neurri jakin batzuk hartzeko gomendatzen dio. Espediente honetan, herritar batek salatu zuen bere eskubideak urratu zizkiotela Santiagoko Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuan (Vitoria-Gasteiz) bere borondatearen aurka sartu zutelako.
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 28ko ebazpena.** Horren bidez, gomendatzen zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari berrazter dezan eskaera honi buruz hartutako erabakia: 2013-2014 ikasturterako ikasleen onarpen-prozesuan aurkeztutako onarpen-eskaera.
- **Arartekoaren 2013ko urriaren 31ko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurilaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari prestazioak ukatzeko ebazpen bat bertan behera uzteko, jarduera interesdunak agiriak aurkeztu zituen unera atzera eramateko eta dagozkion atzerakinak ordaintzeko gomendatzen da.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 5eko ebazpena.** Horren bidez Osakidetza gomendatzen zaio berriz azter ditzala hildako pertsona baten dokumentazio klinikoa eskuratzeko eskaera ebazterakoan oinarritzat hartu diren irizpideak.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 5eko ebazpena.** Horren bidez Osakidetza gomendatzen zaio berriz azter ditzala hildako pertsona baten dokumentazio klinikoa eskuratzeko eskaera ebazterakoan oinarritzat hartu diren irizpideak.

- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 7ko ebazpena.** Horren bidez, jendeari zabalduzako establezimendu pribatu batean onarpen-eskubidea gehiegikeriaz eta diskriminazioz erabili izanaren ondorioz pertsona batek jarritako erreklamazioaren aurrean Gasteizko Udalak egindako jarduera salatzen duen kexa-espeditentea amaitutzat ematen da.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 11ko ebazpena.** Horren bidez, Azkoitiko Udalarari gomendatzen zaio ofizioz balio gabetu ditzala kexagileari igorritako likidazioak hilerriaren 01.a) tasaren ondorioz eta tasa hori ordenantzatik kendu dezala.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 13ko ebazpena.** Horren bidez, gomendatzen zaio Lasarte-Oriako Udalarari irisgarritasun-neurriak har ditzan udal-kiroldegian.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 18ko ebazpena.** Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatzen zaio bete ditzala araudian exijitutako baldintza material eta funtzionalak babesik gabeko haurrentzako El Vivero zentroan, eta baztertzaleak ez diren laguntza- eta emantzipazio-programak ezar ditzala, zentroko gazteak gizarteratzeko eta lanerako gaitzeko.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 19ko ebazpena.** Horren bidez, derrigorreko baimena ez duen terraza bat kentzea gomendatzen zaio Santurtziko Udalarari.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 21eko ebazpena.** Horren bidez, Sestaoko Udalarari gomendatzen zaio kexagilea eta haren familia bizi diren helbidean errolda ditzan.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 26ko ebazpena.** Horren bidez, bukatu du bere jarduera irakasleen ordezkapenarako izangai batzuek egindako kexan (2279/2013/20 zenbakikoa). Lehengo Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lehen hezkuntzako irakasleentzat homologatu zuen ikastaro bat gainditu ondoren, izangai horiei ukatu egin zaie pedagogia terapeutiko eta atzerriko hizkuntza-ingelesa espezialitateetan sartzeko egin zuten eskaera, 2013ko apirilean iragarritako urteko birmaremasio-prozesuan.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 26ko ebazpena.** Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrikus dezan kexagileari Eskatzaileen Erregistroan baja emateko ebazpena, ez delako egiaztatuturik geratu esleitu zitzaion babes ofizialeko etxebizitzari uko egin zionik.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 27ko ebazpena.** Horren bidez, gomendioa egin zaio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroaren jarduketari buruz.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 27ko ebazpena.** Horren bidez, amaitu du gaixotasun larri batengatik lehen mailako ahaidetasuneko senide bat zaintzeko baimenari zegokion jarduera bat (197/2013/20 zenbakiko kexa-espeditentea).
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 27ko ebazpena.** Horren bidez, kexa aurkeztu duenak, Zeinu Lengoaiaren Interpretak ordezkatzeko izangaia denak, administrazioan eginiko erreklamazioari emandako tratamendua berrikustea gomendatzen zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, baita deirik jaso ez izanagatik egin ez zuen zerbitzu-aldiari dagokion puntuazioa aintzatetsi diezaiola ere.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 29ko ebazpena.** Horren bidez, EHUari gomendatu zaio Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratadun irakasle eta ikertzaileen II. hitzarmen kolektiboaren 32.4. artikulua aldaketa sustatu dezala.
- **Arartekoaren 2013ko azaroaren 29ko ebazpena.** Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailari Justizia Administrazioaren erabiltzaileei arretoa hobe eskaintzeko hainbat neurri hartzea gomendatzen dio.
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 5eko ebazpena.** Horren bidez, gomendatzen zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari ondorioz gabe utz dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta baten horri dagokion Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren etetea, arrazoirik gabea izateagatik eta prozedura-arauak bete ez izanagatik.
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 5eko ebazpena.** Horren bitartez, Errenteriako Udalarari bide pribatu bat ixteko hirigintzako lizentziari ezarritako baldintza berrikusteko gomendatzen zaio.
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 9ko ebazpena.** Honen bitartez, Bilboko Udalarari gomendatzen zaio etxebizitza batean esku hartzeko, haren osasungarritasunik eza dela eta.
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 9ko ebazpena.** Horren bidez, gomendatzen zaio Debako Udalarari gai honengatik aurkeztutako hirigintza-salaketa izapidetu eta ebatz dezan: eraikin bateko lehen solairuan egindako obrak eta hirigintza-erabilerak.
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 10eko ebazpena.** Horren bitartez, espeditentea diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatu zen unera atzera eramateko eskatu zaio Lanbideri.
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 10eko ebazpena.** Horren bidez, aseguratutako gaixo bati egindako faktura berrikus dadin gomendatzen da.
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 11ko ebazpena.** Horren bidez, Bilboko Udaltzaingoak abandonatuta dauden eraikin batzuetan lo egiten zuten etxerik gabeko atzerriar batzuk aterarazteari buruzko kexa baten ondoriozko jarduna amaitu da.
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 12ko ebazpena.** Horren bidez, Donostiako udalerriko telefonia mugikorreko deien banaguneko hainbat instalazioren udal kontrola jorratu da.
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 19ko ebazpena.** Horren bidez, gomendatzen zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari Donostiako Arte Ederren erakina kultur ondasun izendatzeko espeditentea has dezan.
- **Arartekoaren 2013ko abenduaren 26ko ebazpena.** Horren bitartez, haize parke bat baimentzeko administrazio-izapidetzea eta haize-energiaren inguruan gizartearen adostasunaren sustapena hizpide zituen kexa-espeditentea amaitu da

2. (eranskina).

Grafikoen eta taulen aurkibidea



Grafikoen aurkibidea

(1. grafikoa)	Arartekoari 2013an egindako kexak.....	20	(13. grafikoa)	Kexa-espeditenteen egoera.....	30
(2. grafikoa)	Arartekoaren jarduera guztiak 2013an.....	20	(14. grafikoa)	Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera.....	31
(3. grafikoa)	Urteko jardueren konparaketa.....	21	(15. grafikoa)	Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera.....	32
(4. grafikoa)	Aurrez aurreko kexen eta telefonozko aholkuen kopurua arreta zuzeneko bulegoetan.....	21	(16. grafikoa)	Kexen banaketa, herritarrek erabili duten bidearen arabera.....	32
(5. grafikoa)	Erregistratutako kexa idatzien kopuruaren bilakaera (2000 -2013).....	22	(17. grafikoa)	Arreta zuzeneko bulegoetan kexak egin dituzten pertsonen ezaugarriak.....	33
(6. grafikoa)	Onartu gabeko kexa idatziak eta egoerak.....	23	(18. grafikoa)	Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?.....	33
(7. grafikoa)	Bideratutako espeditenteen banaketa, eragindako administrazioen arabera.....	25	(19. grafikoa)	Nolakoa iruditu zaizu Ararteko erakundeko langileek eman dizuten arreta (laguntzeko prest egotea, tratua, enpatia...)?.....	34
(8. grafikoa)	Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurka (Eusko Jauriaritza) bideratu diren espeditenteen banaketa, sailen arabera.....	26	(20. grafikoa)	Oro har, nolakoa iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...).....	34
(9. grafikoa)	Foru administrazioen aurka bideratutako espeditenteen banaketa, lurraldeen arabera.....	26	(21. grafikoa)	Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora joateko gomendatuko zenioke?.....	34
(10. grafikoa)	Erregistratutako kexa-espeditenteen lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera (2000-2013)..	28	(22. grafikoa)	Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik tramitazioa bukatu arteko denbora?.....	34
(11. grafikoa)	Erregistratutako erreklamazio idatziak lurraldez lurralde, 10.000 biztanleko (2000-2013).....	28	(23. grafikoa)	Zure ustez, nolakoa da Arartekoak gizartearen eta herri-administrazioaren aurrean duen irudia eta sinesgarritasuna?.....	35
(12. grafikoa)	2013an bukatu diren espeditenteak.....	29			

Taulen aurkibidea

(1. taula)

Ararteko erakundearen esku-hartzearen
eraginkortasun-maila..... 21

(2. taula)

Hasitako kexa-espedienteen banaketa,
jarduera-arloaren arabera..... 24

(3. taula)

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren
aurka (Eusko Jurlaritzza) bideratu diren
espedienteen banaketa, arloen arabera..... 25

(4. taula)

Foru administrazioen aurka bideratu diren
espedienteen banaketa, arloen arabera..... 26

(5. taula)

Tokiko administrazioen aurka bideratutako
espedienteen banaketa 27

(6. taula)

Autonomia erkidegoko udalen aurka bideratutako
espedienteak..... 27

(7. taula)

Euskal Herriko Unibertsitatearen aurka bideratutako
kexa-espedienteak 27

(8. taula)

Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo
lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek egin
dituzten kontuan hartuta 29

(9. taula)

Ofiziozko espedienteen banaketa, arloen arabera 30

3. (eranskina).

Arartekoaren argitalpenak

Arartekoaren argitalpenak

Txosten bereziak

- *Kalabozoak. Ertzaintzaren eta udalen atxiloketa egoitzak.* 1991.
- *Psikiatrikoak. Ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera.* 1992.
- *Adinekoen egoitzak Euskal Autonomi Elkartearen (1992-1993).* 1994.
- *Euskal Herriko Ararteko Erakundearen lehen bost urteak (1989-1994).* 1994.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia (1994-1995).* 1996.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoera.* 1996.
- *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak.* 1997.
- *Adin txikiko lege-hausleak.* 1998.
- *Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urtegietan.* 1999.
- *Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera EAEn.* 1999.
- *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo.* 2000.
- *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna.* 2001.
- *Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan.* 2002.
- *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn.* 2003.
- *Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna.* 2003.
- *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn.* 2003.
- *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak.* 2005.
- *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn.* 2005.
- *Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna.* 2006.
- *Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan.* 2006.
- *Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn.* 2007.
- *Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak. Hurbilketa.* 2008.
- *Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzak.* 2008.
- *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta.* 2009.
- *Adingabekoei balioak transmititzea.* 2009.
- *Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin.* 2009.
- *EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan.* 2010.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera.* 2010.
- *EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa.* 2011.
- *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak.* 2011.
- *EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa.* 2011.
- *E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea.* 2013.

Urteko txostenak

- Liburukiak: 1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013.

Arartekoaren gomendioak

- **Gomendioak** 2002, 2003, 2004.

Bestelako argitalpenak

- **Idatz arauak / Normas de redacción.** 1992.
- **Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra. Herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia.** 1993.
- **Esanak eta eginak / Dichos y hechos. Juan San Martín, Arartekoa.** 1994.
- **XV Jornadas de Coordinación de Defensores del Pueblo.** 2000.

Faksimilak

- **Jaquin-bide Iritarautia** - 1820. Kadizko Konstituzioari buruz euskaraz idatzitako eskuizkribu argitaragabea, irakaskuntzarako moldatua. 1991.
- Gaioren **Institutionum.** 1992. (Gaztelaniazko lehen argitaralditik aterea, Madril, 1845).
- Aita Frantzisko Vitoriakoaren **De indis insulanis. De iure belli.** 1993. (Lyonen 1557an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Valentín de Forondaren **Cartas sobre la policía.** 1998. (Iruñean 1820an egindako bigarren argitaralditik aterea).
- Miguel de Lardizábal y Uriberen **Apología por los Agótes de Navarra y los Chuetas de Mallorca, con una breve digresión á los vaqueros de Asturias.** 2000. (Madrilen 1786an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Manuel de Lardizábal y Uriberen **Discurso sobre las penas contrahido á las leyes criminales de España, para facilitar su reforma.** 2001. (Madrilen 1782an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Xabier Maria Muniberen **Discursos inéditos.** 2002.
- Rita de Barrenechea eta beste emakume batzuk. **Catalin y otras voces de mujeres en el siglo XVIII.** 2006.

«P. Francisco de Vitoria» Giza eskubideen saila (bekadunen lanak)

- E. J. Ruiz. **El derecho al ambiente como derecho de participación.** 1993.
- M. Á. Encinas. **Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991).** 1994.
- G. Varona. **La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos.** 1994.
- A. Bergara. **Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean.** 1996.
- M^a J. Fernández de Landa. **El control interinstitucional en la Unión Europea.** 1996.
- I. P. Sánchez. **Rechazo social hacia las personas seropositivas en la CAPV.** 1998.
- J. Morquecho. **Intervención comunitaria en Euskadi. Acercamiento a la acción social sobre la exclusión.** 1999.
- G. Moreno. **Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto.** 2003.
- A. Olarte. **Alternativas a la cárcel en Euskadi: el trabajo en beneficio de la comunidad.** 2006.
- B. Sicilia. **Derechos fundamentales y Constitución Europea.** 2006.
- J. Zarauz. **Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular.** 2007.
- I. Mujika. **Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi.** 2007.

«Francisco de Vitoria» Giza eskubideen bilduma

Hausnartzeko eta parte hartzeko foroak

- **Eskolako bizikidetasuna eta gatatzak.** 2007.
- **Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan.** 2008.
- **Cannabisa. Erabilerak, segurtasun juridikoa eta politikak.** 2011.

Jardunaldiak

- **Eskubide sozialen egungo egoera.** 2008.
- **Politika publikoen erronkak demokrazia aurreratu batean.** 2009.
- **Eskubide sozialak krisi garaian (CD-ROM).** 2012.

«Juan San Martín» Giza eskubideen bilduma (bekadunen lanak)

- J. M. Septién. *Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*. 2006.
- A. Bacigalupe, U. Martín. *Osasun arloko gizarte desberdintasunak EAEko biztanleen artean*. 2007.
- J. L. Fuentes, T. L. Vicente. *Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan. Egoera eta itxaropenak*. 2007.
- F. J. Leturia, N. Etxaniz. *Adinekoen eskubideak eta tratu desagokiaren prebentzioa*. 2009.
- I. Orbegozo, A. I. Pérez, L. Pego. *Gizabanakoari eskubideak etetea terrorismo kasuetan: arreta berezia atxiloaldi inkomunikatuari*. 2009.
- A. Gozalo, E. Jiménez, L. Vozmediano. *Adingabeak edo atzerritarrak? Esku hartzeko politiken azterketa, lagundu gabeko adingabe atzerritarren gainekoa*. 2010.
- M. Arnoso, M. Mazkieran, A. Arnoso, S. Luciani, A. Villalón, A. Otaegi. *Etorkinek zerbitzu eta prestazioetara duten sarbidea, Euskal Autonomia Erkidegoan*. 2011.
- Farapi: Ana Beatriz Rodríguez Ruano, Oihane García Santiago, Amaia Benito Pumarejo, Araitz Rodríguez Gutiérrez, Nerea Elías Muxika, Begoña Pecharromán Ferrer. *Aplicación de los derechos de las personas usuarias y consumidoras en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CD-ROM)*. 2012.

Material didaktikoak

- G. Azkarate, L. Errasti, M. Mena. *Giza Eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak* (Bigarren Hezkuntza). 2000.
- Zenbait egile (IPE). *Gure eskubideak* (Lehen Hezkuntza). 2001.
- E. Acero, I. Mier. *Giza eskubideak jokoan* (Bigarren Hezkuntza). 2001.
- Mugarik Gabe. *Sortuz / Generando* CDa. 2004.
- Ikasleen lanak. *Gure eskubideak / Nuestros derechos*. 2004.
- *ZiberBullying-a. Teknologia berrien bidezko jazarpena prebenitzeko material didaktikoa*. 2008.
- *Leihoak. Abentura ERREALA Mundu BIRTUALEAN. Gozatu Internetez... Sarean erori gabe*. 2008.

«Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma

- *El derecho a la no discriminación por motivo de raza*. 1997.
- *Vigencia y futuro de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en su 50 aniversario*. 1998.
- *Los derechos no caducan con la edad: el año internacional de las personas mayores*. 1999.
- *Una cultura de paz: cimiento para los derechos humanos*. 2000.
- *Responsabilidad penal de los menores: una respuesta desde los derechos humanos*. 2001.
- *Derechos humanos y nuevas tecnologías*. 2002.
- *La prevención y erradicación de la tortura y malos tratos en los sistemas democráticos*. 2003.
- *El trabajo en el siglo XXI: perspectivas de futuro*. 2004.
- *Familia berriak eta berdintasun printzipioa: eztabaida irekia*. 2005.
- *Arartekoa: XXI. menderako Ombudsmana*. 2006.
- *Herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzea. Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko IV. Foroa: Herritarren partaidetza: fikzioa ala errealitatea?* 2007.
- *Osasun mentala eta pertsonen eskubideak*. 2008.
- *Haurrak babesteko sistemak eta horien erronkak*. 2009.
- *Lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten laguntzeko politika publikoak berriz aztertze bidean*. 2010.
- *Gaixotasun arraroak: arreta publikoa behar duen errealitate baten argi-itzalak*. 2011.
- *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta enpresa pribatuek interes orokorreko zerbitzuak egitea* (CD-ROM). 2012.
- *Pertsonen eskubideak babestea finantza-erakundeekin dituzten harremanetan* (CD-ROM). 2013.



ISSN 2255-4866



9 772255 486007

12



www.ararteko.net